

Iurretako **b**erbeta eta **l**iteratura: **s**ator **h**egalariak

lurretako **b**erbeta eta **l**iteratura: **s**ator **h**egalariak

Edizioa:

XABIER BOVEDA • JOSEBA SARRIONANDIA

Azala:
IRAIA OKINA
Azalaren eskuineko hegaleko pintura:
SANTOS OKINA
Alboko orrialdeko argazkia:
RICHARD DOLIWA



© Xabier Boveda / Joseba Sarrionandia, 2024

© Pamiela argitalpen honengatik

Discinua eta fotokonposaketa:

PAMIELA

Baratzeetako zeharkalea 2

31014 Iruñea (Nafarroa)

www.pamiela.com • 948 326535 • admin@pamiela.com

LG NA 1984-2024

ISBN: 978-84-9172-406-3

Nafarroan **Rodona Industria Gráfica**k moldatu eta egina
Agustindarren industrialdea/Soltxate, A kalea, D12 nabea.
31013 Iruñea

Printed in Navarre

Iurretako **ber**beta eta **l**iteratura:
sator **h**egalariak



ATAURREA

1

Azken mende eta piku honetan Iurretan euskaraz idatzitako paper zaharren bila hasi ginen orain urte batzuk. Euskaldunak korrontearen kontra ibili behar izan duen sasoia izan da XIX. gizalditik hona artekoa.

Elisée Reclus geografoak, Lehenengo Internazionaleko militante anarkista eta bidaiari nekaezinak, euskaldunei buruzko artikulu bat argitaratu zuen *Revue des Deux Mondes* aldizkarian, Parisen, 1867ko maiatzean, titulu kezagarria zuena, euskaldunentzat behintzat: *Les Basques, un peuple qui s'en va*.

Eta XX. mendera sartzearekin, Miguel de Unamunok, Bilboko oholtza batean paratuta, espainol bihurtzeko erregutu zigun euskaldunoi, edo frantses, edo beste edozer, gure hizkuntza eta gure kultura munduan sobran zeudelako, Charles Darwinen filosofiak frogatua omen zuenez. Ez zuten pronostiko hain zientifikorik ez argudio hain filosofikorik behar izan geroxeago Miguel Primo de Rivera (*Erriberako lehengusua* deitzen zion Manuel Arregik) jeneralak eta, laster, Francisco Franco jeneralisimoak euskaldunen asmo kultural edo politikoak hondatzeko, eta hizkuntza bera debekatzeko.

Iurretar asko euskara espazio publikoan galazota zegoen gizarte batean hazi ginen. Berbetarekin batera, kultura eta politika ere kendu zitzaizkigun. Hain barik, etxezuloan gorde behar izan genituen luzaroan gure libertate murriztuak eta gure hizkuntza baztertuaren berbak.

2

Azken mende eta piku honetan, euskalduna izatea ez da erraza izan Iurreta alde honetan. Historia azeleratu egin zaigu, gainera: herria hiri bihurtu, baserri sozio-ekonomia desagertu, bizpahiru belaunalditan dena aldatuz.

Ahazkotasunaren munduaren gainean Gutenberg-en mundua (idatziarena) ezarri zen, eta gero Marconi-rena (irradi eta telebistarena). Estatalizazioa, emigratzioa, industrializazioa, gerratea, immigrazioa, teknologien bilakaera harrigarria... Eta, XXI. mende honetan, herri tradizionala desagertzearekin batera, laugarren mundu-aro bat heldu zaigu, interkonexio global eta birtualitatearena. Gero eta aireanago bizi gara, zapaltzen dugun lurretik eta auzokoengandik aparteago.

Etiketarik irten eta eskaileran topatzen dituzun auzokoak ezezagunak dira, kalean agurtzen duzun laguna presaka doa aireporturantz (hegazkina hartu behar du, New Yorkera oporretan), eta, tabernara sartzean, neska batzuk ikusiko dituzu

mobilaria hizketan, eta gizon bat *El Correo* leitzen (1937ko udaberrian fundatu eta beti moral politikoarekin hain koherente mantendu den egunkaria). Hizkuntzaren kontua (eta politikarena ere bai) apur bat eskizofrenikoa bihurtu zaigu bizi garen nazio-estatuotan. Erdaraz egiten badugu, irekiagoak omen gara espainolentzat; eta frantsesentzat ere bai (irekiagotzat hartuko zenituzke zuk haiek, euskaraz egingo balute noizenoiz). Euskaraz eginez gero, ez gara aski bilingueak elebakarrentzat.

Pertsona barru-zatituak gara, herri barru-zatitu honetan. Kolonizatuak izan gara, eta, hori ahaztu ahala, geure buruaren eta besteen kolonizatzaile. Gizabako indibidualarentzat, non bizi den ez-ezagutzea, oroimena endredatzea eta hizkuntza galtzea arazo larria litzateke. Gizarte osoarentzat ere ez da onuragarria esandakoa, egindakoa, jasandakoa eta gozatutakoa ahanzturaren osin beltzean galtzea (alzheimer kolektibo modukoa litzateke). Bere nortasunaren osagarriez arduratzen ez den herriak ez du bizitza luzerik izango.

Euskaldun askok geure libertatetzat hartzen dugu bizi garen lekua ezagutzea, euskaraz egitea eta herri lez irautea. Munduan mila herri dira, eta nahi gurek gure kultura ere beste kulturen pare bizitzea. Demokrazia hainbeste aipatzen delarik, geuk ere erabakitzeke eskubidea izatea.

3

Azken mende eta piku honetan, Iurretan ere behin eta berriro egin da euskaraz idazteko ahalegina. Espainiako estatuak goitik behera ezarritako instituzio politiko aldaezinen, kultura espainol obligatuaren eta gaztelania inperial sorgorren azpitik, beste zerbait egon da beti gure lurra mobitzen.

Euskaldunak satortxoan moduan ibili dira. Debekuen azpitik, oztopoen gainetik, zailtasunen aldamenetik, hanka labur eta indartsuz lurpetik eginez tunelak eta galeriak. Landa-lurren eta kale-asfaltoen azpitik, behatzazkal nekaezinez, estatuaren aparatuen oinarri bortitzekin borrokan askotan, batera eta bestera zulo-bideetan barrena, kultura baztertu eta kaltetua berrosatzen.

Iurretako satortxoek (Anboto, Mugarra edo Oiz baino harantzagoko kideen berri izan orduko ere) hauxe jakin dute: euskarak ez du munduan lekurik izango, Iurretan eta iurretarren artean egin ezik leku hori.

Gure hizkuntza Europako zaharrena dela esaten dute baten batzuek (arkeologia museoan gorde nahi balute bezala), baina esan behar dugu Munduko berriena ere badela (gureak egin duela badirudi ere, dena dugulako egiteko). Gure berbeta eta gure literatura, gurea dela esaten dugu, ez delako inorena. Geurea da, inorena ez delako, eta, beraz, denona delako.

Denontzat da onuragarria izatea bizi garen lekuaren kontzientzia (herritxo, nazio, estatu, kontinente, planeta), aurretik gertatutakoaren memoria (historia),

auzotasun zentzua (elkartasun gogoa), eta berbeta propioa eta komuna (hizkuntza guztiak baitira unibertsalak, galiziera ere bai).

Iurretako satortxo horiek, dominazio sistemaren eta botere mekanismoen azpitik, denontzako mundu hobe eta ederrago baten alde egiten dute euskaraz. Hegan egin nahi dute, gainera, sator txiki, kementsu, nekagaitz horiek. Txoriarri bezain beharrezko zaizkio hegalak satorrari; baita hizkuntzari ere («nik ere, hizkuntza larreakoa, nahi haut ere noranahikoa, jakite-hegoek igoa, soina zahar, berri gogoa»).

4

Azken mende eta piku honetan herri txiki-txiki honetan euskaraz idatzita, lauzpabost paper baino ez genituela aurkituko esan ziguten. Imajinatzen genuena baino gehiago aurkitu dugu. Eta liburu honetan ez da kabitzen, eta Karibeko piratek isla mortuetan enterratzen zituzten kutxa handi giltzez zarratu haietako batean ere ez.

Aurkitu dugun tesoroa ez da sartzen liburu itxi batean, ez harpeko osinean. Berbetaren altxorra da. Bilduma hau osatu ahala konturatu gara gure berbek gehiago dakitela gutaz guk haiei buruz baino. Hitz egiten dugula esaten dugu, baina, guk hitz egin bezainbeste, berbek egiten gaituzte gu. Hizkuntzak gaintitu egiten gaitu espazioan eta denboran, gu, gu geu baino gehiago garela erakutsiz.

Ez. Gure hizkuntzaren altxorra ez dago liburu honetan, baizik eta zeure ezpainenetan. Goizero, izartu eta ezti tanta bat bezala senti dezakezu ezpain ertzean. Aittitteri, soroan aitzurrean ari zela, eramaten genion baso bete ura bezala edaten da.

 184

Hizkuntza komunikazio erreminta bat baino gehiago da, bizi garen lekua da (beharlekua ere bai), atzekoz aurrera itzuli ezin den denbora (iragana, oraina eta etorkizuna) eta kultura (egiten, esaten, pentsatzen eta sortzen dugun guztia). Gure gizarte indibidualista eta kontsumistan, dena pribatua, dena garestia eta dena galkorra bilakatzen den artean, hizkuntza oraindik ere komunala da, dohainekoa eta, zorionez, ez da zertan akabatu.

BERBAK MAPAN: IHURRETAKO LEKU-IZENAK

Alberto Errazti



Sabin Apraizen 1951ko Bizkaiko mapa zatia, izenak kenduta.

ALBERTO ERRAZTI (1961-)

Alberto Errazti Igartua Arrasaten jaio zen 1961eko ekainaren 10ean, aita Aretxabaletako Markitegi baserrikoa eta ama Oñatiko Uribarri auzokoa, baina hamar urterekin Bilbora joan zen familiarekin. 1985ean, Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatu eta Durangora ezkondu zen M. Carmen Txintxurretarekin. Durangoko Frai Juan Zumarraga institutuko euskal hizkuntza eta literatura irakaslea izan da erretiratu arte.

Toponimiaren alorreko hainbat ikerlanetan parte hartu du, Durango, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar aldean bereziki. *Eraz* aldizkariko «Bertako hizkera» zutabean idatzi du eta Durangoko Alpino Tabira mendizale taldearen Katazkan ere mendi ibilaldi edo toki-izenei buruzko artikulua plazaratu ditu. Bere libururik aipagarrienak: *Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia* (Iurreta Udala, 1994); *Bidaide-Euskal Herria mendiz mendi bidez bide* (Euskaldunon Egunkaria, 2002); *Zaldutik Zaldibarrera toponimia barrenean* (Euskaltzaindia, 2004).

Toponimiaren zirrikituetan luzaroan ikertu ondoren, Alberto gogoeta honekin itzultzen da Iurreta aldeko leku-izenetara:

«Urteak aurrera doazela eta, beharrezkoa izaten da atzera begirako unetxo batean pa-txadaz aztertzea egindako ikerlanen bilakaera zein izan den. 30 urte igaro dira lhurretako toponimia batu nuenetik, eta oraindik akordatzeko naiz Alfontso Irigoienek behin eta berriro errepikatzen zigun leloaz: «Toponimia lanak inoiz ez dira amaitzen...». Zuzen zebilen, bai, gure maisua, zeren leku-izenen zerrenda hutsekin hasi ginenetik gaur eguneko normatibizazioaren eta normalizazioaren arteko bereizketara heldu arte hainbat arauen bilakaera bizi izan dugu denboraren harian.

Gogora etorri zait Historia jakintzagaiaz Miguel Unamunok egindako bereizketa: batetik, «historia» litzateke gertaturikoaren narrazio ofiziala; eta bestetik, «intrahistoria» egunero-koan jendeak bizi izandakoa. Toponimiarekin ere antzerako ikuspegia erabil dezakegula pentsatzen dut, hau da, toki-izen bat normatibizatze erabilitako urratsak (datuen biltzea, arautzeko irizpideak, mapetan txertatzeko baldintzak...) erakunde ofizialen lanekin lotuko nituzke, eta ikertzaileak landa-lanean jasotako istorioak, anekdotak... toponimiaren barrukiekin. Hortaz, erdi-ezkituko horiek guztiak argitara ekartzen ahalegindu gara oraingo honetan; dokumentazioa eta ahozkotatua ahazteke, jakina».

IHURRETAKO LEKU-IZENAK

APASKOLA

Abeltzaintza eta basogintza jarduerak oso garrantzitsuak izan dira gure elizateetan. Baso eta korten jabetza eta erabilera eztabaidagai izan ditugu antzinatik, eta Belen Bengoetxeak¹ ateratako ondorioak argi-argiak dira: nobleziakoak zirela tirabira hauetan esku hartzen zuten partikularrak, dirudunak eta elizatez kanpokoak. Adibide gisa, hortxe dugu 1722ko «Apaskola auzia». Labur-labur adierazteko: Ibarruriko Igartuakorta eta Ihurretako Apaskola bata bestearen alboan zeudenez, batzuek frogatu nahi zuten biak bat zirela eta Ibarrurikoa; besteek, aldiz, bereziak eta Apaskola izenekoa Ihurretakoa. Bakoitzak bere udalerrian jarraitzen du egun.

Jatorriaren eskizari, latineko *Abbas* –apaiz– delakotik eratortzea litzateke logikoa, nire iritziz, XVI. gizaldian dokumenta daitekeen Durangerriko Apamasterioren antzera.

ARANDIA

Ihurreta leku-izenarekin batera Arandia dugu bertako toponimorik zaharrena, 1075 urtetik aldatzeke agertzen zaiguna:

*«pro illo loco de Arandia. Postquam concessum fuit illum monasterium S. Martini de Hurrieta...».*²

Bengoetxeak berresten du eremuaren inportantzia:

«Arandian kokatuta zegoen Iurretan produkzioz handiena lortzen zuen ola, baita ere izen bereko errota. Honek adierazten du toki honek garai batean izan zuen garrantzi ekonomikoa. Gogoratu baita ere, bertan, Arandian, Torretxea eta baseliza ere bazeudela, elementu guztien artean eremu feudalaren ezaugarriak osotuz...». (89 or.)

Esanahiari dagokionez, ‘hango’ edo ‘urrunagoko’ aldea adierazten du gaztelaniazko *Allenderen* parekoa denak; ifrentzua Ona(i)ndia da, ‘hemengo’ edo ‘hurreko’ aldea, *Aquende* gaztelaniazko bertsioan.

Dokumentuetan toponimoa bera ez aldatuagatik ere, bertako eraikinen joera zaharrena auzoaren Arandia izena aurretik jartzea dugu, lehen osagaia balitz bezala: 1704, *Arandiagoitia*; 1746, *Arandia Yturrioz*, *Arandia Aldecoa*, *Arandia*

1. Belen Bengoetxea Rementeria, *Iurretak: ertarotik XX. mendera, arte eta historia*, Gerediaga Elkarte, Abadiño, 1998. 94 or.

2. Alfonso Irigoyen, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1986. 16 or.

Varrenengoa, Arandia Goitia, Arandia torre; 1796, Arandia Yturrioz, Arandia Aldecoa, Arandia Barrenengoa, Arandia torre...

Ahozko emaitzetan ez zaio Arandiarik gehitzen izenari: *Aldéko, Barrenéngo, Ittúrri(o)tz, Lebeitti, Torre*. Baina auzoari *Arándidxà* esaten zaio.

ARRIPAUSUETA

Toki-izenak berak adierazten duen moduan, XX. mendean Ebroko zubia eraiki aurretik harri solteak egon ziren jarrita uretan Durangoko Mikelditik Ihurretako plazara joateko, horrexegatik harri + pausu + eta. Hala ere, ibaiaren emaria handia zenetan, arriskua ekiditeko Ihurretakozubitik (Maspe) luzatzen zen galtzada nagusira hurbildu behar izaten zen jendea batetik bestera igarotzeko. Ahozkoan *Ébro* erabili arren, bertakoek ez zekiten zergatia. 1863an baserriari berari ere *Arripausueta-echev^a* ipini zioten jabetza-erregistroan.

Bada Landako aldean izen bereko beste Arripausueta bat, erdi desegindako presaren aldean. Kasu honetan, ez da zubirik altxatu, eta gaur egun lau harlauza eta porlan zati bat ikus daitezke harrien gainean ziurrago zeharkatzeko. Toponimoari dagokionez, Oromiñon bezala, espainolaren presioagatik desegokia den *Arripasuetas* zabaldu da euskaldunak ez direnen artean.



Durango eta lurreta arteko harripausoak XX. mendearen hasieran (Germán Zorraquin).

ASMOKIL

Kofradietako baso bat dugu Lasiazzelairen aldameneko muinoa. XVIII. mendeko dokumentuetan *Achmoquill(a)* izendatzen zaio inguruari, baina beheko basoari *Achmoquilbarrena*; 1890ean, aldiz, «*Achmoquil o Achbarrena y Achgania*» irakur daiteke.

Geomorfologiari begira, tontor bik osatzen dute multzoa: Asmokil eta Asmokiltxiki. Leku-izenaren osagaiak hauek lirатеke: A(t)x (haitz) + mokil (koskor biribila, mokor). *Axkórre*, *Láxierselei* eta *Oxínurdiñen* egindako eran, ihurretar nagusiek eutsi egiten diote oraindino sabaiko ahoskerari: *Axmókil*.

BAKIXA

«Kofradia dugu herri barneko banaketa politiko administratiboa. Banaketa hau erabiltzen zen auzoen kezkak bideratzeko, udalerako hautaketak egiteko e.a. Baselizak izan ziren kofradien batzarrak egiteko erabili ziren bilguneak...» (121 or.)

Bengoetxearen azalpena irakurri ondoren, galdera bat datorkit burura: horiek horrela izanda, ermitek baldintzatzen al zituzten kofradien izenak? Ezaguna den legez, hagianimoak berriagoak izaten dira toponimoak baino. Hori dela eta, hagianimoekin batera toponimoak txertatzen ditu gure historialariak ere:

«Amatzako San Martin, Goiuriko Andra Mari, Garaizarreko San Mames, Bakixako San Sebastian, Orozketako Santiago, Oromiñoko San Markos, Gaztañatzako San Kristobal, Uribeko Santa Marina eta Lazkoitiko San Andres». (167-182 or.)

Orduan, Ihurretako kofradiak honako hauek lirатеke, nire aburuz: Bakixa, Goiuria, Ihurreta, Oromiño, Orozketa eta Uribe. Bat nator Udalak argitaratutako 2022ko gidan Jon Irazabalek aipatu zituen kofradien izenekin, San Markoren kasuan izan ezik.

Bakixako baselizaren santu zaharra San Fausto zen eta horrexegatik agertuko zitzaigun zenbait dokumentutan izen hori (ez San Sebastian), eta XVIII. mendeko Fogeraioetan *Baquijano* edo *Vaquijano* ditugu ahozko *Bakíxaren* aldamenean.

Amaitzeko, jatorriari buruzko ohartxo bat:

«*Bakio se registra como Bachio [...] Existe además con suf. -ano la cofradía de Baquijano en Yurreta, cfr. Fog. 1704, pop. Baki[dž]a...*». (ETVC, 29 or.)

Irigoienek aditzera eman zigun *Baquijano* Bakio toponimoaren aldaera zela, zeina *Baccius* latindar antroponimoaren eratorritzat jo zuen.

BERESIGANA

«Bereziganeri, Durangon Montequemado deitzen zitzaiola akordatzen naiz. Eta hantxe gainean jartzen zutela Espainiako bandera liberazioaren egunean...»³ idatzi zuen Joseba Sarrionandiak.

Garraibideen garapenak sekulako iraultza eragin du Euskal Herriko bizimodu-
duan, Xabier Lizardiren *Bultzi-leiotik* olerkia lekuko. 1889. urtean inauguratutako
Durango-Zumarraga trenak, Durangoko Mikeldiko zubia (oraindik zutik dirau)
zeharkatu eta gero, Ihurretatik Abadiñoko Matiena auzora luzatzen zuen bere
ibilbidea gaur egungo N-634 errepidean zehar. Garai hartan, bultzia mugitzeko
lehengaia ikatza zenez, tarteka txinpartaren bat botatzen zuten aldamenetara, eta
inguruko basoak erre. Hori zela eta sortu zitzaigun *Montequemau* toponimoa.
Garaizarkoek, ostera, *Beresigáñe* esaten zioten beti: Beresi (zuhaitz desberdinez
osatutako basoa) + gane (goiko aldea).

Erpin geodesikoa duen muinoaren geomorfologiari buruz ari bagara, gogo-
ratu behar da Espainiako bandera jartzen zuten tontorra garaia goa zela, 70eko
hamarkadan eraikitako AP-8 autopista egiteko hainbat metro kendu zitzaiolako
gainari, bertako lurrak errepidearen zorua berdintzeko erabili ziren eta.


ERTZILLA

XVII. mendeko Ertzilla baserriko garaia dugu oraindik zutik mantentzen zaigun
eraikin bakarra inguruotan, 80ko hamarkadan Bizkaiko Foru Aldundiak berritu-
rikoa. Basetxea bera erdi jausita dago, eta besteak (Ertzillurruti eta Ertzilbengoa)
desagertu egin ziren industriarako azpiegitura berriak eraikitzen hasi zirelako:
hasieran, EITB eta Ertzaintza; gero, pabiloiak eta bertaratzeko sarbideak.

Dokumenturik zaharrenetan, (*H*)erçilla eta (*H*)ercilbengoa baino ez ditugu
bistaratuko. Ahozkoan, *Ertzille* edo *Ersille* ez-
painetaratzeari ohikoa dugu lekukoen artean.

Esanahiari begira, Irigoienek hipotesiak
honako osagaiok bereizten ditu: ert- (erdiko
lekua) + zil (zilbor, sakonune).

*«Por ello hay que pensar en la palabra
empleada en la Rioja en castellano cil, que
en lengua vasca significa ‘ombiligo’[...] natu-
ralmente aplicado al terreno, como al parecer
sucede en los numerosos Ertzila...»*⁴



Ertzilgo garaia (Markos Basterretxea).

3. Joseba Sarrionandia, *Akordatzen*, Txalaparta, Tafalla, 2004.

4. Alfonso Irigoyen, *De Re Philologica Linguae Uasconicae II*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1987. 257 or.

GARAIZAR

«Garaizarkoa naizela akordatzen naiz. Baina nor ez da ba Garaizarkoa?» Bere jatorriaz ari zaigu Joseba *Akordatzen* liburuan, umetako denboraz. Belen urrunago joan eta bertoko ermitaren antzinatasuna azpimarratzeko hipotesia botatzen digu bere liburuan: Goi Ertaroko nekropolia egon zitekeela bertan. Orduan, XVI. mendeko dokumentuetan maiz agerturikoa baino askoz lehenagokotzat jo dezakegu leku-izena ere.

Esangura aztertuz gero, mugakidea den Garai altu batean egoteagatik, Garai (altu) + zar (aspaldikoa) osagaiak izan litezkeelako ustea dut, inguru hori ere Ihurretako herrigunea baino gorago kokatzen baita. Hala ere, bada beste aukera bat ere, nire lekukoa izandako Victoriano Etxeita Atutxak aitaturakoaren haritik: «*Garai esaten dxakok ganau kortiai, gañien sabaidxaz*».

Garai osagaiak, orduan, aletegi edo animalientzako gordelekutzat erabiltzen zen eraikuntza bat adieraziko luke, Ertzillakoa baino antzinatasun handiagokoa.

GALLANDA

Herri basoen erabilera aldatu egin da historian zehar, Antzinako Errejimenen biztanleriaren beharrei erantzuten zien, egurra hartzeko edo irak nahiz fruituak biltzeko... XVIII. mendetik aurrera, oster, burdinoletarako lehengai bihurtu ziren zuhaitziak, eta XIX.ean gerren zergak ordaintzeko baliabide. Horretaz gainera, basoaren lurretan harrobiak zulatu ziren ere, eta batzuetan partikularrak baliatzen ziren (1893, «*multa a Sabino de Esturo y Bartolomé y Fco de Alverdi por extraer piedra de las canteras de Galindo*»).⁵ XX.ean koniferak sartzeari ekin zitzaion industrializazioagatik, Arriandiko paper-lantegia hornitzeko, esate baterako. Egun, trantsizio klimatikoa dela eta, bertako zuhaitzak landatzeko joera zabaltzen ari da astiro-astiro, eta horixe bera jazo zaigu Garaiko mugakide den kofradietako baso honetan, Lukuarrate eta Areatzagana lepoen artean kokatzen den Gallandan.

1994an nioen legez, oso gaitz egin zitzaidan arautzeko leku-izena aukeratzea, zeren dokumentuetan *Gaiunda Ciar*, *Gallunda*, *Gallanda*, *Gallindo*, *Gallinda* eta *Galindo* irakur zitezkeen XVII. mendetik aurrera. Ahoz ere zenbait aldaera jaso nituen: *Gallánda*, *Gallénda* eta *Gallínda*. Etimologiak ere zailtasun berberak ditu. Hala ere, Irigoienek izen propio bat proposatzen du: «*Ego igitur domno Galindo prolis senior Enneco Lopez*». (ETVC, 22 or.). Hortaz, Gallanda, Erdi Aroko *Galindo* izenetik etor litekeela iradokitzen du.

5. Bizkaiko Foru Agiritegia, Administrazio Artxiboa: AR-00241/025.

GAZTAÑATZA

Artatza eta Kukutza toki-izenetan bezala, hitzaren esanahiak ez dauka zalantza izpirik: gaztaña (*castanea sativa*) + tza (ugaritasuna, multzo handia); ‘gaztainondo ugariko lekua’.

Bertako baserriak hiru ditugu: Gaztañatzabeaskoa, Gaztañatzagoxeaskoa eta Gaztañatzatorre. Dokumentazioaren aldetik, hainbat grafiatan idatzita topa daitezke XVI. gizalditik hona: *Gaztañaza*, *Gastañaça*, *Gastañaza*... Agian, horrexegatik sortzen dira ezjakina den jendearen aldetik normatibizazioaren aurkako jarrerak, kontu ideologikoak tartean direlarik, norberaren abizena «betidanik» modu batean idatzi delako aitzakiarekin.



Gaztañatzatorre baserria (Iñaki Irazabal).

Beste alde batetik, leku-izenen bilakaeran gertatu zaidan bitxikeriarik handienetako bat bizi izan nuen Gaztañatzabeaskoan. Nire lekuko maite batek, Maria Etxenagusia Ereñagak, begi bat oker samar zuen, umetan behi batek adarkada bat jo omen ziolako. Hasieran, *bísko* entzuten nuenean, bertakoaren gaitzizena zela pentsatu nuen, gaztelaniazko *bizco* delakoaren parekoa, baina gerotxoago ohartu nintzen Beascoatik zetorrela (Beaskoa > Biasko > Biesko > Bisko).

Diakronian dokumentu zaharrenetik berrienerako bilakaera estandarra hau xe izaten da: *de Yusso* > *Beascoa* (*Beitia*) > *Becoa*. Beraz, ahozkoan *bekúe* izango litzateke gaur egungo emaitzarik ohikoena; ba, beti ez! Inguruko lekukoen esanetan, *Bi(e)skokuek* ziren bertako baserrikoak; 300 urte lehenagotik zetorren forma idatzia XX. gizaldian ahoz egokiturik.

GOIURIA

Ihurretako kofradien arteko bat dugu, eta osagai bikoitza dauka leku-izenak; goi (gaineko aldea) + uri(a) (biztanle-gunea); ‘goiko aldean kokatzen den biztanleen multzoa’. Bertako Uriguen baserriak duen *-go(i)en* atalak ere esanahi bera luke. Koldo Mitxelenaren hitzetan:

«*En cuanto a la terminación -guen parece proceder más bien de go(i)en que de -guren*».⁶

6. Luis Michelena, *Apellidos Vascos*, Txertoa, Donostia, 1973. 98 or.

XVII. mendeko dokumentuetan *Urigoen* izkiriatu zen, baina ahoz *Uribéne* esaten da.

Gogoan izan elizateak hiribilduak baino lehenagoko entitateak izan zirela, eta mendi aldeko biztanle-gune baten izenean *Uri(a)* osagaia agertuz gero, tokiak sekulako garrantzia zuela bai galtzadaren bat zeharkatzeagatik bai ermita batetik hur lurperatuak izateagatik bai zonalde hartako lehen bizilagunak izateagatik...

Ahozkoaz ari bagara, esan beharko dut, aurreko kasuan legez, harritu egin ninduela erabat lekuko batzuen *Gudxúri* formak, XVI. gizalditik dagoelako dokumentatua: 1555, *Guyuria echauarria*; 1609, *Çelaya de Guyuria*; 1638, *Echabarria de Guhuria*; 1704, *Guyuria*; 1796, *Varrio de Guyuria*...

IBAIZABAL⁷

Diktaturaren garaian euskal toponimoak ezkutatzekeo obsesio patologikoa zuten agintariek: alde batetik, eraikitzen ziren errejimeneko etxebizitzetan hagonimoak txertatzen zituzten (*San Fausto*, *San Juan*...); bestetik, kale izenak gaztelaniara itzuli (esate baterako, *Calle del Medio Artekaleren* ordeztuz), edo 1936ko Altxamendu Faxista gidatu zuten jeneralen izen-deiturak ezarri (*General Mola*, *General Yagüe* eta abar) edo aldeko apezpikuenak edo aspaldiko espainiar konkistatzaileenak... Eta, azkenik, jende guztiak erabiltzen zuena onartzea baino ez zegoenetan, espainiar grafiak inposatzen zituzten: *Callebarria*, *Goyencalle*...

Kontestu horretan, 50eko hamarkadan Ihurretan altxatu zen paper-lantegiari *Celulosas del Nervión* jarri zioten izena, Ibaizabal alboan izanik ere.

1937ko ekainaren 12an Francoren aldeko erreketeeek Bilboko Burdin Hesia apurtu zuten eta poztasuna adierazteko kantua sortu:

*Por el río Nervión bajaba una gabarra
rúmbala, rúmbala, rum. (bis)
Con once requetés de boina colorada
rúmbala, rúmbala, rumba
la rumba del cañón! (bis)*

Zenbait aldaera dituen faxisten aurkako bertsioak ere egiten izan dira denboraren harira, esaterako, gaztetako hauxe datorkit burura: *Por el río Nervión / bajaba un cerdo blanco / rúmbala, rúmbala, rum (bis) / era Francisco Franco / con su bikini blanco / rúmbala, rúmbala, rumba / la rumba del cañón. (bis)*. Edo beste hau: ... *bajaba una ballena / era Francisco Franco con la barriga llena...*

Baina, azter ditzagun hitzok. Hasteko, teknikoki Bilbokoa ez da ibaia, itsasadarra baizik. Horretaz gain, zein da ibaiari jarri beharko litzaiokeen toponimoa?

7. Alfonso Irigoyen, *De Re Philologica Linguae Uasconiae* II. 247 orrialdean.

Hainbat irizpide erabiltzen izan dira urteetan zehar (antzinatasuna, uren amaieraren kokalekua edo luzera), baina eztabaidak soluzionatzeko honako irizpide zientifiko hau hartzen da kontuan: batez besteko ur emariaren kopurua urteko, eta kasu honetan, Ibaizabal irteten zaigu garaile.

«Ez da Danubio deitzen / ez da Mississippi / Ibaizabal deitzen da nire sorterriko ibaia...» zioen Ruper Ordorikak 2006an plazaraturiko *Memoriaren Mapan* diskoan, eta zabala da bai Ihurretako ibaia, eta emaritsua.

Memoriaren gainean ari garenez, hortxe ditugu, froga gisa, XVII. mendetik gertatutako uriolek sortu zituzten kalteak, azkena 1983ko abuztuaren 28koa.

IHURRETA

Elizateari, kofradietako bati eta herri-guneari buruz ari gara XI. mendeko toponimoa aipatzean, 1072koa da testua:

«*monasterium in confinio Duranci, cum decania partis Bizcaie, nomine Jhurrueta...*». (ETVC, 15 or.)

Batzuetan u-ren ordeztu, o leitzen da. Adibidez, 1489-11-03 datako dokumentu batean:

«*herrmitanno de Sant Uyçente de Yorreta...*».⁸

Baina, zelan idatzi beharko genuke gaur egun bertakoen ahoskera ez galtzeko? Gaztelaniaz eta testu ofizialetan *Yurreta* idatzi da, hiru silabako hitza bihurtuz erdal ahoskeraz; euskal ahoskeran, oster, lau silabako hitza da beti: *Idxúrreta* edo *Idxórreta*.

Etimologiari dagokionez, lau hipotesi behintzat zabaldu dira. Lehena, Juan Ramón Iturriza⁹ historialariaren garaitik dator: (h)iru (zenbakia) + ur (emaria) + eta (lekua); Ibaizabal, Mañaria eta Zaldegi, «hiru ibaien emariak elkartzen diren lekua» litzateke. Bigarrenaren arabera, (h)iru + errota (bolu) + eta (leku), «hiru errota dauden lekua», eta Oromiño aldekoak besterik ez aintzat hartuta, hiru baino gehiago genituen elizatean. Hirugarren hipotesi baten ildotik, igor edo idor 'lehor' + eta 'leku' konposiziotik letorke, baina arraroa da hala izendatzea hainbeste ur duen lekua. Laugarren hipotesia, berriagoa, Jon Irazabalek jaso zuen Ihurretako 2022ko gidan eta landare bat litzateke gakoa: zihurri (*sambucus ebulus*)

8. Colección Documental del Archivo Municipal de Durango I, Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, Eusko Ikaskuntza, 1989. 411 or.

Adibide honetan aipatzen den baseliza Mikeldikoa da, geroago Durango hiribilduan kokatuko zena.

9. Juan Ramón Iturriza y Zabala, *Historia general de Vizcaya y epitome de las Encartaciones*, Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao, 1967.

Alfonso Irigoien Etxebarria
Trenbideko etorbidea, 2-5º-B
48013 BILBO

Bilbon 1985-IV-9

Jose Luis Lizundia jaunari
Euskaltzaindia

Agur:

Joan den asteko ostiraletik igar. derarte Lekarotzen geundela eskatu zenidan bezala nik 1984-garreneko abenduan Bilbon Congreso de Estudios Históricos: Vizcaya en la Edad Media, Eusko Ikaskuntzak prestatu zuen hartan, aurkeztatu nuen ponentziatik aterariko 10 eta 12 epigrafeak bidaltzen dizkizut honen ondoan kopiaturik, Ihorreta-ri baitagozkio:

10. En otro de 1072, nº 208: Ego quidem gratia Dei Sancius rex, simulque uxoris mee Placentie regine, amore divino compuncti, ac scelerum nostrorum numerositate recordati, sic facimus donationem pro remedio anime nostre ad atrium sanctissimi patronis Emiliani, et tibi patri spirituali Belasio abbati necnon et omnibus tibi subiectis clericis, in ibidem die noctu Christo famulantium, idcirco concedimus et confirmamus ad atrium predicti confessoris monasterium in confinio Duranci, cum decania partis Bizcaie, nomine Jhurrueta (34), reliquias S. Martini ferens et thesaurum omne ad eum pertinente, cum exitu et regressu, cum terris, ortis et pomiferis arboribus, montibus et pascuis omnibus antiquo usu determinatis, molendinis cum aquarum productilibus patefactis,

- 1 -


sautis cum glandiferis, arbustis et amenibus pratis, et quicquid ad eum pertinuit vel pertinere debuit, cum tota integritate et ingenuitate concedendo stabilimus per omne seculum, amen.

12. En otro de 1075, nº 221: Hec est carta exquisitionis vel roborationis pro illo loco de Arandia. Postquam concessum fuit illum monasterium S. Martini de Hurrieta (35) ad atrium S. Emiliani a Sancioni rex, contigit ut abate de Abadiano domno Munio ut veniret ad Arandia construendum monasterium.

En este documento, como se ve, se registra Hurrieta para lo que en el nº 208, véase 10, es Jhurrueta, mientras que Llorente, que debió conocer el Cartulario gótico, da en ambos casos Ihurreta, actual Yurreta, vasc. I/dz/orreta. En la Fog. de 1704 se registran: Torre de Arandia, Ferreria de Arandia, y Arandia goytia, caserio, en la cofradia de Orosqueta, Yurreta. Arandia originariamente indica la situación, 'allende', a pesar de que ulteriormente pueda recibir goytia, 'de suso', y es opuesto a Onandia, 'aquende', cfr. Berroxa Arandia, Berroxa Albiz y Berroxa ausocoa en la Fog. de 1704, las avecindadas enteras a la Villa de Guernica, en Ibarruri, véase índice.

Besterik gabe, bihotzez,

Alfonso Irigoien



- 2 -

+ eta (ugaritasuna). Hasierako txistukaria desagertzea ez dut bideragarri ikusten, baina bada beste landare bat hurbilekoa eta uretakoa dena: Ihi (*juncus effusus*); beraz, ihi + ur + eta, apika?

Hala ere, Euskal Herri osoko mapan agertzen da izen hori: Ijur, Ijurra, Ijurko, Montejurra, Ijurreta, Ihurre, Igorre... eta erabaki desberdinak hartu dira ofizialki idazteko orduan: Gipuzkoako Olaberrian eta Arabako Gasteizen IHURRE onetsi zen; Bizkaian, aldiz, IGORRE ebatzi zuten Arratiako herriarentzat, oker nabarmena bertako askoren ustez; eta gure kasuan, Iurreta idaztea erabaki zen, hiatoa markatu gabe, eta era horretan ere oker-okerra dela pentsatzen dugu batzuek, hiru silabatan ahoskatzea bultzatzen delako. Nik neuk, IHURRETA idatziko nuke, Irigoienek berak proposaturiko moduan.

IHURRETABURU

«Igorretako baserri bat Toledo deitzen zela akordatzen naiz...» idatzi zuen orain hogeita piko urte Sarrionandiak. Denbora luzez urrun egonda ere, ez zuen ahazturik txikitan entzundako baserri izena.

«*Anaitasunan*-eta, Arratiakoa Igorre idazten zelako idazten genuen horrela, Igorreta, ezjakintasunetik. Oraindik ere ez dakigu askoz gehiago, baina nik ere Ihorreta edo Ihurreta idatziko nuke», diosku gure idazle kutunak egun.

Ihurretaburu aitatzean, gure irakurleak ere berehalaxe konturatuko dira arauturiko toponimoaren lehen osagaia elizatea bera dela; are gehiago, ingurua ezagutuz gero, erdigunea den plaza baino gorago egoteagatik duela bigarren atala: Ihurreta + buru; 'gaineko aldea'.

Dokumentuak begiztatuz gero, honako izenok aurkitzen ditugu: 1704, *Yurretaburu*; 1746, *Yurretaburu*; 1795, *Yurretaburu*; 1796, *Toledoena*; 1799, *Toledoena*; 1810, *Yurretaburu-Toledoena*...

XVIII. mendean idazten den *Toledoena* bizirik dago ahozko erabileran; hori bai, laburtua: *Tólona*.

Toledotarra den Antton Mari Aldekoa-Otaloraren berbetan, Ihurretaburun dolarea zegoen txakolina egiteko eta hortxik omen letorke leku-izena.

JANDITEGI

XVI. gizalditik datorkigun toponimo honek hiru osagai ditu: ja(u)n + handi + tegi; 'jaun handi baten eremua', hain zuzen. Nire hipotesiaren arabera, maiorazgoa izan zitekeen gune horretan hasieran izen bereko baserri batzuk kokatzen ziren eta bertaratzeko arku bat zeharkatu behar zen, Mallabiena izenaz ezagutzen dena, baina antzina Janditegikoa izango zena, segurutik, autopistaren ordainlekuko biribilgunetik N-634 aldera dagoe-na. Mallabiena leku-izena XX. mendean zabaldu zen, Mallabitik etorri baitziren bizitzera Ihurretara Unamunzagatarrak.

XVIII. mendera arteko idatzitako datuetan ez ziren eraikinak bereizten; XIX. mendeko estatistiketan zein izkrituretan, ordea, bai: 1866an *Janditegui goxeascoa* / *goxeascoa* eta 1874an *Ganditegui Viascua*. Bukatzeko, XX.ean, behekoak *Dxandite(g)i* izaten jarraitu zuen, baina goikoa batzuetan *Chompolo*. Ahoz barra-barra erabiltzen den *Txonpólo* horren jatorria inork ezin izan dit azaldu.



Janditegiko arku
(Markos Basterretxea).

Anton Mari Aldekoa-Otalorak dioskun eran, baserri osteko zuhaiztian elkartzen ziren Ihurretako dantzariak (Jose Felix Zamalloaren garaikoak) San Salvador egunaren hurrengo domekatik aurrera San Migel jaietarako saioak prestatzen hasteko, 50eko hamarkadara arte-edo.

LAMINOSTETA

Betidanik erakarri nau toponimia eta mitologiaren arteko loturak, eta Pirinio aldeko ibilaldietan, Sorginzulo, Laminiturri eta Deabrukoba bezalako izenak mapetan ikusteak, baina ez Ihurretako ikerlanean, ezta Zaldibarkoan ere ez nuen antzerakorik aurkitu. Durangokoan, oster, 1489an *Lamioxen* eta 1519an *Lamioxin* begien aurrean izateak sekulako zirrara sorrarazi zidan.

Barruko harrak agiritegietara bideratu nau behin eta berrir, eta hara non Durango eta Ihurretaren arteko mugako toponimoak kuxkuxeatzen ari nintzela, 1725ean Jauregietxe alboko ortuaren atzeko aldea *Laminosteta* deitzen zela egiaztatu ahal izan nuen.

Anekdotak gisa, Ibaizabal aldeko Zubiaurre kaleko etxe-multzoaren azpian babesten dira paitak urak indartsu etortzen direnetan; laminen parajea, hain zuzen ere.



Montoiko zubia (Foto Sol).

LASIARZELAI

Muinoek inguratutako lautadaxo batean mahai bat eta sei aulki daude, denak harritzkoak: aspaldiko garaietara eramaten gaituen irudia. Sinbolismoz jositako toki horretan ospatzen da urtero irailaren bigarren domekan Kofradia Eguna; 2020an eta 2021ean ezin izan zen, koronabirusagatik.

Etimologian murgilduz gero, hiru osagai lituzke toponimoak, nire ustez: la(t)s (errekaxoa) + zi(h)ar (zehar, trabes) + zelai (laua edo larrea); ‘zeharka luzatzen den errekaetoaren lautada’. Egia esan, horrelakoxea dugu ingurua.

Ahozko erabileran, zenbait aukera ditugu egun eta, Asmokil izenaren atalean esan bezala, eutsi egiten diote oraindik sabaiko ahoskerari: *Láxiarselái, Láxiarselái, Láxiarselái, Láxiarselái, Láxiarselái...* Dokumentuetan arakatzen hasita, nire ikerlaneko aipamen zaharrena 1560koa duzue: *Lasiar* edo *Lasyar*. Bengoetxeak, ordea, 1858ko beste datu bat eskaintzen digu: *Laxiercelay*. *Lasiar* basoa udalerri mugako alde bietan hedatzen zaigu, Garain eta Ihurretan.

LUKUARRATE

«Goiuriko azken baserria Luku deitzen zela akordatzen naiz...» esaten da *Akordatzen* liburuan.

Goiuriko inguru hau zokoratu samar zegoen BI-3341 errepideko Goiuri eta Garaiko atalak elkartu zituzten arte. Lepo honetatik Oromiñorako lotura, berriz, aspaldikoa dugu. Lukukorta, adibidez, 1648an dokumenta daiteke.

Azter dezagun, ba, Lukuarrate izena. Luku (Gallanda eta Atxeko Zabala mendien arteko Lukuarrate lepo azpian kokatuta dago Luku baserria), esanguraz, Mitxelenaren ustez, ‘basoa’ edo ‘oihana’ + (h)arrate ‘haran batetik beste batera igarotzeko dagoen pasagunea’; (h)arr(i) + ate, ziur aski.

Nire lekuko guztien ahozko emaitzak honako hauek: *Lukuárreta* edo *Lukuárta*. Silaben nahastea XIX. mendeko dokumentuetan sortu zen, kasurako, 1863an LucuarrAtEondo, baina 1864an LucuarrEtA.

MAGUMAKO PORTALETA

Pandemiak kolpaturiko gizartean bizi gara eta aisialdia bilatzen dugu etengabe. Norberaren bizilekutik ihes egiteari deitzen diogu turismoa eta hainbatetan bes-teen bizimodu, eraikin, ohiturak eta abar ezagutzera abiatzen gara. Baina kanpora joateke, bertan «Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea» (GR 38) egin dezakegu, esate baterako, Arabar Errioxatik Bizkaiko kostalderaino luzatzen dena. Erdi Aroko mandazainek arraina eramaten zuten gurdietan Bizkaiko portuetatik eta bueltan ardo edo garia ekartzen lautadatik.



MUXIKA

Txarroaga

Apaskola

Magumako
Portaleta

AKAMENDI

BERRIZ

Lukukorta

ASMOKIL

Lasiarzelai

SELAÑO

Orobiourrutigoikoa

Aretxabaleta

ARTATZA

AMOREBIETA
ETXANO

OROMIÑO

GALLANDA

GARAI

Bekoerrota

ATXEKO ZABALA

Lukuarrate

Trazaola

ASKORRA

Luku

BAKIXA

GAZTAÑATZA

Gaztañatzatorre

Urigoen

GOIURIA

Madariaga

URIBE

Guardia

Matxiñena

Ertzilla

ARRIANDI

Urzelaieta

AMATZA

Bargundja

GARAIZAR

Iparragirre

ARANDIA

Arandiabarrenengoa

IHURRETA

Ihurrefaburu

BERESIGANA

OROZKETA

Padureta

Arripausueta
Laminosteta

Montoia

IBAIZABAL

Gibela

Otalora

Kukutza

SAN ANDRES

DURANGO

ABADIÑO

Orozketatxebarria

Arrietxe

ETXARAN

Ba, aipatu ibilbide horretako Urdaibai eta Durangerri arteko harraterik garaiena Magumako Portaleta deitzen da;¹⁰ ez Ataria, azken urteotan jarritako seinale batzuetan irakur daitekeenez. Zenbait lekukoren arabera, euren aitajaun-amandreen esanetan, ardoen kontrabandoa egiten zen bertatik. Garaiko Rufina Duñabeitia Agirrebeitiak hauxe utzi zigun esanda 2001eko grabazio batean: «*Méumetik bendéjies paseta'zuazen kontrábanduèn arduek mánduetan hartute*».

MONTOIA

Leku-izen batzuen nondik norakoak jakitea oso gaitza izaten da batzuetan, espezifikoa eta generikoa nahasteagatik. Adibide argienetarikoa Maspe kalearen alboko zubiarekin gertatzen zaigu. XVI. mendeko dokumentuetan «*punte que llaman Yurretacoçubia*» topa dezakegu behin baino gehiagotan. Jendeak, ostera, *Montoi* erabiltzen du egun barra-barra. Zein da, orduan, azalpena? Nire iritziz, aldaketa XIX. mendean gertatu zen. Alde batetik, zubi zaharra 1875ean botatzea erabaki zen, jausteko arriskuan zegoelako; eta bestetik, garai hartan ohikoa baitzen zubi nagusiei *pontón* izendatzea. $P > m$ aldatuta ahoskeran, euskaldunek zubi berriari *Montón* esango zioten, eta hortixik auzune osoari ere Montoi deitzea.

OROMIÑO

Toki-izen honen eremu geografikoa udalerritik harantzago hedatzen da, bertoko zenbait baserri Amorebieta-Etxanokoak dira eta. Edozelan ere, eraikinen gune nagusiena Ihurretan dago. Beste aldetik, kofradia honetan pilatzen zen burdinolen kopururik handiena: Bustindegi/Etxebarriko ola, Erdikola, Olabarria eta Trazaola.

Izena arautzeko orduan, hainbat zalantza izan dira urteen joan-etorrian. Batzuetan idatzizko formara jota: *Orobio*. Besteetan, ordea, ahozkoa hobetsita: *Oromiño*. Hori bai, baztertu egin da zeharo gaztelaniaren eraginez batzuen batzuek erabilitako *Orobios*. Bizkaiko beste udalerrri batzuetan ere gertatu da okertze hori: *Arriposuetas*, *Erletxes*, *Fanos*, *Magunas*...

Dokumentuetan grafien txandatzetaz etengabea izan dugu XVI. mendetik hona: *Orobio*, *Orouio* eta *Orovio*.

Esangurari dagokionean, latindar kristau jabeen antroponimo batetik letorkeelako hipotesia luzatzen digu Mitxelenak, eta Irigoienek Elorrioko Arabio leku-izenarekin erlazionatzen du.


¹⁰ Jose Luis Lizundia Azkondo, «Bide zaharren azterketaz, Lekeitiotik Arabarakoa adibidez», *Odon Apraizi Omenaldia*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1981. 221-223 or.

OROZKETA

Ihurretak Ibaizabalen ezker aldean duen kofradia bakarra dugu; gogoratu ezazue Landako/Murueta aldea Durango bihurtu zela 1990ean.

Orozketako kofradiak biztanle-gune bi ditu: Arandiak presa, zubi, errota, burdinola, dorretxe eta ermitarekin batera eremu feudala osatzen zuen, aipatu den bezala; mendialdekoan, oster, nekazaritza eta abelzaintza ziren eta dira jarduera nagusienak sakabana-tutako baserrietan. Arandiako San Julian/Santa Apolonia ermitak oraindik zutik dirau; Santiago, aldiz, desagertuta.

Dokumentuetan usu agertzen zaigu toponimoa; beti ere, txistukariaren dantza etengabea: 1555, *Orozqueta*; 1628, *Orosqueta*; 1638, *Orozqueta*; 1704, *Orozqueta* - *Orosqueta*; 1745, *Orozqueta* - *Orosqueta*... Ahozko erabileran bai lehen bai gaur egun laburtzeko joera nabaria da: *Oósketa* edo *Ósketa*. Hitzaren osagaiak banatuz gero, Orozko toki-izenaren aldakia delakoan nago: Orozko + -eta, baina interpretazioan datorkigu koska eta hipotesietara jo behar dugu. Mitxelena ez da *oro* horren esanahia ematera ausartzen, baina, Jean-Baptiste Orpustanen aburuz, balizko **oru* batetik eratortzea fonetikoki bideragarria litzateke, 'orube' edo 'lursail' adierarekin + o(t)z ('bero ez dena') + ko (leku-genitiboa) + eta (ugaria/lekua); 'lur-eremu hotza den tokia'.



Orozketako Otalora baserria (Markos Basterretxea).

OROZKETAETXEBARRIA

1463ko honako datu hau aurkitu nuen Durangoko toponimia ikerlana egitean: «*deçiende de cerca de la dicha casa del sel de Guibela*».¹¹

Bertan bizi zen Cristobal Jaio Gorospe artzainaren hitzetan, populuak Gibela erabiltzen zuen, baserri alboko basoan gibelurdin (*Russula virescens*) ugari topa zitekeelako, eta horrelaxe sortu omen zen leku-izena. Hala ere, etxearen izkriturretan Orozqueta-Echebarria ei zegoen idatzirik.

Nire aldetik, XIX. mendean aurkituriko *Mazorri-Echevarria* formek, beharbada, zerikusirik izan lezakete toponimo honekin, 1927an *Guivela Matzorri nueva* batera agertzen direlako sute-aseguru batean. Ondorioz, Ihurreta Udalak etxe alboan jarritako zutoinean agertzen diren Gibela eta Orozquetaetxebarria berrerrabili ahal

11. *Colección Documental del Archivo Municipal de Durango* IV. 94 or.

izango genituzke: XV. mendeko toki-izena baserriari emanda, eta bestea beherago egin zen eraikin berriari.

PADURETA

1483ko kronikek dioten moduan, hain katolikoa ez ei zen Gaztelako Isabel infanta hurbildu zitzaigun Durangaldera, Lariz dorretxean oturuntza eta gau ederraz gozatzeko asmoz eta, bide batez, foruak sinatzera. Euskaldunok etxekoekin ez dakit, baina kanpoko handikiekin hain otzan eta abegikorrak garelako harrotasuna erakusten dugunez beti, ba, tropelean joan ginen gaur eguneko Ihurretako gasolinera eta Arandia zubiaren arteko errege-bidera.

Infantaren bisitari esker jakin dezakegu toponimoaren bilakaera, ez litzateke asmatzeko batere erraza izango bestela:

«fue pregonado como venia la ynfanta que salliesen a recibir a Paduraeta [...] e salieron a la llana de Paduraeta [...] jura mento de guardar a la dicha tierra e villas de Durango en todas sus libertades». (CDAMC, 353 or.)

1994ko nire lekukoek esan zidaten zonaldea *Pag(u)eta* deitzen zela ibaiaren aldean pagoak zeudelako. Errealitatea, oster, bestelakoa genuen: Padureta, ibai alboan, pagoak barik, urgune zabala omen zen: Padura (zingira, urtegi) + -eta (lekua).

URIBE

Uribe, osagaiengatik, uri + be(h)e, Goiuri leku-izenaren bikotea genuke: kofradia bat mendialdean kokatuko bailitzateke; bestea, aldiz, beheko aldean. Gainera, biztanle-gune bietan daude ermitak: Santa Marina eta Andra Maria.

Hori ez ezik, Arandian gertatu bezala, eremu horretako baserrien lehen osagaitzat ere ager dakiguke dokumentuetan: 1704, *Vribearanzamendi*.

1993an bertako Juan Zamalloa Bernasek azaldu zidan legez, baserriaren benetako armarrria karta jokoan eginiko apostu batengatik galdu zuen jabeak. Gaur egun, Elorrioko alde zaharreko atarte batean ei dago; baserrikoa, aldiz, kopia berria da.

URZELAIETA

50eko hamarkadan eraiki zenetik usaintzen izan ditugu Ihurretako paper-lan-tegiaren ke sarkorrak eta ikusten izan dugu Ibaizabal bits zuriz estalia. Isuririk latzenak 1990 eta 1991 urteetan gertatu ziren, eta 2006ra arte ez zuten konde-natu delitu ekologikoagatik *Celulosas del Nervión*, gero *Smurfit Kappa Nervión* bihurtuko zen enpresa.

Baina, zer zegoen bertan Arriandiko industrializazio zoroa abiatu aurretik? Bizkaiko Foru Artxibo Historikoaren Ybarra familiarenean agertzen da erantzuna:

«El molino llamado Urcelayeta [...] molino harinero que viene disfrutando del aprovechamiento de aguas desde 1867 época en que fue construido dicho molino por Fermin de Urcola y Ferran...».

Ba, Urzelaieta zeritzon errota ez ezik, «Etxebarriak» deitzen ziren baserri bi ere kokatzen ziren gaur eguneko ur zikinen araztegiaren aldean; horrez gainera, zubia (egurrezkoa zela aipatzen da XIX. mendeko dokumentuetan), ur-jauzia (3,60 metrokoa) eta andapara ere bai.

Ingurua aztertuz gero, ondo ulertzen da toponimoa: Ur + zelai (laua) + eta (lekua); 'ura lautadatik luzatzen den tokia'.

ZALDEGI

2002an Zaldibarko toponimia batzean, antzerako atakan ibili nintzen orduan ere, hau da, ea lehen osagaiak zaldi edo behorrekin zerikusirik zuen, zeinak ondorio zuzenak zituen herriko armarría nolakoa izan behar zuen erabakitzeko. Zaldi-behorren hipotesi hori irudimentsutzat jotakoan, beste bide batzuetatik abiatu nintzen; Mitxelenak zehaztutakotik, hain zuzen:

«Zaldu procedente sin duda del lat. Saltus». (163 or.)

Zaldegín, orduan, honako hauek dira osagaiak: Zald(u) (animaliak abaroan egoteko zuhaiztia) + (h)egi (mendi-magala).

Ahozkoan, *Sáldai* edo *Sáldei* barra-barra esanagatik, ez dut uste idatzizkoan fonetismoa islatu beharko litzatekeenik; beraz, Zaldegí.



San Andres inguruko arbolak (Santos Okina).

ABESTIAK, KOPLAK ETA ERREZITATUAK


Mundu pasatuaren hondakin ederrak



HERRI-KANTAK

Herri kantaria izan da gurea. Kantatu dira edonondik heldutako abestiak, eta bertako batzuk ere zabalduko ziren edonora. Ehundaka kanta ditu gure herriak akorduan, zorionez, eta abestuko dira aitzakia batekin edo bestearekin han edo hemen. Gehienetan ez dakigu nork egin duen kanta, letra igual ez dugu zehazki gogoratzen eta, letra ezpainetara etorrita ere, agian ez dakigu oso argi zer ari garen esaten. Baina, lagunartean abesten dugunez gero, besteek beteko dituzte bakoitzaren hutsuneak, eta azkenean, herri-kanten zentzua herritasunean dago: herritarrek elkarrekin abesteak du zentzua.

Mundu pasatuaren hondakin ederrak. Herri-kantak, edozein herriren gogoaren ispilu paregabeak dira. Hemen, Iurreta aldean Resurrección María Azkuek edo beste batzuek bildutako kanta batzuk jaso ditugu.



Albokaren egitura (Instrumundo).

EGUN ON DAUKAZULA

Hauxe da kontua: denbora luzean kanpoan izan ondoren itzuli da etxera senarra, baina andrearen fidelitatea proban jartzeko fraile mozarrotuta aurkeztu da, eta ironiaz betetako elkarrizketa hasi da bien artean.

Amatzako Juanita Etxanizi Frai Juan de Zumarragako institutuko ikasleek grabaturiko erromantze ezagun hau mendebaldean *Leixibatxua* edo *Goizeti jagi zara* tituluekin ere jaso izan da.



Senarraren itzulera
(Paul Tillac).

1

–Egun on daukazula,
andratxu gaztia!

–Baita bedorrek ere,
baita bedorrek ere,
bai, jauna, maitia.

2

–Esku fiñak al dezuz,
andratxu gaztia?

–Guantiak erabilia,
guantiak erabilia,
bai, jauna, maitia.

3

–Gerri fiña al dezu,
andratxu gaztia?

–Korsia erabilia,
korsia erabilia,
bai, jauna, maitia.

4

–Familiarik al dezu,
andratxu gaztia?

–Bi seme ta (i) alaba,
bi seme ta (i) alaba,
bai, jauna, maitia.

5

–Erakutsiko al dezu,
andratxu gaztia?

–Eskolara joan dira,
eskolara joan dira,
ta etorriko dira.

6

–Senarrik eta badezu,
andratxu gaztia?

–Indidxa urriñetan,
Indidxa urriñetan,
bai, jauna, maitia.

7

–Ezetuko al zenduke,
andratxu gaztia?

–Begian bistan daukat,
begian bistan daukat,
bai, jauna, maitia.

8

–Bidxok lo eñ al geinke,
andratxu gaztia?

–Tabikia bitarte dala,
tabikia bitarte dala,
bai, jauna, maitia.

9

–Urak eroan zaizela,
andratxu gaztia!

–Beroi aurreti dala,
beroi aurreti dala,
bai, jauna, maitia.

10

–Suak erre zaizela,
andratxu gaztia!

–Beroi iñunti dala,
beroi iñunti¹ dala,
bai, jauna, maitia.



1. *Iñunti*: illunti, ilinti.

PERU GUREA LONDRESEN

R. M. Azkuek Elgoibarren jasotako bertsioa argitaratu zuen kantutegian, baina bere eskuz idatzitako koadernoan Iurretako Josefa Astarloari entzundakoa ere agertzen da, abestiaren hasierako bertsoa.

Bertso hori kontakizun honen barruan kokatu behar da: senarra Londresera emaztearentzako sendabelarren bila doan bitartean, emaztea beste batekin dabil. Etxeko morroiak susmatzen du dena, eta horren berri emango dio nagusiari.

Peru gurea Londresen
zingun bedarrak² batuten.
Jira bira Maria
ein daigun inguru aldia.



2. *Zingun-* edo *zungulu-belar*: tabako belarra ijitoen hizkeran. Beste bertsioetan «zirin-bedarrak».

BEHIN HAMARRETAN

Oromiñoko Maribel Aizpuruk kantatzen dituen bertso hauek antzinako balada ezagun batean oinarritzen dira: *Bart hamarretan* (*Egun bereko alarguntsa*, ekialdeko bertsoan). Egun berean ezkondu eta alargundu zen emakume baten penez.

Abesti hori hartu eta berritzen du Maribelek bere alarguntza propioa azaltzeko, senar galduari zuzenki hitz eginez.

Behin hamarretan dontzeila nintzen
hamabietan emazte,
goizeko ordu bietan santu³
alargun gelditu nintzen.

Nik hartu neban sentimentua!
Nik hartu neban penia!
Hiru umetxu txikiak eta
alargun gelditu bihar!

Zin eiten dautsut senar maitia
gure umean aurrian:
zure izena ez da ahiztuko
neu bizi naizen artian.

Azken arnasa emonda gero,
ze poza, ze atsegiña!
Jauna erdian gu aldamenian
alkarregaz betirako.

3. *Goizeko ordu bietan santu*: Goizeko ordu bi santuetan.

MATXINTXO GUREA

Ai ze gizon ona dan
Matxintxo gurea!
Prakatxo zaharrak eta
bera da deungea.
Igaz artoa falta
[eta] aurten andrea!
Ze bizimodu dok hori,
Matxintxo gurea?

Josefa Astarloaren ahotik jaso zuen kanta hau R. M. Azkuek Iurretan. Cancionero Popular Vascon argitaratu zuen Dantzen sailean. Azkuek zuzenketa batzuk egin zizkion, berak asmatutako bigarren ahapaldi bat ere gehituz:

Ai ze gizon zuhurra dan
Matxintxo gurea,
prakatxo zaharrak eta
ona umorea!
Igaz artorik ez ta
aurten hill andrea:
ze bizimodu dok hori,
Matxintxo gurea?



Eztot iñoz ikusi
gure Matxin lotan,
orduan bere al dauko
pipea ezpanetan?
Pipeak hiltten deutso
barruko gosea:
pipa horri esker bizi da
Matxintxo gurea!



BERRIZKO ITSUA

Kanta hau R. M. Azkuek Iurretako Tomasa Otxandategiri entzun zion, eta *Cancionero Popular Vascon* argitaratu zuen Dantzen sailean. Azkuek berak kontatzen digu itsuaren historia: izan ei zen Berrizen XVIII. mendean tanbolinteru eta tratante itsu bat Francisco Amezua izenekoa, baina Patxiko gaitzizenez ezaguna. Haren ondorengoek ere Patxiko izenorde bera hartu zuten, eta euskal dantzak gordetzeko lanagatik famatu ziren. Lehenengoak baina, diru polita egin ei zuen ganadu-tratuan, eta horri esker lortu zuen ezkongai.

Ezkontza oso garrantzitsua zen gizarte tradizionalan, eta ez zihoan beti maisunarekin lotuta.

Berrizko itsuari
Patxiko deritxo,
alabea daukanak
hari emon leidxo.

Alabea daukanak
emon deutsalako
Berrizko itsu horrek
atsotxu bat dauko.



AITA SAN MIGEL

San Migel, Doniel, Iurretako patroiairen kanta. Baina Iurretakoan bezala, Garai, Durango, Abadiño, Berriz, Izurtza edota Mañariko dantzari dantzan ere erabiltzen da doinua eta erabiltzen da abestia.

Aitte San Migel Idxorretako
Zeru altuko loria;⁴
agure zaharrak dantzan ikusi
ta harek eitten dau barria.

Garaiko plazan otia loran
Ermuan asentzidxua;⁵
dantzan ikasi gure dabena
Barruetara beidxua.⁶



4. 'Lorea' ulertzen dute batzuek, 'loria' zelestiala beste batzuek.

5. *Asentzioa*: asentzio belarra (*artemisia absinthium*).

6. *Bedxua*: beidxue, bihoa.

ABENDU KOPLAK

Neguko eske-kantuetan lehenengoa da Abendua. Lea eta Urdaibai aldean *Marijesiak* deitzen dira eta egunetan egiten dira. Iurretan egun bakarrean, 23an, irteten da atez ate kantari. Badirudi XVII. mendetik datozela koplok, Nikolas Zubia durangarraren liburuak zetozelako.⁷

Kopla hauek urtero abesten dira abenduaren 23an. Atari bakoitzean ez dira kopla guztiak kantatzen, hemen sei-zortzi, hor dozena-erdi eta harantzago errepertorio osoa, *ad libitum*.

1
Abendu santu honetan
bihar da denporia,
orain kantatzen dogu
Kristoren jaiotzia.

2
Abendu santu honetan
Kristoren jaiotzian
kontentuen haundiz
guztiok poz gaittian.

3
Hogeita laugarrena
dogu abenduan,
deseo genduen
logratu genduan.

4
Aita Adan egin zan,
lehenengo lurrian,
pekatua egin eban
paraiso eternalian.

5
Erabagia izan zan
Trinidad altuan
behar zala bialdu
lurrera aingerua.

6
Behar zala bialdu
lurrera aingerua
erremediatzeko
Adanen pekatua.

7
Birritan edo hirutan
Josek jo atia
gizonak bentanara
nekez urtetia.

8
Gizonak bentanatik
diola erantzuten
«gabera gau erdian
nor da ate joten?»

7. Jose Antonio Arana Martija, «Marijesiak», *Euskera*, 48 (2003). 69-108 or.

9
Izarra bularrian
semia sabelian
ha bai dontzella ederra
itsasoaren ertzian.

10
Gaueko hamabiak
jo duten orduan
gure salbagillea
jaio da munduan.

11
Eguzki dibinala
gaberdi batian
etorri zan mundura
gizonen soñian.

12
Trinidad altuko
Bigarren personia
transformadurik dago
Belengo portalian.

13
Belengo portalian
estalpe batian
jaio da Jesus umil
ganadu artian.

14
Astua ta idia
daukoz aldamenian
arnasaz berotzeko
hotzitzen danian.

15
Astuak arrantzia
idiak arnasia
halan berotzen dabe
jaio dan infantia.

16
Billozik egon arren
ez zara pobria
zeruan josita dago
zuretzat erropia.

17
Hau dala jaio jaio
hau dala jaiotzia,
semia jaio ta gero
ama da dontzellia.

18
Goiko mendietatik
pastoriak datoz
esanik aingeruak
jaio dala Jesus.

19
Hiru errege mago
hain bide luzian
Belengo portalera
mirariz joan ziran.

20
Beltxiorrek urria
Gasparrek intsentsua
ta Baltasarrek barriz
mirra preziosua.

21
Herodes erregia
faltso traidoria,
zergatik damu dozu
Kristoren jaiotzia?

22
Jose eta Maria,
euker bildurregaz,
Belenetik joan ziran
euren Jesusegaz.

23
Zorionian Jesus
zu jaio zinian
bestela zeruetan
sartzen ez gañian.

24
Gu salbatzeko gizon
egin zara hemen
gloria gozatzeko
zeruetan. Amen.



SANTA AGEDA KOPLAK

Abenduko koplen moduan, beste eske kopla batzuk ere badatoz gero santaes-
kean ibiltzeko. Santa Agedari, Euskal Herrian ermita gutxi duen arren, Zuberoatik
Enkartazioetaraino abesten zaio otsailaren 5aren bezperan edo egunean bertan.
Ohitura da koplok abesten joatea auzunez auzune eta etxerik etxe, abestu ahala
makilarekin lurra astinduz.

1

Santa Ageda, Ageda,
bidxer da Santa Ageda,
bidxer da Santa Ageda eta
gaur haren bezpera gaba.

2

Bedeinkatua dedilla
etxe honetako jentia,
pobre ta umil dabizenentzat
badauko borondatia.

3

Santa martiri maitia
dago errukiz betia,
berak alkantzau daigula danoi
osasuna ta bakia.

4

Eder zeruan izarra,
errekaldian leizarra,
etxe honetako nagusi jaunak
urregorrizko bizarra.

5

Urregorrizko bizarra eta
diamantezko espalda,
errial zuriz egiñik dauka
eleizaraño galtzara.

6

Hamaseikoak zillarra zabal
laurogei pezeta dittu,
guri pare bat emonagatik
bedorri asko geldittu.

7

Arantza baltza ostrotsu,
puntara dxaku loratu,
orain hemendik bihar genduke
dama gazte bat koplatsu.

8

Sentitzen zaitut sentitzen
jagitten zelan zabizen,
zure ointxuen txiplistin hotsak
sala barridxen astintzen.

9

Eraztuntxu bat letonez
begidxe urre kolorez,
gure aurreko neskatiñori
edozeiñentzat egon ez.

10

Errotapien harridxe,
haren ganien txoridxe,
eraztun baten pasa litteke
maitia zure gerridxe.

11

Horra ortuan madari,
adarrak dittu hamabi,
hemen dagoen dama gaztiak
baba loria dirudi.

12

Neskatillia ezaittez egon
ate zulotik begira,
zuk nobidxorik falta badozu
gure kuadrillan badira.

13

Hauxe bai neska politte,
neska kolore gorridxe,
zure matrailla iruditzen dxat
krabeliñaren orridxe.

14

Krabeliñaren orridxe,
larrosa maiatzekue,
zeuri begira hementxe gagoz
damatxo bidxotzekue.

15

Paradisuko txoridxe
hegotxu bidxe zuridxe,
etxe honetako dama gaztiak
ederrak dittu begidxe.

16

Zure ortuko babie,
harexek leka luzie,
etxe honetako dama gaztiak
sei mila duro dotie.

17

Haixiek eta euridxe,
atara biher begidxe,
pozurik pozu galduten dxatez
neure lagunik erdidxe.

18

Solomo gerri luzie,
haren koipien dultzie,
zatidxe kentzen ibili barik
ekarri egizu guztidxe.

19

Zakue dauku ariñe,
Matxin Santuek egiñe,
hau betetako leku on batera
allegatuko bagiñe.

20

Horra hor goidxen iturri,
ura txorrotik etorri,
etxe honetako nagusi jaunak
asto mentaua dirudi.

21

Andre mondongo mondongo,
hik ezton asko emongo,
hik emondako diruarekin
etxunau asko edango.



EGUEN ZURI KOPLAK

Karnabeletan ere, Eguen Zuri edo Ostegun Gizenenean, ohitura izan da Iurretako eskolako umeak eskean ateratzea etxerik etxe koplakantari.

Bargundia baserriko Kandida Zamalloa eta Gaztañatzatorreko Irene, Felipa eta Edita Zamalloa ahizpengandik jaso ziren letrak:

1

Eguen Zuri honetan
hasi gara gu kantetan,
zuri zuritxuak maixuarentzat
beste enparauak geuretzat.

2

Maixu jaunaren dixipuluak
etxeko jaunaren atetan,
alkate jaunaz egondu gara
atzoko arratsaldean.

3

Alkate jaunak agindu deusku
ibiliteko bakian,
bakian gabiz bakian
lehengo zaharraren legian.

4

Ezpabe sartuko gaittuzela
ziela illun batian
ez gaittuzela atara be ingo
berak nahi dauen artian.

5

Idxorretako kanpantorriak
altuan dauko kapelia,
zortzidxen-zortzidxen juaten dxako
andra ederren erroskia.

6

Kuriosotxu hasi gaittezan
etxe honetan kantetan,
lotxu gozuan daguezanak
ikeratu ez daittezan.

7

Horra hor goidxen piñue,
uzabak ei'usku kiñue,
uzabandriek emongo dau-ta
tabernarako dirue.

8

Etxe honetako andra zabala,
leku oneko alaba,
bidean esaten etorri gara
limosneria zarala.

9

Eder eleizan liburu,
usuak haren inguru,
etxe honetako txiki-haundidxe
paradisuen aingeru.

10

Solomo gerri luzie,
haren koipien dultzie,
zatirik kentzen ibili barik
ekarri egizu guztidxe.

11

Altza, altza, Maridxe,
ez ixen horren nagidxe
hainbat ariñen topau eiozu
ollo pinttenai habidxe.

12

Horra hor goiko sabaidxen,
estuen edo nasaidxen,
ollotxuren bat egongo ei da
arrautzatxuekin habidxen.

13

Ule trentzia gerriraiño,
zeda mantoia lurreraiño,
bedorren langorik ez dauela
Sibiridxetik honaiño.

14

Sibiridxe eta Granada,
urdeiazpidxe ona da,
urdeiazpidxe ona da baña,
hiru lukainkaz hoba da.

15

Zuri nabarra bai azpiko,
gorri ederra ganeko,
andria zure parerik ezta
plaza bat ondratuteko.

16

Aurtengo urtien ipintten dabe
Bernagoitidxen dendie,
akerrentzako praka laburrek
ahuntz ardidxentzat gonie,
azeritxuek txanebillakin,
ai, hauxe da denda limosnie...

17

Ate buruan azkora,
idxe kantarik asko da,
hemen nahikue egin dogu ta
orain guazen albora.

18

Emongo bozu, emoixu,
bestela ezetz esaixu,
ezpabe hurrengo etxera juateko
berandu egin bihar jaku.



GOIURIKO AMA

Goiuriko elezabar batean kontatzen zen Ama Birjina agertu zitzaiola mutiko bati. Eugenia Maiztegik haxe kantatzen omen zuen:

Agustuaren hamabostien
Andra Maria goixien,
debototxu bat billatu naben...
Debototxua, debototxua,
mezatara badxoien.

Zuk aitte arotza dozu?
Hauxe esan egiozu,
ermitatxu bat egizu...
Zazpi lata ta zortzi teillagaz
ermitatxua egizu.

Ermita hori eraikitzen hasi eta, gauez, eraikuntzarako materialak lekuz aldatzen omen ziren. Andere jakin-gose bat beilan geratu zen gauez, eta ikusi omen zuen aingeru batek gurdian eramaten zituela leku batetik bestera, idiei aginduz:

—Aida, Gorri eta Belidxo, han bentanan dagoen atsoari begidxez urten begidxo!

Eta betoker geratu omen zen andre hori. Antzina gertatu behar izan zuen horrek guztiak, ermita horrek XI. mendeko parte batzuk dituelako.

Domingo Zuluaga ibarrangelutarra lurretan egon zen abade gerraostean, 1940-1943 bitartean. Ibarrangeluko kantuekin eta kontuekin, lurretako abesti hau ere jasotzen du:⁸

Agur Goiuriako⁹
amatxo ederra,
amatxo ederra.
Aingeru eta gizonen
pozside zeu zara.
Agur Goiuriako
amatxo ederra.



8. Domingo Zuluaga, *Ibarrangelu: kantu eta kontu*, Labayru, Bilbo, 2009.

9. «Goiuriako» hitzeko -a itsatsia hiperkorrekzio bat da. Badirudi abesti zaharra «Agur Errosarioko...» hasten zela, eta Martin Aranbarri ondarrutar abadeak hitz aldaketa hori egin zuela.

Zure laguntza eske
gatoz ama maite,
gatoz ama maite.
Gugaz orain da beti
akordatu zaite.
Gugaz orain da beti
akordatu zaite.

Zeruetan zauzena
zorion beterik,
zorion beterik.
Inor ez dozu ixten
deituten deitsunik.
Inor ez dozu ixten
deituten deitsunik.

Iurretako koroak beste abesti bat ere badu *Goiuriko Amari* dedikatua; letra
Domingo Zuluagarena da, eta musika, Juan Inazio Abasolorena:

Loretan ederrena
dogu guk larrosa,
Goiuriko amatxo,
zara gure poza.
Bake eske dago hemen,
Ama, zure herria.
Emoiguzu danoi
bake ugaria.

FERRERIATARRAK

Abestia XIX. mendeko laurogeiko hamarkadakoa izan daiteke gutxi gorabehera. Paduretako Ferreria familiartea da gaia. Aita Jeronimo Ferreria Gorrotxategi (Garain jaioa 1828an), ama Maria Zelestina Apoita Goikoetxea (Berrizen jaioa 1831n). Seme-alabak izan zituzten: Antonio, Pedro Anastasio, Kandida, Benito, Nikolas...

Aitte Lemonara
tanborra josten,
ama Gernikara
kipula saltzen.

Pedro kanterara,
Kandida¹⁰ josten,
Mitola¹¹ etxien
morokille jaten.



10. Kandida Ferreria Apoita, 1867an jaioa Berrizen.

11. Nikolas Ferreria Apoita, 1873an jaioa lurretan.

DANOK BIZI BI'OGU

Sabin Mardaras Aranzetak abestu eta kontatutakoa. Bitor Azula bizarginak kantatzen omen zuen, ahoskera defektuagatik $rr > l$ bihurtuz:

Batzuk bixela kentzen,
bestiek lablantzan:
danok bixi bi'ogu
zetan edo hatan.
Danok bixi bi'ogu
zetan edo hatan,
batzuk bixela kentzen,
bestiek lablantzan.



ARDAOTXO BALTZA

Gehiago edan da sagardoa ardoa baino gure historian. Hala ere, ardoak estimazio handiagoa izan du, kantuetan behintzat. Ardoa goraipatzeko abesti asko egin dira. Honetan, ordean, ardoaren arriskuak aipatzen dira: gizon mozkorrak familian sortzen duen matraka.

Kanta hau ere Josefa Astarloari entzun zion Azkuek Iurretan, eta *Cancionero Popular Vascon* argitaratu zuen Ardo-kanten sailean. Antonio Zavalak ere jaso zuen, *Jan-edanaren bertsoak* liburuan.

Ardaotxo baltza, zer dakak hik?
Larregi edanak ez gauza onik,
gizonak iminten badakik hik
zutunik ibili ezinik.

Gaberdi ostean beranduan
etxea nekez jo genduan,
eskaratz aldean sutonduan
panparrerria bagenduan.

Andrea oinak erantziten,
berbako hamar erantzuten,
gizona dearrez andreari:
«Jagi zaitez edo jagi hadi!»

Gizona aratuten inguruak,
nun ete diren akuluak;
«Amatxo!» dearrez aingeruak,
aitak jo eztaian, koitaduak.

Azkueren ustez, bigarren, hirugarren eta laugarren bertsoek ez zuten lotura handirik lehenengoarekin eta, folklorista-moralistaren kriterioekin, urak ardoari egindako errietaren ostean, ardoaren urarekiko iseka hau proposatu zuen bigarren eta azken bertsotzat:

—Ur zikin horrek, zer diraustak?
Gizonak ito daroazak.
Balbeak harabil lankidetzat,
ut!, sapaburuak edaritzat!

R. M. Azkueren doinua:



Abestia lehenago ere aipatua zuen, Isidoro Ruiz de Arbulok, Durangoko euskal jaiak zirela eta, *Euskal-Erria* aldizkarian 1888an argitaraturiko *Las fiestas euskaras* artikuluan:

Mahatsaren ura, zer dakak hik?
Larregi edanda ez gauza onik.
Gizonak ifintten badakik hik
zutunik ibili ezinik...



ESAK HAMAHIRU

Maria Luisa Arroitauregi Aranzetak bere aita Pedrori ikasitako kanta edo erreztatua. Orobiourrutigoikoa (*Sakristauena*) baserrian jaio zen Maria Luisa.

Ohikoa da 13 zenbakiari zaion beldur irrazionala: «hamahirufobia» edo triskaidekofobia (τρεισκαιδέκα, *treiskaideka* 'hamahiru'). Ez esateko hamahiru, ez dagoela hamahirurik esaten da abesti honen ohiko bertsioan, Ez dok amairu taldearen izena hortik dator. Abestiaren aldaera hau osterakoa da: hamahiruzalea, triskadekofiloa.

Esak hamahiru
ollarrak eitten dxok zeruan
ama ederren onduan.
Hamabi dira koruak.
Hamaika milla aingeruak.
Hamar mandamentuak.
Beratzi ordenamentuak.
Zortzirak dira zeruak.
Zazpi sakramentuak.
Sei argilaridxuak, sei.
Bost Jesusen bost llagak, bost.
Lau ebanjelistiak, lau.
Hiru trinidadia, hiru.
Erromako altarak bi.
Gure Jauna, bera dok bat.
Berak salbauko gaidxozak,
Berak salbauko gaidxozak.



MUTILZAHARRAREN SERMOIA

Errezitatu egiten da, ez abestu. Errezitatu, gainera, sermoi antzera. Halaxe entzun eta jaso zituen hitzok Karmelo Etxenagusiak Arandiagoitiko Benito Uriberen ahotik. Benito Uribe, mutilzaharra bera (umorez beti gazte), buruz zekizkien bertsook esateko orduan sermolari liturgiaduna bihurtzen zen. Ez zuen sermoia edonon botako: bazkari edo afari patxadazkoren baten ostean bakarrik. Eta ez zuen erraz egiten, abaderen baten erregu errepikatuei amore emanez baizik. Baina, behin berotutakoan, lotsak alde batera utzi, igo mahai gainera («pulpitora»), txapela kendu, eta, errime eta serio, besoei ere eraginez, esaten zuen:

Neure entzule maitiak:

orain etorri dira
ordena barridxak,
ezkontzeko neskazar
eta mutilzahar guztidxak.
Ezkontzen ezpadora
aurtengo urtian,
datorren urtian joan biharko dabe
errematian.

Mutilzaharraren bizidxa
nahi neuke nik jarri,
gogoratzen badxako
neure buruari.
Erruki haunditxo bat
dautset nik hareri,
zelan bizi direan
hain lastimagarri.

Berrogei urterarte
dabil nobidxetan,
eta sarriten egoten da
bide bazterretan
zuri-zuri bizarra
bere matralletan,
eta orduan geratzen da
ha erdi-baketan.

Bere burua dago,
beti amesetan;
«Andra bat hartu baneban
nik neure gaztetan,
enintzake, ez, egongo
gaur modu honetan,
lorik egin ezinda
hainbeste gabetan!».

Ettxera doianian dauko
su-inguru hotsa,
eta harek larritzen dautso
apur bat bihotza.
Amak ipinten dautso
bekokia motza
eta, horren ganera,
kuartua guztiz hotza.

Amari Jangoikoak
deitzen dautsonian,
orduan hasitzen da
andragai atzian,
itargi betiagaz
buruan gairian,
berari argi egiteko
gabaz doianian.

Emakume guztiok
dirautse arpegira:
«Mutilzaharra zara-ta
enaz zure gura,
zu baño hobiagorik
joan da zerura!».

Bizarra zurituta
buruan kalbua,
orduan izaten da
haren akabua.
Edozeñek dirautso:
«Mutilzaharra hor dua.
Horrek berak galdu dau
berorren burua!».

Baña...
gauza bat ona dauko
mundu honetarako
ez daukala umerik
prakak lohituteko
eta emazterì' peza
hasarre egiteko:
irabazten dabena
dana beretzako.

Diru apurtxuren bat
badauko etxian,
bera ondo gorderik
bildurrez giltzian;
eta lobak ibiltzen dxakoz
beraren atzian
daukana kenduteko
engañau artian...

AMAITU DA!



JOSE LEJARRETA (1834-1895), iurretar argazkilaria. Bigarren Gerra Karlistaren testigantza fotografiko aparta utzi zuen, 1872-1876 bitartean Carlos VII pretendientearen bandokoei Durangon erretratuak eginez.

Argazki honetan, Durangerriko orduko talde armatu karlista bat ikusten da.

IPUIN ZAHARRAK

Bost atzamar markaute esku erre bategaz



Bixente Ameztoren irudia.

IPUIN ZAHARRAK

Ipuin zaharrak izenak antzinako denborara eramaten gaitu, umezaroko begi-belarri harrituetara, non agertzen diren betiko jolasak, galderak eta beldurrak. Urruneko lainopean bezala zabaltzen dira paisaiak eta handik agertzen diren pertsonaien portaerek eta berbek geure aittitte-amamen eta euren gurasoen mundura hurreratzen gaituzte.

XIX. mendeko mugimendu erromantikoek herri literaturaren edertasuna goretsi zuten eta, *volksgeist* edo *folk-lore* hitzekin identifikaturiko testu horien bidez, herriaren izaera eta balio sakona azaldu nahi izan zuten. Lekuan lekukoa unibertsalena zela ohartuta hasi ziren Europa osoan ahozko altxorra biltzen eta argitaratzen. Gurean ere lan horri ekin zioten bertako zein kanpoko folklorezaleek.

Iurretan jaso dugun bildumatxo honetan badira mitologia eta sinesteak batzen dituzten ipuin harrigarriak (*Txotxuek*, *Kueba aurretik*, *Anima penatue*, *Irrintzidxe*, *Zantzuek Laixiarren*), badira jokabideak kritikatzeko eta erlijioarekin batera morala erakusteko transmititu izan direnak (*Jangoikue Euskalerridxen ibili zanekeue*, *Ogi bedeinkatue*), badira jolasa eta barrea beste helbururik ez duten umorezko ipuinak (*Peru ta Maridxe*, *Porrusalda useiñe*, *Abade zesterue*, *Perretxiko jana*), eta bada, azkenik, umeentzako animalien ipuin klasiko baten bertsio bat ere.

TXOTXUEK

Jesus Aldekoa-Otalorak jaso, eta *Eusko-Folklore* aldizkarian argitaratua 1949an.

Kueba baten egoten ei zien, da dauz, txotxuek, bai gizonenak bai animalidxenak.


Baten, aberats bat juen ei zan kueba hori ikusten eta, txotxo hórrek ikusitte, hartu ei'aben politten bat bere jardiñera ekarteko.

Hartu eta ekarri aben. Baia, bidxamonien ez euen bapez.

Ostera be, ekarri, eta beste baten batek eruen.

Honetara dabizela, urten ei'otsen kuebako sorgiñek eta esa'otson gehidxau ez erueteko, ostantzien bera eruengo dabiela:

—Bakien dauenari bakien itxi.



KUEBA AURRETIK

Jesus Aldekoa-Otalorak 1933an jaso, eta *Eusko Folklore* aldizkarian argitaratua 1975ean.

Idxorretan neskak etxe batera goruetan gabez jueten ei zien. Neska batek pasau bi'aben kueba aurre bateti.

Gau baten agertu ei jakon gizon bat –sorgiñe– eta esa'otsen gehidxau handik ez pasetako ordu hatan.

Neska horrek esan ei'otsen bere laguneri zer pasau jakon. Eta lagunek billur barik jueteko esa'otsen, zorakeriori itxitte...

Juen ei zan ba bidxamonien eta urte'otsen sorgiñek, eta sartu aben kueba barrure, eta atera'otsezan griñak...

Bere etxekuek topetan ebizen eta juen ei zien kuebara, eta topau abiezan bere griñak eta amantalak apurtute.

ANIMA PENATUE

Arriandiko Pilar Agirrezabalek 1991n kontatua, 41 urte zituela.

Ixen zan gazte bat, ba, gabien berandu erretiretan zana. Da bere amak esate'otsen gabeko hamabidxetatik paseute gero ez etorteko etxera.


Eta esa'otsen:

—Bai, ama, gaba bi daruaz ba, eztakitt dan sonbrie edo neure irudimena... baña zeozer, persona baten sonbra moduko bat pasetan dxate ondotik.

—Bueno, ba, gaur gabien pasetan badxatzu bardin, ba, pañelue eskeiñi, da holan jakingo'zu irudimena dan edo eztan.

Da, ba, gabeko hamabidxek jo ta gero badue, ba, jantzalekutik etxerutz barriro, eta eskeiñi'otsen pañelue... Da, ba, irudimen horrek, berak pentseta'aben irudimen horrek ebatu ein'tsen...

Da ixen zan, ba, anima bat penan.



IRRINTZIDXE

Arriandiko Pilar Agirrezabalek 1991n kontatua.

Martzako gazte batzuk, oin denpora asko, ei' abien apostue, ba, hango ermittieri gabeko hamabidxetako kanpaiegaz lau buelta emon bai emon ez...

Da hasi zienien gabien kanpaie joten... hasi zan gaztie bueltie emoten... buelta bat ei'aben, eta irrintzi ein bi'aben...

—Iiiiiiiiiiii... —ei'aben irrintzidxe.

Ta kontestau ei'otsien.

Da bigarren bueltie emon, da irrintzi ei'abenien, barriro be kontestau... da ikeratu ein zan.

Da hirugarrena emon, da irrintzi ein, da kontestau otsienien aiñeketie ei'aben etxera.

Etxera sartu eta atie itxiaz batera, golpe bat sentidu aben atien, da hurrengoko egunien, urte'abenien kanpora... Ikusi aben atien markie: bost atzamar markaute esku erre bategaz...

Ba, zeozer erreta, bost atzamar markaute.

ZANTZUEK LAIXIARREN

Milagros Lauzirikak, Oromiñoko Txarroa baserrikoak, 1991n kontatua, 49 urte zituela.

Baten, Oromiñoko gizon batzuk, ba, juen zien Laixiarrera, ze Laixiarren eitte'abien txondorra iketza eitteko. Ta juen zien kuadrilla bat, eta zelan gaba bertan pasau biher ixete'abien, ba eru'abien gabien bertan jateko makallaue.

Illundu zanien, juntau zien kuadrillie eta ipini abien brasan makallaue erretan. Makallaue erretan dauela, ba kuadrillan beti egoten diez xelebrien batzuk, eta batek eñ aben zantzu bat...

Da, ene!, zantzue ei'abenien, holan urriñien baten batek ei'otsien, ba, kontestau, Da, bueno, batek esa'aben:

—Aber, eixu barriro, aber ixen dan...

Zantzue ei'aben barriro, eta atzera ei'otsen kontestau. Eta orduentxe geratu zien danak, ba, pentsetan lez, zeozer pasetan dala, zeozer badauela...

—Ba, bueno —esa'abien—, ba, jakiteko dan ala ez, eixu atzera...

Ei'aben hirugarrenez eta brasa ganien euki abien makallauek be ei'abien salto... harek ei'otsien kontestaziñuegaz.

Da orduentxe mutillek, galantak ixen arren, itxi makallauori brasan bertan, eta bakotxak... Oromiñora... Laster ein biher ixet'abien alde... itxi bertan brasie ta...

Asike, sorgiñek edo zeozer egon zien.



JAUNGOIKUE EUSKALERRIDIXEN ZIHER IBILI ZANEKUE

Ziortza Aldekoa-Otalorak bere aittitte zenari entzunda lez kontatua.

Batek daki nozkue ixengo dan hau kontuau, baña barri-barridxe ezta ixengo. Jaungoikue, mundue zelan euen ikusten ebillen, eta, halako baten, Euskalerriko herri txiki batera allegau zan.

Artien, gabak arrapau aben, eta eguraldi eskasaz ganera. Nonon lo be egin bi'zan, eta hasi zan etxerik etxe lotarako leku bille.

Baserri bateko atie jo aben, eta etxeoandrieri ea bertan lo eitterik euen pre-guntau otson. Haren itxurie etxekandrieri gustau ez, antza, eta atuen despatxau aben etxe bueltan eskekorik ez abela biher esanez.

Alboko baserrire juen zan orduen Jaungoikue, eta han be aurreko etxien esplikau abena esa'aben. Bigarren etxeke etxekandrie errukittu ein zan, eta gaba pasetako lekutxo bat itxi otson. Bidxamonien, etxekandriori jagi zan, eta, errekauteu juen aurretik, diru-kontetan hasi zan.

Jaungoikuek, aurreko egunien ei'abena eskertu guran-edo, honako hau esa'a-ben:

—Oñ hartu dozun biherlekue ixen daittela egun guztireko!

Han ekin otson andriorrek egun guztidxen diruok kontau eta kontau... Eta illundu abenerako total aberastu zan.

Ixilik be ezin egon, eta auzokueri kontetan juen jakon zertzuk pasau jakozan aurreko gabien etxien hartu aben personajiaz. Auzoko horrek inbiridxa pixka bat hartu aben, eta, horretara bazan, gaba pasetan eurenera bialtzeko esa'otson.

Hurrengo goixien, andriori goixien goiz jagi zan. Diru-kontetan egun luzie eukingo abela eta, lelengo, komunera osteratxue eittie pentsau aben; gero iguel astiri'pez eta...

Komunera sartu eta kakagiñen hastiaz batera, aurreko goixien auzuen ei' aben lez, honako au esa'aben Jaungoikuek:

—Oñ hartu dozun biherlekue ixen daittela egun guztireko!

Eta egun guztidxe kakagiñen emo'aben, eta, aberastu biherrien, kakaz bete jakozen etxeke baztar guztidxe.

OGI BEDEINKATUE

Oromiñoko Zamalloa baserriko Maria Linazak 1991n kontatua, 77 urte zituela.

Printzesa bat, dama bat, oso aberatsa zan... Eta lehenau ogidxe komuniñuen partietan zan, da antojue emo'tsen, bedeinkatute egonda, ba, antojue emo'tsen... Da elixatik urte'abenien, elixa aurreko zangatxu batera bota aben ogidxe. Da ein zan geixotu. Da medikue'pe ezin ixé'abien osatu, eta ezin osatu...

Da sorgiñek egon zien han, da sorgiñek jaki'abien zegaittik dauen geixorik. Da esa'otsien eurek esate'otsien esana eitten badau sanauko dala...

Da prest dauela eitteko, sanetakotan, prest dauela eitteko.

Baña, honetarako... Ogidxe zapuek euki aben aguen, iruntzi ezin zapuek... bedeinketue ixen zan eta iruntsi ezin... Ta, ba, honetarako, esa'otsien:

—Zuk Gure Jauna hartu zañunien elizan, bota ein zañun?

Ta...

—Bai —esa'otsien—, bai.

—Ba, oin zuk bota zañun ha ogidxe zapuek deko aguen, da haixe jan bi'ozu osatzeko.

Atzenien, konbentzidu ein zan, eta osatziarren jan ein biher ixé'aben.



PERU TA MARIDXE

Ohikoak ziren Peru eta Maria bikotearen ipuinak. Peru gaixoa artaburu samarra izaten da, eta aldrebes egiten ditu beti Mariaren aginduak.

Hau, Juanita Alberdiri jasoa da 1991n.

Bizi zien baten andra-gizon batzuk, da euki abien ume txiki bat, eta andriek ez aben gure ixeten juetie plazara errekauek eitten. Jostorratzak falta dxakozan, da gizona bialdu aben andraorrek, eta allegau zaniendendara ahaztu ein dxakozeren bille juen zan, da atzera etxera juen zan andrieri preguntetan.

Da andriek esa'otsen:

—Bueno, bueno, zugaz ezi'leike. Neu juen biko naz, eta zainduixu umie, lo dau te. Da ollolokie be ezarritte dau arrautzakin, da kontuen eukin aber noz jagitten dan arrutzak hotzitu barik barriro habidxara juen daitten. Da ogidxe'pe laban dauz, da atara ogidxe'pe labatik.

Eta badau gizonori, da umiori hasi dxako negar da negar da negar. Da ezi'aben ixilddu umiori, da ollolokie be jagi zan habidxatik, da juen dxako beheko solo barrenetara. Da ogidxe'pe laban eukezan. Da akordau dxakon lelengo trago bat txakolin ein bi'abela...

Da juen zan trague txakoliñe eitten, da kortxuek urte'otsen. Da zer ei' aben? Txakurren buztena sartu'otsen zerien barrikieri. Da gero ollue ekarteko hasi zan txakurrei diarrez:

—Pintto, Pintto, etorri hadi! —solotik deittu'otsen gizonorrek.

Da zer ei aben ba txakurrek? Aiñeketan juen... da barrikada txakoliñe hutsitu ein dxakon. Da gero...

—Enel! Ogidxe'pe atarateko esa'oste niri andriek!

Da juen zaniendendara, ba, dana barrikada ezkatza txakoliñez beteta euki aben. Da labatik atara ogidxe'pe, da, pasetako hankak busti barik, han ipini abezan. Eta gero umiori atzera be negarrez hasi dxakon. Negarrez hasi dxakonien, konturatu zan jaio barridxe zana, da buruen zelan garaunek jote'otsien da:

—Koittae! Zoldittue dekozu...

Da, zer ei'otsen? Jostorratzak sartu'otsezan umieri han buruen, garaunetan joten dauen lekuen, eta gero, ba, juen zala ta... umie, umie lo dau.

Da juen zan andraori, tte umie hildde euki aben, jostorratzak sartu'otsezan da... Ogidxe'pe eukezan ipinitte pasuek eindde, pasetako, ez hainkak bustittek... Da txakolin barrikiori hutsittute... Da esa'otsen:

—Zugaz ezi'leike, bai... da ni hemendik banue...

—Ba, neu be banator —esa'otsen gizonak.

—Ez, zu ez zara etorriko, zu etxien geldittuko zara.

—Bai, Maridxe, banue.

—Ez, Peru, ezatoz... Ba, hartixu atiori!

Da esan gure ixé'otsan atie zarratzeko, da bestiek atara aben zeretik... txorittik. Da atiori lepuen hartute gizonori andrien atzien juen zan, andrie zestilla bategaz, da bidxek alkarren atzien, da...

—Ai! Hau da kantsaziñue dekuana! -esa'aben andriek.

Da gizonak diñotso:

—Zuk zer daruzu ba? Zestilla ba'pañe eztaozu te... Da nik... ez'tostezu esan ba atie hartzeko!

Da, ba, geldittu zien deskantsetan. Horretan, deskantsetan dauzela arbolape baten, hiru-lau gixon argittu zien lapurretan ei'abienak, da diru-kontetan euezan. Da gero gotti'pera zerorrek, Peruek -arbola ganera igo aben sagarren bat hartzeko, da Peruorrek zer ei'otsien? Goitti'pera txixe. Da lapurrok esa'abien:

—Hau da bedeinkaziñuen ederra, Jangoikuek emonda!

Da horretan, ba:

—Oin kaka ein bi'otsiet, Maridxe.

—Ez eixu eiñ holakorik.

—Ba, ein bi'otsiet.

Da gizonorrek plasta-plasta kaka... Ta:

—Honek usein txarra dxekek!

Da ariñeketan martxau abien dirue bertan itxitte. Da gero, ba, diruek eurek hartu ta atzera etxera mobidu zien.



PORRUSALDA USEIÑE

Juanita Alberdik kontatua 1991n, 72 urte zituela.

Behin baten baserri baten bizi giñen, andra-gizonak, eukin genduen seme bat, eta aitte semiaz juen zan mataderora txahalekin. Hil abiezenien juen zien tabernara, da mutikotxuari esa'otsen:

—Juen zaittez, ume, amagana, da esaiozu laster juengo nazela.

Juen zan mutikue, heldu zan etxera, ta allegau zan gaba. Da gaba allegau zanien bere senarra ez zan etxera jueten, da ez zan jueten.

Da gabeko hamabixek jo abienien, ba, andriek zer ei'aben? Izera bat hartu, da lepotik ipini, eta urte'otsen bidera, laster etorriko zala-ta...

Etorri zan horretan, tipi-tapa tipi-tapa, txahalen diruokin... poltsan eukezan zakutotxu baten. Da allegau zanien lekure...

—Alto! —esa'otsen andriek— Bizidxe edo poltsie!

Da gizon horrek, dapa, poltsie bota otson.

Gero andriek esa'otson:

—Oñ hemen belauniko plantau zaittez, da hemen eperdiko zuluen muñ eidazu... ta aittegurie, ta abemaridxe, ta santamaridxe erreza barik ez juen etxera...

Horretan, heldu zan etxera, da andriek ordureko zer ei'aben? Etxera juen da oien sartu. Eta gixonori, ganeko egunetan, ba, triste da triste... Da andriek zer... Jaki'aben zer pasetan jakon, ze berak kendu'otsen poltsie, ta esa'otsen:

—Zer pasetan jatzu, Praixku?

—Ba... hónexek eta hónexek...txahal dirue kendu'ostie. Bat bakarrik ixen bazan... baña hiru-lauk urte'ostien... da emon ein biher ix'e'otsiet.

—Ai, Praixku, Praixku... Hau da zure txahalen poltsie?

—Hagaittik hartu notsun nik zuri porrusalda useiñe, eperdiko zuluen muñ ein notsunien!

ABADE ZESTERUE

Pantxike Galarza Jaiok, 1921ean Goiurian jaioak, kontatua; eta Jon Areitiok grabatua.

Abade bat ixen zan zesterue, da eitte'aben egunien zesto bat. Ez ekidxen aber domekie zan ala ez, da juen zan zestuek kontetan.

—Bost zesto bakarrik... Ezta domekie gaur.

Juen zan beresire palixatan zestue eitteko. Topau aben mezara etorren jentie.

—Nora due, jaune?

—Ba, zestue eitteko palixatan.

—Gaur domekie da ba ta!

—Bost zesto bakarrik dekuaz ba ta!

—Ba, kridxadiek hartuko'otsen zeozertako.

—Talue ta esnie, ta morokille jan duaz... baia, mezato baten orde z sermoato¹ bat eingo'otsuet.

Juen zan, da basarri batetik pasau bi'aben, Alaka² ixena euker baserritik. Juen zan, da txakur okerra euen han... bera liburuegaz, ze liburutik eitte'aben sermoatue. Urte'otsen txakurrek da, harriri'pe ezi'aben topau, jaurti otsen liburue...

Juen zan elixara da idxo'aben pulpitture da esa'aben:

—Enengoke eta banengoke. Domekak eta jaidxek ba'kixue gordetako diena... da nire sermoatue entzun gura dauenak Alakako txakurren buztenpien entzun deidxela.



1. Mezato eta sermoato, -to atzizkia handitzailea da bietan, gaur eguneko umeek esango luketen moduan: «megameza» edo «supersermoi».

2. Alakao, Alaka ahoz, Etxano elizateko auzunea da, Alaka(o) izeneko zenbait baserri daude han: Alakao, Alakaoaurrekoa, Alakaobekoa, Alakaoerdikoa...

PERRETXIKO JANA

Maria Linazak 1991n kontatua, 77 urte zituela.

Zortzi bat gizonek perretxikoak topau abiezan, ba, jan edo bankete bat eitteko ustez. Baña, ez abien jakin danak onak izango zien... Pentseu abien, preparau te txakurreri jaten emon lelengo, ta txakurre ondo baeuen gero eurek jateko...

Da esa'otsien taberneruorri:

—Txakurre zer?

—Txakurre? Ikusten dozue zelako osasunaz dauen, txakurreri etxako ezebe ein.

—A, orduen preparau ein bi'die eta jan.

Atuen prestau eta jan abiezan. Jan, danak ederto, da bueno... Derrepentean heldu zan mutiko bat:

—Aitte, txakurre tragau da!

Danak aiñeketan, batzuk Kruzesetara, beste batzuk Durangoko ospitalera, beste batzuk lelengo topau dabien medikuana...

Da bat geldittu da mahaidxen:

—Da-da-da... —esaneziñez geldittu zan.

—Da-da-da... txaku-ku-rrek as-asko su-fri-fridu dxok? —dardara baten gizonori.

—Ez, aitte, kamioek jo ta atuen hil dde.

AHUNTZEK ETA OTSUE

Pantxike Galarza Goiurikoak kontatutako ume-ipuin ezaguna, Jon Areitiok grabatua 1999an.

Ahuntz batek euki zittuen bost ume, da esa'otsien:

—Zarratu atie, kanpora nue zuei janaridxe ekarten. Otsue etorriko da-ta, ez zabaldu aterik.

Etorri jakien otsue. Tan, tan!

—Edegi atie, ama naz, da goxuek dakarraz.

—Zu ez zara gure ama, ze gure amak deko boza mehie, da zuk sendue.

Juen zan zerera, pasteleridxa batera, da esa'otsien arrautzak emoteko. Emo'otsiezan arrautzak, ja'abezan, da boza mehetute juen zan.

Tan, tan!!

—Edegi atie, ama naz da, gozuek dakarraz-da.

—Gure amak hanka zuridzek dekoz, da zuk baltzak. Zu ez zara gure ama!

Gero juen zan panaderidxa batera, urune emoteko hankak zuritzeko. Zurittu zittuen eurek, da juen zan.

—Edegi atie, ama naz da.

—Aber, erakutsi hankak.

Hankak... zuridzek! Zabaldu otsien atie, da iruntsi zittuen lau ume. Da bat sartu zan erlojuen kajara, da han geldittu zan, bizirik.

Ama etorri zan da, umiei diarrez da, batek erantzun erloju kajatik.

—Zer gertatu da?

—Otsuek jan dauz.

—Egon ba, barruen. Etxostetik buelta bat eitten nue, aber otsue agiri dan.

Da etxe osteko pozu onduen etzunde lo egon zan otsue.

—Ekarri kutxillue ta artazidzek.

Zabaldu otsien tripie, da urte'abien umiek, danak, bizirik. Bete otsien harridxex tripie da, itzartu zanien, egarri... Zutundu zan otsuori, da tripan harri zaratie...

—Nik jan duazan umak harri koskorrak diela esan leike.

Era'aben ure, da pozure jausi zan, da itto.



Eskubarat, Mugarra eta Durango Amatzako ikuspegitik (Emiliano Zuazo).

EMILIANO ZUAZO ETXABURU (1928-2017) Goikola jauregian (udaletxe da gaur egun) hazi zen, eta handixik ikusi zuen 8 urterekin Durangoko bonbardaketa:

«Abioiek heldu eta pentsau gañun propagandie botate' abiela, baña zera, bonbak zien! Gero, lurretako elizostean kanposantu bat euen eta hona be ekarri abiezan hill batzuk...».

CARLOS ANTONIO ZELAIETA

Gura eta gura ez autortu biar dogu *non surrexit*



Orozketako ermitako Santiagoren irudia.

CARLOS ANTONIO ZELAIETA (1814-1868)

«Zu, Antton, hor Orozketako abadetxie saldu ein dabie. obretan hasi die ta kaja bete paper, eztaitt zer dien, pentsetot sermoiek-edo diela. Euskeraz dauz. Eztot beittu ondo, baña iguel eongo die ehundik gora, bai hirurehun be iguel, jo, batzuk ondo leiduteko moduen, baña antxiñekuek e, mordo bat, ta nik eztaitt zer ein harekaz. Ekarrikotsuaz ta beittiezu. Bota, ezingo doguz bota! Herriko Udalera? Bueno, beittizuz, da gero pentsauku zer ein!»

Hala esan omen zion Mikel Sopelanak Anttonmari Aldekoa-Otalorari orain urte batzuk, Orozketako abadetxea saldu eta obretan hasi zirenean, Anttonmarik berak idatzi duenez:

«Kaxa bete paper. Batzuetan antzineko kaligrafia dotorean idatzia, inoiz tatxoi eta irakur ezinezko, edo gureztat zenbait berba ezezagun tarteko esaldiaren mamia jaso ezinik bazterra jota legetxe uzten gaituztenak. Kutxa bat jaso genuen eta edozein errekadista-mandatarik eginen lukeena burutu genuen lehen unean, hartu eta drrraaa! Labayru Ikastegira...».¹

Labayru ikastegian inork aztertu ez eta Antonmarik berak errebisatu ditu gero. Hainbat eta hainbat paper hariz josita koadernoetan bilduta, hirurehun eta piko sermoi. Leandro Zelaia-arenak gehienak, baina baten bat Carlos Antoniorena.

Carlos Antonio Celayeta Hormaechea-Barrengoa 1814ko ekainaren 18an jaio eta bataiatu zuten Iurretako elizan; aita Martin Antonio Zelaieta, Orozketakobeaskoa baserrikoa, eta ama Josefa Sebastianana Hormaetxebarrengoa, Bakixaguardia baserrikoa.

Juan Antonio eta Carlos Antonio anaiak frantziskotarren komunitatekoak ziren Bilboko komentuan gerra karlista hasi zenean, 1834an Fernando VII.ak itxi egin zuen komentu hori karlisten alde ekiten zutelako. Carlos Antonio, Mendatako Albiz auzuneko abadea izango zen gero luzaroan.

Carlos Antoniorenen eskuizkribu bat dago titulu honekin: «*Panegírico de S. Juan Baptista predicado en Ajurias 1860: 4: por Dn Carlos Antonio de Celayeta en Albiz*». Ibarruriko Ajurian 1860an San Juan Bautistari buruz predikatu eta sinaturiko sermoi horren hasiera da hau...


1. Anttonmari Aldekoa-Otalora, «Leandro Zelaieta Ybarra», *Litterae Vasconicae*, 19 (2024), 151-216.

**NON SURREXIT INTER NATOS MULIERUM MAJOR
IOANNE BAPTISTA, MATH, CAP. 11, V. 11**

Jaquin gura badogu, cristaubac, S. Juan Bautistiaren anditasuna ceinen jayotcia gaur celebratan dogun, jaquin nai badogu dinot bere santidadiarene edertasuna, ceinec bestec azaldu leigue araco eguija eguijacuen iturri J.Cº, Jangoico eta guizon eguijascuac baño? Nor da capaz, bera espada, hume jayo barri orreri daoquijon alabanzac emoteco? Eta ce alabanza derichasube J.Cºc emoten deutsela S. Juaneri? Uste dozube contentetan dala esanagaz Malaquias ygarla santubagaz batera dala Jaungoicuac eternidadetic bere aurrian juan eta bere bidiac prestetaco Angueruba? Edo derichasube contentetan dala esanagas ygarlac baño berac gueijago? Uste dosube guerutzen dala [...] esanagas bere sortuera,

edo concecinua izan zala miragarrija, eta jaiyo baino lenago izan zala santutuba? Asquenez, derichasube diñuala Jesusec bere mandatari edo embajadore bautistia-gaitic bere jayotciac postu ebala munduba ain modutan ce judeatarrac itanduten eutsela alcarri: nor izango da seinchu au, *quis putas puer iste erit?*

Ez, cristaubac, ez; alabanza gusti oneri guichi dericho J.Cºc bere mandatari edo embajadorienzat, gueijago eta gueijago eregui gura dau, eta alan diño: *non surrexit*. Esta jagui edo jayo San Juan Bautistia baño andijagoric. Ce alabanza andijagoric? Norbaitec usteco dau venturaz alabanza orren din diriala beste asco. Bere errajetaco seme bacarra bere escubacaz iltia, Jaungoicuaren agundu utz bategaz, ce penagarrija dan, guraso batec usteco dau benturaz Abran patriarquia dala bera beste edo andijagua, ceinegaitic diñoian Escritura Sagradubac bardin baguia izan zala glorijan, eta bere seme Ysac sacrificuetian, Baña bere fediac eracusten deuscu: ezta jayo Juan baño andijagoric, *non surrexit*.



Mirari andijen zale dirianac esango dabe Moysen dala andijena ceinen vici-tza lucia jayotzatic eta gueijago izan zan mirarija, [...] cein eucan Jaungoicuac autu elegiduric bere errija edo pueblua atarateco Faraonen menpetic eta iragoric ychasua oiñic busti bagaric promisinoco lurrera, ceinen bitartez emon eban bere leguia Sinaico mendijan. Moysen dinot ceinec eguin cituban Egipton gauzaric andijenac; Cananen gauzaric miragarrijenac eta ychaso gorrija bildur garrijenac, baña fediac berac dirauscu eztala: *non surrexit*.

Gartaile edo vitorija zaliac, guerralari andijac esango dabe ez daguala eta ez dala iñoz izan Josue bardindu dabenic, araco Jangoicuac Moysenen urrengo bere errija Jordango ibaija iragoric Cananera sarceco escogidu ebana, araco capitan sendua ceinen aurrian ciudade eta gasteluetaco orma eta murallari senduenac conquistau eguiten cirian, Josue dinot ceinec beretu-conquistau eban Canango Erreñuco gustija, deseguin eta birrinduric bertaco erreguiac, eguzquiguinocuac obedecietan eutcen, baña orregaitic bere fedian utz eguini gura ezpadogu, gura eta gura ez autortu biar dogu *non surrexit...*

LEANDRO ZELAIETA

Elexa onetan zagozenic gueijenoc badaquizube



Orozketako *Santidxau* ermita.

LEANDRO ZELAIETA (1852-1916)

Leandro Selayeta Ybarra, bataio paperean idatzita dagoenez, Orozketabeaskoa baserrian jaio zen 1852ko martxoaren 13an, eta Durangoko Andra Maria kalean hilgo zen asistotiaz 64 urterekin (1916-05-04), Iurretako San Migel elizako kaperaua zela.

Sotxantre edo koru zuzendaria izan zen gaztetan Gasteizko katedralean. Gero Durangaldeko abade euskaltzaleen sarekoa izan zen. Lagunekin behin baino gehiagotan agertzen da Aita Aranaren *Egunarian*, txango honetan esate baterako:

«Atsaldian Yurretan gora Galindo mendira D. Balbino G., D. Leandro Zelayeta, D. Julian Aranako, D. Jose Amezolako ta D. Juan Lazpitakoakin. Tontor puntaraino D. J. eta A. Arana, biak bakarrik. Handik begiraldi eder asko itsasalde ta lurraldera. Bilbo aldeko Ibaizabalgo kia ta laino; Serantes, Jorano aldea, S^a Kruz Bizkargiko, Momua basarridi edo auzote Ibarrurikoak, herritxo ta mendi asko itsas aldera. Araba aldera Aizkorri, Aloñamendi, Anboto, Kanpazar...».¹

Aurreko atalean esan bezala, Orozketako abadetxea saldu eta obretan hasi zirenean agertu ziren hirurehun eta piko sermoi zaharretan Leandro Zelaietarenak dira eskuizkribu gehienak.

Domeketako mezak eta dotrina Orozketako Santiago ermitan ematen hasteko motibua azalduz hasten da Leandro Zelaietaren letrarik letra transkribituko den sermoi hau...

1. Patxi Altuna (ed.), *Aita Aranaren Egunaria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000; 248 or.

BAÑA ALAN DA GUSTI BERE GURE NEUQUE JAQUIN DEIZUBEN GUSTIJOC


Elexa onetan zagozenic gueijenoc badaquizube, baña alan da gusti bere gure neuque jaquin deizuben gustijoc, celan fray Juan Antonio de Celayetac, ezaguturic ondo, baserri urrin onetaco gentiac ce neque ta trabajua dauquen Domeka ta jaijegunetan guztijetan Jaungoicuac eta ama eleiza santiac aguinduten daben moduan mesa santia entzuten parroquijetara juatiaz, batez bere negu partian esetzi ta dempora charracaz; gura izan eban ipini erremedijua albait onduan gachoni, eta ipini eutsan; aguinduric bere testamentuan, fundau zeitela Hermita onetan capellanija bat, ceinec euquico eban ardura edo obligacinua Domeka ta jaijegin gustijetan mesia emoteco bere arimiaren oneraco. Ichiten citubala onetaraco encarguaz bere testamentarijo jaunac, ceintzubece eguin daben aleguin gustija ainbat lasterren cumpletaco fundadore onen vorondatia, baña etorric gausa batzuc oquer, ecin izan dabe cumplidu oincha arte.

Onezgañera baita ipinten ceitubet contuban eguingo duala aleguina neure aldetic dotriña puscachobat espliquetan, alduan gustijetan, ceuben ta ceuben umechubei eracutsitzeco.

Gustiz izango da laburra esplicaciñua; arren euqui deizuben demporia echeco cer eguinac eguiteco, eta echietan guerartuten diranac mesa nagusire bialduteco.

Icusiric orain ce mesede ugarija dan ceubentzat obra onen fundaciñuau uste dot etzariela aztuco Jaungoicuari erregututiaz bere arimiagaitic ceuben oraciñuetan.

Eta orain igonduan ezquero pulpitu edo Esp. S.ren silla edo jarlecu sagradu onetara, eguin gura neusquizubez berbachu batzuc, acijeria emoteco dotriñiaren azaldute edo esplicaciñuari, euquiric ceubecan confijantza osua, disimulauco dozubezela neure gastazunac eusqueraz berba eguiten, cergatic inoz eztuan lenago



usau sermoiric language onetan eguiten, onetaraco ipinten ditut bitartecotzac ceruco ama virgiña gustiz garbija eta elexa onetaco patroe Santiago Apostoluba, arren emon deijuen indarra edo virtutia, nire agotic urteten daben verba gustiz ecerezai, eguin deijen zuben arimetan frutu ugarija Jaungoicuaren beguijen aurrian, ceinen honra eta alabantzataraco eta ceuben arimen salvaciñorako eguingo duazan neure berbaldi gustijac.

Curutze santiaren senaliagaitic etc.

Artu duban asmu oni acijeria emoteco Cer gauza egoquijagoric, Christautasunaren gañían cerbait esatia baño? Orregaitic gaur bacar bacarric eguingo deustubedaz Garmeta labur batzuc icen eder au eta icen oni dagoquijon icasbide edo dotrinia jaquiteco daucagun oblogaciñuaren gañían.

Ecín guizonac euqui leique ez zorijon andijagoric ez dignidade ereguijagoric Christinauba izatia baño. Euqui beguiz ondasunic ugarijenac, jan edanic gozuenac eta olguraric atseguintzuteenac. Bici bedi Jauregui edo palacijoric zoragarrijenatan, goguac emon al deijon poz, atseguin eta gozotasunic betienen erdijan: au gustijau ez da zorionen quericia bere, christinau izatiac emoten dabenen parian. Eldu bedi Erregue altsuben izatera, euqui bediz bere escupían uriric aberatsenac, provintzijaric ugarijenac, eldu bedi mundu gustico jaun izatera; anditasun onec emon al deijon dignidade eta honria auts eta zimaurre baño, Christinau izatiac emoten deustanen albuan; bada augustijau izan arren beti gueratu daantz puscabat eta lur zatibat baño eztana, beste edocein pobredun eta menpeco leguez.

Baña Chrisinau izatiac eguiten dau guizona Jaungoicuaren seme, bere ondasunen herederu, Jesucristoren anaije eta ceruco erregue.

San Pedro Apostolubac cirautzen lenengo christinaubai: zubec zare generaciño escogidu ta noblia, gente santuba Jesucristo berac erosija, ez cidar eta urriagaz, espada bere odol precijobaguia gaz. Odol onece guiten gaitu erregue, ez nozbait galduco dan erreinuben bateco, espada beti beti Jaungoicuagaz batera iraungo dabeneco. Orregaitic esto beste gauzatan ipini biar gueure honra, glorija, anditasun eta poza, Christinau izatian baño. Auxa da gure nobleza benetacua, auxa gure zoriona eta auxa gure on gustija.

Eta itaundu edo preguntauco baneusquize Christinaubac zarien? Cer erantzungo zeunquie? Uste dot danoc poz pozic erantzungo zeunquiela, bai Jauna, Jaungoicuaren grazijagaitic. Alanche da: ez gara christinaubac gueure indarrez, ez gueure irabaciz edo merecimentuz, ez gueure gurasuac Christinau izatia emon eusqubelaco, ezpada Jaungoicuaren ontasuna eta gracia uts utsagaitic, eta gugaz beste ascogaz euqui eztaben erruqui eta misericordia euqui dabelaco, artu dogu mesede parebaguan.

Gu sortu eta jaijo guinienian beste asco be sortu ta jaijo cirian, batzuc turcuen eta moruben artian, beste batzuc Judeguben artian, asco eta asco Gentilen artian. Onec gustijoc eztira inoz Cristinau izango, eztira elexan sartuco, eztabe bautismric artuco, eta alan condenaucodira. Onec gustijoc baño gueilago ez genduban guc mercedu izan, guraso cristinaubacgandic jaijotia, ez onen arduraz bautismua artutia ez elexa santiaren seme izatia ez cristinau izatia. Eta ara emen zergatic dinozuben cristiaubac zariela Jaungoicuaren gracia gaitik, au da Jaungoicuac bacarric eguin eusqulaco mesediau.

Christinaubaren izena dirauscu Scrit. S. datorrela araco S. Pablo eta S. Bernabe Apostolubac Jesucristo gure Jaunac cerubetara igon, ta amar urte gerua Antioquijaco Urira Jesusen fedia prediquetan juan cirianic eta onacua Uri atan aren convertzino mirariscuac eguin cituben urte bete baño lenago, ce, viurtu ciran icen bat ipintzen, ceinequin ezagutuco cirian Jesusen fede eta dotrinara convertidu zirianac beste gentilen artetic, eta ara emen cristinaubaren icen eder onen acijera edo jatorrija; dempora onetara arte Jesusen fede eta doctrinadunari, dei eguiten jaquen Jesus icasla edo discipulubac, baño gueituric len esan duan moduan onen numeromodo contadurija, veregaitic Apostolubac ipini eutsen Christinaubaren icena.

Eta cer esan gura dau cristinaubaren icenac? Christoren guizona. ¿cer aituten da Christoren guizona izatiaz? Christoren fedia daucana, cein artu eban bautismo santuban, eta ordubanche emon evan verbia beti gorde evala fedian, beti izango zala Cristoren zervitzale eta berari jaituco eutsala berac eracutsico bidetic. Ara irudi edo ejemplubat obeto aitu deizuben zer esan gura daben Christinaubaren izenac.

S. Franciscuen habitu artzen daben frailiari esaten jaque: franciscuac; S. Agustinen artuten dabenai: Agustinuac; S. Domingona artuten dabenai: dominicuac; eta orregaitic franciscuen izena dator S. Franciscogandic, Agustinuena S. Agustinengandic, Dominicuena S. Domingogandic. Alanche Christinaubarena bere dator Christogandic. Eta cegaitic esaten jaco franciscua S. Franciscoren erleginuan sartzen danari? Bertan profesau evalaco eta profesinoe onetan verbia emon ebalaco bere bici gustijan jaongo citubala S. Franciscoc emonico erreguela eta vici moduan aguinduten dan gustija. Auxe berau jasoten cristinaubagaz bere: Bautismo Santuba artu evanian, profesau evan eta esan evan jaongo evala Cristoc emonico erreguela eta vici moduban aguinduten dan gustija, eta profesinocoengantik dei eguiten jaco Christinauba, eta da Christoren guizona.

Erreguela onec, ez dira beste gauzaric icasbide edo doctrina cristinaubarena baño, ceinetan Jesucristo gure Jaun eta salvaguiliac eracusten deuscun ceruraco bide ederra.

¿Noc eguingo eztau aleguin gustija icasbide edo doctrina gozua icastera? Batez bere jaquinic celan eracusten deuscun ceruetaco bidia?

Cer esango zenduque araco Barberu edo medicu bategaitic ezipadaqui bere ofecijuari dagoquijozan gauzaric? Icusiric etaquijela ez celan sangrau, ez celan epai bat lotu, ez celan zauri osatu, ez celan azur apur bat compondu? Dei eguingo ceuzquiju azur urratuen bat, zaurijen bat edo beste naibaguen bat daucazubenian; baña, contu eguin daigun azurrenbat apurtuten jatzuela, eparenbat eguiten jatzuela; eta eztacazubela besteric nori deitu, deituten dutzezube, eta etorten da eta eztaqui berac ez celan odola gueratu, ez ce erremejo ipini zaurijan, ez celan lotu ez cer, ez celan asi, ez celan amaitu.

Cer eguingo ceunque orduban? Derichat botaco ceunquiala ceubengandic eta esango ceuzquijuela: Celan azartuten zara esaten Barberu edo Medicua zariela ori baño gueijago ez jaquinic. Etzara lotsatuten ori aotic etaraten? Titulu asco euquico dozu baña eztaquizu ceure ofecijuari dagoquijon gauzaric, Joan zaitez orti Jaungoicoagaz.

Auxe berau esan leiyo araco christiñau doctriña ezdaquijenari bere, Christiñaua dala esango dau, baña bere ofecijuari dagoquijon icasbide edo doctrinaric eztaqui. Eguin deigula aleguina gustijoc icastera guere doctrina eder au, onic lotsatu ez gueizan doctria eztaqigulaco, auxe da Christinaubentzat mundo onetan gauzaric bierren bierrena, zergaitic beronec eracusten daben ceruraco bidia eta doctriñau eztaquijena salvau ecin leitiqian, ipini daigun ardura aundi bat icasbide Jesusen gozuoc ondo burutan sartutera, eta euren vitartez mundo onetan Jaungoicua ondo servitzera; modu onetan eguinec guere aldetic aleguiña Jaungoicuaren seme eguijazcuac izateco, berac emongo deuscu bautismo santuan Jesusen herentzija, cein dan ceruco gloriya, cein gustijori opa deustubedan.

Aitaren ta Semiaren eta Espir. S.

Amen.

1891KO EUSKAL JAIK

Letra-guda, indar-neurtze eta azkartasunezko jokoak



Antoine Thomson d'Abbadie (1810–1897).

LORE JOKOAK

Ludi Floreales edo Lore Jokoak Erromako Inperiopean ospatzen ziren udaberrirri, Flora jainkosari eskainiak. Hala deitu zitzairen, *Jeux Florals* edo *Jocs Florals*, XIX. mendean, Toulousen okzitanieraren alde edo Bartzelonan katalanaren alde, hizkuntza baztertuen literatura antolatutako lehiaketa eta jaiei.



Euskal Herrian, Antoine d'Abbadie hasi zen, Urruñan izan zen lehenengoa, 1853an; Josemaria Iparragirrek *Gernikako Arbola* abestu zuen urtean. Urruñan (1853-1863), gero Saran (1864-1876), eta harrezkero Euskal Herri osora hasi ziren zabal-tzen. 1879an Elizondon egin ziren, Arturo Kanpionek eta Iruñeko *Revista Euskarakoek* bultzaturik. Jose Manterolak eta Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak ere bultzatu zituzten. Bilbo aldean, Fidel Sagarminaga eta *Euskalerrria* elkartekoak arduratu ziren Lore Jokoez. Sari enblematikoak ziren, loreez gainera, makila eta ontzako urrea. Lore Jokoez beste izen batzuk ere izan zituzten: *Koplarien guduak*, *Euskal Jaiak*, *Euskal festak*, *Uskaldun jeiak*, *Jaialdi euskeraskuak*, *Fiestas Euskaras*, *Fiestas de la tradición vasca* eta abar.

1891n Iurretan ospatu ziren, sanmigeletan. Antolatzaileen artean, Julian Unamunzaga alkatearekin batera, Jose Maria Ampuero, Damaso Bernaola eta Jose Maria Arroita jauregi egon ziren.

Irailaren 29an hasi ziren jaiak, asteartez, Antoine d'Abbadie eta emaztea presente zeudela. Mezaren ondoren, dantzari dantza lehiaketak izan ziren: ezpata dantzan, banangoa, binangoa eta launangoa dantzatu ondoren, Berrizko taldeak irabazi zion Iurretakoari. Aurrekuan, 60 urtetik gorakoetan Pablo Arregi iurretarrak irabazi zuen (25 pezeta), eta 17 urtetik beherakoetan, Sebastian Amezua berriztarrak (12 pezeta).

Biharamunean ere meza, Daniel Baertelen sermoiarekin. Korrika lehiaketan Francisco «Erbiak» irabazi zuen, 5 minutuan plazari 24 buelta emanda (100 pezeta). Danbolitteroetan Sinforino Bergaretxe durangarra izan zen irabazlea (80 pezeta). Bertsolarietan Domingo Besoita berriztarra saritu zuten. Zantzolarien lehiaketan 15 urteko Pedro Izagirre ibarruriarra aipatu zen. Poesia saria Francisco Lopez Aleni eman zioten, *Duvoisin jaunaren oroimengarriari* bertso sailarengatik, Jean Duvoisin itzultzaile eta idazle ainhoarra hil berri zela.

Urriaren 1ean, ganaduaren erakusketa-lehiaketa izan zen Iurretako plazan. Goizean, 15 urtetik beherakoen esku pilota partidak jokatu ziren. Arratsaldean, xistera jokoa, Iraolagotia-Aristizabal eibartarrak Ganborena-Ezeita erreteriar-azpeitiarren aurka aritu ziren 50 tantora, eta eibartarrek irabazi zuten (500 pezeta). Gainera, Toledoko Consuegran irailean izandako uholdeen biktimen aldeko ekimenak antolatu zituzten gazteek.¹

Sarituaren artean egon ziren Felipe Arrese-Beitiaren eta Martin Landerretxeren idazlanok. Bakoitzak erabili zuen idazkeran utziko ditugu.

1. Jon Irazabal, *1891 Iurretako euskal jaiak / 1891 Fiestas euskaras de Iurreta*, Gerediaga Elkarte, Durango, 1991.

EUSKAL JAI-ALDIA YURRETAN.

Yurretaco Batsarreco jaunac, abegui onagaz artuta On Antonio Abbadi, euskal zale argui-dotarrac, Aitorren berbaera aberatza zabaldu, astertu eta lautzeo esqueñi deuslan laguntasuna, erabagui-dau erri onetan ospatutea euskal jai-aldi otsan dico batzuc, Euskalerrico seme maite arec azcoren poz ta atzeguiñ andiaz urteoro eguiten dituzanac, arturic orretaraco Doniel Goiaingueru gure Patroe andiaren jaya. Gogo onegaz guertau dituz **letra-guda, indar-neurtze** eta ascartasunezco joco batzuentzat sari-on ederrac eguitara emoten diranac

AZALDE ONETAN.

1.^o eguna. Marticen Irailaren 29.^a

Egun onetan, Eleissa ama santuac ospatuten daben leguez Doniel Aingeruaren gomutagarria, amarretan eguingo dá eleisquizon doandico bat, urte guztietan oi dan leguez, eta cantauco dituz goi aingueru dontsu onen alabantzac sermoeguille entzutetsu batec.

Meza ostean eleissurreco plazan **dantzari dantza, czpata danza eta aurrezeua.**

Arratsaldean vesperac amaitutá egongo da.

1.^o **Ezpata dantzaren indar-neurtze.**—

Dantzari laguntza bacocho izan bearco dau zortci edo gueyagocoa: eta garaitzalleeentzat saria izango da laroguei peseta dirutan.

Indar neurtze au amaituten bada bost eta erdiac baño lenago, iruroguei urtetí goracoen

aurreseu indar neurtze bat, eta amazpi urtetí beraco mutill gazteena beste bat. Oguei ta bost peseta izango dira zarrentzat saria, eta gazteentzat amabi peseta.

Indar neurtze au eruan ezin bada eguitera egun onetan, biaramonean eguingo da izentaucodan orduan.

2.^{en} eguna. Egusten Irailaren 30.^a

Goisseco amarretan ospatuco dá meza nausia errico batzarreco jaun prestu eta eleisquizon onetara oberatuta dagozanac bertanduten direala. Cantatzalle aututu batzuc cantauco dabe, eta iragarrico dau euskeran jai-aldi oneri jatorcon sermoe bat aita Daniel Baertel mintzari entzutetsu eta euskera zale aurrenengoac.

Egüerdi osteco ordu bi ta erdietan **echapliga** edo **zitriricoac** eta **chupliñac** jaquin erasoco deutse erriari jai-aldi eta egun onetaraco izentaucoric dagozan **indar neurtze** pozgarrien asiera.

1.^o **SANTSOLARIEN INDAR NEURTZE**, zeren saria izango dan oguea amar pesetacoea, emongo jaco **SANTSO** edo irrintziric indartsu, eder eta zoliena eguiten daben guizon edo emacumeari. Sari au esqueñi dau On Antonio Abbadi-coac.

2.^o Ondorengo eguingo da **SAMARIATAR INDAR NEURTZE**, eta emongo da oguei pesetaco sari bat, ariñen eta ur tantaric isuri bague **ERRADA** edo **ONTZIA** buruan eruaten daben emacumeari. Sari au bere esqueñiric dauco Abbadi jaunac.

3.^o **Urrengo** izango da ariñequetarien **INDAR NEURTZE**. Plaza inguruan ariñen ibiltan danari,

edo demporarie laburrenean giraric gueien eguiten dabenari emongo deusez Abbadie jaunac esquintzen dituzan eun pesetac. Jaun onec beronec arautuco dau INDAR NEURTZE au.

4.º Arratsaldeco lau ta erdietan ospatuco da LETRA-GUDA edo JOSTA-GUDA, au da escriptizalleen INDAR NEURTZE, zeñetan Juradu jaunaren epaya iracurri eta guero, urratuco dira eguillen izenac gorderic dagozan carta estalguaiac, eta emongo jaques euren lanari izentaurico sariac. Bertan aurkitzen badira eguille sarituac oberatuco jaque iracurri deiezala euren bearrac; eta bertan idorotzen ez direanac, escubidea emon leique euren esagun edo lagun bateri onetaraco, eta saria beraganduteo; bestelan Juraducoac aututuco dabe eurai ondo derichoen bat eguicuntza au bear dan moduan betetaco.

5.º Izango da BERTSOLARIEN INDAR NEURTZE eta josta guda onetan ariñago eta molde obean bertsoric ederrenac, samurrenac, eta apaiñduenac, Juraduen erechian, eguiten dabezanari, emongo jaco eun pesetaco sari bat Abbadie jaunac aguindutacoa. INDAR NEURTZE onetan sartu leitequez guizacume edo emacume amazortzi urtetico aurreracoac.

6.º Urrengo eguitera eruango da TAMBOLINARIEN INDAR NEURTZE, au da soñu jotea CHIBILITU bi eta tamborragaz, eta emongo yaque saritzat amaseico bat. INDAR NEURTZE onen TEMA izango dira soñu bi: bata danentzat gura nai gurazcoia IRU DAMACHU en izenegaz esagututen dan zortzico chucuna bere gira biracgaz; eta bestea euskal errico soñu bere bere bat norberaren auquerará.

Egualdi char edo beste eguial bategaitic ospatuten ez badira egun onetaraco guertauta dagozan INDAR NEURTZEAC, luseratuco dira biara moneraco, eguin bagaric guelditu direanac, eta eraz izentauco da artaraco ordua.

3.ª eguna. Egüena. Urrico lenengoa.

1.º Yurretan ez dagoana leguez pelota lecuric, jocatuco da Durango-coan bederatzi ta erdietan escuzco pelotarien **INDAR neurtzea**, baina joco onetan bazar bacarric parte artu al izango dabe amabost urtetico beragoco **muticoac** eta garaillea sarituco da Jaun Abbadie esquinico irurogueta amar pesetagaz.

2.º Amaiketari Yurretaco eleissaurrean eguingo da abere gorrien aguermena, emoten jaczala Abbadie jaunac opaturic daucazan eun pesetaco sari bat **bel-gorri** edo **erri-bel** eznetuenaren jaubeari.

3.º Arratsalde erdian jocatuco dabe Durangon lau pelotari otsandicoenac pelota partidu andi bat, irabasten dabenari emoten jaquezala laureun peseta. Onesaz ganeti, lau pelotari onen artean goienengo aguertzen danari, eun peseta. Sari onec emoten dituz len ezanico Jaun Abbadie escu zabalac.

Azalde onetan izentau diran indar neurtzeetan parte artu gura daben guztiac, ille onetaco ogueta zortzigarren eguardiraco, jaquitun imiñi bearco dabe Yurretaco Alcate jauna, artaraco iriguiric dagoan liburuan ezarri daguizan bere izen eta izen gañac.

Jai-aldi onen zuzentzallac escatu leiquez INDAR-NEURTZETARACO bear diran edade eta beste cercelada guztiac.

Yurretan 1891 garreneco urteco Iraillaren 19 garrenean.

ALCATEA,

Julian Unamunzaga-coa.



2.º Bazar
70
3

FELIPE ARRESE BEITIA

1841eko maiatzaren 25ean jaio zen Otxandion. Santugilea ogibidez: Oñati, Donostia, Gasteiz, Aramaio, Abadiño, Arantzazu, Iurreta edota Urkiolan utzi zituen bere lanak. 1865ean hasi zen olerkiak idazten eta, Arturo Kanpion ezaguturik, Lore Jokoen mugimenduko protagonista bihurtu zen. Bigarren karlistadan, 1873an, gerraren kontra agertu eta Donostiara joan zen. Jose Manterola, Jean Duvoisin, R. M. Azkue, Sabino Arana eta abar izan zituen adiskide. Bizirik zegoela, Arturo Kanpionek argitaratu zizkion poemak: *Ama euskeriaren liburu kantaria* (1900) eta *Asti orduetako bertsozko lanak* (1902). 1956an Santi Onaindiak poema guztiak argitaratu zituen *Olerkiak* izenburuko liburu bakarrean.



Bertso hauek *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu ziren, halaxe, letraz letra:

BIARGIÑ ALEGERE BAT

Beti ugazabentzat diardut lanian,
Naiz da ez aberastu iñoz biarrian;
Lanera jagi arren, arduraz goixian,
Alogerak poztzen nau, chito arratsian.

Ene aita izan zan, neu legez arotza,
Alogeraz ez eban, ak gizendu poltsa;
Pobrezan eukalako kontentuz biotza,
Agaitik gaur zeruan gozetan dau poza.

Alogerekoak lez, ez daukat bildurrik,
Iñoz sartuko danik gurian lapurrik;
Baba, arto, urdaya, jan arren bakarrik,
Familia ederra azia daukat nik.

Irabazia zelan, alan dot kastua,
Ez dot nai lebitarik, brusa dot naikua;
Egin gura dabenak gustora pausua,
Zapatia biar dau oña bestekua.

¡Zeinbat eche direan euren erruz galtzen!
Chikiak izan eta andiai jarraitzen!
Neu beinik-peñ enua orrelan izaten,
Zorrak paga ezinda tristetu enaiten.

¡Zeinbat gizon munduan enplio andiyak,
Jariste arren dabiltz galtzen gaberdiyak!
Baña botiagaitik askok izerdiyak
¿Nun dagoz guztientzat goyetan aulkiyak?

Gaur arte ¿nok jakin dau zer dan uelgia?
Enredo zalez dakust mundu au betia;
Nik nai dot osasuna, lana ta bakia,
Iñor engañau бага denpora emotia.

Ardaurik ezin badot, edaten dot ura,
Orregaitik gerrarik baña ez dot gura;
Pazientziaz zelan bat doian zerura,
Piskat sufridu arren, ez deusta ardura.

¡Zeinbat galtzen dituzan andi-naikeriak!
Luzifer bere galdu eban soberbiyak;
San Migel otzeñ onak jadichi gloriak,
Umillentzat zeruak dagoz edegiyak.

Andi izate arren, enua iñora,
Ez dot estutu gura igo nairik gora;
Nausitasuna baño mendeko dot oba,
Naikua dot nik banaz, guraso bat ona.

¡Ai! balekiye askok nor dan aberatsa!
Niretzat igertia, ez da orren gacha;

Euki arren munduan batek asko gauza,
Kontentuz ezpadago, bizia da latza.

Chori koitau bat baño ¿nor da pobriago?
Alanbere kantari geyenian dago;
Chindurriyak naiz euki, ondasun geyago,
¿Nor da mutuagorik beste bat au baño?

Iñoz izan ez arren, choria joskiña,
Soñekua darabill onduen egiña;
Sedia ez dalako lumia duiñ fiña,
Ain ondo ez da jazten beintzat erregiña.

Jaungoikuak badeutsa arduria artzen,
¿Zelan sinistuko dot dala gugaz aztzen?
Egaztiak baditu ain ederto jazten
Ni ¿zelan ichiko nau gosiagaz illten?

Berak ¿ez dau esaten eskatu daigula,
Joteko atia ta, entzungo jakula?
¿Ala fedia gudan osoro galdu da,
Onenbeste gach nundik bestelan eldu da?


Egia da, kontentu osorik munduan,
Ez dala jauregian, ain gichi tronuan;
Gure dicha ez dago lureko diruan,
Gloria dana dago bakarrik zeruan.

Kantau gura dot, baña, auxe koplau beti,
Pobria banaz bere, enaz ni negarti;
Aberats asko dago ene aidian gaizki,
Larrosak dakustaz nik, arantzakaz nasi.

Larrachoria dabil egunen erdian,
Chorrochioka pozez igoten aidian;
Errosaioa kantau nik oi dot gabian,
Beraz, obetuago bizi naz lurrian.

MARTIN LANDERRETXE

Nafarroa Behereko Duzunaritzen jaioa 1842-07-26an. Hazparnen, Larresoron eta Baionan ikasketak eginda, 1869an apaiztu eta Maulen bi urte, Aiziritzen bost, Oragarren bederatzi, eta gero Lapurdin bizi izan zen harik eta Ezpeletan hil arte. Berak argitaratu zuen Baionan *Fedearen propagazioneke urtekaria* (*Annales de la propagation de la Foi*) 1891-1930 bitartean. Euskara batzeko Hondarribian egin zen bileran parte hartu zuen 1901ean, Eskualzaleen Biltzarreko fundatzaile eta idazkaria izan zen, eta euskaltzain osoa 1919tik aurrera. Artikulu interesgarriak argitaratu zituen *Euskal Esnalea*, *RIEV*, *Euskera*, *Eskualduna* edo *Courrier de Bayonne* aldizkarietan. Euskarari buruzko liburu bat ere bai: *Aphurka zahar eta berri: ahurtara bat eskuararen alde*.



ESCUARA

Bere mintzaira escuarari hanitz dio zor Escual-herriac. mintzaira guzietaric ederrena da eta bertzeac baino lehenagocoa Escuara. Eman zaio beraz artha handirekin eracutsia eta ikhasia izatea Escual-herrietan.

I

Jendakia bat bada bertzetaric berecha, bertze bakhar baten ez iduricoa, jendakia escualduna.

Icus atzu Escualdunaren gorphutz airea eta begitarte. Larru garbia du, behatze ernea, bekhain agerria. Gorphutz larricoa da, zut eta zalhua.

Arraizia badu, escurat dagoco bihotza. Agintzen badarotzu, ez zaitu gabe utzico.

Fede ukhatua ezin icus dezake; hain guti gibeletic mendecatzen dena. Halacoari bide egin behartzen zaio herritic.

Ez mendi edo ibaiaz bertzalderat, han eta hemen jendakia bera da eta leialtasun bera; itsasoaz bai haratago; harat artean hurbilegi lagoke.

Lana maite du ezin gehiago, ez deus bat aski litzaioke bizitzeco. Ez dire bakhan Escual-herrietan ehun urthez gehiagoco atcho eta agureac.

Zerc ematen diotza Escualdunari gorphutzeo bai bihotzeo hain dohain ederrac? Jaincoaren nahiarekin, odolaren nahasmenic gabe atchikitzeac. Eta zerc odola begirutzen dio berech eta garbi? Bere mintzaira escuarac. Jakin behartu baitzaio Escualdunari alderat aski uzten jendakia erdalduna.

II

Gehiagoco zorric bazaio gure escuara maiteari.

Iracur beitez Fede catolicoari egin izan zaizcon oldar eta setioac, eta icusgarri da nola escualdunen artean ez den sorthu behienere sinheste makhurric.

Ez dela zaicu gutiago icusgarri nola atze-herrietaric ethorri eracaspen gezurtiec ez duten behinere gure herritarren sinhestea zikhindu. Erran ere diteke gure Fedear mende guziec gure hiri nausiaz diotena: Numquam polluta!. Huna zeri esker:

Sinheste bat zuzen bidez campocoa atheratzen denean, Liburu sainduco hitza-
ren arabera, lezearen zolatic, eta haren kheac zerua goibeltzen duenean, ilhuntzen da, lurreco izarrac diren gizon argitu batzuen adimendua, eta hekien eracaspenac dire arimen beretzeco etsaiac hedatzen dituen arte eta sareac.

Baina nola zori onez haina hec escuararen ezagutzaric ez baitzuten, eta gure herritar jakintsunic ez baitzagon hekien erdara lertzatuaren escuaralat itzultze-
tan, hortaric ethorri da hekien lanho beltz eta izurritsuen gutarterat jautsi gabe barraiatu izatea, hortaric Escual herrietaco Fedearen garbitasun osoa eta ezin ederragoco distiradura.

Zembat asmu bihotz-phozoindagarri ere ez dire gelditu eta gelditzen gure mugarrietan, escualdun iracurtzailearen helbidetaric campoan?

Zerua balio duten dohain horiez escuarari diogu esker.

III

Hain ondorio baliosac dituen mintzaria ez da edo nolacoa, bainan bai egincun-
dez har errecha, bere errancundean nasaia, bere hitz-nausi edo Berboan mintzaira guzieratic aberatsena.

Erratea nekhe eta luzegi litekena icus diteke errechki Berbo edo hitznausi hortaz Morde Inchauspe, Bicarior jeneralac, argiratu den liburu larri eta ederrean. Jakitate handico, eta, edozoin aldetaric begira dakion, escualdunen lorea deitzeo den jaun guziz ohoragarriac, gure hitz-nausia bere chehetasun eta hedadura guzian, ordu artean nehorec ez bezala, ezagutarazi du eta argiric handienez ezarri.

Orobat, urhats bide berari jarraikiz, Printze Luzien Bonaparte, Escualdunec esker onic aski ezin eracutsico diotenac, Morde Inchauspec mintzatze Chuberotar choilaz egin zuena, Escualdunen mintzatzeco molde berech guzietarat helarazi izan du.

Halaco moldez non, liburu horiec iracurri dituzten ondoan, mintzaira zahar eta berrietan trebe diren Europaco jakintsun bereziac escuararen edertasun eta aberastasunaz espantituac baitaude, eta mintzaira hoin miragarria garbi begiratu eta begiratzen duen jendakia guzietaric hanitzez aiphagarrienarentzat atchikitzen baitute.

Eta gure artean edo zoinec, hitz-nausi hori bertze hitzen egindura eta batasunean emana, hori baita escuara garbia, aditzen badugu predicari batec aphainduz ematen; edo baldin iracurria bada Cardaberaz eta Mendiburu, Axular eta Araneder, autor hain miretsiac bezalacoetan; gehiago dena, gure bazabazter edo itsashegietan aditzen baditugu gizon, emazte, haurttoac berac elgarrekin ihardokitzen; iracurtzaile edo aditzaileak ezin gaudezke miretsi gabe, nola Academia gabeco mintzaira bat hoin ukigarri eta sarkhor, hoin gozo eta choragarri bihotzaren bai beharriarentzat gertha ere diteken.

IV

Nondic ethorria den escuara, noiz eta nola hasia den balio duke aiphatzea.

Frantziaren erditaric behera, Españian gaindi, African harat eta Asian barna jakintsunac badohazi, izen escuarac ibai, hiri, mendi, zelhaieri eratchikiak izan direla khausituz. Armeniaraino heltzen dire; han ere da Uholde handiaren ondotic lurra bethe duten jenerazione guzien ithurburua. Babelgo dorreraino badohala beraz agerian da escuararen hastapena, ez denaz geroz edireiten escuarac eta bertze mintzaira edo zoinec, hemendic eta Babelgo zelhaietarat artean, ez nihun, deus elgarrekilakoric badutela. Bakharra da escuara bera bezalacoa, ez da bertze mintzaitaric heldu. Babeldic ez bada beraz, nondic abiatuco zen?

Hori bera ez gutiago garbiki dakharkete mariana eta Debrío, Oleaster eta Arias, bai Josefe juduac, eta hari darraicola sar Jeromioc, diotenean, Ezekiel profetarenganico hitzen ekharmena bilhatuz, Tubal, Noeren illoba, hori baita Patriarkha haren seme gaztenaren semea, Tubal dela Españiako Iberiano edo Escualdunen lehen Aita eta hastapen ezagutua. Ez da beraz horien ez nehoren arabera Babelez geroztic hasia escuararen abiamena.

Gorago hargatic badohazi eta ez guti, hastapen hortazco diren jujamenduac.

Babelgo gerthacaria baino lehen, Uholdeco ur handiac aphaltzearenkin, Noeren arkha gelditu zen Araco mendi gainean. Mendia zen Arara deitzen, edo Noec lehorra agertzearekin oihi egin zuen «Ara Ara!» eta izena mendiari gelditu zitzaion?

Dagocatenac badire Noe, Tubal gurearen aitaso, mintza zela escuaraz, eta lehorra ur guzien barnetic atheratzen icustearekin «Ara-Ara!» escualdun edo zoinec egin gindukeen oihi bera escuaraz egin zuela, eta hari bere mintzaira, aitatic semerat, lehen burasoetaric ethorria zitzaioela.

Bertze batzuec diote izen hori mendiarena zela eta Noec mendia bere izenaz deithu zuela, ordutic beraz izen hori hastapenecoa baizic ezin zitekela, lehen burasoac emana, gero zer gerthatuco zen zeruticaco argiarekin icusiz.

Argudio horietaric batc eta bertzeac eracusten dute lehen burasoetaric dela aescuararen ethorkia.

Lekhucotasun bat ez othe da gauza hortaz bereziagoa, escuaraco hitz nausiaren itzulia, edo Moguel Urquiza Nafarrac deitzen duen bezala, escuara Berboaren «hitz-jocoa», jadanic aiphatu dena, eta Darrigol gure autor maitenetaric batec eracusten duen bezala, Ziriaco mintzaira guziz aiphatuaren hitz nausia baino, eta ordutic mintzaira zahar hoberen guziena baino, hanitz eta hanitzez perfetago eta miragarriago dena? Diogu bada, eta durduzaric gabe, mintzaira hoin eder eta aberatsa, bertze mintzaira zahar eta berri guziac baino gehiagocoa, mende guziec iragatearekin desegin edo desfiguratu ere ahal ez dutena, edo dela zerutic ethorria, edo gure lehen Burasoac, bekhatua ezagutu aitzinean, adimenduaren argi eta ahal guziac oso zituelaric, asmatu edo moldatu behar izan duela.

V

Hemen gauza bat zilhegi diteke altchatzea.

Alde batetic, aspaldidanic bezala, egungo egunean, badakigu nola duten atze herrietaco jakintsun lehenec, Printze Luzienekin escuara ezin gehiago ongi icusten eta goersten, nola den Angles, Alaman, Italiano, escual-herria begiz icusi gabe, liburu choilekin escuara ikhasten, eta escribuzco gora behera escualdun hautuzco batzuekin escuaraz atchikitzen dutenic. Gehiago dena, oraico egunean argiratzen diren Aita Joanategi eta bertze batzuen escuara liburu ederrac atze-erresumetarac erematen dituzte; eta norc zukeen asmatu? Jaun atze-herricoa bada, liburu berri batetaco hitzcuntza batzuen gaineen escas zuen argia, Italiatic, autorari galdegin dioena, gaineraco liburu guzia ilhunduraric gabe beretua zuela ezagutu izanik. Zer escuararentzateco lehia ezin gehiago laudagarri eta suharra!

Bainan bertze alde batetic, zer egiten da aski funtsezcoric gutartean escuara mintzairaren guzieri hobeki ezagutarazteco eta maitharazteco?

Egia da, escualdun bereziac badakitragu Morde Inchauspe eta Antonio d'Abbadie, Jaun guziz jakintsun eta aiphagarriec bezala, escuarari on eta ohore handia bilhatzen diotenac.

Bainan hekietan beretan badire, autor on direlaric, aithor dutenac, balinbada hekien baithan escuaraco barnatasun zerbeit, barnatasun hura eracaspenic gabe uste gabeca bezala, handic eta hemendic, aphur eta aphurca beretua dutela, eta orain berean asco hitzcuntza eta egindura nondic eta nola dabilzan, nola icus ez eracats ez lakiketela.

Baten baino gehiagoren egiazki, menturaz escualdun argitu guzien nahicunde zuzen bidecoa liteke, eracastegi edo escuarazco alkhi baten nonbeit altchatzen icustea, bai eta liburu chume edo larri, egunarietan eta bertzela, escuara liburuetaco iragaitza hoberenen banatzea eta bazter guzietarat hedatzea. Hitz batez, gutiziatzen liteke jakitea norat urhats egin, norat escua heda, nori beharria eman, bere moldura eder eta egindura guzietan escuara garbiaren epheric gabe eta noiz nahi den edireiteco eta escuratzeco.

Escuara! oi mintzaira maitea! Amaren belhaun gainean hartzen hasia, zeru lurrekin ihardokitzen haur haurretic lagundu gaituzuna, geroago eta hobeki nahi zintuzkegu ikhasi, geroago eta ederkiago nahi zintuzkegu ibili, izan zaitezengatic nola Escualdunaren ohore eta bozcarioa, hala escual-herrietaco Fede eta berthutearen bethiereco geriza!!!

BALBINO GARITAONANDIA

Bartgo gaba, etxetik kanpora egon arren,
ez dot alperrik galdu



BALBINO GARITAONANDIA (1857-1916)

Balbino Garitaonandia Albizu 1857ko martxoaren 31n jaio zen Durangon, Kurutziaga kalean. Jaioterriko jesuitetan eta, gero, Gasteizko Seminarioan ikasi zuen. 21 urte zituela ja erlijio liburutxo bat argitaratu zuen, 75 orrialdekoa:

Eguiguera onerascoac gorde ta gueituteco misinoe santuen frutua: biar dan bai emonas, Delmas-en alargunaren inprentan, Bilbon, 1878an.

1881ean abadetu eta Arabako herritxo batean egon zen, baina laster izendatu zuten Durangoko Ospitaleko kaperau. 1894an Santa Anako parroko izendatu zuten. 1916ko abuztuaren 10ean hil zen.

Abade euskarazalea izan zen Balbino. Bazen orduan karlismoari lotutako euskaltzalea-sun bat Durangaldean: Domingo Larragan, Carlos Orue, Jose Maria Ampuero, Jose Ignacio Arana, Damaso eta Jose Maria Bernaola, Isidoro Ruiz Arbulo, Pedro Martin Gastañazatorre eta enparauena. Balbinok idazte-lan handia egin zuen bere bizitza osoan. Hala ere, gabon abesti bat da haren obrarik ezagunena «Mesias sarritan agindu zana», Bartolome Ertzillaren doinuarekin zabaldu dena.

1891ko Iurretako euskal lore jokoetan, ohiko bertso lehiaketaz aparte, hizlaurkoea ere konbokatu zen eta Balbinok narrazio hau aurkeztu zuen. Ez zuten saritu, eta autoreak eskuizkribua Edward Spencer Dodgson filologo ingelesari eman zion, eta honek Pariseko Biblioteca Nazionalean utzi zuen. Paperak *Bibliothèque National* horretako *Celte et Basque* sailean daude oraindik, 107 zenbakiarekin, Balbinoren beste olerki eta otoitz elizkoi batzuekin batera.¹

Ipuin honetan, euskara idatzi literario bat probatu zuen Balbinok. Bertako euskararekin batera, Markinaldeko autoreen eredia igartzen da: Juan Antonio Mogel, Frai Bartolome de Santa Teresa, Juan Jose Mogel eta Pedro Astarloa; Pedro Antonio Añibarro arratiarraren eragina ere bai. Hagatik azaltzen dira testuan inkoherentzia fonetiko eta morfosintaktiko batzuk. Hemen, testua ortografia modernora moldatuta emango dugu, aipagarriak iruditzen zaizkigun hitzak oin-oharretan esplikatuz.²

Iurretako sanmigeletarako prestatuturiko ipuin honen gaia Iurretan bertan eta sanmigeletan gertatutako bizipen erlijioso hunkigarri bat da. Pagaduiko etxagunak, ekaizpean galdu eta Donemieli laguntza eskatuta, Elgezuako baserria topatzen du. XIX. mendearen bigarren erdiko prentsaren eta irakurzaletasunaren zabalkundeak ipuin eta eleberri katoliko hezitzailearen ekoizpena eragin zuen. Christoph von Schmid, Mathilde Bourdon, Fernán Caballero (Cecilia Böhl de Faber), Francisco Navarro Villoslada, Antonio de Trueba eta halakoen ipuingintza kristauaren ubera jarraitu nahi zuen Balbinok. Eta Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca*-rena, jakina.

1. Eskuizkribuaren amaieran, euskaltzale ingelesaren idazkeradun oharra dago: «*Présenté par l'auteur à Ms. E. S. Dodgson et par moi à la Bibliothèque Nationale de France ce 25 Mars 1892*».

2. Testu originalaren azterketa: Jabier Kalzakorta, «Balbino Garita-Onandiaren «Doniel Gaba»», *Idatz & Mintz*, 40 (2025), 3-13 or.

DONIEL GABA³

Milla zortzirehun eta larogeta hamargarren urteko irailaren hogeta bedera-tzigarren eguna da niretzat egun ahaztuezkorra, egun gomutagarridxa, beti nire bizitzak dirauan artian begidxen aurrian eukiko dodana.

Goixeko seirak inguru ziran eta Loperen pagaduidxan ziharduan erretxiñol batek zoli kantetan. Bere soñu eder gozatsubetara, nire bihotza poztu, gozatu eta atsegindurik irazartu nintzan, kendu nituzan luak, eta gauza guztien Egilliari nire arimiaren ahalmen eta gorputzeko senak eskinirik jagi nintzan. Idigi nitu-zan gelako leihuak eta, oh gauza zoragarridxa!, iñoz ez legez etorren distiratsu aurpegi betia eguzki ederra hatx eta amileta⁴ malkorren ganetik, bere txinpart urretsuakaz, mendi, zelai eta basuetako arboladuidxak orraztuten, eta lur giro txar eta elkorrenak gozatu eta oparotuten zituzala. Txorritxuak ebillezan iñoz baño soñularidxago, gizonak euren lozorrotik irazartu gurarik, gertau, prestatu ta ingiratu⁵ daitezan Jaungoikuari eskerrak emotera, bera maitetu, bera alabadu ta bera serbietako egun barri bat emon deuselako.

O, egun ederra! O, egun gozua! O, egun eztitsua! Agiri da, bai, gaur noren eguna dan! Zeruko aingeruak hartu egizubez harpak zeuben eskubetan, eta kantau egizubez kantu zoragarridxak, zerren gaur ospatuten dan bai zeruban bai lurrian San Migel Goiangeruaren egun gozua. Horra zergatik daguan gaur zerua pozgarri, eta lurra zoragarri: gure irakasteko zelan bera zeruan leidxal gorde zan, Jaungoikuaren ondra eta glordixa jaoteko,⁶ harako aingeru billau, dollor eta desledxalak jarki⁷ ziranean Jaungoikuaren kontra; halan gu bere leidxal eta zintzo gorde gaitezan Jaungoikuari Eleiza Ama Santiari, geure dierridxari,⁸ geure Euskalerridxari.

—Mutillak, gora, eta ariñ eleizara! Matxalén! Mátxalen, zu bere bai agudo Mezara! Zerren gaur dan Doniel aingeru nausidxaren eguna.

—Oraintxe, aita.

3. Orriaren gainean, Edgar Spencer Dodgsonen eskuz idatzita, «*Manuscrit de 20 pages en dialecte Biscayen*». Tituluaren alboan: «*La Veille de St. Michel*». Eta azpian: «*N'a pas été couronné aux fêtes de la St. Michel à Yurreta 1891*».

4. *Amileta*: amildegi.


5. *Inguiratu*: ingiratu, inguratu. Baina, 'gertatu', 'prestatu' edo 'maneatu' ere adieraz dezake.

6. *Jaoteco*: jagoteko. Jagon: 'zaindu', 'babestu', 'gorde'.

7. *Jarki*: 'errebelatu', 'enfrentatu'.

8. *Dierr*: nazio, erresuma. Manuel Larramendiren hiztegian, eta XIX. mendearen bigarren erdiko autoreek erabili zuten.

- Bertatik,⁹ ugazaba.
 —Bai, senar maitia.
 —Silibistro eta ni geratuko gara letañoako¹⁰ mezarako, eta zubek Eleizan zaren bitartean atarako doguz ganaubak mendira eta gertau bere bai jatekuak.
 —Ondo dau, Anton —erantzun eustan emazteak.
 —Silibistró, Silibistró!
 —Hartik itaidxa, eta ebagik bedarra beheko soluan ni artaldiaz Garaimendiko larrara noian bitartean, eta heure zeregiñak eñ daidxezanian, etorriko haz nigana, alkarregaz juan gaitezau Donielgo ermitara meza entzutera.
 —Ondo dau, ugazaba.



*Sancte Michael! Ora pol nobis!*¹¹

—Zer dok mutill? Zer dantzut?

—Oraintxe dator letaña, jauna —erantzun eustan Txilibristrok.

Ora pol nobis!

9. *Bertatik*: ‘berehala’ edo ‘atoan’ esanahiarekin.

10. *Letaña*: letania. Batek esan eta gainerakoek erantzun edo errepikatzen dituzten dei edo arren multzoz osaturiko otoitza.

11. Autoreak berak erantsitako oharra eskuizkribuan: «*Emengo bazarritarrak diñuen leguez*».

—Guazen, bada, meza entzutera.

Amaitu zan meza santua, eta honegaz baita bere nire poz atsegin gozatsuak. Hasi zan tanboliña, hasi zan dantza ustela edo kontradantzia, gaur deituten dxakona lege, eta nire bihotza estutu zan, samindu zan, mingoxtu zan, garraztu zan, eta hasarre santu bategaz diar egin neban: Antxiñako baserritar garbi, illunetan haus-turik zagozenok, biztu zaiteze eta erdue negar egitera ikusirik zertzuk egiten diran zubek hainbeste izerdi ta oneraspenagaz¹² jaso zendubezan ermita santubetan.

Soñuba eta dantza astunak dirian lege biziduen illuntasuna, emakumen galdupena, aingeruen tristetza eta diabruen piestia, esan nuntzen Silibistro neure otseñari:

—Guazen gu, mutill, Garaimendira.

Ta, o, aldakuntza supitukua! Zeru urdiña estaldu zan bertatik, eguzki argidxa illundu, hatx eregidxak¹³ lañotu, eta txori barritsuak isill-isill euren heguak apal zitubezala habidxaratu ziren. A, ze egidxa dan poz larregidxak negarra dakarrela! Gaur goixean poz larregi euki dot, arratsaldean negarra pranko izango dot.

—Silibristo! Batuik artaldia.

—Bertatik, jauna —erantzun eustan.

Eta bitartean, zuzendurik neure bihotza zeruruntz, egin neban oraziño modu honetan: Jaungoiko ahaltsu eta ezetan muga edo neurririk ez dozuna! Hemen eta leku guztietan arkituten zara: ez zakidaz, bada, gaur estaldu neure begidxetatik, egizu ibilli nadilla gaur eta beti Zure aurrean edo goguan zaitudala...

—Ugazaba!

—Zer!

—Bi palta dira!

—Ardi bi? Hau da ostera daukadan lorra¹⁴ ardi peste hórrekaz! Ez daidan odolik berotu, plagiak ernegau daidxela!

—Bai, Jauna, ardi bi palta dira.

—Hua, bada, artaldi horregaz etxera, eta bezkaldik nik palta diranok billatzen dodazen bitartean.

12. *Onerazpen*: debozio. On + eraspen, ‘onari atxikimendua’.

13. *Eregui*: izenlaguna, ‘altu’, ‘garai’. Eregi, aditza: ‘eraiki’ bizkaieraz.

14. *Lor*: arrastatzen den zama. Harri-lor, enbor-lor, zima-lor, ira-lor, gorpu-lor eta abar izan daiteke. Hortik: lorratz edo lortu. Zentzu figuratuan, zamatzen den ‘larritasuna’ edo ‘zoritxarra’ da.

Urten neban neure ardidxen billa, eta, o, nire bihotzeko taupadak! Zeruko hodeidxak eztandu¹⁵ ziran, eta lenengo zaparradan hezkotu¹⁶ nintzan burutik bihetzetaraño. Lurrak egin eban dardariaz baibendu¹⁷ dxatazan belaunak. Pitian-pitian agertzen ziran oñaztuaren argitasunak lausututen¹⁸ eustazan begidxak. Trumoiaren zarata bildurgarridxak ikaratuten eusten neure bihotza. Taidxu¹⁹ honetan kaden,²⁰ bildur eta ikaraz beterik banenbillen mendirik mendi, murutik muru, hatxarterik hatxarte, amiletatik amileta, hemengo mehakan²¹ larrapastan,²² hango bide zigorrrian²³ jausi, beste angi²⁴ bateri lurra neure gorputzaz neurtzen. Estura honetan, sen бага, konorte бага, zuzendu nadxakon Donieli nirautsala: San Migel, aingeruen lehenena! Sortu nintzanik hona, berein²⁵ esker eta mesede zor deutsudaz. Gaur bere nigaz euki egizuz ardura ahalegiñezkuak: urrindu egizuz niganik areridxo gaiztoak; azpiratu deabru madarikatuak; banatu bere sareak, lakioak, amu ta asmuak; berba baten, erruki zadiz nigaz gaur...

Eta horra, ber-bertatik aurkitu nintzan aingeru batzuen etxean, Elgezuako etxaguntzan.

Dán, dán, dán, dán, eta bertatik erantzun eusten:

—Nor da?

—Pagaduiko etxaguna.²⁶

—Ola, Anton! Egualdi honegaz hemetik?

—Bai, Peru, ardi bi galdu dxataz, eta euren billa.

15. *Estandu*: eztandu, lehertu, errementatu.

16. *Escotu*: hezkotu, 'hezetu', 'busti'.

17. *Baibendu*: ez da hiztegieta agertzen, gaztelaniazko mailegua beharbada, 'lokatu'.

18. *Lauzututen*: lausotzen, 'gandutzen'.

19. *Taidxu*: taxu, 'itxura', 'era'.

20. *Caden*: kaden, 'ahul', 'ahultasun'.

21. *Meaca*: mehaka, 'bide meharra', mendien artekoa bereziki.

22. *Larrapastan*: laprast edo labain eginez.

23. *Bide zigor*: bidezidor, 'landan edo mendian, oinezko edo abereentzakoa bide meharra'.

24. *Angui*: angi, 'hesituriko bazkaleku', 'landa itxi'.

Azken oharrotako hiru hitz ageri dira Pedro Astarloaren esaldi honetan:

«*Emengo meakan ilten ditubez berrogei, angio esturan larogei, bide zigor baten eun, beste angi baten berreun*» (*Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*, II).

25. *Berein*: 'asko'. Baina, asko, dagokion hitzaren atzetik doa, eta *berein* aurretik: esker asko / berein esker. Mendealdeko arkaismoa da, *bere* + *hain* hitzez osatua, beharbada.

Esaldia Pedro Antonio Añibaroren liburu batetik hartuta dagoela ematen du:

«*Sortu nintzanik ona zabilz nire laguntzan: berein esker, ta mesede zor deutsudaz*» (*Escu-librua ta berean eguneango cristiñau-zereguñac*).

26. *Echagun*: etxagun, etxearen jabea, maizterra barik.

—Hori da, ostera, daukazun etxuria! Hori da, ostera, ardi bigaitik hartu dozun portua!²⁷ Danori²⁸ hondatu zara, Anton. Bertatik emongo dxatzuz soñeko lihorrak, ta baita bere ohe zuridxa.

—Bidxen premiña daukat, Peru, oraindio barausi²⁹ бага nagolako, bartgo apari izpidxaz ta gorputza nekatuta.

—Teresá! Téresa! Jantzixuz arin arkondara garbi bat, prakak ta abarka txapiñauak...³⁰

—Bertatik! Erromeridxara zuaz ala! Alagalako³¹ denporia dago Donielgo zelaidxan aurrezko bat egiteko... Zer da Anton? Ein dxatzu ala egualdi honegaz honunz etorteko? Danori hondaturik zagoz. Arraiñ hartzen ibili al zara? Eutsiz soñeko lihor hónek, eta gela horretan aldatzen zaren bitartean gertauko deusut aparidxa. Behingo baten ingo deusut berakatz-zopa ederra, dozenerdi arrautza izardituko³² deusudaz, eta gero epeldurik oramahai³³ horretan dagan morokilla hartuko dozu.

—Ondo dago, Teresa.

Apalostian errosaridxo santua errezaute, gau onak emonik, juan nintzan ohera. Peru hamar edo hamabi urte inguruko bere semetxuaz geratu zan sutonduan. Handik urrin barik, goruetan bere emazte Teresa, andra dulabria³⁴ eguan.

Artega nenguan, lorik egin ezinda, baña laster bihotza illunduten eusten burutanziñuak iges eñ eben, harako Peru gizon prestuak, Jaungoikuaren bildur handiko gizonak, gurasoen ispilluak, zuzendurik bere seme Martintxuri esan eutsanian:

—Martintxo, bart zer irakatsi neuntsun?

—Hara, aita... —erantzun eutsan semiak begirain³⁵ handidxaz.

—...

27. *Portu*: 'portaera', 'eskarmentua'.

28. *Danori*: den hori, 'guztiz', 'erabat'.

29. *Barausi*: barausi, etimologiaz baraua + hautsi, 'gosaldu', 'jan'.

30. *Chapiñau*: txapinatu edo txapindu. Oinetako txapinduak, barrukaldetik painua zutenak ziren. Txapinak: etxean ibiltzeko oinetako bigunak.

31. *Alagala*: 'égoki', 'dotore'.

32. *Izarditu*: izerditu. Arrautzak txingarretan prestatzeko modu bat zen: arrautza sutondoko txingar artean ipini eta, izerdia botatzen hastean, hartu eta oskolean zulo bat eginda hurrupatzen zen.

33. *Oramai*: oramahaia, irina oratzeko eta ogiak gordetzeko kutxa.

34. *Dulabria*: dulabre, 'saiatu', 'kementsua'.

35. *Beguirain*: begirain, begirune, begiramen, 'errespetu'.

—Jaungoikua aztertu gura dabena, azpiratu edo illundurik geldituko da.
—...
—Lehenago illunduko litzateke eguzkidxa Eleizia hondatu edo amaitu baño.
—...
—Zelakua bizitzia, halakua heriotzia.
—...
—Grazidxan azkeneraño diraubanak izango dau zeruba.
—...
—Usteltasuna! Zu zara nire gorputza. Harrak! Zubek nire arrebak.
—...
—Zoridxonekua beti bildur dan gizona.
—Ondo dau, Martintxo. Orain guazen beste egi batzubek ikastera. Entzun zur ta arretaz.
—...
—Itxubak itxuba badarua bidxak jausiko dira zulora.
—...
—Eruan daigun pensamenduba inpernura bizi garian artian, gero juan ez gaitez an urten ezingo dogunian.
—...
—Berbeta deungak ustelduten ditu ohitura onak.
—...
—Ahuak berba egiten dau bihotzeko ugaritasunetik.
—...
—Alperrerridxak erakusten dau gaiztakeridxa.
—...
—Askuen gatxa, tontuen poza.
—...
—Batuten bazara onakaz, ona izango zara; eta batuten bazara gaiztuakaz gaiztotuko zara.
—...
—Esan egidazu nogaz zabiltzan, eta esango deutsut nor edo zelakua zarian.
—...
—Esaten dabena maite dabela Jaungoikua, lagun projimuari gorroto deutsela, guzurtidxa da.
—...
—Eleiziari entzuterik emoten ez deutsena, izango da zuretzat jentil eta publikanua leguez.

—...

—Bizi zaitez Jesusegaz lurrean, bizi izateko beragaz iraun edo eternidadean.

Ze egidxa ederrak irakasten deutzazan Peruk bere semetxuari! Hara hor guraso ona! Hara hor gurasoen modelena! Zer da nik neure Juantxuri irakasten deutzadana? Ezer bere ez: harek ez dauka honako irakatsirik, bere amak irakasten ezpadeutsa. Ostera bere ibiliko naz ni gaur legez neure semien, otseñen eta ogitukuen³⁶ arimen ardura gehidxago ezpadeukat.

Artega, jira batera, jira bestera, halakuen baten hartu nindun luak.

Bidxaramon goixian, ollarren kukurrukuaz batera jagi nintzan, eta lurrian Jaungoikuari goixeko eskintzaridxak egiteko belaunbikotuaz batera, sartu zan gelan «egunon» esanaz Martintxo, etxeko mutilla. Eta txera,³⁷ abegi ta arretondo³⁸ onaz esan eustan:

—Anton! Hartu egizu, etxetik urten baño lehenago, oramahaidxan dagan esnia eta eguna zabaldu arte neuk lagunduko deutsut bidian.

—Ondo dau, Martintxo, bertatik naz zugaz.

—...

—Ondo lo einda, mutiltxo?

—Bai, Anton. Zeuk bere bai?

—Majo!

—Eutsi, Anton, katillukada esne hau, nik bere beste horrenbeste hartu dot.

—Bapo! Guazen oiñ. Ze goizaldi ederra dagan! Ze izarren ederra dakusdan zeru goidxan!

—Goixeko izarra. Izar horrek, Anton, hoberatuten³⁹ gaitu agurtzera zeru-lurreko Erregiña. Gura dozu, atzo baño gaur adu⁴⁰ hobakoa izan zaitezen, agurtu daigun geure Amarik onena, Jaungoikuaren aurrian bitartekorik eragilleena?

—Bai, Martintxo.

—Hasi gaitezan, bada...

Ea! Kantau eizube,
ezpan ta bihotzak
Birjin dohatsubaren
onra ta alabantzak.

36. *Ogitukuen*: ogituko, 'ogipeko', 'morroi' edo 'etxeko'.

37. *Chera*: xera, 'laztan', 'abegi on'.

38. *Arretondo*: 'harrera', 'abegi'.

39. *Oberatuten*: hoberatzen, 'hobera eramaten' edo 'egokitzen'.

40. *Adu*: adur, 'zori', 'suerte', 'patu', 'destino'. Adu onekoak daude, eta adu txarrekoak.

Erdu guri laguntzen,
Birjiña, zerutik.
Ahalegiñez gu gorde
espiritu lohitik.

Zakuguz,⁴¹ Ama, zeru goidxetan
inguraturik izarrez,
zure soñeko, zure jantzidxa
hornitzen dirala altiztez.⁴²

Munduko bazter, arkuntza⁴³ danak
betetan dozuz zuk pozez;
gure bihotzak bete eiguzuz
zure grazidxa ederrez.

Egunsentiko izarra legez
agertzen zara gugana,
dakazuzala bake santuak,
zeruko doe laztana.

Paduretako loreen antzera
zabaltzen dozu ban-bana
gizon guztien bihotz danetan
atseden dontsu dan-dana.

Erdu, Birjiña eta Ama Dontzella,
gure bihotzen erdira,
bekatu deungak idigiriko
zauri guztiai begira.

Erdu, miritza, zu etorririk
Gure oñazak jua dira,
Eruan gaizuz zerubetara
Zure ondoko tokira.

41. *Zakuguz*: zakusgu, 'ikusten zaitugu'.

42. *Altiste*: 'perla'.

43. *Arkuntza*: aurkintza, 'lur edo landa lekua'.

—Poztu-zaitez, Anton. Han Leizarmendidxan zure ardi bidxak!
 —Izan bere! Hua, mutiltxo, etxera, ta Jaungoikuak urte askuan gorderik adu oneko bat ein haiala!
 —Eskerrik asko, Anton, ta bardiñ zeuri bere opa deutsut.
 —Agur.

Tximistia legez aldatsak gora heldu nintzan Leizarmendiko goenera, bidian uxatuten nituzala, neroian burrundadeaz, bai eskumatatik bai ezkerretatik parlantzuban ebillezan abere guztiak. Hartu nituzan ardi galdu bidxak, ta eruan nituzan etxera.

Idorotu neban nere emazte Matxalen erdi negarrez, erdi zizpuruka, ta esan neutsan:

—Poztu zaitez, galdurik egozan ardi bidxak topau dodazalako, eta gaur Pagaduiko etxaguntzan sartzen dalako osasuna. Gaurtik aurrera, Matxalen, bizitza barridxa... Bartgo gaba, etxetik kanpora egon arren, ez dot alperrik galdu, ez nazalako egon ez ardantegidxan, ez joku etxian, ezpada etxagun on, prestu, santu eta jakintsu batenian. Hemen ikasi dot zelan neure semiak hasi, zelan otseñai kontu hartu, zelan auzuai begiratu, zelan lagun-hurkua amau, zelan Jaungoikua zerbidu. Berba baten, zelan geure arimak salbau...

—Horretakoixe, Anton, Jaungoikuak mundu honetara bota ginduzan, geure arimak salbetako, horixe da gure azkena.

—Jaritsi daigun, bada.

Balbiño Garitaonandiakuak


Extrema gaudii fletus occupat.



DARÍO DE REGOYOS: *Yurreta, printemps basque* (1907). Regoyos, Durangora etorri eta Ignacio Zuluagaren anaia Eusebioren pisuaren justu azpian bizi izan zen (Olmedal, 46). 1907ko martxoan idatzitako gutunean esaten zion Zuluagari beste etxebizitza bat alokatu zuela lurreta aldean, han ikuspegi eder-ederrak zituelako. Urkiola aldeko harkaitzei eta lurretako auzuneei buruzko ezin konta ahala gai zituela pintatzeko.

FLORENTINO ELOSU

Euskeria galduta foruekaz bizi...



FLORENTINO ELOSU (1869-?)

Florentino Elosu Izarzugaza Iurretan jaio zen 1869an. Gero, Durangoko Barrenkaleko 7an bizi izan zen, eta, geroago, Goienkaleko 14ko bigarren pisuan. 1896-08-29an Manuela Jesus Pilar Paternain Egiamendiarekin ezkondu zen.

Samuel Baertel Miotak, predikariaren anaiak, liburu-denda bat zuen Andra Maria kaleko 12an, *Librería del Sagrado Corazón de Jesús*, non, liburuak saltzeaz gainera, enkoaternazio eta inpresio lan txikiak egiten ziren. Florentino Elosuk lokal hori erosi zuen 1895ean, eta bulegoetarako eta eskolarako materialak hasi zen egiten. Gero, makinaria tipografikoa Alemaniatik ekarri eta, liburu-denda Barrenkaleko 22ra aldatuta, moldiztegi moderno bat zabaldu zuen.

Florentino Elosurena, Roberto Soloagarenarekin batera, Durangaldeko inprentarik inportanteena izango zen 1895-1927 bitartean. Salgai zituen liburuak erlijiosoak eta integrak ziren gehienbat. Autore batzuk aipatzearen: Antonio Trueba, Jaime Balmes, Luis Coloma, Sebastian Kneipp, Fernán Caballero, Fray Luis de Granada, Jose María Pereda, Marcelino Menéndez Pelayo...

Berak, erdaraz ez ezik, euskarazko liburu asko argitaratu zuen. Gogoangarriak dira: *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi ikasbidecuac* (1903), *Peru Abarca* (1904), *Garoa* (1906), *Josecho* (1909), *Jayoterri maitia* (1910), *Kresala* (1912), *Au, ori ta bestia* (1913)...

Elosuk lanean jardun zuen 1927ra arte, urte horretan utzi zion beharlekua bere iloba Jose María Dolara Elosuri. Honek jarraitu zuen osabaren lana, baina ez zuen ja euskarazko obra garrantzitsurik argitaratuko.

XIX. mendearen amaieran, Florentino Elosuk harremana izan zuen Edgar Spencer Dodgsonekin. Jose Maria Bernaolak filologo ingelesari igorritako gutun batean, Florentinoren kopia hau dago eskuz idatzita:


1. Jose Angel Orobio-Urrutia, *Inprenta Durangon 1832-1936 La imprenta en Durango*, Arte eta Historia Museoa, Durango, 1996.

EUSKERIA GALDUTA

A los bilbainos fueristas, cánteles Usted lo siguiente:

Euskeria galduta
Foruakas bisi?
Burubaco asmoa
Derichat au niri.

Durango, 19-11-1895



A photograph of a handwritten manuscript on aged, yellowed paper. The text is written in a cursive script, matching the typed version above. It includes the poem 'Euskeria galduta' and is signed 'F. de Galdos' at the bottom, dated 'Durango 19 de Noviembre de 1895.' The signature is enclosed in a decorative flourish.

A los bilbainos fueristas
cánteles lo siguiente:
Euskeria galduta
Foruakas bisi?
Burubaco asmoa
Derichat au niri.
— F. de Galdos.
Durango 19 de Noviembre de 1895.



LEHENENGO AIREPLANOAK. 1903an patentatu zen Wright anaien aireplanoa. Zazpi urte pasatu orduko, 1910ean aireplano ikuskizuna antolatu zen, non eta Santa Apolonia (Santa Polonia idatzi zen) aldeko landetan. Anuntziatzeko, Jose Arruek kartel xelebre bat egin zuen, baserritar laiari bikote batek esaten dio hegan doan mutikoari: «Agur ba Chominchu...».

Apirilaren 24, 25, 27 eta 30era arte luzatu behar zen espektakulua. Milaka jende batu zen Santa Apoloniako zelaietan, hogeit hamar mila pertsona jai giroan. Lancelot Gibbs (ez Gybbys, periodikoetan errepikatu zen bezala) pilotu ingelesa Farman biplanoarekin eta Georges PrévotEAU pilotu frantsesa Blériot monoplanoarekin. Ikusleak ernegatu egin ziren espektakulua berandutzen zelako, guardia zibilak parte hartu zuen eta, istilu larrien ondoren, jendeak harrika suntsitu zituen hegazkinak eta erre zituen hangarrak.



JOSE MARIA MIANGOLARRA

Iurretako zubiaren haraindiko etxekoa



Jose Maria Miangolarraren etxea 1990 inguruan, Lapur Errota jatetxea gaur egun.

JOSE MARIA MIANGOLARRA (1875-1955)

Jose Maria Miangolarra Anitua Durangon jaio zen 1875eko apirilaren 18an. Gurasoak, Lorenzo Mingolarra Aguirre eta Maria Micaela Anitua Goita-Andia, Aulestiko parrokian ezkondu ziren 1867an, eta Jose Maria baino urte bi gazteagoa zen arreba bat ere izan zuten. Jose Maria Miangolarra Durangoko Andra Marian ezkondu zen 1898an Maria Ana Romo Echavegaz. Bikote honek alaba bi gutxienez eduki zituen: Obdulia 1899-09-05, eta Victoria 1900-11-29koa. Alargundu ondoren, Gordexolako Prudentzia Terrerosekin ezkondu zen berriro, eta seme izango zuten Jesus «*Mingolarra*», argala, jaka grisduna, txapel txikitxo buruan, begirada iheskorrekin...



Familia, Montoiko zubiaren beste aldean bizi zen (Fray Juan de Zumarraga 25), gaur egun *Lapur Errota* jatetxea den etxean, Durangon berez, baina iurretarekaz auzoan. Jose Maria Miangolarra Jesuitetako elizkizun-laguntzaile, konpositore eta musika irakasle izan zen. Eta Iurretako plazako herri-eskolan, gerraostean behinik behin, gaur egun «musika tailerra» esango genukeena ematen zuen.

1955eko urtarrilaren 1ean hil zen, Iurretako zubiaren haraindiko etxean.

2015ean, Aita San Migel egunez, Miangolarrak 1909an konposaturiko *Adoremus Deo* meza eder-polit-gaitza eman zuten, pentagramatik aterata, ahotsez eta organoz lagundurik. Abeslarietako batek, Anttonmari Aldekoa-Otalorak, idatzi du:

«Eskale-gizajo-bohemio itxuraren azpian, «Mingolarrak» izkutuan eukan zirrara-ames-argi-jauste-altxatze-doinu gozo-artisan lan bikaina-maitasun... ai zenbat maitasun darion Jose Mari Miangolarra Anituaren akorde xume bakotxari!

Bere sasoiko semea-gizakia izanik tesitura goitiarrean konposatuko dau. Aingeru-Goiangeruen chorusak kantetako tesituran, ez guk lurtarrok abesteko. Gu goratzea, jasotea nahi gaitu Miangolarrak. Zeruratzea, hegaz jarri nahi gaitu. Pentagramatik gorako notazioa darabil.

Montoiko lagun artean ardau-zopak hartuko ditu, beharbada, baina ordainez kuadrilla honi maitasunez eta amodioz, narras aldietatik gorago edertasun osoa, eder betea badala adierazoz, bere musika eskainiko deutso. Ondare aberats oso bat itxi deusku!».

GOAZEN BELENERA

Eguberrietako ospakizunetarako abestiak ehundaka daude euskal kantutegian, eta Durangoaldekoak dira ezagunenetako batzuk: «Hator, hator» (Durangoko Plateruena) esate baterako, edo «Mesias sarritan» (Balbino Garitaonandiarena). «Goazen Belenera» ere, jakina, gabon kanta da:

Goazen, goazen Belenera,
jaio dan Jesus ikustera.
Geure anaia egin da Bera
zorioneko orain gera.

Jaia zeruan, bakea hemen,
abesti asko da Belenen.
Begira egon garen Mesiasen
agertu dxaku gaur Belenen.

Zeru eta lurraren
danon jabe dana.
Txiruak ezin egon,
Jesus jaio da-ta
Ama Birjiña dago
Jose deuna begira,
milaka aingeruak
albuetan dira.



TIPLE KOROARENTZAKO GABON KANTA

Beste gabon kanta bat. Partituran izenburu hau dauka: «*Villancico para Coro de Tiples. Letra y Música: Jose M^a de Miangolarra, Durango 1944*».

1944ko abendua, ez ziren alaitasun handiko egunak izango.

Belengo portalian Jesus jaxko dxaku
Maridxaren semia geugana dxatorku.

Askatxu baten dago abere artian,
Amak ipini deutsen lastuen gañian,
hantxe dago begira geu juan artian.

Zeruan aingeruak dagoz abeslari,
mundurako gura dau bakia ekarri.

Jose eta Maridxa begira berari:
ze zoridxon haundidxa deuskuna ekarri.

Poztu gaitezán danok Jesus jaxdotiaz,
haurtxuan dogulako agindu Mesias.

Jaunak bialdu deusku geure onerako
mundu honetan danok bakez bizitzeko.



CLUB MALLABIENA FOOTBALL

Club Mallabiena Football Iurretako taldea izan zen futbolaren hasierako sasoizailan. 1934ko maiatzaren 22an ere, esate baterako, komentario hau dakar *Euzkadi* egunkariak Iurretako kronikan:

«Gogor dabilzala esan geinke gure eritar ‘Malabiena’ deritxon taldea. Durango’n dagoz ostiko txapelketan. Igokunde egunian jokatu eben ‘Stavisky’ deritxonakaz. Gañantzi aundiko joku-aldia izan zan ta biñan gelditu ziran. Igandian osterera jokatu eben ‘Aurera’ren aurka, lau ta bi geuriak irabasirik. Ia ba mutilak ekin gogor bigarren txola ekarren dozuben Yurera’ra».

Idxorretan badago
footballan batzarra.
Ostikadak jaurtitzen
ezta berez txarra.

El Club Mallabiena,
entzute haundikua,
beste on askorekin
jokaturikua.

Joko gogorrian be
izan da neurtua,
daneri irabazi
Kanpeonatua.

151
👉 155
186

Erdiak-aldamenak
daukaz guztiz onak,
ezin tanturik sartu
danik okerrenak.

Kontrario artean
baloia ezin sartu.
Ikusiko dituzu
mutillak irritu.¹



1. *Irritu*: irriturik, haserreturik, ernegatuta, amorratuta.

Eztaukie bakerik
tantua egin arte,
Ahaleginak egiten
danak dira parte.

El Club Mallabiena
entzute haundikua,
daneri irabazi
Kanpeonatua!



C. D. MALLABIENA, 1936. Zutunik: Jose Ferreria, Anton Ansoleaga, Benito Uribe, Julio Hermosilla, Ignacio Alberdi (*Fanfa*), Honorato Unamunzaga, Jesus Belacortu, Benito Zumarraga, Patxi Ibarra (*Presi*), Isidro Ferreria. Makurturik: Zacarias Rodriguez, Pedro Unzueta, Jose Aguirrezabal, Jose Pinedo, Ramon Alberdi (*Tranpa*).

DOMEKA ZARATE

**Lugiña deitzen yako luía erabili ta landuaz bere
ogibidia irabazten daunari**



Laiariak angelusean (Jose Arrue, 1930).

DOMEKA ZARATE (1878-1954)

1878ko irailaren 12an jaio zen Domingo Zarate Berroya Iurretako Bargundia (*Berroid-xena*) baserrian. Erljio ikasketak eginda, Diman eta gero Zornotzan egon zen abade. Nekazarien aholkulari ere ibili zen Trañako Isundegi (*Ixundi*) baserri-eskolan. Abertzalea zen eta, 1937ko ekainaren 1ean Portugaletetik itsasontziz irtenda ihes egin zuen La Rochellera.

Jose Antonio Agirre lehendakariak, *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin* liburuan, Aita Domekaren zurrungak aipatzen ditu. Domeka Lovainako monasterio benediktino batetan zegoen naziak Belgika inbaditzen hasi zirenean, eta hango prioreak alde egiteko eskatu zien han gordetakoei. Belgikar soldaduek Domeka parakaidista nazia izatearen susmopean detenitu (maletan laborantza liburu alemanak topaturik¹), eta fusilatzekeo apartatu zuten, ozta-ozta libratu omen zen heriotza-kondenatik. Hagatik harrezkero egiten omen zuen, nazien bonbapean ere, lo lasai eta zurrunka.²

Ildebrando Antoniutti monsinoreak autoritate frankistekin egindako akordioari esker itzuli zen Domeka etxera. Harora deserriratu zuten. Gero Dueson egon zen, Sondikan eta azkenean Durangon. Kurutziaga kalean, hil zen 1954ko ekainaren 21ean iloba baten etxean.

Idatzi, agronomiaz egin zuen. 1920-21 urteetan, *Jaungoiko-Zale* aldizkarian, «Lugin gauzak» argitaratu zituen, *Bargundi* sinadurarekin, bizkaieraz. 1924an sei artikulua idatzi zituen *Argian* «Baserri-etxiak» atalean, *Bargundia* izenordearekin gipuzkeraz. Eta 1932an bederatzi artikulua *Ekin* aldizkarian «Lugintza-gayak» izenburuarekin; 1930-1931 urteetan ere sinatu gabeko artikulua batzuk agertu ziren, «*Lugin-gayak*» izenburuarekin, bereak seguru asko. *Arratiako Deya* aldizkarian ere idatzi zituen laborariei laguntzeko artikulua.³

Jaungoiko-Zale aldizkariako testuak dira ondorengoak. Bertako euskaraz idatzita, garaiko joera garbizaleak zipriztinduta. Zuzenketarik gabe, ia literalki transkribatuko da bere idazkera.

 132, 135, 151, 157

1. «Como entre las muchas fantasías que se contaban una de ellas era que los alemanes descendían en paracaídas disfrazados de curas, el pobre Domingo fue declarado paracaidista a pesar de sus años y de sus kilos...»

2. «Las noches transcurrían con relativa calma, pues ya nos habíamos acostumbrado al ruido del bombardeo lejano. Más nos costó acostumbrarnos a los ronquidos de uno de nuestros buenos sacerdotes, que dormía beatíficamente sobre el santo suelo. Seguramente, para el padre Domingo, aquel duro lecho con todas sus incomodidades tenía más encantos que una de las últimas noches pasadas en territorio belga...»

Jose Antonio Aguirre, *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin*, FOCA Ediciones, Bilbao, 2004.

3. Domingo de Zárate y Berroya, *La casería vizcaina: lo que es y lo que debe ser*, Fundación Agrícola Aguirre, Bilbao, 1925.

LUGIN GAUZAK⁴

Lugin gauzak zeintzuk ete-dirian

Danak dakije, arija lantzen daunari argiña deitzen yakola; ba, bardin-bardin, lugiña deitzen yako luña erabili ta landuaz bere ogibidia irabazten daunari; eta, alan, lugin-lan, zeregin ta arazuak lugin-gauzak dira ta deitzen yake. Bada, etxaguna zein maizteña (eñentadoria) ixan, lugiñak ainbat zeregiñetan arduria euki biar dau, lan askotan burua ipiñi, ainbat arazu artu, itz baten esateko, beredin (askotan) gauzatan aitu biar dau luñetik ogibidia atara ta ondo ibiliko ba-da; ze, soluan, kortan eta basuan zer-galdu asko ta gora-bera andikuak daukoz. Solo-luñen zelatasunak (kalidadiak) jakin biar dauz; luña erabilteko asmau dirian golda, atxur eta beste luñ-lankiñen (erreminten) bari be jakin biar dau, eurokaz egiten dirian luñ-lantziak edo solo-gijetak⁵ ze onura, eñeztasun eta merketasun dakañden ondo ezagutzeko. Gaur-eguneko lugiñak eztau naikua korta-satsen bari bakañik jakitia; bai-dira beste ari-sats eta luñ-ongañi asko; eta lugin zolijak euren zelatasunak azteñtu ta igañten eztau atzera egon biar, onetara solo ta bedañ-zelayak zetara ariñago ta merkiago emokoñ-emokoñak egin ete-leikezan ikasteko.

Ezin esan lei azi onak laboriak artzeko dauken gorabera ta gañantzija (inportantzija). Azitik datoñ landaria, esan oi da; eta landara onak arnari⁶ (frutu) ugarijak dakaz ondoren. Beraugaitik azi-bereztuten (bana-banakuak apartetan) ardurarik zintzuena ipinten daun lugiña geyen-geyenian poztuko da bere soloko labore edetai begira; bestela, bariñ, safi askotan oi dana, azi erne-bakua edo bada-ezpadakua erein daulako geratu da lugiña labore barik, landara keto ta erkin⁷ utsakaz.

Abere-enda (eñaza) asko dira bai abelgoñijetan zein urdien (txañijen) artian, batzuk esnerako onak, beste batzuk bíañerako edo gixenduteko egokijaguak; onexek ezagutu ta etxeratzen alegindu biar dau lugiñak. Enda onurakoñ ta obaritsuak edo beintzat gure arteko abelgoñirik onenak bereztuten (bana-banakuak apartetan) asten badira gure lugiñak, orduantxe ba aberetaldiak (ganaderijak) benetako auñerapena egingo daula gure artian. Baña, ezta naikua abere asko ta enda onak kortan sañtutia, euroentzako jateko ugari, merke ta egokijak zuzentzen edo etxian añten ezpa-dira, edo korta zikin, iguingañijetan, gexuak galtzeko añiskuban, ipinten ba-dira.

Eten-bako alegiñak egin biar dira mintegi ta landaraen goraberak gañantzitsubak dirala lugiñari erakusten; bada, lugiñak mintegi ta landaraen zaletasun argija añtzen

4. *Jaungoiko Zale*, 1920-01-16, 14-15 or.

5. *Gijeta*: gida, lurra lantzeko programa.

6. *Arnari*: R. M. Azkuek, Mariano Mendigatxaren testu bat oker ulertuz hiztegitatu hitza.

7. *Keto*: geldi, mozolo. *Erkin*: ahul.

ba-dau gure basuak, sagastijak, makazti ta mastijak be indařtsu iraungo dabe: mintegi barik, esan oi da, ezin zugatzik jaři lei ez sagastirik barieztatu.

Luginen arazuetan sařtzen dira bai-ta-be baratz lanak (ortu-lanak) ořotegi ta erlategi-zeregiřnak; ba, lugin zintzo ta zolijak onetariko edozein gauzagaz, ez-ordu bai-ordu,⁸ urtiaren goyenetik bařenera ainbat lauko⁹ edeř etxeratu leike.

Ona emen lugin-lan, egikixun eta arazuak, geyen-geyenak beintzat, ixentauta. Guk, zelan edo alan, danak batera aituten emotiařen LUGIN-GAUZAK deituko dautsegu.

Nortzuk garian eta ze asmu dogun

Ezkara inkiřneruak, ez perituak ez jakitunak luř-lanetan edo lugin-gauzetan, lugin-gauza-zaliak bakař-bakařik.

Ezta gure asmua lugin-gauzak azteřtu edo sakondutia, garbi azteřtuta, ondo sakonduta eta argi azaldu-ta diran lugin-gauzatxubak, zelan edo alan, zabaldutia, ta lugiņei, men-menik,¹⁰ eurok onduen aitu leyen eraz adierazotia bařo. Lau edo bost lugin-gauza-zale batu ba-gara, eztogu beste ezetariko asmurik: eta Jaun-Goikua lagun.

BARGUNDI

LUGIN GAUZAK¹¹

LUSAGAŘA (PATATIA)

Nundik eta nortzuk. Ugari erein biař da. Luřa. Satsak. Azijak. Erein. Jořatu. Gořiņa. Etxeratu.

Nundik eta nortzuk

Ezta gixaldi asko lusagařa gure artian agertu zala; ba, orain eun eta beřogetamař urte inguru ereiten asi ziran. Amerika'tik, obeto esateko, Chile'tik ekaři eben arnari (frutu) onuratsu ta gařantzitsu au. Eskeřak iru gixon jakitunen alegiņei lusagařa Europa 'n sartu zan. Ecluse, Olivier eta Parmentier, onexek iru pantzetařok,¹² batez

8. *Ez ordu bai ordu*: 'ordu guztietan', 'atsedenik gabe'.

9. *Lauko*: txanpon bat, quarto, lau marabediko diru zaharra.

10. *Men-menik*: 'apaltasunez'.

11. *Jaungoiko Zale*, 1920-02-01, 22-23 or.

12. *Pantzetar*: frantziar.



Laiariak Landakon (Germán Zorraquin, argazki koloreztatua).

be irugařena, alegindu ziran ezin geyaguan, euren jakiturija ta etenbako lanakaz, lusagařaren goraberak azaldu ta erakusten.

Saři edo geyenetan jazo oi dana, orduan be lugin siřesgogor asko zan batian-bes-tian. Geyen-geyenak auřka (kontra) egin eutsen lenenguan edo beintzat abegi oso txařaz landara betař au artu eben. Luřpeko sagařok janari merke ta gozatsuba ixan biař ebela ezin jaken euren burubetan sařtu; onexegatik, ez gitxi ez asko, euren solue-tan ez eben erein gura. Baņa aiatatu diran iru pantzetařak, ekiņen-ekiņez, eragozpen guztijei goitik egin da, euren asmo zorijonekua indařtu-ta, ija-ija bete-ta, ikusi eben. Euretatik bikaņenak, orain eun da zazpi urte il zan Parmentier luřlan-jakintzetan zoli ta azkařak, Parantze¹³ guztija arakatu eban lusagařaren onurak adierazo ta zelan erein biař zan erakusten. Eta, egiz, beronen egipen argi-sutsubak lugiņen buruba ta besuak be, lusagařaren alde z jarri euzan. ¡Axe bai zala gixon jakitun eta adoretsuba! Ařezkero lusagařa, astiro baņo ezpada be, bazteř guztijetan zabalduaz dua.

Ugari erein biař da

Gure inguruban, Bizkaya'n beintzat, lusagař-arluak txiki-labuřak ixan oi dira. Baratz edo ortu-zatitxo bati asko deritxue batzuk; eta beste batzuk solo-goyen ala bařentxo bat geyen-geyenian; baņa arto, gari edo nabo-arluak besteko sařa lusa-gařentzako, banakaren batek edo iņok bez. Eta dirudijanez, urte luziak igaroko dira, artotara botaten daun besteko arlua lusagař ereiten asi orduko gure lugiņa; ba, orain

13. *Parantze*: Frantzia.

eun urteko siñesgogoñen senide edo gara ondiño, ta ganera oiturak aldatzia oso gatxa ixan oi da edonun. Onetarako lugiñari sañtu biañ yako buruban, eta bijotzian be bai, lusagaña beretzako ogija edo artua bezin biañ-biaña daula goiz-gabetarako, au da, goizarija (armozua) zein apartija egiteko; eta ganera onura andi-andikua aberientzak. Bada, lusagar ondo egosijak azpilan (patelian) gozo-gozuak diralarik, abelgoñi zein urdiak (txafiak) gixentzeko aukerakuak dira; eta, aulan, onenetarikotzat etsi biañ leukez lugiñak. Nabo-arlua lei-baltzak usteldu edo, biañ bada, eduñtza luziak estaldu ba-dayo,¹⁴ lusagañ pìlo andija etxeratu daun lugiña ezta erruki ixango.

Ganera, orain eun urte ez-ekijezean gauza on asko ta onurakoñak lusagañetik ataraten dira gauñ-egunetan. Ona emen, beste askoen artian, bi edo iru beintzat ixentau-ta. Lusagañ-mamiñetik ataraten dabe koipe edo un¹⁵ zuri bat, jaki mueta (klase) askoendako ongafirik indañtsubena. Ingi-oria (papel-masia) gogoñtzeko ta arkondara zurijari brist-brist eragiten¹⁶ dautsen almidoia be, ugari dau lusagañak eta beroneri ataraten dautse. Argi-egiteko nai edozein gauza berotzeko egoki-egokija dan ugoñkija (alkohola) lusagañaz egiten dabe. Bene-benetan esan daike ba, lusagañaren etekiñak (probetxuak) edozein aldetatik begiratuta gañantzi andikuak diriala; eta onexegatik sayatu ta alegind'u biañ dau lugiñak ez bakañik landa-zañak eta sasitzak atxurtzen baita solo bafijak egiten be arlo zabal-zabalak erein eta lusagaña ugari artzeko.

LUGIN GAUZAK¹⁷

Luña

Lusagaña beste edozein landara lez, luñ-egokijan erein ezkeru ugari ta ona añtzen da; eta al-dan luñik egokijenian ereten ba-da geyago ta obia egin oi da. Au eñaz esan eta aitzen dau edonok, baña egiten ezta ain eñaza.

Ardurarik zintzuena imini biañ dau egokitasunaz gauzak atondu gura dauzenak; ba aulantxe bakañik, egokitasuna begijen auñian daula lanian diañdunak, bere asmu ta egikixunatzaz ondo urteten dau geyenez, ta onetariko langiña obari ugarijak poztuta ezta aspertuko esku-artian darabiñan arazuaren goraberak alegiñez betetzen.

Egiz, neketsuba da, gauzak egoki iminten, egikixun bakotxa berari dagokijonaz eralduteko (formetako) inguru askori ondo begiratu biañ yakolako. Augatik, gogua

14. *Estaldu badayo*: estaldu badagio, estaltzen badu.

15. *Un*: muin.

16. *Brist-brist eragin*: distira atera.

17. *Jaungoiko Zale*, 1920-03-02, 38-39 or.

ta astija daunari bidia zerbait eřazagotuteko egin oi dira lugin-arazuetzaz be zeregin bakotxari ondo datorkijozan atzalbenak (esplikaziñuak); eta beraugatik, lenengo, luř-mueta (klase) nagusijenak ixentau edo azalduta, lusagařarentzako egokijen diranak esango doguz.

Etxebazteř gitxi, edo bapez, ixango da bere soluetan luř bařdin-bařdiña dauna; bost edo sei solo lantzen badira, biař bada bi eztira luř bařdindunak, eta ba-liteke solo baten bertan egal batetik bestera aldia egotia. Au dala-ta, ezta esan-biařik, solo-bařena egokijagua ixan leikela azi batzuentzako ta solo-goyena beste azi edo landaraentzako. Gařantzitsuba da ba lugiñentzako euren labore-soluetako luř-muetak ezagutzia, egokitasunaz landu ezkeru azi egokijak eret'eko. Ona emen ba atzalben batzuk luř-mueta nagusijenak ezagutzeko.

Labore-luřa edo lan-luřa sakondu ezkeru geyenian, edo beti, atal, zati edo alde bi agertzen dira; gana ta azpija, obeto esateko, gane-luřa ta azpi-luřa edo lurgana ta lur-gain azpija. Lurgan berberan be, sendo ala gizena danian, alde edo zati bi ixentau leikez; bata atxuř, laya ta goldiaz, azpikua ganera eraginda, lantzen dana, ta bigařena, beti geldi daguana, atxuřak, layak edo goldiak astintzen eztaulako baña luř-lankiñokaz landu ez ařen, landara batzuen susteřak eltzen dira ta euren alikaturerako¹⁸ (alimenturako) biař ixaten dabezan onurak bertan aurkitzen dabez.

(*Dařaike*)

BARGUNDI

LUGIN GAUZAK¹⁹

Labore-luř guztijetan lau gaiki (elementu) onexek agiri-agirijan ezagutu ta ixan oi dira: buztña, aria, karia ta ustela edo lukorotza; eta lau gaiki oneik askoka edo gitxika alkařegaz nastau-ta luř-mueta berarizkuak (espezialak) egin eta eraltzen dabez, ta aunetara deitzen yake: buztin-luřa, are-luřa, kare-luřa ta ustel-luřa edo lukorotza. Ona emen lau luř-mueta ezagunenak edo beintzat nagusijenak.

Beti goguan euki biař doguz labore-luřari bere ixatia emoten dautsen lau gaikijok, eta ez iñoz bere aiztu, edozein luř-mueta bat eztala besterik ixentau diran lau gaikijoen alkařegazko naste bat baño; itz baten, buztñak, ariak, kariak eta luř-ustel edo lukorotzak, askoka edo gitxika alkařegaz nastau-ta, sortu ta eraldu dabela labore-luřa.

Agirijan daguan edozein gauzak bere ixakija (naturalezia) erakusteko beti emon oi dauz zelango edo alango erakuski ta ikuřak (señaliak). Aitatu diran labore-luřaren

18. *Alikatureako*: elikadurarako.

19. *Jaungoiko Zale*, 1920-03-16, 45-47 or.

lau gaikijak be alantxe ezagutzen dira, bakotxak ikuí ta zelatasun (zelangotasun) bere-beriak euki ta ageítzen dauzelako. Ariaren zelatasunak eztau zer-ikusirik buztinaren edo lukorotzaren zelatasunakaz, berarizkuak diralarik alde andija daukielako euren artian. Ganera, nastauta egon-aíen, ainbeste bideí aitatu doguzan labore-lufaren lau atal edo gaikijok, naste edo alkafkuntza ori neuí baídinetan egin eztalako, gaiki edo atal gorengo ta urtenenak begiztatu-ta (ezamiñaute) naikua efaz ixentau leikez solo bakotxeko luf-mueta berarizkuak. Eta alantxe, buztina geyen edo urtenen agiri ba-da solo baten, buztin-luf-solua ixango da ta deituko dautsogu; aria ba-da soluak gorengo edo geyen daukan gaikija (elementua) orduban are-luf-solua ixango da ta deitu biaí yako, bere ixakijaren (naturaleziaren) atal nagusija aria dalako. Bardin-baídin esan leike karia ala lukorotza geyen ta urtenen daun soluatza. Orain arte luf-muetak ixentau doguz gaiki bati bakaí-bakaíik begiratu-ta; baña, efaz uleítu ta aitzen da, beste bi edo iru gaikijen urtenentasunari ala gorengotasunari begiratu ezkerro beste luf-mueta batzuk be efaz ixentau leizala, obeto esateko, alan ixentetan dirala. Buztinen ufengo aria geyago ba-dau soluak, karia ta lukorotza baño, ordu-ban buztintsu-aria-lufa ixango da gure labore-lufa; aria gorengo ta buztina urrengo geyen daguana ba-da, gure solo-bazter ori are-buztintsu lufa ta deitu biar yako; eta baídin-baídin beste atal edo gaikijari begiratu-ta.

Eta aulan, norbaitek esan ala entzuten daunian urlija ala berendija soloko lufa buztintsu-are-kare-ustela dala, aitu biaí da, luf ofek buztina daula geyen eta lukorotza gitxien, beste gaiki bijak aria eta karia bigafen eta irugafen urtenen dauzalarik.

Azkenez, luf-mueta aunek ganetik azpira daben lodijera azteítu edo neuítu ezkerro, araberratu (klasipikau) leiz aunetara, atxufaz jota labore-luf azpija efaz ageítzen ba-da luf meia edo argala; layakaz edo goldiaz lantzen danian luf-azpija zerbait agiri ba-da, erdi-me erdi-gixena; baña goldiaz nai layakaz ondo jo-ta sakondu afen luf-mueta berbera baño ageítzen ezpa-da, luf mamintsu ta gixena ereizten yako luf auneri.

Oin ba, lau gaikijen zelatasunak banan-banan zerbait azaldu biaí dira, bakotxaren erakuski ta ikuíak zelan-edo-alan ezagutu-ta edozein labore-luf zetarikua dan igaíten edo beintzat antz-emoten jakiteko.

Buztinak, uts-utsa edo garbi-garbija danian, margo zuri-zurizkia oi dau, baña geyen-geyenian buztina ori-gofiztia ageítzen da beste meadun (metaldun) naste edo gaikijen batzuk, gitxika ba-da be, batu yakozalako. Ura aftzen eta irukiten (iragoten) ezta buztina langorik, ba urez asetzeko bere aztaren (pisubaren) lautik ija iru ur biaí dauz, obeto esateko, euneko irurogetamaígaíena ur-utsa iragon lei. Au dala-ta buztin ezua²⁰ iranzkoa²¹ ta labankoa ixaten da toki guztijetan; iranzkoa dan

20. *Ezo*: heze.

21. *Iraskor*: eranskor, itsaskor.



Trañako nekazaritza-eskola (Postaleko argazkia).

aldez miñari, eskubei, oñei, atxur laya ta beste edozein luñ-lankiñei oratzen dautse ta gogoñ oratu be; augatik, buztiña ora berarizkotzat tayuak (pigurak) egiteko euki oi dabe umiak eurak: labankoña dan alde, atzazkalak, atxufa edo layak nai goldia azañtzen ba-yakoz, igoñtzi dautsen une guztijetan bris-brist egin oi dau luñak; legoñtu ezkeroko gogoñ-gogoñ jañten da, ta beingo-baten, itzebagiz²² bete-ta, añakaltzen asten da; onexegatik, legoñtlan lantzeko gatxa dalako ta ezo-aldijan labanegija aberiak eta luñ-lankiñak erabilteko, buztiñari luñ gogoña ta likiña deitzen dautse; baña, beste aldetik, aro-onian landu ta gijetan ba-da, ura ta satsak ondo be ondo iraukiten²³ dauzalako, buztin luñetan labore onak ikusi oi dira ta augat'ik luñ emokoñak be egoki ereizten yake.

Aria tayuak egiteko ezta gauza, ura añtzen eztaulako edo ura añtu-ta be, arin-arin irezten yakolako: eskubaz iguñdi ezkeroko latz-latz ta gogoña ereizten yake beti are-luñei; lantzeko eñaz-eñazak, ezta-be mukilik-eta,²⁴ beruaz beruak, otzian otzak eta bete-betian lur arin eta ilak ixaten dira; augatik, eta batez be ura ez satsik iraukit'en ez-aldabelako, are-luñak eztira labore-luñ onak ez luñ emokoñak.

Karia ezta besterik karatxaren autsa edo karatxa austu-ta baño. Kare-lurren margua zurizkea ixan oi da ta augatik edonun agiri da zelako margua euki daroien²⁵ karatxaz estaltzen diran bidebañijak eta euroetako lupatza ta autsak: margo zuriz estaldu-ta diran gauzei beruak nekezago ikera eragiten dautse-ta, beraugatik kare-luña

22. *Itzebagi*: itzebaki, arrakala, pitzadura.

23. *Irauki*: kontserbatu, gorde.

24. *Mukil*: mokil, mokor, lur zati trinkoa.

25. *Euki daroie*: eukitzen dute.

be nekez berotzen da eguzkijak jo-añen. Berez gogoñak ixan añen, landuteko eztira gatzak mokil'a baño autsa geyago dabe-ta. Euri ostian eguzkijak bat-batera jotan ba-dauz kare-luñak, euroen gania edo azala nañu gogoña lez jañten da, ta ez ura irezten ez landarei ernetan ixten dautse. Kare-luñan ura ta satsak arintxu iges egiten daben añen, labore-luña apatz-apatz²⁶ iminteko, batez be buztiña ba-da, ta gozatzeko, karia gaiki on-ona ta aukerakua beti ixan oi-da.

Lukorotza soñtzen dabe barazki (beketalak) edo saskara usteldubak: suster, oñi, azal, muskil eta onen antzeko beste ondakiñak urak eta beruak jotan ba-dabez berez-berez usteltzen dira ta astiro-astiro ustelkiñok luñaz nastau-ta euroen margo iñun-baltzungia ezañten dautse: luñ-ustela berez año, astiña ta biguna da; ur-zalia, baña nekez urtzekua ta otza, edozein barazki edo landaraentzako ta beste luñ-muetak onduteko gaiki egokijenetarikua da lukorotza; luñ-ariñak astundu, astunak arind'u, gogoñak bigundu ta legoñak ezotzeko berariz-berarizkua dalako. Augatik, gaiki bakotxa banan-banan artu-ta oker-utsuna asko ta andijak dauzanañen, bi edo iru, obeto laurak, alkañegaz nastau-ta labore-luñik onenak soñtu ta eraltzen dabez. Eta beraugatik lugiña zintzo-zintzo alegind'u biañ da naste ta alkañkuntza onexek bere etxebazteñeko soluak biañ-biañezko neurrijetan euki dagijentzat.

Azkenez, labore-luñak azteñtu ta ezagutzeko bai-dago bide eñaza, gañantzitsuba edo ziuñ-ziuña ixan ez añen. Ona zelakua dan berau edo zetara luñ-mueta bat azteñtu leikian. Ozpin (biñagera) indañtsu apuñ bat, leyañezko ontzitxo bat urez beteta ta eskubete luñ-biñind'u naikua da ta ezta besterik biañ. Luñari ozpiña ixuri (bota) ondoren ezetariko luñunik edo anpulturik soñtzen ba-da, luñ oñek kare-gaikija zeñ edo zeñ bai-dau. Luñ-autsori uretara bota-ta laster igañiko yako ezeñ juañ dan ondañera, zeñ geratu dan ganiañ eta zelako margua añtu daun urak. Ur-ganiañ edo gane-al-dian igerijan (ugeñian) dabizan zamañ baltzungiak luñ ustela adierazoten dabe; ura goñiztatu ba-da luñak buztiña agiri-agirijañ dau; ondañeko tontoñ txikijeñ latz gogoñak ereizten ba-yake are-luñenak dira ta bigun zurizka antzekuak agiri ba-dira kare-luñenak edo ixango dira.

(*Dañaike*)

BARGUNDI

26. *Apatz-apatz*: bigun, emankor.

LUGIN GAUZAK²⁷

Ixentau dira, ba, luŕ-mueta nagosijenak eta baita euroen zelatasun eta baldintzak zer-edo-zer azaldu be. Oŕezkero, ba, edonok esango daula deritxogu, eŕaz uleŕtzen da-ta, ain alde andidun luŕ-gaikijak ezin ixango dirala ixan indaŕ bardindunak ez egokitasun bardiñekuak landara guztijentzako; ba, azi ta landara aŕtian alde andija da euroen ixate ta azkereak biaŕ dauzan jaki-gaizkijei begiratu ezkero. Eta beraugat'ik gaŕantzi ta ardura andikotzat edozeñek etsiko daula uste dogu luŕ-mueta bakotxa zein landara edo barazkijendako egokija dan zerbait jakin al-ixatia. Aunetarako, ba, ona emen zertxobait ariñian baño ezpa-da be; ba, lugintzako gauza edo gai sakonetatik bat eta biaŕ bada gaxena, auxe dala esan lei.

Luŕ-mueta osua edo labore-luŕ osua au da, lau gaikijak aria, karia, buztña ta lukorotza, bakotxa bere neufijetan, dauzan solua edozein azi ta landaraentzako da on-ona; baña ez alan beste luŕ-muetak. Aza, udarbi (eŕemolatxa) ta baba baltzendako buztña geyenetan egokija da: are-luŕa udabaŕijan barazki goiz goxetikuak aŕtzeko: kare-luŕa azilekadun landaraentzako aukera-aukerakua: eta lukorotza, batez be kariaz gozatu-ta ba-da, edozein barazkijendako da on-ona, baña egokijena azilekadun bedaŕki (bedaŕ antzeko) landaraendako. Baña onetarako obeto ixan oi da, ta alan egiten da azi edo landara bakotxari ondo dagokijona banan-banan aztertutia.

Lusagaŕa luŕ-mueta guztijetan aŕtzen da, baña ugari ta ona egiteko egokijen dagokijozanak buztintsu-aria edo are-buztintsu luŕak dira. Baña lusagaŕa eret'eko etsi edo autu dan solua are-buztintsu ala buztintsu-aria ixan aŕen, luŕ-mueta onek toki legoŕak, ezoegijak edo otzegijak ba-dira landara onentzako eztira egokijak. Luŕ ezoegijan edo urtsuban, ubidiak egin aŕen be, azten dan lusagaŕa goŕin eta beste zetaka²⁸ askok joko dabe ta alan eldu baño len ofijak eŕe ta ketoturik geratzen da; ba-liteke legoŕte-urtian-edo onak egitia, baña aŕiskuko gauzea ixango da geyenian. Luŕ legoŕian baŕiz ale edo garaun txiki tximuŕak egin oi dira; eta otz-otza ba-da luŕ ori, nekez erneko da, biaŕ ba-da erne orduko usteldu ta erne ondoren lei edo iñuntz²⁹ gaŕatzen bat egin ba-dai³⁰ galtzeko zorijan aurkit'u oi da. Au dala-ta urtokijetan eta bizkaŕ legoŕetan lusagaŕa eretia ezta ondo.

Dana dala, are-buztintsu ta buztintsu-are luŕok be lusagaŕa ugari ta ona aŕtu gura ba-da luŕ mamintsu, ezo-samaŕ ta apatz-apatzak ixan edo autu biaŕ dira. Mamintsubak edo beintzat erdi-gixenak ezpa-dira ondo ixango da luŕagaz luga³¹

27. *Jaungoiko Zale*, 1920-05-01, 73-74 or.

28. *Zetaka*: itsatsirik geratzen den lohitasuna, orbana.

29. *Iñuntz*: iruntz, ihintz.

30. *Egin badai*: egin badagi, egin badeza, egiten badu.

31. *Luga*: lurgain.

txikitxubak egitia ta lugantxu ofen erdi-erdijan lusagaña eretia; aulan egin daroia lur azal ta meietan; ba onetara azi-zulo bakotxak eukiko dau luf pila andija inguruban eta aulan landara sustefak be toki zabal-sakona bial dan bestian azteko. Lufak ezo -samañak ixan biar dau; ba, auferatxuago atzaldut dogu legofak eta ezoegijak ez dirala egokijak; baña lusagaña arnari (frutu) urtsuba dalarik, ura jakitzat euki ta artutia bial-biaña dau, ta beraugatik luf ezo-samaña ixan bial daua agiri-agirijan da. Ganera apatz-apatza iminten alegindu bial da; ona emen zegatik. Lugin guztijak, bial ba-da, eztabe jakingo lusagañ-landariak enda edo mueta biko sustefak dauzala: batzuk dira gixenak, zurizkeak, bial-bakuak eta labufaguak, eta beste batzuk luziak, meiak eta bialdunak: sustef luze-bialdunakaz lufari oratu ta bertatik, azteko bial dauzan jaki -gaiki guztijak, ataraten dauz lusagar landariak; beste sustef gixen-zurizka-labufetan soñtzen dira lusagar-aliak (garaunak). Beraugatik, ba, onek sustef zurizka bialbakuok ezpa-dabe bial daben nasaitasuna, ez dira gixenduko, labuf-labuf geratuko dira ta au dala-ta lusagañ aliak, asko ta asko soñtu barik edo soñtu ezinik geratuko edo-dira. Onangorik jazo ez dedin bial-biaña da autu dan solua aulfetijaz apatz-apatz jartia, ba luf sopin-momofian ezin ixango dabe tokirik egin sustef bigun zurizkeak eta gitxiago lusagañ-aliak. Eta aunetarako egikixun bial-biañekua da ilabete edo ila bi aulfetijaz solua goldatu edo layatzia, luf axatu daten; eta negutian ixaten diran axe, euri, lei ta edufak efe, samufu ta gozatzen dabe, obeto esateko, apatz-apatz iminten dabe ta aulantxe jarten da egoki-egoki lusagaña eret'eko.

(Dañaike)

EUZKADI

Iurretako kronikak



EUZKADI (1913-1939)

Bizkaitarra aldizkariaren lekukoa hartuta, *Euzkadi* egunkari abertzalea sortu zen Bilbon 1913ko otsailean. Nazionalismoaren barruan *Aberri* eta *Comunión Nacionalista Vasca* arteko zatiketa gertatu zenean, *Euzkadi* azken horren eskuetan geratu zen. 1930etik aurrera, alderdi biak batuta, EAJren ahots nagusia izan zen. 1937ko uztailaren 6an, nazionalak Bilbo konkistatu ondoren, *Euzkadiren* inprimategia falangistek okupatu eta, abertzaleei kenduta, hantxe hasi ziren argitaratzen *El Correo Español*, gero luzaroan *El Correo Español-El Pueblo Vasco* deituko zena, gaur eguneko *El Correo*.

Euzkadi erdaraz zen gehienbat, baina atal batzuk euskaraz zituen. Askotan lehenengo orrian zegoen euskarazko artikulua bat (*Egunekua*), eta barruan beste kolaborazio batzuk: *Euzko abendaren elez*, *Euzko elez*, *Eusko Atala* edo *Euzko Atala*. Euskal atalaren arduraduna *Kirikiño* izan zen hasieratik 1928ra arte. Herrietako berriemaile sare bat sortzea lortu zuen, eta haien maisu eta bultzatzaile izan zen. Bera erretiratu zenean, *Orixek* hartu zuen ardura (1928-1931), eta gero *Lauaxetak* (1931-1937), Imanol Enbeitaren laguntzarekin.

Euskal atala ia egunero agertu zen, baina bi debekualdi luze izan zituen: lehenengoa, Miguel Primo de Riveraren diktaduran (1923ko irailetik 1926ko urrira arte); eta bigarrena, Errepublikaren denboran Asturiaseko iraultza zela eta (1934ko urritik 1935eko martira bitartean).

Herrietako kroniken autore gehienek ezizena erabiltzen zuten; mesfidantza politikoa-gatik edo bestelako lotsengatik. Iurretatik heldu zaizkigun gaitzizenak hauek dira: *Mauma*, *Txori-eder*, *Bakixa*, *Peru*, *A. D.*, *I. I.*, *Uretabarren*, *Jayuri*, *Urondo* eta *Matsorri*. Bi baino ez dugu identifikatzea lortu: Zirilo Mardaras (*Mauma*) eta Manuel Isasi-Isasmendi (*I. I.*, eta *Uretabarren*).

[GUARDIA DERITXON ETXEA ERRE]¹

Gaur lehenengoz hartzen dot «idazteko hortza», izpar bat edo bi bidaltzeko herri honetatik; Kirikiñok otzarara botaten ez badeustaz.

Gu baserritarrok pozik gagoz eguraldi onak egiten deuskuzalako; bizkor gabilz ira-ekarten, arto eta gaztaina-batzen; txakolinak be egin doguz. A zelako hego -haize epelak!

Lehengo egun baten hasarratu ziran hemen kirten bi, eta berbetan gogait egiten ebenean, harrikada bat emon eutson bata besteari, eta honek, bun!, tiro bat jaurti eutson errebolberraz; halanbeharrez ez eban jo. Biharamonean foralak etorri ziran eske, eta biak eroan ebezan espetxera.

Ostiral goizaldean erre zan *Guardia* deritxon etxe bat, lau bizileku eukazana. Hauts egin zan dana, errediza edo traste guztiak, arto, baba, ira, eta diru mordoren bat be bai. Abeltzariak atara ebezan baina ez danak, behi bat erre zan eta beste bati lepoa erre. Kalte handiak egin jakez bertan bizi diranai. Neure tamala eurai.

MAUMA (Iurretatik)

[HONA ETORRI ETE JAKU PATAKON?]²

Herri honetan jende guztia dago bildurrez dardar, batez be hor Oromiño aldean. Ez da ondino egun asko, emakume bati bidera urten jakola gizon bat, eta esan eutson honek hari aldean eukozan diruak emoteko berari, bestelan, bertan hilgo ebal; emakumeak, harriturik, erantzun eutson ez eukozala hamabost erreal baino; baina gizon horrek ez eutson sinestu, eta besotik oratuta errekestau eban, eta, ikusirik ez eukola gehiago, bertan behera itxi eban bere diruokaz, eta ospa; emakumea lurrera jausi zan ondoez bat eginda. Hona etorri ete jaku Garaiko *Patakon* gazte hori Dimatik? Bildur izan behar.

Eguazten goizaldeko ordu bi eta erdietan erre zan Oromiñon etxe bat, Txosna deritxona, dana egin zan hauts berehala; erredizarik gehienak erre ziran, arto, gari, baba, eta irak be bai, abeltzariak ez zan erre. Hiru sendi bizi dira bertan. Neure tamala danori, batez be, Arruabarrena'tar Jon geure lagun eta abertzale zindoari, ba beroni eta bere ama eta arrebeari egin jake kalterik gehien; diru mordo bat erre jake, eta berau zaurituta dago leihotik salto eginda. Laster osatuko ahal da!

Lehengo aldi baten izan nintzan Bilbaora eta otu jatan *Centro Vasco*-ra joatea *garardaua* edaten, sartu nintzan gela nausira, eta han ebiltzan batzuk jokoan eta

1. *Euzkadi*, 1914-11-10.

2. *Euzkadi*, 1914-12-05.

besteak hizketan, baina ez geure elez, inorenez baino. Esan neutson neure lagunari: «Mutilak, esan leitekek *Centro Castellano*-n gagozala!». Kirikiño ez zan agiri, han egoten dala esaten dau baina, bestelan bizarrok ez dakit...^{*} Urten nintzan kalera eta han topau neban Jodra txilibitua³ sudur-zuloan sartuta jo eta jo; neuk esan neban neuretzat *Urniri Batxik* emondako txilibitua³ ete zan.

MAUMA (Iurreta)

^{*} Bizarkentzailea al zara? Bai ba, beti-beti egongo naitzue arrazkoa lez *Centro Vasco*-ren erdi-erdian. Erderaz dinozun hori egi hutsa baino ez da: zoritxarrez, euzkotar asko ta euskeldun asko eta abertzale asko, kastillanoekandik ezin leiz alderatu. Ekandu txar hori kendu beharra badago. Zelan? Geuk beti euskeraz eginaz. -*Kirikiño*.

[ZARATE'TAR PILIPAK LEHENENGOZ JAUPEA]⁴

Aspaldian makal samar ibili naz, ta horregaitik ez dot idatzi, baina gaur otu jat izpar bat edo bi bidaltzea.

JAUPARI BARRIA –Lotazilaren 27an esan eban lehenengoz jaupea Deun Mikel txadon nagusian geure lagun eta adiskide dan Zarate'tar Pilipak. Notin asko bildu zan. Hizkaldia egin eban bere anaia Domekak, esanaz maitetu behar doguzala Jaungoikoa, Euskelerrria eta euskerea. Danak ez eben pozik entzun, ba jaupa ostean esku-munera ez ziran joan zinegotzi edo kontzejalak. Zegaitik? Euskelerrria goratu ebalako.

EUSKEL IZENA –Igaro dan astian ugutzau eben ume bat, Arruabarrena'tar Piliparen eta Ibarra'tar Mirenen alabatxo jaiobarria, *Lore Begoña* izenak ipinirik. Aita-ama bitxiak izan ziran Ibarra'tar Paul eta beronen arreba Pulgentze. Zorionak asko.

JAIA –Hile honen 20an, Bakixa auzuneko zaindaria dan Deun Sebafteren egunean, jaupa izan zan 9,30etan, notin asko erdu zala; eguraldi txarra zan, baina horregaitik umore ona egoan. Hurrengo igandean be esan zan jaupea. Egun bietan esan ebazan Zarate'tar Pilipak. Erromeririk ez zan izan. Zegaitik uste dozue? Al-katearen txilibitukeriakaitik, berau dabil ba auzune guztietako jaiak galdu ezinik. Lege zahar zalea ez dau izan behar beronek eta.

MAUMA (Iurreta)

3. *Urni*, Isaac Urnieta, Durangoko berriemailea izan zen *Euzkadin*. 1914ko urriaren 25ean idazle abertzaleen batzarra egin zen Zornotzan. Bazkalostean, aho-korapilo joko bat egin zuten, eta *Urnik* irabazi zuen Juan Bautista Bilbao *Batxik* Ingalaterratik ekarritako txilibitu ederra.

4. *Euzkadi*, 1915-02-03.

[EUSKERA BADABIL]⁵

Iurretako gure adiskide eta abertzale benetakoa dan Zarate'tar Julenek oraintsu etxe barria iragi dau herri hartan, eta etxeari Uralde euskel izen egokia ipini deutso, hango ibai Ibaizabal deritxonaren hurrean dagolako.

Uralde etxe horretan atondu dauz lantegiak txokolatea egiteko, tximist indarraz eragiten deutsela bere tramakulu guztiai. Oraintxe hasi da lanean, eta euskereari jarraiturik, euzkotar ona dan lez, iragarkiak egin dauz geure elez, eta hauxegaitik damogu toki honetan bere barri, euskera zaletasuna zabaldu daiten.

Hara iragarki hori zelan dagon:

«Zarate'tar Julenen
txokolate on-onak
Iurretako Uralden
bere lantegi tximist indardunetan eginak
Euzkadiko herri guztietan saltzen dira».

Honakoxe iragarkiak eta, euskeraz ipinteak askok uste dauen baino aurrerakada handiagoa damotso Aberriari. Bai, gizonak: umeen eta etxeen izenak euskeraz, eta bardin geure idazki eta iragarki guztiak be, eta ganera euskeraz hitz egin, eta euskeraz dana egin... Horixe da idazti edo liburu handiak egitea beste!

Geure zorion-agurra Zarate onari.

KIRIKIÑO

[OIZMENDI TONTORRERA ALDRA HANDIA]⁶

Datorren igandean joan behar dogu Oizmendi tontorrera egun alai bat igarotzen. Herri honetatik aldra handia joango garala uste dot, ba pozik gagoz danok egun hori etorri arte. Ea ba, mutilak, hankok zorroztu iganderako!

Durangoko aldreak gugaz bat egiteko, urten daiela bostetan, eta jarrai daiela aurrera bitxabaletik Oromiñoraino, eta bidean egingo gara bat, gero jaupa entzuteko danok Deun Marka basatxanoan sei eta erdietan.

(Sankristaua)... hasarre ei da biokaitik; hor ei dabil nor nazan jakin ezinik; baleki, buruko ule guztiak niri atara eta zeuri ipiniko ei leuskizuz. Ai ene!*

MAUMA (Iurreta)

* Zer gero? Ulebakoren bat nazala uste al dau *sankris* horrek? Datorrela hona gura dauenean, ardidun-sankris-taberneru hori, ta ikusiku zeinek zeini ulea hartu leion, baita be eupadea jaurtiten deutsot zeinek hobeto abestu «Kedro» ta «Intorrito» ta «Anus»..., gertu daukodaz

5. *Euzkadi*, 1915-04-14.

6. *Euzkadi*, 1915-05-20.

hiru txakur-txiki. Gizona bada, erantzun daiola eupada honeri, eta etorri behar badau, prakak ondo lotuta etorri daiteela, txantxetan ez gabiltza-ta. Errekontre! -*Kirikiño*.

[DATORREN IGANDEAN HAUTESKUNDEAK, EZ LO EGON!]⁷

EGURALDIA—Zatarra dabil aspaldi honetan. Hemen gabiz estu eta larri geure arto ta irak etxeratu ezinik. Egun bat ona ikusi dagiguneko, hor goaz geure behi eta burdizarrok aurrean hartuta, mendiruntz bizkor. Kirikiño, ni bizi nazan lekuan bazengoz, esango zeunke Bilbaoko «Gran Via» dala, hainbeste zarraparragaz.

EZKONTZA—Igaro dan hilaren 30ean alkartu zan betiko geure lagun eta abertzalea dan Azategi'tar Gergori, Alberdi'tar Gillelme neskabila onagaz. Urte askotako zoriona opa deutsegu euren bizitza barrian, eta sendi eder bat emon deiela Jaunak beren eta Euzkadiren aintzarako.

HERIOTZA—Hile honen 4an hil zan Unzueta'tar Miren (goian bego), Onandia'tar Domekaren emaztea, eta geure lagun eta aberkide Anderren ama ona. Nire bihotzeko tamala beren sendi guztiari.

HAUTESKUNDEAK—Datorren igandean doguz hauteskundeak. Ia ba, mutilak, gogor egin behar dogu geure gurendeagaz urten gaitezana; ez lo egon, eta ahal dan guztia egin, eta ez jaramonik egin anei hamabiko prakagaz etorri arren.

MAUMA (Iurreta)

[HAN ZAN ORROEA TA ARRANOTSA!]⁸

Aspalditxuan eguraldi onak egiten izan deuskuz, ira-hondarrak etxeratu, gari eta ailorbak ereiteko. Pozik hartu doguz eguraldi horrek, baina hartu gaitu neguak edur, txingor, eta haize hotzakaz; horraitik ez gara ikaratuko, ganbarak ondo artoz beteta eta sukaldeak zezinez ondo horniduta daukoguz; honeek amaitu orduko, negua be amaituko da.

Hil honen 5ean egon ziran Orobion Alberdi'tar Augustinen jatetxean Abris-ketatar Serapi, Bilbaon zinegotzi haututa dagona, eta beste bere adiskide batzuk, euretarik bi Oiz menditik behera jatsi ziran goizean, Urutxurrutik gora igonda. Honeek bai mutilak!

Bertan bazkaldu eta akeita hartu ondoren, euzko-abesti ederrak entzun eragin euskuezan, pozez beterik itxi ginduezala han gengoan guztiok. Sarri ibili behar leukie baserrietatik horretara.

Hile honen 7an herri honetako basozainak 52 ahuntz harrapau ebazan mendian, eta etxe baten sartu ebazan, eske datorrenari laurleko bi ordaindu eragiteko ahuntz

7. *Euzkadi*, 1915-11-09.

8. *Euzkadi*, 1915-12-21.

bakotxagaitik; baina baten batzuk lo ez ziran egon, gabeen leihotik sartu ziran, atea edegi eben, eta han zan orroea ta arranotsa! Agur ahuntzok, eta ehundaka laurlekook! Honeek maumarrok!...

Euskel-izparringi barrira uste dot harpidetu izango dirala herri honetatik be baten batzuk. Egin ez zarienok ez itxi geroko, zenbat eta lehenago hobe da-ta.

TXORI-EDER (Iurreta)

[KUKUA ETORRIKO DA, ETA EZ DAU EUKO NON IBILI]⁹

Izparringi honetatik jakin gendun geure idazlari lagun «Batxi» itsasoan galdu zala. Samintasun handia hartu gendun. Orain ez daukagu besterik otoi egin bere gogoaren alde, eta bere emazte ta umetxuai lagundu bakotxak ahal dogun lez.

Hemen inguruetako mendi eta basoetan ez da besterik keia eta aizkora-zaratea baino; danak dabilz ikazginan. Ingelesak ekarten itxi ez arren, egingo dabe hemen nahikoa. Orain ez dau geratu behar zugatz bat zutunik. Udabarrian kukua etorriko da, eta ez dau euko non ibili.

Hile honen 20an ospatu dira Bakijano auzoan Deun Seasteren jaiak. Goizeko 9etan jaupa izan zan; honen ondoren auresku eder bat egin eben Altzibar'tar Koldobikak eta Azula'tar Kepa Mirenak. Arratsaldean ederto jolastu zan jentea. Hurrengo igandean be erromeri ederra egin zan notin asko bildurik Durango, Zornotza ta Ibarruritik. Iluntzian amaitu zan bakez; eguraldi ederra egin euskun.

Harainegun hil zan geure adiskide Zarate'tar Domeka jaupariaren ama ona. Bere sendi guztiei laguntzen deutsegu euren atsekabe honetan. Goian bego.

Barriketan dihardue hemen batzuk alkateak aske (libre) agindu dauela hauspo-soinua eta abar jotzea eta dantza nahastua egitea herri honetan nozgura, baina jakin dot hemengo tentel batzuk asmauriko gauzak dirala.

Bai ba ezin dabe arterik hartu aurtengo urtean, eta laster dira Doixterrera gudara, hau irabazita Jaime ekarteko honuntz Askorra menditik. Han ei dauke behinola jan ezinik itxiriko banketea, txakurren batek jaten ez badau!

MAUMA (Iurreta)

[KUKUAREN ABESTIRIK EZ DOT ENTZUN]¹⁰

Aspaldian eguraldi zatarrak egiten dauz, batean euki beroa, bestean txingor eta edurra; honan jarraitzen badau, galdu behar dabe urtengo goiz-igaliok.

9. *Euzkadi*, 1916-02-01.

10. *Euzkadi*, 1916-04-11.

Herri honetan hamarreko aldra bat batu da «Euskel Laguntzarako»,¹¹ Onaindia'tar Ander buru dala. Hor Arriandiaga aldian be uste dogu beste aldra bat batu zeinkiala; ea ba, mutilak, ez egon beti lo, egin apur bat euskerearen alde.

Herri honetako Udalak bitxabalean egon diran tximistargi guztiak kendu ditu. Tamal handia hartu dogu, baina, entzun dodanez, beste gauza batzuk egiteko ustea daukala herriaren onerako. Tira, ba.

Oromiñoko auzunean imini dau ikastolea Zugaza-Artaza'tar Silbestere mais-treak. Baegoan beharra, ordu eta erdian joan behar izaten eben lehen ikastolara eta.

Ametzola basoan dago ikatza egiteko mukur-txondor bat, larogei burdi-ikatz atarako dituela dinoe. Laster da merkatu ointxe ikatz hori.

Kirikiño, kukuaren abestirik ez dot entzun; hemen nabil sakela txindiz beterik. Ikusi egin dot kukua, eta bera galanta, baina ez eban abestu.

MAUMA (Iurreta)

[DEUN KRISTOBAL JAIA ASKORRA MENDIAN]¹²

Hile honen 10ean ospatu dogu Deun Kristobal jaia Askorra mendian. Goizeko 8etan etorri zan letania txadon nagusitik bertoko basatxanora, eta berehala egon zan jaupa. Honen ostean auresku ederrak egin ebezan, batez be agureak euren hankok gora jasoten ebezan; gero herri honetako ezpatadantzariak guztizko edertoen dantzatu eben. Eguerdian bertan dagon landa guztia agiri zan notin aldratz beteta, etxetik eroandako bazkaria jaten gogorik onenagaz. Han zan hagin-hotsa!

Arratsaldean hor 3ak aldera hasi ziran etorten notin asko euren zapibilak eskuan, beste batzuk otzaretan, mendian gora, zantzo baten; bostak inguruan jan ebezan ekarritakoak. Ezpata-dantzariak dantzau eben barriro, eta hasi ziran aureskuok. Durangotik be aldra handi bat etorri zan, atzealdean kukua eta kuku-kumea aurretik ebezala, txistua ta «mamorraz». Mutilak, zer zoan ha! Guk geunkala umore ona, baina bai honeek be! Gauzarik onena berau da. Iluntzian amaitu zan, danok pozik eta bakez etxeraturik.

Herriko notinik gehienak han egon ziran, atso eta agure, zahar eta gazte, guztiok nahaste, baita Udala be geure endore Santakruz'tar Imanolegaz; bakarrik geratu ziran hiru edo lau sabeleko minaz, edo gerrikoaz, edo hor konpon!  172

MAUMA (Iurreta)

11. Bilboko Euzko Gaztediak, *Euzkadi* egunkariaren babespean, *Euzkel Laguntza* izeneko elkarteak sortu zuen 1916ko otsailaren 14an: partaide bakoitzari astero bost xentimo emateko konpromisoa eskatzen zitzaion euskararen aldeko ekintzetarako.

12. *Euzkadi*, 1916-07-22.



ZIRILO MARDARAS USAOLA bere gurasoekin. Mardaras'tar Kuiril, *Mauma*, lurretako berriemailea *Euzkadi* egunkarian. Durangon jaio zen 1893an, baina haren aita Oromiñora joan zen lanera eta bertan geratu ziren Maumarako bidean dagoen Makiñetxe baserrian argi-indargintza beharrean. 1917an Oromiñourrutigoikoko Florentina Aranzeta Leibarrekin ezkondu zen eta 11 seme-alaba izan zituzten.

[TEILATUKO ITOGINAK HARRIA LETXE]¹³

Beste urteetan lez, ospatu dira gure Deun Mikel jaiak.

Goizeko hamarretan hiru abadezko jaupa edo meza nagusia. Txonitza ederto egin eban euskera garbiz ta argiz Gastañatzatorre'tar Pilipak. Honen ostean txadon-aurreko zelaian ezpata-dantzariak. Arratsaldean bezperak eta errosarioa eta barriro ezpata-dantzariak. Azkenez, jolastu zan han zineko eran iluntzera arte.

Entzun dot Enbeitat'ar Kepak egin ebala osterata bat Deun Mikel biharamonean txadon honetara, eta harrituta gelditu zala aurreko zelaira begira, hango marku, ikurrin, trapu hori-gorriai. Ez da ikaratzekoa, Kepa, Teilatuko itoginak denporeaz harria zulatzen daben letxe, zulatu daikegu geuk be geure arerioa.

HAUTESKUNDEAK – Herri honetako baztertxu baten egin da hauteskunda. Hauteskunde hau izan da herri honek daukazan baso-mendiaren agintari bat ipinteko. Auzo bakotxak dauko bere agintaria, eta agintari barri hau behar izan da Oromiño deritxon auzotegian.

Andrak be euki dabe hautarkia (botua). Alargunak edo etxeko buru diranak eurok ibili dira aurrenengo aste-artean buruko grinai tiraka eta orpoak behea jotzen eurenagaz urten arte. Geutarrak goiti, hautarki batez. Honen poza!

EZKONTZAK – Gure abertzaleen artean bada ezkondu beharra. Joan dan hilaren hogeta zazpian alkartu dira betiko Berroyat'ar Julen Maiztegi'tar Gotzonegaz, eta Deun Mikel egunean Mardaras'tar Kuiril Arantzeta'tar Polendiñegaz. Baita hile honen hogeta zazpian alkartuko dira Larrañaga'tar Dunixi Urruti'tar Sorne neskatala bikainaz. Danok abertzaleak.

Poz-atsegingarritsua izan da itela zuen bizitza.

Kirikiñok ez dauko niretzat honelakorik? Ea zeuk topetan deustazun «astograziakoren bat» hor Mañari aldetik.

BAKIXA (Iurreta)

[EDO KIRIKIÑOGAZ HASARRATU EDO SAKRISTAUAK BILDURTU]¹⁴

Aspaldian isilik dagozanez hemengo idazleak, neuk hasi beharko dot idazten, behin baino ez bada be, Kirikiño.

—Igandean egin zan Oromiñoko etxe baten jai eder bat. Lehenengoz antzez-kizuna Durangotik etorri ziran gazte batzuk eginda. Ederto. Honen ondoren,

13. *Euzkadi*, 1917-10-15.

14. *Euzkadi*, 1921-04-13.

Durangoko eta hemengo batzuk ekin eutsien hitz-neurtuetan ederto baino hobeto. Notin asko heldu zan eurok ikustera, baita guraina barre egin be.

Hori mutilak! Holantxe erakutsi behar da abertzaletasuna baserrietan, bestelan, gu hemen lo gagoz.

—Durangoko Jel-batzokikoak jai eder bat gertuten dabilz Oromiñon egiteko; goizean mezea, haren ondoren ezpata-dantzariak, gero bazkal-ostean hizlariak, eta azkenez erromeri eder bat iluntzira arte.

Uste dot notin asko etorriko dala albo-herrietatik, batez be Zornotzatik, aspaldian geldi samar dagoz-ta. Tira, mutilak, hankak gogortu baino lehenago, zirt edo zart!

—Mauma be aspaldian isilik dago, zer jazo jako? Edo Kirikiñogaz hasarratu edo sakristauak bildurtu, bata edo bestea.*

PERU (Iurreta)

* Ez, nigaz ez da hasarratu. Neu ez naz behintzat inogaz be hasarre; oin neugaz inor bada horixe ez dakit. Eta sankristau hori nor dok ba? Sankristau itzelen bat daukozue hor Iurretan ala? Ondo litzakek jakitea badaezpadan.- *Kirikiño*.

[ZAHARRAK BERAK MINUTU BI KENDU]¹⁵

Lehengo igandean txokor-batzea egin eben Oromiñon gure adiskide eta abertzalea dan Balier'tar Joseba 28 urtedunak eta 17 urtedun gazte batek; honek zaharrak baino bost minutu arinago batu baietz otzarara ehun txokor, bata bestearen atzean ipinita metrotik metrora. Josebak emon ebazan berrogeta bost minutu eta hogeï segundo, eta gazteak berrogeta zazpi minutu eta hogeï segundo. Ez eban inok halakorik uste, baina zaharrak berak minutu bi kendu. Kirikiño, horrek bai, hankak baditu!

Geixorik arkitzen da Uribeganeckoat'ar Domeka abertzale zindoa. Hainbat arinen osatzea opa deusogu.

Peru be niri zirrika hasi zan, baina laster isildu da. Ez dakit nor zarian, eta ez noa ezer esaten, baina ez uste Oromiñoako sankristauak bildurtzeko nagonik, ez horixe!

MAUMA (Iurreta)

15. *Euzkadi*, 1921-06-10.

[OROMIÑOKO AUZUNEAN IKASTOLA BARRI BAT EGITEN]¹⁶

EUP! IGANDEAN OIZERA –Datorren igandean joan behar dogu guztiok Oizera, bat bera be gelditu barik. Jai ederrak egingo dira mendi honetan: ezpata-dantzariak, aureskulariak, bertsolariak, txokor-batzea, arineketariak, eta abar. Baita bertako basatxanoan jaupa egongo da, jaupa abestua.

Ea ba mutilak, gertau iganderako, alperkeriak botata.

IZPAR BELTZA –Hilonen 16an hil zan Jaunaren besoetan Otxandategi'tar Pirmin (G. B.). Laguntzen deutsegu atsekabeen sendiko guztiei, batez be Joseba Mirena bere semeari, gure lagun eta abertzale ona danari.

IKASTOLA BARRIA –Oromiñoko auzunean dabiz ikastola barri bat egiten Aldundiak lagunduta. Ia amaituta dago eta guztiz da polita. Auzuneko biztanleak pozik dagoz, umetxuei zeozer erakusteko nora bialdu daukienean. Berau egiteko ahalegindu diranak izan dira herri honetako alkatea eta Uribarrena'tar Justa.¹⁷ Neure txaloak eurei.

MAUMA (Iurreta)

[LAUERLEKO BAT EMON BEHAR DANEAN MUSTURRAK ASTIN]¹⁸

ERANTZUNA –Peruk esan eban isilik dagozala hemengo idazleak. Isilik egon behar, kanpotik hi lakoak geure izparrak idazten hasi ezkerro. Ez hadi barriro gure arkondaran sartu, bestelan, Mauma eta Bakixa be hor jauzak eta.

GURE ASMOA –Batzoki bat idigiteko asmoa daukogu inondik laguntasunik aurkitzen badogu. Hemen askok esaten dabe ardanetxean *Gora Euzkadi!*, baina lauerleko bat emon behar danean musturrak astin.

Kirikiño, zer arraio egingo dozu holako gizonakaz? Norberak ahal dauena eginda, kitu.

TXORI-EDER (Iurreta)

[ZORITXARREKO GUDARITZEA]¹⁹

Zoritxarreko gudaritza dala-ta zortzi mutil eroan deuskuez herri honetatik. Apirkarako Durangon egin eben zozketan bati urten deutso hara joatea. Danai opa deutset arinen etortea osasunaz euren etxeetara.

16. *Euzkadi*, 1921-06-28.

17. Justo Uribarrena Erdoiza, *Lebron*, Iurretako alkatea izango zen 1926an anexioa gertatu zenean. Gerra ostean, Durangoko alkate izendatu zuten, eta Madriloko Gorteetako diputatu ere izango zen 1946an. 🖐️ 307

18. *Euzkadi*, 1921-10-26.

19. *Euzkadi*, 1921-11-27.

Apirkan gudan zaurituta etorri da etxera Bilbao'tar Toma geure adiskide eta abertzale zindoa. Ondo etorria.

Izparringian irakurrita jakin dogu Melillako geixotegian aurkitzen dala Etxa-niz'tar Maren. Aspaldian beronen izpar barik aurkitzen izan dira gurasoak. Asko poztuko ginake osatuta hainbat arinen etxera etortez.

Txori-Ederek idatzi eban batzoki bat ipini behar genduala, baina orain danak isilik dagoz. Ez ete da ezer egin behar ba?

MAUMA (Iurreta)

[IURRETAN URI-BURU-BATZARRA]²⁰

DEIA –Datorren igandean, hilaren 3an, Deun Mikel txadonan esango da meza bat, bederatzieta, gure maisu eta irakasle Sabinen gogo alde; eta dei egiten jake, izparringi honen bitartez abertzale guztiei, etorri daitezala egun horretan, hutsik egin baga.

URI-BURU-BATZAR BAT EZIN ETE LEI JARRI IURRETAN? –Ikusirik abertzaleak aspaldian gehituaz doazala gure herrian, nik uste dot ondo izango litzakela Uri-Buru-Batzarra jartea, hor hauteskunde egunetan buruz gain danok ibili barik, gauzak atondu ezinka, eta danok baturik leku baten oldoztu daigun nor jarri artezkari datorren igandean meza ostean.

EUSKERAZ TA ERDERAZ IZENA KIRIKIÑOREN ESKUETAN ERABAGIA –Hara Iurretan lehengo egunean jazorikoa. Gure lagun eta aberkide Gandiaga'tar Jagobak (Santiagok) eta bere emazte Arzoaga'tar Eskarne (Mercedesek) euki dabene umetxuari euskerazko izen polit bat jarri gura izan deutsoe, eta euren gogoa betetako, umearen aitabitxi izan behar ebanari ingi baten idatzita emon eutsoen izen hau: «Miren Garbiñe» albo batean eta «María Purificación» bestean, baldin abadeak ondo ulertzen ez baeban, jakin eian zer esan gura eban.

Abadearen aurrera umeagaz heldu ziranean, Aitabitxik emon eutson honi ingia, eta Aitabitxi gorra dan lez, ingia jaurti eban lurrera abade horrek, eta imini eutson erderazko izena umeari.

Umearen aita hau jakin ebanean joan zan abadeagana esaten bere umearen izena «Garbiñe» zala eta ez «Purificación», eta barriro ugutzau ezin leitekean lez, etxean «Garbiñe» deituko jakola; eta aitaori joan zan Epaikariagana eta jarri deutso euskerazko izena.

Ikusirik Santiagok eta bere emazteak egin dabene aberri aldeko beharra, Iurretan abertzaleak zorion-agurra egiten deusie.

20. *Euzkadi*, 1922-12-01.

Geixorik –Halan dago aspalditxuan Larrañaga'tar Toma gure laguna. Hainbat arinen osatzea opa deutsogu.

BAKIXA (Iurreta)*

* «Artaziakaz kontu» dinostazu, baina apur bat sartu deutsudaz. Zegaitik? Zuk horreei egiten deusezun deia, erregu edo otoi egitea lez dalako hona etorri daitezcan gure izparringira, eta... horixe ez! Ez dogu joan gura inoren atzean. Etorri gura badabe eurenez betoz, eta gero geuk ikusiko dogu zer egingo dogun.- *Kirikiño*.

[«SAN ANTONIO URKIOLAKUA, BIGARREN ASKORREKUA...»]²¹

ANDONI DEUNA DALA-TA –Programa de festejos para los días de San Antonio deritxon ingi txorta bat hartu dot, irakurri be bai; baina kristinau usainik izperrik be ez deusat hartu, hori barriz *Andoni Deun*-aren egunak ospatuteko: Erromatarrak honangoxe egiten zituezan, arimakaz ahiztu eta gorputzari atseginak ugari emon.

ASKORRAN –Auzune honetan, Pedro Agirre buru dala, bederatziurruna San Antoniori egiten dabiz. Otoiaren hasieran esaten dabe:

«San Antonio Urkiolakua
Bigarren Askorrekua...».

Honeik berbok entzun orduan batzuri burura etorten jake Andoni Deuna Askorran egon ete zan, Urkiolatik Pedernalesera joan zanean. Ni horretan sartzen ez noa.

OROBION –Andoni Deunaren egunean goizeko zortziretan mezea egongo da, berbaldia Deun Andonitzaz bertako abadeak egingo dau.

IURRETAN –Jon Deun egunean Luistarren ikurrina onestuko da arratsaldeko lauretan, gero ezpata-dantzea eta egongo ei da... Bertsolariak be gura dituez, baina ezin zuzendu.

A. D. (Iurreta)

[JON DEUNAK]²²

Jai haundiren batzuk dagozala egun honetan eta, herria poz-pozik dago. Zer dagoan?

Zazpi t'erdietan, Maria Sortzez Garbiaren Luistar laguntzaileak jaunartzea; abesti politak ugari entzungo dira egitada deun honetan.

21. *Euzkadi*, 1928-06-13.

22. *Euzkadi*, 1928-06-23.

Hamarretan, meza nagusia.

Arratsaldean lauretan, Luistarren ikurrina onestuko da. Hitzaldiak egingo dabez Garrastazu'tar Domeka, ikurrin-opatzaileak, Unamuntzaga'k, eta G. E.-k.

Arimeari emon deusagu honeekaz atsegina eta bere kalte barik orain gorputzari.

Honeen ostean ezpatadantzariak eta bertsolariak, bata Uriarte'tar Estepan. Eta gero agureen aureskua, abestuaz:

Aite San Migel Iorretako
zeru altuko lorea,
agure zaharrak jantzan ikusi
ta hak eraiten jok barrea.

Txapliguak ugari izango dira, globoak be bai, eta han ikustekoak izango dira...

A. D. (Iurreta)

[IKURRINAREN ONESPENA DALA-ETA]²³

Bagilaren 24an txapligu ta kanpai-hotsean jagi ginan.

Eriontz-txortakaz eginda zubi batzuk ikusi genduzan zabal apaingarritzat. Leiho eta balkoetatik zapi ederrak dingilizka egozan. Honangoakaz bihotza berez alaituten da.

Baina poztu benetan herriko jentea egin ebana da: zazpi eta erdietan mutil gazte erreskada luzea jaunartzen ikustek. Holantxe zeuen sinesmena eta Jaungoikoagan daukozen maitetasuna erakutsi!

Hamarretan meza nagusia txonitzagaz.

Arratsaldeko hiruretan hasita erbesteko ikurrinak helduten hasi ziran: Zornotza, Zeanuri, Durango, Elorrio, eta abar.

Lauretan, Gure Jauna agirian dagoala, agurtza; honen ostean Maria Sortzez Garbiaren Luistar Laguntaldeen ikurrinaren onespina. (Ikurrin hau Garrastazu'tar D. jaunak emon dau. Ikurrin honek daukaz: «Maria Sortzez Garbiaren eta Luis Deunaren Laguntaldea» eta «Geure gaztetasuna poztuten dauan Jaungoikoagana helduko gara»).

Ikurrinaren onepen ostean ibildeuna ezpata-dantzariak ikurrinari eraginaz.

Gero, ezpata-dantzea, aureskua eta bertsolariak. Guztiok ederto!

23. *Euzkadi*, 1928-07-03.

Azkena emoteko, Garrastazu jaunak bertsolarien erdian urten eban eta txaloz josi eben.

Ohitura onai jarraitu!

A. D. (Iurreta)

[BADOAKIGU, URRUNEZ BILLARORA]²⁴

AGURRA –Gorostiaga'tar Eulogi apaiz prestua euki dogu orobiotarrok geure basatxano honetan; berak egin dau lan asko gugaitik, beti ahalegindurik behar diran gauzak atontzeko, basatxanoa apaindurik itxi dau, bertan behar izan diran gauzak zuzen doaz. Orain badoakigu, urrunez Billarora.

Hori dala-eta, tamal haundia hartzen dogu beronen joareaz, baina zoriondu egiten dogu, bere jakituri haundiagaz mailarik maila igoaz doalako.

«*Ni nau*» izenpetuta idazki asko jarri dauz izparringi honetan, baita beste izenorde batzukaz be.

Agur, ba, Eulogi, jarraitu hemendik bezala hortik be lanean, eta hartu betiko gure zorion agurra.

EZKONTZA –Eliz deiak badabiz, eta laster ezkontzen dira Jule Alberdi neskatila hemengoa Joseba Zuazorekin, Etxebarrietakoa.

ZUGATZAK –Arginzoniz'tar Andoniren zugaztoia edo tantaoidoia laster ei doa errematera, berau dago hemen Orobion bitxabalaren ondoan alde bietatik.

LANDARAK –Batean bestean bada zaratea eta landara sartzea. Jauregi jaunak hemendik hurrean diran basoetan, hainbat mila landara sartu dau, eta datorren urterako besteak itxi ei ditu, dana pinua.

Arginzoniz'tar Andoni jauna Muniketa deritxon aldean, gogor ohi da zuloak egiten, bere errentadore guriekin, eta zaratea dabil datorren urtean han eta *Zelaño* deritxon alderdian be pinuak sartzen dabezala.

DEUN MARKA –Orobio honetan daukagu basatxano bat, Deun Marka izen-duna; igande eta jai egunetan jaupa bi izaten dira, bertara bildurik gazte asko. Baina bertara dagon bideak ez dirudi eleiz bidea, baso bidea baino, eta izanik baserritar asko bide honetan ibiltzen diranak, baita beste asko be, berau ipintea behar-beharrekoa da, eta ardurea daukenak oldoztu daitezela.

BITXABAL LANAK –Bitxabal honetan harri zabaltzea dala-ta, baserritarren artean badabil atxurretea, eta janzkei onak jantzita batera bestera ibiltea. Lanak asko poztuten gaitu geixo baserritarrok!

24. *Euzkadi*, 1929-02-03.

ERREMATAK –Bizkaiko Aldundiak egin ebazan lehengo egunean, eta hartu ditu Izarzugaza'tar Kepak, Olabasoko harria hemengo bitxabalean ipintea aneurkina 9 laurlekoan bardindu gabea.

GAIXORIK –Urtebete igaroan gaixorik dago Etxeberria'tar Antoni, Olako gixona, baita Zugatzagoitiko Zizili anderea be, eta bertako Nikaxioren alaba bi be bai. Hainbat arinen osatu guztiok.

I. I.²⁵ (Orobiofik)

[AGUR ENBEITA, AGUR SAMUR BAT]²⁶

NAHASKALDIA –Lehengo egun baten toki honetan agurtau gendun lehen hemen apaiz egon zan Gorostiaga'tar Eulogio jauna, baita etorri ziran Txindurriren emaztea eta Isasmendi'tar Jon Kurutz bere emazteagaz, eta Tabiran agurtau neban Salaberria Modesto. Hemen izan da Gallastegi'tar Jose, eta Tabiratik igaro dira Berrizera Intxaurbe eta Ariño'tar Joseba Mirena apaiz jatorra, Kastillo-Elejabeitiko eleiz ikastetxeko artezkaria, eta bere osaba.

LEKAIME BERRIA –Berrizko Lekaime-etxean, lehenengoz lekaime jantzia atzo jarri deusie Ermuko alaba dan Salaberria Jertrudis, Salaberria Jagobaren alabari. Hori dala-ta lekaime etxe horretan igaro dan igandez gauza ederrak egin dira. Zorionak, bada, sendi eleizako honeri.

ARRANGIZKO BITXABALA –Lehengo egunean irakurri gendun *Euzkadi* gure izparringian zelan Aldundiak ontzat hartu dauen bitxabal hori egitea, eta errematera ataratzea. Ermuarrak jakingo dozue zelan azkenengo idazkian esaten neban laster ontzat Aldundiak hartuko ebala, eta halan urten dau.

*Prosupuesto*a, barriz, lehengo lanetan zabaldu zan beste txindi inguru, ontzat hartu dabe, eta orain Torreko deritxon etxe hori bota beharra, eta beste arazotxoren bat egongo da; honeek egin ezkeru, aurtan bitxabal hori amaitu leiteke.

Zuok, ermutarrok, asko behintzat, egingo ez dalakoan egon zarie, baina, hor ikusten danez, egingo da.

ARTO EREITEA –Baserritarrak, arto ereitea dala-ta, eguraldiak ez dauela laguntzen eta erein ezinda dagoz. Igaro dan azken egunetan lur arintxuak erein dira, baina lur gogorretan arorik ez. Itxaron egin behar.

25. «I. I.» Manuel Isasi-Isasmendi Marzana da. «Uretabarren» gaitzizena ere erabili zuen. Ermuan jaioa (1896-01-15), Oromiñoko basozaina zen, eta Mallabienan bizi. 1936ko gerraren denboran Trapagarango Zugaztietako baserri batean egon ziren ezkutatuta. Guda amaitu eta gero, taberna bat zabaldu zuen Kastrexanan. Urte batzuen ondoren, Ermura itzuli eta Zubiaurre kaleko Ezkérranekua taberna hartuko zuen.

26. *Euzkadi*, 1929-05-22.

PIPERRAK –Alderdi honetan etxe danetan eta asko ipinten da piperra, batez be piper haundia. Entzun dot etxe batzuek ipini dabezala sei mila, zortzi mila, baita hamar mila be, eta gero gurdian azokara eroaten. Hau da pipertzea!

ENBEITAREN ALDE –Orobio alderdi honetan gizon hau oso da ezaguna, sarri askotan hemen egon dalako, bai ibiltzen eta bai hitz-neurtuetan. Gogoratu-ko jaku orain urte bi, zelan oturuntza baten hitz-neurtu ederrak bota euskuzan, pozez gu ipinirik, hemendik eskerrak emoten bost hitz-neurtu jarri nituan; hara laugarrena:

Agur Enbeita, agur samur bat
bihotzez hartu egizu,
lagun guztiak halan dirauste
neuk be hareen bardintsu.
Eskerrak ere bialdutzea
egiten yat gogoratu.
Ez da gauzandik, badakit baina
ezin bestegaz pagatu.

Hitz-neurtu hori orduan jarri bazan, eta ezin pagatu bageuntson, orain gure Enbeita beharrizanean dago eta guk zor deutsogu, horregaitik, bada, harpidea zabaltzen dogu, eta emon txindia zeuen izenagaz *Euzkadin* jarteko, Timoteo Ma-kiñakoari edo Alberdiren jatetxean. Eskerrak, bada, laguntzaile guztioi aurrez.

I. I. (Orobiotik)

[AMAREN LEHENENGO HITZ IKASIAGAZ]²⁷

MAIZTEGI GOTZAINA –Panama laterrian orain lau urte gotzain atondu eta hil honen lehenengo egunean egin eban bere sarrera Iurreta bere jaioterrira Maiztegi Juan Jose gotzain agurgarriak, Amatzabe baserri-etxeko semeak. Hamalau urtegaz bere aita eta amaren ondotik aldendu zan lekaimetzako ustez, eta egin zituan hogeita hamaika urte urruti etxera etorri gabe, eta orain bost urte egon zan lehenengoz urten zala, eta bere jaiotetxean, eta bihurturik bigarrenez Panamara, orain lau urte atondu zan gotzain. Orain 50 urte ditu.

Iurreta bere herri honetara egin zan sarrerea bihotzak ikaratutekoa izan zan: Endore jauna aurrean zala, udalgizon guztiak agurtu eben, baita bere anai-arreba bik eta lehengusu askok be, hamarretan egin eban herrira bere sarrerea, eta berak esan eban ordu honetako jaupa, izanik berau edertasunez betea.

27. *Euzkadi*, 1929-09-12.

Jaupa hau erantzun eta atontzeko batu ziran lurretako seme jaupari guziak, izanik hamarren bat eta Valenciako katedraleko kanonigo dan Lauzirika jauna, herri honetako semea hau be; guztiokaz batera Maiztegi Gotzain agurgarriak esan eban hamarretako jaupa nagusia. Inoz ikusi ez dogun lez holako jauparik, herri guztiagaz batera ni be han izan nintzan.

Jaupa ederra benetan ikusi genduna, eta jaupa erdian bertako apaiz zaharrenak hitz egin eben Maiztegi gotzainari zorionak emoten, eta berehala gotzain agurgarri euskaldun hau, aldarara erdiratu zan, eta hitz egin eban, bere aitak eta amak irakatsitako elez, bai irakurle, euskeraz eta ederto egin be. Hogeita hamasei urte laterri aldetik igaro eta bere amaren lehenengo hitz ikasiagaz egin eban.

Hain izan ziran hitz gozo ederrak ze, asko ikusi nituan begi malkoetan negarraz eta ez zan gutxiagorako be.

Jaupa amaitu ondoren egin zan bere eskuari mosu egitea, eta, mutikotan aldendu zan arren, askogaz gogoratzen zan eta hitz guztia euskeraz egiten eban. Ondoren eleiz aurreko zelaian Durangoko eresbatzak jo eban bere omenez, izanik gehienak euzko ereserkiak, baita jarraieran bertako jantzariak gure hizkuntzaren barri egin eben, ederto dantzan eginda.

Arratsaldean Maiztegi gotzain agurgarriak bere senide eta ganerakoakaz igon eban bera jaio zan baserri-etxera, bertan lo eginaz.

Ganeko egun baten urteten dau Erromako Aita Deunak dei eginda, bere eta bere tokiko barri ematen.

Agur, ba, Maiztegi Juan Jose gotzain gurgarria; zure esana beteko dogu otoitz eginda zugaitik, eta zuk gugaitik, honetara guztiok Jaungoikoaren laguntasunagaz izan gaitez. Olantxe.

URETABARREN (Orobiotik)

[**ABERRIREN PITXADEA ETA ORIXEREN JOKEREA**]²⁸

IGANDEAN MAÑARIAN –Kirikiñoren (G. B.) oroimenez jaupa entzun gendun euskel idazleok igandean Mañarian hainbat lagun bertara heldurik.

Goizeko bederatzi t'erdietan urten gendun Durangotik bilbil haundi baten beterik, eta hamarretan jaupa nagusia esan eban lekaime karmelgo batek. Ondoren Kirikiño hobiralduratu zan lekuru ginan guztiok *aitagurea* bihotzez esanik, eta, bere alargunari tamal agurrean lagundu ondoren, hamabietan atzeratu ginan Tabirara.

28. *Euzkadi*, 1930-05-25.

Hauxe da oraingoan Kirikiño haundiagaitik egin dan gauza txikia, eta neure aldetik egiten deutset euskel idazle guztiei, batez be *Gogorrari*,²⁹ eskari bat.

Izanik Ebarista jauna gure irakasle bakarra, haundia, sutsua, Euskerea azaldu, zaindu eta goraldu ebana, azken barik gure hizkuntzagatik lan egin ebana, eta hizkuntza honetan egiten dogun apurtxo hau berari zor deutsoguna, ezin leio egin berari edo bere izenez jai haundiago bat, guk asmau genezakena, danik haundiena izanda ere, ezin ordaindu genduke-eta, danak irabazita daukaz-eta?

Nik uste dot dei sutsu bat egin Euskalerrri guztira eta hurrengo urterako gertau leikeala egun ospetsu bat: jakina da gauza honeek egiteko txindia behar dala, eta hau, harpide bat zabaldu ezkerro, uste dot zeozertxu batu leikeala.

Hau da nire eskaria, eta ontzat badozue Uretabarren laguntzeko hemen do-zue.

DURANGON –Hona heldurik, pelotatokiratu ginan gehienak, eta eskuak berotzen hasi ginan. Han ezagutu genduzan pelotari gogorrak, baina Gogorra be ez da makala!

Honetan ipini zan pelota-partidu bat honela: Orixek eta Aberrik Markiegiri eta Erbindurari «prailien dozenara». Han zan atzera, aurrera, eta horma-biak jo beharra! Aberriren *pitxadeak*³⁰ eta Orixeren jokereak txalo ederrak entzun zituen.

Azkenez honeek gelditu ziran hamaikan, baina *ni vencedores ni vencidos* esan lei, eta gero... gero bai jokatu zala partidua gogorra «Alzaga»-nean. Igaro dan zortzi urte honetan ez dot igaro hiru-lau ordu alaiagorik. Zeleta eta Altzeta sutsu horreek egin eben hitzaldi bana, zein hobeto egon zan ezin esan lei, biok sutsu agirian ipinirik jeltzaletasuna, txalotuak izan ziran. Ondoren jagi zan gure urretxindor gaixoa, aspaldi negu baltz bat lez isilik egon dana hitz neurtuak botatzen, eta bai bota be. Zer zan ha! Ezin esan lei berak zer esan eban be! Ederto baino be hobeto egon zan, eta oraintxe gogoratzen naz zelan jarri nituan hiru-lau hitz neurtu berari eta bat hauxe:

Entzun genduzan pozez beterik
zure hitz neurtu maminak,
oraindik ere gogorra zagoz,
bardinik gabe, jakina.

29. Gogorra, Gregorio Ruiz Ertzilla idazle eta ELAko sindikalista.

30. *Pitxada*: «En el juego de la pelota, ardid que consiste en preparar una gran brazada y dejar la pelota sin fuerza alguna. Pitxada bategaz irabazi eban azkenengo tantua» (Toribio Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar: Arrate'rikuen izketia*, 1965).

Euskaldun bidez erakustez
emanik poz ta atsegina,
orduko txalo jotzeagaitik
oraindik eskutan det mina.

Bai benetan eskuak mindu han egon ginan guztioi, baina min gozoa, min pozkorra. Min honeek ba beti pozik, Enbeita, hartuko geunkez.

Gero gure olerkari Keparen seme batek be ederto egin eban, eta ea ba aita lakoa zuk urteten dozun!

Aurrerantz egin zan Euskal Idazleen batzarra. Lizardi jatorrak ederto azaldu zituan gauza guziak, baita erabagi batzuk hartu be.

Honetan «Gora ta gora Euzkadi» ereserkia abestu zan guztien artean, eta amaitu zan egun alaitsu hau.

Azkenez, zorionak egun alai hau antolatu dabenai, batez be, Gogorra jatorrari gauzak ondo gertu ditualako.

URETABARREN (Orobiotik)

[ANDRE MIREN EGUNA]³¹

Egun honetako jai ospetsuak iragarrita egozan uri honetan Lauzirika gotzain uri honetako seme agurgarria etorrela-ta.

Hamarretako jaupa nagusia gotzain agurgarri honek esan eban, baita txonitza egin be, eta gure euskera ederrean ganera.

Gauza askoren artean esan eban, bera bizi dan tokian ez dala euskerarik egiten, eta gaitz egiten jakola berari, baina Euskal Herria eta bere jaiotetxea maite dabezala, eta euskeraz hitz egin behar ebala; holan ba, euskeldun guztiok batasunez ikustea opa deuskula eta abar... Txonitza, goiz eta arratsalde bardin, euskeraz egin euskun.

*Ete*³² hasarre samar egon ei zan Markiña aldean erderaz egin ebala-ta, baina gu pozik gagoz euskera garbi-garbian egin deusku-ta.

Jai ospetsu hau haunditzeko etorri zan Mutrikutik eta bertako abesbatzak izugarrizko ederrez abestu ebazan arratsaldean abesti asko eta atseginez; guztiak euskeraz: *Goiko Mendijan, Agur Jauna, Mendigoxalen ereserkija* eta abar.

Oso txalotuak izan ziran abesti guztietan: Gotzain jauna be, poz-pozik egon zan, geu be asko poztu ginan, batez be, guztiak abertzaleak zirala jakitean. Eleiz atean, bere jaiotetxean eta abar, bere omenezko hitz guztiak euskeraz egon ziran.

31. *Euzkadi*, 1932-09-11.

32. *Ete*: Elixabete Aginaga, Markinako berriemailea.

Eskerrak, bada, geure gotzain agurgarriari, Lauzirika jaunari, herria goraldut-
ten etorri dalako, baita Mutrikuko abesbatza abertzaleari be; eta, azkenez, geure
txaunburu onari, bera izan dalako jai honen egilea gauzak ondo antolatu eta geure
euskereari goralpen haundia emon deutsalako eta jai guztiak geure hizkuntzan
egin dabezelako.

Badaki orain gure elezko gauzak zelako ederrak izaten diran, danon atse-
gingarriak, eta eskerrak, bada, barriz eta ahalegindu beti holantxe egiten, geure
laguntza izango dau-eta.

JAYURI (Iurreta)

[EBRO ETXE AURREAN DAGOZAN HARRI-PAUSUEK]³³

DURANGOKO UDALETXEARI –Lehengo asteko idazkian esaten neban
zerbait kanposantuko bideagaitik. Gaurkoan be esan behar deutsuet *Ebro* etxe
aurrean dagozan harri-pausuek edo, hobeto esateko, harri *estropazetakoak*aikitik.
Hemen dagoz harri honeek antxinetik norberen oinak sartzeko beste zuloak da-
bezala. Zegaitik atondu ez eurok? Bertatik egunean-egunean askok igaro behar
izaten dabe, esnedunak dirala, langileak, umetxuak be ikastoletara, eta abar. Arris-
kupean gagozala edonok daki, ba hainbat dira bertan uretara jausi diranak eta ito
be bai. Non ete dira eta zertarako lehenagoko hauteskunde edo elezino aurrean
zubi barria egiteko batu ziran izenpe edo firmak? Ointxe bai izango litzakela era
ona, batez bere herriko semeai lana emoteko, ba asko dira lan barik dagozanak.
Zer deritxazu, alkate jauna?

JAUPA BARRIA –Datorren igandez Berpizkunde egunean esango dau, herri
honetako Mikel Deunaren ertxadonan, goizeko 10etan, bere lehenengoko jaupa
edo mezea bertoko seme dan Zamalloa'tar Iñakik. Bere guraso Zamalloa'tar Marka
eta Zarate'tar Erramone, arreba ta beste sendi guztiai, danak abertzale zintzoak,
bidaltzen deutsiedaz aurretiaz neure zorionik beroenak. Eta zuri, Iñaki, Goikoak
lagundu deizula uzkurtz edo erlijino-bidean gogor lantzeko.

*BELGUNTZAK*³⁴ –Herri honetako ertxadonan egin dira misinoak, bertara
notintza haundia heldurik, Kaputxino aba bat artezkari dala. Guztizko ederrak
eta igalitsuak izan dira, gero. Eta gure hizkuntza garbian.

33. *Euzkadi*, 1934-03-27.

34. *Belguntza*: 'misioa'.

JOAN-ETORRIAK –Zaragozatik etorri da, egun batzuk igarotera, gure lagun ostikolaria, Munitxa'tar Sebasten.³⁵

Baita be agurtu dogu Uriolabeitia'tar Miren Alazne Ermuko emakume liraina.

URONDO (Iurreta)

[**EREINDA DAGOZAN PATATAK ATARATEN EZ BADEUSKUEZ!**]³⁶

JAUPARI BARRIA –Deun Mikel eleizan eta bere herritarren aurrean emon eban Berpizkunde egunean lehenengoko jaupa edo mezea hemengo seme dan Zamalloa'tar Iñakik. Notintza ederra eleizaratu zan jaupari barriari lehenengoko *Dominus vobiscum* entzun gurarik. Eta abots zoliakin abestu be! Bere aita-ama bitxiak Etxezarraga'tar Luki eta bere emazte Zamalloa'tar Josebe izan ziran. Txonizlari, jaupari barriaren osabea, Zarate'tar Domeka, Zornotzako txauburu jauna. Honek argi eta garbi aitzen emon eban zelako eginbeharrak daukaguzan eleiztarrok jaupariakin, baita be eurak kristau guztiakin. Azkenez esan eban, zorionak emon ondoren bere loba Iñakiri, zelan gogoz landu behar eban gure Euzkadi eta bertako ohitura onak jaboten. Bertan, beste sendien artean ikusi gendun, bere geixo luzea igaro ondoren Zarate'tar Pilipa, Garaiko jaupari agurgarria. Lerro bitarte honetatik hartu, jaupari, guraso, aita-ama bitxiak, arreba eta beste sendi guztiak, neure zorionik beroenak.

LEHENENGOKO JAUNARTZEA –Hemengo ertxadonan izan zan, Nekaldi Barikuan, bertoko umetxuen jaunartzea, hainbat izanik. Euren artean Isasmendi'tar Irene, Fernandez'tar Illumine, Munitxa'tar Koldobika, Bilbao'tar Erramone, Erdoitza eta beste askoren izenik ez dakiguzanak. Gaztetxu guztioi, baita be gurasoi, nire zorionak.

AMESETAK –Aberri Eguna zala-ta ospe haundiagaz egin zan Gasteizen jai hau. Entzun dogu, herri honetako karlatar batek esan dauela-ta, eurak horrelako jai ospetsua egiten dabenean han ikusiko dirala 40 mila *requete* deritxonak, eta guztira 200 mila margarita-margaritoak batzartuko dirala. Nondik norakoak izango ete dira? Batek daki. A!, eta hegazkinak be asko etorriko dirala Estebantxu, Oriol eta Urraka Pastorri «usain gozoko» margarita txortak botateko. Hainbeste *coroplano* jatsi eta lurreratzen badira, ereinda dagozan patatak ataraten ez badeuskuez...

35. Sebastián Municha Uberuaga, Iurretan jaioa (1909-05-12). 17 urterekin hasi zen futboleant, *Mallabiena* taldean. 1928an Durangoko *Culturalak* fitxatu zuen, baina 1933an *Zaragozan* zebilen. Ekipoa 1936ko apirilean lehenengo dibisiara altxatu zuenetako bat izan zen.  186

36. *Euzkadi*, 1934-04-12.

Behintzat, bildurrez egoteko zorian iminten gaitue. Koitaduok, horreek bai dirala benetako ames gozoak! Ja... ja... ja...

JOAN-ETORRIAK –Egun batzuk bere sendiaren ondoan igarota, Azpeitira joan da Zuazo'tar Nikola irakaslea.

Gasteizera Zumarraga'tar Bedita eta Santanderrera Munitxa'tar Jone ikasle gazteak. Ondo ibili eta asko ikasi.

URONDO (Iurreta)

[HASARRE BE HASARRE DIRA]³⁷

HARPIDEA –Gure burukidearen aginduz zabaldua dago harpidea Durango-ko Batzokian, Larramendi'tar Andoni zanaren sendien alde. Uste dogu ez dala geratuko Iurretako abertzalerik bere emokunaz lagunduko ez dauenik. Txindia Batzokian hartzen da, baina horra joaten ez diranak emon leikioe bertako edozein batzarkideri, ba hil honen atzenean zarratzen da harpidea.

EZKON-DEIAK –Lehengo igandean hasi ziran Meabe'tar Kepa eta Errementeria'tar Pantzeskeren lehenengo deiak, baita be Beloki'tar Lander, Apatamonasterioko mutila, eta Retes'tar Esperenak.

Hartu, lau abertzale gazteok, aurretiaz neure zorionak.

IDI-INDARKETAK –Hasarre be hasarre dira hemengo gizonak indarketak itxi ez deusiezalako egiten. Noz eguna helduko, batak untze bat baietz, besteak hiru ezetz, behintzat zeresan ugari izan da hemen aste guztian. Ostera, andrak pozik ikusten dira jaurleriak erabagiori hartu ebalako, ba joko horrek basarrira drogea eta taberna-bidea baino ez dakarrela dinoe.

BIDEGINAN –Oraingoan esan leiteke gogoz hasi dirala Goiuri aldera bideginan. Aurtengo santikurutzak laster dira, baina datorren urtean ea belbilean joaten garean Goiurira jaiak ospatzera.

DURANGOKO AZURZURIRI –Lehengo asteko *Euzkon* idatzi duan idazki ederra irakurri najuan, baina hobe deritxagoko jatan arrain-toki ordez *sapaburu-toki* izena ipini baheuntso, egokiago jatorkolako.

Eta ez dok uste arrainak baino asko errezago jausiko litzakezala, esparbelpean txakolinetik, «trumoi-zaparrada» ostein, bidean zabuka datozenean, heuk di-noazanak? Erea daukoanean egik aprobea. Botaik esparbela. Zerbaist atrapauko dok-eta, buru haundidun «asto» bat bai gitxienean.

URONDO (Iurreta)

37. *Euzkadi*, 1934-04-29.

[ADOLFOREN TXAKURRARI EROAN BALEUTSOZ, HOBE]³⁸

JAUNTXUKERIAK—Beste urteetan legez, lehengo ohitura zaharrari jarraituaz, Orobio auzuneko txadonan eleizkizun haundiagaz ospatu zan Marka Deunaren hurrengo igandea. Iurreta etxadonako abeslari-talde bat joan zan hamarretako jaupa abestuten. Jaupa hau Perosirena izan zan. Eta ederto abestu be egin eben. Zorionak abeslariai!

Jaupa osterako auzune hartako abertzaleak asmoa hartu eben, dantzari aldra bat eroatea, bertako zahar eta gazte guztiak gure euskel dantza ederrak ikusi daginean, baina horretarako herriko endore edo alkate jauntxuaren baimena behar zan, eta hor egoan, ba, untzea! Kazike jauntxu horrek erantzun eutsen karlatarrak bialtzeko asmoa eukala. Orobioko gaztediak hau ikusi ebanean, Etxanoko endore jaunaren baimenagaz sartu eben bere herri barruan hamasei neurkinetako tantai haundi bat, bere txuntxurrean geure ikurrin ederrari haizeak ederto eragiten eutsala. Ikurrin honen azpian Ermuko dantzari azkarrak egin ebezan geure antxinako dantza eder eta txukunak. Halan, Orobioko sei karlatartxuok gelditu ziran ez karlatarren dantzaririk ez abertzaleenik ikusi barik, ba ordeaz herri-zain bi eta hiru txapel-okar bidaldu eutsezan *Adolfotxu* gureak,³⁹ bildurrik euki ez dagine. Eleiza ondoko batek buruari hatz gogor egin behar izan deutso, ba, hainbat jan-edan gertautu eukazan eta bertan danak gelditu jakozan. Bai, ba, abertzaleak iges egin eutsen eta karlarrak joan ez. Alperrik galdu barik, *Adolforen* txakurrari eroan baleutsoz, hobe.

Aurrera, ba, Orobio eta Iurretar guztiak, ez bildurtu karlatarren zitalkeria-kaitik. Jarraitu hurrengo urteetan be geure asaben ohiturai eta Arana Goiri'tar Sabinekin irakatsi euskun bideari. Azkenez, hartu egizuez neure zorionik sutsuenak jai ederrori gertau dozuen guztiok, baina batez bere karlatarrak egindako zuloan, abertzaleen ikurrinagaz, tantaia sartu ebenai.

MATSORRI (Orobio)

[OROZKETA AUZOAN, HERIOTZA BAT]⁴⁰

Igaro dan jorrailaren 22an, Alberdi'tar Simone Jaungoikoaren besoetan hil zan (G. B.).

Hemen lurrean atsekabez itxi dauen sendiari, izan dauen atsekabe-aldian laguntzen deusagu. Simone izan zanaren gogoari, oster, otoi eginaz.

38. *Euzkadi*, 1934-05-09.

39. Adolfo Uribasterra Ibarrondo, Durangoko alkate karlista 1931n. 1937an, estatu-kolpearen ostean, tropa frankistak sartu zirenean, berriz ere izendatu zuten alkate Durangon.

40. *Euzkadi*, 1934-05-12.

Atsekabe hau era bitakoa izan da, ba.

Lehenengoa, Simone euren artetik beste ludira joateaz izan dauena. Bigarrena, barriz, hildakoaren gorpua hildegiratutean jazo zan lotsagarrikeriarena.

Ohiturea dan lez, auzoko lau gizonezko gorpua jaso eben, eta baserribide txarretatik Durangora sartu arte, sorbalda ganetan eroan be.

Durangon sartu ziranaz batera, lau karlatar gaztek urten eutsien, eta holantxe esan: hildakoa *margaritea* zala, bai, ta eurak *margaritoak* ziran ezker, handik hildegiraino egoan bidean, eurak eroan behar ebela.

Karlatar gazteen uzi (pretentziño) ganora bako honetatik, ezbaia sortu zan. Eta gurasoak semerik ez daben lez, eztabaida honetan aita sartu zan. Eta aitak, auzo-mutilekanutz zuzenduta, alabearen gorpua karlatar gazteai emon egiela agindu eutsen.

Beraz, bide txarretatik ibili behar zanean, auzo-mutilak be onak ziran. Durangoko kale lehenetatik ibili behar zanean, oster, ez; hemen *margaritoak* behar ziran... Karlatarren zuzentasuna ta maitasuna, hona hemen ederto argazkituta: basabide txarrak igaroteko, auzoko mutilak. Eta uri barruko kale leunak igaroteko aldia heldu zanean, Durangoko *margaritoak*.

Auzi honetan Simone izan zanaren aitak egin dauena ondo eginda ete dago?

Auzo-mutilak sorbalda-gane hilobirantz daroien alabearen gorpua, auzotarra kendu ta, «politikea» erakutsiaz, uriko karlatarra emotea bidezkoa ete da?

Aitak egin behar ebana beste hau zala uste dogu: bide onera heldu ziranean be, bide txarretatik ibili behar izan ebenai eroaten ixtea.

Margaritoak eroatea beharrekoa bazan, barriz, Orozketatik hasi ta hilobira heldu arteko bide guztian, *margarito* señoritoai eroanazotea.

Hau guztiau jazo eta gero, hurrengo hauteskundeetan Orozketako gazteak karlatarra laguntzen joango diranik ez dogu uste. Holako gauza bat egitea Simone zanaren aitak erakutsi eban zentzungetasuna baino haundiagoa izango litzake.

Urondiri: Orozketa zure «juridiziñua» izanda, zelan ez zenduan «notizi» hau zure azkenengo idazkian argitu?

Holako gauzak garrantzi haundia dauken lez, izpar hau argitaltzen neu aurreratu naz, ba.

Zuek be baina, *Urondo*, aurrera egin, gure Euskel-Atalak guztion beharrizana dauko-eta. Agur.

SORKUNDE

[AUPA, MALLABIENA! AURRERA!]⁴¹

OSTIKOLARIAK—Gorpuzti-egunean, Pausta Deunaren zelaian, jokatu eben Durangoko txapelketan herri honetako *Mallabiena* deritxon aldrea Durangoko *Surtarraren* aurka. Eguraldi ona, be, bazan eta jokaldia ikustera lagun asko zelai aldera joan zan. Ez dot uste joan ziranak damu izango dabenik, ba jokalaria egin eben joko ederra, batez be *Mallabiena* taldekoak, gitxik egiten daben lakoa izan zalako. Ondo gertauta agertu ziran *Surtarrak*, ba eurei ez deusiela Iurretako baserritarrak irabaziko, eta atondu eben euren aldrea Durango, Elorrio, Zornotza eta ingalandar mutilakaz. Baina, halan da guzti be, alperrik. Gure herri mutilok ikusi ebenean bestearen gertakizun haundia, euren aldrea hobeto indartzeko ekarri eben joko horretan bizkorra dan Erandioko gazte bat, eta benetan bizkorra! Amaitu zanean jokaldia, *Mallabiena* agertzen zan tanto bigaz eta besteak bapezegaz. Gurenda honekin beste maila bat igoten dabe geutarrak. *Mallabiena* aldran jokatu ebenak honeek izan ziran: Ansoleaga, atezain; Unamunzaga eta Ayuela (erandiotarra) atzekaldean; Uribe, Unamunzaga eta Larrinaga, erdiko; Badiola, Barrutieta, Alberdi, Arrue eta Hermosilla, aurrelariak.

Datorren igandean *Gallo* deritxon eibartarren aurka jokatuko dabe. Aurrera mutilak! Ez bildurtu, aurkariak *Gallo* izena ekarri arren. Eurei erakutsi behar deutsezue zelan egin behar dan benetako «kukurrukua». Ea nok zoliago.

Aupa *Mallabiena*! Aurrera!

ABESLARIAK—Igazi dan igandean herri honetako abeslari talde bat joan zan Garaio (Araba) herritxura jaupari gazte baten beren lehenengo jaupea abestuten. Oso pozik bihurtu ziran gure abeslariak, egun ederra, Araba euzko-anaien artean, igaro ebela-eta.

ETORRI DIRANAK—Santanderretik Urberoaga'tar Anastase bere alaba lirainakin, Jone eta Margarite. Lizarralde'tar Bittor eta Mentxaka'tar Joseba Mirena, gudaritzatik. Gasteiztik Aldekoa'tar Josu jauparigeia. Danoi ondo etorria.

URONDO (Iurreta)

[ATXUTXIETAKO DEPOSITOTIK MONTUEKO ZUBIRA]⁴²

KOLDOBIKATARRAK—Igandean, bagilaren 24an, ospatu eben herri honetako koldobikatarrak euren Deun zaindariaren jaia. Goizean, hamarretan, eleizea polito apainduta zala, meza abestua izan zan herriko abeslariak abesturik Perosiren *Lehenengo Pontifikala*, Murgoitio'tar Kelmén artezkari dala. Zeu erduten zanean

41. *Euzkadi*, 1934-06-09.

42. *Euzkadi*, 1934-07-01.

bakotxean, Kermen, abestiak ozen eta ondo neurtuak entzuten doguz. Abots bakarra zoli-zoli abestu eban Larrinaga'tar Kepa'k, eta uste dot Gallanda tontorretik entzuteko bestean. Txonizlari, Durangoko seme dan Areitio Aba josulaguna izan zan, eta luzero Euzkaditik kanpora izanda egon arren, geure euskera garbian argitaldu eban Gonzaga'tar Koldobikak igaro eban bizitza.

ARTEZKARI BARRIAK –Meza ostean Batzar Orokorra euki eben Koldobikatarrak. Beste arazo batzuen artean, Artezkari Batza eben. Hara hemen aurretzerako izentau dabezan izen-abizenak: Lehendakari, Agirrezabal'tar Dunixi; bigarren lehendakari, Zamakona'tar Maren; idazkari, Zuazo'tar Erroman; bigarren idazkari, Uriarte'tar Pantzeska; txindizain, Etxebarria'tar Dunixi; eta ikurrinlaria, Unamunzaga'tar Domeka.

Zorionak batzorkideai eta gogoz jardun uzkurtza edo erlijinoaren alde.


HERRIKO AGINTARIA –Urte guztietan legez, aurtan be heldu jaku udako siku-aldi edo ur-agorra, eta, egindako gauzeak bere burua argituten dauen legez, hemen be argitu dau berea. Hau da, Iurretako errekea Atxutxieta deritxon lekuan dagoan depositotik eta Montoeko zubira (bigarren depositora) bien bitartean ikusten dan zikinkeria eta botaten dauen usaina gure herria lotsatzeko eta osasunaren kalterako baino ez dala gogoratu behar dogu. Baina nora begira dagoz Junta de Sanidad-ekoak neurriak hartu barik? Beste urteetan helduten izan dira Egiatxu direttore dala txaide-garbitzaileakin (barrenderuakin) erein bat emoten, baina zer da? Ba, lehen baino usain handiagoa itxita badoiaz «parrapera». Zer egiten dabe, ba, Iurretako zinegotzi edo kontsejalak Durangoko Udaletxean honango gauzak argitu barik? Gauza honeek herrira ez dakarre kolera edo astonaparria baino beste pestekeririk, eta ondo izango da gehiago esaten ibili barik onetsiz gogoratzea.

NAHASKALDIA – Ikastaroa amaitu ondoren eta oporraldia gure artean igarotera etorri jaku Gasteiztik gure lagun dan Zumarraga'tar Bedita, irakaslegeia. Ondo etorria.

URONDO (Iurreta)

PILIPA ZARATE

Garaitik Rondara Lovainatik pasatuta



PILIPA ZARATE (1890-1964)


1890eko irailaren 13an jaio zen Felipe Zarate Berroya, Bargundia baserrian bere anaia Domeka bezala. 1914ko abenduan egin zen abade Iurretan, aurreko atalean jaso den *Euzkadi* egunkariko kronikan agertu zenez:

«Danak ezeben pozik entzun, ba jaupa-ostian eskumunera etziran juan...».


Karrantzan egon zen lehenengo, gero Andikoan kaperau, eta ondoren Garain parroko. 1937ko apirilean alde egin eta, Durangoko bonbardaketaren ondoren, ekainaren 24an Santanderren *MacGregor* ontzi merkantea hartu ahal izan zuen, Frantziara, Paullac herrira, heltzeko. Handik Belgikara joanda errefuxiatu zen.

1941ean, alemanak Belgika bonbardatzen hasi zirenean, itzuli ahal izan ziren abade exiliatuak, Ildebrando Antoniutti monsinorearen bitartekaritzari esker. Domeka anaiarekin batera bueltatu zen Pilipa etxera, eta Iurretan umetan eskolakide izandako Javier Lauzurica apezpiku frankistarengana aurkeztu behar izan zuten. Lauzuricak Domeka Harora detinatu zuen eta Pilipa Rondara.

Euskaraz idazteko ohitura zuen Pilipak. Beste eskuizkribu batzuen artean, eguneroko bat gordetzen da 1941eko martxoan eta apirilean idatzia.



EGUNEROKOA (1941)



Tienen (Tirlemont - Belgique),¹ Año 1941, Marzo - 2garren eguna Igandea.

Igandea

Apari ostean azken Agurra. Prantzeraz, euren gomutagarrija. On Karlak erantzun eustan danen izenean, prantzeraz eta flamenkoz anaitasun maitekorraz = Iru tarta ta sei bonbil sagarren-txanpangin...²

Astelena - 3garren eguna

9 ½ etan urten neban Tienendik, On Karlak lagunduta, kementsu ta maitekor aurkitzen zala. Lobainan geltokijan euzko gaztedia itxaroten. Bernardiña, Agirretar Joseba Andoniren ama zintzo-leunak bazkaria emon euskun. Ordubatetan urten gendun Lobainatik bultzian. Irurak eta ogeian Bruselastik bultzian bigarren mailan. Gaueko amarretan Parisen, gaba Fonda baten, ederto.

Martitzena - 4garren eguna

Landaburutar Peliri³ ikertaldia (visitaldia). Giputz batzukin bazkaldu. Lur-azpiko bultzian ibiltaldi ederra -gauza ederra bai bultziena-. Ikertu «Garaitz-Zubia», «Eiffel Torrea».

Eguastena - 5garren eguna

Jesusen Biotz Donearen Eleiz ikusgarria. Gure-Jauna agirian. Doitztarrez⁴ beterik, batzuk eraspen eta itzal aundiz, beste batzuk txapela kendu barik batetik bestera ibili. Toki ontatik Paris guztia ikusten da... ze ikuspidea... Magdalena...

1. Tienen edo *Thienen* (neerlanderaz, *Tirlemont* frantsesez) Flandriako hiri bat da, Belgikan.

2. *Sagarren-txanpangin*: sagardo xanpain erakoa, aparduna.

3. Peli Landaburu Azkue, josulagun gaztea, Felix Landaburu jeltzale eta Euskaltzaindiaren sortzailearen semea.

4. *Doiztar*: doixtar, aleman.

Pantheon... Notre Dame... oso ederra. Gaueko amarretan urten gendun Bayonara.

Eguena - 6garren eguna

Amardertietan eldu gintzazan. Bazkaldu ederto, euskeldun batzuekaz barriketaldi bat, ibilalditxu bat eta lauretan Hendaiera, bost eta erdietan eldu gintzazan, apaldu ta lo. Kardenal Segura⁵ ta Dn. Matai Gotzaina⁶ ikertu (visitau)... ziraneko jantoki edo Fonda berean...

Barikua - 7garren eguna

Parrokian Jaunartu, ango apaizak Gotzainaren baimen barik ez euskun utzi Jaupea (mezea) emoten, orregatik Jauna artu gendun. Gosaldu ta bazkaldu Fondan. Dakarguzan maletak aratu euskuezan, baina oso arin eta laztasun barik. Doitzarrak ziran. Ordubijetan urten gendun Irunera. Txindi aldakuntza. 700 pranko prantzezegatik 145 laurko Españako Aurrezkikutxan izteko. Irundik



Hendaiaiko muga, 1941. Aduana frantsesean soldadu alemanak, espainolean guardia zibilak.

5. Pedro Segura, kardenal 1927tik eta Sevillako artzapezpiku Gerra Zibila hasi zenean. Oso integrista eta antierrepublikanoa: arazoak izan zituen frankismoarekin, kaudillorik onartzeko teokraziazalegia baitzen.

6. Mateo Múgica, Gasteizko gotzaina Gerra Zibilaren hasieran. Tirabirak izan zituen militar sublebatuekin, eta 1937an desterratua izan zen.

Ondarrabira, emen Aberri-mugako agintariak auxa agindu au emon euskuen: urten genduneko errijaan aurkeztu bear genduala. Gaba igaroteko Donostiara, emen karmeldar lekaideak ikertu... Fonda baten apaldu ta lo.

8garren eguna

Jaupea Karmeldarren Eleizan emon genduan. 9/etan Durangora. Durangoko geltokian arrebea, Marka, Jon, Ilari ta Miren.⁷ Agurrak eta negarrak... Bazkaldu Bargundian, poz pozik, iluntzean Kurutzietara.⁸

Igandea - 9garren eguna

8retako Jaupea neuk emon neban. Arratsaldean Kepa ta bere emaztea⁹ agurtu nituzan. Abegi oneko Agurrak.

10.

Arratsaldean Garayra. Abegi oneko arrera Aresti, Jon, Ilario, Pujana, San Andres, Maria, apaizak. Antonio klinikan...

14.

Martin, Gabiño ta Silberiotarrok ikertu ninduen.¹⁰

19.

Zortziretako Jaupea esan neban, gizonezko asko ta asko Jaunartzen. Nekatuta ta gaxo xamar aurkitzen nintzan.

Lauzurikatar Kepak¹¹ gaztigatu ginduzan Bilbon Dn. Domingo Abonagaz egoteko. Ni oeratuta nenguan. Anaya juaan zan Bilbora. Abonak esan eutson Gobernadorien aldetik «ogeita lau ordu barru Bizkaitik urtetako».

[23] Igande

Eneban Jauparik emon. Arratsaldean belbilean Gasteizera. Elgueanean apaldu – lo...

[24]

Asteleen goizean Karmeldarren Eleizan Jaupea; Aita Jakindagaz izketaldi luze bat.

7. Arreba: Ramona Zarate Berroia, «Erraimunda». *Marka*: Markos Zamalloa. Ilari ta Miren Erraimunda eta Markaren alabak dira, Bargundia baserrikoak denak.

8. *Kurutzietara*: Durangoko Kurutzietara errebala.

9. *Kepa ta emaztea*: Pedro Iza eta Irene Zamalloa.

10. Pedro Martin Aldekoa-Otalora, Gabino Usabel, Silberio Zuazo: iurretat auzokoak.

11. Pedro Lauzurika: Javier Lauzuricaren anaia.

[25]

Martitzenean Ganboatar Jagobagaz.

[26]

Eguastenean Gotzaina ikertu gendun, anaya Domeka Arora bialdu eban.

[27]

Eguenean anayak urten eban Arora.

Gaur eldu jaku Iñaki.¹²

[28] **Barikua**

Arratsaldeko 3/tan Durangora urten dau.

[30]

Igandean, ikertaldi bat Lazpitatar Joni, apaizikastetxean. Anayak Arotik urrutizkinez esan deust: Apirilaren 2an Gasteizera etorriko dala.

Jorraila 1ean

Arratsaldean Gotzainak deitu eustan. 4tik 9etara izketan leunkiro. 2000 laurleko emon eustazan, onekaz ibiltan asiko nintzala-ta. Mila anayari emon neutsazan.

Aprilaren 2^a

Gaur etorri da anaya... Elorditar Josebagaz izketaldi bat...

Anayak dino Aron beretzako ez dagola ezer. Anaya Kalaorrako Gotzainaren menpera joan da.

[5]

Gaur ilaren 5garrena, Astelena.

7garrena

Gaur etorri jataz Erraimunda ta Marka.

Eleiz zorrak Gotzainak parkatu eustazan, baina nik kitatu dodaz dan danak.

8garrena

Iñaki etorri jat. Xabierrek esan deutso: Malagara bialduko...

9garrena

Pepe Gutierrez ikusi dot.

12. Iñaki Zamalloa Zarate, Bargundia baserrikoa, abadea, Piliparen iloba.



FRANCISCO JAVIER LAUZURICA TORRALBA (1890-1964), lurretako maistraren semea. Durangoko jesuitetan eta Comillasen ikasi ondoren, 1917an abadetu eta 1931n ja apezpikua zen, Valencian. 1937tik aurrera, Mateo Múgicaren hutsunea betez, frankismoaren arabera antolatu zuen Gasteizko elizbarrutia. Gero Palentzian eta Oviedon apezpikua izan zen.

Pilipa Lauzuricaren laguna zen umetatik eta, bata Harora eta bestea Rondara destinatu zituenean, Domekak esaten ei zion bere anaiari:

—Eskerrak zeure laguna dela, nora bidaliko gintuen ba bestela!

👉 149, 183

10garrena

Eguen Santu. Jauna artu dot, Lekaime Gurtzailearen Eleizan.

11garrena

Ostiral Donea. Katedralera.

12garrena

Zamalloatar Andonik ikertu nau.¹³

16garrena

Gaur ikertu dot Gotzaina, Malagako Rondara bialdu nau. 60 Jaupa, 7 laur-lekoko sarijaz emon daustaz.

25garrena

Bilboko Jagoba Donearen Eleizan Jaupea. Arratsaldean «en la Auditoria redacción de mi declaración».

Ugartetar Koldobikari ikustaldia. Luki klinikan gelditu da.

27garrena

Gotzaina Agurtu, baita Jainagatar Laurentzi.¹⁴

28garrena

11.25 urten neban Gasteiztik Rondara.

29garrenean

Goizean Madrilen, en la Capilla de las BB. Madres de los Desamparados. Jaupea esan neban. Izketaldi luze bat, bazkaritan, Nemesio apaizagaz.¹⁵

Zarate ta Berroia'tar Pilipa

13. Jose Antonio Zamalloa, abadea, Amatzakoa.

14. Lorenzo Jainaga Alberdi, abadea.

15. Nemesio Etxaniz abade eta idazlea da aipatzen dena. Bergaratik, nazionalek Burgosera desterratu zuten. 1940ko Aste Santuan Zumaian emandako sermoi batengatik arazo larriak izan zituen Lauzuricarekin. Abade jarraitu zuen, baina harrezkero uko egin zion Estatuaren soldatari.

LONTZI AIZPURU

Lehenaldietako kili-kilia



Arratiarrak (Alberto Arrue, 1923).

LONTZI AIZPURU (1900-1982)

Leoncio Aizpuru Eguia Igorreko Ubiritxaga (*Ubitxa*) errotan jaio zen mendearekin batera. Gurasoak bertako errotariak ziren, eta bera ere errotari eta arotz izan zen ogibidez. Lontzik, euskaltzalea zen eta, *Euzkadi* egunkarian kolaboratu zuen gaztetatik.

Gerra Zibilean gudari ibili zen. Larrinagako kartzelan egon behar izan zuen preso. Gerraostean, Oromiñora etorri zen, Bekoerrota baserrira. Bertan biziko zen harrezkero, okin lanbidean. Euskaltzaleasuna ezkutuan gorde beharko zuen (*internal exile*, ingelesez esanda) luzaroan, beste askok bezala. Gero, zenbait aldizkaritan kolaboratu zuen: *Zeruko Argia*, *Karmel*, *Jesusen Biotzaren Deya*, *Agur*, *Zer* eta *Cementos Lemona* enpresaren aldizkarian. *Lontzi* edo *Urtzale* izengoitiak erabili zituen.

Lontzi Aizpuruk bertsoak idatzi zituen batez ere, kopla eta zortziko txiki eta handiak. Ez zen bertsolaria, baina bai testugile eta abeslari ona. Haren Igorreko lagun Andoni Landajuelak 1974an *Agur* aldizkarian idatzi zuenez, euskal mundu zaharraren oroiminez hasi zen berriro idazten frankismoaren akaberako urteetan:

«Iurretarren euskal izatezko nortasuna, bilin-boloka ta noraezean aldatzean berako joaten dan arri-mokorra letxe doakigu, zulora, zulo illun sakonera. Gurasoen barru-ar ta ardurarik ezak, gazte askoren arroputzkeriak eta zeinbaten txepel izatearen ondoren dogu, aspalditik datorkigun ondamendi au. Ba-dogu baiña, baita, gaztetasunez kementsu, buruz argi, eta biotzaren taupadarik armiñenak Erriari opaka ta eskein diardun gaztedia. Eta adiñekoetan zarberritua, Ubitzaga'ko semea, errotaria izandakoa.

Oromiño'n aspaldiz Ubitxaga'ko (Ubetxa) Aizpuru'tar Lontzi. Len-aldietako kilikilia izan dozu biotzean-eta, zuk alaxe bertsotan idatzi...».¹

1. Landajuelatar A., «Arratia», *Agur*, 125 (1974-02-23), 7 or.

BIHOTZ ITUNA²

Arratiarrak, bizitza osoa eman arren kanpoan, Arratia izaten du gogoan. Eta akordu edo urruntasun horrek ematen dio ituna, hau da, goibeltasun edo tristura puntua.

Arratiako mendi gailurrak
lainopean dagoz triste;
nire bihotza itunean da
aldendu beharra dau te.

Agur, amatxo bihotzekua,
arrebak eta anaia.
Agur, aberri zoragarria,
neure bihotzaren kabia.

Zuena da, ba, nire bihotza,
zuena neure izatia.
Zuok itxi ta joan behar hau
niretzat heriotzia.

Goiko Jainkoak halan nahi badau
egin bedi Haren nahia,
baina bihotzak ez dau aitzuko
euskera eta Arratia.

2. Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Esparza & Angel Larrea, *Arratiako idazle aitzindarien antologia*, Zertu Kultur Elkarte, Artea, 2005. Igor Estankonak aztertzen du Leontzi Aizpururen idazlana liburu horren 23-35 orrialdeetan.

IURRETATIK³

Diktadorea 1975ean hil ondoren, diktadura amaitu eta euskaldunak adostasun politiko batzuk eraikitzeko gauza izango zirela espero zuen Lontzi zaharrak. Ondo tristeak egiten zitzaizkion euskaldunen arteko ezinikusiak.

Ekandu zaharrak aurrez zirian
asaba zaharren aldian;
euretariko bat izaten zan
goruetea arratsean.

Kurtzuluaren argi illunaz
auzoak alkarrik [biran];
agurtza deuna⁴ otoitz eginaz
lanean jarduten ziran.

Orain, oster, argi ederragaz
geure begien aurrian,
arkal ikusi ezinik gabiz
anaiak Euskalerrian.

Hau tamala ta samintasuna
daukat neure bihotzian,
oker-bidetik goiazalako
zuzen joan biharrian.

Imini daigun geure abenda
zuzen da bide artezian.
Horretarako biharko geunke
ekin bide zuzenian.

Ta ikusiko'guz lorturik geure
asaba zaharren legiak:
biziko gara euskaldun danok
lehenauko lege zaharrian.

3. Lontzi, «Yurreta'tik», *Zer*, 40 (1981-Zezeila), 16 or.

4. *Agurtza*: errosarioa. *Agurtza deuna*: errosario santua.

ARRIANDI⁵

Lagun bati eskaintzen zaizkio bertsook: Arriandiko Madariaga baserriko Gregorio Olano etxeko-jaunari.

1
Oromiñotik Arriandira,
hemendik Madaridxara,
neure lagun zahar Olano jaunai
nator gabon opaltzera.

2
Nire ezkatzak leiho bi ditu
handiak eta zabalak;
bertatik sarri ikusten ditut
neure lagunen akatsak.

3
Goizean goizik jagiten naz ta
begitu Madaridxara,
ikusi nahirik hango zozo arrak
urten dauen etxaurrera.

4
Baina hamarrak-hamaiketara
urtetan dau solo-aurrera;
orduan trumoia usmetan badau
laster sartzen da barrura.

5
Arratsaldean bostak inguru
hor dator soloan behera,
txokor haundi bat musturrean da
neuri enbidia emotera.

6
Halakoen baten etorri zaitez
hona neure etxaldera,
txokor eder bat sakelian ta
bera neuri emotera.

7
Orduan biok izango gara
lagun hurkoak aurrera,
ta abestuko'guz zortziko zaharrak
lehenauko asaben antzera.

8
Kontuz ibili gabon-jaietan
zozokumeak jatean,
okerrik bape izan ez deizun
eurakin afaldutean.

5. Lontzi, «Arri-andi», *Zer*, 41 (1981-Martia), 16 or.

IURRETA⁶

1981eko ekainaren 21ean inauguratu zen, azkenean, Iurretako lehenengo Batzokia. Igandea zen eta EAJ-PNVko ordezkariak hitz egin ondoren altxatu zen Batzokiaren aurrean ikurrina.

1

Iurreta da herri kutuna
dago Durangon menpean,
bertan beti be zaindu dituzte
ekandu onak bihotzean.
Izanagaitik baserri herria
dagie euskera garbian,
emoten dabe eredu ederra
herri askoren aurrean.

2

Horretarako dituzte eurek
aurrekulari onenak,
aurrekulari ta atzeskulari
guztietan garbienak.
Baita ezpata-dantzariak be
bertan dira bizkorrenak;
Aita San Migel Iurretako
dantzan ondo dakienak.

3

Honez gainera dekie herrian
abesbatz oso txukuna,
gizonezko ta emakumekaz
horniduta dagoena,
bai txadonian zein enparantzan
ondo abesten dauena.
abots eder ta belarri finez
ondo alkaturik dena.

4

Bertan aurkitzen izan dabie
batzokiaren [faltea],
hau be sortu dabe eta pozik
dago hemengo jentea.
Abenduaren hamalaurako
gertau da be [zabaltzea],
orduan be izango dogu
irrintzi ta umorea.

6. Lontzi, «Iurreta», *Zer*, 41 (1981-Martia), 16 or.

JULIAN SANTA KRUZ

Gerrako ibilerak



Gerra sasoia (Aurelio Arteta, 1937).

JULIAN SANTA KRUZ (1914 - 2011)

Julian Santa Cruz Alzaga Iurretako Santa Apolonia auzoko Arandiabarrenengoa (*Barrenengo*) baserrian jaio zen 1914ko martxoaren 11n. Aita, Manuel, bertako baserrikoa eta Iurretan EAJko alkatea izanikoa; ama, Maria, Goiuria auzoko Uriguen (*Uribene*) baserrikoa.

EAJko Mungia batailoiairen Antso Estegiz konpainiarekin hainbat frontetan borrokatu ondoren (Artxanda, Otxandio, Saibi, Sollube...), Santoñan harrapatu zuten eta kontzentrazio-esparru batetik bestera eraman zuten (Miranda, Zaragoza, Sevilla...). Andaluzian, adibidez, bortxazko lanak egin behar izan zituen: trintxerak frentean, Malagako aireportua, eta abar. Gazteagoa zen bere anaia Sabin ere, *Kirikiño* batailoikoa, errefuxiatuak-eta garraiatzen ibili zen gerra garaian.

Oromiñoko Genoveva Bilbao Gorosperekin ezkondu, seme-alaba bi izan zituzten: Maria Luisa eta Javier.



1936ko Altxamendu frankistaren ondorioz Julianek bizi izandakoak jaso zituen Alberto Errazti Igartuak *Iurreta Elizateko euskara eta toponimia* liburuan (1994), haren berbak *Ahotsak* webgunean entzun daitezke.

GERRAKO IBILERAK

1936ko Altxamendu Faxista

Gure gazte denporan, gu gerran denpora gehidxena ta... Lelengo, soldau juen artien basuen biherrien, apeak eitten. Ondarruan-da, Elgetan-da, leku askotan, Asturiaserako apeak eitten, minetarako. Gure aitte defuntuek erosten zittun, da gero barkuen bieldu Ondarruatik.

Ta gero gerriek urten da kittu! Frentetik gora, prisionero be, hiru urtien etxera etorri barik. Frentien, lelengo hemen danien, batalloie formau zanién, *Batallón Mungia*. Ta hortik juen giñen lelengo zerera: Villarrealera. Hantxe eiñ egotaldi bat. Gero handik Lekeittidxora, Lekeittidxoko frentera. Gero handik Sollubera be bai, Artxandara be bai, Bixkargire be bai, kristo guztidxetara. Ta gero handik prisionero, zerak harrapau gindduzen gu Santoñan, italianuek. Han egon giñen hemenguek asko, Durangokuek: Larrinaga ta... asko, asko. Idxorretatik be bai: Toledotxu ta... Aldekoa –hil zan bera–, Demetrio... ta asko.

Prisionero jausi giñen Santoñan. Ba, handik Mirandara, kanpokonzentraziñora. Mirandatik Zaragozara, gero handik barriro Mirandara, ta gero handik Sevillara. Gero handik trintxerak eitten Kordobara, Francontzako, ta Kordobatik juen giñen Granadara, gero Granadatik Malagara. Malagan ein gañuzen hamaika hillebete kanpodeabiaziñua eitten, hamaika hillebete justuen, ta gero handik barriro etorri giñen Kordobara, hango trintxeragiñen, eskoltiaz.

Jaietatik gerrara

Karmen hurrengo domekie zan, Zorrontzako jaidxek, *diesiochodejulio* urte'abena gerriek, ta jentiek Karmenien, ba, ondiño iñok ez ekidxen ezer ta erromeridxen. Jentie beteta Zorrontza eta, halango baten, autobusek:

—¡*Viva la República!* ¡*Viva el Comunismo!*—ta eztatit zer, ta autobusek juen...

—Aibalaostia! Ze paset'ok hemen!

Ensegida zabaldu zan:

—Aibadios! Gerriek urten dxok!

Jentie tranbien barruen, bueno, ez euen zerik... tranbia zaharrak. Bete ziren tranbia zaharrak, bakotxa ahal dan moduen desaparezidu zan Zorrontzatik.

Ta handik egun bi baño ariñau, abixue niri kuartelera presentetako, soldadu, orduntxe jeusi nitzen ni, tte, kuartelera Bilbora. Handik soldadu zerera: Irunera. Gero, *Batallón Mungia* bertako jentiaz formau zan, ta nobera'pe gurau juetie ezeunekin da... *Batallón Mungia*. Nazionalisten batalloiek formau zien da, permisue eskatu nabén militarretatik da baietz, etorteko. *Batallón Mungia*, *Compañía Santxo Este-*

giz, otxandidxarrak da Elorridxo, ta honakoxe jentia, Txorieriti'pe asko. Idxorreta aldien be asko, Zamalloatarra'pe bai, gehidxenak hildde dauz baia: Toledotxu, Iza be bai, Idxorretatik asko, asko baia. Agorria, bizi da oniño, gaixorik-edo, Galartza ta, bueno, asko-asko.

Gudu-zelaian

Batallak itzelak, ostia! Elgetan be bai, Elgetan be gogorra egon zan. Handidxena -handidxena egon zan Solluben segurutik, ni ego'nitzen lekuen, Solluben. Ta handik Artxandara. Josantonio Agirre etorri dxakun felizietan, baia ez euen abioirik ez ezer, ta guk eziñ ezer eiñ fusillekin bakarrik. Errekie pasau han lantxetan, zubidxe bota abiezan Bilbon, ta lantxetan pasau biher Deustutik Zorrozara...

Hiru urte e! Ariñ esaten da *treintaiseisien* urten etxien, ta *treintainuevien* etxera. Ta gero, soldadu, *treintaicincoko* kinttie ni ta... justo-justo harrapau gerriek, justo-justo gerriek, zorridxe ta diabrue, bah!

Hegazkinen aurka ezin

Sarritten eurek ataketa'abien, ze eurek eukien abiasíñue, ta artilleridxe, ta kris-to guztidxe, guk ez gendun... zer bat, artilleria zahar bat, ta ametralladora txiki batzuk, ezebez, hárenakiñ ikusitte ezebez. Hárek abioi zahar baltzak... Joder, dedio! Ardidxe ta txakurre'pe susteute egoten ziren hárek sentietan zittuenien, txakurre'pe ahausike. Bota ta geuk ikusten gañuzan, hantxe hutsien ikusten da piezie... Joder, *La Virgen!* Gu desietan egoten giñen denpora txarra, euridxe edo lañoa, egoteko. Argitte'ziren, igual, e, hirunan-hirunan hogetaka abioiek broom broom broom! Hasten ziren soltetan da... *Mecauenlaputa!* Gero beste txikidxe atzien ametralladoraz.

Ta hárek abioiek etorte'zirenien... Laostia! Hárek abioi baltzak, bonbaz kargaute, Gernika bonbardeau abenien. Astelehen baten bonbardeau abien, ta gu martitze goxien erretiradie handik, han eriduek ondiño errekan. Jeneralien, abioiek Naparroatik etorte'ziren, Naparroako kanpodeabiasíñotik hortik argitte'ziren. Sirenie jote'abien herridxetan sentietá'abenien, e, jentie erretiretan-da, ahal dan lekuen, baia nun? Hárentzako ez euen zerik, jo ta haustu eitte'abien dana-ta. Buff! Da gero kazak, txikidxe, ametralladoraz lurre jotén bajatzen ziren... Dios! Frentien-ta hárek bajatu! Gu'perriz, e, blindaute euzela-ta billurtute tirtet'ixet'geñun fusillaz.

Ta gero, Malagan prisionero ego'nitzenien, e, kanpodeabiasíñue birriten ein geñun guk, kanpodeabiasíñue eitten, han ikusten geñuzan. *¡Cauen sandiós!* Hónek blindaute euzela, hónek! Sarritten billurraz, e, etzunda parau ta noz tirtetuko'tsu ametralladoraz-ta... Seridxuek ziren hárek! Seridxuek!



Otxandio aldeko frontea

Bilbon, e, zeretik: Lekeittidxoko frentetik abixau'skuen batalloie Bilbora etorteko, Serantesera-edo etorri giñen. Zaratie... Laostia! Ofensibie hasi ete dan zerien, Villarrealen. Halango baten goxaldien llamadie, kornetie, autobusek kuartelera. Sartu giñen kuartelien autobusetan da Gallon, e, Otxandidxorantza:

—Adios! Badxatok oiñ ostidxe!

Allegau giñen Otxandidxora. Otxandidxo bonbardeauta aurreko egunetan, argiri'pez, dana suten. Otxandidxon be asko Oletakuak-eta, ta Otxandidxoko zaharrak-eta kalien, ba, billurtute urtenda kalera, etxien eziñ egonda:

—Nora zuezie-ta?

—Ba, hona zerera: Oletatik Jarindo-edo hamengo mendidxetara, ba, hara.

—Eztakixue asko nora zuezan! Atzo apurtu abazan bazterrak, guztidxe.

—Ofensiba hasi'ok eta... *Cauensandios!*

Oletako kuartelien ein geñuzen ordu bi-edo, Oletako plazan, ordu bi-edo komandantiaz instruziñuek hartzen. Oletakuek-ta formaute, oletarra'pe bai, geugaz han, frentekuek. Ba bueno, bidien, nok dakixen zerera: Jarindora, Pagotxikira-edo, Aramaidxo ganera. Otxandidxarrak, Oletarra'pe, hárek aurretik da gu atzetik *fila indian*, hemen hasitte Idxorretarako filie, batalloia, illarie.

—Ostia! Zer ikusi bi'ot ontxe?

Juen giñen da beste ariñaukuak kamilletan erretireu barik... *Cauenlaputa!* Hárek ikusi geñuzenien, *Dios!* Orduen zarata hasi zan, komandantia hasi zan pistoliaz:

—Bueno, hartu bestietara, Primera konpañia, hona bestera...

Hasi zan latigue euren aldetik. Joten dau kañonazuak azpidxen lelengo txis-tularia zan Uria esate'otsien bat, joten dau ta jota parau ganera... *Ostia!* Zabaldu giñen ahal dan lekuetara, harri guztidxetara, arbol ostietan kristo moduen. Hango tiroteue, hango kañonazue, ostidxe!

Halango baten erretiradie agindu abien Oletara. Oletatik barriro Urkiolamendire, desplegau giñen da hor be eziñ aguantau. Nok aguantau haren armamentuaz ta artilleriaz! Hortik Urkiolaraño.

Urkiolan ein geñuzen egun batzuk ta handik hartu abien Saibi. Saibin egon ziren gero konbate gogorrak. Ohhhhh! Han galdu zan asko, ta ha be denporaz hartu abien, ta gero Bilbora.

Gero barriro batalloien hainbeste baja ta eriduek-eta barriro batalloia organizaute barriro frentera zerera: Lekeittidxora. Orduen be gure abien Francon zerak sartu Trabakutik Oiztik Iruzubietara, ta gu lau batalloi giñen kosten, ta hórrek aurria harrapau ezkerro, hau zarratu ezkerro, gu prisionero jausten giñen han, barruen. Ta hórrek sartu ziren handik Oiztik Trabakure, ta gu Gernika bonbardeau ta

justo-justo astelehen baten bonbardeau, ta martitzenien pasau giñen Gernikatik ta errekan ondiño jentie hildde, ta sue... Ta handixik zerera: Mundakara. Justo-justo librau giñen hiru batalloi harrapau barik kostan prisionero.

Sollubeko sarraskia

Gurekin italianuek ondo portau ziren, e, ze italianuek esate'abien eure'pe obligaute ekarritta egon zirela Españara lutxetan, Francoana etorri zirela Italian obligaurikuek. Ta Santoñan jausi giñenien, hemengo ejerzituen gehidxenak euzen, batalloi guztidzek hantxe prisionero jausi giñen, Santoñan-ta hantxe, ta eurei emote'otziezan arrantxuek, nik neuk enaben harrapau, baña igual prisioneroei emate'otsien eurek. Pena hartute, e!

Italianuei ein geuntsen sarrasiño bat Solluben, ostia!, pena emoteko moduen. Hárek pentsau'ben Sollube galduta euela, iñor eztauela, ta gure batalloie ta sozia-listen batalloi bat egon ziren goidxen, ta formaute etorri ziren hárek, zeretik, ba, Bermeotik, Bermeotik Sollubera kamiño betien, kamiñuen. *Fuego!* agintzen dabe gure aldetik, goidxen, goiko ganien... Ostia, háren ariñeketie barriro beherantza! Hango, hango... Hantxe harrapau gontsen materidxaletan be, gero Bilbon egon ziren eskaparatien han harrapauriko fusillek eta kristo guztidzek. Joder! Hárek sartu ziren gora ta gero goidxen, atzenien, ametralladora txikidzek eta fusilleridxe. Baña gero, ordubete baño ariñau, e, etorri zan bueltie, itxasotik hasi ziren barkuek, Francon barkuek... *Mecauenlaputa!* Hantxe ibilli giñen, jo besuen-da, *rompedorak* botate'abiezan, berrogeta hamar kantinen moduko zerak eskopetak behin goidxen -ta. Dios! Zabaldue eitte'abiezan ta laster harrapau dxuan barrure Sollube dana, ta erre eiñ abien Sollube, bai bonbakiñ, ta bai itxasotik... Joder! Joder!

Txoletak etsai

Lekeittidxoko frentien suerteu zan. Nik itzela ein'notsen baten bateri, ze han gabetan *escuchan* egon biher izate'ban batek. Frentie badau hor mendidxen, jeneraletik mendidxen izaten diez, han barrankuen iñor bez. Ta han, barrenien, egote'zan *escucha* bat gabien, ezer sentietan b'ozu kontrariorik. Ta orduen arranakiñ atake-ta'abien leku askotan, ardidzek diren moduen. Ta klaro! Botata txoletak, ba, zerak, potiek-eta botata trintxeratik aurrera. Ta neu hantxe, ni ta beste bat, *escuchan*, ta:

—Tikilin, takalan!

Klaro! Euridxe izen zan gogor:

—*Cauenlaputa!* Badxatozak ontxe ardidzek arranakiñ!

—Tikin tan, tinkin tan!

—Laostia!

Emoten dotseu parte goikueri, badatozela ariñeketan. Hasten dire goikuen ametralladora txikidxok ta fusillok. Ta gero, esan potiek zirela. Klaro! Euridxe jo-te'abenien gogor, hárek txoletak zatatie etarate'abien, ardidxen arranen moduen.

Ez zarie fidxetan, ademas, gabien han egotie... Gero, ba, sasoi ona-ta, sekula gripe ba'pez, oiñ beti katarrue ta kristue. Bermeon kakatza artien sartute, egon be gabien hantxe, egon biher háixekiñ.

Zallan ortozik ihes eginda

Zallan be erretiradie ein'naban nik kristolakue. Kontu atara! Hanka batian zapatia eta bestian ortozik jueteko bidien ta anaidxe topau justo-justuen orduantxe. Zallan erretiradien kakatza itzela goittibehera sartzan dana, euridxe ta barranko bat, sartu hantxe hankak-eta. Kontu atara! Zapata atarateko astiri'pez atzetik tiroteue ta atara hankie ortozik eta anaidxe kamiñuen, e:

—Zer dabik? Nora hue, ta?

—Ahal dan lekure, aitte-ta zerien dxeuzek, hemen, Karrantzan, ta haraxe -edo.

—Etorri hai neugaz! Etorri hai!

Sartu beragaz ta juen giñen, baia luze eziñ egon batalloitik urrun da barriro jantzi zapata zaharren batzuk eta barriro frentera.

Euskal Herritik kanpoko bizipenak

Reinosaraño juen giñen gu gero, Reinosaraño juen ziren gure konpainien hondarrak e! Batzuk geldittu bidien, beste batzuk eridu, beste batzuk zera... ta Reinosaraño. Kontu atara, aber, noraño juen giñen! Hantxe bai, pentsau naben garbittu biher nabiela santaderinoek eta asturianuek. Asistente ego'nitzen kapi-tanaz atzenien, ba, herri baten sartzan Reinosatik:

—*¡Alto, alto!* —edurre zan, *Picos de European*-da, edurre.

Honakoxe trintxerak, barriz, kamiño beteko trintxera zaharrak eindde. *Cauensandios!* Han be hasi zan ofensibie, zatatie, gabien, egon giñen herridxen, ze ofensibie hasi zan Palenziatik. Bueno, juntau giñen egune zabaltzen hasi orduko, ipiñi geñuzan han trintxera zahar handidxe, sartu trintxeran ta ikusi be ez zan eitten aurrekorik. Hasi zan ofensibie barruen gauzela handik, Palenziatik, ta kapittanak esa'usten:

—*¡Vete...* —bueno, euskalduna zan baña— *¡Vete a los semilleros y diles que levanten inmediatamente, aquí veo yo la cosa fea!*

Dana arbolia horko mendidxetatik, gerrie... harrapetan nabe asturianuek:

—*¡Ande vas!*

—*¡A por munisión!*

—*¿Qué munisión ni ostia? ¿De dónde eres tú?*

—*Yo de Viscaya.*

—*¡Me cauen Dios! ¡Me cauen la ostia! Habéis perdido Bilbao vosotros. ¡Fascistas!*
—hartzen nabe.

—*¡Venga con nosotros!*

Ontxe garbittuko nabe.

—*¡Fascistas!*

Eurek, barriz, aiñeketan, zeozer ikusi orduko tiro bat, aiñeketan.

—*Vosotros habeis perdido Bilbao ¡Fascistas!*

Hartzen nabe hantxe erdidxen. Aibalaostia! Oin nora jo bi'dxuat nik hemen! Eurekiñ kamiñorik kamiño. Harrapeta'abiezan ganauek eta kristo guztidxek erueten abiezan, barriz, euren parajera, Asturiasera edo Santander aldera. Ez ete dxuat nik euskeldunik hemen? Kamiñuen dozena bat lisiau ta kristue-ta, eske, ni bakarrik han. Ez ete dxuat nik hemen euskeldun batalloirik kamiño eskiñan?

Halandabe, ermita txiki baten onduen, hor, eta retiradie eindde Batalloie zera zan, *Batallón Arana Goiri*, ta hona kamiñotik ta erre kara su eindde... háixek euskeldunek. Salbau naben tipue, badiñotsiet:

—*¡Me cauen la puta, ahí está la compañía!*

—*¿A dónde vas?*

—*¡A la compañía, ahí está!*

Eskerrak háixei, atara kontu... Leku onetik apartau nok, ostien garbittuko niaben.

Militatzeko moduak

Orduen be entxufau asko be egon zan ba. Buf! Hemen «Gora Euskadi» asko kálien; ta gero, gerria etorri zani en, e, intendentzidxetan entxufaute asko... *Ca-suendios!* Ta nobera juen erdi billosik iguel da karlistari tabardua pasetan iguel. Komunistak Solluben be neskakiñ. Enbrakiñ etorri fillarmonikiaz ta frentera, *Viva la Virgen* etorri ziren. Hárek harrapeta'abiena, euren a, da neskakiñ. Gogorrenak hemen geu, PNVkuok, bizkaittarrok, sozialista'pe baeuzan batalloi onak, e... Sozialista'pe batalloi onak euezan.

Malatesta-ta atrakuen ibilli ziren... Durangoko komunista batalloi hórrek, *Batallón Malatesta*. Hórrek *Altos Hornos* dinamitaute euki aben botateko, zerekue, Sestaokue. Gure batalloie juen zan guardidxa eitten. Ostantzien, dinamittie sartu ta aidien botaten dabie.

Etxera bueltan okupatua

Aitte eta ama be bai ebakuau ziren, sartzen etorri ziren Francon ejerzituek ta eruen be bai arafixkue ta hiru behi-edo etxetik, ta beste anaidxe nirie txofer juen zan Kirikiñora, *Batallón Kirikiñon* txofer egon zan. Ta aitte eta ama bakarrik ta hartu kamioien ta erue' abiezan, lelengo zera ei abien: Artxandara, ganau ta arafixku ta kristo guztidxe Artxandara.

Gero, hónek harexetara hasi zirenien, handik martxau ein biher. Hartu handik ta juen ziren zerera: Torrelavegara. Kontuek atara! Torrelavegara kamioien, e! Ia zer dan, etxie abandonaute, Torrelavegara, ta gu be frentien, hau be bakarrik, guk ezkeñun etxerik eta ez kristorik, ta etorri zirenien, etxie okupaute, beste batzuk, karlista batzuk... Idxorretakuak, barriz.

Eurek, koittauk, hantxe sute ezkiñan parau ta kanpoko jentie etxien, ta gu hortik ziher gerran, ta tire! Tiretu ein biher aurrera. Gero martxau abien, aitteri kendu otsiezan euki zittun diru hondarrok, eta piñudidxe inkautau otsen Idxorretako baten aittek...

Ahal dan moduen! Hemen itzelak pasau ziren, itzelak! Denporiaz ahaztu eitten dira ta. Kanpaie joka herri bat hartze' abienien, karlista asko egon zan hemen ta... Herri bat hartze' abienien, Franconak zenbat ordu kanpaie joten... Desastre! Soldau suertau zirenak-eta, *por ejemplo* kanpuen, orduan soldau egon ziren, ba, Zaragozan-edo Burgosen-edo... hemengo jentia asko, soldauk handik, batetik eta bestekaldetik, anaidxak igual, bata-bestiai tiroka. Gerra luzie ixen zan, gero! Ez ogirik... Gero, gerraostien ez euen ogirik, kristoi'pe, Aiuntamentuek euken erraziño solizietan, eta Larrakoetxea kabroi horrek e, gu euskeraz ta:

—*¡Aquí hay que hablar en castellano, eh, que estamos con Franco!*

Kriston amenazue aguantau ein biher.

JAZOERA-ESAERAK

**Kristina Mardaras, Begoña Erdoiza, Justo Alberdi
eta enparauak**



lurretako kanpaia, tiroz zulaturik
herria 1937an konkistatu zenetik.

GERTAERAK ETA ESAKUNEAK

Anekdota, grezierazko *anekdoton* hitzetik datorrena, publikatu ez den kontua da. Gertaera ustekabeko, umoretsu edo berezi baten kontaketa laburra, ahoz aho transmititzen dena, baina idatzi gabe geratu dena.

Anekdota esaeragatik gogoratzen da askotan. Hiztegi hurrenkeran bildu ditugu Iurreta aldeko halako anekdota-esakune batzuk.



Harripausuetako 1895 inguruko argazkia, koloreztatuta.

AGINDUAGAZ KONFORME

—Aginddu'oste zu ta eztoste zu emon... —erreklametan joaten giñen gu umetan aittegana, zeozer prometidu eta bete ez abenien.

Eta gure aittek hau esat'oskun:

—Aginddue bat ta emona bi: agindduegaz konforme bixi hadi!

Horixe esate'aben gure aitte Sabiñek.

(KRISTINA MARDARAS)

AMA PUTAREN SEMEAK

1960ko maiatzaren 30ean, injustizia frankistaren aurkako protesta agiri bat sinatu zuten 333 apaiz euskaldunek.

Egun haietan Mungian bisitan ibili zen eta, haiei buruz galdetu ziotenean, Javier Lauzurica apezpikuak Idxurretako euskeraz erantzun omen zuen:

—Ama putien semiek.

(ANDER LANDABURU)

👉 163

AMESETAN

Gure Anjelek kontetan dau, ba, berak amesetan eitte'abela gabetan, ames txarrak, eta amamak es'otsela:

—Bueno, ba, Sanmamesera juen bi'u, eta han santue hartu lepuen, eta ermittieri bueltak emon errezetan.¹

Ei'abiela horixe eta egundo gehidxau ez abela berak amesetan ein.

Anjelek kontetan dau hori, nire nebiek. Eta ointxe dau ingresaute gure Anjel, eta politte ixengo leittike berak kontetie. Beratzi terdidxek die, berandu ixengo da oraintxe deitzeko ospitalera?

(NATALIA URIBELARREA, Garaizar)

1. Amets txarrak eta lo egin ezina kentzeko eskatzen joaten zen jendea Garaizarko San Mames ermitara. Errezitatu bat ere bada horretaz:

San Mames,
bart ein dot ames.
Ona bada bidxon partez,
txarra bada aldrebes.

ANDRA BAT ETXEAN

Ezkontzeko giñela, hirurogeita hamaikan, gitxi falta bodarako, ta ni Kristinari laguntzen bere etxien. Kristina amagaz eta amamagaz bixi zan bertan.

—Laster ezkondu ein bi'u ta zera... –amamagaz ni berbetan.

Eta badiñoste:

—Nora?

—Iguel, hona –nik fresko-fresko–, iguel hona bertora, hemen ondo...

Da amamak:

—Andra bat etxien, gitxi; bi, nahikue ez; da hiru, larregi!

Argi geldittu zan horregaz han ez euela gehidxagontzako lekurik!

(JUSTO ALBERDI)

ARTABURUA BE IGUAL

Egun baten etorri zien diputau bi Bilbotik bisittie eittera, eta bakotxari ein oskuen pregunta bat. Da niri esa'eusten aber dakian zer dan plomadie.

Da nire aitte zelan albañille zan, nik ikuste'naben da, esa'neutsen plomadie dala kordel bat puntan latoezko pisu bategaz.

Ta geratu nitzen sustaute diputauek kontestau eustenien:

—Artaburue be iguel.

(BEGOÑA ERDOIZA, Matxiñena baserria)

AZUKREA BOTA DIOZUE?



Akordetan naz, gu umiek giñen da, aittitte biherretik askotan solora jueten zan atxurre hartute, zeozer kopuren bat jan da solora patata-jorran edo arto-jorran edo dana dalakuen. Da ekittaldi bat egitte'otsenien gustetan jakon ur freskuen trague eittie, da han inguruen gu olgetan da, deittu eitt'oskun:

—Nok ekarriko'ste nire ure tragotxu bat?

Eta gu desietan aittitteri ure erueteko. Hartzen gañun pitxerra, zeramikazko pitxerra, da itturrire jueten giñen. Da itturridxe euen etxostien, bertan-bertan urtet'aben lurretik urek, ikusi eitten giñun ure irekitten dauen moduen urtetan, da gero depositotxo bat eindda euen eta itturridxe. Betetan giñun pitxerra da erueten geuntsen bixkor-bixkor aittitteri solora.

Emon pitxer hori eskure, da aittitteri begire gelditzen giñen arpegire. Hartze'aben esku bidxekaz pitxerra da altzau gora da trago luzie edate'aben plon-plon-plon-plon. Ta *rrra* kendu, bajatze'aben eskuetatik pitxerra ta guri begire gelditzen zan,

batari ta bestieri arpegire begire. Ta gu desietan jakittekko zer esango aben, jakitten gañun, beti esate'aben bardiñe, baie gu desietan entzuteko.

Badiño:

—Azukerie bota'otsezue?

Guk:

—Ez, aittitte, azukerarik ez.

—Ba, gozuau badau... Gozuau... Azukerie bota'otsezue barriro be!

Da gu aittitteri ure ekarteko desietan. Aittittek esate'abenien ur freskue erango leukela, ariñeketan jueten giñen, zeñek ariñau pitxerra hartuko. Gero jakitten gañun beti esango'skule gauza bardiñe, ez eskerrik asko ez holakorik, beti azukeraren hori.

(JUSTO ALBERDI)

BATZEN

Biherretik bueltan-edo, aittitte etxe aurrien bankutxu baten jarritte euen, apur bat deskantsuen. Da zera ta Larrako fraillie datorrela, mando haundidxegaz.

Hárek baserririk baserri ibiltten zien jenerue batzen komenturako.

—Zer jaune? —aittittek fraillieri.

—Hemen nator, baba batzen...

—Ba, segi, segi aurrerau... ze guriak batute dauz.

(KRISTINA MARDARAS)

BELA EGON ZEN LEKUA

Kontetan dabie han gose denporatan, egon zala mutilzahar bat baserri baten, bela baltza ikusi ei aben geratute solo baztarrien. Eta hartu ogidxe eta aiñiketan juen zan. Bidxen bittartien beliek eskapo ei aben.

Eta gero, hartu ogidxe eta belie egon zan lekuen busti eta esate'aben:

—Hemintxe egon zuan, hemintxe egon zuan!

Eta ogidxe jan. Busti barriro eta ogidxe jan.

Gero, honen harire, esaera bat geratu zan hor inguruen, sarten hondarrak batzerakuen esaten dana:

—Han belie egon zan lekuen beste egongo'k hemen be!

(JOSE DOMINGO AGIRREZABAL, Arriandi)

Sebastian Munitxaren lelenko ekipue *Beti galdu* ixen zan, ni hantxe geratu nintzen. Sebastianek irabazi be eitte'aben eta *Mallabienako* ixerra ixen zan. Gero *Culturalien* jokatu aben, eta profesional, primerara igonda, *Zaragozan*. Behin, *Zaragozan* ebillela, iñori abixau barik, eskapau ein zan. Zaragozatik bariku gabien eskapau eta, eztakitt ze tren edo ze autobus hartuko aben, Idxorretara domeka goixien heldu zan. *Mallabienak* partido inportantie euken arratsaldien eta, bera ezin jokatu barik geratu. Orduen be ixengo zien fitxak eta kontratuek, baina hauxe zan bere benetako ekipue. Zaragozara, biherrerara lez, astelehenien bueltau zan.

(JOSE UNZUETA)

BEREZ HIL ARTEKO GIZONA

Baten juen nintzen erromeridxatik etxera, da segidu'usten atzetik mutil batek, da deittu'usten:

—Zu, neskatil, itxaizu pixka'ten! Nigaz bentaja handidxe dekozuz te.

—Ze bentaja?

—Zeuk gur'ozun arteko nobidxe, da berez hill arteko gizona.

(JOSEPA IZARZUGAZA, Oromiñoko *Suetza* baserria)

BERORREN MODUKOA

Gu gaztieki giñela, Durangon egon zan mediku bat, da izena euken Pauliño. Eta zaldidxegaz jueten zan baserridxetako geixuek bisitetan. Eta egun baten junteu zan kalien nire gizonen amamaz, hau asto ganien, da esa'utsen:

—Hola, Josepa, bazatoz plazatik dirue guraiñe hartute?

Da amamak esa'utsen:

—Bai, jaune.

Eta medikuek:

—Da astue dekozu ederra!

Eta amamak:

—Bai, da izena deko berorren modukue, Pauliño!

(BEGOÑA ERDOIZA)

BERTAN BILBO

Nunbaittera juen eta, urte guztidxen ikusi barik eta, derrepentien, igual Oizen alkartu baten bategaz, eta, halako egoeran esaten da:

—Bertan Bilbo!

Halan, ikustekue ezustien, espero ez dan lekuen topau danien esaten da. Luzetu be eitten da batzuetan esaerie:

—Bertan Bilbo, Atxuri baño lehenau!

(JUSTO ALBERDI)

DENBORA EGITEN

Illuntze baten, kapatazak pikien tirrin-tarrana entzute' aben han goidxen. Orduetan kobret'abien, baña estrañeu'tson hainbeste denporan biher eitten egotie.

Igo'aben gora eta han topau aben hargiñe, biherrik ein barik, jesarritte, pikiaz harridxe jotene, zaratie ataraten, gaba eiñ arte denporie eitten.

(ZIPRI MENDIOLAGARAI, Gallandan hargina)

DOKUMENTAZIOAK KENDU

Txarroan bizi zan gizon bat euki abena izena Jose Txirri, ezizena Txirri. Da horrék euki aben txakur emie, kaza-txakurre. Da txakur emiori ozalduten jakonien, ba, etorten jakozan hango inguruetakoko txakurrek etxera.

Da ozaldu jakon txakurre, eta etorri zen Maumeko txakur bat. Eta berak ez ekidxen eskribietan, da bere lobai esan eutsien:

—Hartu lapixe da papela, da etorri geurera.

—Oñ ein bi'ozue hemen eskribidu. Ipini bi'tseu kartel bat etxera eruen deidxen errekaue, barriro etorten bada zer pasauko jakon.

Da lobok esa'utsien:

—Bueno, tio, zer eskribiduko'tseu ba?

—Eskribidu neuk esate'utsuetana, zuek ipini: «Txakur emiagana juen naz da txakur emiagandik nator, barriro jueten banaz kapaute ei nator».

Sartu'tsien txolepote baten, piper txolepotien. Lotu'tsien buztenien. Txakurre juen zan Maumera, bere etxera. Baña, klaro, paseu zan denporie, eta atzera be txakurremie ein zan ozaldu, da klaro, a txakurre etorri zan atzera.

Horrék, Jose Txirrik, ikusi abenien txakurrori han, esa'ben:

—Joño, madariketue etorri da, hemen dau! Ia umiek, ekarri atxurre, ensegida arregleu'ku-te.

Arrapau abien txakurrori, da lehenau zestuek eitteko usetan zan podazie hartu abien, txakurrorri kendu'tsiezan dokumentaziñuok, eta agur.

(MILAGROS LAUZIRIKA, Oromiñoko Txarroa baserria)

ERDIAK DIRUTAN

Gure aittitte-ta biherrera jueten zienien, oiñez jueten zien, ta ointxe be haren pausue, orpuek lurrien eiñiko ha zaratie, ha erritmue, ointxe be belarridxetan dekot. Jueten zien, ta bidien-bidien juntetan-juntetan jueten zien, bidera urtetan gizonak, eta azkenerako Mendizabalenera heldu orduko ba tropeltxue. Ta bueltan be, antzera.

Antza, aittittek urte'aben baten Mendizabalenetik biherretik etxera jueteko, Larrako frailleren bat juntau dxakon. Karteran pisu astune ekarri ei aben da bidien esan ei otsen fraille horrek:

—Moises, hauxe erueten lagunduk'ostezu apur baten?

—Jaune, kantsaute nau ni ba oin, biherretik ointxe urtenda.

—Apurtxu baten, neu'pe deskantsetako biderdidxen.

Aittittek hartu karteriori ta, bidxek batera takarra-takarra Arriandi artiño etorri die. Arriandin fraillie aurrerantza, Zorrontzarantza, ta aittittek Oromiñora hartu biher kurutzie. Banatzeko ziela, esan ei otsen frailliek aittitteri:

—Bueno, eskerrik asko, ta Jangoikuek pagauko'tsu bi mille induljenzidxagaz!

Ta aittittek:

—Jaune, ezin leike ixen erdidxek diruten?

(KRISTINA MARDARAS)

ESKERRAK ADARRARI!

Papelera aldera hor egon zan trenbidien onduen etxe bat. Ta handik etxetik beherantza, urek altu etorri-edo, uridxolak zirela, erreka baztarrien doiezela laprast eindde, gizona uretara jausi ta han hasi zan andrie aiene ta aieneka.

Gixon hori ba, errekan, urek eruen bi'aben andapararantza, ta alboko, eztakitt dauzen platano-arbolak edo haretxak, eztakitt zer dauen, gerdamieri ebatu ta salbau.

Urte'abenien kanpora, andriek esan ei otsen:

—Eskerrak Jangoikueri!

Ta gizonak:

—Eskerrak Jangoikueri? Ikusitte dau haren borondatie! Eskerrak gerdamieri!

(KRISTINA MARDARAS)

ESNELEA

Pernando juen zan feridxara baten, da behidxe erosi aben. Da behidxe edarra zan, baia ostikalaridxe.

Ezan konforme, ta esa'eutsen auzokuek:

—Pernando, behidxe erosi dozu?

—Bai.

—Zelakue da behidxe? Ona?

—Bai.

—Esnelie da behidxe?

—Bai, esnelie da, *de mala letxe*.

(KOSME BARRUTIA)

ETXEA EZ DA BARKUA

Koadrillako lagunari, etxera alde eitten badau, esaten dxako: «Etxie ezta barkue». Batek esan badau: «Banoie!». Geldittuko dienei ariñei erizten badxakie, badoiela, esaten da:

—Hi, nora hue ba? Etxie eztok barkue!

«Prisie dekok ala?» esatie lez. Barkuek, trenak edo autobusek bai. Etxiek etxok alde ingo. Han egongo'k geroago be. Etxie ez dok barkue.

(JUSTO ALBERDI)

EZKERREKOEN FALTA

36ko gerraostien zan, etxeko moduen auzuen be ezбайдxen bat sortu zan Goidxuridxen be. Eta arkali berbie emon eziñik, arpei illunek, urrumadaren batzu'pe entzun ete zien iñoz...

Itturizko Leandro gizon jasa ta sosegauek halango baten:

—Goidxuridxen danak eskumak. Buzterridxen lotzeko be eskumatik eta ezkerretik biher ixeten die. Goidxuridxen ezkerrekuen faltie!

(ANTTONMARI ALDEKOA-OTALORA)

GEZURRA, ETA ESKERRAK

Nire amak konteta'aben, txikidxe nintzela, oñez ikesten, edo ikesitte, edo ikesi barri, urtebetegaz-edo, etxera bidien eskapau notsela, eta erre kara jausi nintzela.

Eta juen zala bera harrapetan, uretara, eta ezin harrapau, eta ezin harrapau. Uridxolie izango zan, ezta?, eta ezin harrapau. Hortxe, oiñ bidegorridxe dagoen

baztarretik, ni errekan behera. Ama be uretara sartuta, ebatze' ostela ule puntetik, eta atzera be eskapau, eta berak ezin harrapau, eta holan, ni urek eruenda eta bera uger nire atzetik.

Eta zelako esturie paseu aben nire amak. Gero, derrepentien, ixartu da eta dana zala guzurre! Eta, eskerrak!

Ile puntetik ebatu eta ezin harrapatu uridxolan behera, ezin harrapau. Guzurre zan eta, ixartu zanien, eskerrak!

(NATALIA URIBELARREA)

GORRA ZEUKAN ETA

Umetan, komuniñue eindde, konfesetan jueten giñen gu. Illaran ipintten giñen, billurraz, ze pekatu konfesau pentsetan...

Abade bi eguezan orduen: Don Kanuto zaharra, gixajue, eta Don Francisco, gaztie, modernue... Danak jueten giñen Don Kanutogana. Gorra euken da, haren illaran ipintten giñen:

—Aitaguria bat esaixu... —esate'oskun.

Aitaguria bat edo abemaria bat. Eta kitto. Gorra euken da.

(NATALIA URIBELARREA)

HARRITXO BAT GAINEAN

Etxepeko soluen ebillen Maño burdiñarakaz nabue erein ta nahastetan. Solue siku antzien be baeuen eta gure amak, ba, harritxo bat ipintteko ganien. Zue'pe badakixue zelan ipintten zan harri bat edo bi solue hobeto gidxetako. Ba, Maño morroiek, etxekandrieri ziridxe sartzeko edo, burdiñara ganera barik, bere lepo ganera altzau eban harridxe. Ai, gure ama!

—Maño! Botaixu harri denganiñu hori derrepentien. Miñen bat eitteko be!

—Zeuk esa'ostazu ba, andretxue, harri bat jarteko ganean.

(KANDI ZAMALLOA)

HARTUAK MALETAN

Idxorretako sakristauaren andrie, Miren Bikandi, errotaridxen alabie, egon zan bedel moduen Maiztegiko eskoletan urte askuen, jubilau arte. Eurek bertan bizi ziren, eskoletan bertan, ni hantxe lanien, ta sarriten eskatu biher mesediek berari...

Halako baten eskatu notsen ume batentzat manzanilla apurtxu bat eitte'osten, ta etxera juen zan manzanillie eitten. Etorri zan, ekarri osten, nik enekidxen zelan pagau ta esan notsen:

—Eskerrik asko, Miren, nik eztakitt zer eingo neuken zu lako bat onduen eukin ezik...

Umiorrek hartu aben manzanillie, ta trankildu zan pixka bat. Kalien hurrengo topau nabenien, barriro esan notsen:

—Eskerrik asko, Miren...

Eskerrikasko larreitxo-edo esan notsen, antza, da esa'osten:

—Bai, itxizu! Berbak onak eta artuek² maletan!

(KRISTINA MARDARAS)

HAUNDIA IZANEZ GERO

Beste baten be, hor Garizuma denporan, holan misin'uek edo txarla berezidzek egoten zien, eta fraillie pulpittotik berbetan.

Pello pulpitto azpidxen, eta fraillie holan, betikotasunaren gora-beheran, eta ipini'aben ejenplu modure, ba, Anbotoko hatxa zenbat zestokadatan eruengo litzeke Oizera.

Da holan esa'otsen:

—Da zuek zenbat zestokadatan eruengo zeunkie Anbotoko hatxa Oiz aldera? Zenbat zestokadatan? Kalkulu bat eixue zenbat zestokada bi'dien. Zenbat zestokadatan eruengo zeunkie?

Eta Pellok, holan, gorputze pulpitto azpittik etarata esa'utsen:

—Haundidxe ixen ezkerro, baten!

(JOSE DOMINGO AGIRREZABAL)

JOATEKO ORDUA

Beste baten, pregunteu'tson hargi'nek kapatazari:

—Bidxer ez gara etorri biher ala?

—Bai, zer ba?

—Juen ein biherko dogu bidxer etorteko...

(ZIPRI MENDIOLAGARAI)

2. Esanahi bikoitza: artoak/hartuak.

KONPARATU GURAKO DUZU!

Amamaz beste bat euki naben, esan notsenien:

—Amama, uztailen hogetamarrien ezkondu eitten gara...

—Bai?

—Bai, ta orduen inbittaute zauz. Mezie ein'gu lelengo, ta gero, ba, bezkaid-
xe...

—Ba, hórrek bixerrok ezpozuz kentzen ni enaz juengo.

Bixerra neuken nahiko hazitte ta.

—Hórrek bixerrok ezpozuz kentzen ni enue, ni enue mezara.

Ta badiñotset:

—Amama, mezara ezpazuez bezkarire bez e!

—Zelan ezetz! Bezkarire bai!

—Ba, ez. Batera ezpazuez, bestera bez. Inbitaziñue danera da.

—Hórrekaz bixerrokaz ezkondu? Elizara hórrekaz bixerrokaz?

Badiñotset:

—Han kurutzien dauen Jesukristok eztekoz ba bixerrak?

Ta badiñoste berak:

—Konparau gureko'zu Jesukristo zugaz!

(JUSTO ALBERDI)

 310

KOKOAK

Abadetxu batek pregunta'eutsen andratxu bati:

—Da zu nungue zara ba?

—Ni Arratiekoa.

—E, Arratiean kokoak be bazirean!

—Bai, bazirean eta bi zirean... eta biek fraile ta monja sartu zirean.

(JOSEPA IZARZUGAZA)

LAURENA, LAURDENA ETA DAGOENA

Etxien gauzela, nik esa'neutsen andrieri:

—Dios! Dekodan gosiaz jango neuke ba lauena, bañe konforme baitte jaten
b'ot laurena.

Eta berak:

—Zuk jango dozu dauena!

(JUSTO ALBERDI)

LEGEA ETA TALOAK

Frankismo amaieran zan, 1972ko udarantza. Garaizarrera bidean ninddoian ume jaiobarria hartuta. Leandro Jaio ardi zain, ardiak hesian baina bera bide bazterrean, artzain makila okozpean, nor etorriko hizkilimiñari eraitteko.

Egunon alkarri, eta bertan ekin geuntsen hari eta honi eta besteari tiraka, artean politikari buruz. Legeak aipatu nik be...

Bota eustan:

—Kristiñaaaa, legiek eta taluek, eitten dien modukuek!

(KRISTINA MARDARAS)

MORROIA

Berrodxaneko baserridxen, Idxorretan, aitte, Markos, kanpuen ebillen biherrien, obra haundidxetan. Egotaldi luziek eitte' abezan hortik ziher. *Maestro de obras*, kapataz edo antzerako zeozer zan, ta Bilbo inguru horretan, Negurin, baiña baitte Extremadura aldien ebillen... Kontue da etxera etorren bakotxien ume bat, eta oster... mutil bat, bera seminariora, eta sei neska, danak erreskadan.

Baserridxen laguntzeko indderra be bi'zan eta morroien bat eukitten gendun. Gure osaba Domeka Dimen parroku euen eta handik bialdu aben Mariano ixeneko bat, gero hemendik Goidxuriko Lukure ezkonduko zana, Lukuko Maño. Maño, ba, mutil gaztie be bai, ta hainbeste neska artien... Bihergiñe bai, hori bai, baiñe ekarridxe... Ixildu bez! Barriketie ta, filarmonikie jote'aben dotore, dotore jo be.

Osaba Domeka etorri zan baten gure ama Erramonari, bere arrebieri, ea Maño zelan ebillen, nagidxe ta arpela zan ala bizkorra, goixetan kortarako jagitten zan ala ez... Mañok entzun! Bidxamonien, osabie olluekin batera jagitten zan bixerra ta bere garbittasunek eitteko, egunsentidxen, gu danok baño goixau. Ba horretan, ezkatz baztarrien bere zeregiñetan ebillela, ondiño danok lo gengozelakuen... *fiiuuu, fiiiiuuuu* txistu diarrak korta baztarretik eta lasterrera galdalla bete esne erroberuaz Maño ezkatzien:

—Egunon dekola beorrek, Jaune, armozetako be berorrek bi'ko dau te hemen dakatsot behi naparraren esnebets erroberue. On egin beio!

Mutil eta morroi zolidxe zala erakutsi gure ixé'otsan Mañok gure osaba abadieri.

(KANDI ZAMALLOA)

OHE GUTXI ALA ANDRA ASKO

Goixaldien, eztaitt goixeko seirek edo zer ixengo zan, da Justo jagi ta komunera juen zan. Komunetik bueltan datorrenerako, antza, neu ohien mobidu-edo, bere partie okupau edo eztaï'pa zer ingo notsen...

Hainbaten bai, buelta emonda bere partie okupauko nabena... Etorri zan ondora ta badiñoste:

—Zer dau hemen... Ohe gitxi ala andra asko?

(KRISTINA MARDARAS)

OILOSALDA HORRI

Andrei-eta, erditzen zienien, umie eindakuen ollosaldie emoten jakien onera eitteko, ta ollue gixonantzat.

Sasoiko neska bat ernari dauela, edo abortau ein dauela, ta, lotsagarrixe izaten zan auzuen, eta, neskatilla horrek alborengue edo pulmonidxie eukola esaten zan.

Domeketan Idxorretan goixeko sei'terdidxetan ixete' zan lelengo mezie. Base-rritar gixonezkuek batez be, ze domeka goixetan ganajatekuek eitten zien gero. Baserritarrak edo kazaridxe gehidxen bat. Ta han eleizpien, illun da hotzetan, umie galdu aben neskien aitteri errukiz eta zizpuruz jentiek...

—Ta alabie zelan ba?

—Hantxe ba, pulmonidxie be bai tte, eztagu ba zer ixengo dan...

Hatan honetan, Maño, Goidxuriko Lukure ezkonduete euen Mañok, hango negar planta hutsek entzu' abezenien, bere arratjar berbete doiñuen:

—Emoiozue ollosaldea horri, ollosaldea!

Eta kanpaiek barrurekue jo aben.

(ANTONIO ALDEKOA-OTALORA)

ORDUA

Iurretara joan nintzen bizitzera. Banekien alde aurretik nolakoak ziren: bertako Urruxar bertso eskolan ibilia nintzen, neskalaguna ere iurretarra, lagunak... Eta banekien zelako puntualak diren, beti.

Orduan, *Herri Urratsera* joateko autobusa antolatu zen herrian. Goizeko 8retan geratu ginen elizostean, autobusez Senperera joateko. Urduri eta presaka bertaratu nintzen, berandu heltzeko nire berezko joerari kontra eginez.

Autobusera heldu eta kanpoan ez zen inor, zelako arraroa. Erlojura begiratu nuen: 7:56 am. Bat-batean autobus barrutik zaratak. Begira eta denak barruan daudela ikusi nuen. Sartu egin nintzen, eta sekulako bronka bota zidaten:

—Oin be berandu hator!

—Ganorabakue!

—Heuk be durangarra izen bi'ok!

Ezin sinetsirik erakusten nien ordua: 7:57.

—Baina... zortziretan geratu ez gara, ba? —nik.

—Egon hadi isilik eta jarri hadi! —agindu zidaten.

Txoferrari irteteko agindu zioten. Senperera bidean irten ginen, zortzietarako hiru minutu falta zirela.

Eta uste dut gertaera honek argi isladatzen duela iurretarren izakera orduekiko.

(PERU MAGDALENA)

PRESENTEAN

Etzanon bizi zien, baña andrie, hartu umie eta, eskapau egin zan etxera, Garaizarrera. Senarrak umie kendu, baña gero umiek negar da negar, ezin ixildu, eta umie Garaizarrera ekarri aben atzera. Luzaruen egon zien apartaute, baña gero abadiak pekatuen dauzela eta juntau ein bi'ziela, eta juntau zien. Eta Garaizarrera etorri zan senarra.

Martxeliñak, gure amamari errekauek agintzen etorten zan, ze gure ama Durangora bajetan zan, eta beti esate aben:

—Ai, Ísabel. Presentien, gure gixonari ezin leidxo aguantau!

Gu, umiek giñen da, amamari preguntez, zer esan gur'aben Martxeliñak berba horregaz: presentien.

Eta amamak, ba, senarra ez zala ondo portetan beragaz. Senarra ona zan. Gu errentadoriek giñen da ondo portetan zan gugaz, danakaz zan ona. Andrientzat bakarrik euken amorrue gixon horrek. Bere andrieri ez otson separau gure ixetie parkatzen.

Eta Martxeliña erdi negarrez etorten zan beti gure amamagana:

—Ai, Ísabel. Gure gixonari presentien ezin leidxo aguantau!

Presentien. Beti zan presentien.

(NATALIA URIBELARREA)

SASOIAN, SASOIKOA

Gu umiek ez, baña gaztetxuek ondiño, eta Gabonzahar batzuetan gaztañerriek eta intxaursaltzie afaldute juen giñen ohera. Neguen-da, bost anaidxok ohe baten sartzen giñen, hiru goittik eta bi behetik, han ez euen hotzik eta bestien bihetzak mizketarik. Halango baten *DAMMMnnnn*, *DAMMnnnn*, *dann*, *dann*, *dandandandandan*, *DAMMM*, *dan-dan-dan*, *dandandandandan*, *dan-dan-dan* *DAMMMnn*...

Su-kanpaiek? Gure aittek eskuta suziri bat ixotute etxieri hiru-lau ostera emo'otsezan aittiarentasemiaren ein orduko, surik nun edo...

Sasoiko mutillek, barriz, Goikolako andapara ganien, handik gabez dana barruntetan da, ba... mutillek andapara ganien barrezka:

—Hi, beittik *Toledotxu*, etxieri hirugarren bueltie emoten ta surik etxok ikusten... ja, ja, ja, kar, kar...

Gabonzahar egune, ta sasoiko gaztiei otu dxakien ba ze alta zan asteme bat ta astar bat hartu ta asto bidxok lotzie goiko kanpai nausittik daridxola euen sokieri, aurretik astemie ta atzetik astarra bai-harrapauko ez-harrapauko.

Hango arrantzie, hango kanpaihotsa, *Toledotxun* ariñeketie... Andapara-ganeko freskurie ta barriketie ta barrie...

Sasoien, sasoikue.

(ANTONIO ALDEKOA-OTALORA)

SUSTUAZ NEGARREZ

Pedro Gastañatzagoiskue, hau be Berroidxanien egon zan kridxau, ta hortik ezkondu Gastañatzara. Ba, behin Berroidxeneko etartien barriketan gengozela han nun datozen ijittana batzuk euron umiekaz. Ijittana batek amantal zabal-zabala eta sabel haundidxe, hako ume eitteko itxuran edo.

Ni umie nintzen ondiño. Pedrok badiñoste ba ze:

—Zoiez astiro-astiro ta eskutxuaz ikutuiozu amantalpien ia umetxue bizirik daukon.

Esaneikue bete ta *kokokooooo*, *kokokokooooo*... Hiru-lau ollanda amantalpetik, ijittanie ta umie uluke ariñeketan... Ni sustuaz negarrez, Pedro barrez algaraka.

(JOSEBE ZAMALLOA,

Txilen bizi da 104 urterekin)

ZAHARRAK GEU ORAIN

Gaur, Tiliño topatu dot kalien eta, jazoera-esaerok batzen gabizela-ta, galdetu 'otset ea kontalaririk ezetzen dauen, halako zaharren bat edo. Hasi dxate esaten Gaztañatzako ezta kitt ze baserriko atso bat kontalari ona zala, Oromiñoako agure batek historia zahar asko ekizela, bertan Montoien be bizi zala ezta kitt nor beti zeresanen bat eukena...

—Baña hórrek hil ein dozak danak! Bizirik dauen zaharrik eztok ezetzen ala?

Tiliño begire-begire geratu dxate, esateko:

—Zaharrak geu orain!

(JOSEBA SARRIONANDIA)

ZER DIRUMODU?

Mutil batek gure ixé'aben nobidxa aberatsa topeu, da pentsau aben, ba, honixeri lagundu bi'tset, aber ze dirumodu...

Da juen zanien laguntzen preguntau'tsen:

—Zuenien ze dirumodu?

Ze dotemodu. Zenbat diru emoteko kontue eukien jakin gure aben.

Da neskiek esa'otsen:

—A! Dirue bi'ozu? Banko Bizkaian dekozu. Neskatille ederra biher b'ozu, hementxe dekozu.

(JOSEPA IZARZUGAZA)

ZER MUS!

Pello, muslaridxen artien fama haundikue zan. Musien euki aben afiziño itzela. Itzela baña! Bueno, hortik aparte mezako eta relijiño asuntuko gauza'pe, ardurie eukitten'eben... Domeka guztidxetan jueten zan mezatara, domeka danetan. Da lantzien behin musien ariñeuko egunien, zapatuetan, zelan luzero ibiltten zan, lo kukue'pe ederrak eitte'abezan mezatan.

Baeuen domeka baten holantxik erdi lotan, abadie meza nagusidxen, eta abadiék diño:

—Oremuuus...

Eta Pellok orduntxe erdi izarrik edo:

—Zer mus! Bidxek enbido, eta parie'pai!

(JOSE DOMINGO AGIRREZABAL)

ZEUREAK BALIRA NEUK ERE BAI

Aittek kontau'osten hau. Olabarri dau Oromiñon, eta Olabarri aurrien zortzi lagunek kartetan eitte'abien asteburuetan. Da iguel etorten zien San Markoko osaba-izekuek, edo Oromiñourtiko beste bikote bat, edo Erdikoerrotako, edo Txosnako Maritxun ama... Juntetan zien zortzi lagun, ta euren inguruen umiek, inguruetako etxietako umiek olgetan, ta bakizu umien olgetie... Molestau, batien amaman ondora, bestien eztakit zer...

Briskan dabizela, antza, Oromiñourtiko andriek badiñotso Etxebarrikeri:

—Hórrek umiok neuriek balie, honezkero kokoteko bat emonda konponduko naben!

Ta Urrufiñak badiñotso apal-apal:

—Bai, zeuriek balie neu'pe bai! Baña neuriek die ta!

(KRISTINA MARDARAS)

ZUBIEKIN HARRIPAUSUAK AHAZTU

Umetan uger eitten haraxe joaten giñen, Matidxeneko fabriketako ur zikiñekin han bañatzea eziñezkoa ein zan arte, eta esan doste Durengoko lagun batek:

—*¡Vamos a Ripu!*

—*Ripu?*

—*Sí, a Reposueta.*

—*Reposueta?*

—*A Arriposuetas, pues.*

Euskarazko ixenak zelan desitxuretan dien erderaz. Zubirik ezien, harri handi batzuk ipintten zien illaran ibaidxen alde batetik bestera pasetako... Harri pausak, Harriposueta.

Zubidxekin, harriposuek ahaztu. Berbak inportantiek die, eta ixena'pe bai.

(MARIA LOPEZ)

JOSE ALBERDI, *TXO*

Gure bertso giroa



Jose Alberdi 1959ko bertso txapelketan Bilboko Arenalean.

JOSE TXO ALBERDI (1922-2014)

Jose Agustín Alberdi Astarloa Iurretako Ertzillurruti baserrian jaio zen 1922ko abuztuaren 2an. Lehen ikasketak Iurretako eskolan egin eta Mendizabalenean hasi zen lanean. 1948an ezkondu eta hiru seme-alaba izango zituen.

18 urterekin taberna bazterrean moldatzen zituen bertsoak. Lehenengo plaza Eibarren egin zuen gerraostean zehaztu ezin dugun urtean, San Jose egunez: Felix Bikandi eta biak joan ziren Iurretatik txapelketa hartara, gai jartzaile Basarri eta Uztapide zeudela, eta txapela Joxe Lizasok irabazi zuen. Inazio Eizmendi *Basarrirekin* abestu zuen Iurretan bertan birritan, 1948an eta 1951n.

Zazpi bider parte hartu zuen Txo Alberdik Bizkaiko Bertsolari Txapelketan: 1958an finalista izan zen, Balentin Enbeitak irabazi zuen. 1959an ere, Durangaldeko txapela irabazita Urkiolan, finalista izan zen, eta Balentin Enbeitak irabazi zuen berrirori. 1960an Juan Mugartegi eta 1961ean Jon Azpillaga gailendu ziren. 1962an, 1963an, 1964an eta 1966an Jon Lopategi izan zen garailea.

«Tailerrean makinaren kontrari paratu eta, makina automatikoa zenez, hamaika bider egiten neban, aurreko egunen batean hain lekutan egon eta gero, bertsoa neuk bota eta neuk erantzun. Batzuetan lagunak etorri eta ondoan paretan jatezan, entzuten.»¹

Berrogeita bat urtez tuerkagintzan behar eginda, fabrika krisian sartu ondoren Kuru-tziaga Ikastolan hasi zen zaintzale lanean harik eta jubilatuko arte. Han, Txo barik, «Ulezuri» deitzen zioten umeek.² Iurretan eta Mañarian bizi ondoren, Durangora egokitu zen azkenean. Idatzitako bertsoak ere paratu zituen urteotan.³

1990eko Bertsolari Egunean, garai zailetan Bizkaian bertsolaritzari bizirik eusten egin-dakoagatik omendu zuten Donostiako Victoria Eugenia, Basilio Pujanarekin batera.

Jose Alberdi, 92 urterekin hil zen 2014ko abenduaren 15ean.⁴

«Hainbat denbora eraman dogu / jada mundu zabalean,
zenbat biderrez jausi ta altxa / eñ ete dogu bidean.
makinatxo bat kolpe hartu ta / erantzun ahal den bestean,
baña berdina ez da izaten / gizona zahartzen denean:
orain gazteek eutsiko al deutse / oraindik aurrerantzean...»

Jose Alberdiren hurrengo testua, hizlaur, autobiografikoa da.

1. Igor Elortza, «Isilik zeuden, baina ez mutu: 1950-1960ko bertsolari txapelketak Durangaldean», *Astola*, 4.

2. Unai Iturriaga, «Ikastolarekin eta bertsoarekin lotutako oroitzapen bat kontatu», *Ikastola*, 179 (2010 urtarrila), 10 or.

3. Adibidez: Jose Alberdi, «Euskarak alkartuko al gaitu?», *Ibaizabal*, 1982.

4. *Bertsolari eguna 1990: Jose Alberdi eta Basilio Pujanaren omenaldia*, Bertsosazale Elkarte / Bizkaia Foru Aldundia, Bilbo, 1989.

GURE BERTSO GIROA

Ertzillurruti

Iurretan jaio nintzan 1922an, abuztuaren 2an. Ertzillurrutiko etxe honek hiru bizi-leku zituan eta hirurok senideak ginan. Baserria benetan zabala zan, bista ederrak eukazan. Kaminoa be Durangorako bostehun bat metrotara eukan eta Iurretako elizondora beste hainbeste. Etxe aurreak labrantzarako erabiltzen ziran eta atzekaldeak danak ziran pago eta haretx. Baziran urki eta gorosti batzuk be. Probalekua eta bolatokia be baeukazan; han emoten eben gure aurrekoek denpora, batean proban eta bestean bolan.

Gure lurrak guztiz gogorak ziran, izan be buztin lurrak ziran. Goldeaz bueltatzeko lau ganadugaz egin beharra egoan. Gure aitak esaten ebanez, hiru aro egozan egunean: goizean goldekatu eta apurtu, eguerdi inguruan ondo astindu, eta arratsaldez tokor lur horreek erabiltzea ez zan txantxetakoa. Han hartzen ziran artaburuak ikusgarriak izaten ziran. Makina bat talo eta arto egositako jan genduan sasoi haretan.

Gure baserri horrek, aurrekaldean, labea eukan eta bertan egiten genduan asterako labasua. Arto labaldia atara ondoren, zara bete sagar botatzen genduan. Gaur be ahaztu barik ditut ondino sagar apotra hareek.

Gaur aldatuta dago lehenagoko gure etxaldia. Han ziran arboladiak bota ebezan, hango perretxikuak amaitu ziran betirako. Makina bat perretxiko batu genduan zaparrotan etxearen atzera urten ezker. Horrenbeste batzen genduan, saldu be egiten genduzala. Gure auzoko andratxo bat egunero joaten zan Bilbora eta berari saltzen geuntsozan. Nahiz eta askorik pagau ez, gozotarako lain ataratzten genduan.

Plazako eskolan

Umetan eskolara buelta batzuk egin genduzan, beste batzuen antzera. Hainbat baserri ginan inguruan eta danok joaten ginan Iurretako plazan egoan eskolara. Maisua erdalduna zan eta komedia itzelak sortzen ziran, baina laster hasi ginan alkar ulertzen. Irakurtzen be ikasi genduan, freno bako bizikletaren antzera. Trenaren karrilen modura, dana segidan, inon geratu harik; aurrean hasi eta atzeraino.

Eskolak eliza eukan aurrez aurre eta ardiak eskortara eroaten ziran bezala eroaten ginuzen. Eskolara joan ez arren, ez egoan problemarik baina dotrinara joan ezik, apaiza laster zan etxe inguruan. Pazkotako dotrina denpora haretan txartelak garrantzitsuak izaten ziran: dotrina ondo ez ekianak, ez eban izaten

txartelik. Eskribitzen ahalegintzen ginan eta zerbait eskribidu be, baina sarritan zer esan nahi genduan ez genkian. Ez zan errez izan hainbeste oztoporen erdian danak hausnartzea. Alde batetik erderarik ez, eta bestetik denpora gitxi eskolan. Hasi berandu eta joan noizik behinean; batean artoa erein behar zala, bestean naboak mehaztu, beti egoan zereginen bat.

Jolasak be bagenduzan. Elizak atari bat eukan bere atzekaldean eta bertan pelotan jokatzen genduan. Plaza ederra egoan eta bertan pelotan jokatzen genduan. Hortik aparte udabarrian txorikumatan ibiltzen ginan. Orduan, egon be arbola ugari zan. Arratsalde baten gogoratzen dot zelan hiru lehengusu eta beste auzoko bat joan ginan: berrogetamar txorikume hartu genduzan. Guk eroan genduan lana etxera! Eta amak esan euskun:

—Zer dakarzue, mutilok?

—Begira, ama, geuk lumatuko doguz eta tripak atara be bai.

—Hau bai gastu bako afaria.

Gure etxearen albotik errekatxo bat pasatzen zan, Oiz menditik etorrena. Eta bertan zenbat kangreju egoten zan be. Hartzen genduan baina-palu bat, puntan imini alanbre zati bat, koko harra sartu ta ziento pare bat behingoan harrapetan genduzan. Eskailuak be egoten ziran eta horreek hartzeko karburoa botatzen genduan potzuetara. Zakuzko sareak egiten genduzan eta horrekin hartzen genduzan gero.

Harrika be afizio handia genduan. Argi posteez puntetan hainbat kikara izaten ebenez, zeinek gehiago apurtu ibiltzen ginan, inguruko posteak kikara barik itxi arte. Inoz etxea be argi barik itxi genduan. Holakoak ziran gure denporako jolasak. Baina baten, etxat ahaztuko oraintxe be, akordetan nazen bakotxean barrreak urtetan deust. Kamino kontran Mallabiena auzoa zan eta handik etortzen ziran esnetan ilunabarrean mutikoak gure etxera pitxerrakaz. Gure etxeak beresia eukan aldamenen eta handik pasau behar izaten eben. Egun baten lehengusuak esan eustan:

—Horrexeri susto bat emongo deutsogu!

Etzun ginan ira artean eta etorri ziranen parera, atara besoa ira artetik eta hanketan ikutu. Hasten dozak saltoka! Hango pitxar hotsa! Apurtu ziranak apurtu eta apurtu ez ziranak lurrera bota.

Ezer txarto egiten genduanik egundo ez genduan uste. Umea ume izaten da ta orduan gaur baino gehiago; gauza batzuetan behintzat.

Gure gaztaroa

Gure gaztaroa beste edozein gazteren antzerakoa zala uste dot. Hamalau urtera arte etxeko arazoetan ibili nintzan. Hamabost urterekin hasi nintzan fabrikan lanean, pezeta bi irabazten nebazelarik. Ez zan asko baina orduan gaur bezalako dirutzarik ez zan izaten. Gainera, gure amak uste eban Mendizabalenera sartu ezkerro, gizon eginda nengola. Tailer ospetsua zan, izen handia irabazia eukan. Han irabazten genduanaz eta baserriko beste apur bategaz aurrera jotzen genduan. Beste nire auzoko lagun bat be nirekin sartu zan lanean. Bikote ona egiten genduan: hainbat asmakizun izaten genduan, baina ez lanerakoak, bromarakoak baino. Behin hauxe esan eustan:

—Jose, gu gizon eginda gagozela etxuek esaten etxean? Ba, gauza bat pentsatzen egon nok! Apari bat egin behar dogula biok biotara. Hik baba zuria ekarri egik, eta nik konejua.

—Konejua emongo deua ala amak?

—Hori eztok problemie, bat hartuko joat eta gero atea zabalik itxiko deutxiat. Nok jakin?

Urten be ondo egin eben handik aurrera. Hainbat bider egiten genduzan horren antzerakoak, batean batak eta bestean besteak. Beti leku batetik ibili barik, lagun gehiago be sozio egin ziran.

Tailerrean lana egin arren, baserrian be egiten genduan goiz iluntzietan. Ira ebateetan domeka goizetan batzen ginan lantzean baten, goizean goiztar hasi eta jo ta ke amaitu arte.

Hainbat lagun nituan, baina bat apartekoa: Bikandi. Zenbat erromeri aratu ete genduzan! Dantzari ona zan. Behin, Berrizen trikitixa txapelketa egoan baten, ezin geuntsan parejarik bilatu eta orduan, beste gure lagun batek be ondo dantzatzen ebala-ta, biak egin behar ebela pentsau genduan. Eguna heldu zanean, Durangoko estazinoan jantzi eta Berrizera joan ginan, baina neska jantzitako mutil hori bizartsua zan eta ahaleginak egin arren, ezin ondo disimulatu. Berrizera heldu ginanean, jende guztiak begiratzen eutsola pentsatzen genduan guk eta ez ginan aurrerago joaten atrebitu. Estazinora joan, erropak aldatu eta han amaitu zan gure abentura.

Trikitixa aitatu ezkerro, ddantzari ddantzea be aitatu behar Iurreta dantzarien semintera zalako. Gure aurrekoak be holakoak ziran, gu be hola ginan eta, gure atzekoak gitxiagora ez doaz. Iurretako plazan ddantzari ddantzan egiteko taldea ondo limau behar zan. Egun baten geuk be antolatu genduan talde bat, eskatu genduan plaza eta emon be emon euskuen. Ha zan gure poza jaiak etorten ziranean! San Migel bezperako iluntzean hasten ziran. San Migel hatxa sartzen genduan

lehenengo, gero abadearen etxaurrean zortziko bat eginez hasten ziran jaiak. San Migel egunean, agintariak, txistulariak eta beste jende mordo bat alkartzan ginan hamarretan. Iurretako zubian. Handik plazara joaten ginan, geroago meza entzuteko asmoz. Ondoren ddantza egiten genduan. Ostean, erreglak ipintzen genduazan eta han ataraten ziran neskak. Aurresku eta atzeskura ataraten ziranak hareek hartzen eben ardura hurrengo domekan, txotxongiloa etaraten zanean pastelak botatzeko. Pastela orduan lujua izaten zan. Horregaitik, neskak etaraten joaten ziranak aukera pixkat izaten eben. Hortik aurrera giro batzuk be egin genduzan; Madriler, Asturiasera, Bartzelonara, etabar. Madrileko txapelketa batera joan ginan; pinuaz egindako palu batzuk eroan genduzan. Palu jokoan hasi ginanean, palu onak euki ebezenak gogor jotzen hasi ziran eta jendea berotu zanean, enparauak hasten dira ta hango palu zatiak aidean. Hango jendearen txaloak eta eupadak ez eben azkenik! Hainbat ziran paluak ikustera etorri ziranak eta leizarrezko paluak erakutsi geuntsezan. Urte asko igaro da ordutik hona eta ia ahaztuta, baina uste dot bigarren saria lortu gendula.

Beste baten, gogoan daukat oraindino, ddantzari eguna asmatu eben Iurretan. Han alkartu ginan hainbat talde eta gu ginan zaharrenak. Eskolan gengoan plazara urtetako gertu. Orduan bat etorri zan eta bertan erabilen ikurrinari, espainiarren lazo bat lotzen hasi zan. Badakizue... Jendea ha ikusita pixkat ikaraka hasi zan. Bandererua etorri zan eta esan eban:

—Zer mutilak? Urduri zagoze? Begira zer iminten dabilen ikurrinaren puntan. Hori neuk konponduko joat, koño!

—Zelan? —esan geuntson guk.

Joan zan eta haxe esan eutson trapua iminten ebilenari:

—Ez egiok trapu gehiagorik imini, lehen be nahiko pisu jaukok eta.

Orduan trapu txatal ha kendu egin eutson. Han amaitu zan dana. Txistua eta tanbolina jo eta plazara joan ginan danok.

Holako hamaika labankada egiten genduen orduko denporetan, baina halan-dabe gure ohiturak aurrera. Egun baten, neure pareja lagunak esan eustan:

—Jose, ez dok pentsetan andragai bana bilatzerik?

—Zer ba? —erantzun neutson nik— Prisa dxagok ala?

Eta orduan haxe esan eustan:

—Ez haz fijetan? Lehen aureskua egin eta lehenengo iladatik hiru-lauk urtetan dxabian, bigarrenetik bardin eta orain atzera begira egoten dozak. Hori eztok itxura ona, zezer pentsatu beharra dxagok. Zer deritxok?

Eta hola hasi ginan. Bizimodua be aldatu egin jakun. Iurreta itxi eta Mañarira joan nintzan. Baina Iurretaz ez nintzan egundo be ahaztu. Mañarian bizi izan arren, Iurretako taldeaz dantzatuten neban ezkondata hamar urtetara be. Behar-

bada hamabost be izango ziran. Gazte bat ezkontzen zala-ta deia hartu neban eta pozik joan nintzan. Bera be ddantzaria zan. Ezkonberriak elizatik urten ebenean dantzatu geuntsen eta gero danok joan ginan abadetxera. Salda hartu eta trago batzuk eginda gero bertso hau jarri neutson:

Hainbat denpora begira egonda
heldu jak orain eguna,
besteak itxi, hartu beharra
betiko bizi-laguna.
Bedeinkazioaren bitartez
gizon einda Sopelana.
Hauxe izan da zeure denporan
maiteen izan dozuna;
gaurko hitzari aurrerantzean
emagiok erantzuna.

Gerra osteko egoera

Gerra osteko egoera ez zan bape egokia. Gure baserriak hiru bizitza ebazan. Bederatzi edo hamar behi izaten genduzan baina birekin gelditu ginan. Enparaauak aurrean hartuta Bilbo alderantz eramanebezan. Hainbeste labrantza eta hain indar gutxi! Pentsa zelango egoera izango zan. Artoak ereiteko sasoia ganean genduan eta modurik ez. Baina gu ez ginan holan genbizen bakarrak; auzoan be gure antzera ebizen beste guztiak, baina alkarri lagunduz, batzutan hemen eta beste batzutan hor, nahiko ondo konpontzen ginan. Gogoan daukat zelan urte baten, San Antonio aurretik, artoak erein barik euki genduzala eta gure izeko batek artoak ez baziran txaparrak hartuko genduzala esaten euskula. Baina ez zan hola izan eta ez dakit inoiz izan dan halako artotzarik eta babatzarik.

Bestalde, jatekoari dagokionez, errazinoan bizi ginan eta jentea larri aurkitzen zan, batez be kalean. Orduan Bilbotik eta Barakaldotik jenero bila etorten ziran baserrietara. Baina apurka-apurka konfiantza irabaziz joan ziran eta baserritarrak denuntziak ipintzen hasi ziran. Baserritarroi neurriak hartzen hasi jakuzan eta eurak iminitako neurrietan saldu behar izaten genduzan jeneroak. Injustizia itzelak izaten ziran, baina nork ezer esan? Baten, gure ustez ondo pisauta egoan garia entregau genduan baina hiru kilo falta zirala-ta bi mila pezetako multa ezarri euskuen. Ez hori bakarrik, nire lehengusu bati, deklarautakoak baino zazpi kilo gehiago zituala-ta, arto, gari eta bera hartuta Durangoko kartzelara eramanebezan.

Holakoa zan gure gudate amaiera inguruko bizimodua baina halanda be defenditzen ginan. Nahiz eta Durango inguruko errota prezintautu egon, lurretatik ordu bi ingurura egoan menditarre baten errota bi egoan eta hara joaten ginan ilunabarrean. Bost bat asto hartu, alkarri buztanak lotu eta hor joaten ginan basorik baso. Kontu egizue gaua han pasatzen genduala. Gure antzera jende asko joaten zan baina errota indar gitxi eukanez, ezin izaten eben urun askorik eho.

Egoera hau asko luzatu zan baina gazteak ginnez ondo pasatzen genduan. Egun baten, zerbait egin behar genduala ta gure etxe aurreko laban ogiak egitea bururatu jakun, gero estraperloan saltzeko. Baina hau ez zan gure auzoan bakarrik egin, Mallabian be egin eben. Hilean behin pasetan ziran guarda zibilak astean bi edo hiru bider pasetan hasi ziran eta guri be belarriak zutik jarri jakuzan. Gure artean hau esan genduan:

—Mutilak, txapel okerrak sarritxo agertzen dozak. Zeozer susmatu ete dxabek ba?

Orduan, geunkazan urunak amaitu eta labea zarratu egin genduan. Holan amaitu zan gure estraperloa.

Larritasun hareek pasatu ondoren gauzea apur bat normaltzen joian. Lantegian be gehitxoago ordaintzen eben eta jeneroa be ugaritzen hasi zan. Ia bizimodu normalera etorri ginan nahiz eta geureak ziran gauza asko falta. Hamar ordutik gora egiten genduan lan egun guztietan baina ez bost egun astero, oraingo moduan, sei egun baino.

Hortik kanpora etxean be lan egin beharra izaten genduan. Ez jakun denpora askorik sobratzen beste ezertarako baina halan be aurkitzen genduan denporarik lantzean behin juergaren bat egiteko. Gogoratzen dot zelan sanblas batzuetan, San Blas arratsaldean hain zuzen, zelan Bikandik eta biok baimena eskatu genduan tailerrean eta Abadiñora joan ginan. Makailao kazuela bat jan eta botila pare bat edan ta gero joan ginan plazara. Txosna baten tiroka genbiltzala, hara non entzuten dogun:

—GORA EUSKADI ASKATUTA!

Lehenago hori esatea lehegailu atomikoa botatzea bezalakoa zan. Begiratu genduan eta neure pariente batzuk zirala konturatu ginan. Bikandiri haxe esan neutson:

—Horrek laguntasunaren premian dxagozak!

Han izan zan zipi-zapeak ez eukan azkenik. Bidea libre egoala ikusi genduan hanka jokoari emon geuntson.

Geroago, ezkondu ginanean, Mañarira joan ginan bizitzera baina Durangon egiten nuen lan. Hiru seme-alaba izan genduzan eta eskura etorri ziranean, bizi-

BERTZO BÉRIAK

Bikandik eta Alberdik Julianeri jarrixak

- 1 -

Seresan asko eman biardu
Gure museko jokuak
Julian aldean orekaitik
Diras olako contuak.

Modu askotako gisonak
Artzeu dituzte munduak
Eta olakoixiak bere
Bialdu duskus Jangoikuak.

- 2 -

Guri bertzuak etarateko
Burus einyau berotu
Ikusikodu oingo aldixan
Selan eitzendan gelditu.

Orain artian lo egongera
Ointxe begixek sabaldu
Oslariorrek ustebagarik
Kontrarixuak baditu.

- 3 -

Orregaitikan esaten goyas
Eguf garbi ta argiyek
Esanik base seintzuk siratan
Gisonak eta umiyek.
Iru eskondü bi geyek
Iruretatik batek esusan
Aitabateren begiyek.

- 4 -

Bi eta bapes irurako
Eurak bildurra ikara
Baña aldeanok laister einsuten
Bastarretikan eupara.
Esaten base Eugeniori
Begituteko sinkara
Berak andik esangutzelako
Nois joten degun trampa.

- 5 -

Maurisio au isensan bata
Osaba tzikito bestiye
Orrekin parte artuebana
Suan Julian pestiye
Patatiaren kokue tzarra
Dala esaten dabiye
Baña geure nstet etzondorako
Esta ori asko obiye.

- 6 -

Ontzat arturik euren esanak
Jarri gañian gu maixan
Esgañun jakin gison sikiñik
Daudenik euskal errixan.
San Roken asi Madalenatik
Amaizen dira Arandixan
Orrenlanguak jakinbagarik
Eukin degus geure errixan.

- 7 -

Julian ori or ibilisan
Arrokerixas beterik
Orri jokuan kontra eiteko
Esdü bapere bildurrik.
Guri praketan etzaku fulta
Ondiekuan dirurik
Orain artian compoundugera
Orri eskatu bagarik.

- 8 -

Taberna asko guk bixonarte
Egiten degu aratu
Julian ori erdi negarres
Ondora beti agertu.
Pena artuta sarri askotan
Egarria egindutzu kendu
Ondik aurrera ikusikodu
Selan eitendan kompondu.

- 9 -

Erdi negarres etorrixaku
Ori gison abillori
Es etarateko Jangoikuagaitik
Bartzo berrikerik berari.
Bartzo berrikerik berari,
Beti gustauxaku arpajotia
Olako gison flautari.

- 10 -

Bertzo berriak etara eta
Bialdu inon isenakin
Asarratuta ikusigendun
Larrako Julianekin.
Etzuat nairik olako saltzan
Sartu egingura orrekin
Estualako ibiligura
Alkabuetekeirixakin.

- 11 -

Umoreonian agertu gañan
Guba Belarren atetan
Baña aldeano etzerantzian
Sartusan esaka kortan.
Arduan kontuak orrisek dira
Luek artu astuen ainketan
Urrengo egunien igerriguntzen
Orri sañeko praketan.

- 12 -

Orra ordia amubi bertzo
Gaste lagunbik jarrixak
Baña ondiño esdogus esan
Orren pasaisu gustiyak.
Oingo aldixan guk bixon arte
Asaldu dogus erdixak
Urrengo asti aldiren baten
Esango degus gustixak.

tzen Durangora etortzea pentsau genduan. Geroztik hemen bizi naz eta munduak zelan gorabeherak eukiten dabezan, guk be izan genduzan, eta ez gitxi:

Tailerrak porrot egin zuenez langabezia sartu nintzan. Holan egon nintzan hamazortzi hilabetez baina gitxien uste nebanean Ikastolarako deia izan neban. Niretzat ha izan zan inoiz ez ahaztuteko barria. Zelango jende argia eta zintzoa aurkitu neban bertan! Irakasleek, ikasleek eta gurasoek familia bat osatzen genduan. Gabetan, gazteak eta hain gazte ez ziranak batzen ginan gela baten eta orduak ematen genduzan bertsoan eta kontuak kontetan. Gure artean ebilen Erzilla gaztea istripu batetan hil zan. Oso etorkizun ona eukan bertsolaritzaren munduan eta horrez aparte oso euskaldun jatorra zan. Handik denporaldi batera omenaldi bat egin eutsen Durangoko Andra Mari elizpean. Bertan bertsolariak izan ziran eta hareek amaitu ebanean bertso pare bat botatzeko esan eusten, eta hona hemen orduan jarritako bertso horreek:

Neure eskerrikan beroenak
adiskide agurgarriak,
zenbat pozten nau orain hemen
hainbeste jente ikustiak.
Gaur gu honera ekarri gaitu
gazte jator baten deiak,
ez dira larrei beraren alde
egiten diran guztiak;
Gazte zan baina berak zituan
danak ondo irabaziak.

Zer gehiagorik esan daiteke
omenduaren izenian,
denpora baten izan gendula
bera gurekin batian.
Golpe txar batek jota eramán zun
sasoeirik onenian
Zeruko Aitak gorde daiala
beraren aldamenian,
ta guk ere ez al dogu ahaztuko
bizi geraden artian.

Nere bizitzan danetik pasatu dot, onak eta txarrak. Golpe batzuk be izan nitan baina danei eutsi neutsen alegrantzia galdu barik. Gaur egun be, jubilatuta egon arren, lagunarteko batzuk egiten doguz. Zer gehiago eskatuko deusagu ba munduari? Askorik be ez dogu behar eta!

Zahartzaroa legezkoa dogu. Danak ez dira horra heltzen eta horregaitik heltzen garanok ahalik eta ondoen pasetan saiatu behar dogu.

Atzokoak ez dau bat be balio. Atzoko banketerik onena baino momentuko sardina zaharraren burua hobe dogu, eta artxoaren izterra balitza askoz hobe!

Bertsotarako afizioa

Nire bertsotarako afizioa zertatik etorri zan kontatu behar deusuet. Ehun kilotik gorako gizon eder bat etorten zan sanantonioetan Durangora bertso paperak saltzen. Kantetan hasten zanean, mutiko pila bat bere inguruan batzen ginan berari entzuteko gogoz. Kantatu ondoren, paperak saltzen hasten zan eta guk erosi egiten genduzan. Gero etxera joan eta gu geu hasten ginan kantetan nahiz eta itxurarik ez geunkan. Barriro etorten zanean be erosten geuntsozan. Berak oso ondo kantetan ebanez guk be holan nahi genduan. Haren bertsoak Iurretan be entzuten ziran.

Egun baten, han genbizen geure papelekin eta nire aitaren lehengusu bat hurreratu jakun. Ea zertan gengoan esan euskun. Azaldu geuntson zelan bertso -paperak erosi genduzala baina ezin genduzala kantatu saltzaileak beste ondo. Osaba be, erdi testularia zanez, paperak eskatu euskuzan eta kantatzen hasi zan. Zelan etxe kapela baten bizi ginan, iluntzean bere etxera joateko esan euskun eta bertan kantatuko euskuzala. Aurrerantzean beti joaten ginan eta beheko suaren ondoan lehengusuak bertsoak kantetan euskuzan guk artoa urkultzen genduan bitartean. Holan hasi ginan lehenengo koplak ataraten. Bertsoak geroago etorri ziran. Tabernan ibiltzen ginan Bikandi eta biok. Baten Mañaritik etorri jakuzan eta Aita Gurutzekora joango ete ginan bertsotan. Guk baietza emon geuntsen eta joan be bai. Geroratuago Izurtzatik be deitu euskuen. Horrexek izan ziran gure lehenengo bi urteerak. Baina hortik aparte lehen jaunartzetara eta ezteguetara be joaten ginan.

Orduko denporetan, bertsoak eta gure beste hainbat gauza plazan egitea pekatua izaten zan. Baina ez uste izan arerioak bakarrik zirala gure arerioak, bertan be hainbat zital egoan.

Hortik aparte ez zan izaten orduko denporetan aukera handirik bertsolarien-tzat. Alde batetik Balentin Enbeita egoan Muxikan eta bestetik Juan Hormaetxea Mungia aldean. Gipuzkoan osteria hainbat ezagutu nebazan: Zepai, Basarri, Uzta-pide, Mitxelena, Lasarte, Lazkao Txiki, Garmendia, eta bai gehiago be. Orduan Gipuzkoa aberatsagoa zan arlo honetan, nahiz eta gaur egun Bizkaian be material ona daukagun. Gu hasi ginanean bi edo hiru bakarrik ginan baina gaur egun asko dira ezagunak eta txapelketetan be lehenengo mailan dabizenak. Horregaitik pozik

egoteko moduan gagoz bizkaitarrok, azkenaldi honetako saioak gogoan hartzekoak diralako eta beste inorekin zorretan ez gagozelako. Esan dodan lez, gure bertso lanek ez eben garrantzi handirik. Hasiera baten oso gitxi urtetan genduan plazetara eta labankadak be ugariak izaten ziran. Baina apurka alkar hobeto ezagutzen joan ginan eta zerbait hobetuz joan ginan, nahiz eta gaur be zerbait falta.

Lehenengo txapelketa 1958an izan genduan Bilboko Arenaleko kioskoan, abuztuaren 15ean hain zuzen. Euskaltzaindiko partaide zan Alfonso Irigoienek deitu euskun. Txapelketa izango zan baino egun batzuk lehenago alkartu ginan Euskaltzaindian eta han erabaki zan txapelketa noiz jokatu behar zan. Eta han ginan gu Arenaleko kioskoan: Balentin Enbeita, Juan Hormaetxea, Bidaurreazaga, Zarraga, Kastrejana eta ni, Alberdi. Han izan genduan espektakuloa itzela izan zan. Saio hobeak makina bat izango ziran aurrerantzean be, baina han bildu zan jendetza ez dot inoiz ikusi. Arenala geurea zan.

Hortik aurrera herrietako plazetan be barra-barra kantatzen hasi ginan. Batzutan ez zan erreza izaten bertso saioak antolatzea, permiso handiak behar ziran ta. Baina zelan askotan Euskaltzaindiak deituta joaten ginan, Alfontso berak ekartzen zituen behar ziran agiri guztiak.

Hurrengo txapelketarako, jente gehiago agertzen hasita egoanez, herrialdeetako kanporaketak egitea pentsatu eben. Niri Urkiolan tokatu jatan beste bost bertsolarirekin batera. Beste kanporaketa batzuk Mungian, Zeanurin, Ondarrun eta abar egin ziran. Azkena Bilboko Arenalean jokatzekoa zan, baina hara heldu ginanean bozgoragailuak falta ziran. Batzuk ezin eben onartu hainbeste euskaldun alkartuta egotea. Orduan, eztabaida sortu zan: batzuk esaten eben bertan egunean kantatu behar zala, bozgoragailu barik, baina beste batzuen ustez ezin zan kantatu baldintza horreetan. Alfontso esan eban bere ustez hobe zala hurrengo domekara arte itxaron eta altaboz ta guzti kantatu. Eta gauzak holan, hurrengo domekan jokatu zan finala eta arteragokoan baino jente gehiago izan zan.

Aurrerantzean be plazetan kantatzen segidu genduan jaietan. Gehienetan ez genduan izaten altabozik eta gure eztarriek behar baino lan gehiago egiten eben. Halandabe, bakean itxi ezkerok pozik ibiltzen ginan. Hori ez zan erraza izaten, beti izaten genduan oztoporen bat: lanera faltatu behar batzuetan, guarda zibilak etxe inguruan beste batzuetan,

Kuarteletik pasau behar nebala esaten eutsen emazteari. Behin be ez nintzan joan; oraindino ez dakit zergatik.

Egun baten, guarda zibilak etorri jatazan tailerreko atera, ez dakit zelan, eta deitu egin eusten. Gernikako frontoian bertsotan egin behar ete neban itaunka hasi jatazan eta joateko amesik ete neban. Nik, ez nintzala gogoratzen esan neutsen. Hori goizez izan zan eta eguerdian etxera joan nintzanean Euskaltzaindiko karta

han egoan. Bertan, Muxikako Iturriri omenaldia egiteko egozala ta, Gernikako frontoira ea joango ete nintzan esater jatan.

—Ah! Hau izango da gaurko txapel okerren bisitaren arrazoia —esan neutson emazteari.

Orduan emazteak ea zer gertatzen zan itaundu eustan eta nik goizekoaren barri emon neutson.

—Noiz arte jarraitu behar dogu holan? —esan eustan emazteak.

—Ez dakit ba, andratxoa! —erantzun neutson nik.

Heldu zan hirugarren txapelketa be eta orduan gehiago batu ginan. Herrialdeetakoak egin ondoren, Ondarrun jokatu ziran finalerdiak eta finala Bilboko zezen plazan.

Aurrerantzean bertsolari ugariago ikusten zan gure plazan baina gauzak gero eta garratzago jartzen hasi ziran. Errepresioa handituz joian eta kontu handiz ibili beharra izaten genduan. Billbora be jira bat eragin eusten eta nahiz eta bertan mantendu ez, ez zan gauza atseгина izan. Beste batzuk be nire antzera ibili ziran, ni ez nintzan bakarra.

Gitxi gorabehera holan izan zan nire bertsolari giroa. Gazteak plazak betetzen hasi ziranean, atzean gelditzen hasi nintzan nahiz eta noizik behinean ni be joaten nintzan. Eta orain gustora egoten naiz gaurko bertsolari gazteak entzuten, egin be bertso onak eta sakonak egiten dabez eta.



IURRETAKO MARKESA. Maria del Carmen Gurtubay y Alzola, Madrilén jaioa 1910eko ekainaren 4an. 2 urte zituela aita hil zitzaion, eta ama 1920an konde batekin ezkondu zen. Alfonso XIII.a erregeak orduan oparitu zion amari titulua: *Marquesa de Yurreta*. Carmen Gurtubay izango zen, beraz, lurretako bigarren markesa. Madriléko giro aristokratikoetan hazia, Carmen Alfonso Merry del Val diplomatikoarekin ezkondu zen 1931n, baina Aita Santuaren baimenarekin banandu ziren hurrengo urtean. Eta lurretako Markesak ezkerreko jokabideak izango zituen harrezkero: 1936an euskal estatutuaren alde idatzi zuen eta Gerra Zibilean Errepublikaren alde ekin. Exiliotik itzuli zen 1942an, baina aliatuen agente moduan lan egiteko. Bigarren Gerra Handiaren ondoren, berriro exiliatu behar izan zuen. Parisen bizi ohi zen gero, harreman handiak izan zituen bai PSOE bai PNV alderdiekin. *Madame La Marquise* 48 urterekin hil zen, 1959ko urtarrilean, eta *Montparnasse*ko hilobian enterratu zuten.

Autobiografia bat idatzi zuen, baina, bera hilda gero, amak argitaratzeko baimenik eman ez, eta inedito omen dago oraindik.

KARMELO CEDRUN

Porterue da lekurik txarrena



KARMELO CEDRUN (1930-)

Carmelo Sedrún Ochandategui 1930eko abenduaren 6an jaio zen, Oromiñoko Katea baserrian, Amorebieta-Etxano udalerrian dagoen, baina elizaz Iurreta den alderdian; bizimodua ere Iurreta aldera egiten zuten.

1947an fitxatu zuen Athleticetik. Raimundo Pérez Lezamaren ordezkoko pare bat urtez egon ondoren, 1951ko apirilaren 15ean debutatu zuen (Athletic Club 3- Sevilla FC 0). 1954-55eko kopa irabazi zuten (Athletic Club 1- Sevilla FC 0). Hurrengo urtean, liga eta kopa, biak irabazi zituzten. Eta 1957-1958an ere kopa irabazi zuten (Athletic 2 – Real Madrid 0). Athleticetako atezain titularra izango zen 13 urtez, harik eta Jose Anjel Iribar heldu zen arte.

Karmelo *RCD Español*era joan zen, eta Di Estefanorekin jokatu zuen. Han hiru urte igarota, Estatu Batuetako *Baltimore Boys* taldeak kontratatatu zuen hango futbol txapelketa berrian jokatzeko.

Estatu Batuetatik bueltan entrenatzen hasi zen, eta hainbat talde gidatu zituen 1972 eta 1989 bitartean: *Barakaldo*, *Logroñés*, *Cultural Leonesa*, *Celta de Vigo*, *Real Murcia*, *Real Jaen*, *Balompédica Linense*...

Ahotsak webgunean Nerea Goiriak egindako bideoetan oinarritu gara testu hau osatzeko.



Athletic-Barcelona: Karmelo László Kubalaren penaltia gelditzen.

PORTERUE

Cedrun

Badakixu, derrigor juen biher soldau elekziñue eitte'otsuenien, *donde toca...* Telmo Zarraonandiar Ceuta tokau dxakon, eta Afrikara juen bi'ixe'aben, eta Athletidxek galdu aben ligie... Zarra ez eguelako... Athletidxe ezan listo ibili, ze ipini b'otsien *Zarra* edo *Sarra* sortue eitteko orduen... Baia, Zarra, zelan famosue zan, ba, *Z* letriek urte'otsonien, Afrikara juen biher... Ezin ixen zan etorri hiru-lau hillabetien, eta horregaittik galdu aben Athletidxek ligako kanpeonatue... Eta atzetik etorri gintzezan beste batzuk. Gu gara Sedrun... baia, Athletidxek aldatu aben hasierako letrie, *Cedrun* ipini abien... *La ese* urte'aben Afrikara, eta 254 ni Cedrunekin geratu nitzen etxien... Athletidxek ipini abezan Sedrun, Cedrun 443 eta Ledrun, ezeitten tokau Afrikara... Orain, gu Cedrun gara... Zelako jaleue... ze nire anaidxieri, Cedrun ipintiarren, segiduen tokau dxakon Kanarietara...

Gure aitte Bilbon jaidxo zan, baia Euban hazi zan... Haren aittek, umie nora eruengo't, eta Eubako baserri baten itxi aben, pagaute-edo, ta hantxe... Gero Bilbotik urten ein biher ixen'aben Santanderrera edo zerera, eta Ospiziora sartu bi'aben. Eta Eubara juen zan umiori Ospizidxora sartzeko, baia, umien bille juen zanien bertako baserriko gixonak esa'otsen... bost jaten edo sei igual, da, hau umiau bertan geldittuko da geugaz... Gure ama Oromiñokue zan, betiko Oromiñokue: Otxandategi, Bediaga... Horrexegattik dekuaz nik hiru apellidu bakarrik, aittittek Sedrun emo'tsen aitteri, baina amamak ez. Amarenak bi. Horrexegattik nau ni hiru apellidugaz: Sedrun, Otxandategi, Bediaga...

Baia, orain Cedrun naz, karneta eta dana Cedrun. Telefonuen Sedrun dau, beste guztidxetan Cedrun. Ostantzien, igual ointxe be bialduko gaittue Afrikara.

Oromiñokue

Enaben nik jakin nun dauen be Etxano. Omenajie ei'ostienien internazionalien jokatzen nabelako, omenajie eta, orduentxe lelengotaz... Billurraz egon nitzen esateko, ba, lelengotaz nator ni hona... Jaleua ez eitten egon. Gu Oromiñokuek ixen gara beti... Oromiño eta Idxorreta... Baia, errekie, Oizetik datorrena, pasetan da gure ezkerretik, hamenguek, errekatik hona danak diez Etxano-Amorebieta... Hiru-lau baserri gauz eta hirurek Etxano-Amorebieta... Horregaittik, errekiegaittik... Baia, elizie Idxorreta, ta kanposantue Idxorreta...

Oromiñon, baserridxen jaidxota, beratzu neba-arreba ixen gara, beratzu, beratzu... Eukin gañun suertie, beti olgetan, Idxorretara mezara, da beti olgetan...

Gerra denporan be, abioiek eta bonbak, eta han egoten gintzezan... Aitte falta, aitte gerran... Aitte –hamengo jente guztidxe badakixu nundik ibili zan– zerien... Hárek eukitte’ abiezan pistolak eta zerak, tiro bat ein ezkerro, ordu betien ezi’abien geidxau bota... ta bonbak goitik behera jausten, kontuek atara zer ixen zan ha... Frankogaz ez, aitte hamenguekin ibili zan, hamengo kuadrilliaz, hárek eskopetakin nora zuez ba... Bestiek gañetik abioiek, bonbak eta *la ley*... Gu beratzi ume etxien amagaz, aitte nun dauen be ez gañun jakin... Gerran, Oromiño, enue esaten... baia txarra ixen zan, bando asko egon zan... ta enbidixie, ta amorratute jentie... Pasetan zan jente asko, kamioiek, odola ta, *eriduek*, ta txarto... Pasau eitten zien itzelezko zerak Oromiñotik... Gu, abioiek etozenien, zubidxen azpire ... Zelan dauen gure aurrien zubi bat, ba, haraxe behera, bonbak eta botate’ abiezan, eta guk suertie eukin gañun... hantxe barruen.

Eskolie

Eskolara oñez jueten nitzen, ensegida gure etxetik Oromiñora, egun guztidxetan jueten nitzen, *profesora* onak egoten zien, eta gogorrak... emote’ oskuen, bueno... Ta hantxe, ba, euskeraz ezin zeinken eñ... proibidute egon zan, eta erderaz... Ta erderaz, ta erderaz... Ta gure amak ez aben jakin erderaz, eta beti euskeraz, etxien euskeraz, baia zerien, beti-beti kastigaute... ensegida kastigeta’abien, *orden tajante de Franco*... *prohibido euskera*. Maisue Valladolidekue zan, Zorita, akordetan naz, fenomenue... Okerra, baia erakutsi *de maravilla*. Eta Idxorretako beste *profesor* bat be egon zan, parientie eitten dana gure andriaz... ha be egon zan gero, eta orduen akabau naben... Oromiñoko eskolan egon nitzen hamabi urtera arte, eta zelan lekurik be ezan egoten, *profesorak* esa’osten: geixau ezin geinke hamen erakutsi, eta jentie zelan datorren... *Han acabado tus estudios*, eta orduen Idxorretara...

Hamabi urtegaz juen nitzen, hillien pagau eitten zan, partikularra ixen zan-da... Munitxa, haixegaz ikasi naben, *profesora* harekin amaitu naben *Comercio*... Da eurek apuntau ostien gero Ortiz de Zarate fabrikan. Egon zien zerak, esamiñak bihera hartzeko, da enaben presentau gure ixen, ze ondiño Oromiñokue, ondiño pixka bat kortotxue ixen nitzen-da...

Juen da atara naben lelengokuen. Mekanografo, da lelengokuen... Da hantxe, hantxe ofiziñan egon nitzen urte bi edo hiru... Urte bi pentsetan dot...

Da handik, ba, fubolera, benenue eukin gañun guk fubola buruen, beti fubola, beti fubola...

Piñuen artien

Zelan hasi nitzen fubolien? Oromiñon, kamiñuen, da gero piñudidxen, piñuen artien jokatzten... Bueno, akordetan naz gero be, hurrengo egunien Madrilen kontra jokatu bi'gañun da, orduen ezan konzentretan, da ni Oromiñon piñudidxen jokatzten neure lagunekin... Jo, oiñ hórretako bat ein baleike, pekatue, botako leukie multie... Ni trankillo, hantxe egoten nitzen edozeinen moduen, lagunekin, ederto.

Oñez, Durungora etorten gintzezen oñez, Kulturala ikusten da holan, lagun artien, beti nire bizi guztidxe deportie ixen da... Kulturalien enaben jokatu... Ez, ba. Kulturalien etorri zien neure eske, baia, nik billurre edo zera euki naben, ze Kulturalien itzeleko porterue egon zan jokatzten, eskuekin dde... Esate'abien dozena bat arrautza eskuetan eukitte'abela, eta billurrez, enitzen juen... Da juen nitzen Zorrontzara, Amorebietara, baia sei hillabete bakarrik ein naben Amorebietan, handik Athletire...

Urritxen jokatu naben, han nik jokatzé' naben zerien, badakixu zelan ibiltten zan, iguel zapatarik ezan egoten jokatzeko, eta batien *cuarenta y cuatro*, bestien *cuarenta y dos*, eta háixekin jolasten, háixekin, baia ondo, ederto, ederto...

Lelengotan, Oviedon hasi nitzen entrenetan. Oviedok gure ixen nindduen hartu, ta hamazazpi urtegaz juen nitzen bertara. Oromiñora, etxera, jode!, itzeleko kotxiaz etorri ziren, hartu ta hara erueteko, eta gure amak esate'aben: «Oviedo? Nun dau ba Oviedo?», gure amak... Koñetuaz eta Amorebietako direktibo bataz juen nitzen. Aste guztidxe entrenetan, eta partiduetan. Ta akordetan naz, ezkintzen arregletan diruaz. Gitxi falta, e... Ta baten juen nitzen ni ekipo suplentiaz Oviedoko titularren kontra, ta irebazi. Itzeleko partidue egin naben, eta klubean geratu giñen arregletako gauzak... Eta bittartien, ni deskantsetan, kotxe bat heldu zan hotelera: «¿Carmelo? Ahí, sí, está ahí». Athletidxe bota aben kotxe bat, hartu ta Bilbora etorri nitzen.

Konparau, Oviedo, bizi guztidxen egoteko. Bilbon etxien nau, Oromiñon nau, eta firmau naben Athletidxen. *Benenue* ezin itxi-tte, bueno, Athletidxe etorri zanian neure eske, nok esan ezetz Athletidxeri orduen...

Athletidxe

Zenbat urtegaz hasi nitzen? Hamazazpi-hamazortzi urtegaz debutau naben Athletidxen. Kontuen hartuixu hamengo mutille, jode, pixkat *kortotxue* ta zera, da han Iriondo, Venancio, Zarra, Panizo, Gainza... Kasetan, ba, billurrez. Da, bueno, debutau naben, da pozik... Danak, Zarrak da danak lagundu ostien itzelien, da bueno, handixik ingo nabezan gero hamasei urte...

Lezaman ez, San Mamesen bertan entrenetan gañun, edo Indautxuko kanpuen, edo Arenasen, eta horretaraxe... Oingo moduen ez, oingo moduko fazille ez gañun ixen guk fubola. Jueten gintzezan trenien, jeneralmente bost urte edo sei urte ein nabezan nik trenien jueten... Oromiñotik bizikletan Eubara. Hartu bizikletie, eta hartu trena Euban, eta Bilbora. Bilbon hartu autobuse, Miserikordidxa eta San Mamesera. Holan egun guztidxetan. Gero aiñeketan entrenamentue pasau, hartu atzera be autobus hori, zelan deko izena horrek?, Miserikordidxa. Eta handik aiñeketan trenera. Trenak itxaron eitte'oskun, ze beti emoten geuntsezan inbitaziñuek makinistieri... Gu aiñeketan beti, Eubara jueten nitzenien, *No está Carmelo?* Eta bestiek, *Allí viene, hay que esperar...* Jentie nigaz ederto portau da beti.

Ni Lezamaren atzien parau nitzen. Lezamak partido bat edo bi ez aben jokatu ondo, eta Iraragorrik, Iraragorri ixen zan nire entrenadorie, eta, *cómo...* *A este aldeano lo sacamos...* Eta *venga, aldeano...* eta handixik, ba, hasi nitzen jokatzan eta zenbat urte, zenbat partido...

Artetxe, Markaida, Arieta, Uribe y Gainza ixen zan, hórrekin jokatu dot, hiru urte. Lehenau, Iriondo, Benanzio, Zarra, Panizo, eta Gainza, hórrekin sei urte jokatu naben, gatzetan. Gehidxen irabazi dogune kanpeonatue geu gara, neure ekipue. Bost kanpeonato, kopa ta liga... Ez zan egoten oingo moduen europeue ta, kopa ta liga... Zenbat jente, zenbat jente Madriler ta... Danetarik onena Madrileri irabazi geuntsenien, *en el 58*, finala bere kanpuen, Bernabeun... Jaleo itzelak egon zien, ze ezkañun jokatu gure ixen han... Bartzelona eliminau gañun, eta gero Madrilen... Eta bueno, Francok esa'aben, *Aquí mando yo, y aquí...* Bi ta bapez irabazi geuntsen eta ha ixen zan ha... Franco, kopien eske juen giñenien, ze berak eukitte'aben han kopie, hará gorantza tribunara ekipo osue. Eta akordetan naz Piru Gainza kapitana heldu zala, ta, *Otra vez aquí?* Eta Piruk esa'otsen: *Y el año que viene también...* Akordetan naz, ze ederra ixen zan, *negro* egon zan ha guk irabazitte, beti irabazten gañun da, kontue ataraixu...

Bartzelonaren kontra irabazi gañun Kubala etorri zanién honantza, justuen, baia, ostu ei'oskuen... Bi tte bat, Kubalak pentset'ot sartu abela bigarrena... Beti eukin gañuzen gauzak gatxau irabazteko, arbitrue, bestie, edo beti zeozer... badakixu zer egoten zan orduen. Baia, gu ekipo ona ixen giñen, edozeiñi irabazteko modukue... Halan da be, jan da edan libre. Pixue emoten bazañun, *tu no puedes pasar de ochenta y cuatro*, bueno, hortxe... Nik eztot eukin sekule problemarik pisuaz, eta jan, beti jaten, eta problemarik sekula bez. Baia badakixu zer ixeten zan hamengue...

Partido aurretik ixeten zan beti *una sopita, merluza y un poquitin de carne*. Beti hoixe, beti iguel gero frutie edo zeozer. Batzuk, nerbiosuek, ez abien hartzen kafie, baia nik kafie derrigor hartu biher, kafie beti kanpora urten baño ariñau. Garaik,

por ejemplo, kasetan hartze'aben kafie eta koñaka. Beti trago bat. Esate'osten estoy nervioso, estoy nervioso, hartze'aben botellie, ahora, ahora veremos!

Gaur egunien eñ ezker, doping... Kontrolik ezeuen orduen, baia hartu be ezkañun eitten, batzuk ardaue edate'abien, nik eztot edaten ardaurik, batzuk bai... Zuk garbidxe jateko badekozu, nahikue da. Guk ezkañun jaten fideorik edo espagetirik... Jueten giñen astelehenien edo martitzenien zerera... zelan deko izena, kilo bat eta erdiko txuletie jaten beti, Berrizera, hiru lau edo bost jueten giñen, han txuletie jan, da ederto...

Oñ eztozu ikusten zelan dauzen? Eskeletiko. Holakorik eztogu eñ, eta ordu t'erdi ibiltten giñen aineketa geldittu barik. Oñ ikusten dozu... sei partido jokatu dabie eta indderra falta dxakie. Ia nok irabazten dauen...

Txanpion

Neu'pe jokatu dot txanpion, Manchesterri irabazi geuntsenian lesionau nitzen ni. Emo'ostien ostikada itzela han...

Hamen, bost da hiru, edurraz... Edurra, honetaraixeko edurraz jokatu gañun, *cinco tres*, esat'abien *el mejor partido que se ha jugau*... Zerak markaute egon zien pintura gorridxaz, eta baloie ixen zan gorridxe, ze edurraz ezin zan, gorridxaz bakarrik... Manchester United ona zan, kanpeoie zan Inglateran orduen, eta hamar internacional bai... Hamen irabazi gañun bost da hiru, eta han galdu gañun bi ta bapez. Kanbidxau ei'oskuen, diabruek, hamen zelan ikusi'oskuen itzeleko ekipue giñela, Old Trafford eukien baia kanbidxau abien Manchesterren kanpo txar batera, kakatzie ta ure...

Garaik emo'osten pelotie apurtxo bat labur, eta delantero zentruie ixen zan *noventa tantos kilos*, jode, ta banue hartzen da jote'oste, ta belaune apurtu osten. Baia ensegida kurau osten, hogeta bat egunien; derrigor sartu biher Athletire, ze kanpeonatuen lelengo juen gintzezan-da... Miñek asko, baia Oromiñoko erre kara hankie sartute, urek itzeleko hotza. Oñ *hielo* emoten dabie, ez? Lehen Oromiñoko errekie, Oizeko ure... Medikue ona eukin naben nik, Mujika, *Date hielo*, es'osten. *Date hielo?*, *tengo el rio helau*. Nire golpiek eta danak hantxe kuretan zien, Oromiñoko errekan. Lesiño gitxi eukin dot, hartu baño lehenau neuk emoten naben. Fuertie ixen nitzen, argala, baño rapidue.

San Mamesen jeneralien uraz-eta jausi eitten zien. Baia kanpora jueten giñenien dana siku-siku, ta bedarra altue. Dana estudidxaute, eta listuek. Bedarra ixeten zan, oñ *hierba sintetica* fazille da, jentie ezta sakrifketan lehengo moduen... Oingo *jugadoriek* sakrifizidxue zero. Guk bizikletan, trenien... Dirue apur eindde, kotxie, kotxe txiki bat erosteko.

Kanpeonatue ospatu guk kamioiaz. Gabarra gero ixen zan, Clementegaz. Semie'pai, semie gabarran etorri zan... Gu kanpeoi ixen giñenien, San Mamesen ixen giñen kanpeoiek, San Mamesetik Aiuntamenture kamioien. Beste kanpeonatuetan be, hemendik Arrianditik pasau giñen, Zorrontzan gelditu txanpana eraten, Durungora... Ni neu kamioien. Oñ abioien etorten die, eta gabarran, baña gu kamioien.

Partidorik partido autobusien ibiltzen giñen, beti autobusien. Behin abioien eukin gañun Jaenera jueteko asmue, abioireko entradak hartute, baia eguenien ja autobuse arreglau abien, eta billeteik abioienak direktibuek hartu abiezan. Gu autobusien. Eta abioie jausi ein zan, Madrileko aldatzien-edo, jausi ein zan, eta erdidxek hildde. Escudero famatue, eta andrie zazpi hillabeteko umiaz sabelien... Horretan abioen geu ixen giñen jueteko, kontue ataraixu... Hill ein zien, gitxi salbau zien. Jo, markie...

Athletidxek beti eukin dau ambiente itzela. San Mames zaharrien ezan entradarik egoten edozein ekipo etorten zanien... Gu baño afiziño *sintzeruaue* zan. Oin baño zarata gitxiau, oin irabazten ezpozu eztozu balidxo. Lehenau ez, lehenau lagundu eitte'oskuen asko... Eta Athletidxe beti markaute, beti markaute egon da... Bizkaitarrak ginen, guk jokatu gañunien, danak giñen Bizkaikuek. Jugadorien artien anaidxen moduen konpontzen giñen, eta bertakuek, eta beti euskeraz... Pasetan da, gero, jueten zara urtietan kanpora ta...

Athletidxe *kanpeon* ezta ixen Durangoko bi edo hiru jokatzten egon ezik. Bi edo hiru... Athletidxe ixen da kanpeoie durangarrekin. Arieta, ni... Oin eztabie kasurik eitten horrena, ta ezta kanpeonatorik irabazten... Oveja, zelan die pas-teleridxakuek? Garate... Hemengo beste bi be... Hamasei urte Athletidxen ein nabezan jokatzten. Sei kanpeonato da, bueno, ekipo ona euki naben da, pozik handixik...

Nire ordeiz Iribar etorri zan gero, Iribar egon zan suplente urte bat edo bi neure zerien, baia nik ja hogeta hamasei urte eukin nabezan... Iribar sartu zan, eta ni juen nitzen Españolera... Españolera juen, baia Athletidxek ez osten ixten, eta diru asko hartu aben nigaittik, ni Españolera juatiarren, ni ixtiarren jueten. Neu'pe kanbidxue, hainbeste urte leku baten, beste leku batera... Baia penie emo'osten, Athletidxe diferente da...

Españolien Alfredo Di Stéfano

Kopa, Rial, Di Stéfano, Puskas, Gento, delantera mundial-mundiala gure kontra Madrilen kontrako finalien... Igual korner bat botateko etorten zan neure ondora Di Stéfano ta, *Qué prima teneis?* Nik, *cincuenta*, eta berak, *yo trescientas ochenta*... *Pues te vas fastidiar, porque te vas a quedar sin trescientas ochenta*. Berak,

hijo de la gran puta! Finala irabazitte gitxi emote'oskuen, baia nahikue harexaz familidxe mantenietako. Gaur milloiek irabazten die...

Di Stéfánok bai irabazte'aben, bera zan gehidxen irabazte'abena, baia gu emo'oskuenaz pozik... Neure lagune ixen zan da, gixajue hildde dau, baia beti eukin dogu itzeleko zera, eta seme guztidxe ezetzen nabezan, andrie be bai... andriek botate'aben maldeziñue bera'pañño gehidxau... Eta berak botat'abezan, badakixu zelakuek diezen horkuek, argentinuek.

Españolera juen nitzen jokatzén. *Espanyol de Barcelona*, ta han lau urte ein nabezan Di Stéfánogaz, Di Stéfano be Madridetik Españolera juen zan da haixegaz, harek hiru urte ei' abezan da nik lau urte. Da ondo, ba, fubolien... Internazional be askotan, internazional eta hortxe zerien, ezin gara kejau...

Bartzelonan bizi giñen, seme gaztie hantxe jaidxo zan... Bilbora eziñ izan giñen etorri, ze aireportue edurraz beteta egon zan, ta hantxe jaidxo zan bigarrena... Di Stéfano be neugaz, ha be familidxaz eguen, eta guztidxeekin. Jente ona ixen zan. Bueno, kanpo fubolien txarrena zan bera, *horroroso*... Nik esate'notsen, *Oye Alfredo, no pueden jugar como tú, no pueden, tienes que tener un poco más de calma, como tú hay uno, tú...* *Es que me bajan con nieve, todas las pelotas me mandan arriba y me bajan con nieve, y yo no puedo con eso...* Baina, fenomenue zan. Astelehenetan, katalanak ez, bost edo sei ixen gintzezan hemenguek edo hanguek eta juntaute bazkaitten jueten giñen beragaz... Berrogei urte euki abezan eta posturie eitt'aben beti berrogeita hamar metroko karrerie, *cinco mil pelas juego*... Eta etorten zien, da beti irabazte'aben, eta debalde jate'aben, ze beti irabazte'aben, berrogei urtegaz eta danei irabazi... Debalde jate'aben astelehenetan.

Bera zan hoberena, *el mejor*, lehenau eta geruau be hoberena, nik ikusi doten hoberena behintzat.

Ameriketan

Españoletik *Estados Unidos*era, han jokatu naben urtebete. Baaiii, *Estados Unidos*era, *oseake vida completa*... Handi'pe eske etorri zien. Españolien akabau naben kontratue da beste urtebete gure ixé'ostien firmau, hango presidentie itzeleko lagun ona ixen zan da esa'osten aber *Estados Unidos*era juen gure doten, da, ba bueno, da berak... berak abioien erue'osten haraño bertaraño... Da firmau naben urtebete.

Estatu Batuetako ligan jentie ona ixen zan. Ni juen nitzen urtien, hónek jugadoriek jaleue euki' abienak euren ekipuen, danak haraixe jueten zien, baia ekipo ona, ondo jokatzé' abien... Da kanpue, kanpo-fubola zerien... beisbol kanpuetan jokatzén gañun...

Baia txarra, joe... gaur hamen jokatu, gaur Kanadan... Kanadan jokatu gañun... lelengo partidue, ta joeee, *nueve bajo cero*... beratzi, ai amaaa, hango hotza, enaben jokatu gure ixen... Baaai, juen nitzen da kalefaziñuaz kanpue... kalefaziñue, ta irabazi gañun... Da bigarrena, jokatu gañun Los Angelesen *con treintay ocho grados*, kontue atara'ixu... *Nueve bajo cero... treintay ocho grados*...

Los Angelesen egon giñenien, geure hotelien egon zan Kennedy... Kennedy anaidxie, ze, irabazi aben ja, e... bera ixen zan ja irabazi abena eleksiñuetan askogaittik puntuaziñue... Hamabidxetan jokatu gañun guk partidue da irabazi geuntsen hiru eta zero, da hotelera ez oskuen itxi sartzen, da hotelien, bertan hill abien... Hantxe luntxien, itzelezko luntxie da, batek pum... da hilldde... Bai akordetan naz zelan hill abien hantxe geure hotelien...

Ameriketara bakarrik juen nitzen. Andrie eta semiek, hamaika urte da zortzigaz, eskolan, Jesuitetan hamen Durangon, edade txarra, ta ezin leike mutikuokin... *Setenta edo setenta y unon* juen nitzen harantza, urtebete bakarrik egon nitzen. Ostantzien, biximodue ondo, baia beti, zelan hiru partidu jokatzen zañun astien, ba, beti biajien... Beti biajetan, beti ederto, ondo portau zien, txaletak eta... Joe, itzeleko jaleuak egon zien ni juen nitzen leku guztidxetan... Hónek bal-tzak, balzak kalien da, jo... Baia, fubola ederto, fubola ederto baño edertuau... Txarrena ixen zan beti abioie, hamendik Idxorretara jueteko be abioie... Beti abioien, *mekaguen lamar*. Iguel egoten gintzezan aireportuen da hogetamarra, gure abioei hogetamarra, da miñutu bien moduen, pun-pun-pun... Da handik bestekaldetik be, pun-pun-pun, bajatzen zien, aiii amaaa... Niretzat, abioie, jo... Neure bizi guztidxen ibili naz abioien, baia atzenien be, jo... *Estados Unidosen* firmau ingo ostien beste urtebete, da esan notsien, *ni hablar*, banue hamendik. Etxera nue, etxera semiek eta familidxi az. Kanpeon ixen nitzen ganera Estados Unidosen, baia beti abioien ibiltteko, abioien, abioien, egun guztidxetan abioien, da enaben gure ixen gehidxau ibili.

Handik etxera etorri nitzen...

Entrenadore

Etorri da esamiñak euki nabezan Madrilen entrenadore ixeteko, esamiña bat bakarrik falta dxaten Madrilen, da bota ostien kartie, *si no vienes pal quince de septiembre se perdió, no vale*. Da etorri nitzen, baia akabaute ja ligie, handik etorri nitzen, juen nitzen esamiñera da lelengo urten naberen. Da hortixik entrenetan... Barakaldo, Cultural Leonesa, Celta, Murcia, Balompédica Linense da bueno, ondo, ederto entrenetan. Berrogeta, berrogetabat urte euki naberen ondiño, jokatzeke ondo ondiño, ondo ibili nitzen, baia entrenetan hasi nitzen...

Athletidxen, nire entrenadore, onena Daucik ixen zan, ligetako bat irabazi gañun beragaz. Brasileño bat be eukin gañun... Pamplonako bat be eukin gañun, Albeniz, Albenizegaz irabazi gañun 58kue Madrilegaz... Beste bat Galdakaokue ixen zan, gerran martxau abien Iraragorrik eta hórrek Ameriketara, eta honek Argentinan jokatu aben... Athletidxe ez da ixen entrenadorie asko kanbidxetakue, etorten zanien baten bat lau edo urte geratzen zan...

Bueno, ba, ni be entrenadore. Eta ekipuek ein nabezan asko kanpeoiek... Barakaldo, Leonesa, Celta de Vigo, Murcia, hórrek danak. Baia, bueno, akabau zanien, fuera...

Bizi guztidxe futbolien. Txarra da bizi guztidxe futbolien, baia entrenadore, buuuuu... Galtzen dozunien, ezin zeinke juen kaletik oñez... Txarra da, danak beti... Resultaue da balidxo dauena e... Irabazten b'ozu, ondo. Baia, galtzen b'ozu, kulpie zeuk...

Portero

Lezama portero ona zan, nik ezautu duan onena... Bueno, Bilbok porteruek eukin dauz onak. Lezama ixen zan fenomenala, pasau zan ez zala erregularra... emote'otsen batzuetan... Euki aben suerte txarra, Valladoliden jokatu gañun, eta bota aben batek areatik kanpotik txute fuera, fuera, baia jo aben largerue eta gola barrure... Hortxe hasarratu zan entrenadorie, ta eukin nabien suertie neuk urtetie... Baña Athletidxek portero onak eukin dauz beti. Hamengo porteruek, Euskadikuek, danetatik onenak ixen die, Arkonada-ta... Lehenau portero onauk ixeten zien, baña ez abien periodikuek-eta esaten hau edo bestie, etxakien hain-beste inportantziarik emoten porterueri. Gero, Iribar eta, sartu zien beste batzuk, Iker Casillas-eta, baina lehenau golak sartze'abiezenak altzeta' abiezan, porteruek beti atzien.

Dana dala, porterue da leku txarra, porterue da lekurik txarrena. Partidu guztidxen ibiltzen zara fenomeno gelditzen, atzeneko minutuen uhh tripapetik sartzen dxatzu bat, eta kulpable, letra guztidxekin... Porterue da ekipotik puestorik txarrena. Beti problemak, beti zauz nerbioso, beti zauz fijetan, zarata eitten, koloketan... Baia, horixe, hortxe balidxoko gañun-de... Eta semie be portero, eta oin deku beste nietue, ta portero, Andoniren semie portero... hamalau urte dekoz, baia porteridxan dau zerien, unibersidadien... Porteruek erresponsabilidade itzela deko beti, bestiek aiñeketan dabiz eta, baiña porteruek handik paluetatik ezin martxau... Harrikadak, zerak, insultuek, danak hartu doguz be bai, pasau doguz danak, danak.

Penalti asko gelditu naben, *elamo*. Kubalak, *en doscientos y algo penaltis*, ez aben sekule fallau, eta neugaz fallau aben, neuk geldittu notsen, finalerako gero Madrilera juen giñenien. Gustetan dxatezan penaltidxe, baia orduen etxakon emoten inportantziarik porterueri... Oingo moduen ikusi ezkerro telebisiñotik! Nik, hotelien juen da preguntetan notsen kamarerueri, *Quien tira los penaltis?*, *A dónde tira?* Kamareruek hoteletan beti eskatze'oskuen inbitaziñoren bat eta... *Siempre tira a tu derecha*, ta hoixe... Oiñ bideuen ikusten diez gauzak, oingo porteruek itzeleko faborie dekie, ze ikusi eitten die telebisiñuen zelan joten dabien, lehenau ez... Onenak ixen gara gu, ezer ikusi barik be geldittu... Nire bitrinan badekot omenajien emo'ostien zera, lelengue ixen nitzelako geldittu abena Wenbleyn penaltidxe... Baia, badakixu, ni Karmelo nitzen, Oromiñokue...

Amak eitte'ostezean niri guantiek. Sei pare edo zazpi urtien gastetan nabezan, amak eitte'ostezean, itzelak, eta haixekin... Eta pelotiek ez osten eskapetan eze-gaitti'pe. Oin zelako guantiek erabiltten dien, balidxo dabie *larrepera*, eta beti dekie baloie eskapetan... Amak galtzak eta danak eitte'ostezean laniaz, ardidxen zeraz, Oromiñon, uraz apurtxo bat eiñ, eta fenomeno...

KARMELO ETXENAGUSIA

Denda nagusien agindupean bizi gara



Iraia Okinaren marrazkia.

KARMELO ETXENAGUSIA (1932-2008)

Carmelo Echenagusia Uribe 1932ko apirilaren 24an jaio zen. Gaztañatza auzokoak ziren gurasoak. Gerra zibilarekin, 5 urte zituela, Etxebarri aldera alde egin behar izan zuen familiak. Iurretako Ertzibengoa (*Ertzimingo*) baserrira itzuli ziren gero.

Artean, Gasteizen eta Comillaseko Unibertsitatean ikasketak eginda, Begoñako elizan ordenatu zen 1955ean. Bizkaiko elizbarrutian jardun zuen gero goi mailako karguetan. Atzenean, Bilboko Gotzaina izan zen 13 urtez (1995-2008). Auto istripu batengatik kaltetuta bizi izan zen azken aldian, harik eta Bilbon hil arte 2008ko hazilaren 6an.

Euskararen alde lan eskerge egin zuen gerraoste luzean, Elizari uzten zitzaizkion pribilegioak baliatuz horretarako. Derioko Seminarioan batez ere, euskara bultzatu eta Labayru Institutu garrantzitsuaren sortzailea izan zen, Mikel Zaraterekin batera. Lan handia egin zuen euskara irakasten, liturgia euskarara itzultzen, eta euskal irakurgaiak prestatzen ere.

Inportanteak izan ziren berak prestaturiko testuen bildumak, lehenengoak multikopistaz argitaratu ziren Derion, ezagunenak dira ediziook:

Euskal idazleen lorategia, Itz lauz, Izarra irarkola, Donostia, 1969.

Euskal idazleak bizkaieraz: antologia, testu azterketak, ariketak, Labayru ikastegia, Bilbo, 1980. (Jon Kortazar & Aitor Etxebarriarekin batera)

Iparraldeko euskal idazleak, Labayru ikastegia, Bilbo, 1981.

Karmelok berak euskaraz idatzitako testu sakabanatuen bilduma eder bat prestatu du Igone Etxebarriak. Eta biografia bat ere bai.

1. Karmelo Etxenagusia, *Euskerea nire bizitzan*, Labayru ikastegia, Bilbo, 2003.
2. Igone Etxebarria, *Karmelo Etxenagusia Uribe*, Bidegileak, Bilbao, 2009.

HERRI MAITE HORI!

Nire herriari lurreta deritxo.

Askorentzat, beharbada, inoiz entzun bako izen iluna. Baleiteke... Begira, adiskideok, neuri be zer jazoten jatan.

Guztiok, nire ustez, zeuon jaioterria bihotzez maiteko dozue: neuk be holantxe maite dot neurea ume-umetatik.

Halanda guzti be, baina, behin baino gehiagotan lotsaz gorritu jat aurpegia, nungoa nazan aitortzean. Hara zer jazoten dan.

Bazoaz hortik zehar zeure herri inguruetatik kanpora; esate baterako, bultzian. Aurrez aurre, ezezagun bat, ixilik; itxuraz euskalduna. Halakoren baten, bata-hesteari:

—Eguraldi ederra, ezta? Eguzki epel osasunkorra...

—Bai, ez dago txarra, aspaldiko ordeztasun...

Eta hortik hasten gara jardunean:

—Gazte, nungoa zara zu, Gernikakoa?

—Ez, jauna, lurretakoa...

—Nungoa?

—Lurretakoa...

Ez dot neure bizian izen hori entzun; basomorturen baten galduta egongo da haren baten...

Ta nik, apal-apal kanpotik, haina negarrez bihotzetik, dinotsat:

—Ez, ba; Bilbotik Donostiara doan bide nagusiaren erdi-erdian dago. Baina gaur, egia esan, Durangoko zati bat baino ez da...

Beste batzuk gure bultziko ezezaguna baino lotsagaldukoagoak izaten dira:

—Txo, nungoa haz ?

—Lurretakoa.

—Je, je... Lurretakoa! Hori ez dok herria. Durangoko auzuna txiki ganorabako bat baino... Gizonak lotsatu be ez iturri zikin bategaitik euren herria saltzen!

Eta barre egiten dabe, adurra dariola. Orduan beti jatort gogora neure auzoko bateri behin entzuniko esakune sakon bat: «Tentela beti harroputz».

—Zer ba Kazintxo, ez da egia, ala, lurreta Durangori iturri bategaitik saldu zala?

—Ume, inoiz ikusi dozu seme bat bere ama iturri bategaitik saltzen? Nik, urte batzuk badaukadaz baina, ez dot holakorik inoiz entzun. Baina behin baino sarriago

beste gauza bat ikusi dot, zoritxarrez, antxinako esakune zaharrena: «Arrain haundiak, txikia irunsi». Ta ume, arrainak ezeze, gizonak be beste hainbeste; nagusiak txikia menperatu; uri haundikiak, alboko herriak jan. Durangok lurreta... arrain haundiak txikiari zer? Irunsi, eztok? Ba... beste horrenbeste.



Ertzimingo baserria (Iñaki Irazabal).

EUSKERA NIRE BIZITZAN⁴

Zu, Karmelo, Iurretan jaio zinan, eta orduan zuenean euskera hutsa egingo zan...

Bai, Ander, halan da, orduko euskal etxeetan ohi zan legez. Nik gurean euskera hutsa entzun eta egin izan dot beti. Gure gurasoak biak ziran herri eta auzo be-rean jaiotakoak (Iurretako Gaztañatzen), eta euren artean ez eben euskerea baino beste berbetarik erabilten. Sekula santan ez neutsen gure gurasoei alkarri erderaz berba egiten entzun; inoizkoren baten egitekotan be, euren aurrean erdaldunen bat egoanean izango zan, erdaldunak be ulertu egien.

Eta erdera jakin baekien zuen gurasoak?

Jakin... jakin, bai, eta polito, orduko denporetan izateko. Amak aitak baino hobeto. Erderea ulertu biak egiten eben, bape eragozpen barik. Eta ez zan hori mira egitekoa: etxe euskaldunetan jaioak izan arren, biak ziran erdaldunen artean be bizi izandakoak. Gure ama luzaroan egon zan Bilbon eta Bilbo inguruan neskame («krixeda» esaten da gure herrian): hamaika-hamabi urtekoa zala joan zan herritik kanpora lanbide horretara, eta ezkondu arteko urterik gehienak hortxe eta horretantxe emon zituan, hainbat erdal etxetan. Ezkondu eta gero be, sarritan joaten zan negu aldian Bilboko plazara, bendeja saltzen (porrua zan, gehienbat, gure amak saltzen ebana), eta baita Durangokora be, urte guztiko zapaturik gehienetan; eta holako lekuetan erderea zan nausi. Erderaz berba egiteko erreztasun handi samarra lortu baeban be, batzuetan izaten zituan halako «hanka-sartze» nabarmen batzuk, batez be erdal berben «jeneroakaz». Gure aitak, oster, gitxitan urten eban euskal berbetearen ingurutik: gatzetxu zala, morroi egon zan okindegi baten Gizaburuagan eta Gernikan; gero Durangoko lantegi handi baten, «Hijos de Mendizábal» eritxonean, sartu zan langile, eta horkoxe behargin zala heldu jakon heriotzea (54 urtekoa baino ez zan hil zanean). Lantegi horretan euskaldunak asko ziran, baina erdaldunak be ez gitxi; eta gure aita zanak erderaz be polito ikasi eban, bere anaiarik gehienak baino hobeto. Soldadutza Bilbon egin ei eban, San Frantzisko kaleko kuartelean, eta horrek be emon eutsan erderea ikasteko ere.

⁴. Ander Manterola interlokutoretzat hartuta, 2002ko uztaillean idatzitako elkarrizketa luzearen lehenengo partea. *Euskerea nire bizitzan* liburutik.

Orduan zuenean, umetan, beti euskeraz...

Bai etxean eta bai auzoan ez genduan besterik egiten. Hiru bizitzako baserria zan gurea, «Ertzillbengoa» izenekoa, Bilbotik Donostiarako kamino nausiaren ondoan dagoana, aldatz txiki baten erdian. Teilatupe berean bizi ginan hiru familiok hirurak ginan euskaldun garbiak. Gure «handiko» familia biak, erdera kontuan, gure gurasoak baino askozaz atzerago egozan: euretariko gehienak gitxi eta txarto egiten eben erdera. Gure auzoan nire umetako lagun guztiak be neure antzera egozan. Hori holan dala, gure bizimodu osoa, gure hartuemon eta barriketa guztiak, bai etxean eta bai auzoan, euskal giro hutsean egin behar.

Noiz izan zenduan erdereagazko lehenengo hartuemon?

Ba esango deusut: gerratean, 1937. urtean, ni 5 urte eginbarriko «ume moko» nintzala. «Ebakuazinoa» zala-eta, ilunabar baten Etxebarriko «Zubibarri» ondoko etxe batera eroan ginduezan, kamioi zahar baten ganean pilatuta. Gure amaren nebarik zaharrena –Asentsio «panaderue»– han bizi zan, eta beronen etxean hartu ginduzan gu lauok (gurasoak eta anaia biok) eta Iurretako beste senide batzuk, ganadu ta guzti.

Erdi baserri, erdi kaleko etxea zan, korta ta guztikoa, eta bere ondoan soloak be baeukazan. Bilbotik Madrilera doan kamino ondoan egoan, aldatz labur pike baten hasieran; Arratiako tranbia be etxe ondo-ondotik igaroten zan, beti zaratatsu.

Baina zuen osabearenean euskera egingo eben...

Ba... ez. Gure osabea baserriko semea zan, Iurretako Gaztañatza auzoan jaio ta hazia, eta euskerea geuk lez ekian. Haren andreak, Etxebarriko alabea izanik, euskera jakin baekian, baina erderaz erreztasun gehiago eukan, eta etxean, bai senarragaz eta bai lau seme-alabakaz, erdere baido ez eban erabilten. Nire 4 lehengusuak, ni baino 5-10 urte zaharragoak, euskerea ia ulertu be ez eben egiten. Ganera, inguruko kale-giro haretan, erdere zan berbeta bakarra. Harritzekoa bada be, etxeke amama zaharrak berak, gure izekoaren amak, erdera txarto be txarto egin arren, ia besterik ez eban egin gura izaten, ez etxekeakaz ez gugaz. Erdereari dotoreagoa edo eritxon, antza. Ez dakit ziur zenbat denpora emon genduan «ebakuazino» horretan: pare bat hilabete edo izango zan guztira, lehenengo Zubibarrin eta gero Bilbo barruan, Irala kalean...

Eta zuk, erdal giro horretan, erdera ikasi...

Ba, bai. Danak eskuen puntan erabilten ninduen ni, hango seinia edo umetxua neu nintzan eta. Ez dakit zelan, ez zergaitik, baina barrero etxera bihurtu ginanean,

ni ia «erdaldunduta» nengoan: erderea polito ulertzen neban (adin horretako umetxu batek egin daiken neurrian), eta egin be, tira, zaletasun handiaz egiten neban, maisutasun handiaz ez bazan be. Gero, oster, etxera bihurtutakoan, etxe barruan eta auzoan barriro euskerea baino besterik ez neban entzuten eta, laster moteldu jatan ikasitako erdera hori, eta euskera hutsean izaten zan etxeko ta auzoko bizimodua. Orduko denporetan, dakizunez, gaurko irrati eta TV-rik be ez egoan, eta erdereak bitarte gitxi aurkitzen eban gure artean sartzeko.

Eta eskolan zer?

Gure herrian, orduan, Herriko Eskola bat baino ez egoan, eleiza aurreko plazan; horrezaz ganera, beste hiru auzo-eskola: bata Orozketan, bestea Amezketan, eta hirugarrena Orominon. Nik Herriko Eskolan egin nituan lehenengo urteetako ikasketak. Lehenago ezin eta –danentzat lekurik ez egoan–, sei urte ta erdigaz edo sartu nintzan ni eskolan. Ordurako, etxean ikasita, eskolako hainbat gauza nekian: zenbaketa, irakurten, zirriborro batzuk egiten. Etxean neukan, zorionez, maisu ona...

Nor zan irakaslea, aita ala ama?

Ez bata ta ez bestea: neure anaia bakarra, ni baino ia lau urte zaharragoa. Gurasoak aginduta, nire anaieak bere ikasletzat hartu ninduan, eta nik gogotsu ikasten neban, egia esan. Ikasteko beti da gauza ona zeu baino gehiago dakian bat aldemenean eukitea.

Baina eskolan dan-dana erderaz ikasiko zenduan...

Jakina, orduan ez egoan beste ikasbiderik. Zenbaketea euskeraz be ondo ikasi neban etxean. Gogoan dot zelan handiko sutondoan, erdi olgetan, hango amama zaharrak esaten eustan: «Erdi, ume, jarri hemen sutondoan, eta ea zenbateraino dakizun kontetan...». Eta han hasten nintzan ni «bat-bi-hiru-lau»-ka. Ehuneraino heldu nintzanean, maisu handitzat euki neban neure burua. Gauza barragarriak be irakatsi eustezan:

*Bat, bi, hiru ta lau,
Txominek andrea falta dau,
horma zuloan topau dau...*

Baita beste hau be:

*Hiru t'hiru sei, hiru bederatzi,
hamar hemeretzi, bat hogei...,
kiskillu ta miskillu hirurogei!*

Auzoko ume lagunok be euskeraz egiten genduzan geure kontuak. Hara: behin baten umeok kamino nausian olgetan genbiltzala –orduko denporak! Gaur egin behar hori!–, hor non datorren eskeko bat, eta itanduten deusku: «*Chavales, ¿cuántos kilómetros hay de aquí a Bilbao?*». «*Veintidíes*» erantzun eutsan berehala gutariko batek. Guk orduan euskerea erderatzen genduan; gaur, oster, erdere a euskeratu ohi da.

Eta Herriko Eskolan be erdera hutsean?

Jakina! Gerrosteko urteak urte onak ziran, ba, izan be, eskola barruan euskera egiteko! Bat izan ezik –geure herriko semea zan D. Nikolas Zuazo–, beste maisu guztiak erdaldun garbiak izan nituan; bai izatez eta bai euren gogoz, erdaldunak eta erdalzaleak. Hori holan dala, eta legeak be horixe zorrotz aginduta eukalako, eskola barruan ez genduan guk euskeraz ezer ikasten, ezta berbatxu bat be euskeraz entzuten. Gogoan daukat, esate baterako, zapatuetan errosarioa errezaten genduala eskolan, baina haxe be erderaz beti. Kristinau Ikasbidea («dotriña») be eskola barruan dan-dana erdera hutsean. Maiatzean, eskola aurrean geunkan parroki-eleizan, eskola-ume guztiok, bai neskato ta bai mutikook, alkarregaz Andra Mariaren «Lorak» egiten genduzan, baina dan-dana –kanta ta guzti– erdera hutsean. Egia esan, Herriko Eskolatik kanpora, beste eskola «partikular» batera be joan nintzan urte batzuetan, gehiago ikastekotan. Hango «maistrak» ahizta bi ziran, euskaldun garbiak biak eta abertzaleak, geure herriko alabak; baina hantxe be eskola barruan ez zan erdere baina beste hizkuntzarik erabilten. Biak gerratean Inglateran egondakoak ziran, eta ingles apur bat be irakasten eben, norbaitek hori ikasi gura baeban.

Eta eskolatik kanpora zer?

Atetik urten ordukoxe gure artean euskerea baina besterik ez zan egiten eta entzuten. Alper-alperrik zan guri maisuak sarritan gogor egitea: «*Tenéis que hablar en castellano; tenéis que aprender castellano, para no ser unos burros*». Guk, munduko bazter guztietan ohi danez, geure inguruan ikusten eta entzuten genduana egiten genduan: etxeko eta herriko berbetea.

Baina, Karmelo, gerroste horretan, eta Durangotik hain hurrean egonda, erdereak ez ete eukan ezetariko eraginik Iurretako euskaldunen artean?

Gerrostea aitatu dozu, eta danok dakigu zelakoa izan zan hori gure euskerearentzat: hau sekulan baina umezurtzago gelditu zan... Eta Durangon, Bizkaiko beste herri hazitxuetan lez, aparteko indarra hartu eban orduan erdereak. Du-

rangoko eleizetan be ez zan euskerazko barbarik entzuten, nahiz eta durangoar askok euskera jakin eta ganera albo-herrietako hainbat jente joan eleizkizunetara (esne-saltzaileak, merkatariak, bendejerak, baserritar goiztarrak e.a.). Kaleetan be erdereza zan nausi bakarra: gerra aurreko durangoar gehienak euskera polito baekien be, gerra inguruan Durangon jaiotako umeak eta gaztetxuak ez eben euskerarik egiten. Txarrago dana: jakiteko borondaterik be ez eukien. Euskerea baserritarren berbetea zan, ez kaletarrena, gehienen ustez. Sarritan ikusten genduan: guraso biak euskaldunak izan eta etxean euren artean euskera egin arren be, umeak ez eben euskerarik ikasten. Eta, esango ete dot? Guraso asko pozik, umeak bide horretatik ikustean, eurak baino erdera gehiago ekiela-ta...

Eta eurak baino erreztasun gehiago izango ebela gaurko mundu erdaldunduan bizimodua atarateko.

Bai, hori be egia da eta gogoan hartu beharrekoa. Orduan eta gaur ez doguz gauzak begi bardinez ikusten... Beste arlo askotan lez, honetan be orduko gauzak ez doguz gaurko begi zorrotzez aztertu ta epaitu behar, nire ustez.

Eta Iurretan zer?

Iurreta, herri legez, orduan Durango zan, Durangogaz bat eginda egoan, Durangoren auzo bat baino ez zan, ordurarte beti eleizate izandako gure herria. Egia esan, iurretarrok ez genduan sekula santan hori ontzat hartu eta geure nortasunari sendo eusten ahalegin handiak egiten genduzan. Durangogaz bat eginda bagengozan, hori legez holan zan, baina ez geure borondatez: Durangok iruntsi egin ei eban Iurreta, ni jaio baino urte gitxi batzuk lehenago. Nekez esango eban iurretarrak batak bera Durangokoa zanik... Baina Durango moduko herri erdaldundu bat hain hurrean izateak ez eutsan mesede handirik egiten iurretarron euskereari. Geure bizimodua, neurri handi baten, Durangon egiten genduan: lantegiak, dendak, merkaturak, eskola nausiak (Maristena, jesuitena, monjen ikastetxeak...), jolastokiak, trenak eta autobusak, e.a., dan-danak Durangon egozan. Hori holan zala, eta herri handiak txikietan izan ohi dabenez eraginaz, ezinbestekoa zan hango erdereak eta erdalzaletasun biziak gure artean be indar eta eragin handia izatea.

Esango zeunke zehatzago hori zetan agertzen zan?

Ba, begira, Ander... Erdera jakitera behartuta ikusten genduzan geure buruak, giro haretan eroso bizi ahal izateko. Zenbat baserritarrek ez eban erdereza ikasi lantegietan, eguneroko plazan, dendetako hartuemonetan! Gero, modak itsu-itsuan

ontzat hartu ohi dira-ta, erderearen modea be holantxe sartu zan aldi haretan gure artean. Eta gure gazteak, neskak be, erderea ikasteari eta egiteari emon eutsen, euren buruak baserritar agertu ez egitearren. Euren baserrietatik kalera hurreratzen ziranerako, han ixten zituezan bazterren baten euren abarkak... eta baita euskerea be, oinetako barriak eta berbeta barria jazteko. Durangotik hurrago egozan Iurretako auzunak be laster hasi ziran erdalduntzen, berezkoa danez: Durango uritik hurrago, erdereak indar gehiago Iurretako auzunetan.

Eta orduko komunikabideak zer? Ez euken indarririk euskerearen kontra?

Ez handirik, nire ustez. Egunkariak gitxik irakurten zituan; eta irratarik nok eukan, ba, orduan? Telebista, jakina, asmatzeko egoan... Zinea eta kanta barriak erdera hutsean ziran beti, eta euren eragintxua izan arren, ez dot uste horren handia izan ebenik...

Herriko eskolan erderea nausi bakarra izan arren, eleizan horraitino Iurretako abadeak euskeraz egingo eutsuen...

Bai, holantxe da. Nik neuk behintzat horixe ikusi neban beti gure parrokian. Baina badakizu, ezta? Ordukoaren barri ez dakianak uste izan lei eleizako eleizkizun guztiak oso osorik euskera hutsean egiten zireala, gaurko antzera. Eta ez: orduan mezaren liturgia guztia latinez egiten zan, aspalditik inguruko herri ta nazino guztietan lez. Eta domeketako meza nausian (hamarretako mezan) parrokoak egiten eban sermoia edo homilia izan ezik, beste dana latin hutsean izan ohi zan: irakurgaiak eta kanta guztiak be bardin. «Meza isiletan» (gure herrian goizeko sei t'erdietan eta zortziretan emoten ziran mezetan) gure umetan ez zan ezetariko berbaldirik egiten. Hori bai: meza isilotan kantaren bat edo beste sartzen bazan, holako kanta euskerazkoak izan ohi ziran. Vatikanoko II Kontzilio aurreko meza guztietan –bai hemen eta bai Latin Eleiza osoan mundu zabalean– latina zan jaun eta jabe, herri-hizkerak ez euken orduko liturgian ezetariko lekurik.

Baina mezea ez zan orduan eleizkizun bakarra...

Ez, zorionez. Beste eleizkizun batzuk be egiten ziran gure parrokian eta auzoetako ermita ugarietan, eta dan-danok euskeraz baino ez: bederatziurrenak, errosarioa, Garizumako kurutzeak, misinoetako berbaldi luze zatatsiak, Maiatzeko Lorak...

Eta Kristinau Ikasbidea?

«Dotriñea», eleizan, euskera hutsean ikasten genduan; eskolan, ostera, erderaz baino ez. Hamaika urtekoa nintzan Seminarioa joan nintzanean, eta ordurako Kristinau Ikasbideko hiru mailak buruz ikasita neukazan, bai euskeraz eta bai erderaz, berba guztiak ondo ulertzen ez banituan be. Hainbeste urtetan, horixe izan zan nik euskeraz irakurritako lehenengo liburua, hiru mailatako *Kristinau Ikasbidea*. Lehenengoa ta bakarra. Gero, abadetzako estudioak hasitakoan, horixe be ez: gai guztiak erdera hutsean. Lotsagarriagoa dana: euskeraz errezetan be ahaztu egin jatan. Gurean egunero esaten zan errosarioa, afal aurretxean zein afal ostean; baina etxeko umeok, nire anaiek eta biok, errosarioa zuzentzen ikasi genduanetik, erderaz egiten genduan, gure gurasoak euskeraz erantzuten ebela.

Baina, hortik kanpora, euskal kulturea aberatsa izango zan zure inguruan. Esaterako, ipuinak, euskal kanta herrikoiak eta holakoak...

Ba..., egia esateko, ez gauza handirik. Etxean, gure aita bertsozalea zan, baina ez bertsolaria. Zirikatzaile ona beste batzuk bertsotan jarteko, berak aurretik zelako-halako bertso modukoren bat botata. Behin baino gehiagotan, Gabon eta Gabonzaharretan, auzoko gizonak eta gazteak batzen ziran gurean, afal ostean, eta eurotariko bik edo hiruk eten ezineko jardunean ekiten eutsen bertsotan. Kanpoan ate-joka hasten ziraneko, gure aita, etxe barrutik, bertsoren bategaz zirikatzen zituan. Auzoko bertsolariok, behin hasi ezkerok, nok isildu? Gu guztiok, barre-zantzoka eta pozak zorutzen, ordu luze atseginak igaroten genduzan bertsolarion ahoberokeria «zelebreak» entzuten. Bestelan, gure aita ez zan kantari ona, ez kantazalea. Beragandik ikasi neban kanta bakarra zera izan zala uste dot: «*Hator, hator, mutil, etxera...*». Gurean ez zan Gabon-afaririk hasiko, aita kanta herrikoi hori kantau barik...

Eta auzoan zer?

Auzoan be ez gauza handiegirik. Gure «handiko» Sabino agure zaharrak, horraitino, hainbat ipuin gatzbako esaten eustan, gehienbat «Peru ta Marixerenak», eta oraindino gogoan dot zelan amaitzen zituan beti, niri ziria sartu eta ernegua emoteko:

*Ipuin ipuin alamanera,
oilo guztiak laba ganera,
oilarrak korotza egin dau,
Karmelo sur-puntan jo dau!*

Ez eukan Sabinok ez boz onik ez belarri finik, baina gaur be badakit agure harek kantetan eustan kantaren bat edo beste:

*Ai ene!, Oi ene!
makailauen hazurrek
itto bihar nabe!*

Eta eurenean, andren artean, bere andrearen eta arrebearen artean, matrakaren bat sortzen zanean, gure Sabinok, hasarretu beharrean, umore onari emoten eutsan, bihotz barruko garraztasuna zertxubait gozau gurarik edo. Ondo ekian berak gauzeak ez eukana erremediorik eta, androk alkarri inon direanak esaten itxita, gurera etorten zan errenka eta, atean sartu ordukoxe, han hasiko zan kantetan:

*Batien bata,
bestien bestie,
gure etxien tanbolin barik
sarri fiestie!*

Geroago, nik abade izateko gogoia agertu nebanean –hamar urteko mutikoa nintzala–, ez eustan ba Sabinok adarra gitxi joten, ikusten ninduan bakotxean kantetan eustala, danen aurrean:

*Estudiante tunantie,
kapapien kittarrie;
holan eztala zerbitzen
Jangoikuaren legie...*

Gure «handiko» Mercedes Ibarruriko auzo bateko alabea zan, eta Gernika aldeko *Marijesiak* sarritan kantetan euskuzan. Gure herrian be antzerakoak kantetan ziran orduan, abenduaren 23ko gauean, baina Merzedesenak eta gureak ez ziran guztiz bardinak.

Eta ama ez dozu aitatu. Zer? Ez eutsun amak euskal kantarik irakatsi, ala?

Gurean, ama aita baino bizkorragoa zan kanturako: belarri hobea ta ganora gehiago eukan horretarako. Gaztetxu zala, eta orduko denporetan ohi zanez, josten ikasteko, jostun bategaz ibili ei zan etxerik etxe, aldikada baten, hako «Intxauspeko alaba dendaria» izandako aprendizaren antzera edo. Holakoetan ohi zanez, denporea emoteko, irratirik ez eta, euskal kankak erabilten ei zituezan, josteari itzi barik. Ba ekian gure amak, eta sarritan kantetan euskun harako «Herriko fiestak ziran biharamon goizean...» kanta umoretsua. (Handik urte askotara, Iparraldeko euskerea emoten hasi nintzanean Seminarioan, jakin neban kanta hori ez zala besterik J.B. Elizanbururen «Iragan besta» baino. Gure amak ekiana

eta kantetan euskuna zelanbait bizkaieratuta egoan). *Brabanteko Genobebaren bizitzea* be irakurten ei eben joste-orduetan, negarra dariola sarritan. G. Arruerena izango zan, haren baten. Eta, auzoko andra bati ikasita, Kurutzebide osoa ekian buruz, bertsotan, doinu ta guzti. (Bere bizi guztian, batez be zahartzaroan, sarritan egiten zituan kurutzeok, berak bakarrik, ezetarikolibururen premina barik). Eta beste eliz kanta batzuk be baekizan buruz, esaterako, Maiatzeko Hilean Santa Maña (Marina) ermitan kantetan zireanak... Gaur be bizirik dirau ohitura eder honek, eta antxina ez dala kantatu eusten nire auzokoak, ermitan bertan, Santa Maña egunez, Andra Mariaren kanta bat, nik orain artean beste inon entzun ez dodana:

*Ama ederra ta laztana,
zeure beharra daukagu,
hainbeste neke eta
hainbeste arrisku.
Hainbeste nekeren artean
zaindu gagizuz menpean
zerura heldu artean.*

Eta gero estrofa mordo bat. Horren antzeko hainbat kanta entzuten zan Maiatzeko «Floresetan» (guk orduan holan esaten genduan) Santa Mañako gure ermitan: zorionez, oraintsu batu ta argitaratu dauz kantu ta errezuok liburutxu dotore baten Uribeko Juan txu Zamalloak. Hortik kanpora, euskal kanten arloan, gauza handirik ez. Erderazkoak, ostera, hainbat ikasi nebazan, eskola-lagunei entzunda edo: esaterako, Mexiko aldeko «rancheroenak», eta gure gerratekoak.

Baina, zuen herrian be, eske-kantak ez zirean galduta egongo...

Ez horixe! Nausien antzera, orduko umeok be kantetan genduzan, etxerik etxe, «Abendu» eta «Santa Ageda» kantak. Eta baita umeenak baino ez ziran beste eske-kanta batzuk be: «Urtebarri», «Erregen», «Kandelerio», «Eguen Zuri»...

Beharbada gaur be ahaztu barik izango dozuz...

Zoritxarrez, urteak joan urteak etorri, memoria asko moteldu jat eta ez dodaz danak hain ondo jakingo.

Eurotariko bat esango deuskuzu?

Bat baino ez bada, egin daigun: «Erregen». Neuk dakidan moduan esango dot.

*Erregen, Erregen,
kimeletaña,
zazpi intxaur
da zortzi gaztaña.
Zotzak eta paluek
estudiantien kontuek...
Apalazijo zaldunek,
hiru Erregen egune.
Hiru Erregek/
agindu deuskue
botateko poltsiori.
Atrapa ta zizili,
sillie jo barik itzuli!*

Kantu hau be dirua batzeko egiten zenduen?

Jakina, diru barik pausorik be ez orduko ume gosekilok. Dirua esan dot, baina beste edozer be pozarren hartzen genduan: sagar zimelak, intxaurrak, urrak, txorizoa... Orduko gure goseak ez eukan mizkinkeria handirik. Gure herrian, gure ume-denporan, Urtebarri andren eguna izaten zan; Erregen, gizonena; Gabonzahar (San Silbestre), mutil zaharrena; San Sebastian, mutil gazteena; Kandelerio, neskatilena...

Eta neska zaharrena?

Neska zaharrak be baeuken euren eguna, baina orain ez dot gogoan zein zan egun hori.

Eta gaur be bardin da?

Ez, ez dot uste. Oraingo erdal moda barriak lehengo ohitura asko iruntsi egin deuskuez, eta goian esandako hori be bai. Orain, dakizunez, denda nagusien agindupean bizi gara: eurok jarten deuskue bakotxaren eguna, gure diru apurrak eskuratu nahirik.

MARIBEL AIZPURU

Belozipedotik jausita




Andrak kartajokoan *Etxandiko* atartean.

MARIBEL AIZPURU (1931-)

Maribel Aizpuru de la Torre, 1931-09-31n Igorren jaioa, Lontzi Aizpururen alaba da. Sei edo zazpi urterekin joan zen bizitzera Oromiñoko Bekoerrota baserrira.

Ikasketak egin, ezkondu eta gazte-gazterik alargundu zen, hiru seme-alabarekin: Josune, Imanol eta Karmel Arruabarrena. Enpresa bat aurrera ateratzeko gauza izan zen. Zoritxarrak zoritxar, umore on eta ilusio handiarekin jakin izan du beti bizitzen.



[BELOZIPEDOTIK JAUSITA]

Antonio Beitiko ta
Miren Trazolako,
ai, belozipedotik
jausi ziren atzo.

Erropia apurtu ta
ukondua urretu:
«Antonio», diñotso,
«ez zaitetz hestutu...».

Ramona prest dago, bai,
hori konpontzeko:
«Ukondoko zauria
neuk dotsut osauko».

Hurrengo egunean
Muniketan jaia,
Montekalbon behera
barriro jausi da.

«Antonio», diñotso,
«Ez zara azkarra,
gure kortako astoa
zoliagoa da».



[MARIBEL, NORA ZOAZ]

Maritxu nora zoaz abestiaren bertsioa.

–Maribel, nora zoaz,
gure maite hori?
–Txantxagorrira, lagun,
nahi baduzu etorri.

–Txantxagorrin zer dago
hemen ez dagoenik?
–Mutilzahar aberats bat
ezkondu gurarik.

–Zabala da zerua,
sakona itsasoa:
Gure aitu ezina
da handiagoa.

–Joxemari nahi baduzu
nirekin ezkondu,
goizetik ogi egiten
jaiki beharko dozu.

Jose Marik dirauste:
–Maribel maittia,
non bilatuko dozu
panadero hobia?

[AITATXOREN BILA]

1971n, alargunduta, umetxoei abestua.

Noia, noia, noia...
Haundia naizenean,
aita bilatuko dot
izarren gainean.

Nora, nora, nora...
Ilunabarrian,
amarekin batera
aitatxoren bila.

Laster, laster, laster...
eguna argitzean
aita bilatuko dot
lainoen gainean.



[OHARA]

Eguna luzatzearekin, otsailean, katemeak beroaldian jartzen hasten dira. «Ar eske» edo «ume eske», marruka, katuak «ogara» edo «katakara» direla esaten da.

Katua galdu jako
gure Imanoli,
dirua emongo leuke
agertzeagatik.

Belarri baltzak eta
buztana beilegi,
jaten bere badaki
okela ugari.

Gabeko hamabiak,
marmarrez katua:
nun koño sartu zara,
katu deabrua!

Katuaren erantzuna:

Unibertsitatera
zertarako joan
ez badakizu zein den
katuaren hilla...
Jolasean nabil ni
neure lagunagaz.

Laster bueltatuko naiz
zure ingurura,
Ni bakarrik ez noa,
sei katu txikiak
lagunduko dostie
berriro etxera.



JUANITO GALLASTEGI

Lambrettan



Oromiñoko San Marko ermita (Iñaki Irazabal).

JUAN BIXENTE GALLASTEGI (1933-)

Juan Vicente Gallastegui Duñabeitia 1933ko urriaren 27an jaioa Durangon. 1958ko irailaren 28an abadetu zen, Iurretako parrokiako abade laguntzailea eta Oromiño arduraduna izateko. Markina aldean ibili zen, hango Eskola Laboraleko zuzendariorde, ondoren Barinagako eta Mallabiko Gereaa auzoko abade, urteak emango zituen gero Elorrioren eta Atxondon.

Arrate Irratirako *Oiztik Anbotora* zeritzon asteroko saioa zuzendu zuen XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan. Gero hainbat aldizkaritan idatzi du: *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Alkarren barri*, *Eraz*, eta batez be Durangaldeko *Anboto*.

2011n liburu autobiografikoa publikatu zuen, memoriaz eta hausnarketaz osatua, umetako eta gerrako gertakariak lehenengo, Comillasen ikasten igarotakoak eta, abade eginda, Bizkaiko hainbat herritan izandako bizipenak gero: *Tontorretik begira: abade baten oroipenak* (2011). Koronabisaren egunetan, durangerriari buruzko idazlan bilduma bat argitaratu zuen: *Oiz eta Anbotoren kerizpean* (2021).



1964, Txistulariak Oromiñon. Ezkerretik eskumara: Jabier Sopelana, Amaia Aroma, Iñaki Sopelana, Juan Antonio Aroma eta Juan Bixente Gallastegi. Eskumako bazterrean: Joseba Elorriaga.

KLEROMOTOA

Lagun barri bategaz topo

«*Coadjutor de Yurreta y encargado de Orobio*» izan zan nire lehenengo izendapena. 1959. urtea zan. Izendapena zala eta, Gotzaindegira joan behar izan neban zeozertan. Ozta-ozta nekian non egoan.

Sartu nintzanean, ezagutzen ez neban abade bat aurkitu neban, bera be, nire antzera, bikario nagusiak barrutik noiz deituko zain. Agurtzearren, jesartzen ninoiala, «*Esperando, eh!*» esan neutson. Izan be, erdera bakarrik entzun neban aurretik inguru haretan.

Berak, irribarretxua ezpanetan, sorbaldeagaz atzera-aurreratxu bat egin, eta badineust: «Zer, euskalduna zara?». Nik: «Bai, horixe!». Berak, barriro be irribarre eginaz, eta Arratiako doinu bereziaz: «Orduan, zergaitik dinozu ba *esperando?*». «Ez deustazu minik egiten gero, bestetara baino. Ez dakizu zelako poza emoten deustazun» esan neutson.

Biok alkarregaz joan ginan gero trenean eta lagun handi egin ginan. Orduan Apatamonasterioko parrokian abade egoan Txomin Artetxe zan gotzaindegian topo egin neban abade hori.

Atsekabea hartu neban Apatatik atara ebenean, baina zelan diran gauzak!, nigandik hurrago geratu zan Ibarrurira joanda. Behin baino gehiagotan joan izan nintzan Oromiñoko dotrina-umeein Ibarrurira, Txominen parrokiara. Gaztainak eta ez dakit zer gehiago jaten eben, alkarregaz, alde bietako umeek. Orain be jarraitzen dauan adiskidetza sortu zan bateko eta besteko umeen artean.

Gero, Muniketatik behera umeak bialdu Oromiñorantz, eta Txomin eta biok Muniketako tabernara. Alde bateko eta besteko, Iurretako eta Ibarruriko abadeak etxean ebezala eta bertakoak pozik. Eta gu biok amaitu ezineko barriketaldiak egiten... ez dakit zein ordutara arte.

Handik urteetara, lagun batzuen aurrean, Txominek aurpegi iluna jarri eta hau bota eustan: «Heuk emon deustak nire bizitzako atsekaberik handiena». Nik, harrituta: «Nik?». «Bai, heuk!... azkenean neuk esan behar egun baten, edo hobeto esateko, goizalde baten, “Hi Juanito, goazak etxera!”.»

Rusia Txikin?

Inoiz eta inon zoriontsu izan banaz, nire Iurretako urteetan izan naz. Iurretako abade-laguntzaile eta, Iurreta barruan, Oromiñoko arduradun.

Batek «Rusia Txiki» esaten eutson Oromiñori, orduan esaera horrek eban esangura okerraz. Niretzat, osteraz, orduko Errusia Txiki ez eze, Zeru Handi izan zan eta da Oromiño.

Hemen liburu osoa bete daiteke nire oroipen gozoekin eta Jaunari eskerrak emon beharragaz. Zaharrak, adinekoak, eta gazteak eta umeak batez be... zelako oroipenak! Jainko maitasuna eta oraindino bizirik baina arriskuan egoan gure herriaren nortasuna zaintzeko gogoa lotzen, zenbat ahalegin! Ze pozik joaten nintzan egunero umei eskolan, euren eskola lana amaitzen ebenean, dotrinea emotera. Eta dotrinea amaitutakoan, bertan, abestiak, bertsoak, euskal alfabetatzearen hasiera...

Lambrettan jartzen nintzanean, abiada hartu orduko, han izaten neban atzeko jesarlekuan jesarrita mutiko edo neskatoen bat. Ezin, ba, bultza eginda bota, eta horregaitik, hegazkinean baino pozago joiazala, eroaten nebazan motorrean, metro batzuetan.

Hurrengo arratsaldean: «Eroango deustazu?». Sudurretik helduta, nik, «Zer eroango deustut, ba? Sudurra? Ala atzean daroazun zorroa?». Neuk be antzera ikasi neban, umetan, *deustazu* eta *nozu* bereizten.

Dantzariak eta maitemintzea

Gazteekin, mutilen dantza talde barria ikustera eta bultzatzera, eta nesken abesbatza prestatzera eta zuzentzera joaten nintzan. Eta han eta hemen antzetzuko genduzan antzerkiak irakastera. Uste dot lortu genduala euskerearentzat eta gure izaerearentzat galtzen etorren estimu urria goitik behera aldatzea.

Iurreta zeozergaitik entzutetsua izan bada, dantzariakaitik izan da. Oromiñon bertan ez ziran gogoratzen inoiz dantza talderik izan eben ala ez. Gazteak horretarako gogotsu egozanez, Durangoko Pedro Mari Andreu ekarri neutsen ezpatadantzea, aureskua, zaragi-dantza eta abar irakatsi egiezan. Ikasi eben bai, ondo ikasi be!

Negu-neguan eroaten neutsen Iñaki Sopolana, txistua jo egien. Motorrean, atzean, egiten eban hotzaren hotzaz, ez nintzan ausartzen etorri eiten esaten be. Baina, nik ezer esan barik hiru-lau egun igarotzen ziranean, berak esaten eustan ea noiz joan behar genduan. «Irunsten dogun hotzagaz, gogotsu hartu jok honek, gero!» esaten neutson neure buruari.

Laster igarri neutson zergaitik gura izaten eban hain bizirik Oromiñora joatea, edurtza handiena jausita be. Zubizarretatarren eta Sakristaueneko atartean izaten zan dantza-saioa. Maria Luisa Arroita Jauregi, hamasei urteko neskatila polita egoten zan Iñakiren atzean, euren atetik dantzarietara begira... eta, batez be, atzea emonda eukan txistulariari begira.

Handik urte gitxira, ni ordurako Markinan nengoala, izan genduan bien ezkontzea. Eta urte gitxi dirala ospatu genduzan zidar-ezteguak, Egaña eta Peña-garikano bertsolari handiak parte hartzen ebela, eta urte gitxiago dirala, bigarren semearen, Josuren, ezkontzea. Zelan joaten diran urteak!

Arriandin be, mila bederatzirehun eta berrogeita hamazazpian, ni joan baino urte bi lehenago, sortu zan ezpatadantzari taldea, nire senide dan Juan Antonio Alberdi *Pertxe* eta gazterik hil zan nire adineko Bernardo Larrinaga *Arki* irakasle zirala.

Urteetara, talde barriak sortu ebezan talde horretako Jose Agustin Belarrek, Roman Basabe nire lehengusuak eta Iurretako bertako Mikel Sopelanak.

Uztailaren hamazortzian dantzan egin behar ebela eta dantza-ikurrinik oraindino ez eukenez, Arrazolara joan ziran arrianditarrok, nire izenean, Jose Antonio Retolazagana, ea itxiko eutsen.

«*Dieciocho de juliorako?* Ezta inondik inora be! Eskatzen ausartu be!»

«Ez, baina ez da uztailaren hamazortzia dalako, Santa Maña dalako baino, Arriandiko jaiak.»

«Ah, orduan bai, pozik be!»

Oromiñon be, orduan sortutako taldekoak ziran gero gazteagoei irakasten eutseenak. Makina bat izerdi atara eban Sakristauneneko Pedro Arroitauregik, Goitiko Jose Antonio Zamalloak lagunduta, bigarren eta hirugarren taldeak sortzen.

Ez ziran neskak, dantza arloan be, atzean geratu. Orduantxe sortu ebezan talde bi, Durangoko Lidia Pérez irakasle zala.

Oromiñoko bost taldek egin eben dantzan, batera, San Markosen basiliza ondoan, nik alde eginda laster, oromiñarrak adurra erioela egozala.

Danak batera?

Iurreta bertako kofradi-auzunean etenbakoa izan da ezpata-dantzarien tradizioa, nahiz eta ez bertako kofradiako lagunez bakarrik, baita beste kofradietako lagunez be osotuta egon. Beti izan dira Oromiñoko eta Arriandiko eta beste kofradietako dantzariak Iurretako sasoi bateko eta besteko dantza-taldeetan.

Urte horreetan, aurrekoei jarraiera emongo eutsen talde barri apain-apaina lortu eban Jose Mari Zarrabeitiak, gaztetxuekin. Txonpolonean ekiten eutsen ikasten, txistulari Iñaki Sopelana ebela. Ni abade egin nintzan egunean egin ei eben lehenengoz dantzan, San Migel aurreko egunean, 1958ko irailean hain zuzen be, oraintsu jakin dodanez.

Hiru kofradiatan ezpatadantzari taldeak egozala eta, uste izan neban gauza ederra izango litzatekela, Iurreta guztiko zaindari dan San Migeletan, une baten

behintzat, herriko talde guztiak batera agertzea eta dantzan egitea. Oso egokitzat jo eben urte haretako jaien antolatzaileek asmo hori, eta hori jarri eben jaien egitarau papeletan.

Ene Maria eta Jose! Haserre be haserre jarri jatazan nire lagun handi ziran Jose Mariren ume ezpatadantzari guztiak, nahiz eta eurek ez baten bakarrik, beste ez dakit zenbat bider be, egin behar eben jaietan dantzan.

Aldi baten bakarrik danek batera egiteak izan eban arrakasteak eta zentzunez gauzak ikusteak, baretu eban haserrealdi hori. Hurrengo urteetan be, uste dot beti egoten zala herriko talde guztiek batera egiten eben egun bat edo une bat. Sarritan aitatu dot gero hori orduan, ume izanik, aurka egozanekin, eta barre egiten dabe. Eurak izan ziran gero danak alkarregaz egiteko zaleenak.

Satanas sotanaz eta belarriondokoak

Satanas sotanaz antzerkia idatzi euskun irudimen bizia eban eta dauan aita Martzel pasiotarrak. Oromiñon, Bazterreko Juan Luis Arregi, nire meza lagun-tzailea edo, hemen esaten dogunez, erasotzailea, zan Satanas egiten ebana.

Antzeztu baino egun bat lehenago, azkenengo ikastaldia izan genduan eskolan bertan. «Hasi hadi, Juan Luis» nik. Mutikoa isilik eta geldi. Neska nagusitxuak itxaroten egozan eurek be abestiei azken orraztua emoteko.

«Hasi adi, ba! Ez dok ikusten neskak itxaroten dagozala?»

Mutikoak «ji!» esan eta geldi.

«Hasiko haz?»

Ez da hasten ba gure Juan Luis mutikoa eskolako jarleku batetik bestera saltoka, harrapauko ez dodalakoa? Harrapau neban bai, bizkor arrapau be, berak baizen arin egiteko gauza nintzan orduan eta.

Plisti-plasta, emon neutsozan belarriondoko batzuk eta esan neutson: «Egik negar, gura badok, hor bazterrean».

Jarraian: «Mari Karmen, hasi zeu». Hasi bai «Hau da umearen ederraren ederra», baina umeen gauzak!, berari, neskea zanez, ez neutsola ezer egingo eta, harek be, jarraitu beharrean, «Ji!».

Beste barik, hari be, urrunetik be entzungo zan plastakoa. Gogoratzen da orain be matrailako haregaz geroago «Miss Durango» izendatu eben Balierreneko Mari Karmen.

Txarrena, Juan Luisen aitak jakin ebanean jazo zana. Ezerezean itxi ebazan nire matrailako biak edo hirurak. Sekulako astindua emon eutson. «Ea eta abadeak jo behar!». «Nahikoa izan dau neuregaz» esan neutson aitari. Orain jazo behar holakorik!

Zelako barreak egiten doguzan Juan Luisek eta biok, batzen garean bakotxean. Oraintxe be buruz daki bere Satanasen papela. Ah! Eta hori jazo eta hiru-lau egu-nera, biok joan ginan alkarregaz Oizeko San Kristobalera, niri mezatan lagunduta edo mezea erasota gero.

Orobiorrementeriako Begoña Uria izan zan Mari Karmenegaz andra txatxalena egin ebana eta Artatzako Mari Tere Basagoitik eta Makinako Pedro Mari Ugartek hartu eben Ama Birjinearen eta San Joseren lekua, eskuz egindako Jesus umea zaintzen ebela.

Elorrioraino be joan ginan geure antzerkiak antzeztera. Gogoan dot zer esan eustan hango ezagun batek:

«Zer, ez dago erderaz, beste lekuetan egiten daben moduan, antzerki hoberik, ala?»

«Bai, eta ingelesez be bai. Shakespeare dogu antzerkilaririk entzutetsuena eta bereak izango dira, beharbada, antzerkirik onenak!» erantzun neutson.

Zelako konplejuak norberaren hizkuntzaren aurka!

Ez zan izan Elorrio gure antzerkia, dantzak eta abesbatzaren lau ahotsetako abestiak aurkeztu genduzan leku bakarra. Abadiñoko kultura etxean, Arrazolan, Bernan, Arriandiko Maria Goretti ikastetxean eta Gizaburuagan be izan ginan. Hemen, Juan Antonio Aroma txistulari aspertuezinak lagundu eutson abesbatzari «Atzo arratsaldean» abesten.

Geure kultura bidetik

Beti gogoan izango dabe Oromiñoko orduko umeek, lehen aitatu dodanez, Bilbon Arriaga eta Coliseo Albia antzoki ospetsuetan, bete-beterik egozala, zelako txalo beroak hartu ebezan euskerazko lehenengo sariak irabaztearren eta gero han danen aurrean eurek idatzitako ipuinak irakurtzearren eta abestiren bat abestearren.

Ez naz ni gogoratzen zehatz-mehatz zein sari, zenbat bider eta zein mailatan irabazi eban bakotxak. Pozik jarriko neukez danak hemen. Baina, urte mordoa joan da eta lainotu egin jat sariketa horreen gomutea. Orduan ume ziran iturrietara euretara jo dot, baina eurek be ezin izan deustez emon argitasun guztiak.

Santueneko Kristina Mardarasek badaki lau bider atara ebala lehenengo saria. Zugatzagoitiko Irene Sarrionandiak, Arratera joan orduko, badaki sari nagusiren bat atara ebala, baina ez da gogoratzen zenbat bider izan zan. Beste horrenbeste esan behar Mari Karmen Balierregaitik, txikienen mailan. Honen gomutan geratu da, hamaika urte izanik, berak idatzitako ipuina irakurtzea amaitueran hartu eban txalo zaparradea. Adinagaitik bigarren mailan aurkeztu zan Bazterreko

Mari Tere Zugazartazak gogoan dauka, birritan behintzat, lehenengo saria lortu ebala. Etxandietako Rosa Mari Gandarias be gogoratzen da, lehenengo urtean edo, bigarren saria ataratearren, «Euskaldun jaio nintzan, euskalduna hazi...» abestu behar izan ebala.

Ete dago Jesuiten Indautxuko Ikastetxean edo Euskaltzaindian bertan edo beste nonbait, Aita Patxi Kortabitarte jesuita jatorrak, orduko denpora zailetan, Bilboko euskaltzale batzuen laguntzaz, eraturako sariketa horreen argibiderik? Jakingarria izango litzateke Oromiñoko, Laukizko, Bilboko ikastetxe bat edo besteren... historia txikirako.

Galdera bi gogoratzen dabez orduan ume ziran Oromiñotarrek: «Zeinek dau pisu handiagoa, kilo bat harrik ala kilo bat galtzuk?» zan lehenengokoa. Eta hauxe bigarrena: «Zenbat botoi ditu zure herriko abadearen sotaneak?»

Nork ez eutson erantzungo lehenengokoari harriak eukala pisu gehiago? Ez al da harria galtzua baino pisutsuagoa edo astunagoa? Jakina, ba!

Eta bigarrenari, txapeldun geratu zanak behintzat, honako hau erantzun eutson: «Erdiak eta beste hainbeste!» Antza danez, ondo zenbatuta eukazan nire sotanearen botoiak.

Entzutetsu egin zan aldi haretan Norbert Tauer, euskereagaz maitemindutako hizkuntzalari eta jakitun txekiarra. Bera izan zan, urte baten, euskeraz eskutitz gehien idatzi ebazana. Horren saria irabazi eban, behintzat. Euren arrakastagaitik hain pozik egozan umeak berari idazten ausartu ziran. Gutun mordoa idatzi eutsoen batak besteari Norbert Tauerrek eta Kristinak. *Zeruko Argiara* herriko barriak bialtzen be hasi zan hau.

Bilboko Arriagakoagaz eta Coliseokoagaz batera, Durangon gazteek izan genduzan ekinaldi bi geratu jakuzan danoi gogoan. Danetariko norgehiagoka baten, Durangoko Astarloa zinetokian hain zuzen be, Oromiñoko neskek ahotsetara abestu ebezan kantu bi. Txalo zaparradea izan genduan Mokoroaren «Sorgin dantza» abestu genduanean, abesteko bape erraza ez dana.

Bigarrena, San Frantziskoko monjen ikastetxeko areto nagusian izan genduan abestialdia, dantzaldia eta antzerkia. Dantzaldia, tokiak gehiagorako emoten ez ebanez, Zamalloatar Serafin eta Jose Antonio anaia bikotxen eta azkarren esku egon zan. Binakoa egin eben, betiko txistulariak lagunduta, Iñaki Sopelanak, hain zuzen be. Nesken koruari be beronek lagundu eutson «Atzo arratsaldean izandu ginan...» abestu ebanean.

Bai lehen aitaturako ekinaldian, bai azken honetan, abestu eben oraindino ia ume zala hil jakun Etxezaharreko Maria Isabel Badiolak eta handik urte gitxira, irakasle eginda gero, joan jakun Trazolako Amaia Gorroñok be.

Kristina Mardarasek aurkezpena egin ebanean, ia argi guztiak amatau ziran, antzoki garrantzitsuei jagokenez, baina han ez egoan irakurri ahal izateko beste argi. Eskerrak buruz ekiala!

Gerra ostean euskera hutsean egiten zan lehenengoko ekinaldia izango zan Durangon. Hizkuntza mordoa ekian Eduardo Rian abade jaun jakitun eta jatorrak eroan ginduzan eta dana eratu.

Han izan zan gure amama Errosa be. Eta euskal jaia zalako, Julene Azpeitia idazle ospetsua etorri jakun, orduan Durangon bizi zan eta, etxean eukan soinekorik dotoreena jantzirik eta eskubitorrean eta sama inguruan bitxi eta iduneko dotoreenak jarririk.

Ez jaku behin be ahaztuko arratsalde ha!

Bertsolariak

San Markosak izaten dira Oromiñoko jaiak. Oromiñarrak beti izan dira mutilak euren jaiak antolatzen eta ospatzen.

Oraindino urriak ziran bertsolariak eta bertso saioak. Ez dakit nork bialduta, Basarriren, handik urte mordora adiskide izango neban Jon Azpillagaren eta besteren baten bertsoz hornidutako magnetofoi zintea heldu jatan eskuetara. Zenbat bider entzun neban eta zelako poza emoten neutsen bertso egarritz egozan hainbeste nagusiri!

Orduantxe hasi zan Alfonso Irigoien bilbotarra han eta hemen bertso saioak antolatzen. Ordura arte, ozta-ozta geunkan Balentin Enbeitaren, Arratiako Pujanaren eta Jon Azpillaga gazteagoaren barririk. Ez dakit ordurako hasita egozan nire amaren lehengusina Arantza Agirreren senarra Deunoro Sardui eta Jon Lopategi. Egia dana da bertsolaritza gure artean arnasa hartzen hasi zaneke urteak zirala horreek.

Ba, oromiñarroi ez jakun gogoratu besterik, hamalau urteko eta hamaika urteko bertsolariak ekartea baino. Arrakasta ikaragarria izan eben. Baina, nortzuk ziran, ba, hamalau eta hamaika urte bakarrik izanda bertsotan hain ondo egiten ebenok? Muxikan dagoan Ariatza auzuneko Ireneo Ajuria hamalau urtekoa eta, praka motxetan, Jon Enbeita, hamaika urtekoa. Gogoan izango dabe eurek be.

Gerora, Oromiñoko hazia izango eben bertsolari handi bi sortu ziran Durangon. Gure orduko gazteen taldeko Txalekoneko Josefina Zugazartazaren semea bata, Unai Iturriaga, eta Larrako Jaime Elortzaren semea bestea, Igor Elortza. Hainbat bider Bizkaiko txapeldun izandakoak eta Euskal Herri guztiko txapela be hur-hurrean ikusitakoak.

Gure artean ohitura handia dago ateraldi zebreak izaten dituenakaitik «horrek bertsolari sena jaukak» esateko. Hain zuzen be, bertsolariak aitatzean, Tabernabarriko Jose Mari Lizarralderen, *Txantxa* gaztetxuaren, ateraldia etorri jat gogora. Beragaz eta beste gaztetxu batzukaz, euretariko bat Juan Inazio Abasolo, Iurreta gainean dagoan Goiurirantz ninoiala, hilerri edo kanposantu ondora heldukeran, badineust, irribarrezko aurpegi ilun antzekoa jarritz: «Jauna, sano bagara, hona etorri behar dogu danok!».

Baseleizea barriztau

Harrigarria izan zan, orduan Arrazolan abade egoan Jose Antonio Retolazaren esanera Lander Gallastegi arkitektoak, gogotsu eta zentimorik jaso barik, San Markos ermitea barriztau ebanean, herriak emon eban laguntza osoa, bai diruz, bai lan eginaz. Egun gitxi behar izan ziran hormen behekaldea kare barik, agirian, ixteko eta «juntak» hartzeko. Izan be, han ibili ginan, jo eta ke, izerdi baten, gizonezko gehienok.

Istorioak izan genduzan baseleiza horren barriztatzea zala eta. Aurretik emoten eban diru-laguntza guztia ukatu euskun Durangoko andra aberats batek. Batetik, berak ordaindutako kurutze-bidea, barriztatzeari egokiona jartzearen, kendu behar izan gendualako eta, bestetik, herriari barriztatzearen barri emotea eta diru-laguntza eskabidea euskeraz idatzitako eskutitz baten bidez egin geuntson moduan, berari be beste horrenbeste egin geuntsolako.

Aurreko horman jarri zan Kristoa askok miresten dabe orain, ikusten dabenean. Lander Gallastegiren asmakizuna izan zan ha be. Berak zirriboratu edo diseinatu eta beste batek landu eban. Azken horrek, Landerrek esan euskuna baino askoz be diru gehiago eskatu euskun. Orduan, Landerrek adiskide bat galtzeko arriskuaz, baina gizatasun osoz, esan eutson:

«Zerk balio dau gehiago, zuk ala nik egindakoak?».

«Argi dago, zuk egindakoak askoz be gehiago balio dauala» izan zan tailistearen erantzuna.

«Orduan, zureari nirea gehituaz, honenbeste da. Ausartuko litzateke inor Kristo horregaitik guzti hori eskatzen?» –esan eutson Landerrek.

«Ba, ez» –izan zan erantzuna.

Landerren gizatasunagaitik ordaindu ahal izan genduan berak asmautako Kristo moderno, baseleiza haretan hain egoki geratu zana.



Milagros Cedrun eta oraintxe hil barri dan Pedro Jose Zubizarreta joan ziran Kristoa zizelatuta egoan ez naz gogoratzen zein herritara, eta Oromiñora ekarri. Arroita jauregitarren etxeko ohe baten ezkutauta egon zan luzaroan, badaezpadan.

Zer esanik be ez ondo zaindu ebala etxean Juanita Aranzeta serora fin eta urduriak. Ama baten antzera zaindu ebazan edo zaindu ginduzan handik pasau ziran eta pasau ginan abadeak be, gordeta eukan Kristoak baino guk gastu gehiago sortu arren.

Azken ordainketa arazo honeetan nik be esku hartu arren, ordurako Julen Kalzada etorrita egoan Iurretara eta, beraz, Oromiñora be. Ni, aitatuko dogun *kleromotoa* zala eta, Markina aldera joan barri nengoan. Baina zorrak-eta kitatuta itxi gura izan neutsozan hurrengoari. Kristo horren argazkia ekarren azalean, handik laster *Gogor* abade-taldekoek atara eben diskoak.

[...]

Euskaldun irakasleak behar

Lehendik buruan sartuta neukazan gauza batek edo bik geroago eta indar gehiago hartzen eben nigan, Oromiñoko umeakaz nenbilela. Ez egoan euskaldunen artean irakasle izateko amesik ez gogorik. Beste edozein ogibideri emoten jakon garrantzi handiagoa eta ikusten jakon etorkizun hobe. Baina, Franco betiko ez zanez, laster beharko genduzala irakasle euskaldunak, eta ugari behar be, uste neban nik.

Horregaitik, Oromiñon neukazan neskato hain argiei irakasle izateko gogoia sartzen ahalegindu nintzan, euren askatasun osoa kontuan harturik, jakina!

Bestetik, antxinatik ikusten neban Durangotik bat eta bi baino gehiago joaten zirala hortik zehar karrerak ikasten, ez argiak ziralako ezta horretarako deia sumetan ebelako be, euren gurasoak aberatsak ziralako baino. Baserrietan, oster, hor geratzen ziran karrerarik ez ezer be barik, balio handiko neskato-mutikoak.

Gogoratzen naz noiz hartu eban indar gehiago gogoeta horrek. Etxeko preminek eskatuta, nonbaiten ikasten jarraitu barik, eskolako amaitu ebanean, astotxu bategaz ogiak banatzen ikusi neban argia be argia zan Irene Sarrionandia neskatoa.

Jainkoari eskerrak, egun batzuk lehenago Arrate Santutegiko don Pedro Gorostidiren deia hartu neban irratorako balio eban neskaren bat behar ebala esanez. Joan nintxakon Ireneri eta, esan neutsonen, etxeko baietza eta baimena eskatzera joan zan poz-pozik.

Nahiz eta hamalau urte baino izan ez, laster egin jakun sekulako esataria Arrate Irratian. Beraren antzeko argia eta bizia zan bere lagun Kristina Mardarasek ez eutson lagundu, baina, honek be irakasletza ikasteko bideak urratu ebazan, geroago, horretan Mari Tere Zugazartazak, Amaia Gorroñok... , eta Irenek berak jarraitzen eutsoela.

Lehengo ohitura batzuk

Baina ez zan Oromiñora mugatzen nire abade betebeharra. Lehenengo eta behin, Oromiñoko arduradun izateaz batera, Iurretako abade-laguntzailea be banintzan.

Zelako izerdiak urten eustan gorputz guztian parrokian ez dakit noiztik etorren ohitura zahar bat bete beharra izan nebanean. Eleizako atzeko aldean jartzen ziran andra piloa euren hildakoei errespontsuak atarateko.

Betebehar hori izan neban lehenengo domekan, joan nintzan nire boneteagaz eta isopuagaz. Baten aurrean Aita gurea esan eta beste batengana; harena amaitu eta hurrengokoagana. Ez zan luzea izan errespontsuak esate hori.

Banoa sakristiara, eta Don Frantzisko parrokoak: «Zer, ez dok egin ala?». Nik baietz, amaitu nebala. «Baina zelan hain bizkor?» Ez nekian nik, bakotxagaz pater nosterrak esaten egon behar zanik, berak txakur handiak neure bonetean jartzeari itxi arte.

Ha zan izerdia botatea hurrengo domekan gauzak behar dan moduan egiten hasi nintzanean! Gehitu egiten zan izerdiak urtetea, korutik gazte eta zahar begira-begira ikusten nebazanean eta, gero esan eustenez, don Kanutok pater noster bakotxeko ea zenbat denpora kentzen eustan neurtzen egozala konturatzen nintzanean. Ez eban iraun luzaro antxina-antxinatik etorren ohitura horrek.

Ezta beste honek be: lau maiordomok urteten eben ofertorioan, bakoxta kuxta bategaz, diru batzen, laurak batera, bata bestearen atzean. San Antoninoren, Arimen eta San Migelen alde eskatzen eben hiruk, eta ezkongea izan behar eban laugarrenak, Errosarioaren alde. Lau, guztira! Eta beste une baten, sagaratze ostean, sakristaua, orduko eta oraingo Ezekiel gizon jatorra, jatorrik bada, agertzen zan, batzuen esanean sakelean dirurik geratzen bazan edo, parrokiaren alde batzen. Zelango lotsea eta esturea nirea! Baina ohiturea zala-eta bidezkotzat jotzen eben gehienek.

Ohitura onak? Ohitura txarrak? Beti eta gauza guztiekin jazotzen da hori. Ezin daikeguz lehengo gauzak eta ohiturak oraingo iritziak eta neurriak erabiliaz epaitu. Leku, kultur-une eta sasoiak ez dira bardinak izaten, eta orain lotsagarria deritxoguna izan daiteke lehengo denporetan bidezko-bidezkoa izatea. Nik, orduan egokiak iritzi ez arren, baleiteke sortu ziranek ekandu jatorrak izatea eta guk gero ikusten ez genduan zentzun jatorren bat izatea.

Ohiturak aitatu doguzanez, galduta egoan, ni joan nintzanean, gabonzaharretan kirtenkeriak egiteko ohiturea. Zertzuk egiten ziran lehenago gabonzaharretan, nagusiek esaten ebenez!

Ez dakit zergaitik izango zan, baina ohitura zahar horreek barriztetako gogoa etorri jaken, une baten, oromiñotar batzuei. Banoa goiz goizez, San Markora, lehenengo mezea emotera, eta non ikusten dodan, motorraren argi motelaren laguntzaz, aldats goreaa hasteagaz batera, bidean batetik besterainoko halako marra antzeko bat. Ez eustan emon astirik gelditzeko. Zugatz enborra zan, bidean egoan batetik besterainoko hori. Jo neban, baina ez jatan ezer jazo. Motorrak matxura txiki bat.

Eskerrak behetik gorantz ninoiala. Goitik beherantz beste motordun bat edo kotxedun bat etorri balitz, edozer jazo eitekean. Laster baten kendu genduan enborra bidetik, holakorik jazo ez eitean.

Handik ordu erdi baino lehenago, hauxe esan neban, beste gauza batzuen artean, homilian: Jaungoikoak ez deuskula emon burua sama gainean eroateko, beragaz pentsetako baino. Ez neban gura izan nortzuk ziran jakiterik. Gero horretan ibili ziran guardia zibilak be ez dot uste jakin ahal izan ebenik.

Geroago entzun neban, damututa ei egozan arrisku hori jarri ebenak. Ez ziran konturatzen, eta neu be ez orduan, gure herrian eta munduko beste herri askotan oinarri sendoa eukan ohiturea zala egun horreetan gehiegikeria batzuk egitea.

Izan be, joan joian urte zaharraren eta etorri etorren urte barriaren artean bitarte bat egoan, legerik ez dagoan bitartetzat hartzen zana.

Zenbat gehiegikeria zeblebe baina kaltebakoak egiten ziran gabonzaharretan! Iurretan bertan, aurreko urte baten, astoa jaso ei eben abadetxeko balkoira; soka luze bat jarri eta kanpantorreko kanpai batera lotu ei eutsoen sokeori. Hango amaibako kanpai hotsa!

Behin baino gehiagotan jazo ei zan, bat kortara joan eta burdia non dagoanik be ez. Jakina! gauzez gazte talde batek hartu eta inguruko solo batera eroanda egoan dalako burdiori. Zenbat holako esaten euskuezan gure aurretikoek!

Igarri barik, esangura sakona eukan ohitura horreek, baina inoren bizia arriskuan jarri ezik. Ezin esan gauza bera, baten baten bizia arriskuan jarri ezkeror.

Hareek bai kereizak!

Izan zan beste ohitura bat be nire Iurretako denporan amaitu zana. Baina ez nire edo orduan Iurretan abade gengoan eraginez eta erruz, trafikoa gehitzea-gaitik baino.

Lehen lepoan eroaten zan hildako gorpua etxetik eleizaraino. Sarri izan ez arren, behin baino gehiagotan egokitu jatan Oromiñotik Iurretako parrokiaraino gorpuari laguntzen joatea. Eleiz-mutila edo monagiloa, kurutzeagaz, aurretik; abadea, sotana gaineko jantzi zuri laburragaz, jarraian; gorpua barruan eban hilkutxa eroien lau

morrosko gero, eta etxeko, lagun, adiskide, aldra luzea, atzean. Behar be morroskoak eta hauspodunak izan behar, kilometroetan hilkutxa lepoan eroateko.

Oromiño inguruko eta Bakixa aldeko edozein etxetatik parrokiara zanean, geldiunea egiten zan, otoitz labur batzuk, errespontsua, egiteko, Arriandin, Donostiatik Bilborako errepidera urten orduko.

Artatzatik izan ezker, laburragoa zanez eta ibilgailurik ez ebilenez, Goiurirako basobidea hartzen zan, handik parrokiara jaisteko. Behin baino gehiagotan entzun izan deutset Ezekiel Zugazartaza Iurretako betiko sakristauari eta besteren bati, eurek ikusitakoa. Behin, Artatzakoren baten gorpuagaz joiazala, bidetxuaren egoera kaskarragaitik, Meaberen eta Agarrerren etxeen bitartean, aurreko anderu biak laban eginda jausi zirala eta eginahalak egin behar izan ebezala hilkutxatik urten zan gorpua barriro be bere lekuan jartzen. Aurretik be esan ei eban Teofilo zanak, bera hiltzen zanean, ez ebazala Goiuri aldekoak bakean itxiko.

Geroago eta arrisku handiagoa sortu zan Arrianditik parrokiaraino dagozan kilometroetan zehar horrenbeste lagun aldran joan ahal izateko. Ez zan urte batzuk lehenago lez, Mallabiena aurreko errepidean gaztetxuek, euren artean gero gotzain egingo jakun gure Karmelok, futbolean ekiten eutsenean eta jokaldi guztian zehar auto bat edo bi, goia jota, igarotzen ziranean. «Hi! kotxea jatok!». Astia emoten eutsen, orduan, lau harri sendogaz errepidean eginda eukezan futbol-zelaiko atea edo porteria biak kentzeko. Zenbat ibilgailu igarotzen ete dira orain, ia segundu bakotxean, nahiz eta autopistea be alboan izan!

Itzelean gehitu zan, ba, ibilgailuen kopurua urte hareetan. Orduantxe hasi ziran funerariakoak gorpu guztiak euren autoetan eleizara eta gero hilerrira erooten. Baina hori izan orduko, jazoera bitxia bizi izatea egokitu jatan. Goiuriko hildako bat erooten ginoazala, nire aurretik kurutzea eskuan eroiala joian monagiloa (nor ete zan?), Goiuritik beherantz doan bidearen bihurguneari jaramonik egin barik, zuzen-zuzen abiatu zan aurrera, eta jakinal, tupust egin eta bide ondoan egoan erripatik beheruntz jausi zan, kurutzea ez dakit noraino joan jakola, bera kereiza arboleak gelditu arte. Nahiz eta berak hori autortu gura ez gero, aurretik, begiak joan jakozan, eta gero hankak eta gorputz guztia, kereiza eder eta dotore hareen atzetik.

Eguneroko zereginak eta arazoren bat

Egunero emoten geuntsen dotrinea umeei. Goizean, eleizearen aurrean egoan eskolako *maixu baltza* esaten eutsoenak bialtzen euskuzan umeak, gugaz ondo konpontzen zan eta. Arratsaldean, neu joaten nintzan, lehenengo orduan Arriandira eta gero Oromiñora.

Arriandin, lehenengo urteetan neuk emoten neutsen bai neskatoei bai mutikoei, baina gero, nire abade lagun Jose Rementeriak eta biok banatzen genduzan zereginok. Oromiñora neu bakarrik joaten nintzan.

Pozik egoten zan, Arriandin, mutikoen irakaslea, Antonia Egibar, gero politikari ospetsua izango zan Joseba Egibarren izekoa, dotrinea euskeraz izaten gendualako. Baina nesken irakasleak hau esaten eutsen neskatoei: «*Delante de Don Juan hablad euskera, pero cuando se vaya, que no os pille yo hablando así*».

Gure hizkuntza arrisku gorrian ikusten genduan une hareetan, izan genduan arazotxu bat Arriandin bertan, baina, oraingoan, pasiotar monjek eregi barri euken ikastetxean.

Egunero joaten ginan parrokiatik monjei mezea emotera. Inguruko andrak eta gizonak be joaten ziran. Hizkuntza zala eta, ez egoan arazorik. Mezak latinez izaten ziran, eta kito. Baina Sortzez Garbiaren bederatzi urrena ospatu behar zanean etorri zan arazoa. Ni joatea izan zanean, jakina, euskeraz egin neban. Inguruetakoa meza entzuleak eta monja gazteak, danak, bat izan ezik, euskalduna ez zan bakarra, pozarren, eurek autortu eustenez.

Baina hurrengo egunean, monjen nagusi italiarraren deia izan neban. Luzaroan egon ginan berbetan. Eurentzat bakarrik izan ezkeru, eurek nahi eben hizkuntzan egingo neutsela, baina, inguruetakoa andra-gizonak be egon ezkeru, beharrezkoa zala euskeraz egitea. Orduan be, gero eurei egingo neutsela gura eben hizkuntzan. Esateko nasai-nasai joaten jarraitzea gura eben ala ez, eta ezetza esaten baeusten be, euren lagun handiagoea izango nintzala.

Hurrengo egunean edo, euren probintziala etorri zan. «*Vengo desde Irun. In castilano, in castilano!*» esan eustanean, nik, erdi italieraz (ez uste izan italieraz egiten dakidanik) erdi gazteleraz: «ba, ondo dago; esan neutsuen lez, lagun handiago izango naz, baina ezin naz etorri hemendik aurrera».

Negarrak-eta izan ei ziran euren artean, gehien be pasiotarrak-eta, batez be, euren espiritu zuzendaria, nik egin nebanaren alde jarri ziran. Urtebarri egunean zorionak emoten joan nintxakonean, ez ekian zer egin be ikastetxeko nagusiak.

Handik gerora, lagun batek hau bota eustan: «Diplomazia gitxi erabili dok». «Agortu egin joat diplomazia», izan zan nire erantzuna.

Sasoi horretan, hau esan eustan beste lagun batek: «Begira, alperrik zabilze euskereari eusten. Geroago eta indar handiagoez goitik behera doan edur-bola baten antzekoa dok beraren galdu beharra».

Nire erantzuna: «Etxakiat edur-bola baten antzekoa dan ala ez. Niri behintzat, nire kontzientziak esaten jaustak bola horri eusten jarri behar dodala, nahiz eta berak ni beragaz batera tarraz eroan. Baina hau eskatzen deusuet hiri eta hi

lakoei: boleari aurrera egin daian eusten jartzen ez bazaree be, ez zaitezela jarri berari beherantz bultzaka».

[...]

Abesbatza jatorra eta nire azpijokoa

Harro jartzen naz honek edo besteak abesten irakatsi deusdala edo abesten neugaz hasi zala esaten deustanean. Ez da asko behar izaten bat harrotzeko.

Neugaz hasi zala musika-zaletzen esan deust behin baino gehiagotan, orain Iurretako abesbatzaren zuzendari trebea dan Bargundiako Anton Mari Aldekoa -Otalorak. Holan izango da, baina nik Iurretan, kantu arloan, ez neban egiten besterik, abesbatzeko tipleei euren ahotsari egokiona irakatsi baino, gero, gizon ahotsa eukenekin batera, Jeronimo Bilbaok zuzendu egizan.

Anton Mariri lehenengo notak irakatsiko neutsozan, baina inondik inora be ez orain zuzentzeko daukan trebetasuna, ezta abesteko, gregorianoa batez be, daukan fintasuna eta zehaztasuna.

Jeronimo Bilbao zan orduko Iurretako abesbatzaren zuzendaria. Nire senidea zan, Karmen emaztearen aldetik. Zintzoa eta iraunkorra. Inguruko koruak, han eta hemen, desegiten baziran be, Iurretakoak, Jeronimo buru, beti aurrera. Jose Mari Larrinagak be laguntzen eutson inoiz zuzendaritzan. Demetrio zan betiko organu-jolea. Munduan ez egoan inor «Aita San Migel Iurretako, zeru altuko loria» jotzen irabaziko eutsonik.

Eta hemen, nire orduko pekatua autortu behar dot, danen aurrean. Ez dakit parkatuko deusten Iurretako orduko abeslariek, ala penitentzia eta zigor latzen bat leporatuko deusten.

Ahots zoragarriak izan arren, eta Jero iraunkorra izan arren, banekian ez eukela behar zan besteko eroapenik abesti gatzak be gatzak zehatz ikasteko. Gehiago ziran hots ozenak agertzeko eta belarrirako berez atseginak ziran kantuak abesteko, bai eleizan eta bai behar zan tokian.

Nik, Oromiñoko nesken abesbatzakoak puztu eitezan eta ez zirala edozer gauza sinestu egien, honeek Durangon ondo be ondo abestutako abesti bat eskeini neutson Iurretako abesbatzari. Tonu erditik tonu erdira hainbat bider igon eta jaitsi behar dozun abesti bizkorra zan, lehen aitatu dodan Mokoroaren «Sorgin dantza», hain zuzen be. Ez belarri zehatza bakarrik, eroapen handia be behar zan ondo ikasteko.

Banekian bazirala gauza ikasteko eta abesteko, baina ez ebela izango adorerik horrenbeste lan emongo eutsen abestia ikasten hasteko.

Azpijokoa eta maltzurkeria izan zan nirea, baina ez dakizue zenbateraino igon eban Oromiñotarren moralak.

Arrate eta «Oiztik Anbotora»

Gitxien uste genduanean, sekulako barriak poztu eban gure barrua: Arrateko abade Don Pedrok irrati-emisorea jarri ebala han goian, eta euskeraz be egiten ebala. Amesetea orduan! Laster entzun ahal izan genduzan Arroako irratsaioak, Lea ibai ingurukoak, Markinakoak... Eta guk, zer? Jose Antonio Mallona eta biok Aita Iñaki Goikoetxearengana jo genduan, jesuitetan egin ahal izateko, eta laster sortu genduan «Oiztik Anbotora» irratsaioa.

Magnetofoi zahar bat, irratian jarduteko teknikea zer zanik be ez, kazetaritzea ezagutu barik, euskerea landua izateko aukera txikienik be ez, herri-agintarien eta baita orduko eleiz-agintari batzuen begi zorrotza gainean... baina asmoz beterik, gogotsu eta bildur barik, hori bai gero!

Aita Iñakiren ahaleginak ahalegin, ezin izan genduan jesuitetan luzaroan jarraitu. Orduan, neu bizi nintzan Durangoko Astarloa kaleko etxean egiten hasi ginan eta han jarraitu genduan azkenera arte.

Astelehen arratsalde guztietan etortzen zan, lehenengo asteetan jesuitetara eta gero gure etxera, Jose Antonio Mallona, Izurtzako abadea, euskal-musika euen disko batzuk besapean ebazala.

Biok zuzentzen genduan irratsaio hori. Iluntzerako amaituta izan behar genduan, gero mandatariak Eibarrera eroan egian edo gutariko batek motorrez Arratera bertara, martitzen eguerdian entzun eiten.

Biotariko baten sarrera edo editorial antzekoa, urte batzuetan aita Martzelan lan sendo eta atsegina bertsoz eta hitz-lauz osotuta, Julene Azpeitia idazle ospetsuaren ipuin bat aldikada baten, Eskarne Aromak eta Itziar Zuriturizak emakumeei buruz lehenengokoak idatzitako Itziar eta Lorea izeneko lantxua, batagaz eta besteagaz neuk izandako alkarrizketak, inguruko kirolari guztiekin gehien be... eta herrietako barriak, Kristina Mardaras eta Rosa Mari Gandarias umeak irakurle zirala.

Baina, begira! Orduko giro itolarritsuan, danok arnasaz bete ginduzan Joan XXIII.aren Bakea Lurrean entziklika ospetsua agertu zan. Ha poza eta arnasea hartzea guztiona! Gure hurrengo irratsaio bat, zer esanik be ez, horri buruzkoa. Nire hiru-lau lerro, aurkezpen eta editorial antzera, eta gero Aita Martzelen «artilleria astuna».

Hitz lau eta bertsoz, gatz eta piper, astindu ederra emon eutson orduko egoereari, Entziklikearen irakatsiak oinarritzat harturik.

Eta jakina! Poliziak Arratera. Arratetik Durangora dei larria: ezkutau edo apurtu egizuez papelak eta zintea! Durangotik Eubara be deia!

Hortxe hasi ziran agintarien erasorik gogorrenak Arrate irratiauren aurka, handik lasterrera urte mordo baterako isilazo arte.

[...]

Sinatze arriskutsua

Abade gaztea oraindino, odola bor-bor, ametsak ugari, gure herriaren izatea eta kultura galzorian, gure Euskal Herriko Eleizan aginpidea ebenak, neurri batean behintzat, horri laguntzen, gu Eleizeak beste era batera jokatu behar ebalakoan... eta horra non agertzen dan abade lagun bat egoera horri aurre egiteko balio eikean eskutitz bat izenpetzeko eskabidea eginez. Gotzainei zuzendutakoa zan. 1960ko maiatzean izan be.

Jakina, beste inorena jakin barik be, izenpetu behar nebana. Zelako poza, handik egunetara, hirurehun eta hogeta hemeretzi abade izan ginala jakin nebanean, eta euren artean Andra Maria nire jatorriko parrokiako don Isaak Uribesalgo eta don Frantzisko Santamaria.

Aitak begirune handia eutson abade bat joan zan beragana, egun batzuk lehenago, hori egin ezkeror kalte handiak etorriko jatazala eta niri ez sinatzeko esan eidan. «Begira, antxinatik bere buruaren jabe da eta, kokoloa ez danez, berak jakingo dau zer egin behar dauan» izan zan nire aitaren erantzuna. Gerora jakin neban hau guztiau.

Baina sinadura horrek atzekoa ekarri eban. Lehenengo, eleiz epaiketa antzeko bat. Lau galdera egin euskuezan. Ni, aurreneko deialdian gogo-jardunak egiten nihardualako, bigarren deialdirako geratu nintzan. Beraz, bagenkian zeintzuk ziran galderak, eta gertauta geunkazan erantzunak be.

«Ezagutzen izan dozu sinatu dozuna?» «Jakina ezagutzen izan dodana. Zelan sinatuko neban, ba, ezagutu barik?»

«Nork ekarri deitsut sinatu dagizun?» Gehien edo danen erantzuna, nirea be beste horrenbestekoa zala: «Zelan esango deitsut, ba, holakorik? Ez, ez deitsut esango besterik, abadea izan dala baino». Ea politikarien aldetik edo etorri ete jakun, atara gura eben, Francoren propagandeak esaten ebanez.

Beste itaun bat: «Askatasunez ala behartuta jarri dozu zeure sinadura?». Danon erantzuna: «Jakina askatasunez jarri dodana». Danona esan dot, baina ez da egia. Ezagun batek: «Bai, behartuta egin behar izan dot». «Nork behartuta?» galdereari, hau erantzun eutson: «neure kontzientziak behartuta».

Azken galdera: «Baieztatu egin gura dozu ala zuzendu edo kendu egin gura dozu?». Edo ez naz gogoratzen beste honetara jarrita ete egoan: «Barriro be egingo zeunke?». Itaun honi be danok, aho batez: «Baieztu egiten dot, edo jakina egingo neukela, baina ez komunikabideek emoten deutoen esanguraz, geuk emon geuntson esanguraz eta zentzunez baino».

Danok aho batez, esan dot. Egia osoa esateko, Bizkaian bakar batek esan eban, ez kontzientziak, lagunek behartuta egin ebala baino, eta beraz, ez sartzeko bera sinatzaileen taldean.

Jazoera bitxia izan zan eleiz epaimahai horren aurrean erantzunak emon beharra. Baina bitxiagoa niretzat, hilabete lehenago ezagutu nebala eta bere anaiagaz batera Nafarroaraino eroan nebala kotxean Gillermo Rian jauna, epaile egiten ebana.

Anaia horrek be, don Eduardo Rianek hain zuzen, zintzo-zintzo jarrita eukan sinadura eta ez zan izan anaia, beste epaile bat baino, galderak egin eutsozana.

Beraz, ez nabe inon, ia ezagutu barri neban epaile horrek hartu ninduan baino abegitsuago eta gozoago hartu. Denpora gehiago egin eban osterantzeko adiskide galderak egiten epaimahaiari egokiozanak baino. Ia-ia beste sinaduraren bat egiteko gogoia emon eustan.

Bestelako zigor txikiren batzuk be izan ziran, beste eleizbarruti baten autoritzak entzuteko debekua, esate baterako, horretarako hango gotzainaren baimena bazenduan.

Poliziaren aldetik, agur gure pasaporteak urteetarako! Urte batzuk igarota be, sasoi laburrerako emoten eutsuen, Franco hil eta gerora arte.

Baina Eleizearen orduko agintarien aldetik, *kleromoto* ikaragarria izan zan zigorrik nabarmenena. Bai, izenpetu genduan eta eben danak edo gehienak pozik egozan parroketatik beste parrokia batera bialtzeari esan geuntson orduan, umoretsu, *kleromotoa*.



Garia batzen (Emiliano Zuazo).


Emiliano Zuazok *Auto Recambios-Talleres Durango* enpresan egin zuen beharra, baina beste zeregin asko izan zituen: dantzaria, abesbatzako tenorea, elizako kanpai-jolea, koadro margolaria. Baina futbolista moduan famatu zen gaztetan.

Karmelo Cedrunek 217. orrialdeko 11. lerroan aipatzen duen atezaina Emiliano Zuazo da. Eskuen zabaleraren mito hori honela esplikatzen zuen Emiliano:

«Behin, 19 arrautza eskuan nekartzala heldu nintzen baserritik entrenamendura. Abilidadea neukan arrautzak eskuan batzuk besteen gainean ez jausteko moduan ipintzeko, jolas bat zen. Baina baten batek zabaldu zuen hori beste zentzu batekin, 19 arrautza kabitzeko bezain handia neukala eskua. Mirandek fitxatu ninduen egunean, zinera joan nintzen arratsaldean, denbora egiteko, eta atzeko ilarakoari entzun nion esaten Mirandek eskuan 19 arrautza kabitzen zitzaizkion atezain bat fitxatu zuela. Haraino heldu zen kontu hori. Antza, durangar batek andrea gaixorik zeukan Mirandan, eta hark famatu ninduen han».

JULEN KALTZADA

Etxe hau herriarena da



lurretako abadetxea.

JULEN KALTZADA (1935-2018)

Julen Calzada Ugalde 1935eko uztailaren 18an jaio zen Busturian. Bere aita, Doroteo, zinegotzi jeltzalea Busturian, frankistek 1937ko abuztuan fusilatu zuten Derion. Julen, 1958an abadetuta eta gero, 1964-1969 urteetan egon zen lurretan.

Idazten ere bertan hasi ei zen:

«lurretan hasi nintzen garai hartako gertaerei buruz artikulutxoak Anaitasuna aldizkariako idazten ere. Inoiz Zeruko Argiako ere bai. Garai hartan ez zegoen Egunkaria, Egin edo antzekorik, eta zerbait idatzi nahi zuenak horietan idatzi behar. Behin, gainera, Juan San Martinek esan zidan idazteko ezpala neukala, eta nik ez bakarrik entzun nion pozik, sinetsi ere egin nion, eta itxurak egin behar...».

1969an, abadetxea frankismoaren aurkako mugimenduari, ETari besteak beste, erabiltzen uzteagatik, hamabi urteko zigorra ezarri zioten Burgoseko Prozesuan, eta 1970-1976 bitartean preso egon zen Zamorako espetxean. Amnistiarekin kalera irtenda, abadetza utzi zuen, eta euskara irakastera dedikatu zen. AEKn egin zuen lan luzaroan.

82 zituela zendu zen Busturian, *Umezurtzen aberria* liburu autobiografikoa argitaratu eta berehala. Liburu horretako 106-138 orrialdeetako testua jasotzen da hemen, orri azpiko oharra apur bat aldatuta.



Kondenatuak (Adur Larrea).

UMEZURTEN ABERRIA

Iurretako abade lagunkidea

Handik Iurretara bidali ninduten. Iurretako bizitza-mota Muruetakotik nahi-ko ezberdina zen. Bost mila lagun inguruko parrokia zen. Biztanleria gehiena Montoian bizi zen, Durangoko mugan. Gainerako guztia erabat sakabanaturik zegoen. Bere mugakideak Abadiñoako Matiena auzunea, Garai, Mauma, gaur egun Muxikako auzunea den Ibarruri, Etxano eta Zornotza ziren. Iurreta bere historia guztian udalerria izan zen. Baita Gerra Karlistetan eta Mendizabalen garaian ere. Kofradiak, hain zuzen, Mendizabalen desamortizazioaren garaian indartu ziren. Iurreta herria sei kofradia hauek osatzen dute: Iurretako San Migel, Goiuriko Andre Mari, Arriandiko Santa Maina, Bakixako San Fauste, Oromiñoako San Marko eta Orozketako Santiago. Baina XX. mendean, Durango haziz joan zenean, interes jakin batzuek Iurreta Durangoko udalaren mende jartzea lortu zuten. Ni joan nintzenean oraindik Durangotik askatu gabe zegoen. Beraz, kontraesan gogorra bizi zuen. Erakundeentzat eta agintarientzat Durangoko auzune bat eta sei kofradiek osaturiko parrokia bakarra zen. Ostera, Iurretakoentzat, eta bereziki bertako gazterientzat, Iurreta herria zen eta, herri-nortasun handia zuen arren, nortasun ofiziala behar zuen. Eta kofradiek ere euren nortasuna eta euren jabetzak mantentzea lortu behar zuten. Kofradiek basoak zituzten, eta badituzte egun ere. Herri-basoak izan ziren eta Mendizabalen garaian, espainiarrek ez jabetzeko, kofradiak egin ziren jabe. «Gizon onak» izeneko taldeak kudeatzen zituen, eta kudeatzen jarraitzen du. Iurretari udal nortasuna edo izaera kentzea lortuta zuten arren, oraindik kofradiak legalak ziren eta Durangoko udalak euren jabetzak lortu gabe zituen. Ni joan nintzenean Durangoko udala gogor zebilen basoez jabetu nahian. Hain gogor, gainera, ezen gizon on batzuk atxilotzeraino heldu baitzen. Baina, hala ere, ez zuen lortu kofradien basoez jabetzea.

Niri Oromiñoako San Markoko eta Bakixako San Fausteko ardura eman zidaten. Iurreta osoan, ostera, Don Frantzisko parrokoa eta Jose Rementeria eta ni abade lagunkideak geunden. Hiru. Iurretako abade-etxean bizi nintzen; etxeak hiru pisu zituen, eta abadeok bakoitzak berea geneukan. Astegunetan Iurretan bertan ematen nuen meza, hiru hilerik behin izan ezik; hil horretan Arriandiko mojanean ematen nuen. Iurretako kofradietakoa den Orozketan ere beste abade bat zegoen; baina sasoi hartan Iurreta ez zen udalerria eta abade hark ez zeukan Iurretako parrokiarekin inolako harremanik, ez zelako San Migel parrokiako abade lagunkidea, Orozketako kapilaua baino. Harreman handiagoa zeukan Durangokorekin, bereziki Don Pedro Aboitizekin, Andre Mariako parrokoarekin,

eta Don Jose Etxeandiarekin, Santa Anakoarekin. Hirurak baitziren eskuindar eta tradizionalista hutsak. Nik justu-justu ezagutu nuen.

Iurretan, Euskal Herriko abade gazte normal batek sasoi hartan egiten zuen bizimodua egiten nuen. Meza egunean behin eman –jaiegunetan izan ezik, horietan hiru meza izaten baitziren–, Oromiñoko eskolan kristau-ikasbidea irakatsi, eta ohiturazko elizkizunak egin. Gogoan dut oraindik, lehenengo urtean soroak bedeinkatzeko egunaren bezperan, nola esan zidan Oromiñoko Juanita Aranzeta elizainak hurrengo eguna soroak bedeinkatzeko eguna zela. Aurreko urteetan nola egiten zuten galdetu nion, eta elizkizun osoa azaldu zidan. Nik agindu zidan moduan egin nuen guztia. Elizako jantziekin elizatik kanpora irten eta elizpetik soroak bedeinkatu nituen. Eta gero iradoki nien, uzta ona izatea nahi bazuten, bedeinkapenean itxaropena izatea ona zela, baina garrantzitsuagoa zela soloak ongarriz hornitu eta ondo zaintzea.

Durangon ere muturra sartu behar

Durangon nire garaian hainbat abade zegoen, eta euren artean, hainbat abade gazte. Batzuk, gainera, nire ikaskideak; Luziano Frances, esaterako. Besteak edo aurreko urtekoak, Ander Manterola eta Enrique Abian legez, edo hurrengokoak ziren. Baina, Ander izan ezik, guztiak ziren erdaldunak. Durangon sasoi hartan jesuitak ere bazeuden, eta jende asko joaten zen haiengana ere. Baina euskara mailan aurrelaritzat zeuden mugimenduetan, Durangon Ander baino ez zen mugitzen. Anderrekin nik harreman handia neukan Iurretara joan aurretik ere, batez ere Herri Gaztedi dela-eta. Iurretara joan nintzenean gazte eta langile mugimenduetako beste arlo batzuetan ere izan genuen harremana, Lovainara «ikasketak» egitera joan arte. Durangaldean abade aurrelari asko geunden. Baina Durango hiriko gainerako abade gazteak beste mundu batean bizi ziren. Edo geu bizi ginen beste mundu batean, beharbada. Adibide txiki bat jartzearen, Aste Santuan Bilbon, Balmasedan, Andaluzian eta nonahi Jesu Kristorekin Gurutze Bidea egiten zutela-eta Durangon ere, Luziano, Abian eta haiek Gurutze Bidea egiten hasi ziren. Jesu Kristo «aldeano» deituta iraintzen zuten, «villano» deitu beharrean, gogoan izan gabe Durango «Uria» zela –beraz, urikoak ziren–, eta Iurreta, herria. Eta Iurretan asko baserritarrak ziren. Bestetik, Durangon gazte ekintzaile asko zegoen, arlo ezberdinetan lanean zebiltzanak. Asko Iurretara etortzen ziren, elakoak eta ikastaro mota ezberdinak euskaraz egiten zituztenak, esaterako. Baina beste asko bertan Durangon, gehienbat Gizarte Etxean ibiltzen zirenak. Talde horietako bat Eskautak ziren. Hogei urtetik beherako neska-mutilak ziren eta batzarrak, behintzat, euskaraz egin nahi zituzten. Garai hartan, bilerak euskaraz egin nahi izatea aurrelari eta ezkertiarren seinale zen eta, praktikan, Herri Gaztedikoek,

Gizarte-Eskolakoek eta Ikastoletakoek baino ez zituzten bilerak euskaraz egiten. Durangon, Anderrez gain, haiei kasu egiteko abade gazte euskaldunik ez zegoen; baina Ander leporaino lanez eta arduraz beteta zebilen, eta niri eskatu zidaten ea nahi nuen euren bileretara joaterik. Nik baietz erantzun nien, eta egin ere bilera mordo bat egin genuen.

Ni gehienbat entzulea izaten nintzen. Baina ez euskararik ez nekielako, Herri Gaztediko kultura nuelako baino. Behin, Gizarte Etxeko gela batean bilera egiten ari ginela, non sartu zen Mendizabal abadea gero eta gero ere abade jantzita ibiltzen zen abade gaztea, ez atean jo ez sartzeko baimenik eskatu gabe. Talde osoaren aurrean itaundu zidan ea zertan nengoan han, hura ez zela nire parrokia eta handik joateko. Dena erdaraz, jakina. Gazteek gogor egin zioten eta jarraitu zidaten eskatzen bileretara etortzeko. Eta eskatzen zidaten guztietan, nik joaten jarraitu nuen.

Iurreta, askatasun bila ari zen herri zapaldua

Iurreta nortasun handiko herria zen. Iurretarrak ez ziren sentitzen Durangoko; baina, oster, Durangaldekotzat benetan sentitzen ziren eta harreman handia zuten Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio eta gainerako herriekin. Goitik presio handiak jasaten zituzten arren eta gauzak konpontzera Durangoko udaletxera joan behar, euren burua herri independentetzat zeukaten ahal zuten guztirako. Bi menpekotasun politiko jasaten zituzten. Bata, Euskal Herri gisa Espainiaren mende egon beharra; bestea, herri gisa Durangoren mende egon beharra. Eta sentsazio hori herri osoko jendeak bizi zuen, hau da, sei kofradietakoek eta mota guztietakoek, hau da, karlista pentsaerakoek eurek ere. Nire sasoian, kanpoko jende asko etorri zen Montoian mordoka egin zituzten etxe berrietara, eta etorritako gehienek Durangokotzat zituzten euren buruak. Kanpoko jende askok ere Durangokotzat jotzen zituzten Iurretakoak, eta hauetariko asko benetan mindu eta barru-barrutik haserretzen ziren.

Iurretako jaiak

Jaiak kofradia guztietan egiten ziren, baina jai nagusiak San Migelak ziren, herriko jaiak. San Migel jairik ezin zen egin Doniel Hatxa jarri barik eta Dantzari Dantza egin gabe. San Migel bezperako arratsaldean, gazteek Doniel Hatxa ekartzten zuten, gordeta edukitzen zuten lekutik plaza erdira. Plazako punta banatan kokatuak hiru talde zeuden, eurotarik bat emakumezkoena. Taldeak, bat abade-etxearen eta elizaren artean, beste bat elizaren eta gaurko udaletxearen artean, eta hirugarrena iturriaren eta bidearen artean zeuden. Bada, Doniel Hatxa plazara erdira iritsitakoan, hiruren artean gora jasotzen zuten eta orduantxe hasten ziren

txapliguak botatzen eta kanpandorrean kanpaiak jotzen. Erritu hori amaitzen zenean, ezpata-dantzariak Dantzari Dantza dantzatzen zuten Doniel Hatxaren inguruan. Hurrengo eguneko jairako azken entrenamendua zela esaten zuten, eta jantzi normalekin dantzatzen zuten. Plaza osoa ikuslez beterik egoten zen, eta gero bezperako erromeria egiten zen.

Garai hartan oraindik animaliek ez zituzten gaur lortu dituzten eskubideak, eta jaietan ahari-topekak egoten ziren plazan, eta asto-probak eta idi-probak ere egiten ziren. Gaur horrelakorik ez da egiten. Bertsolariak eta txistulariak ez ziren falta. Jaiek San Migel bezperatik Arrosario eguneraino irauten zuten. Entzute handikoak ziren, halaber, Bakixako San Sebastian jaiak, Oromiñoko San Marko jaiak, Arriandiko Santa Marina jaiak, Goiuriko Andre Mari jaiak eta Orozketako Santiago jaiak ere, kofradia bakoitzak benetako nortasuna duelako.

Harreman sozialak eta nire abade-etxea

Gure sasoian gazteriak ez zeukan gizarte harremanak izateko leku egokirik. Guztia zegoen galarazita eta, tabernetako harremanetik kanpo, zerbait egin nahi zutenak elizako eta abade-etxeetako geletara hurreratzen ziren horretarako giro egokia aurkitzen zuten herrietan. Nik Muruetan abade-etxea egun osoan zabalik edukitzeko ohitura izan nuen, eta Iurretan ere ohitura berarekin jarraitu nuen. Abadetxari zegokion herriaren zerbitzurako kulturari Herri Gaztediko jokabidea erantsita ikasi nuen horrela jokatzeko. Iurretako gazteek garai batean behorra edo zaldia egongo zen nire abade-etxeetako korta garbi-garbi jarri, ederto egokitu eta bilera-leku eta elkartegi bihurtu zuten. Prestatu, neska-mutil gazteek eurek egin zuten eta gastuak ere ez nik ez elizak ez genituen ordaindu; baina batzarrak han Herri Gaztedikoek, Gizarte Eskolakoek, Gogor taldeko abadeek eta abarrek egiten zituzten, eta isilpeko ikastaroak ere egiten ziren, niri baimenik eskatu barik, jakina.

Inoiz, afari gozoa jan eta telebista ikusten Ilumi eta Juan Peskadorearen etxean beranduraino egon ondoren, etxera joan eta neure gelako ohean jendea lo aurkitu nuen. Alboko gelara joan eta, han ere, jendea lo. Nik zer egin behar dut orain? Seisientosa hartu eta Matienako San Blas ostatura lo egitera joan nintzen. Hurrengo goizean etorri etxera eta abade lagunak bertan zeuden artean, gaua gure etxeetako oheetan pasata.

Abade-etxeetako bulegoan, mahaiaz gain, liburutegi bat ere bazegoen, goiko aldean liburuak eta behekoan edariak zituen. Liburuak neuk uzten nituen moduan aurkitzen nituen beti. Baina edariekin gauza bitxi bat gertatzen zitzaidan. Botilak hustuz joaten ziren ni ez nengoela eta, ia-ia erabat hustuta egoten zirenean, bete-beterik agertzen ziren. Han neu bakarrik bizi nintzen eta ni ez

nintzen izaten... Oraindik ezin izan dut jakin nork jakiten zuen hustear zeudela eta nork betetzen zituen.

Herri Gaztediko abade sasi-laguntzaile

Iurretan hasi nintzen garai hartako gertaerei buruzko artikulutxoak *Anaitasuna* aldizkarirako idazten ere. Inoiz *Zeruko Argiarako* ere bai. Garai hartan ez zegoen *Egunkaria*, *Egin* edo antzekorik, eta zerbait idatzi nahi zuenak horietan idatzi behar. Behin, gainera, Juan San Martinek esan zidan idazteko ezpala neukala eta nik ez bakarrik entzun nion pozik, sinetsi ere egin nion, eta itxurak egin behar.

Iurretan nengoela, Ander Lovainara joan zen, lehentxoago esan dudana legez, eta Herri Gaztedi abade-laguntzaile barik geratu zen. Orduan Herri Gaztedikoek eskatu zidaten ea neuk hartuko nuen ardura hori. Rosa Mari Artza, garai hartan Bizkaiko Herri Gaztediko arduradun nagusia, Arriandikoa zen, eta baietz esan behar. Handik aldi batera, Herri Gaztediko batzuk batzar bat Iurretako neure etxean, ni barik, egiten ari zirela, Karmelo Etxenagusia agertu omen zen esatera gotzainak bera izendatu duela Herri Gaztediko abade-laguntzaile. Etxenagusia Iurretakoa zen, baina Bilboko gotzaindegian ari zen lanean. Herri Gaztedikoak harrituta geratu ziren, ez ekintzaileek eurek ez euren ardura zuten abadeek ezer jakin barik izendatu zutelako. Aurrerantzean ere ez zioten deitzen batzarretarako, ez ezertarako. Bizkaiko Herri Gaztedikoek bilera eta ikastaro asko egiten genituen, baina ez herrietan bakarrik, herrialdekoak ere hainbat egin baikenituen. Behin baino sarriago egin genituen Begoñako Gogoeta-Jardun Etxean, edo Berrizko mojen komentuan. Gipuzkoarrekin ere egin genituen ikastaroak. Esaterako, Ormaiztegin egindako ikastaroan ezagutu nuen nik Mari Karmen Garmendia. Gipuzkoako Herri Gaztediko arduradunekin harreman handia eduki genuen Bizkaikook.

Ikastolez arduratzeko eskaria

Sasoi hartan, ni Iurretako abade eta Herri Gaztediko sasi-laguntzaile eta Rosa Mari Artza Herri Gaztediko arduradun ginela, behin Gipuzkoako Goierriitik Jacinto (berak nahiago zuen Iazinto deitzea) Fernandez Setien etorri zitzaidan eta eskatu zidan ea arduratuko nintzen Bizkaiko ikastolen bilerez eta ea ikastola berrien sorrera bultzatuko nuen, Bizkaian horren premia zegoelako. Nik erantzun nion saiatuko nintzela Herri Gaztediko ekintzaileekin. Herri Gaztediko batzarrak euskaraz egiten genituen eta haietara etortzen ziren guztiak, edo gehienak behintzat, euskaltzaleak ziren. Bizkaiko Herri Gaztedikoekin egon nintzen eta Rosa Mari Artzak hartu zuen lan hori egiteko ardura. Batzarrak Zornotzako Eubako pasiotarren komentuan egiten hasi ginen eta handik gutxira talde bat

sortu genuen, eta talde hura arduratu zen ikastolen arazoaz. Rosa Mari geratu zen taldekide eta nik haren bidez egin nuen jarraipena aldi batean, kontua aurrera zihoala ziurtatu arte. Bizkaian hainbat ikastola sortu ziren 1970a baino lehenago. Lazintori Busturialdeari buruzko lantxo bat ere egin nion, Goierriko ikastoletakoei Busturialdeari buruzko informazioa emateko.

Iurretan egon nintzen garaian egin zen Vatikanoko II. Kontzilioa. Haren ostean, elizkizunak euskaraz egitea asko bultzatu genuen. Eta Herri Gaztedi eta Gogor taldeko abadeek pentsatu genuen abadeen gogo-jardunak ere euskaraz egin behar zirela, eta kanpaina bat prestatu genuen Euskal Herriko apaizei jakinarazteko nahi zutenek gogo-jardunak euskaraz egiteko aukera izango zutela aurrerantzean. Ordura arte gogo-jardunak eta abadeen batzar ofizialak erdaraz baino ez ziren egiten.

[...]

Europar zeharreko bidaia

Behin Ander Manterola etorri zitzaidan bidaia baten proposamena egitera. Berak, Julian Olazabalagak eta hirurok Europar zehar egitea proposatu zidan. Nik baietz esan nion pozarren eta bidaia prestatu genuen, edo zuten. Heldu zen bidaia egiteko eguna eta han atera ginen hirurok Anderren autoan. Iritsi ginen Iparraldera eta inon geratu gabe zeharkatu genuen. Ordurako Iparraldea ondo ezagutzen genuen, baita bertan bizi zen jende asko ere. Esaterako, sarri egonda nengoen Monzon eta bere emaztearen etxean; behin baino sarriago Robles-Arangizenean, ezagunak baitziren Ander eta Robles. Hantxe ezagutu nuen behin Estitxu, hamazazpi urteko neskato gaztetxoa, traktore baten gainean soroa lantzen. Ezagutzen nituen baita, Eneko Irigarai eta Benito del Valle. Ezagututa nituen jada Hazparnen Piarres Xarriton, Michel Lekuona, Emile Larre eta Jean Louis Davant, Beloken aita Xabier Iratzeder, eta Donibane Lohizunen Piarres Lafitte.

Frantzia osoa zeharkatu genuen Rodanoraino. Eta bidean Monako eta Avignon bisitatu genituen, eta Avignongo zubian «*sur les ponts d'Avignon on le dance...*» abestu genuen. Lyon inguruko herri txiki batean geratu ginen erosketak egitera. Ogia, behintzat, erosi behar genuen. Denda batera sartu nintzen eta andrazko bat zegoen. «*Bonjour madame, du pain s'il vous plait.*» Eta berak «*¿Coment? Du pain?*». Nik «*oui*», eta berak ogia eman zidan. Lyon ikusi eta gorantz jo genuen, Dofinerriko Grenobletik Suitzarantz. Grenoble inguruan ere geratu behar izan genuen erosketak egitera. Lyongo esperientziarekin, saiatu nintzen dendariak esan zidan modu berean «*du pain*» esaten. Sartu dendara eta han ere beste emakume bat saltzen: «*Bonjour madame, du pain s'il vous plait.*» Eta hark ere, «*¿Coment? ¿Du pain?*». Bi emakumeen artean traumatizatuta utzi ninduten betirako frantsesen

fonetika aldrebesarekin. Ezin asmatu nola esan behar den: «*Du pain*» ala «*Du vin!*». Suitzara heldu ginenean, apaizen egoitza batean geratu ginen afaltzen eta lo egiten, eta bertan zegoen apaiz batekin hasi ginen hizketan. Nongoak ginen galdetu zigun eta Larrabetzuko gure Julianek esan zion: «*nous sommes du nord d'Espagne*»; eta niri barru-barrutik atera zitzaidan «*pas du tout, nous sommes basques*». Gero, bakarrik geratu ginenean, ordurako jada ospetsua zen abestia abestu nion Juliani: «neska-mutilak, e, i, o, gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak». Suitza ikusi, Alemanian autotik jaitsi eta ukitu, Estrasburgon geratu eta Nederlandera joan ginen. Han, Herbehereetan itsasoan eginda duten harresi gainetik kotxean hainbat kilometro egin eta Belgikara pasatu. Belgikan, Bruselaz gain, Flandes eta Walonia bisitatu, gero Luxenburgo eta Britainia ikusi, eta etxera.

Iurretako garaiko pasadizoak

Iurretako urteak (1964-1969) urte arazotsuak izan ziren. Hamarkada dotorea eta aberatsa Euskal Herriaren etorkizunerako. Eta Bizkaiko apaizok ere bere ekar-pentxoak egin genuen lan horretan. Esaterako, Herri Gaztediren bidez, euskarazko liturgia gauzatu eta ezarrita, jazarriak ziren herri mugimenduak babestu eta euren batzarrak egiteko lekuak utzita, euren ekintzetan parte hartuta eta horrela. Bizkaiko abade askok jasan genituen isunak eta kartzela-aldiak. Eta une horietan zigortuak babestu beharra egoten zen, eta hainbat aldiz joan beharra eduki genuen isunak ordaintzeko ibilgailuen enkanteak egiten zirenean eta epaiketak Madrilén egiten zitzairenean, edo lehenengo komentuan eta gero Zamorako kartzelan zeuden abadeei lagundu behar zitzairenean.

Iurretan egon nintzen sasoian hainbat pasadizo gertatu zitzaizkidan. Behin, Iurretako San Migel jaiak amaituta eta Durangoko San Fausto jaiak hastear zue-dela, uste dut Arrosario Igandearen hurrengo igandea zela, gazte batzuek isilpean eskatu zidaten ea mesede bat egingo nien. Galdetu nien ea zein zen mesede hain garrantzitsu hori eta erantzun zidaten gizon bat Arratiatik ekarri behar zela. Kotxea nuela eta nigan pentsatu zutela. San Markoko eta San Fausteko mezak eman ostean, bazkaldu aurretik ekarriko nuela esan nien, eta ez nien galdera gehiagorik egin. San Fausteko meza eman eta Arratiara joan nintzen. Esandako lekuan sotanadun ezezagun bat neukan zain. Euskalduna zen, baina ez zuen bizkaieraz egiten. Hartu nuen eta ekarri nuen Iurretako abade-etxera, geratuta geunden moduan, eta han zituen zain niri ekartzeko eskatu zidatenak. Sotanadunarekin nire etxera joan ziren, eta ni kanpoan geratu nintzen lagun batzuekin berbetan. Handik gutxira non ikusten dudan etxetik lagunekin irteten mutil gazte eginda eta lirain jantzita. Nik eskatu zidatena bete nuenez, bazkaltzera joan nintzen. Gero eta gero jakin nuen Mikel Etxeberria zela, poliziari Barazarren ihes egin zion ekintzailea.

Jose Luis Ateka lehengusuaren atxiloketa

Gure lehengusu bat, Jose Luis Ateka, nire aitabixi eta amabixiren bigarren semea, gaztetan Estatu Batuetara gurasoengana joanda zegoen eta han kazetaritza egin zuen. Karrera bukatu zuenean frantsesa ere ikasi nahi izan zuen, Ipar Ameriketako kazetari on batentzat ere beharrezkoa zelako, eta Euskal Herrira etorri zen. Apaizek, Piarres Xarritonek-eta, Hazparnen zeukaten gazteen eskolan aurkitu genion lanpostua, gazteak zaintzen eta ingeles irakasten. Sasoi hartan Hegoalde-tik ihes egindakoak eta Iparraldeko bertako jendea ekintzan gogor ari ziren, eta haietariko batzuekin ere harremana izan zuen gure Jose Luis gazteak. Gauza da behin Xarritonen mezu bat hartu nuela Iurretan, esaten Jose Luis atxilotu zutela Nafarroako Elizondon eta Iruñeko kartzelara eramane zutela.

Durangoko telegrafoetara joan nintzen, telegrama bidez Xarritoni jakinarazte-ko nola hartu nuen mezua eta nola agertuko nintzen han berri gehiago jakiteko. Durangoko telegrafistak ikusi zuenean telegrama euskaraz zihoala, haserre hartu ninduen. Nik erantzun nion Iparraldean ez dela espainolez hitz egiten, frantsesez eta euskaraz baino, eta nik telegrama-hartzailearekin, frantsesez barik, euskaraz hitz egin dudala beti eta horregatik bidaltzen niola euskaraz.

Horregatik, telegrama bidali zuen. Telegrama labur-laburra zen, baina ondo baino hobeto kobratu zidan. Galdetu nion ea nola horrenbeste garesti, eta erantzun zidan: «*Si hubiera enviado a Sevilla no le hubiera cobrado ni la mitad*». Eta nik esan nion: «Hazparne, Sevilla baino asko hurrago dago eta, gainera Euskal Herria da, eta Sevilla, oster, Espainia eta gu Durangon gaude, Euskal Herrian». Gero jakin nuen telegrafista militarra izandakoa zela eta jesuita bati 25 000 pezetako isuna jarri ziotela telegrafistari esatearren Durango Euskal Herria zela eta Sevilla Espainia. Jesuitak esan zuen berak ez zuela egin holakorik, eta ni isilik...

Beste behin Ondarroara gonbidatu ninduten hitzaldi bat ematera. Joan nintzen eta eman nuen. Handik gutxira jakin nuen 25 000 pezetako isuna jarri zidatela, baina isun hura ondarrutarrek eurek ordaindu zuten. Beste behin Muxikako gaztetxoek jai dotore bat antolatu zuten. Hara gonbidatu ninduten antolatzaileek Alberto Gabikari laguntzera eta, eguna heldu zenean, hara joan nintzen. Polizia armadako grisen talde handi bat etorri zen meza garaian, pilotalekutik txokorainoko ilara eginda, eta han egon ziren jaia amaitu arte, euren armekin zutik. Criado morroi jauna ere han egon zen grisen buru, *Pajero* eta gainerako agintariekin. Jaiaren antolatzaileek ekarri zuten txistulari batek betaurreko beltzekin zegoen ezezagun bati esan zion: «*Oye, Gafas, ¿vamos a tomar un trago?*». *Gafas* hura Criado morroia zen, eta a-zelako iskanbila atera zion «*por injuriar a la autoridad*». Atxilotu nahi zuen eta bake-baketan zegoen gazteria asaldatu, itxuraz. Albertok, hala ere, lortu zuen Criado baretzea eta txistularia bakean uztea. Hala

ere, eguerdian jaira etorri zen Ander Manterolari, garai hartan Herri Gaztediko burua zenari, 25 000 pezetako isuna jarri zioten, nahiz eta ezer ez zuen egin. Ez Albertori ez niri, ostera, ez ziguten inolako isunik jarri.

Mezu iraultzailearen hedapena

1950eko hamarkadaren bigarren partean eta 1960ko hamarkadan Bizkaiko herri-giroa asko aldatu zen eta giro-aldaketa horrek eragin handia izan zuen Bizkaiko abadeengan ere. Eliza barruan eta elizatik kanpo eman ziren hainbat zergatik ekarri zuten aldaketa hori. Baina Eliza barruan eman baziren, Elizatik kanpokoek eragina izan zutelako batez ere izan zen. Bigarren Mundu Gerraren ostean, Europako herri sozialistek eta Hego Amerikako giro aurrelariak izan zuten eragina handia izan zen, herri txiro eta zapalduen aldeko eta langileriaren aldeko giroa zabaltzeko.

Hemen gerra osteko izua gaingiduz joan zen, eta Frankismoa ospea galduz. Eta, ondorioz, Frankismoaren kontrako borroka indartuz. Komunikabideak Frankismoaren guztiz menpe zeuden eta haien bidez kontrako mezua baino ez zen zabaltzen. Beraz, mezu iraultzailea, hau da, langileriaren aldekoa, euskararen aldekoa, Euskal Herriaren nortasunaren aldekoa... abestien bidez, jaien bidez eta isilpeko bideetatik zabaltzen zen. Eta kontu handiz gainera, zeren salatari ugari baitzegoen, hainbeste non txapelokerrak eurek ere jakitun baitzeuden gazte abertzaleek mezua abestien eta abarren bidez zabaltzen zutela. Eta jaialdiren bat antolatzen zenean zeintzuk abesti kantatuko ziren esan beharra egoten zen, eta bertsolariei eurei ere, hau da, mezu errimatua eta neurtua bat-batean asmatu behar zutenei, sarri eskatzen zitzaien ea zer esango duten hurrengo bertso-saioan. Haiek bai ezagutu ondo euskal kultura!

Ezagunak egin zirelako aipa ditzagun garai hartan guztien ahotan zebiltzan eta gaur komunikabideek zeharo baztertu dituzten abesti batzuk: «Guardia zibil ta polizi, txibato eta sekreta, Euskal Herria daukagu putasemez beteta» (Herrikoia). «Ez dut maitatzen Vietnamgo gerra... Nik ez dut inor seinalatu nahi, gizon guztiok berdinak gara, baina zergatik ez dira joaten atzerritarrak euren etxera...» (Lourdes Iriondo). «Gazte gara gazte eta ez gaude konforme, mundu garbiago bat bizi nahi genuke, gezurraren kontra...» (Lourdes Iriondo). «Gu gazteok gaur gabiltza mundu galdu honetan, [...] zer egin jakin gabe, gurasoen mundu aldrebes hau ez dugu onartzen...» (Benito Lertxundi). «Gu gara Euskadiko gaztedi berria, Euskadi bakarra da gure aberria» (Herrikoia). «Egin dezagun biharko Euskadi Sozialista bat» (Gontzal Mendibil). «Gaskoi edo maketo ez dugu etsaia, baina euskal semea da gure anaia [...] mugaren bi aldetan da Euskal Herria» (Michel Labéguerie). «Aita zer egin duzu euskara maiteaz, erdaran hazi duzu oi

zure semea, ondasun ederrena aita batek galtzea. [...] Aita zer egin duzu gure lur maitez, kanpokoari saldu oi dohakabea» (Piarres Lartzabal/Michel Labéguerie). «Ez, ez, ez naike alai izan ni, ez baita libre Euskadi. Bai, bai, bai alai izango naiz ni libratu-eta Euskadi» (Michel Labéguerie). «Gizonak kartzelan daude beren herriagatik» (Benito Lertxundi). «Zer eskatzen du Herriak? Amnistia! Zer eskatzen du Herriak? Askatasuna!» (Urko).

Garai hartan Vatikanotik ere aire freskoa etorri zen Juan XXIII.aren eta Vatikanoko II. Kontzilioaren eskutik. Goi mailako Bizkaiko elizgizonak ere jabetu ziren zerbait berria gertatu zela, Erroman Kontzilioan egon zen gure gotzainak zera esan baitzigun: «*En Roma he convivido con un obispo negro, muy negro*». Eta guk hemen zerbait jatorra aurrera ateratzeko denetarikoak egin behar izan genituen giro berri hori ezagutu eta gauzatzeko, eta hori lortzeko «senperren beltzak» pasatu behar. [...]

Operación 4 x 4 (Derioko itxialdia)

Derioko apaiztegian itxita egon ginenean, 1968ko azaroan, Don Pablo Gurrpide gure gotzaina hil zen. Garai hartako egunkariek, hau da, *El Correo Español*ek eta *La Gaceta del Norte*k, esan zuten Derioko itxialdian zeuden abadeek hil zutela, Don Pablo ordurako minbiziarekin azkenetan zegoen arren.

Goztaineren heriotza bere abadeentzat bereziki gertakizun dolugarria da eta, hil zela jakin genuenean, itxialdia amaitzea planteatu zen; baina egunkarietan berria irakurri genuenean geu ginela hiltzaileak esaten, hobeto aztertu genuen arazoa eta idazki bat egitea erabaki genuen esaten zuena gu ez gindoazela zuzenean gotzaineren kontra, gure helburua Elizaren egitura ebanjelioaren eta Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera gauzatzea zela, eta gaizki interpretatua izan ez dadin itxialdian jarraituko genuela Erromatik erantzuna hartu arte.

Sasoi hartan hasi nintzen Durangoko Onena Burdinola enpresan lanean ere, arrak egiten hain zuzen, langileengana hurreratzeko eta elizgizonek geneukan Frankismoaren babesetik aldentzeko. Garai hartako euskal kulturaren bertan ere «abade langilea» kontraesana zirudien «apaizak hobeto» esaterarekin, baina giroa huraxe zen. Lanean hasi eta gutxira, Alemaniako kazetari batzuk etorri zitzaizkidan Iurretara, telebista eta guzti, Euskal Herriko apaizei buruzko elkarriketa bat egitera. Ez dakit nola jakin zuten ni lantegi hartan lanean ari nintzela. Nire bizitza, behintzat, ondo ezagutzen zuten. Galdera batzuk eta inguruan eta kanpandorrean hartze batzuk lanean ariko banintz legez egin zizkidaten eta han joan ziren Alemaniarantz, esan zuten bezala.

Ez ninduten utzi luzaroan lan egiten, 1968ko abenduaren erdi inguruan Donostiako komisariara eraman baininduten Gabon jaiak lasai-lasai eta janean

eta edanean inolako gehiegikeriarik egin gabe pasatzera. Orduantxe jakin nuen arrainek ibaiko ura guztiz pozarren edaten zutela Jainkoa jaio zela ikustean, eta Pasteleroren aitagarrebak lagun asko zituela.

1968ko abenduaren 21a: lehenengo atxiloketa Eibarren

1968ko abenduan, Eibarko eliza inguruko talde batek Gabon jaiak baino zer bait lehentxeago Eibarren hitzaldi bat ematera gonbidatu ninduen, eta nik baietz esan nion. Iurretako jende batek, abendura heldu ginenerako, esan zidan Arrate Irratia eta beste irratia batzuk nire hitzaldiaren propaganda egiten hasirik zeudela. Ni harrituta eta kezkatuta geratu nintzen, ez bainuen arrazoirik aurkitzen horrelako propaganda egiteko. Eguna heldu zenean, Iurretatik sasoiz atera nintzen; baina jarraian konturatu nintzen nire atzetik beste kotxe arraro bat atera zela. Matienara heldu nintzenean Eibarko bidea utzi eta Markinakoa hartu nuen. Atzeko kotxeak atzetik jarraitu zidan. Berehala dago aldapa handi bat eta astiro-astiro joan nintzen aldapan gora, baina ez ninduen aurreratzen ezergatik ere. Beldurtu egin nintzen eta Berrizko bidea hartu nuen Ganekoetxen geratzeko asmoz. Telefonoz dei egin nien Herri Gaztediko Rosa Mari Artzari eta Durangaldean proba-urtea egiten ari ziren bi apaizgairi.

Harrituta geratu ziren ni hain urduri ikusita, baina etorri ziren ni zain nengoen tabernara eta lasai joan ginen Eibarrerantz, nire atzetik Berrizeraino etorri zen kotxea desagertu zelako. Adarjotze ikaragarriak egin zizkidaten, kotxe ugari ikusi arren, nik esandako modukori modukorik inon ikusten ez genuelako. Gipuzkoan «*Estado de excepción*» zegoen eta Bizkaian ez. Ermutik irten eta Gipuzkoara heldu ginenerako, bi edo hiru kotxek ilegalki aurreratu eta bide bazterrera bota gintuzten.

Poliziak ziren eta «*Estado de excepción*» zegoen lurraldea zenez, nire hiru lagunak polizia-kotxean sartu zituzten eta nik ez nituen gehiago ikusi Martutenetik irten arte. Gero esan zidatenez, ez zituzten eduki luzaroan komisarian. Ni, berriz, neure Seiscientosean eraman ninduten lau poliziak Donostiako komisariara atzeko eserlekuan, bi poliziaren erdian, baina eskuburdinarik ipini gabe.

Lehenengo egunean beldur ikaragarria izan nuen, uste bainuen torturatuko nindutela. Nik ez neukan ezer ilegalik eginda, baina torturapean torturatzailak nahi duen guztia eta berak nahi duen bezala esaten omen da, eta hala torturari nola torturapean esandakoari beldur izugarria nien. Baina, ziegara barik, besaulkidun gela dotore batera eraman ninduten. Lo ere hantxe egin nuen hiru egunean. Bi polizia gazte etorri zitzaizkidan galderak egitera. Hirurok besaulkietan eserita egin zizkidaten galderak. Eta ez torturarik ez mehatxurik ez zidaten egiten. Ni lasaitu nintzen eta neure baitan pentsatu nuen: «jotzen ez banaute, ez daukat arriskurik».

Bi polizia gazte haiek galderak egiten zizkidaten, baina esan liteke hura, galderak baino gehiago, elkarrizketa-edo zela. Elkarrizketa-edo esan dut, nik gehienetan «ez» eta «ez dakit» baino ez nielako erantzuten. Behin galdetu zidaten ea nola neukan kotxean ikurrina. Nik esan nien nire arreba itsasgizon baten emaztea zela eta sarri joaten zela Espainiatik kanpo eta hark ekarri zidala Australiatik-edo. Beste behin itaundu zidaten ea nor zen Aita Santu Beltza. «Aita Santu Beltza?», harrituta erantzun nien, «ez dut holakorik sekula entzun eta gutxiago ikusi».

Hurrengo goizean agertu zen halako gizon handi eta indartsu bat: Sainz jauna. Polizia-burua zela jakin nuen. Eta hark bere aurpegia nire aurpegi ondoraino hurreratu eta, itxuraz haserre gorrian, esan zidan etakoa nintzela esaten ez banuen ziegara eraman eta hantxe edukiko ninduela «*Estado de excepción*» amaitu arte, eta gero etakotzat zigortuko nindutela. Baina ez ninduen jo, ez jotzeko agindu. Gerorago beste polizia bat etorri zitzaidan. Nirekin zeuden bi polizia gazteak gelatik kanpo bota zituen, eta esan zidan ez arduratzeko polizia-buruak esandakoekin. Berari kontatzen banion egia osoa, berak utziko ninduela aske, eta lasai egoteko. Nik esan nion ni egia esaten ari nintzela. Adeitasunez eta errespetuz tratatu ninduen. Handik urte askora, Franco hil eta gero, polizia-burua barik, beste polizia, «polizia ona», hara non ikusten dudana Donostiako Alde Zaharrean, Korrika Donostian amaitu zen batean. Lagunei esan nien: «Hara hor nire polizia ona!». Konturatu zen ni konturatu nintzela eta, Korrika amaituta egon arren, korrika egin zuen ihes.

Gero hasi zitzaizkidan esaten etako batek kantatu duela Iurretako gure etxea. Gure etxera joan direla egia esaten ari denetz ikustera eta egia esan duela, etxea berak esan duen lekuan eta deskribatu duen modukoa delako barrutik ere.

Nik esan nien guztiz posible dela, gure etxeko ateak beti daudelako zabalik eta han gazteek bilerak egiten dituztela eta daitekeena dela han inoiz etakoak egotea. Nik ez nuela hori ukatzen, ezta gutxiagorik ere. Ni elizgizona nintzela eta mundu guztiak zeukala han sarrera. «Guk poliziek ere?», esan zidan batek. Eta nik zera erantzun nion: «Premia edukiko bazenute, bai». Behin baino sarriago Jose Mari Dorronsorogatik galdetu zidaten. Nik esaten nien nik Lukas Dorronsoro bat ezagutu nuela Gasteizko apaiztegian, eta gero abadetzan ere berarekin izan dudala harremana. Poliziak esan zidan Jose Mari Lukasen anaia zela, eta biak egon zirela apaiztegian; beraz, derrigor ezagutu behar nuela. Nik esan nien Lukasek ez zuela anaiarik izan Gasteizko apaiztegian eta ni Lukasekin Gasteizen baino ez nintzela egon, gero bera Donostiako apaiztegira joan zelako, eta ni, Deriokora. Gehiago ez zuten atera Dorronsororen auturik. Baina, halako batean, hormara begira zutik jartzeko agindu zidaten. Eta ahots batek esan zuen: «¿Conoces a este señor?». Eta beste ahots batek «Sí» erantzun zuen. «¿Cómo se llama?» «Don Julen

Kalzada.» «*Márchese.*» Gero agindu zidan berari begira jartzeko. Sainz polizia-burua zen. Jarri nintzen berari begira eta esan zidan: «¿*No ve cómo le conoce a Ud.? Y ese no miente*». Eta nik erantzun nion: «*Yo no digo que mienta. Ya les he dicho que en mi casa suele entrar mucha gente. Pero quiero añadir que yo conozco a Franco; pero pregúntele a Franco si me conoce a mí*». Hantxe amaitu ziren galdera eta adeitasun guztiak.

Hiru egun eduki ninduten besaulkidun gelan. Gabon bezperaraino. Ziegara jaitsi ninduten eta bertan eduki ninduten Gabon jai guztietan, Erregeen eguna pasatu arte. Ziegan harrizko eserleku-ohe bat eta manta bat nituen. Alboko ziegetaria egunero ekartzen zituzten Donostiako «Pasteleroren» aitaginarrebaren taldeko mordo bat. Eta polizia zaintzaile batek egunean berrogei aldiz gutxienez abesten zigun harako «*Pero mira cómo beben los peces en el río, pero mira cómo beben al ver a Dios nacido*» kantua. Ez dakit mozkorren omenez ala beste zerbaitengatik.

Ziegan eduki ninduten denbora guztian janaria kanpotik ekartzen zidaten. Esan zidaten Donostiako gotzaindegitik ekartzen zutela. Gero jakin nuen Jesus Mari Mugikak, nire ikaskidea eta garai hartan Gotzaindegiko idazkaria zenak, aginduta ekartzen zidatela. Ziegan nengoela, goiz batean eskatu nuen komunera joatea. Ziegako atea zabaldu zidaten eta inoren laguntzarik barik utzi ninduten komunera joaten. Komunean Jose Mari Dorronsoro aurkitu nuen aurpegi guztia beltz-beltz eta guztiz handituta. Ez zeukan hitz egiteko adorerik ere.

Gabon jaiak amaitu zirenean Martuteneko kartzelara eraman ninduten eta, han hiru egun egin ondoren, atera egin ninduten. Bertan nengoela etorri zitzaidan Lasanta militarra eta mehatxatu ninduen ez banuen esaten Jose Mari Dorronsoro ezagutzen nuela, Jose Mari sei urteko zigorra emango ziotela gezurra esateagatik. Baina heriotza-zigorra eman zioten eta niri hamabi urtekoa.

Maiatzeko egun batez

Gabonak Donostian «hain ondo» igarota, Onena lantegian baino lan gehiago eduki nuen maiatzeko egun batez, hogeita hamarra hain suertez, gose-greba egiteko prestaketak egiten. Gainera, Onena lantegiko langileek ondoegi tratatzen ninduten, eta ni pitin bat lotsatuta nengoen. Ez dakit zergatik tratatzen ninduten hain ondo, zeren haiek arrak egiten zeukaten trebetasuna ikusita, ni euren aldean benetan traketsa bainintzen. Eta uste dut gainerako langileak ere nire aldean trebeak izango zirela euren arloan. Baina, hala ere, begirune eta adeitasun handiz tratatzen ninduten.

Gose-greba ondo prestatu genuen. Sekretu handiz eraman genuen. Medikuekin egon ginen osasun alorrean nola jokatu behar genuen jakiteko. Eta, eguna heldu zenean, erraz lortu genuen gotzaindegian sartu eta beheko sotoan instala-

tzea. Hiru egunean egon ginen. Iluntzean sartu, ateak itxi aurretxoan, hurrengo egun osoa bertan igaro eta ekainaren batean, goizean goiz, komisariara eraman gintuzten. Gotzaindegiko bigarren egunean, hau da, hogeita hamaikan, Cirarda gotzain jaun agurgarria etorri zen ondo zainduta eta, beste gauza dotore batzuen artean, «¿Cómo no habeis elegido el hotel Carlton?» eta «Sois la rama desgajada de la Iglesia» esan zigun. Berak bere liburuan ondo esaten duen bezala, gauzak ezberdinak dira nondik begiratzen diren: «*Lo cuento como lo viví y como lo recuerdo. Otros, ello no obstante, pueden tener una visión diversa de los mismos hechos por haberlos contemplado desde una perspectiva distinta a la mía*». Cirarda, itxuraz, Francoren elizaren edo *La Libertad* Valladolideko egunkariaren ikuspegitik aztertzen ari zen gure ekintza, eta ez Juan XXIII.arenetik. Guk ez genion eskatzen gauza handirik, zera baino, Bizkaiko Elizaren ordezkaria bera zenez, langileekin eta euskal ekintzaileekin Estatuak zeraman jokabide zitala, torturak barne, salatzea. Eta salaketa hori berak egiten ez bazuen, Elizan hurrengo maila geu ginenez, geuri tokatzen zitzaigula salaketa egitea, Euskal Herriko Eliza ezin zelako salaketa hori egin gabe geratu.

Komisarian ziegan eduki ninduten bereizita, ez kanpoko berririk ez beste lauren inolako berririk izan gabe azken uneraino, Basauriko kartzelara eramateko prestatu ziren arte. Orduantxe egon ginen bostok apur batean elkarrekin, poliziak noiz etorriko zain. Hemen ere Cirardak, Gasteizen Filosofian «Psicología Racionalis» eta Teologian «*De Deo Creante et Elevante*» irakatsi zigun jaun jakintsuak, guk baino asko gehiago zekien gure komisariako egonaldiari buruz ere. Eta gu beldur ikaragarriarekin, guztiz haserre eta patxadazko ezer jan gabe artean. Hala gogoratzen dut nik behintzat orduko egoera hura! Hain gaizki egongo ginen ezen ez bainaiz, eta ez baikara, gogoratzen bere «*secretario canceller*» delakoa etorri zenik ere, bere oroitzapenen liburuan horixe idatzi arren. Eta Cirardak egia baino ez du esaten: «*Todo lo que escribo es verdad*» dio delako liburuan, hasiera-hasieran. Zuhur, zentzudun eta begiraturxoagoa izan beharko zatekeen, nik uste, esan zuena sinesgarria izateko. Handik Basaurira eraman gintuzten, eta hantxe eduki, Burgosen epaiketa prestatu arte, astebete inguru. Berririo Basaurira eta, zigorraren berri eman zigutenean, Zamorara hamar, nire kasuan esaterako, eta hamabi urte bitarteko zigorrekin. Jesu Kristo hiru egun kanposantuan egonda Zerura joan zen; gu, oster, hiru egun jan gabe egon eta Zamorako infernura.

1969ko maiatzeko hogeita hamar zoriontsu hartan amaitu ziren, bada, Euskal Herrian bizitako egun eder eta zoriontsuak, zeren elizak eta gobernuak, biek bat eginda, Euskal Herriko oasitik Zamorako basamortura eraman baikintuzten gure Franco handia eta eskuzabala hil arte. Baina gu Zamoran lasai eta estu egon arren, Euskal Herrian jarraitu zuen borrokak.

ROSA MARI ARTZA

Gazteriaren herrigintza



Rosa Mari Artza (Maitane Azurmendi).

ROSA MARI ARTZA (1946-2001)

Rosa Mari Artza 1946ko abuztuaren 30ean jaio zen Arriandi auzoan. Bertako eskolan egin zituen lehen ikasketak, eta lan munduko lehen pausoak ere auzoan eman zituen, paper fabrika. 18 urterekin Baserri Gaztedi, geroago Herri Gaztedi deituko zen erakundean parte hartzen hasi zen, elizaren inguruko mugimenduan. Bizkaiko liberatu kargua jasota, euskalgintza sustatzeko lan eskerga egin zuen gazteen artean.

Gerediaga Elkartean eta ikastolen mugimenduan ere ibili zen. 1970ean Euskaltzaindian hasi zen idazkari lanean, eta 1977an erakundeko liburuen banaketa eta salmenta hartu zituen bere gain. Gaixoaldi baten ondoren hil zen 2001eko otsailaren 25ean.

Sasoi hartako hainbat gutun gordetzen ditu familiak, eta Herri Gaztediko kideengandik jasotako eskutitzek adierazten dute eragin handiko emakumea izan zela. Rosa Marik idatzitako kronika lokal batzuk transkribatuko ditugu ondoren, Anaitasuna aldizkarian publikatu ziren moduan, euskara batuaren bila zalantza askorekin.



HERRIKO KRONIKAK

YURRETA, JAIK¹

Aurtengo jaiak dirala ta, Yurretako gazteak ez dira jai utsetan gelditu. Benetan be pausu jatorra aurrerantz emon dabe. Irailaren 28-an jai ei asiera emon eutseen Kofradia Egunagaz. Yurretako elizatea osotuten daben Kofradiak, honeexek dira: Orozketa, Santa Marina, San Fausto, Oromino, Goiuria eta Yurreta.

Hona hemen jaien egitaraua. Goizeko amar t'erdietan Barandiaran-en Mezea, erriak eta koruak lau abotsetara abestua. Ondoren, sei dantza talderen saioa, bakoitza bere Kofradiaren izenean. Bertsolari ta abeslari saioa Kofradiako seme diranakaz. Gero sokatira txapelketea, eta txorokil ta arrautzopil txapelketea.

Egitarau osoan, Kofradia bakoitzeko errepresentazinoa egon zan. Egun honeri amaiera emoteko, han euki genduzan Bilboko «Oinarriak». Mutil jator honeek, erromeria alai bat bidetu eben. Egun guztian benetako euskal giroa egon zan. Yurretak eta Durangok imigrante asko daukez (erdiak inguru). Jaiak bitarteko bat izan dira, honeei gure berezitasunak adierazoteko.

Baita esanbeharrekoa da, jai eratzaileen artean, kanpotik etorritako batzuek egon dirala, eta benetako ardureaz jaiak erutzen lan egin dabela.

Yurretako jaiak dirala ta, ez dogu oraindino dana azaldu, eta urrengo baten ekingo deusagu.

Zorionak lan egin daben guztiei eta aurrera!

R. M. ARTZA

ARRIANDI²

Azken bolada honetan, Arrianditarrok hauxe entzuten izan dogu: «Zuenak egin dau, mutilak! ez dago zereginik!

Esakera honek gazte talde baten belarriak minez zauritu dituala esango neuke. Orain dala denbora gutxi, Oromiñon Igorretako Kofradien eguna ospatu genduan; eta, Arriandi bertako kofradia bat izanik, jendeak ez ei eban behar dan legez erantzun euren zereginetan.

Baina gauzak aurrerantzean be holan izango diranik ez dot uste, eta hona hemen demostrazino bat: uztailaren 10-ean San Kristobalen eta 18-an Santa Mariñan, jaiak izango dira, santu bakoitzaren ermitatxuan. Hau dala ta, gazteak batu egin gara (22 guztitara), jaiak sasoiz antolatzeke.

1. *Anaitasuna* 175, 1969-09-30.

2. *Anaitasuna*, 189, 1970-05-30.

Lehenengo, igazko diru mugimentuaren barri emon eban diru arduradunak; gero, jaiak aurrera eroateko zuzendaria eta sekretarioa danon akorduz aukeratu ziran; eta azkenez, bakoitzaren iniziatiba ta eritxiak azaldu ziran. Jaietako programa eratuteko, batzarrak amabostero egitea erabagi zan.

Ea ba nagikeria ta ardurabakotasuna menperatzen dogun. Orain esku artean artu dogun arazo hau entrenamentu bat izango da aurrerantzerako, pelotoia galdu eta atzean gelditu ez gaitezan barriro be.

Aurrera mutilak, bakoitza bere arloan.

ARRIANDITARRA

HERRI GAZTEDIAREN BATZARRA³

Erri Gaztediak bere baitan aurrera daroan eginkizuna, hauxe da: aztertu euskal gazteen egoera, karakteristikak eta aspirazinoak, gero euren alderdi guztiak osorik lantzeko.

Urteetan zehar gazteen giroa bizi izan dogu errietan, eta, beste gauza askoren artean, gauza batekin gehienbat ohartu gara: gazteak batasuna behar dabela, euren bidea zabaltzeko eta gaurko munduari erantzun jator bat emoteko.

Aspaldiko urteotan pauso banaka batzuk emon izan ditugu: urte barruan sortzen diran arazoak mahai gainean jarriaz; batzar eta ikastaldietan; lanaldia aurrera ateratzean; gaztedi eta erriaren egoera analizatzean; Elizaren egoera, jokaerak eta dituan kontradizinoak aztertuz, eta abar.

Artuemon honeetan, pozarren adierazoten dot, mugaz harazkoak izan ditugu gure artean. Euren aportazinoa guztiz baliotsua izan da, ekintza alkartu batzuk baseko jendearekin egitea proposatu euskuen eta. Proposamendu hau dala ta, garrantzizko pauso bat emona dogu. Uztailaren 12-an, 85 bat gazte alkartu ginan Gipuzkoako errixka batean: Bizkaitik 32 (autobus batean joan ginan), Nafarroatik 6 edo, Gipuzkoatik 30 bat, eta ipar Euskalerritik 15 bat. Araba aldetik, zoritxarrez, ez genduan lagunik izan. Nortzuk uts egin ote dabe? Eurak ala guk?

Programa erraz bateri jarraiturik, euskal gazteak bizi dituen arazoak aztertu genduzan: giroa, problematika, erri kontzientzia, ekonomia, kultura, eta abar. Girotze on bat lortzeko, bazkalordua eta ostea aukeratu zan. Laguntasunik asko izan genduan horretarako: bertsolari, abeslari, txistulari ta dantzariak. Egun onuragarria benetan.

R. M. A.

³. *Anaitasuna*, 194, 1970-08-30.

ABADIÑOKO SANBLASAK⁴

Abadiñon, joan diren urteetan, ez da jairik egin; baina aurtengo Sanblasetan, gazte talde bat organizadore izan dalarik, aurrera eroan da jai eraketaren ekintza. Taldeko gazteenek partizipazioa eskatu eutsen beste urteetan eratzaile izan direnei, jaiek behinolako beste indar izan eien. Hiru-lau lagunek bakarrik erantzun eutseen. Zer jazo da beste askoren artean? Guztientzat lanik ez? Ala, urte biren barruan zahartu? Abadiñoko gazte batek baino gehiagok ez ote leuskioez itaun honeek egingo, joera hau euki dabenei?

Berton entzutetsu diren idi probak antolatu zituan Udalak hiru egunetan. Baina jaien eratzaileek, jakina, ez dabe parterik hartu honetan, ehun mila pezetatik gorako sarrera egon baita probako egun bakoitzeko. Abadiñoko herriarentzat probaderoa toki aproposa da, besterik ez dabenez gero. Baina ez idi probak bakarrik; beste gauza asko ere egin leitekez urte barruan.

Jaiei azkena emateko, otsailaren 14ean, euskal jaialdi bat antolatu eben gazteek, Txairo, Natxo, Itziar, Txomin Bengoa, Jon Enbeita eta Markina-Etxebarriko antzerki taldearen partizipazioaz. Jakina da, aurren lehenengo saioetariko bat zanez gero, jendea hurrengo baterako gosez atera behar zala, eta ez aspertuta, atera zan legez. Nik hutsune batzuk ikusi nituan, eta neure eritzia ematera noa, ez inor mintzeko asmoarekin, egiten dan kalteaz kontura erazteko baino.

Uste dot, jaialdiaren programa gaizki eratua egoela, probaderoa ez baita leku egokia, antzerkiak egiteko. Programa luzeegia zan, eta gehiago luzatzeko eukera eman jakon. Bertan ikusi nituen talde berezi batzuek, euskal jaialdi batera joan beharrean, hobeto egingo eben, kalean jolastu balira, horretarako giroa ebenez gero. Batez beste, asko gara euskal artistei herrikoitasuna eta Euskal Herriko gorabeheren iragarle izatea eskatzen deutsegunak. Ez ote dauke eurek eskubide eta adorerik, herriari seriotasun pixka bat euki daiala esateko? Ala, euskal festibalak zirkoaren gisan hartu behar ote ditugu? Pentsa pixka bat, bai herriak eta bai kantariak ere.

Egia esan, Abadiñoko probaderoa ez da toki aproposa holako gauzetarako, kondizio akustikoak eta abar ez baitira egokiak. Baina, aurrez esan dogun legez, toki bakarra da, eta konponketa edo berriztatze bat egin behar. Nork egin behar dau? Herriko Udala eta gazteak izan dira jaien antolatzaile. Udalak 12 000 pezeta eman deutsez gazteei, presupostua 35 000 pezeta ingurukoa izan da, eta sarrerek 30 000 pezeta edo utzi ditue. Udalak, berriz, idi probak antolatu ditu. Jakin dodanez, sarrerek 300 000-400 000 pezeta utzi ditue. Gelditu dan diruaz, ba

4. *Anaitasuna*, 207, 1971-03-15.

ote dago asmorik, probaderoa datorren urterako kondizio hobeagotan ipintzeko, utilidade zabalago bat izan daian?

R. MARI ARTZA

EUBAKO JAIALDIA⁵

Maiatzaren 20an, Asentsio egunean, Eubako Pasionistek euskal jai eder bat eratu eben, San Paulo Gurutzekoaren ohoretan. Jendetza haundia bildu zan Euban egun haretan, nahiz eta eguraldiak lagundu ez.

Txistulariak, bertsolariak eta abar izan ziren. Baina jaialdi hori entzutetsuago egin ebana, euskal kanta lehiaketa izan zan. Eta nik Bermeoko albisteen artean aipatzen badot, horrexegatik da. Hain zuzen, euskal kanta lehiaketa hori Lupe Fernández Bilbao Bermeotar neskatiak irabazi eban. Bere hamabi urte zoragarriekin, eta, gaur egun ohi dan legez, kitarraz baliaturik, hainbat lehiakideren artean izan da garaile. Zorionak, Lupe. Bide ederra daukazu aurrean.

⁵. *Anaitasuna*, 213, 1971-06-15.

IKASTOLAREN LEHENENGO PAUSOAK

Inspektorea berriro noiz agertuko beldurrez



GOIURIA IKASTOLA (1968-1981)

1950-60 urteetan, frankismo betean, aldaketa sozioekonomiko handiak heldu ziren Iurretara. Industrializazioarekin langile oldeak erakarri ziren kanpotik, eta etxegintza basatia bultzatu zen. Euskara baserrialdean eta etxean barruan mantenduko zen, baina espazio publikoetan debekatuta zegoen, eskoletan eta instituzioetan, behintzat. Elizan, mezak latinez egiten ziren. Kalean, dena erdaraz egiten zen. Kaleen izenak ere halakoak ziren: *La Paz, 18 de Julio, Vista Alegre...*

Botere nagusien eta giro haren kontra, 1968an, gutxi batzuek Goiuria Ikastola sortu zuten, «ilusioz, auzolanez eta maitasunez». Zubiaurre kalean hasi zen, Julian Berriozabalgoitia garaitarrak, Iurretan bizi eta Gerediaga Elkartearen sortzaileetakoa izan zenak, utzitako lokal batean. 3 urtetik 5 urtera arteko umeak ziren, Ana Mari Berriozabalgoitia izan zen lehenengo andereñoa, gero Maribi Jaio.

Markel Onaindiak, Justo Alberdi, Kristina Mardaras eta Jon Irazabalekin batera, esperientzia pedagogiko berritzaile haren memoria jaso dute: *Goiuria Ikastola: auzolan miresgarri baten kronika*, Gerediaga Elkartea, Iurretara, 2022.

Eskolaren hasiera erdi klandestinoan izan zen —alegala, ilegala ez zenean—. Zubiaurre kaleko lokalean hasi arren, urte batzuetan umeek etxerik etxe ibili behar izan zuten ihesean inspektoreengandik. *Inspector Jefe de Primera Enseñanza* zen Pablo Sánchezengandik bereziki. Orozkon jaioa, guardia zibil baten semea, eta Gerra Zibila nazionalekin egindakoa zen, eta gerran jarraitzeko prest zegoen gorri-separatisten ilusioaren, auzolanaren eta maitasunaren kontra.

Sánchez Azpuru ospetsu egin zen frankismoaren azken urteetan ikastola «klandestinoen» aurkako bere jardueragatik. Inon ikastolaren bat zegoela enteratzen bazen, bertara presentatu eta salaketa informea prestatzen zuen Gobernadore Zibilarentzat, ikastola legez kanpkoa zelako, euskara irakasten zelako eta ageri-agerian separatista zelako. Iurretara ere heldu zen gizona, eta birritan zarratu zuen Goiuria ikastola, 1969an eta 1971n.

Ikastolako guraso eta irakasle askok dute akorduan, ikastolak era klandestinoan jarraitu zuelako familien etxeetan eta inspektorea berriro noiz agertuko beldurrez.



SANCHEZ INSPEKTOREA

«1968ko urtean Goiuria Ikastola sortu zen, *Parvulario Goiuria* izenarekin ofizialki, Julen Kaltzada eta Iurretako guraso eta gazte talde baten ekimenez, Julian Berriozabalgoitiak Zubiaurre kalean utzitako lonja batean, Ana Mari Berriozabalgoitia andereñoa zelarik. Hasierako garai honetan, Maribi Jaio eta Montse Sarriugarte ere ari izan ziren andereño lanetan. 3tik 5 urtera arteko umeak biltzen zituen ikastola honek, eta urte batzuetan, lege arazoak direla medio, etxerik etxe ere ibili behar izan ziren umeak.»

(JON IRAZABAL)

«Han ibili ziren gure umeak, Sanchez jauna etorri arte. Eskolen inspektzioa eramaten zuen. Esan zigun komun bat gutxi zela hainbeste umerentzat. Zelan ba gutxi zela? Baserri eskolak mila daude ez daukatenak komunik!»

(MARIA PILAR MINTEGIA)

«Sanchez! Sanchez! Bai, klaro... harek inspektoreak itzelak egin zituen! 1969ko maiatzean zarratu zigun ikastola. Bere aginduz, hurrengo urtean ezin izan nuen Iurretan jarraitu, eta Algortara joan nintzen. Baina han ere, Sanchezek Leopoldo Zugazari esan zion bazekiela non nengoen, eta ezin nuela jarraitu, bestela espedientatu egingo ninduela.»

(ANA MARI BERRIOZABALGOITIA)

«Anari ordezkapena egiten nengoela, Sanchez inspektorea agertu zen hara, uste dut. Ikusten nago, bere betaurreko, bibote txiki eta trajearekin... Gero berriro etorri zen Zubiaurren geundela, eta itxi egin zigun. Durangon ere agertu zen. Argi zeukan desagertu egin behar genuela, eta guk argi geneukan segitu egin behar genuela. Tipo puñetero bat zen benetan!»

(MARIBI JAIO)

«Pablo Sánchez Azpuru Bilboko Iturribide kaleko 33an bizi zen. Mutilzaharra, Orozkon jaioa, aita guardia zibila, ama euskalduna, *inspector-jefe* izendatu zuten. Euskara ez zitzaion arrotza izango, botanika zalea zen eta euskal baserri mundua maite omen zuen, eta euskara ere bai zentzu folkloriko batean, baina zentzu politikoan ezin zuen euskararik ikusi. Itxia eta zorrotza zen legearekin, 1959-1960an hainbat ikastola itxi zituen Bilbon. Iralabarrikora ustekabean presentatu zen 1959ko azaroaren 10ean, bi andereño gimnasia erritmikoa irakasten zeudela 4-6 urteko umei euskal kantuekin. Ikasle batek *Lutelesti* izeneko liburu zahar bat

Iyorrretan, 1.968'ko Irallak 27

Agur:

Aspalditik itxaroten egon garan amets bat, egi biurtu yaku.

Zueri jakin arazoteko diñogu: Datorren illaren 2'an IKASTOLA bat zabaltzen da Iyorrretan. Iru urtetik - best'erako umetxoak joan leikez bertara. Baña onen barri obeto jakin gura ba'dozue, zuzendu Calzados Urien'era ta bertan asalduko dautzue.

EUSKALDUNAK

Ia, bizkor, berandu izan orduko, geure umeari benetako kultura bat emon daiozun.
Bertakoa, errikoa, benetakoa jatorra!

Ekin eta jarrai

-----ii-----

zeukan, munduaren geografiaz, gerraurrekoa, eta mapamundian «Euzkadi» izena aipatzen zen. Horregatik, Espainia ez estimatzeagatik, Ikastola berehala ixteko eskatu zion inspektoreak Gobernadore Zibilarari.»

(JUAN MARTINEZ)

«Inspektorea beti etortzen zen eta beti defekturen bat ateratzen zuen. Mehatxuak ziren beti, baina azkenean handik irten behar genuela esan ziguten. Ikastola, pisuan, aldi baten zarratu egin zuten.»

(MARI JOSE JAIO)

«Inspektorea lehen lerrokoa zen, beldur handia izaten genuen. Polizien modura ibiltzen zen. Ez pentsatu ikastolan txarto edo ondo erakusten zelako etortzen zenik, keba, ha etorri zen polizien moduan. Enteratzen ginen Ermuan egon zela, edo Zornotzatik pasatu zela, eta ahotsa korritzen zen gure artean.»

(MIKEL SOPELANA)

«1971 urtea zela uste dut. Inspektore faxista nazkagarria zen Sanchez jauna. Don Pablo Sanchez Azpuru. Ikastolan sartu zitzaigun, paperak eskatu... Hau zer den galdetu eta, *“Catequesis San Miguel”* erantzun genion. Parrokoaren baimena, poliziarena, dena eskatzen zuen. Poliziak ziren, azkenean. Orduan itxi zigun ikastola, ohol batzuk ipinita atean. Gero, Sanchezengana joan nintzen eta esan zidan: *“Pase, pase. Usted, según mis documentos, que lo dicen con mucha claridad, es peligrosa dirigente de ETA”*. Nik: *“¿Qué está diciendo usted?”*. Berak: *“Le aseguro, lo que está en mis manos se hará, usted nunca en su vida podrá ejercer magisterio”*. Nik: *“Eso ya lo veremos”*.»

(URI RUIZ)

«Gizon bat etorri zen, inspektorea. Akorduan daukadana da esan zidala: ‘No te quiero ver a no se cuantos km a la redonda’. Esan zidan ez nintzela irakasle... baina beti ipintzen zuen aitzakiren bat.»

(MONTSE SARRIUGARTE)

«Dokumentuekin Bilbora joan nintzen, eta esan zidaten inspektzioak egon beharko zirela. Nahiko beltz ikusten genuen gaia. Sanchezegaz elkarrizketa bat eman zidaten eta esan nion dokumentazioa aurkeztu genuela. Inspektzioa pasa eta komunikatuko zuela berak. Baina denbora pasatzen zen eta gu estu. Abuztua etorri zen, eta Santoñara joan ginen bera bisitatzerara.»

(JUAN MIGUEL GOROSTIAGA)



INSPECCION PROVINCIAL
DE
ENSEÑANZA PRIMARIA
VIZCAYA

MINISTERIO DE EDUCACION Y CIENCIA
INSPECCION PROVINCIAL DE ENSEÑANZA PRIMARIA
VIZCAYA

29-IV-69

SALIDA N.º 762

El ejercicio de la Enseñanza Primaria no Oficial, requiere como previa condición, hallarse autorizada por la Dirección General de Enseñanza Primaria, conforme a las prescripciones de la O.M. del 15 de noviembre de 1.945 ("B.O. del E." del 13 de diciembre).

No habiendo Vd. cumplido los requisitos de dicha Orden, es clandestina la actividad pedagógica que viene desplegando al frente de la Academia "Urresti" de Durango, calle Zubiaur, nº 7, por lo cual debe proceder al cese inmediato de la misma, y a la clausura del establecimiento citado.

Dios guarde a Vd. muchos años.

Bilbao 28 de Abril de 1.969

EL INSPECTOR DE ZONA



[Firma manuscrita]

Sra. MAESTRA DE ENSEÑANZA PRIMARIA, Dña. MARÍA BERRIOZA-BALGOTIA DUÑABEITIA.- DURANGO

«Sanchez inspektorea, bai, famatua zen! Etxegibel, Gorostiaga, Abasolo eta laurok Nojaraino joan ginen beragaz egoten. Opor sasoia zen. Han agertu ginean sekulako sustoa hartu zuen!»

(MIKEL SOPELANA)

«Juan Miguel eta andrea etorri ziren asteburu bat gugaz pasatzen Nojara. Eta Juan Miguelek ezagutu egin zuen Sanchez. Andreagaz eta mutikoagaz etortzen zen lantzean behin. Juan Miguel Sanchezekin egon zen berbetan.»

(ARRATE ALBERDI)

«Etxegibel, Gorostiaga, Sopena, ni eta beste pare bat joan ginen Kantabriara. Hondartzan zegoen Sanchez. Galdetu egin genuen non zebilen, eta hantxe. Sustoa hartu zuen gu ikustean, hainbeste jende beragana!»

(ADOLFO ABASOLO)

«Handik hile eta erdira-edo Bilbotik delegaziotik deitu zidaten, esateko informea eginda zegoela. Joan nintzen, eta negatibo. Inspektore ha bizi zen artean ez zegoen aukerarik. Durangoko ikastolan ere berdin. Niri orri bat eman zidaten haur-eskola baterako behar zena azaltzen zuena. Baina bagenekien bazeudela eskolak baldintza horiek denak barik. Horregatik, Sanchezen partetik bazegoen beste zerbait. Fatxa bat zen, ez zuen euskaragaz ezer jakin gura.»

(JUAN MIGUEL GOROSTIAGA)

«Orduan guraso batzuk prestatu ziren eta etxeetan banatu genituen umeak. Batzuk Etxegibelen etxera joan ziren, beste batzuk Luisanera, Gutierrezenera, beste batzuk sakristiara ere bai. Don Francisco parrokoak eman zigun sakristia erabiltzeko baimena. 'Etortzen badira nik esango diet doktrina ematen daudela' zioen berak.»

(MARIA PILAR MINTEGIA)

«Gogoratzen naiz ikastola zegoen pisura Espainiako delegatu bat etortzen zela, Santanderreko bat. Euskararen atzetik ibili ziren eta... Ikastola zarratzeko edo baimenak ez emateko izaten zen. Horregatik, umeak Etxegibelen etxera eramane genituen.»

(JOSE ANTONIO IZURIETA *TXIKURI*)

«Txibatazo bat egon zen herrian eta, horregatik, Guardia Zibila etorri zen gure etxera. Zabalduek, eta esan zidaten eskola pribatu bat zegoela esan zieten. Hemen? Goiza zen, eta nirera arratsaldean zetozen umeak. Beldurra sentitu ote nuen? Pentsa, Guardia Zibila zen!»

(ANA MARI GUTIERREZ)

«Etxean aita eta amari entzun nien, egunen batean gure etxeko tailerrean egon zela ikastolako ume talde bat; etxerik etxe egoten zirenean inspektoreari iheska. Askotan egiten zena zen etxe bat aipatu, eta gero umeak beste batera eroan, inspektorea joaten bazen etxea hutsik topatzeko.»

(JON IRAZABAL)

«*¿A mí qué coño me cuentas?* –esan zidan Abarzuzak, polizia munizipalaren jefek—. *¡Yo soy de la policía! Los de la ikastola me teneis hasta los cojones.*» Zarataka zebilen sartu ginenetik, eta azkenean berotu egin nintzen ni ere: mahaian kolpea jo nuen. Segituan tinbrea entzun zen, eta aguazilek kalabozo txiki batera eroan ninduten. Gero, alkatearengana eroan, Amorrortu, eta honek esan zidan Sanchez eta haren ingurukoak presioa egiten ari zitzaizkiola delegaziotik, ikastola ez zabaltzeko.»

(JUAN MIGUEL GOROSTIAGA)

«Orduan, Madrilera joan ginen, Hezkuntza Ministeriora. Helbidea eskatu nuen telefonoz, eta esan zidaten Juan Antonio Bermudez zela arduraduna. Pedro koinatuari esan nion, eta andreekin batera joan ginen kotxean, lau baserritar Madrilera. Ordu barik aurkeztu ginen han, *con toda la jeta*. Bermudezek 2-3 hile uzteko esan zigun; oso majoa izan zen. Gora Euskadika irten ginen, eta Madrilen bazkaldu genuen. Handik hilebetera deitu eta Bermudezek baietz, tramitatua zegoela, eta denbora kontua zela, lasai egoteko. Eta halako batean baimena heldu zen. Sinestu ere ez! Ez Sanchez ez ostirik! Ze poza!»

(JUAN MIGUEL GOROSTIAGA)

«Ikasturte bat egin nuen Otxandioko ikastolan, eta abisua etorri zitzaidan, esanez inspektorearen aginduz ezin nintzela Otxandion gelditu. Kontu politikoa zen, ahal zen guztia egiten zuten trabak ipintzeko.»

(KRISTINA MARDARAS)

«Inspektorea Oromiñoko auzo eskolara ere etortzen zen. Bisita egunaren aurreko astea prestatzen pasatzen genuen: letra ona izateko entrenatzen ginen eta norbere aurkezpena ere entseatzen genuen. Bisita egunean, domekako arrokekin joaten ginen eskolara. Egunen batean, ikasleren bat etxean geratzera “gonbidatua” izan zela ere uste dugu. Behin, aste bitarte batean etorri zen eta ondo atera zen dena. Baina, handik egun gutxira, ezustean, gelako bentanatik bere autoa ikusi genuen, SEAT 1430-121 horia. Zubitik agertzen ikusi genuen, eta atoan dena prestatzen hasi ginen, gauzak gordetzen, beharrezkoa zena ipintzen. Gela barruan prest egon ginen, isilik, inspektoreak atea jotzeko zain. Halan egon ginen tarte luze batez. Inspektoreak ez zuen aterik jotzen, eta maistrak irtetea erabaki zuen. Atea zabaltzean, konturatu ginen herritar bat zela, inspektorearenaren moduko auto batekin.»

(RAFA IRIONDO)

«Halako batean gauza handi bat gertatu zen guretzat. Hezkuntzako delegatu berri bat etorri zen Bilbora, Andres El Hazar, moro bat. Ea ba beragaz amistade bat egiten dudan, pentsatu nuen. Ba, kuestioa da hainbesteko amistadea egin nuela beragaz, Durangoko ikastolako frontoia egin barri, haraxe pilotan etortzen zela. Mugartegi papelerako zuzendaria eta bera, Etxegibel eta Beitiaren kontra. Nik antolatzen nituen partiduak, eta gero bazkaltzen joaten ginen. EL Hazarri esan nion egun batean: «Hor daukazu inspektore bat murga ematen dagoena. Esaiozu ez agertzeko gehiago Durangaldetik». Berak erantzun: «Hori ezin diot esan, ezin diot eskatu bere lana ez egiteko». Ba behintzat lana beste era batean egin zezala esan nion. Agur, Sanchez ez zen gehiago agertu Durangaldetik.»

(JUAN MIGUEL GOROSTIAGA)



RAFA IRIONDO

Azken eskola frankista



AUZO ESKOLA

1917an auzo eskolak sortzeko proiektua ipini zuen martxan Bizkaiko Foru Aldundiak. Herrialdeko biztanleen % 40k ez zekien irakurtzen ezta idazten, horietako asko landa-eremuko jendea. 1920ko hamarkadan, auzo eskolak sortu ziren baserritar umeak alfabetatzeko asmoz. Jeltzaleek, Aldundian gehiengoa zutenez, euskaraz nahi zuten bultzatu eskolatzea.

125 auzo eskolatik gora zabaldu ziren Bizkaian, horietatik 21 Durangaldean. Iurretan, hiru: Amezketan, Orozketan eta Oromiñon. Oromiñokoa izan zen hiruen artean lehenengoa eraikitzen, 1921ean, 300 biztanle zituela auzoak eta 70 ume eskolaratzeko moduan. Ordu-rako, Silvestra Zugaza-Artazak eskola propio bat martxan zeukan eta, Aldundiaren eskola zabaltzean, irakasle hori hautatu zuten lanarekin jarraitzeko. Hasieran 48 ume matrikulatu ziren, baina kopurua handituz joan zen.

Gerra Zibilarekin, 1937tik aurrera, Estatu frankistaren menpe geratu ziren auzo eskolak. Panorama zeharo aldatu zen: euskararen debekua, zigorrak, bandera espainola, *Cara al sol* kantatzeko eguneroko errituala. Gau frankista luze ia amaitezinaren ondoren, Francisco Franco hilda, laster heldu ziren aldaketak, Trantsizioa heldu zen eskoletara ere. Baina gauza bitxi bat gertatu zen Oromiñon.

Hango auzo-eskolan beste lau urtez iraun zuen Diktadurak. Gerraren amaieraz enteratu ez, eta lubakian urte luzez geratu zen Hiroo Onoda soldadu japoniarraren antzera, Oromiñoko umeak ere ez ziren diktaduraren amaieraz jabetu, harik eta auzotik herriko eskolara bajatu ziren arte.

Orduko ikasleek ez dute ahaztu hura guztia. Esate baterako, Rafa Iriondok. *Luhartz* taldea sortu zuen 1983an, eta ibilbide musikal luzea egin du harrezkero; baina, umetan, Oromiñoko eskolan ibili zen eta ondo gogoratzen du garai hartako errealitatea..



FRANCO HIL ETA GERO BE, *CARA AL SOL*

Oromiñoako auzo eskolan, Franco hil eta gero ere diktadurapean jarraitu genuen: *Cara al sol* abesten, bandera espainola ipintzen, euskara debekatuta... 1979ra arte egoera horretan egon ginen eskolan. Suposatzen dugu maistraren erabakiagatik gertatu zela hori.

Ni Txarroa baserrian bizi nintzen, eta auzo-eskolara joateko ez zegoen biderik oraindino, oinez joaten ginen. Bilboko nire lehengusuak hiriko ikastolan zebiltzan, eta Oromiñon eskolara biderik ere ez. Gu, azkenengo sasoiak egon ginenak, hiru adin derberdineko ikasleak ginen: seigarren, zazpigarren eta zortzigarren mailakoak. Hamar bat urte neuzkan. Nik Bilbon Leizaola ezagutu nuen asteburu batean, bere altzoan egon nintzen. Eta astelehenean, Oromiñora etorri eta bandera espainola ipini behar, *Cara al sol* kantatu...

Non bizi gara gu? Pentsatu zelako kontraesana.

Leonia Maeztu zen gure maistra. Urte asko egin zituen Oromiñon, ni eskolan egon nintzen denbora guztian behintzat bai. Ikastearen partetik ez dut kexarik, pila bat ikasi genuen. Ikasleak batera egoten ginen denak, lehen mailatik zortzigarrena, eta denona ikasten genuen denok. Zortzi urterako, *raíz cuadrada* ateratzen bagenekien; erro karratuak. Ordu estrak sartzen zituen, maistra partikular moduan, eta aparte kobratzen zuen. Ia denok joaten ginen, ze, nork esan hari ezetz?

Baina, euskara total debekatuta zeukan. Euskaraz berbetan harrapatuz gero, erreglarekin jotzen gintuen hatzamarretan... Mutilei patilletatik tira be egiten zigun, batzuetan, eta akorduan dut baten bat gelan belauniko liburuak eskuetan eusten, euskaraz egiteagatik. Klaro, guk, erderaz ez genekien eta!



Asteko planifikazioa geneukan. Egunero errezatzen genuen angelusa, eta mais-traren familiakoren bat hiltzen bazen, aste osoan errosarioa. Bariku arratsaldeetan, Don Santiago etortzen zen, Leoniaren gizona, Maiztegiko eskola nazionalen irakasle ibili zena. Lehen mailetako ikasleok haren kotxea garbitu behar izaten genuen, eta zazpigarren eta zortzigarren mailetakoek eskolako komunak garbitzen zituzten. Eta, denbora hori errekuperatzeko, zapatu goizetan eskolara joan behar izaten genuen.

Harekin, feudalismoan lez izaten ziren gauzak: Gabonetan oilaskoa eraman behar izaten genion. Eta txerria hiltzen zenean, txorizoak. Oso ondo bizi zen andrea.

Bandera, gazteenek ipintzen zuten normalean, erreleboka. Nagusienek balinekin -eta zulotzen zutenez gero, bandera berri bat ekartzen zuten. *Cara al sol*, 1977ra arte abestu genuela uste dut. Briñaseko udalekuetara joaten hasi ginen sasoiari bigundu zen arau hori. Baina bandera ipintzearena azkenera arteko errituala izan zen, 1979ra artekoa.

Halan zelakoan, normaltzat hartzen genuen, traumarik barik. Sasoi hartan, etxeetan ez zen ezeri buruz barbarik egiten. Eta, zeozer esatekotan, ahuntz-euskeraz berba egingo zuten, guk ez ulertzeko moduan. Edo kanpora bidaliko gintuzten, esanez: «Nagusien gauzez berba egin behar dugu».


Ni 1979ra arte egon nintzen Oromiñoko eskolan, orduantxe zarratu zen. Tartean, Mila Arroyabe irakasle iurretarra ere egon zen denbora batez, eta azkenetan irakasle zoro bat etorri zen: nagusienei klaserik ez ziela emango esaten zuen.

Azkenean, ikasturtea hasita bajatu ginen lurretara, Maiztegira. Aldaketa igarri genuen, giroa guztiz desberdina zen. Lehenengo urteetan derrigorrezkoak ziren «Don», «Doña» eta halakoak, eta gazteleraz ziren klaseak. Baina, irakasle gazteekin euskara sartzen hasi zen apurka-apurka. Euskara ikasgai moduan eduki genuen, eta *Nor-nori-nork* eta halakoak han ikasi genituen.



JUSTO ALBERDI

Bertsoak egiteko gogoak hartu nau



JUSTO ALBERDI (1946-)

Justo Alberdi Artetxe, Bakixa kofradiako Guardiabekoa baserrian jaioa 1946ko hazilaren 8an, bederatzi neba-arrebetan zortzigarrena. 10 urterekin fraidegai joan zen eta 16rekin bueltatu zen herrira. Olalde akademian administrari ikasketak egin zituen eta *Celulosas del Nervión*-en aritu da administraritza lanean 1965etik 2008an jubilatutako arte. Kristina Mardarasekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten: Asier eta Amaia. Iurretan 30 urtez bizi ondoren, Oromiñoko Zugatzabekobarri baserrian bizi da.

Herrigintzan dihardu gaztetatik: Mikel Deuna dantza taldean, Herri Gaztedin, Ikastolan, gau-eskoletan, Gerediagan, jai batzordean, txirrindulari elkartean... Baina batez ere bertsolaritzaren munduan nabarmendu da 1982tik aurrera, Kristina Mardarasekin batera, eta senar-emazteen artekoa izan da bertso-plazarik gogokoena, bertsotan edo koplatan egiten dutelako edozein dela tokia eta edozein dela unea. Elkarri abestu gabeko egun gutxi joaten omen zaie.

2023an, Justok, Etxanoko Andra Mari Berri auzo elkarteak antolatuta, Xabier Amurizaren *Bizitza bat Oroimenean* liburuan oinarritutako dokumentalean parte hartu zuen, honen aita Luzioren pertsonaia irudikatuz.

Bilboko Iparragirre ikastolako «olentzeroa» ere bada azken 18 bat urtean, eta Iurretakoa 2016tik aurrera. Oromiñoko jaietan, berriz, 2007tik hona, bost urterik behin antzezten den Euskal Ezkontzako notario papera ere berak egiten du.

BERTSO BARRIAK GOROSPERI JARRIAK

Julian Gorospe, 1960an jaiotakoa Mañarian, txirrindulari profesionala izan zen 1982-1994 urteen artean. Txapeldun handia izateko promesa jubeniletan, Reymolds taldean oso goian hasi zen, Eddy Merckx-en oinordekoa izango zela esaten zen, eta batzuk desengainatu egin ziren 1984-1987 bitartean, hainbeste espero zelako beragandik.

1
Mila bederatziehun ta
larogeita bostean,
apirilak hogeitabi
eta afalostean,
idatzi dodaz gogotik
Gorosperen ospean
jakin gura dabenentzat
zer dan nire ustean.



2
Esker txarreko batzuek
jarri habe itsusi,
holako gauzarik sarri
etxuat nik ikusi.
Hire kontra bero dxauzek,
hitz zatarrak nagusi.
Hik, Julian, holakoei
haginak erakutsi.

3
Hire aldekoak dozak
esperantza ta kantan,
nik behintzat jo behar deuz
txalo bero galantak,
maillotari eustekoak
dozak ta hire hankak,
jarri baietz luzaroan
iraungo daben markak.



4
Aspaldian josi habe
marmarrean irainez,
gainera batzuk dxabixek
luze samar minganez
Euren lapikoan badxeuk
hitz baltzik irakinez,
baina geldittuko dozak
aho bete haginez.

5
Aurton ez habil oraindik
behar besteko fina,
gainera kontrara daukak
hain suberte sorgina,
baina erakutsiko dok
txapeldunen dotrina:
ederto ikusiko dxok
askok hire sillina.

6
Gorospe hori noizko dok
asko dxauzek galdian,
zirizalerik baddauk bai
joan dan aspaldian,
baina eutsi ta aurrera
beti ere, Julian,
txapelduna izango haiz
maiatz erdi aldian.

(1985eko apirilaren 22an)

PRESO, PRESO, PRESO

1

Preso daude presoak,
preso Aberria,
preso emakumea;
hau ez da berria.
Preso langileria
eta gazteria:
herri txiki batentzat
zenbat miseria!

2

Preso dugu euskara
erdararen menpe,
pikutara joan da
makina bat neke.
Denon ahotan berriz
errotu daiteke
geuk ez badugu saltzen
erdal-moko truke.

3

Preso demokrazia
ta egia berdin.
gezurra libre dabil
ta biba San Fermin.
Lapur zuri ugarik
ekin eta egin,
gero langileria
izorratu dedin.

4

Preso dago bakea
militarren esku,
hortarako badira
bi mila pretestu.
Herriarentzat, ordez,
hainbeste inpestu
nahiz jateko ibili
larri eta estu.

5

Bankuen menpe, zenbat?
Libre aberatsak
poliziaren esku
eskabide martxak.
Norabide ezean
justizi orratzak.
Bagara ikusteko
oraindino baltzak!

6

Batzordeko bat ere
preso da aspaldi,
ia herri denetan
norbait aldiz aldi.
Nahiz ta etsai ditugun
Estadu ergel bi,
ez gara makurtuko
ta egongo geld!

7

Aurrera egiteko
bizkarrak zuzendu,
jaso buruak eta
pausua mantendu.
Itxaropena behintzat
ez digute kendu:
ekaitzaren atzetik
beti argitzen du!

(1986ko irailaren 10ean)



Jon Zabaletaren marrazkia.



IURRETA ELIZATEA BERRIRO UDALERRI

Doinua: Maribel Aizpururen «Antonio Beitiko» Oromiñon kantatzen den eran.

Poz gozoz beteta
jo daigun korneta
barriro dogulako
udal Iurreta.
Ez da ameseta,
ez da barriketa:
iurretar guztiok
aldatu karneta.

Gaurtik aurrerantza
sendo esperantza,
nahiz-ta sortuko diren
hiru-lau arantza,
baina guk gorantza
behar dogu altza,
danok batuta ez da
izango hain latza.

Doinua: «Aitte San Migel Iurretako» dantzari-dantzako banangokoarena.

Dana konpondu danik ez uste,
baina ez dogu kaltera.
Dana konpondu danik ez uste,
baina ez dogu kaltera.
Udal barria lortu dogu-ta
beste pauso bat bete da.
Udal barria lortu dogu-ta
beste pauso bat bete da.

Lan asko dogu egiteko ta
zeure lozorrotik jagi.
Lan asko dogu egiteko ta
zeure lozorrotik jagi.
Iurreta hau ein dogun legez
askatu daigun Euskadi!
Iurreta hau ein dogun legez
askatu daigun Euskadi!

(1990eko urtarrilaren 10ean)



ANEXIOA 1926 - DESANEXIOA 1990

Miguel Primo de Riveraren diktaduraren sasoia zen, lurretako alkate Justo Uribarrena eta Durangoko alkate Celestino de los Ríos zirela, Alfonso XIII erregearen koadroaren azpian daude alkate-zinegotziak.

lurretar gehienei ez zitzaien anexioa gustatu, eta, 60ko hamarkadatik aurrera batez ere modu antolatuan ahalegindu ziren burujabetzaren alde. 1990eko lehenengo egunean lortu zuten desanexioa ofizialki.

Ontasun higiezin bat izan zen anexioaren enblema: iturria. Anexioagatik, Durangok iturri bat oparitu omen zion lurretari. 65 urtez lurretako plazan egon ondoren, desanexioarekin, durangarrek Iturri hori, erreklamatu egin zuten, Andra Mari-ko Elizaren aldamenean dago gaur egun. Izkribu hau dauka oinarrian:

«1926-XII-8an eroan ninduten,
1989-XII-8an ekarri naute oster».



KOPLA BARRIAK GIZON ONARI KANTATZEKO

Kofradien eguna ospatzen da urtero Laixiarko zelaian. Iurretan sei kofradia daude: San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa. Bakoitzeko «gizon on» edo ordezkari bat han izaten da. Urteko kontuen berri eman eta jaia izaten da gero.

Kofradien 1992ko batzarrerako prestaturiko bertsoak. Doinua: «Egun da Santi Mamiña...».

[Hasiera eta errepika]

Hau dogu Laixiar-zelai,
hemen egiten dugu jai
Iurretako sei kofradiek
umoretsu eta alai.

Gergorio Gorroño, Fausteko bokalari:

Trazaolako Gorroño,
bizirik dabil oindiño,
nor ete dago bere bestean
behatz puntatik goraño.

Juan Bikandi, Goiuriko bokalari:

Bikandi Goiurikoa,
txuleta bi janeikoa,
unto guztiak batuta ere
ez ei da bete nahikoa.

Pablo Areitio, Goiuriko ordezkari:

Mañarikukoa Pablo
negoziotan ez dau lo,
ganauarentzat eginak ditu
sei korta edo establo.

Rufino Jaio,
Iurretako bokalari:

Iturriotzeko seme,
Rufiño ez daukagu mehe.
Horren txistua ere antzina
entzuten ei zan errime.

Jabier Gerediaga,
Iurretako ordezkari:

Gerediagak, jakina,
martxan jarri dau turbina.
Norbaiti ziur faltako jako
motorreko gasolina.

Doroteo Biritxinaga, Orozketako
bokalari:

Berriztarra dogu baina
hartu dau gure tamaina,
txakolinaren sekretuetan
gitxik Doroteok haina.

Juan Duandikoetxea, Orozketako
ordezkari:

Duandiko muxikarra
ez daukagu prenda txarra,
begia jota ei dauka berak
Osineko haretx zaharra.

Jose Antonio Artiñano, Fausteko
ordezkoari:

Salda hartu dogu danok,
egin ei dau Artiñanok.
Hain gozo etxok atara inoiz
Zarautzeko Argiñanok.

Agustin Alberdi, San Markoko
bokalari:

Tokaioa dot Alberdi,
pariente ia erdi.
Hona orduko harrapau ei dauz
eskailuak azunbrerdi.

Juan Zamalloa, Santamañako
bokalari:

Diru zaintzaile konpleto,
Zamalloak, bai *por cierto*,
umak ein arte gordetan deuskuz
bereak baino hobeto.

Mikel Sopelana, Idazkariari:

Eta idazkari jauna
dogu Mikel Sopelana.
Sozio hartu ninduen baina
neuk egiten deusatz lana.

Iñaki Sopelana, San Markoko
ordezkoari:

Sopelana San Markoko,
gaztetan nesken gogoko,
diñuenetik ipini zitun
taupadaka hainbat kolko.

Jose Domingo Agirrezabal,
Santamañako ordezkoari:

Arriandikoa Mingo,
azertau ezkeroko bingo,
zein arrazako txoria dogun
ez dogu errez jakingo.

[Eta Agurra]

Hamahiru bota ondoren,
amaitu behar dot hemen.
Agur guztioi banoa bizkor,
norbaitek heldu baino lehen.

(*Usagorri*. 1992ko irailaren 13an)



BERTSO BARRIAK AMAMARI JARRIAK

1

Amama Sotera zan
etxeko zutabe
eta ez zan jausiko
buruan jota be.
Azkenean joan da
suabe-suabe,
heriotzak ta berak
bakea ein dabe.

2

Santuenean jaio,
hazi eta hezi,
gazterik emon eutsan
bihotza Moisesi.
Urteak ei eukazan,
berak hemeretzi
lumeroak bueltauta
joan da ihesi.

3

Hamahiru ta martitzen
ezkondu ei ziran,
baina suberte onez
bizia sikieran.
Día de campo eitten
Donostira jiran,
orduko kontuak be
ze politak diran.

4

Medikurik ez eban
ia ezagutu,
berak ez eban behar
hainbeste ikutu.
Esan leike sekula
ez zala gaixotu,
ez egoen amama
nork ta zerk apurtu.

5

Ez eban bildurtuten
inongo gaixuak,
nahiz-ta estutu arren
batzutan pixuak.
Gozo eiten ebazan
berak txorixuak
primerakoak ziren
horren abixuak.

6

Etxe barruko lanak
pixka bat aparte,
baina solo partean
dana borondate.
Betidanik izan zan
arte eta parte,
hasitako arloa
ondo bete arte.



7
Patatak ereitea
badxakon komeni
hoba kasu egin ta
abarkak ipini.
Aurretik mobitzen zan
atzetik Eugeni,
segidu ezinik be
geratuta nau ni.

8
Durangora bidaiak
astero-astero,
negua ala uda,
hotz egin zein bero.
Betiko dendetatik
ibili ezkerro
pozik etxeratzen zan
irribarrez gero.

9
Kartetan jokalaria,
gustokoen briska,
astero egin ezik
trumoi ta tximista.
Etxean gehidxenetan,
kanpoan aldizka,
kinurik bazan, euf!,
zelango artista.

10
Kantuan be ederto
egiten eban-ta
baekian kantetan
berak *las cuarenta*:
behin bialdu ebazan
Moro eta *Anta*,¹
ta barriz etortterik
ez dabe intentu.

11
Bere sendiarentzat
doa begirada:
hasi izan ebazan
bost seme-alaba.
Eurak dominatzeko
ai, zenbat eupada!
Jandakoak ei dira
makina bat baba.

12
Eugeni ta Karmelo,
Milagros, Serafin,
eta Begoñagatik
asko eban egin.
Danak hasi ebazan
jator, zintzo ta fin,
Moisesegaz batera,
Ai zenbat ahalegin!

1. *Moro* eta *Anta*: XX. mendeko 70eko hamarkadan Durangaldean famatu ziren bi sekreta, Durangoko kuarteleko bi guardia zibil beti paisanoz ibiltzen zirenak kalean.

13

Eugeni etxekandre,
Karmelo portero,
Milagros jostungintzan
auzoak bezero,
Serafin be portero,
mekaniko gero,
Begoña umegina,
komadrona edo.

14

Guztiak ezkontuta,
gainera betiko,
parejatzat daukiez
Sabin Makinako,
Errotako Edurne,
Martzel Arriaundiko,
Garaizarko Mari Luz,
Jesus Plaentziko.

15

Kristinagaz nobio
hasi nintzanean,
gurasoen baimena
eskatzen zanean,
estu presentau nintzen
ni Santuenean
amamak eskobagaz
urten eustanean.

16

–Ai, zu zara berari
laguntzen zeuntsena,
Papeleran beragaz
lan eitten dabena.
–Bai amama, neu nauzu
Justo Pepaztena
Kristinagaz ezkondu
gurako leukena.

17

Mila bederatziehun
larogeita hamalau,
abuztuak gaurkoan
daukaz hogeita lau.
Bertsoak egiteko
gogoak hartu nau,
amama, zeure omenez
izan da guzti hau.

18

Familia ta lagun
guztiok batera
etorri gara zeuri
agur egitera
usterik zoazela
Zeruko atera
aulkitxo baten bila
Moisesen aldera.
Ikusi arte, agur,
amama Sotera.

(1994ko abuztuaren 24an)

KRISTINA MARDARAS

Bazan behin sasoi bat gure etxaldeetan
maitatzen giñena



KRISTINA MARDARAS (1948-)

Cristina Mardaras Sedrun, 1948ko apirilaren 13an jaio zen Oromiñoko Zugatzabeko-barri (*Katia* eta *Santuena* lez ezaguna) baserrian. Aittitte Zirilo Mardaras izan zen, liburu honetan ja aipatua. Aitaren aldetik, izeko-osaba bi trikitilariak ziren: Serafin Arantzeta *Oromiño* eta Antoni Arantzeta, eta disko bat grabatua zuten Kristina jaio baino lehenago.

Auzoko eskolan hasi zen bertsoak ikasten Juanito Gallastegiren katekesian. Aita Martzel Andrinua eta Jon Enbeita ere ezagutu zituen. Koroan, dantza-taldean, antzerkian, Gau Eskoletako irakasle eta Herri Gaztedin ere ibili zen. *Kili-Kili*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak zituen irakurgai etxean.

Komertzio-Kalkulu eta Idazkaritza ikasketak egin eta lanean hasi zen *Papeleran*, baina 1968an fabrika utzi eta Otxandioko ikastolako lehen andereñoa izatea tokatu zitzaion. Irakasle titulurik ez zeukan eta utzi egin behar izan zuen Otxandio, inspektore baten denuntzia tarteko. 1969an Basauriko ikastola irekitzen parte hartu zuen, Fernando Barquin abadearen laguntzaz. Bandas enpresako greba luze eta gogorraren osteko sasoia zen, eta langile presoen aldeko mugimenduan murgildu zen, bere ikasleen hiru guraso espetxeratuak izan baitziren.

Justo Alberdirekin ezkondu, pedagogiaren alorrera itzuli zen. 1979an eskola publikoan hasi zen euskara irakasten. 1982-83 ikasturtean Maiztegi Herri Eskolan (Goiuria Ikastolagaz fusionatuta) hasi zen lanean, harik eta jubilatuta arte. 1995ean *Hik Hasi* aldizkari pedagogikoaren sortzaileetakoa izan zen.

1982an igo zen lehenengoz eszenariora bertsotan Angel Usaola, Joseba Zabala eta Justo Alberdirekin batera Oromiñoko San Marko jaietan. Askotan abestu du Justo Alberdi, Juan Mari Areitio edo Eneko Abasolo herrikideekin nahiz Euskal Herriko puntakoekin. Gero, Urruxar bertso eskolaren sortzaile eta irakasle izan da urtetan. Jenero aldaketaren aitzindaria izan zen bertsolaritzan, plazan kantatzen hasi zen lehenengo emakumeetakoa izan zelako.

Beti ere euskal kulturari lotua, lehenengo *Gurien Bai* euskara elkartean eta orain Herri Bibliotekarekin kolaboratuz, sorkuntzarekin lotzen diren ekitaldietan. Azkenaldian, Goiuria Ikastolaren historia kontatzen duen liburua eta dokumentala talde lanean, Xabier Amurizari omenaldiko dokumentalaren partaide, kontalari lez, eta, hitanoaren erabilera urriarekin arduratuta, mugimendu berri baten sorreran lanean ari da buru belarri.

Euskara batua bertakoarekin koloreztatzeko ahalegina egin zuen *Eraz* aldizkarian, datozen lau artikuluetan ikusten denez.

HAREIK BAI DENPORAK (I)¹

Bazan behin sasoi bat gure etxaldeetan maitatzen giñena, alkar laguntzen gañuna eta auzolana eguneroko ogia zana. Aprillean edo izan zan, arto ereitteen sartuak genbizan, aro ona goen eta.

—Atzo erein ei dxabiezan Hipolitoenien... Marialuixak eta be, ereindde ei dxekiezan...

—Bai. Geuk be, ia gaur amaitzen badxunau dana ereittie... Zuek be, atzo erein zañuen da...

Halan berbetan ebixenak auzoko Juanita eta amama Sotera ziren. Etxe kantititik etxe kantoira.

—Bai, hasi eta akabau ein gañunan... Laguntzie be etorri dxakunan da... Badaki... Kuadrillan errez eittozan biherrak!

—Bai... Bueno, bagaidxuezan. Itsasaldetik illuntxu dxaun de. Euridxe ein orduko amaitzen badxunau edo...

—Errezoie dekon, Oiz partie etxaun bape garbi, ez...

Sorbalda gainean atxurak hartuta, solora doa Juanita. Agustín eta Agustintxu aspalditik joanak dira. Maitte, afarirako bide bat egiten eta mutikoa, astoari sokatik heldu eta badoa etxostera.

Pare bat ordu geroago solo erdi ereinda daukie. Aitasemeak arloa marketan dabiz. Atzetik amama, altzobete arto hartu eta zulora ereitten, hiru edo lau arto garaun zulo bakoitzean. Orpotik segika seme gazteena, baba gorria ereitten.

—Pare bat garaun bakarrik bota, eh... babie ez da mihezten da... Bixkor-bixkor erein, euridxe dakar da...

Agustín eta Agustintxuk atxur zabalak hartu dabez, zulo tapetan hasteko. Txas, txas, txas, txas, atxurkada pare bat nahikoa zulo bakoitzeko. Bat ezker aldetik, bestea eskumatik. Bizkor eta gogor ari dira, trumoia jotzen hasi da-ta. Asko illundu dau golpera. Uste baino ariñago dakar zaparradie. Iñok deitu barik atxur bana hartuta datoz Gorroño, Karmen, Karmentxiki, Eugeni, Sabin eta...

—Hartu daigun arlo bana, azatzien, ariñau amaituko dogu-ta —diño Gorroñok.

Zelako argi berba eitten daben Gorroñok! Asko daki gero! Hau da hau erretratue! Nok atara balego! Baiña, orduan ez genkian erretratetako makiña zer zan be ia-ia. Gure «tia amerikaniek» ba eukin bat. Baña «Tia» Durangon bizi zan eta Durangotik ezin erretraturik atara. Halan da be, barru-barruan erretrataute gelditu dxataz egun hareek, sasoi hareek, auzolan hareek.

1. *Eraz*, 15 (1993-09-24).

Ondotxo be badakit holako lanak gure auzoan bakarrik ez zirela egiten. Ostera, eguneroko jokabidea zan. Orain «kooperazioa» edo «solidaridadea» ahobeteko hitz hutsak aipatzen dira sarriegi. Orduan, berba gitxi eta eitte asko eguen. Seguru nago pasarte honeek Oromiñon bestien ezagunak dabiezela Garain, Mendiolan edo Saratsun... beste hainbat toki aittatu gabeetan legez.

Astegunetan, soloko biherrari lotuta bizi giñen. Batez be etxekandrak. Gixonak, gehienak behintzat, Luziano eta Matias eta batzuk kenduta, «frabikan» edo basoan ebixen biherrien.

Domeketan eta jaiegunetan, gizonak «trabenan» Katian edo Krispiñenen, karta jokuan eta txikito batzuk edanaz egoten ziren: Sabin Katia, «Naparra», Patxo Errota... Andrak eta gixon banaka bat, Etxandiko atartean kartetan, briskara. Orduan oindiño bizi ziren Bixenta letxerie, Pantxike kamiñeruena, Mikela Bastarreko, «Biximodu» eta Ageda ta...

—Mahai txiki baten bueltan hamar lagunien, lau buelta arin jueten zien. Hango kiñuek pasau biherria! —diño gure amak.

Holan, eguerdi ostean hasi eta txarridxei eta oilloei jaten emoteko ordurarte. Mahai txiki baten bueltan. Hamar lagunien. Astero-astero. Pezeta bi galdu, pezeta bi irabazi, arratsalde osoan.

Parejak Etxandietako txakoliñera jueten ziren. Geroago geuk be ikasiko gañun bide bera. Eta illuntzidxetan, domekerodomekero harri beraren ganean jarrita egoten ziren. Zenbat eta luzaroago nobidxo ibili, orduan eta etxeondoragoko harriagaz jabetzen, zaharragoak ezkondu ahala. Oraindik ere, harri hareek toki berean segidetan dabe.

Gaur, ez dago «trabenarik» Oromiñon. Ez dago txakoliñik Etxandietan. Etxandiko atartean ez dira batzen kartetalariak. Auzoa zahartu egin da. Denborarik ez dago ezertarako. Prisaz bizi gara. Alkar laguntzea ez da gure plangintzan sartzen eta norbaitek behar gaituenean «turnoak» egin behar izaten dira.

Laguntza, turnoetan. Maitasuna, txandaka-txandaka, tantaka-tantaka. Laster, asti faltan ez dogu jakingo auzoan inor bizi dan be, jaten dogun sagarrak ze kolore dekon, eta autobusera, eskuetan gosaria dogula juengo gara.

HAREIK BAI DENPORAK (II)²

—Kristiñaaa... ba hator ala?

—Bai, banadxaton, Lurdes!

Oraingo motxillen antzik be ez eukien, gure amek josiriko liburuzorruak hartuta ba ginddoiazan eskolara. Goizetik. Zorroa ez zan haundia, baiña behar bez:

—*Enciclopedia* bat bakarra OHO guztirako.

—Pixarrie eta pixarriñe eta kuaderno bat kontuetarako.

—Lapixe, borragomie eta plumie bere plumapuntakaz estutxien.

Eskolan eguen beste guztia. Tintero bat tintaz beteta mahai bakoitzaren erdian. Mahaiak bakoitzak ziren eta honeen aulkiak, zineko butakak lez altxatzen ziren. *LECTURAS* liburua taldeko irakurketa egiteko:

—*Venid. Vamos a leer* —esaten eban maistriek.

Bizkorrena hasiko zan:

—*En un bos-que ha-bí-a una vez un po-tro sal-tan-do por el...*

Gu barreari eutsin ezinda. «Zelan ixen leitteke potrue saltoka ibilttie...» Gure buruen ez eguen beste «ezeri» deitu leidxakonik. Barre purrustadaka Loli, burue armario barruan sartuta.

—*Loli, ¿que estás haciendo?*

—*Estoy buscando la mapa* —erantzuna.

Mapa batzuk geunkazan armarioan: Bizkaia, Espainia, Europa... Euskal Herrikorik ez. Euskal Herrikorik kantarik bez, Don Juanito abadietatik izan ez balitz. Egurrezko erregela batzuk, «Laborra» nesken eskolan, mutilek «dibujoa» egiten eben orduan. «Ispetorie» etorten zanerako *Cuaderno de Redacción* bat eukan maistriek, beti be letrarik onena edo politena eukanak idatzita. «Cuaderno de Diario» bat bakoitzak eta asko gehiagorik ez.

Krispiñeneko uraska ertzean jarri eta Zuetzakoak eta guk, goizean goiz zuzendu-edo kopietan genduzan etxeko biherrak egunero:

—Hik zelan dekon hau kuentiau?

—Ba, nik ez dxekunat bardin!

—*Dos por dos, cuatro, por cinco, veinte...*

—*Veinte, veinte, veinte por tres...*

Erderaz numeruek eta erderaz eragiketak, baiña euskeraz harreman guztiak.

—Itxiden kopietan, hik ondo eukitten dozan da.

Gero eskolara joango giñen. Ate inguruan itxaroten geuntson maistrieri:

—*Benos días tena usted.*

2. Eraz, 17 (1993-10-08).

Gure maistriek ez ekian euskeraz eta guk erderaz be bai, aitzeko bestean. Ume pillue jueten giñen. Oromiñoko eskolan gela bi eta berrogei ume inguru bakotxien, orduko sasoietan. Mutillek mutilletara eta neskak nesketara. Errekreo orduan alkartzen giñen: «Kubike», «Txintxili ala burduntzi» (burteunen puntan ni), «Que viene Luki»ra Matiasen irapillue zapaldu bitartean...

Negureko egur estufa bat maistrien mahaitik urrien. Umiek ez dabe hotzik sentidetan. Urrirantza asto pare bat hartu eta nagusienok piñubola batzen joaten giñen herribasoetara, Zelañora. Asto otzarak eta beste 5-6 zaku bete, eta egun pasa eginda, eskolara. Herritik beste kamioi bete egur ekarten eben.

Urtero-urtero betetan dxakun keez gela osoa, estufa ixotzen eben lehen egu-nean. Txoridxe euren habidxe estufako tximinian egiten ebezenez fontanero bihurtzen giñen. Dana soltau eta montau beharra urtero.

Batez be neguan, urriñeko eskolameak eskolako eskaratzean gelditzen ziren bazkaltzen. Etxetik ekarritako lapikotxie berotu eta jan: Osinbaltza, Txarroa, Etxandieta, Artatza eta urrinekuek. Orain kilometro bitik gorako distantziara dagozanei % 50a ordaintzen dxake autobusa, eta jantokirako ere diru laguntzak. Zelan aldatu diren denborak!

Orduan danok ginddoiazzen antzera jantzita. Astelehenetik barikura erropa bera, bata zuri bera. Danok usain antzerakoa, danok inguru antzerakoa. Maistriek nagusiei azaltzen eutsen guztia ikasten gañun txikiagook, eta bagenkidxen komunera gura gañunean «Permiso pal teter» eskatu behar zala, eta etxeratzerakoan maistrie agurtu, «Usté la pase mennn... Agur!».

HAREIK BAI DENPORAK (III)³

—Are Maria Purixima.

—... Maria Santixima.

—Ze pekatu egin dozu?

—Ba, ba... *Txantxangorriko* Perikori malluki lapurretan, errotako Patxoenien mizpilla lapurretan, Beittiko Agustinenien anpollak ostu doguz, jittano bati burle egin, amak itxi barik bizikletak hartu, txokolate harrapau, Itturritxuko harri labanetan kuleruek apurtu eta...

—La! la! Horreek askotxo dira. Banan-banan joango gara. *Txantxangorriko* Perikori zer?

—Ba, birriten joan gara *Txantxangorrira*. Batean kereixa harrapetan, eurek siestan egozan artean, eta bestean domeka arratsalde baten. Horma ganean jarrita aspertzen gengozan eta *Txikitok* esan euskun Perikori txistue ta tanboliñe entzutea asko gustetan jakola-ta, Mari Karmenek, etxera juen eta ekarri egin ebazan. Perikogana joan giñen eta batzuk musika joaz entretenidu gañun beste batzuk maillukiak batzen ebezen bitartean. Hori bakarrik!

—Hori bakarrik? Ta Errotako Patxori, zer?

—Ba... Ni bakarrik ez nintzen ixen eh! Pello, Juantxu, Lurdes da... ixen giñen. Mutillek makurtuta joaten ziren mizpillaperaino, eta bultzaka gerdamari eragiten eutsen. Da, zelan gerdamak erreka txiki baten ganera emoten eban, ba guk zubipean itxaroten geuntsen etorten zirenerako. Halan batzen gañuzen.

—Baña, Patxoenak ziren...

—Bai, baña guk errekan hartzen gañuzen.

—Bueno, bueno... Ta bizikletakin zer egin zenduen?

—Ba, ezebez! Ama ta eskatzean egozan eta zetan gabixen ez zitzezen konturatu, ba, Lurdesek eta nik, lelengo bizikleta zaharra (pedala erdi apurtuta eukana) eta gero ixeko Milagrosena atara gañuzen kortatik. Kontuz-kontuz, atzeko erroberie altzaute. Bakixu? Ta artoartetik-artoartetik... urriñeraño. Han lagunekaz juntau eta Iborrira juen giñen, Andra Maridxetara. Berandutu arte dantzan ibili giñen eta etxerakoan argirik ez geunkela konturatu... Orduan, Urrutxutik etorteko illunegi egoala-ta, Eutzagane, Zorrontza, Bernatik etorri ginen. Pasau gañun bildur bat!

—Da zetan joan leike Iborriraño?

—Baiña, lelengo, goizien, Goiuriko Ama Birjiñie altzetan be juen giñen, Iurretatik Goiuriraño. Han mezie entzun da Azkorretik bueltan etxeratu giñen. Bazkalostean juen giñen Iborriko jaidxetara...

3. *Eraz*, 19 (1993-10-29).

—Ta hau, ta hori, ta txokolatie, ta jittanue... Okerkeria askotxo dira horreek. Askotxo! Formalagoa izan behar da! Ia, penitentzia: 3 kredo, Paternoster 2 eta 5 Agurmaria da. Ta orain esan: «Jesukristo neure Jaune».

—«Jesukristo neure Jaune...»

Nasaitu bat hartu neban behintzat. Beste zati baterako ardura kenduta neukan: abadeari zelan esan, zelan konfesau... Ondo nengoen. On egin dagizuela zuei be!

HAREIK BAI DENPORAK (IV)⁴

—Hi, Begoña, nor don kuraparrokuegaz datorrena?

—Abade barridxe ixango don!

—Ah, bai! Abade barridxe don.

—Hi, gaztie don, ezton?

Benetan be, gazte zala etorri jakun Don Juanito eskolara, bere aurkezpen egunean. Lababarriko ogidxe! Danok aho zabalik. Ze politte zan! (Orain be bai, baña zahartxoago dago). Ganera, ze ondo eta garbi eitten eban berba! Pregunta bakotxaren ostien, irripartxo bat eitten euskun, eta gu adurre daridxola; ahoa zabalik, ahopetik berbetan edo ukondoak alkar joten... Zortzi urte neukezan orduen.

Laster alkar hartu gañun. Dotriñie be askoz gustorago ikasten da abade gaztiegaz. Kantak be baekidxezan eta erakutsi eiten euskuzen. Hiru abotsetara. Ze pozik!

Beragaz ikasi gañun Iborri eta Ajuria nun dagozen. Dotriñako neska-mutikoak hartu eta beste herrietakoak ezagutzera joaten giñen. Gaztañerreak janaz egun pasa eiten gañun. Goraintziak Don Txomini!

—Eruengo'ostezu motorrien ala? —esan neutsen Don Juanitori.

—Zer eruengo'tsut ba, sudurre?

—Ez, neu, neu eruen.

—Bai, eruengo zaitut apurtxo baten.

Eta gu pozik, Lambrettan 20 metrotan eruenda be. Orduen, ez nekien «eruengo'ostazu» eta «eruengo nozu» gauza desbardiñak zirenik. Orduen ez nekien «eruengo'stazu» esatean gauza bat eruetie eskatzen nebala eta «eruengo nozu» esatean NEU eruetie zala. Don Juanitoren eskutik ikasi gañun euskerie maitte ixeten, euskerie geurie zala eta euskeriek eitten gaittuela euskaldun. Eta ez giñela lotsatu biher euskeraz eitteagaz.

Goizeko zortzietako mezatara jueten giñen jaiero. Mezako kanta barridxek kantau, irakurgaidxek geuk irakurri altutik eta meza ostien, koruko kantak en-saieu. NESKEN KORU bat ein gañun, zaharragoen eta umeagoen artean: «Goiko mendian», «Itsasoan laño dago», «Illunabarra»... hiru abotsetara. Orduan entzun nabezan lehenengoz Mokoroa, Usandizaga eta holakoen izenak.

Antzerkire be zaletu giñen bere eskutik. «Gabonetako antzerkia.» Antzerkiko obra buruz ikasi eta gogor hasten giñen saioekin. Estreñaldiak etxean, Samarkon,

4. *Eraz*, 22 (1993-11-19).

eitten gañuzen. Gero, herriz herri antzezteko: Bernan, Arrazolan, Durangoko Frantziskotarretan, Elorrion, Abadiñoako aretoan...

—Hau da hau, umearen ederraren ederraren ederra! —esan behar izaten eban Marikarmenek. «Txikito»k barriz, demoniño jantzita, gorri-gorri, buztan da guzti, ekin behar izaten eutson:

—«Satanas, satanas eta beti Satanaz! Gehiago dakit zaharra nazelako deabrua nazelako baño...».

Sasoi horretan entzun nabazan lehenengo aldiz Enbeita, Xenpelar, Txirrita, Bilintx eta hainbeste bertsolariren izenak. Eskerrik asko, Don Juanito!

Baña bertsolaritzak eta Euskaltzaindiak nire bizitzan beste kapitulo bat zabaltzen dabeenez, hurrengo baterako itxiko dot. Bidxen bittartien, ondo bixi!

ANTTON MARI ALDEKOA-OTALORA

Iurreta, dabilen herri gara?



ANTTON MARI ALDEKOA-OTALORA (1951-)

Anton Maria Aldekoa-Otalora Zamalloa 1951ko apirilaren 28an jaio zen Bargundia baserrian, euskal kulturaren eragilea Iurretako eta Durangaldean XX. mendeko 70ko hamarkadatik aurrera.

Gerediaga Elkarteko lehendakaria (1983-2003), Durangoko Kurutziaga ikastolako administratzaile eta Bilbon Elkar liburudendako kudeatzailea izan da erretiratu arte. Erretiratu ondoren ere, Iurretako Elizako abesbatzaren arduraduna da. Eta Euskaltzaindiak Ohorezko euskaltzain izendatu du 2021ean.

Bertso zahar, ipuin, esaera edo doinu zaharren biltze lana egin du bizitza osoan zehar. Ikerketa monografiko batzuk argitaratu ditu liburu formatuan, hala, Durangoko Plateruen obrari buruz, Iurretako dantzen historiaren inguruan, Nikolas Alzola *Bitañoren* gainean eta beste asko.

Sormen idazlanak ere asko ditu, han-hemenka sakabanaturik aurki daitezkeenak. Haren testurik zabalduena *Hertzainak* taldeak abesturiko «Zoratzen ari naizela» da.



IURRETAKO DANTZARIAK, 1972KO SANMIGELETAN. Zutunik: Jose Jabier Abasolo, Anton Maria Aldekoa-Otalora, Mikel Sopelana, Jose Luis Urtiaga, Karmelo Barruetaña. Makurtuta: Justo Alberdi, Pedro Mari Aldekoa-Otalora, Jose Antonio Urien, Jesus Mari Uribelarrea.

IURRETARROK BEREZIAK GARA?

«Zuek iurretarrok baduzue zerbait, bueno eztakit, baina kanpotik begiratuta dantzak direla, korua dela, kofradiak direla, desanexioa dela, abendua-santagedeskeak direla, sanmigel jaietako doniel-haretxa dela, ermitetako jaiak direla, bertso saioak direla eta... eztakit zer dela baina kanpotik behatuta badaukazue aparteko zerbait. Zeozerk bereizten zaitue beste herri batzuengandik. Eztakit zer batasun klase, zer heziketa mota izan duzuen, baina urrinetik etorri barik hemen edozein alboherritatik Iurretara hurreratu ezker, arnastu eta obatu egin liteke, ikusi egin liteke diferentzia hori.»

Sarrerako esaldi luze hau hamaika aldiz entzuna diot lagun bati, ezezagun bati zein soziologia kontuetan teorizatzen dabilen bati. Komentariook gainera, era txeratsuan eginak. Jakin-minez eta zelanbaiteko harriduraz. Bada, norberak ere halango harrotasunez eta ez hantustez jasotzen dituenak. Egundo zergatietan eta analisisetan sartzeke.

Burutazio korapilatsu hau gogoan bide ertzean jesarri eta mataza kateatu honi zenbait arintze saio, zenbait artazikada, zenbait irtenbide, zenbait lotura transversal egitea otu zait.

XXI. mende honen hogeita laugarren urtean berrogei-berrogeita bost urterainokoentzat ulertezinak izan daitezke izkiriatu ditzakedanak, agian. Egungo eguneroko bizimoduan gaurko teknologi arruntetan, zeintzuk hirurogeita hamarretik gora goazenontzat teknologia sofistikatuak diren, teknologi arruntetan hazi direnentzat fikziozko pasarte nobeleskoak, ez sinesgarriak irudituko zaizkie irakur ditzaketen paragrafo zenbait. Buru fantasioso, ala buruarin, baten harilkatuak.

Hala ere, argi geldi bedi hemen idatziko dena, hemen irakurriko dena ez dela: hau HALA DA! Hemen azalduko dena sarrerako esaldi luzeari erantzun analitiko eta hipotetiko bat ematea nahi da. Zirkuluan diametralki azertatzeko asmoz, baina beharbada tangentez ere ukituko ez den zirkulua.

«Izan zirelako gara, garelako izango dira», «Nora goazen jakin nahi badugu, nondik gatozen jakin behar». Esaldi klixeak lerro buruetan eta diskurtso beroetan darabillkigunak. Hara bada gure kasurako gaurko galga bariko abiaduran behelaino artean ezkutatu zaigun ez hain antzinako bidezka eta hainbat oin-bide.

Eliza aitatzer a nator. Eliza bere meza, prozesio, sotana, koru, intsentsu, bederatziurren, luistar, ermita, letaña, monagillo, garizuma-mixionista, mariarenalaba, kultura eragile, euskera, musika, fueruak, lagizaharra, herria, Euskal Herria. XVI. mendetik Trentoko Kontzilioak eta Espainiako erregearen dekretuz hemengo biztanle orok kristau behar zuen. Dekretu honen eraginez gure inguruetako, Durangaldeko parroikia guztietan, eta asagokoetan, 1550etik-edo aitzina «liburu

sakramentaletan» ageri dira. Jaioriko denak bateatuak izan behar ziren. Elizaren sakramentu liburu hauek urrezko dokumentu bihurtu dira. Herrietako, parroketako bostehun urte inguruko errolda-zerrendak hor daude, utzikeriak edo ezbeharren batek suntsitu ez baditu behintzat. Juduak eta moroak erbesteratuak izan eta kristau garbiak soilik onartzen dira Espainia handian –gerora datorren Arana-Goiri’tar Sabin arrazistatzat jo izan zen eta geroagokoetan oraindik ezker abertzalekoak edo eta katalanak nazitzat.

XIX. mendea tragikoa izango da euskaldunontzat. Frantses okupazioaren kontrako gerrak eta lasterrera, antzinatearen eta modernitatearen, karlisten eta liberalen arteko guda zibilak gosea, negarra, uherra, lapurreta, atzerria bistaratu zituzten gure inguru zabalean. Lehenago ere paradisuako jardinetan bizi ez zirenak egoera guztiz gorrira igan ziren.

«Karlos agertu ezkerro probintzi hauetan/beti bizi gerade neke ta penetan/... bost negar egiteko nonbait jaio giñan. Agintari onenak preso daduzkate/euskalduna izatia du bakoitzak kalte. Semiak soldadu ta preso gurasuak/ezin pagaturikan kontribuziuak/trintxera lanetara gainera auzuak/dolorezkuak dira gaur gure pausuak. Atiak itxi eta ogia garesti/artua ere ari da igotzen poliki/dirua ezkutatzen da egunero hemendik/nola bizi garen bada harritutzen naiz ni»

Muñagorri liberalaren saminezko bertsoak Lertxundik gitarraz lagundurik bergogorazo dizkigunak.

Herriak zorpeturik. Bizkaitar guztiok nobleak ei ginen, ei ziren, ze polita! Gehiengo nagusi bat gosekil itxuran geratu zen. Eleizate gehienetako agintariak karlisten aldeko, foruen aldeko. Baita ere parroketako abadeak.

Bizimodu nekagarri honi aurre egin asmoz Mendizabalen Desamortizazio saioak hor datoz. Gure herrian, Iurretan, zorrak arintzeko edo kitatzeko herritarren ondaretik tiratu zen. Herri lurrak saldu ziren. Baso komunalak, lur komunalak. Denonak, guztionak ziren lur eremuak saldu ziren. Gallanda mendiaren gerritik beherakoa etxagunen, propietarioen artean txanteletan banandua gertatuko da. Beste horrenbeste jende apalarekin. Baso komunal txatalik onenak etxagunen izenean jarri ondoren, Gallandaren iparraldera, urrinera geratu diren lurrak: Laxiar, Kortazar, Zelaño, Keixa, Oroltegi, herriko kofradietan bizi direnentzat dira. Ordainduta.

Bide beretsutik jokatu du elizak ere. Kofradia bakoitzean, auzo ,bakoitzean, badu bere ermita eta santua bere lursail eta arboladoiarekin. Lur hauek eta zenbait ermita ere propietarioen izenean jarriko dira. Komunalak izan direla oroimenean. Guztiona izan dena, banaka batzuek eskuratu dutela oroï-minean. Salerosketa, truke hauen ondorioz beharbada, 1846. urtean parrokiarako organo berri bat agindu eta egiten da. Organo batek koro bat eskatzen du. Ez dugu daturik.

Urrineko argizariak itsutzen gaitu batzuetan, eta geure burua, geure hizkuntza, geure dantza eta ohiturak gutxiestera garoiaz itsualdi honek. Kanpoko jakitun batek, Wilhem von Humboldt-ek betazalak ikuzi eta edegi zizkigun. Gure dantzak, dantzari-dantza eta erregelen doinuak batu eta deskripzioak ematen ditu. Euskaraz, berriz, gure hizkuntzaz liluraturik, sakoneko analisiak eta konparaketak egiten ditu. Euskararen oinarritzko kontuetan Pablo Pedro Astarloa abade durangar jakitunak itsutzen du Wilhem prusiarra. Honen eskutik gure berbetaren loriatze bat hedatuko da European zehar.

Gerrateak aitatu ditugu. Gorrotoa eta ezinikusia atean, atean. Sermolariak hor ari dira sentimenduak bideratzen. Mantsotzen agian. Eguneroko elkarbizitzara doitzen. Euskeraz. Euskerazko sermoiak, zelan ez! Juan Antonio eta Carlos Antonio Zelaieta Hormaetxea-Barrenengoa anaia frantziskotarrek Orozketan kapilautza sortu eta berreregi zuten Sant Yagoren ermita eta euron loba Leandrogaz batera berbeta xamurreko euskeran paper mordo bat laga ziguten.

XIX. mende hondarrean Cánovas del Castillo ministroak Euskal Foruak ezabatzen ditu. Gerediagako zelaian eta Gernikan elkartzen izan diren herri ordezkariak akabo! Ave fenix! Abadie zuberotarrak *Euskal Jaiak – Jai egun-Euskerazkoak*, 1886an Durangon eta 1991n Iurretan. Dantzariak, bertsolariak, zantzolariak, olerkiak..., Jose Ignacio Arana jesuita, Leandro Zelaieta, Balbino Garitaonandia, Resurrecion M^a Azkue, Sabino Arana-Goiri, Anpuero, Larragan, Gastañazatorre, Bernaola, Arrese ta Beitia, Julian eta Demetrio Arana anaiak, Roman Amilburu, Unamunzaga alkatea eta beste. Nago iurretarron izakeraren osagaiak, ingredienteak, lapiko honetan egosi zirela. Aurretik erein den hazia hemen jaioten da. Euskera jaso. Arana-Goiriri dantzarien «martxie» gustatzen zaio eta *Eusko Abendaren Ereserkijaren* oinarria hor dugu. Azkue gazte aseezina, karlista-bizkaitar, euskaldun, belaunaldi aldaketa. Lapiko honetan ere zenbat sotana!

XIX. eta XX. mende bion arteko zubi horretan mundu zahar eta berriaren arteko talka oso bortitza da. Trena, elektrizitatea, goldea, tranbia, footbolla, txirrindularitza, «euzkadi da euzkotarren aberria», labe garaia, Durangon argitaratu zen *Garoa*, eta maketoek dakarten hitz-egiteko era blasfemoa, sozialismoa, *rerum novarum* enziklika, fabrikak... baserri giroko, mundu erruralaren eta datorren berriaren arteko talka, txistu eta tanboliña ala jazzmana, akordeoia-inpernuko hauspoa, herriko taberna ilun zahagiduna eta larruzko aulkiduna, kafea gaseosakin, auresku-banangoa eta chotis zein pasodoblea.

Gazteak eta nagusiak, igitaia, jornalero, monarkikoak, abade bizkaitarrak, sindikatuak, Primo de Riveraren diktadura, Durangok Iurreta anexionatzea 1926an. Don Jose Amezola abadeak, zeinak baserritarren sindikatuan lan egiten zuen, Goikolan gerora okindegi bihurtu zen horretan, Amezola abadeak

abenduko Kontzezino jaiko mezan predikatu ei zuen negar zotinka «umezurtz utzi gaitue» hasperenka Durangok Iurretara irentsi zuela eta. Amezola hau ez zen iurretarra. Orozkokoa zen. Abadea eta langilea, *cura-obrero*. Hirurogeita hamar urtetik gorakoa zen sermoi hori zizpuruz egin zuenean. Bere eleiztarrekin, bere herritarrekin identifikatua.

Errepublikak. Durangotik Kofradietako ordezkariak kontu eske. Mehatxuak. Lursail hoiek udalarenak direla argudiatuz. Club de Mallabiena futbolaren batzarrak Ertzibengoganen, jokalariai karlistak eta bizkaitarrak, kanpeonatuak irabazi. Hauteskundeak. Desanexionatzeko ahaleginak. Bertan behera. *18 de julio* «gaur matxinada sortu da –gudari paxista ta eskumatar guztiak– gobernuaren aurka», Felipe Zarate abadeak.

Gerra Zibila. 36ko gerra zibila. Anaien arteko gerra. Familien arteko gerra. Herritarren arteko gerra. Aberatsak, pobreak. Bonbardaketa, *viva cristo rey*, ebaquazioa, harpilatzea, trabadore batalloiak, txapel gorriak, prisioneruak, erbeste-ratzeak. Diktadura. Galtzaile zein irabazleek «abastosi» gari eta arto zorroak eman behar. Erreketekin eta gudariekin osotutako dantza taldea Francoren aurrean. *Sección Femenina*. Aita San Migel egunean, 1942an, organo berria inauguratzen da. Julio Valdes Goikoetxearen meza estreinakoz kantatzen du koruak. Koruan erreketekin eta gudariekin ibilitakoak eta beste batzuk. Karlisten seme-alabak bizkaitarren seme-alabekin maitemintzen dira, ezkontzen dira.

Goiuriko Andra Maria lehorte garaian errotatibak jaisten zen parrokiara euria eskatzeko. 1944-45etik aitzina urtero abuztuan jaisten da. *Nacional-catolicismo*. Goiuriarrak Andra Maria eura bakarrik delakoan anderuak «errematera» ateratzeko. Hilario Alberdi zesteruak zazpiehun pezetan puja eta oromifioarekin irabazi. Harrezkero ez da subastarik egin.

Kofradia basoek zer esana ematen jarraitzen dute Durangon. Atxilotzeak ere badira tartean. Gallandako herri-basoko pinudia saldu zen eta diru horiekin Ezkurdi Jai-alai frontoia eraiki zen. Haserrezko zurrumurrua Iurretan. Tokiko Entitate Txikia (*Entidad Local Menor*) izateko sinadura-firmak batzen dira Iurretan. Herritarren familia buruek sinatzen dute. Gehiengo absolutua. % 85 prozedura honen alde. Frantzisko Ortuzar parrokoaren eta Fernando «maixu baltzaren» informak herritarren alde. Durangoko Guardia Civilaren informak ekimen honen kontra. Informe baloretsua eta pisua, dirudienek. 1950eko hamarkadan dihardugu.

Abade gazte bat heltzen da Iurretara. Juanito Gallastegi Duñabeitia. Lanbreta bat. Mutiko triplei koruko pontifikalak erakusten. Sotana «erremengauta» pelotan zein futbolekin. Parrokian bere ardura nagusia Orobioko San Marko auzuneko eleiztarrena dauka. Meza, katekesia, kantua, euskera, kontzilioa, dantza. Bere garaian San Marko basilika berriztatzen da Lander Gallastegi arkitektoaren

zuzendaritzapean. Jose Antonio Retolaza abadea eta *Kili-kiliren* dinamizatzailea alboan du. Antzerkia, Arrate Irratirako esatariak, nesken koru zoragarria, neska eta mutilen hiru-lau dantza talde. Orobio auzoa harako apirilean gereziondoak loretan loriatsu diren lez halantxik Juan Bixente *Juanitoren* lorratzean.

Juanito bere txikian handi egin zen, batez ere gazteen artean. Nagusiak ere zaintzen zituen. Jendetasuna zeukan. Jendetasuna du bere lauogeita hamaika urtera bidean. Apala eta gozoa. Txera onekoa. Kontzilioak *lenguas vernáculas*, tokian tokiko hizkuntza eta ohiturak bultzatu behar zirela. Juanitorentzat beren beregiko baratza. Kantuak eta errezuak, ohiturak eta dantzak. Iurretako gazte aldra bat hartu, hamabost-hogeitabi tarteko neska eta mutilak eta erromes, oinez Arantzazura. Gauez. Durangoko artzipreste integristaren bronka eta haserre. Ai, seigarren mandamentua! Juanitoren eraginez gabon kantak, Abendua eta Santa Ageda koplak batzeko taldetxoak eratuagotzen auzoetan Orobion eta Iurretan, ensaiotxo batzuk aurretiaz, txistuaz lagundurik.

San Migeletan, herriko patroiairen jaietan, jai-batzorde eta dantzarien artean eztabaidak eta Berrizko dantzariak ekarri ziren. Nora eta Iurretara kanpoko dantzariak! Hurrengo urterako hamar-hamabi urtekoen neska-mutilen taldea plazaratzen da. Jantzariak eta hilanderak. Handik urte bira edo osterara ere herriko jai nagusietan Orobio-Bakixa, Arriandi eta Iurretako dantzariak plazaratzen dira eta hiru taldek batera dihardute. Juanitoren eskua. Herrigintzan. Solte legokeen haria ilbandu guran. Herri bereko gazteak elkarren ezagutzen jarri guran. Juanito Handia beste hirurehunik gorako apaiz talde batean Hego Euskal Herriko lau gotzainei protesta karta sinatzaile.

Jai-batzordea, Koadrila Mallabiena, Korua, Dantzariak enbor beraren, arbola bakarraren adaki sendo batzuk eta adaska gazteak? Koadrila Mallabienak eta koruak urtean zehar dozenaldi meza kantatu eta ondorengo alborokea izan ohi zuten 80ko hamarkadara arte behintzat. Meza emaille bertoko semea zen Karmelo Etxenagusia Uribe, gotzain izendatua izango zena.

Zelan elaiak urtero etorri ohi diren udabarrian aurreko udagoienera hutsik utzitako habiara, oraingo honetan Julen Kalzada abadea iritsi Juanitoren orde. Juanito, firmak zirela eta, represaliatua izan zen. Etxebarriara aldatua izan zen. Markina aldera. Zilegitzat izango dut baldin eta juanitokumeak –ez dut inon honelakorik irakurri- baina zilegi bekit: juanitokumeak plaza-mutil, plaza-neska egin dira. Hamazazpi-hogeita bat urteko. Tailerrera lanera doaz, txikiteoan, futboleko, erromeriara, mezara, txirrindularitzan, *sala de fiestas*era. Eleizako organoak eta plazako txistuaz gainera gitarra dator. «*Ez dok amairu*» Lurdes eta Lete, «*gazte gera gazte*». Hauek baino lehentxoago Mixel Labegerie, hau ere bere gitarraz, *zer duk nigarrez, bakearen ursoa, gu gira Euzkadiko, haurtxo haurtxoa*.

Zer da hau? Konforme ginen Iparragirreraren *ara non diran, gazte gaztetandikan, gernikako arbola, ume eder bat* edo ke artean erdi hautsitako, erabileraren erabileraz, erdi hautsitako paper horizta beilegietan ikasiriko *askatasun eguzkija, euzko euzkotarrak gara*.

Bizikletatik *Vespa* motorrera goaz eta kangrejotan Oxinbaltzara. Han perretxikotan dabiltzan Julen eta konpainiarekin elkartu. Otzaratxua hankagorritz eta urretxez horniduta Bodegillara, lagun artera. *Euskal jaia* Deban, *Dantzarien konkurtsoa* Erandion, domu santuetan *euskal liburu eta diska azoka* Durangon, *Euskal Herriko artzain txakurren txapelketa* Mañarian, euskal ikurrina argindar kableetan, *eusko gaztedi*, Urbiera, Gorbeara, Kanpazar, Aberri Eguna Gernikan, Ander Manterola edo Alberto Gabika(gogeaskoa) abadeei multak eta manifestaldiak, *eliza pobrea, hiltzaile bat bezela hemen naramate*, Orobion bertsotan Amuriza abadea eta Muniategi. Gaztedia eleizaren inguruan, eleizaren mantupear, ideologia sozialak puri-purian, kristautza eta marxismoa inkompatibleak ote? Langileria eta burgesak, prestakuntza soziala, batzarrak eta klaseak, *Herri Gaztedi* [(mugimendu hau eleizaren babespekoa zen, JOC, AC bezelaxe) 1928ko urtarrilean Iurretan eleizaren inguruan mutil gazteen elkargo bat sortu zen eta izen bi aukeratzekotan *eleiz gastedi* ala *luistarrak*], euskera, euskera irakaskuntzara, ikastolak, tokia, umeak, andereñoak, guraso gazteak, debekuak, multak, dirubatzekak, abendua kantatzen, krisia, sistemaren krisia, frankismoa azken ostikadetan, Bandasen huelga luzea, polizia-guardia zibila geroago oldarkorrako, Txabi Etxebarrieta, Melitón Manzanás, *estado de excepción*, atxilotuak, torturatuak, kantaldi debekatuak, bertsolariak galarazota, ikastolak jomugan, Bizkaiko abade talde esanguratsu bat Derioko seminarioan itxialdi-protestan, Gogor taldea, *iñok nahi badau gu Deriora zetan gatozen aditu* (Gogor diskoan ageri diren irudiak Lander Gallastegik Orobioko San Marko ermitarako diseinatutakoak dira), handik hurrengo udabarrira beste gose-greba bat eta bost abade Zamorako kartzelara. Hainbat gazterentzat ikur bihurtzen dira. Eurotarikoen artean Julen Kalzada daukagu. 1976an amnistiari esker askatu zuten.

Baina harako «nacional-catolicismo»ak kraaak dagi. Pitzadurak eta arrakalak hemen-hor. 68ko maiatza. Langile klasearen autoeraketa, marxismoaren teorizatze berriak, *eta, euskara batua*, zeruko-argia, anaitasuna, euskera, alfabetatze-euskalduntze kanpaina, Euskara, ikastolak –gehien gehienak elizaren anparu-katekesi antzera sortuak eta tokian tokiko abade-fraideren baten laguntzaz eta herriko santuren baten izenez erregistratuak, gurean Julen Kalzada abadea eta Goiuriko Andra Maria ikastola–, herri jakintza, folklorea, Durangerriko lehenengo Ezpatadantzari Eguna Iurretan Gerediagaren eskutik, dantzari-dantza, erregelak, euskal-dantzarien-biltzarra, euskal mitologia, Azkue, Aita Donostia, Barandiaran, Oteiza, Caro Baroja, kooperatibak, funcor, eroski, abade eta fraideen seminarioe-

tan ia bat-bateko hutsitzea, sekularizatze masiboa(?), Arrupe jesuita, askapenaren teologia, «bai mundu berria», horizonte gorriak, Burgosko prozesua, burgesia, errepresioa, polizia, manifestaldiak, nazio askapena, marxismo-leninismoa, burges ttipiak, internazionalak,...

Galdara honen sakonean edo barruan egosi izan da nire uste apalean, *-uste apalean* kasu honetan ez da almagazetik jaso ohi den esamolde formula bat, nire ikuspuntu apaletik, eta laburretik agian, aportatu nahi dudana teoria-emaitza bat duzue. Bada, galdara horretatik eta data bat jartzekotan 1967ko 1. *Ezpata-dantzari Eguna*-tik aitzina dukegu iurretarrak bestean begietara bereziagoak, diferenteagoak egin gaitzakeen orrazkera. Folklore aitatu dugu. Egun horretarako Durangerriko dantzariak gainera gure-gureak direnak eta batez ere 36ko gerra-aurreko-osteko dantzari mitikoak(?) plazaratzea zen erronka. 50-65 urtedun gizon dantzariak, «dantzari zaharrak». Zer esanik ez, folklore biltzailearen katixima ikasia: «Noiz ikasi zendun, norengandik eta harek zeinengandik, zelan jantzen zineten, noiz egiten zenuten etabar...». Hari horri helduta dantzari nagusi zaharragoetara iristeko bidea egiten da eta post-romantizismo garaiko folkloristek euren orrietan argitaratu dituzten hainbat datuk, hainbat kantuk, hainbat dantzak gure ezkaratz beroetan bizi-bizi dira. Jose Jabier Abasolo «Tiliño»k Orobioko Juanito Gandiaga «Sague»ri *Erregelak, Aurresku eta Atzesku de Ante Yglesia* dantza-kantua jaso zion. Badira hamar bat urte Iurretan dantzok ez direla plazaratzen. Durangorekin anexionaturik egotearen ondorio. Durangoren menpe, asimilazioa. Durangar dantzariak dotorezia, finezia ematen die euren koreografiari. Abadiño, Berriz, Garai, Mañarikoei aldeanoagoak dituzu, baserritarragoak, basatiagoak. Anteiglesiaiakoak. Bilboko «Gaztedi», Donostiako «Argia»koak Garain zein Berrizen ikasten, biltzen dantzaren muina, autentikotasuna, benetakoa. Zer da hau?

Tiliño eta Mikel Sopelana *Erregelak* ikasten Juan Bikandi «Errotari»gaz, zeinak bi hankak mozturik zeuzkan eta bere kantura eta adierazpenetara Miren alabak dantzatzen zuen. Mutilok honi begira trebatuz. Hemen leiho zaharretik haize berria sartzen da. Dantzari zaharrak, pertsona nagusiak. Dantza eta kantu eta mila kontu berriak-kopau baten aitzakian. Gerra aurreko belaunaldi isilarekin konexioa lotzen da. Han eta hemen altuan esan ezin ziren esamesak, iritziak. Kofradiak, barriada basoak, anexioa. Gu ez gara durangarrak, gu anteiglesiaiakoak gara. Villa de Durango. *Aurresku de villa versus Aurresku de Anteiglesia*. Ibilbide honetan hari eta kordel punta ugari lotzeko modu itxurosoa egin zen. Folklore arloan hasi eta herrigintza osoago batera iragoz.

Garai honetan hazten da, gorpuzten da «belaunaldi» berezi hau. Taldea bainoago «belaunaldia» (taldea-belaunaldia erreferentzia hau Pruden Gartzia *Euskaldun fededun* liburuan zor diot) Iurretan ikusezinezko baina ukitu daitekeen amaraun

harietan dabilen belaunaldi eta horren eraginez dantzatzan duen, kantatzan duen, haserretzen den, elkartzen den, erreztan duen, maledikatzan duen, edaten duen jendea dago. Ikastola mantentzeko diru batze kanpainak, abendua, meza nagusia, jai-batzordea, herri kirolak, maoistak, korua, trikitilariak, parrokoa ez aldatzeko firma batzea, troskoak, burgestxikiak, alfabetatze-euskalduntze gau eskolak, bertsolariak, kofradiak..., eta urteen higaduraz eta, behingoz, herri xehearen mesedetan, urteetan Durangoko udalak judizializatutako kofradi basoen kausa sententzian onartzen da Auzoen eta Auzotarren nortasun juridikoa, sei Kofradien eta bakoitzaren nortasun juridikoa. 1973 urtean gara.

Franco arnasestuka baina tente ageri zaigu oraindik. Iurretan folklore arloan Tiliñok darabiltza harremanak: musika instrumentu zahar, dantzarien biltzar, trikitilari... berau dugu gidari. «Sei Kofradiak - Iurretako Herria.» Ermita bakoitzeko jaietan urtean behin, txandaturaz Kofradia Eguna egiten da. Jai folklorikoak bai baina herri berekoak garela, kohesionaturaz hazia ereinez. Mikel Sopelana izango da honetan ekintzaile.

Iurreta Durangora anexionaturik den legetxe Bizkaian badira beste eskualde batzuetan ere kasu berean: Bilbo - Txorierrin, Gernika - Urdaibain, Artibai aldean... eta berriro bere senera itzultzea asmo sendoz ari direnak. Hamaika eta mila eta bost aldiz aitatutako herri bakoitzak uko, irri, mehatxu eta urrumak jaso izan arren, ibilian-ibilian denok jazo izan dugu, denok lortu dugu geure buruaren jabe egitea. 1989ko azaroaren 13an Gernikan Bizkaiko Batzar Nagusien onespina jaso zuen Iurretak herri Eleizate gisa. *Ezina Ekinez Egina*. «Sei Kofradiak - Iurretako Herria», hurrengo lema «Iurreta gure Herria - Euskadi gure Aberria».

Honaino iritsi bazara, zer deritzozu? Ez gara hain diferenteak, ezta? Hauxe duzu nik kontaturiko historia. HALA DA nik ez dinot. Hau ez duzu egia bakarra. Hurreratze bat egin dizut, nire uste apaletik. Gerrarik, haserrikerik, ... ezer gutxi ageri da hemen. Bai, bai izan dira, bai izan ditugu, noski! Bai izan dira berrikeraldi beroak, bozgorakoak, muturkadak eta mutukadak, aurpegi ilunak, gorroto puntuak, azpijokoak, azpijanak eta azpilanak. Pertsonak garen aldetik gure lohia eta gure adeitasuna. Hau guztiau dugu, hau guztiau gara. «Urridxena» gara non herriko dantzari guztiok batzen garen. Madinaren «aitagurea» solemnea gara. Kalimotxoa eta kafesnea gaituzu. Oinaztarrizko begirada bortitza gaituzu eta negar-antpuluak non isuri besarte gozo eta beroa gara. Dabilen errotarria gara. Zorionez. Liberal, karlista, abade, bizkaitar, irakasle, ehbildu, komunista, extremeño, informatiko, antoniosalamanca, dantzari, musulman,... Maiteminak ez ei du mugarik!

Dabilen harriari goroldiorik ez! Iurreta, dabilen herri gara?

(2024ko jorrrailaren ilgoran)

JOSE ENRIQUE URRUTIA, *KAPO*

Ebrokoa



Jesus Mari Uribelarrea Ebro aurrean (Jose Enrike Urrutia)

JOSE ENRIQUE URRUTIA (1954-)

Jose Enrique Urrutia Capó Iurretako Ebro baserrian jaio zen 1954an. Durangoko jesuitetan batxilerra egin eta gero, Deustun ikasi zuen Zuzenbidea. Mutikotan kirolaria izan arren, artearen bidea hartuko zuen laster. Ebrotik kanpo, Barkoxera joaten zen sasoi batean, gero Tanger aldera, eta orain, aspalditik, Holguin iparraldean bizi da pintatzen eta idazten.

Idazle bide berezia egin du, liburu denak Pamiela editorialean eta denak bere marrazkiekin ilustraturik. Lehenengo liburuan, *Josef Urruty-Borde* izenordearekin argitaratuan (Enry Kapondes Spondanus omen irudigilea), euskal literaturaren urrezko aroa parodiatu zuen, zuberotar kutsuko idazkera umoretsuz:

Kadrila alegera festan da (1988)

Hurrengo liburuetako narrazioetan ere halako idazkera berezi bat landu zuen Kapok, eredu batu estandarretik aparte, ipar-ekialdeko euskararen baliabide jostariekin mundu urrun eta arraroak kontatuz:

Izar beltzaren urtea (2000)

Ergelen nonbrea (2006)

Assilah-ko eroa (2010)

Weylerren itzala (2012)

Jururu (2015)

Pelegrinak (2018)

Francisco Garayren urrea (2022)

Hizkuntzaren aldetik, ipar-ekialdeko hizkeraren joritasuna nabarmentzen da liburu guztietan. Batzuetan, gaia monografikoa da: *Assilah-ko eroa* liburuko testuak Afrika iparraldeko giro mahometanoan daude kokaturik; *Weylerren itzala* Kubako pasarte historikoen ingurukoa da; *Jururu*, Kapo bera bizi den herritxoko pertsonaien bizimoduaren kronika da; *Pelegrinak* erlijio sinesmenei buruzko kontakizunak dira.

Gaia zeinahi dela, Kaporen estetizismo bizizalea bere fatalismo umoretsuarekin nahasten da.



EBRO

Ebrotar guztieri

«Egin da gure jende gazteaz.»

AXULAR

1

—Mari Pilarren katuak hegan egiten ei dau!

Barre egin zuen gizonak txikitako pasadizoa gogoratzean, auzoak esandakoak asaldatuta, oihu batean etxeko sukaldean sartu zen aldi hura; leihatilatik begiratu, eta trena geltokian sartzen ari zela ikusi zuen; trenetik jeitsi, eta Ibaizabal ibaiaren alderantz herri osoan zehar joan zen, gogoan barrena haurtzaroko gogorapenak pilatzen zitzaizkion bitartean.

Harritu egin zen haur denboretan ia herritik kanpoan zegoen «Magdalenaren eliza» txikia hainbeste etxetzar berriren artean galduta ikusiaz. Halere, eten gabeko bere handitzean, herria ez zen oraindik ibairaino iritsi, bertarantz zenbat eta hurrerago, etxeak gero eta bakanago ageri ziren; sasiek eta goroldioak dena harturik, leihoak hautsirik, horma arrailduak, bidearen alde bietan aspalditik beren horretan utzirik zeuden lantegi ohi bana ikusi ahal izan zituen, ibaiaren ertzeraino luzatzen zirenak.

Zubiaren gainean iragan orduko, etxe zaharrari begira gelditu zen, *Orage sur Normans* Soutinne-ren koadroa ekarri zion gogora: hartakoan bezala, etxeak tei-latu bihurria, harrien gaineko karea han-hemenka eroria, horma amore emanak eta arrailduak zituen; bada, ageri zen aspalditik hutsik zegoela. Haren aurrean hiru albo zeuden, geratzen zitzaizkien hosto apurrak haize zirimolek botatzen zizkietenak.

Hura zen Ebro, gizonak bere lehenengo urteak bertan emanak zituen etxea, aspaldi luze batean ikusi gabe zuena. Bada, etxea lurrera bota eta haren orubean gasolindegia bat eraikiko zutelako berriak eraman zuen bisitaria Eboren aurrera, bada, ahaztu gabeko haurtzaroari behin betiko agur esatera.

—Joanak bai, urteak! —pentsatu zuen bisitariak; etxearen gainean ez ezik, ibaiko ur uherretan ere antzematen zen denboraren iragana, bada, txikitan kangrejoak harrapatzen zituzteneko ur haiek orain zikinez beteak zetozen, bits beilegiz eta hondakinez; zalantzarik gabe, hantxe ez zitekeen ezer bizirik.

Guztiarekin ere, harri arrea bezala ageri zen zeruaren goibelaz, etxearen irudi tristea ia ederra zen, Bilbotik Donostiarako errepidearen doi ondoan, denboraren ertzean bazter utzitako iraganaren sinbolo.

Baina gizonak ez zuen tristurarik sentitu, bai ordea, bata bestearen gainean buru barrenera bildu zitzaizkion haurtzaroko pasadizo, gertaera eta gomutak:

—Zelan gogoratu leikez argiago duela hogeita hamalau urteko kontuak, duela bost urtekoak baino?

Bada, bizi-bizian gogoratzen zuen amama Emeteria bazterreko hormaren kontra bere jeromiak eguzkiari begira jartzen ari, eta katuetatik bat auzoek balkoian eskegiten zuten gardantxiloaren kaiolari adi; edo etxeko hormari josiak zeuden harrizko jesarlekuetan Ebroko auzolagunak elkarrekin solasean; eze, etxeak hiru bizitza zituen familia banarekin, eta bertakoak ez ezik, joan-etorrietan zebilen goiko auzoetako jendea ere bertara biltzen zen berriak elkarri esatera, ontzi bat ardo edatera, edo, astean pare bat aldiz, kartetan jardutera.

Bisitariak zubia iragan eta Ebro osteko mandio eta oilategi zaharkituen ondotik asunez beteriko bidean abiatu zen Elkorre zeritzon malkarrerantz, baina ez zen bertara igo, haren gainean, ohiko basoaren orde, frontoi bat eta eskola antzeko eraikuntzak zeudela konturatu zen-eta; muino hartan berean bazkatzen zuten Ebroko Erramunen bi behiek, eze, bisitariaren aitita bezala, langile izan arren, baserritar sena ez zuen galduta, eta «Erretamendin» bazituen lur sail batzuk, batez ere uda sasoiari lantzen zituenak.

Gizonak irribarre egin zuen Erramunen astoaz ere gogoratzean, Erretamendira sasi eta kaparrak moztera joan ziren batean kapela berria jan ziona, bada, lastozkoa baitzen.

Elkorre ostetik pinudiz beteriko muino eta mendiska ilunak nabari ziren Oiz mendiaren lepo moreari atxikiak. Hartan ere bazegoen berrikuntzarik!; Gernikalde osoa eta, egun argitsuetan, itsasoa bera ere ikus zitezkeen tontor hartatik, irrati-telebistetarako orratz luzeak jaulgitzen ziren zerura xut, txabola itsusi baten ondotik.

Etxealdera itzultzean melankonia apur bat sentitu zuen, aurrekoa hautsi eta desegin gabe, mundu honetan aurrerakuntzarik ez dagoela pentsatu zuenean. Elizarantz abiatzerako orduan ibaiaren bestaldeko herrirantz begiratu zuen: etxe multzo nahasi bat, bere atzean Anboto mendiaren lepo harroa zuena, harri bizizkoa bailitzan bera ere arre eta hotz antzean.

Ebrotik plazarako bidean zehar elizarantz joan zen; bertara sartzearekin, konturatu egin zen dena zegoela bere akorduan zuenaren arabera: atletik hurbil, ezker-eskuin argizagi eta spiral batean kiribilkatzen ziren kandela meheak hilarrien gainean; gero otoitzerako aulkiak han-hemenka, bat ere ordenarik gabe, denak aldareko San Migelen irudiari begira: arkaingerua militar jantzita eta buruan burdinezko kasko batekin ageri zen, tragaza batez herensuge-deabru zanpatua hiltzen ari.

Eliz plaza hartatik Ebrotik zetorren bideak gorantz segitzen zuen, aldatz handia eta bihur itxi bat eginez; aldatza igo eta kanposanturantz abiatu zen, bisitariaren akorduan bezala pinudi baten aurrean zegoena; horma zuri batek inguratzen zuen eta hiru altzipres zerurantz altxatzen ziren. Urte asko joanak ziren bertara hurbildu gabe iraganak zituenak, halere, gizonak berehala aurkitu zuen bere familiaren hilarria; kendu egin zituen goroldio eta belarrak, pena handi batek bete zion barne guztia, denbora luze horretan hantxe bertan zeudenekin zer guti gogoratua zen pentsatu zuenean. Gogoratu bai, ordea, zeru goibel baten azpian amama Emeteriren zerraldoa bertara sartu zuten egunaz; eta pentsatu zuen eze, naturari zor zaion halabeharrez, luze gabe hilarri hura guraso zahartsuen ostatu izango zela, eta gero berarena.

2

Kanposantutik irten eta aldatz beherantz plazara jeitsi zen elizako dorrearen ondotik. Plazara helduta, bertarantz zetorren haur talde batekin gurutzatu zen, beren *mountain-bike* zeritzen bizikleten gainean eta magnetofoi entzungailuak belarrietan zihoazenak; gizonari bururatu egin zitzaion norberaren izaera txiki-txikitatik moldatzen dela, eskolan edo bizitzan zehar ikasten den guztia ume-umetako zirriara haien gainean erori, eta iadanik egina den zumitzan sartzen dela.

Aria horretan, gogora ekarri zuen txikitako gogorapen bat, Ebrotik haruntzago zegoen etxe multzo batetik etorrira, zubia iragan eta plazarantz abiatu zen jende talde bati buruzkoa; halakorik sekula ikusi gabea, mutikoari jende haiek, beren itxura eta jantzi bitxiekin, beltzak iruditu zitzaizkion; gogoratzen zen gizonetarik batek, bibote handiarekin eta argala bera, buruan kapela beltza eta eskuetan eraztun handiak zeramatzala. Harekin zihoan anderea, aldiz, txikittoa zela eta lodia, lore irudietan egina zen gona batekin jantzia, baina gizona bezain beltza. Ebro aurretik iragatean gelditu egin ziren, eta kartetan edo berriketan ziharduten etxeko lagunei hitz egin zieten; mutikoa harritu egin zen lehen aldiz erdara entzunda!

Bada, haiek ziren «maketoak», kapeilu eta eraztun handiekin zebiltzan jendeak.

Mutikoak horrela ikasi zuen munduan maketoak eta euskaldunak bazeudela, elkarren ezberdinak ziren jendeak. Ikasi ere, nekez, eze gurasoei edo amamari galdetzen zien:

—Baina zergatik ez dakie euskeraz?

Hizkuntzaren gora-beherak zuzenagotik ezagutu zituen handik laburrera, bada, monja-kolejiara bidali zutenean, hain zuzen. Ebroko babesetik ibaiaren bestaldeko herri handira joan behar izaten zuen, baita goitik behera zeharkatu ere, ia ordu

beteko ibilaldia egiten zuelarik; euskaraz baino ez zekien umea, bat-batean murgildu zuten euskarak lekurik ez zuen ikasetxe haren erdian: «kolpearen gogorra, puntuaren latza» idatzi zuen Axularrek; orain bera zen maketo haiek bezalakoa, non beste haurrek bai, baina berak ez zekien erdaraz!

Handik bada, eskolako lehen egunean berean, monjek burdinezko ate handia zerratu arren, bazkalordua bere alde hartuz, mutikoa handik kanpora joan eta arratsalderako Ebron agertu zen. Hura ustegabea!! Monjak herri osoan zehar ibili omen ziren mutikoaren bila, bereziki Ezkurdi plazan gora eta behera, eze, San Faustoko jaiak izanda, uste izan zuten barraketara joana izango zela.

—Eta nondik urten zara kolejiotik, atea zerratuta egoen-eta? —galdetu zion amak.

—Goiko atetik —erantzun zion umeak.

Ama orduan gogoratu zen egun batean kolejoaraino joanak zirela monjek umea ezagutu zezaten, eta kapeilauagana ere joan zirela kapera atariraino, gero bertako ate txiki hartatik irteteko.

Aurrerantzean, Ebron ere sartu zen erdara, «umeari komeni jakolako».

Mutikoa mundua gauza traketsa dela hasi zen ikasten. Monjek emandako erlijio-eskolek ez zizkieten gauzak errazago jartzen. Halatan, kolejoan Ama Birjina zen otoitz gehien egiten zitzaiona, saindu guztien gainetik eta bere seme Jesusen ondoan zegoen aldetik; bai ordea, haren gainean bazegoen Aita, zein Semea ere zen, nola Elizaren jabea; baina, aldi berean, uso zuri baten irudian Izpiritu Saindua ere ageri zen. Hura guztia ez zen ulertzeko erreza, ez horixe! Halatan, behin batean, barre eragin zion aitari zera galdetu zionean: alde batetik, Jesus kristau guztien aita izanda, eta beste aldetik Ama Birjinaren semea, ea hura ez ote zen guztion amama.

Bai ordea, San Migel herensuge antzera figuratua zen deabrua hiltzen ari, hura bai ulertzen zuen, gauza argia zen!

Teologiaz kanpo, mutikoak ondo ulertzen ez zuen beste gauza bat Espaina, Frantzia, Britainia Handia eta abarrekoak ziren. Bost urte-edo zituenean, irakurtzen bazekien-eta, geografia klasean monjak mapa bat zabaldu zuen, Toledo, Tajo, eta beste izen askoren artean, Madrid letra handietan jarrita zeukana; Bilbao ere bai; mutikoak eman zuen hura Bilbo zela. Baina bazegoen beste izen bat ondo baino hobeto ezagutzen zuena: **Ebro**, letra beltzetan idatzia, tinta urdinez marratuta zegoen ibai baten ondoan. Orduan konturatu zen zer zen mapa hura: hantxe zegoen Ebro etxea, aurreko bere ibaia eta guzti. Bai ordea, Duero, Macizo Central, Toledotik eta beste izenez ageri ziren herriotatik etorriak bide ziren maketoak.

Baina mutikoaren munduratze hura ez zen bakarrik eskolan gertatzen; bai ordea, etxean zuen eskola-orde ona –dena da fisika–, behin eta berriz esaten zion aita, hain zuzen. Sasoi hartan, ofizial izateko ikasten ziharduten langileen irakaslea zen, enpresan bertan; bada, irakastera ohitua, ez zuen nekerik bere semeari gauzak zertan diren azaltzerako orduan; bestalde, haren lanari zegokion aldetik, aita marrazkilari trebea zen, eta Ebro aurreko zubia iraganik, aita-semeek etxea bera marrazkitzen ematen zuten beren aisia; beste batzuetan, Oizen leporaino joanez, harriak biltzen zituzten eta etxera eramaten; aita harri bat hartuta, hareta-harria zela adierazten zion, aspaldi izugarri batean, itsasoaren azpian apurka-apurka moldatuz joan zena; hareok, mendeetan eta mendeetan zoruaren gainean pausatu eta elkarretara bildurik, finean itsatsi egin zirela. Geroztik, Lur barruko indar batek altxatu zuela zoru hura eta egungo Oiz bihurtu. Mutikoa begi hanturik adi-adi egoten zen.

Igande eguzkitsu batean, aita *Guzzi* bere motorrean semea hartu eta Orozketatik gorago joan ziren Mugarrikolanda izeneko lekura, harnabar eta marmol harrobietatik hurbilera. Ibaizabalen isuria Bilborantz zihoaneko haranaren gainean bera, landa hartan iturri bat zegoen Mugarren horma biluziaren atzean; bada, haitz zoragarri hura marrazkitzen hasi ziren aita-semeak; mutikoak paperaren goiko aldean kolore beltzez marra zenbait egin zituen, aita ea hori zer zen galdetu ziolarik: «Saiak», erantzun zion mutikoak, eta hatzamarraz erakutsi zion saldo bat Mañaria aldean, zeruan hegada geldoetan inguruka.

Mutikoaren eta haitzaren artean, sasi baten gainean mitxeleta koloretsu bat pausatu zen; mutikoak begiratu egin zion, ederra iruditu zitzaion bere hegala biribilekin eta kolore hori finarekin, ia gardenen. Eguzkiaren inarretara ñir-ñir arinak iaulgitzen zitzaizkion hegaloi.

Ustegabe, dzaust!, musker batek jan zuen. Mitxeleta zegoen lekutik begiak ezin kenduz, harri eta lur gelditu zen mutikoa, narrastia mauka-mauka ari zen bitartean.

Etixerakoan, aitari kontatu zion: «Muskerrak mitxeleta jan dau!».

Eta aita ahal zuen pazientziarekin hasi zitzaion esaten natura baitan gauzak horrela gertatzen zirela, eulia igelak jaten zuela, eta berau sugeak edo azeriak; eta jan egiten ez bazuen ere, gizonak errez hilko zuela sugea. Munduan haragijaleak eta belarjaleak zeudela, narrastia eta txoria; piramide batean bezala irudika litzekela animalia, goikoak behekoak hiltzen eta jaten zituztelarik. Piramidearen puntan gizona zegoela, zientzia eta teknikari esker beste guztien gainetik egon ere: «Gizona, bakarrik gizonak hil legike».

Mutikoa hura guztia pentsatzen ibili zen ondoko egunetan, baina argiro konturatu zen piramidea zertan zen, katu batek txoriño bat nola harrapatzen eta jaten zuen ikustean. Higuindu egin zen harekin eta beldurtu ere: «katuak txoriñoari burua erauzi eutson, eta milikatzen eban bitartean, bere begi argitsuekin adi-adi egoen niri begira» esan zion amari.

Baina aitak, «hori gertatzen da piramidean txoriñoa katu baino beherago dagoelako» esan zion; eta lasaitzeko bezala: «baina gizona dago piramidearen puntan».

4

Kolejioan gauzak ez zihoazkion gehienei baino okerrago, halere, ahalegin handiak egin behar zituen erdera zela-eta; *hacer del cuerpo* bezalako esamoldeak ez zituen ulertzen, batek daki zer pentsatuko zuen *gorputzetik egite* hartaz! Bai ordea, berehala konturatu zen hitz magikoak zirela: eskua altxatu, monjari beraiek esan, eta eskola aspergarritik kanpoan egoteko denboratxo bat edukiko zuen.

Geografia eskolan behin batean gorriagoak ikusi zituen; bada, Mater Filomenak mapa handi bat arbelean zehar goitik behera zabaldu, eta *Mar Cantábrico*, *Mediterraneo*, *Pirineos* eta abarrekoen ostetik *Vascongadas*, *Aragón*, *Castilla* behin eta berriz aipatu orduko, mutikoari galdetu zion ea Bizkaia non zegoen, adieraz zezala non bizi zen. Mutikoak, inongo dudarik egin gabe, makilatxo hartu eta haren punta **Ebro** letra beltz-beltzetan jartzen zuen lekuan ipini zuen, Zaragozaren ondoan.

Han lehertu ziren klaseko beste mutikoak karkar ozenetan.

Aste hartako larunbat arratsaldean mutikoak zigorra bete zuen, kolejiara joan behar izan zuen geografia ikastera. Guztiarekin ere, urte bat baino gehiago kostatu zitzaion misterio hura ulertzea, bada «zelan egon leike Ebro gure etxea, Zaragozaren ondoan?».

Baina beti ez ziren hain egoera larriak, noizean behin, bere aisiara egoten zen. Halatan, udaberria heldutakoan monjek irtenaldiak egiten zituzten ostegun arratsaldeetan, eguraldia lagun; haur guztiak ilaran joaten ziren monjetarik baten atzetik Tabirako ermitara edo herriko beste komenturen batera, bertako sailduaren eguna zenean, esaterako.

San Roqueraino joan ziren batean, haur guztiak ermitaren barruan ezin sartuz, pikondo baten gerizpean monjaren inguruan jesarrita, errosarioa errezatzen hasi ziren. Lelo haren asperdurak hala behartuta, mutikoak zuhaitzaren enborrean jarri zuen burua adarretara begira; haren burutik metro batera, arratsaldeko azken argitasunean, eulitxiki saldo bat mar-mar ari zen nahaste batean. Monjak, *mater intemerata* esan, eta hurrek *ora pro nobis* erantzun orduko, dzaust!, kakarraldoa

bezalako zomorro bat bere hegadan alde batetik bestera joan zen, eulittoen artean beraietatik batzuk janez.

Mutikoak begibistaz segitu zuen kakarraldoaren hegaldia belar gora batean pausatu zen arte, bere pisuaz ia lurreraino abaildu zuena.

Bat-batean, zozo batek, mokoan hartu eta burua atzerantz eginez, dzaust!, irentsi egin zuen!

Ora pro nobis, esan zuten mutikoek.

5

Jakina, piramidean zozoa kakarraldoaren gainean zegoen. Halarik ere, haren puntan gizona bera bakarrik zegoela-eta, mutikoa ordurako konturatuta zegoen gizonen artean ere bazeudela goikoak eta behekoak, bada, aitari galdetu zion ea gizonetan ere piramiderik ote zegoen. Aitak ezetz, gizaseme guztiak mundu honetarakotzat hil egin behar zirela, geroztik, Jaungoikoak bidaliko zituela zerura ala infernura, baina gizona gizon den artean izaki askea dela, denok eskubide eta duintasun berekoak garela. Baina hitz haiek mutikoari iruditzen zitzaizkion Ama Birjina eta aingeruen kontuak bezalakoa, mundu ukiezin batean edo hor nonbait kokatu behar zituenak, eze, egia esatera, berak iadanik bazuen bere iritzia moldatuta.

Aitak ez zuen jakin semeak zer zerabilen buru barrenean, harik eta honako pasadizo hau gertatu zitzaion arte: bada, San Migeletan bildutako jendetza handiarengatik aitak besoetan zeraman batean, mutikoak plazako bazter batean inorekin hitz egin gabe eta guztiei begira zegoen *guardia zibil* pareaganantz eskua luzatuz, zera esan zion: «horrek be maketoak dira».

Harriturik, aitak ea zergatik zioen hori; umeak baietz, berak bazekiela, eze Ebro aurrean ezagutu zituenak bezalakoa ziren, beren kapeilu bitxi eta bibote beltz banarekin; areago, hatzamarretan eraztun handiak zituzten.

«Piramidean maketoak geu baino gorago dagoz?» galdetu zion aitari «eze, eskupetak daukiez».

Aitak ezetz, gizon haiek autoritatearen ordezkariak zirela, halakoek, eta ez beste inork, bazutela eskubidea armak erabiltzeko, legea betearazi behar zuten aldetik.

Umeak hori ongi ulertzen zuen, kolejioan ere Mater Filomenak bazuen bere makiltxoa, mutiko guztiak xut eta tente jartzen zituena. Halaz ere, berak bazekien eskupetak zertarako ziren, eze Amatzako Jose Luis ehiztaria zen, urtero ekartzen zizkion aitari eperrak edo poxpolinak, amama Emeteriak berunak banan-banan kentzen zizkienak. Eta maketo haiek zituzten eskupetok, han zeuden guztiok beldurtzeko modukoak!

Eskolan hasieran baino hobeto moldatzen zen, erdaraz ere etorri handia hartua zuelarik; halarik ere, batzuetan huts nabarmenak egiten zituen, lotsatu ez ezik, zeregin handietan jarri ere egiten zutenak. Halatan, larunbat arratsalde euritsu batean aitak zera agindu zion: errekadu bat egin behar ziola; Ezkurdi plazan zegoen estankura joan, eta pakete bat *Ideales* eros ziezaiola. «Baina» esan zion aitak «esaiozu *con boquilla*». Mutikoa Ebro aurreko zubia iragan eta ia ordu beteko txangoan zehar joan zen «*Con boquilla*», «*Con boquilla*» eten gabe bere baitako esaten, ahaztuko ez ote zitzaion beldurrez. Baina estankura heldu zenean, bete-betean esan zuen: «*Un paquete de Ideales* aho txikidunak».

Bat-batean ahaztu egin zitzaion bidean zehar ikasitako hitz premiazkoa; halatan, *Ideales* bai, baina estankoko atso gaisoak ulertu ez zionez gero, «aho txikidunik» gabe itzuli zen Ebroraino.

Barre egin zuten etxeko eta auzoek gertaera ezagutzearekin; mutikoak, ordea, barre gutxi, non aitak, pedagogo ona zen aldetik, berriz bidali zuen «bokilagaz» eroatera. Aita ez zen ibiltzen zozokerietan!

Egia horren frogagieria eduki zuen Jesus Marirekin egindako bihurrikeria baten ondotik. Udako gau beroetan guraso eta lagunak etxe aurrean solasean ari ziren bitartean, inguruan edo plazarako bidean auzoko neska-mutilek jolasean jarduten zuten beren aisiara; han ibiltzen ziren «torrenekoa», «okinarena» eta Amatzako mutiletatik nagusia, Ebroko Juan Jose eta Anton Mariren kontra ezpata eta lantzekin, eze, nagusiak izanda, beren nabelez zuhaitz adarrak moztu eta punta zorrotzak egiten zizkieten; beste neskato-mutikoek elkarri txalo egiten, kisketean salto egiten eta abarrekoetan jarduten zuten; baina amama Emeteriak baloi bat erregalatu zionetik, mutikoak ere jolasten zuen nagusi haiekin, baloia berarena zen-eta:

—Neu Pelé brasileñue nok —esaten zuen Ebroko Juan Josek; baina mutikoak:

—Ba, neu Arieta!

Halako batean, isil-ostuka jolasean zebiltzala ezkutuan egoteko aldia egokitu zitzaizenean, Jesus Mari eta biak elizako kanpandorreraino joan ziren.

Elizoste hura antzina kanposantu izana zen, orain sasiek eta antzerako belar batzuek hartuta bazuten ere. Bete-betea argitzen zuen ilargiaren argira, mutikoek saguzar saldo bat ikusi zuten; «Mari zantarrok» horma zaharkituetatik irten, eta alde z alderako beren hegaldi nahasietan zebiltzan; Jesus Mari jertsea erantziz haietatik harrapatzen saiatu zen behin eta berriz, bat bildu arte.

Sare bitxi harekin erraz harrapatzen zirela ikusirik, mutikoak ere jertsea erantzi eta bera ere saiatu zen; beste bat hartu zuten, eta gero beste bat... Etxera itzultzean, mutikoek elkarri esan zioten ea zer egin behar zuten orain, ez zuten-eta saguzarrak

askatzeko gogorik. Bada, inguru bat eginez, mutikoa Ebro ostetik kortan barrena sartu zen, eta sukalderaino joanez zapata kaxa bat hartu zuen: kartoiari zulo batzuk egin eta bertan zerratu zituzten saguzarrok txitoak bailiren.

Mutikoak ea saguzarrek zer jaten zuten aitari galdetu, eta pare bat egunean Jesus Mari eta biak edozein zomororen atzetik ibili ziren: euli, labezomorro, burduntzi eta abarrekoak harrapatu, eta kaxako presoak elikatzen zituzten.

Ostiral arratsaldeetan Aita Lorenzok aitortzak egiten zituen; egunotan elizara biltzen zen beltzez jantziriko andere asko, erretoreak, kontrizio dolore eta penitentziaz, zeruko biderantz bultzatzen zituenak.

Deabruaren atzaparretan erortzetik libratu nahi zuten emakume haiek oihu batean hasi ziren, sakrariatik sarturik, mutikoek saguzarrak askatu eta berauek eliz barne osoan zehar hegalka hasi zirenean.

Aitak berehala jakin izan zuen balentriaren berri, eta bat-batean konturatu zen biologiaren gaineko semearen jakinmin hura zertan zetzan.

Lehen aldia izanagatik ere, aitak ondo berotu zizkion ezpalak semeari.

6

«Dena fisika da», ordea, eta larunbat-igandeetan mezatatik irtendakoan Txonpoloko basora, Garai aldera edo Oromiñorantz pasian joaten ziren aita-semeak. Joan-etorri haiek ez zituzten alferrik egiten, aitak ez zuelako semeari irakasteko aukerarik galtzen. Behin batean, goseak bultzaturik etxera itzultzean, aitak bide bazterretik ira bat hartuz sustraiak erakutsi zizkion semeari, landarea lur barrenean deseginak ziren mineralak beraietatik xurgatuz elikatzen zela; baina lan hura bete ahal izateko behar zuen kalipua orriek eguzkitik hartzen zutela.

«Kontxo!», pentsatu zuen mutikoak, «horrexegatik ataratzen ditu amamak bere jeromiak eguzkitara!».

Aita landareak eta zuhaitzak izaki bizidunak zirela esaten hasi zitzaion, gu bezala hazi batetik sortu eta handitu egiten zirela, gizakion gisa berean beraiek ere finean hil egiten zirela; horrexegatik, hain zuzen, errespetatu eta maitatu behar genituela, txakurrak edo katuak bezala, gure antzeko izakiak zirela, denak Jaungoikoak mundura sortuak.

Edo beste behin, basoko bideren batean zehar pinu-beldarrak, denak ilaran jarrita, alde batetik bestera ikusi zituztenean; eze, aitak, adaska bat hartuta, beste guztien buruan zihoan beldarra norabidez aldatu zuen: umearen poza, beste guztiak jarraitzen zitzaizkiola ikusi zuenean! Pinuetan dindilizka bezala ikusten ziren puxika antzeko biribil haietan bizi zirela esan zion aitak, luze gabe mitxeleta bihurtu, eta hegan egingo zutela.

Bada, beldar haietatik mitxeletak irtengo ziren! Mutikoak ez zuen halakorik esperol; ia sinistu ere ezin zuen egin!

Beste behin, Oiz mendiko haitz baten gainean sugedorri bat eguzkitan ikusi zuten; Aitak makila hurreratu zionean, zizt egin zion mihi bikoitza beldurgarri aterez; narrastia makilan kiribilkatu eta gorantz hasi zenean mutikoa izu batean egon zen, baina aitak handik urrunera iaurti zuen makilari astindu bat emanez.

Mutikoak, «ba, hau ez da maitatzekoa!», egin zuen bere baitako.

Larunbat hartan, Ebroren aurrean bildu zen gizarte txiki hartako jendeteria guztia, gau epela egiten zuen aldetik. Etxe aurreko alboek beren fruitu ia helduak zituzten, karlo puntadunak eta guzti; luze gabe hasiko ziren lurrera erortzen, eta neska-mutilek, bildu eta zuritu ondotik, barneko hazi iletsuak kolkoan behera sartuko zizkieten elkarri, hazka-hazka ibiliko ziren batzuk, besteen irrigarri.

Gau hartan ilargiak Anboto aldetik argitzen zuen, hego haize mehea nabaritzen zen bitartean; giroaren gozoak hartuta, lagunetarik batek zera esan zuen: «Hauxe gauaren ederra!».

Baina mutikoa erreka igele adi zegoen; bada, ilargi betearen ariaz edo, inoiz baino ozenago ari ziren beren garrasietan. Besteek baino kantu ozenagoa zegen bati adi zegoela, errekatik beretik heldua hots bat entzun zuen, harri bat uretara iaurtikitzen deneko bezalakoa. Harez gero, hots ozen hura isildu egin zen, bada, mutikoa erne jarri zen ea besteen artean oraindik nabaritzen ahal zuen, baina ez! Mutikoa ohartu egin zen:

—Ur-arratoi edo sugeru batek jan dau!

—Hau bakea! —esan zuen lehenagoko ahotsak, eta mutikoa begira geratu zitzaion hainari, harrituta.

Gau hartan loak ezin zuen mutikoa hartu. Sugedorriaren mihi bikoitz eta pozointsuaz gogoratzen zen; gainera, kanpoko argi-itzaletatik mota guztietako hotsak zetozkion: txakur zaunkak, katuen aihuri zorrotzak, baita ere igel eta zapoen kroakak, mozolo eta hontzen uhuluak, kilkerren eta beste moztarren asotsak. Haiek guztiak handiturik bezala sartzen zitzaizkion belarrietatik, eta mutikoa, bere ohean begiak zabalik, piramedeaz hasi zen gogoetan; bada, ilargiaren argitasunean hegan ibiliko ziren euli, ziztor, kurubio, ipurtargi eta abarrekoak; mauka-mauka erabiliko zituzten igelek eta sugeek, marrubioek eta arratoiek; piramidean gorago zeudenek behekoak jan eta jan jardungo zuten: igelak eulia jango zuen, sugeak igela, mozoloak sugea, basakatuak edo azeriak mozoloa. Baina azeria gizonak, berau ordea, soil beste gizon batek.

Halarik ere, gizonen artean eskupetak zituztenek akaba litzakete besteak!

Hurrengo egunean, igandea zen aldetik, aita-semeak ohi bezala joan ziren meza osteko beren txangoa egitera. Elkorre gainetik Txonpoloko basora abiatzerako

orduan, topo egin zuten aitaren ezagun batekin eta berriketan hasi ziren gizonok, mutikoa hona eta hara zebilen bitartean. Basoaren bazterrean pinu landatu berrien sail batzuk zeuden, oraindik mutikoa baino altuagoak ez zirenak. Haietatik batera joan, eta bere indar guztiaz saiatu zen enborttoa beheko aldetik hausten; bai ordea, biguina zen, gomazkoa zirudien, alde batera eta bestera indar eginagatik ez zegoen hura mozterik. Eskuak errexin itsaskorraz zikinduta, are errabiatuago hasi zen saiatzen gutxienez adarrak mozten, eta ahal zuen indarrik handienaz zuhaiska astintzeari ekin zion; dena alferrik!

Mutikoa bere lan hartan buru-belarri ari zenean, aitak deitu zion: «Ez neutsun atzo bertan irakatsi, zuhaitzak ere izaki bizidunak direla, ezin leikeguzela gura dogun modura erabili, eta apurtu edo lurrera bota ere ez?».

Mutikoak zuzen-zuzen aitari begiratu, eta zera esan zion: «Baina nik ezpata bat egin gura neban!».

7

«Eta ezpata eskuan gaztaroa bolatu ere!», egin zuen bisitariak bere baitako, oroitzak bazter emanik.

Ebrotik urrunera betikoz joan aurretik, zubia iragan gabe etxeari begira gelditu zen; Ebrok, bere baitan gorderik, sekreturen bat bailuen egin ere; baina etxetzarra mutu, hura bera baitzen argigarri aski.



FUTBOL JUBENILEKO BIZKAIKO TXAPELDUNAK, Ezkurdiko kioskoan. Erdian Jose Enrike Urrutia koparekin, eta atzean Manu Ertzilla, Lazaro Blasko, Gorka Salaberria, Juanan Amantegi eta beste batzuk. Aurrean: Francisco Amorrortu (Durangoko alkatea) eta Valentín Juaristi (jesuita kirolzalea).

JOSEBA SARRIONANDIA

Garaizarkoa



JOSEBA SARRIONANDIA (1958-)

Jose Angel Sarrionandia Uribelarrea, bataio izenez, 1958ko apirilaren 13an jaio zen Iurretan; aita, Miguel, Goiurikoa; eta ama, Natalia, Garaizarkoa. Zazpi urte zituela joan ziren Durangora bizitzen. Jesuitetan ikasi ondoren, Soziologia egiten hasi zen Bilbon, eta gero Filologia. ETAko militante moduan harrapatu zuen polizia espainolak 1980an, torturatu eta preso eduki zuten 5 urtez Carabanchel, Puerto de Santa Maria eta Herrera de la Manchako kartzeletan. 1985ean ihes egin zuen Martuteneko espetxetik, eta gero beste 36 urte eman ditu erbestean. Harik eta 2021ean Euskal Herrira itzuli den arte.

Berrogei liburutik gora ditu argitaratuta. Tituluetakoz batzuk hauek dira:

Narrazioak (1983),
Ni ez naiz hemengoa (1985),
Marginalia (1988),
Hezurrezko xirulak (1991),
Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk (1995),
Hnuy illa nyha majah yahoo (1995),
Hitzen ondoeza (1997),
Lagun izoztua (2001),
Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako (2010),
Moroak gara behelaino artean? (2010),
Lapur banden etika ala politika? (2015),
Bizitzea ez al da oso arriskutsua? (2018),
Airea ez da debalde (2019),
Gauzak direna balira (2020),
Munduari bira eman zion ontzia (2021),
Markos Gimenoren 101 letrakartel (2023).

2017an, Peru Magdalenak eta Pello Salaberriak dokumental bat egin zuten: *Joseba Sarrionandia, hemen eta han*. 2018an, Josebaren testuetan oinarrituriko laburmetraia bilduma bat zabaldu zen: *Gure oroitzapenak*. Hainbat zinegileren lana da: Oskar Alegria, Özcan Alper, Asier Altuna, Mireia Gabilondo, Eugène Green, Itziar Leemans, Josu Martinez, Fermin Muguruza, Ane Muñoz, Maider Oleaga, Carlos Quintela, Maialen Sarasua.

GARAIZARKOA

Garaizarkoa naiz, eta Garaizargatik naiz arrotza
mundu osoan.
Ez nintzen Garaizarren jaio, Garaizartik jaio nintzen,
umea amagandik bezala.

Ezin dut Garaizarkoa beste inongoa izan, Garaizartik
berriro sekula pasatu ez arren,
Garaizar gaur egun neuk marrazturiko mapetan
beste inon agertu ez arren;
begien barruko paisaia eta ezpainetako lurrian ere
azaltzen zait...

Zuek igual bai, egunero pasatuko zarete Garaizartik,
konturatu gabe behar bada,
all these years passing by Garaizar, autoz, autobusez,
autobide zabaletik
ehun eta hoge kilometrotara azeleratuz, hor alboan
Garaizar dagoela
eta berehala, erretrobisorean, atzean utzi duzuela
ohartu gabe. Inork ere ez,
neuk ere ez nuke autobide bazterreko auzune horretan
Garaizar topatuko

ez gure haurtzaro lurperatuaren ezelako aztarnarik.
Antzina hil ziren
gurekin arineketan ibilitako txakur eta katu guztiak,
gure aittitte eta amama hil ziren bezala.
Eta gainera, ez dakit hain ederra zen, ez dut uste
Garaizar
edertasun konbentzionaleko paisaia zenik, ez zuen
behintzat postalen kolorea,
anilez tindatutako iturri harekin eta nahiko arrunta zen
hodeiertz eder harekin.

Euria ote da orain Garaizarren? Sarritan egiten zuen
eta baliteke orain ere egitea,
artalde kostalderuntz pasatu zen egunean bezala
artalde handi hura,
giputx Goiherriko artzainarekin eta txakur iletzu
beilegiarekin.
Egia esan, ez dut Garaizar ondo oroitzen, erdi
ahaztuta nago dena.
Nondik natorren gogoratzeko bakarrik hartzen dut
Garaizar akorduan,

arrotza naizelako, eta arrotzak ezin duelako
urrundik datorrela egundo ahaztu.
Baina memoriaren sokak lotzen nauenean
garai zaharreko
gauzak gogoratuz egungo ondoeza
sentitzen dut.
Attitte zurgina zen eta atarian zuen arotz bankua
eta erreminten
kutxa, eskubarak, otarreak egiten zituen,
eta aulkiak,

aittittek egindako aulkietan esertzen ginen eta,
beraz,
aittittek ematen zizkion gure esertzeko moduari
moldeak.
Amama hirira jaisten zen goizero, astoarekin,
kantinetako esnea saltzera,
hain zen ona andre hura, fantasiaren alorrekoa zela
uste izan dut beti.
Osabak motorra zuen eta gehien gustatzen zitzaidana
vespa hartan joatea zen,

osabaren belaunen artean zutik, haizearen kontra,
Idxorretaraino,

harritxintzarren bidetik, eta itzultzea, nora
ez bada Garaizarrera.
Patxi, aittitteren anaia, Osten bizi zen, itsu jarlekuan,
itsu makila eskuan,
itsu betaurreko ilunekin, eta artoa neurtu nahia
izaten zuen.
Soroaren ertzera eramaten genuen eta haztamuka
ukitzen zuen artoa, behetik gora,

eta artoak bere altura hartzen zuenean, bera altua baitzen,
Hau heldu da, esaten zuen.
Halako batean auzoko Jose Luisek zauri ikaragarri hura
egin zuen, aizkoraz, izterrean,
odola dariola gogoratzen dut zauria, zoroaren
ahoa barreka ematen zuena.
Eta uda amaierako beste arratsalde luze batean
guardia zibil bi pasatu ziren
Garaizartik Barrankurantz, eta sagar bana eskatu zuten
mesedez, eskaleen moduan.

Eta aittittek erdara traketsez esan zien goiko landatik
pasatzean hartzeko,
hartzeko arbolatik bertatik, eta han joan ziren
sasien artetik sagastian gora.
Eta behin Dionisiok itsasoa ikustera eraman gintuen
autoz, eta plaiatik bueltan,
iluntzean, zapatetan harea genekarrela, Garaizar
kakarraldoz beteta topatu genuen.
Eta ipurtargiak ere baziren orduan estrata
bazterretan.

Garai hartan ez zegoen mundurik eta ustekabeak
ugariagoak ziren,
mundua mundu den sasoi honetan baino. Orain
latzagoa da mundua,

baina orduan ere latza zen. Gure amak zazpi urte zituen
Bereziganetik
Durangoko bonbardaketa ikusi zuenean, hegazkinak
begien pare paretik pasatzen,
eta gero Gernika, eta ni ere hantxe nengoen,
amaren barruan,

eta amaren begietatik ikusi nuen Durango suntsitzen,
eta Gernika, eta Hiroshima,
eta ondo gogoratzen ditut han beheko hondakin erreak,
oraindik jaio gabe nengoen arren.
Gerra eta gerraondoa ikusi eta, ia hogeï urte eman nituen
jaiotzen ausartu gabe.
Horregatik jaio nintzen hain berandu, Garaizar ia
desagertzeaz zegoela.
Eta autobideak Garaizar erdi erditik pasatu behar zuelako
derrigorrez.

Ez zegoen autobidearentzat beste pasalekurik munduan
Garaizar ezik,
igelen aintziraren gainetik eta belarra moztu ondoren
futbolean jokatzeko gure zelaiares gainetik.
Ondo konprenitzen dut: autobidea banintz, ni ere
Garaizartik pasatuko nintzateke.
Baina ez nuke jendea Garaizartik botako, ez nituzke
aittite eta amama
etxerik gabe utziko. Baina hala gertatu zen, autobideak
etxea kendu zien.

Maizterrak ziren eta gerra galdu ondoren bezala utzi zuten
Garaizar,
eta Durangoko montoian bizi izango ziren harrezkero,
erbestean, osaba joseluisenean.
Santanako apartamendu txukunean baserri zaharrean baino
askozaz erosoago,

eskerrik asko esateko gehiago gauza ez zirela, ordura arte
hain esker onekoak izan ondoren.
Ni ere Durangon bizi nintzen, baina ez antzinako Durango
suak hartuan.

Bonbardaketa borragomaz ezabatzen zen populazioaren
memorian
eta bandera nazionala altxatzen zen Bereziganen
liberazioaren egunean.
Eta horrela kontatzen ziren orduan urteak, liberaziorik
liberazio, martxoaren hamaiketan,
harik eta, autobideagatik, Bereziganeren burua erauzi arte,
gaineko lurra
sugeen trokak eta igelen putzuak betetzeko behar zelako,
sugeek ez dezaten bizilekurik izan ez igelek;

eta non sartuko naiz ba ni, etxerik gabe
eta zulorik gabe?
Garaizarko paisaiak trokak zituen behintzat,
autobidea heldu arte,
orain ez da ametitzen ez zulorik ez arraildurarik,
non biziko gara ba orduan?
Aittitte eta amama urtean behin itzultzen ziren
Garaizarrera,
San Mames egunean. Ze ez dizuet esan baina,
San Mames Garaizarren dago.

San Mames euskaraz Santimamiñe esaten da,
esango didazue,
baina zer ardura zaizkit hitz egokiak, Garaizarren
Samames esaten zen,
zer ardura zait gramatika, berba zaharren long distance
cry honen aldean.
Ze ederra zen Garaizarko jendearen antigoaleko
hizkera hura, umetan entzun genuena,

erudituek ere ez zuten hain dotore berba egingo
hizkuntza klasikoen akademian.

Orduko umeek ez dugu harrezkero inon berba egin
orduan ikasi genuen eran,
eta hala ere beti ahalegindu gara berbamodu hari
oihartzun egiten.
Orain ere, urrun, zaharturik eta odoletan egon arren
kantuan ari banaiz, oihartzunez da.
Alde egin genuelako eta itzuli ezinari buruz, ze ez dakit
konturatu zareten
Garaizartik alde egiteko ikasten duela mundu guztiak
oinez.

Oinez ikasi eta Garaizartik urrundu ondoren, munduko
hiri guztietan bizi izan naiz,
baina Garaizartik nator eta ene sentimenduak
Garaizarkoak dira,
ene ilusioak Garaizarkoak dira, ene tristurak
Garaizarkoak dira.
Urteak behar izan ditut ohartzeko, aldamenean nekarren
itzala ere Garaizar dela.
Orpotik lotutako trapu zaharra lez arrastatzen dudana.
Egia esan,

ez dakit nik ezagutu nuen Garaizar bera den. Ez dut ondo
oroitzen,
baina oroimenaren lausoari ere zor diot zerbait, imajinatzeko
aukera ematen didala,
postaletarako ez zen paisaia hartan gertatu zena asmatzeko.
Ez dut ondo gogoratuko,
baina ez zait akordutik ezabatuko, borroi bat lez daramat
Garaizar ene nortasun agirian,
edozein izanik ere nortasun agiria, agiri ofiziala
zein nortasun agiri faltsua.

Garaizarko bideak, Garaizarko arbolak, eta handik
zatozen haizea, emadazue arnasa.
Lagun egidazue urruntasun hauetan, auzune hartan
laguntzen zenidaten bezala,
oinez ibiltzen ikasi berri, haztamuka, eror beldurrez,
atarira katamar itzultzen.
Bai, haraxe, Bilbo eta Behobia arteko autobide bazterreko
Garaizarrera,
Eta zuek, albotik ehun eta hogeiko abiadan ezeri erreparatu
ezinik pasatzen zaretenok,

ez dizuet autotik martxan jaisteko esango. Baina seguru
zuek ere Garaizarkoak zaretela,
zeren eta, nor ez da ba Garaizarkoa? Garaizar horretakoa
edo beste Garaizar batekoa.
Ni behintzat, autobide horretatik egundo pasatu ez arren,
Garaizarkoa izango naiz beti.
Hementxe ditut oihartzunak, eta aittitteren kutxa erremintena.
Edonon naiz bertakoa
eta arrotza. Garaizarkoa naizelako naiz mundu osoan
bertakoa eta arrotza.



J. S. – 2017ko urrian, Josebaren esaera solteak agertu ziren han-hemenka idatzirik hormetan, kristaletan edota zubipean, batzuk euskaraz, baina beste batzuk espainolez, frantsesez, ingelesez, errumanieraz edo Afrika iparraldeko arrifien hizkeran. Peru Magdalenaren instalazio poetikoa zen. Telebistan esan zuten Jose Saramagoren aforismoak ipini zituztela lurretako kaleetan.

JON IRAZABAL

Herri honen memoria



(Jon Zabaleta, 1978)

JON IRAZABAL (1960-2024)

Jon Irazabal Agirre 1960an jaio zen Iurretan. Gaztetatik sentitu zuen historia ikertzeko pasioa, izan ere, etxean orduak ematen zituen egunkari zaharrak irakurtzen, notiziak moztzen eta gordetzen. 17 urterekin batu zen Gerediaga Elkartera, eta 1980an Durangoko Azokaren antolaketaz arduratzen hasi zen. 1982an ekin zion elkarteko historialari lanari, bere afizioa ofizio bihurtuz.

Ordutik, Durangaldeko historiari buruzko azterketa ugari jorratu eta publikatu ditu Irazabalek. Aipagarria da zentzu honetan 2012an ateratako *Durangaldea, historia laburrean*. Durangoko bonbardaketa ikertzen lan handia egin du, eta berari esker hainbat datu azaldu dira azken hamarkadetan. Gai horri buruzko liburu elebidun bat kaleratu zuen: *1937ko martxoak 31- Durango - 31 de marzo de 1937*; liburu hau osaturik berrargitaratu da 2022an. Eta, bonbardaketa baino gai zabalagoa hartuz, beste bat argitaratu da 2012an: *Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937*.

Iurretako historia bereziaz asko idatzi du. Liburu formatuan:

Iurretako Euskal Jaiak: 1891, Gerediaga Elkartea, Durango, 1991.

Montoi eta Montoste: iragana eta oraina, Gerediaga Elkartea, Durango, 2007. (Iñaki Irazabal anaiarekin batera)

Iurreta eleizateko 1911.eko banderaren mendeurrena, Gerediaga Elkartea, Durango, 2011.

Goiuria ikastola, Gerediaga Elkartea, Durango, 2022. (Markel Onaindiarekin batera)

Iurretako kofradiak: iraganari etorkizuna ematen, Gerediaga Elkartea, 2023. (Markel Onaindiarekin batera)

Prentsan ere hainbat artikulu idatzi ditu. Nabarmentzekoa da *Anboto* astekarian hainbat urtez landu duen zutabea, Iurretako zein eskualdeko istorioak jaso, bertako pertsonaia historikoen informazioak eskaini eta analisi kritikoak helarazi dituen.

Iurretako jakingarri historikoak jasotzen dituen *Kañupe* izeneko aldizkaria publikatu du azken urteotan. Eta liburu hau amaitzen ari garela joan zaigu, laguna.

Herri honen memoria zati handi bat joan da Jonekin. Espero dugu ez duela dena eraman, utzi digula apur bat.

POTIN ARTEKO AMETSAK¹

Gaur goizean, ez dakit zergatik, lagun batekin gogoratu naiz. Oso pertsona berezia. Orain urte asko hainbat jira-bira eman ondoren, munduan zehar herri txiki batean jarri zuen bere ipurdi ibiltaria. Bertan ezagutu zuen buztinlari izandako adineko gizon bat, eta galzorian zegoen ofizio hura ikasi zuen.

Potinak eta pegarrak egiten hasi zen, baina zerbait falta zitzaion eta ofizio haren iragana ikertzen eta batzen hasi zen. Ez zuen nahi mendeetako altxor baten hiletako azken gonbidatua izan. Lanaren ondorioz, gauza bi lortu zituen: ofizioa ikastea eta ofizioari buruz jakitea. Hurrengo urratsa ikasitakoa plazaratzea izan zen, eta horretarako buztinarentzat «babes-etxe» bat eraiki zuen.

Erotzat jo zuten. Oztopo eta eraso asko jarri zizkieten, baina ametsa, bere familia eta lagun gutxi batzuen laguntzarekin, pixkanaka sendotuz joan zen. Denboraldi horretan buztingintza berpiztu egin zen eta askoren ogibidea egin. Hauek, urteak igaro ondoren, konturatu ziren herri txiki hartan zegoen gunea ez zela, eurek zuten bezala, tailer soila. Erokeria, eurak konturatu gabe, euren munduko erreferentziazko elementu bihurtuta zegoela.

Asanblada demokratikoa egin ondoren, joan ziren eta nire lagunari esan zioten:

—Zure proiektua gure mundurako oinarritzkoa da eta ondoren guk ere zure etxearen etorkizuna nolakoa izan behar duen zer esana badugu.

Nire lagunak erantzun zuen:

—Non egon zineten ekaitz egunetan? Etorkizun gabeko proiektua zela eta beste egitasmo batzuei eman behar zitzaizela lehentasuna aldarrikatzen zenean? Nahiz eta akaso ekaitz batek bota, hau ez da proiektu bat, baizik sustraiak sendo dituen arbola. Jaio zen arboladia osatzeko, ez arbola bakartia izateko. Baina argi du non sortu zen bere kimua. Nahi baduzue arbola sendotzen lagundu, ongi etorri. Ez hurbildu nola inausi behar dugun agintzera. Urteak daramatzagu mundu honetan eta ikasia dugu ardiak eta otsoak bereizten. Azken hauek ardiak hasita daudenean hurbiltzen dira artaldera.

Lagunak kontatu zidan batzuk gelditu zirela eta arbolek eta potin zaharrek eskertu zituztela euren ekarpenak. Familia osoaren lanarekin oraindik jarraitzen du babes-etxeak denentzat ateak zabalik mantentzen.

1. *Anboto*, 2013-02-22.

DANTZA ETA DANTZARI: PLAZARATZE BAT²

Gerediaga Elkarteko lanak direla eta, sarri Bilbora joan beharra izaten nuen. Betebeharrak bukatu ondoren, ia beti Particular de Euskalduna kalean Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak zuen egoitza izaten zen azken aurreko parada, Jon Gaminde, Iñaki Irigoien eta Jon Pertikari bisita egitera. Honelako egunetariko batean, 1995ean, Iñakik aipatu zidan RSVApeko boletin batean irakurri zuela nola Edward Bell Stephens izeneko kazetari ingeles batek lehen karlistada gerrako bere bizipenak liburu baten bildurik argitaratu zituela, eta bertan Iurretan 1837ko San Migel jaietan neskak plazaratutako sokadantza kontatzen zuela. «*The Basque Provinces: Their Political State, Scenery, and Inhabitants; With Adventures Among the Carlists and Christinos*» izenburuko liburua 1838an Londresen aipatutako Edward Bell Stephensek argitaratuta zegoen. Hainbat jirabira ondoren, azkenik Edwarden liburua Madrilen Espainiako Biblioteka Nazionalean aurkitu nuen. Ostiral batean hartu autobusa Bilbon eta Madrilera, Biblioteka Nazionalera, eskuratu dokumentazioa eta berriz etxera. Liburua ingelesez idatzia, eta, nire ingelesa eta Txirritarena antzerakoak izanik, Rosa Lejardik gaztelerara itzuli zizkigun liburu haren Iurretari buruzko orriak.

Merezi zuen, 1972an domingilluarekin egin zen bezala, saiakera bat egitea sokadantza hau berreskuratzeko. Iurretako neska dantzarietara proposatu, eta hasiera batean ez zuten euren burua kapaz ikusten erronka orreri aurre egiteko, baina azkenik animatu ziren saiakera bat egitera. Hasieratik dantza taldeko neskek eta baita bultzatzaileek ere ez zuten nahi andreen sokadantza mutilen sokadantzaren kopia bat izatea. Bere pertsonalitate propioa izan behar zuen. Joseba Agirre «Iketzak» eta Antton Mari Aldekoa-Otalorak, ekin zioten dantza prestatzen eta neskei erakusten. Eurek biek neskekin batera erabaki zuten txistuaren ordeztu Humboldt-ek XIX. mendearen hasieran batutako San Sebastian koplak kantatuz dantzatuko zutela. Aurrekuan:

*Abarketak urratuta
zapatarik ez,
Bermion gelditu naz
oiñetako miñez.*

*Hauxe dok egia,
zortziko barria,
hiru txiki pagaturik
librako ogia...*

2. «Dantza eta dantzari kontuak: plazaratze baten kronika», *Kañupe*, 3 (2021-01-23).

Eta atzeskuan:

*Hauxe da San Sebastian,
orai dantzau gaitian,
ia goaz erdian aurrera...*

Udaberri eta uda hartan Iketzak eta Anttomarik lan handia egin zuten neskek bai kantuak eta bai dantza bera ikas zitzen. Arratsalde asko eman zuten Iurretako plazan, ikasitakoa hobetzen, hainbat zalan eta arazo eztabaidatzen eta haiei aurre egiten. Ez zen belaunaldi batetik beste batera transmititzea dantza bat, baizik eta sokadantzaren inguruan ezagutzen genuena eta eskuratutako datuekin galduta zegoen sokadantza, eskuratutako jakingarrien bidez, berreskuratzea. Kasu hauetan zenbat eta gehiago ezagutu gutxiago dakizula konturatzen zara. Azkenik, hainbat ordu sartu ondoren, neskak prest zeuden sokadantza plazaratzeko. Janzkerari buruz, lehen momentutik argi zeukaten neskek, ahal bazen, ez erabiltzea gorulari dantzako arropak. Ez zegoen arropa berriak egiteko denborarik.

Nola konpondu? Ba... betiko bidea. Basurtura hurbildu eta Beti Jai Alai dantza taldeko Jon Pertikari abuztuaren 15ean Begoñako aurrekuan erabiltzen zituzten arropa batzuk uzteko eskatzea.

Neskek erabaki zuten aureskua Ziortza Aldekoa-Otalorak egitea. Ziortzak San Migel eguna baino egun batzuk lehenago istripu bat izan zuen, eta Estik, bere ahizpak, hartu zuen soka bere tokia. 1995eko San Migel egunean, arratsaldean, Basurtuko Beti Jai Alai dantza taldeko jantziekin apaindu ondoren, Karmelo Barrietabeñaren txistuaren deia erantzunez, Estibaliz Aldekoa-Otalora aureskulari zelarik, plazaratu ziren soka Ziortza Aldekoa-Otalora, Agurtzane Jaio, Miren Arroitauregi, Alaitz Gerediaga, Miren Abasolo, Eider Abasolo, Leire Areitio, Amagoia Zuazo, Itziar Belar, eta, atzeskulari gisa, Leire Aldekoa-Otalora. «Abarketak urratuta zapatarik ez...» kantatuz dantzatu zen aureskua, eta ondoren, «Hauxe da San Sebastian...» doinuarekin, atzeskua. Aureskuan Jose Javier Abasolo «Tiliño» eta atzeskuan Jose Antonio Artze, Zamalloatarren Bargundia baserrian gonbidaturik zegoen euskal olerkari, ikerlari eta musikaria, plazaratuz. Soltean dantzatu eta birlaketak burutu ondoren, txosna osterako joan zirenean neskak euren mutilekin ohiko kopoa egitera, konturatu ginen Iurretako neskek plazaren beste zati bat berreskuratu zutela berriz.

Hau da, pauso txikiekin ere bide luzea egitea posible dela.

LIMAKO KUADRILLA³

Hemen, ohitura zen anaietako bat baserriagaz geratzea, gainontzekoek bizitza beste nonon egin behar zuten bitartean. Bideetako bat Amerikak egitera joatea zen; asmo horrekin joan zen gure inguruan jaiotako Limako Kuadrilla. Hirukote honek, XVIII. mendean, Peruko merkataritzaren zati bat euren esku izan zuen.

Hara joan zen lehenengoa Amorebietan jaiotako Martin Zelaieta izan zen. Txile eta Peruko merkataria nagusienetakoa bihurtu zen.

Martinek lur haietara eraman zuen Juan Bautista Bakijano, Iurretako laguna. Zelaietaren aginduetara hasi ostean, Juan Bautistak bere kabuz jarraitu zuen. Arlo guztietan sartu zuen musturra. Bere merkantziak Ameriketatik Espainiara ekartze-ko itsasontzi propioak izan zituen, inoren menpe ez egoteko. 1737ko lurrikarak, kalte handiak eragin arren, Juan Bautista ez zen gelditu. Maria Ignacia Carrillo de Cordoba y Garces de Marcilla aristokratarekin ezkondu, eta, honekin, Fernando VII erregearen izendapenez, noblezian sartu zen: Conde de Vista Florida izendatu zuen. 1759an hil zen Liman, baina bere ondorengoek titulua mantentzen dute oraindik. Juan Bautistaren semea, Jose Javier Baquijano y Carrillo itzal handiko idazle eta Peruko independentziaren aitzindari izan zen.

Kuadrillako hirugarrena, Juan Orobiogoitia dugu. Iurretako Orobiogoitia baserrian jaioa 1718an. Merkataria, Limako kontsulatuko epaitegiko kontseilari eta *Hermanidad de los Caballeros Hijosdalgos de la Nacion Vascongada* elkarteko kidea izan zen. 1794ko irailaren 9an hil zen. Honen testamentuan utzitako diruei esker sortu zen 1801ean Iurretako lehen letretako herri eskola.



Jose Javier Baquijano,
Peruko independentziaren
bultzatzailea.

3. *Anboto*, 2018-09-09.

OROMIÑOKO ESKOLA⁴

Beti pentsatu izan da Oromiñoko eskola 1921ean sortu zela, baina paperak arakatu ondoren ikusten da ez zela horrela izan. Gutxienez urte bat lehenago, 1920/1921 kurtsoan, Oromiñon eskola bat martxan zegoen Silvestra Zugazartaza Galarzak zuzendua. Non? Ez dakigu. Baliteke Bastarreko bere baserrian. Kontuen arabera, eskola pribatua zen, baina hiruhilero 125 pezetako udalaren diru laguntza bat zeukan. Ez dakigu zerk eraginda, 1920ko apirilaren 18an Silvestrari kendu egin zioten dirulaguntza hori.

Udalak beharrezkoa ikusten du Oromiñon eskola bat izatea, eta 1920an martxan jartzen da Diputazioak bultzatutako auzo eskoletariko bat Oromiñon. Diputazioa, kokapena dela eta, ados jartzen da Iurretan, Amorebieta eta Etxanoko udalekin, Iurretan eraikiko den eskola hiru herrietarako izango dela, 60 bat ikaslerendako.

Eskola berriaren aurrekontua 12 426,25 pezetako zen. 1920ko abuztuaren 15ean Diputazioak 550 pezetako laguntza ematen du. 1920ko irailaren 19an Iurretan aldeko 34 auzokideek, bakoitzak 75 pezeta jarriko zituela, eskola eraikitzeko konpromisoa hartzen dute. Azkenean, 2625 pezeta bildu ziren.

1920ko urriaren 24an Iurretako Udalak erabakitzen du berak aurreratuko duela dirua, eta gero bera konponduko dela bai bere auzokideei, bai Amorebieta eta Etxanokoei kobratzez. Julian Unamuntzaga zinegotziak 1920ko irailean udal batzarrean salatzen du norbait lanean ari dela eskola Iurretatik kanpo, hau da, Oromiñon ez eraikitzeko. Eskola eraikitzeko lur saila Justo Uribarrenak, Angel Gorostizaren oinordekoak eta Antonio Arginzonizek dohainik eman zuten. Lau garren lur saila Aniceto Egileorrena zen, eta zati hori udalak erosi beharra izan zuen. Proiektua eginda egonik, martxoaren 20an jarri zuten errematean obra.

1920ko urriaren 24an zinegotziek eskola berriaren planoak eta proiektua ezagutzen zituzten. Pedro Zubizarretak, obraren errematatzaileak, ekainaren 12an adierazten du teilatua botata dagoela eta udalari eskatzen dio »monjorra» ordaintzea. 1921eko irailaren 25ean udal batzarrean adierazten da Oromiñoko eskola bukatuta dagoela. Handik urte batzuetara eskola haundiagoa egingo zuten. Hurrengo urteetan, 1924an Amezketakoa zabalduko zen, eta 1925ean, Orozketakoa. 1987an Orozketakoa itxi egin zuten, eta 1991n, Oromiñokoa. Bizkaiko Diputazioak eskolako maistrak jarri zituen eta Silvestra Zugazartaza zuzendari izendatu.

4. *Kañupe*, 6 (2021-07-31).

Silvestra Iurretan jaio zen 1889ko abenduaren 31n, San Silvestre egunez, eta 1937ko martxoaren 31n hil zuten, Durangoko bonbardaketan, Jesuitetako elizan, 48 urte zituelarik.

👉 136, 298



Silvestra Zugazartaza bere ikasleekin.

AGINTARIENA: DURANGERRIKO ERESERKIA⁵

Mende bat baino gehiago igaro da 1902an Sabino Aranak «Euzko Abendaren Ereserkia», Euskadiko ereserkia izateko, izeneko abestia prestatu zuela. Eta batek baino gehiagok esango du... eta horrek zer ikusi du Iurreta eta San Migelekin? Ba bai, gure herriak kantu horren sorrerarekin zerikusi haundia izan du. Kantuaren oinarria Dantzari Dantzako «agintariena» dantzako musika da.

Hainbat bider irakurri dugu Sabino Arana 1886. urtean Durangon antolatutako Euskal Jaietan izan zela. Ikusten denez, uztailaren 26an, aipatutako jaietan, ikusi zituen Garai, Abadiño eta Berrizko dantzariak ezpata-dantza dantzatzen, eta, noski, hasieran agintariena. Dantza hura ezagutu ondoren ikusi zuen aurkitzen ari zen ereserkiaren oinarriak dantza horren doinua izan ahal zuela. Ez dugu aurkitu garai hartako dokumenturik baieztatzen duenik Sabino Durangon egon zenik, nahiz eta urte horretan Durangon aurkeztutako ikerketei buruz idatzi hurrengo hiletan.

Bost urte geroago, beste Euskal Jai batzuk ospatu ziren Durangaldean, konkretuki Iurretako elizatean, eta, urte askoan Durangoko ikastetxean bizi izan zen Jose Ignacio Arana jesuita azkoitiarraren egutegiaren bidez, badakigu Sabino Arana bertan egon zela. Egutegi honetan dio 1891. urtean, Loiolan gogo-jardunak izan ondoren, Sabino Arana Durangora etorri zela, eta irailaren 29an, San Migel egunez, goizean Iurretan egon zela Iurretako dantzariak ikusten. Arratsaldean, Berriz eta Iurretako dantzariak lehiaketan ari zirenean, Jose Ignacio Arana, Balbino Garitaonaindia idazle durangarra eta Sabino Arana San Roke aldera joan ziren paseatzera.

Baina Durangon eta Iurretan ezagutu zuen doinu hura Sabinoren bihotzean sartu zen, eta 1895. urtean Euzko Alderdi Jeltzalearen batzordeak, Bilbon, Carlos Mengs alemanaren garagardotegian egin batzarrean, erabaki zuten *agintariarenean* oinarrituriko ereserkia idaztea. Lan hori Kleto Zabala musikariaren esku utzi zuten. 1902an, Espainiako gobernuak Sabino espetxeratu zuen eta irailaren 3an Bilboko Larrinagako kartzelan zegoela idatzi zuen abestiaren letra.

Abesti hau lehen aldiz jende aurrean 1905. urteko ekainaren 29an, San Pedro egunez, abestu zen Portugaleten. 1936. urteko gudaldian, garai hartako Eusko Jaurlaritzak onartu zuen Euskadiko ereserkitzat. Anekdotak bezala, aipatzekoa da akordio hura ez zela Jaurlaritzako egutegi ofizialean argitaratu. Erbeste luzean Jaurlaritzak jarraitu zuen bere himno bezala erabiltzen, eta Franco hil ondoren

5. *Kañupe*, 2 (2020-12-15).

Euskal Autonomi Elkarteko Legebiltzarrak euskal ereserkitzat onartu zuen, baina musika bakarrik, letrarik gabe.

Sabinok Iurretako kanpandorre gerizpean Euskal Herri guztirako amestutako ereserkia, gaur egun, lurralde baterako gelditu den kanta dugu.



MASPE KALEA, Montoiko zubitik Bilbora begira. Ezkerreko aldean, Echevarria Fundizioa. Eskuman, kintoak. Ezker-eskuma, bi Seat 600. (Foto Sol, 1970 inguruan)



MASPEKALE⁶

Gogoratzen dut gurera eta kale horretako etxeetara heltzen ziren gutunak *Puente de Yurreta* zuzenbidearekin etortzen zirela. Etxe bakoitzak bere zenbakia zeukan, baina kale izen gisa aipatutako *Puente de Yurreta* erabiltzen zen. Gero, hirurogeiko hamarkadan Durangoko udalak *Calle la Paz* jarri zion. 1980an gutxi gorabehera, Iurretan zegoen «Kultura eta irakaskuntza herri batzordeak» aztertu zituen frankismotik heredatutako kale izenak eta proposatu zuen gutxi gorabehera 18. zenbakiaren inguruan zegoen Maspe baserriaren izena jartzea.

60ko hamarkadako lehen urteetan, garapen urbanistikoa dela eta, bota zuten Maspe baserria. Gero, 1973an, kalea zabaldu eta atondu zutenean, kaleko ia etxe guztiak bota zituzten. Etxe multzo hartatik gasolindegia inguruko Etxetxiki eta besteren bat gelditu ziren, eta 1863an zubi ondoan eraikitako Jauregieta. Kale horretan kokatzen zen alde batera Kapanagaren etxea. «Vista Alegre» izena zuen etxe horrek, 1879an eraiki zuen Pedro de Esturo Aldekoa-Otalorak, eta handik pare bat urtera Martin Kapanagak erosi zuen. Goian Kapanaga familia bizi zen eta beheko solairuan Apatamonasteriotik 1939. urte inguruan etorritako Abasolo familia. Aita Adolfo Abasolo barberoa zen eta bere «barberidxie» etxeke gela batean zeukan.

Etxe honi itsatsita «Txaraka»ren estankoa. Etxearen izena «Estartakoa» zen, nahiz eta «Monte-Estarta» edo «Montoya-Estarta» izenarekin agertu dokumentuetan. Etxea 1875ean Pedro de Duñabeitiak eta M^a Josefa Txopitea bere emazteak eraiki zuten. 1926an Nicolas Ferreriak taberna bat zeukan etxe honetan *Tetuan* izenarekin ezagutua zena. 1948tik 1973ra bitartean bertan izan genuen Celestino Zarrabeitia «Txaraka» tabako eta abar saltzen. 1948ra arte Iurretako estankoa Jauregieta beheko solairuko tabernan zegoen. Hurrengo eraikuntza Unamunzagatarren etxea genuen, eta, berari atxikita, gerra aurrean sortutako Etxebarriaren fundizioa.

Kalearen beste aldean, Bidegane txaleta, 1926an eraikia. Ondoren, Valerio etxea, ostatua izandakoa. 1869an Gregorio Madariagak, Valerio ostatu etxeke ugazabak, korta eta kotxeen gordeleku berri bat eraikitzeko baimena eskatzen du. Datu honek adierazten du ostatu funtzioa gutxienez XIX. mendeko lehen erditik zetorrela. Gerra aurretik Sebastian Munitxak eduki zuen bertan taberna eta jatetxea. Fama handiko sukaldariak izanik ezkontza otordu askoren gune izan zen. Aldamenean, Arroiabe perratzailearen korta edo lantegia. Han ferratzen zuten inguruko ganadua Estebanek eta Vitorianok, bere aitak, Arabako Betolaza herritik

6. *Kañupe*, 2021-01-23.

etorritakoak. Ferratzeaz gain, Esteban Fernandez de Arroiabe ardo saltzailea eta eskopeten *kajerue*, kulata egilea, izan zen. Etxe honi atxikita, beheko solairuan, Etxebarria fundizioko bulegoak eta goiko hiruretan etxebizitzak zituen beste etxe bat zegoen.

Kale honetan beste eraikuntza batzuk ere baziren. 1952n eraikitako gasolindegia, Kalistoren aroztegia, uriendarren Etxetxikia eta abar.



Maria Rekalde (Foto Sol).



TABERNETAKO KONTUAK: LEHEN TXIKITOAK⁷

Gure elizatea bidegurutze bat da. Gasteiz, Gipuzkoa, Kostalde eta Bilborako bideak gure herritik igarotzen ziren eta dira. Bidaiari askok, Ibaizabal zeharkatze-rakoan, Montoiko zubia erabiltzen zuten. Bideek hainbat lanbide sortzen zituzten, baina bi azpimarratzerakoan karretero eta tabernero-ostalari esango nituzke. Hurrengo lerroetan, azken hauei buruz mintzatuko naiz. Iurretako tabernen historia bat idazteko asmorik ez daukat. Helburua xumeago da: bildu izan ditudan berriak paperean jartzea, jendeak ezagutzeko aukera izan dezan.

Gure herriko tabernei buruz aurkitu dudana lehen aipamena orain dela 400 urte baino gehiagokoa da. 1609. urtean elizateko kontu liburuetan «Guardia»koa aipatzen da, eta bera zen elizateko taberna bakarra. Urte batzuk geroago, 1662an, udalak nahi du bereganatu tabernen monopolioa. Zer dela eta? Udalak herriko taberna bat zabaldu zuen. Garai hartan, gaur eguneko Bixente Kapanaga kaletik, Gaztelatik Lekeitio eta Bermeorako bidea, Bizkaiko biderik garrantzitsuenetarikoa, pasatzen zen. Estrata horren aldamenean, Kapanaga eta Askondo kaleen kantoian oraintsu arte zegoen okaranaren ondoko etxean, Iurretako udalak «Herriko Taberna» zabaldu zuen. Kokapenagatik hartu zuen etxeak «estrada» izena. Etxe hartan, taberna eta ostatuaz gain, herriko harategia, pisua eta abar kokatzen ziren.

Tirabirak sortu ziren, Domingo Arealdegik Estradako etxe honen inguruan beste ostatu bat zabaltzeko asmoa azaldu zuenean. Beti bezala, epaitegian bukatu zuten eta epaileak, Durangaldeko Teniente Korregidoreak, Domingori baimena eman zion, baina baldintzaturik, kanpotarrei bakarrik ahal ziela ardoa saldu eta ostatu eman, hau da, bide hartatik kostaldera edo Gaztelara zihoazen bidaiariei. Udaleko aurrekontuan ardoak eta bere inguruak ematen zuen dirua oso garrantzitsua zen, eta horregatik honelako iskanbilak. Beste arazoetariko bat ardoaren kontrabandoa zen. Legearen arabera iurretarek eta Iurretako beste tabernariak Estradako etxean, «Herriko Taberna»n, erosi behar zuten ardoa, baina saiatzen ziren herritik kanpo merkeago aurkitzen eta isilean euren etxeetara eramaten. Orduan, Herriko Tabernako errematea hartuta zuenak eta udalak dirua galtzen zuten, eta beti mehatxuekin ibiltzen ziren horren aurka. 1715. urtean udalak erabaki zuen 50 dukateko isuna jartzea herrira kanpoko ardoa ekartzen zuenari.

1754. urtean Urkiolako abadeek eta Urkiolatik Otxandiorantz bidean dagoen Basaguren baserrikoak epaitegira jo zuten. Baserritarrak benta bat zabaltzeko asmoa zuen, eta abadeek zioten Urkiolako bentak zuela inguru hartako monopolioa eta

7. *Kañupe*, 4 (2021-02-28).

ezin zela taberna berri bat zabaldu. Epai hartan jasotzen da, Durangaldean 11 taberna nagusi, 6 taberna txiki eta 5 ostatu zeudela. Taberna hauetatik Iurretan kokatzen da taberna nagusi bat, Estradakoa, eta Guardia eta Oromiñon beste taberna txiki bi.

Geroago, 1781ean, Iurretako Udalak herritarrekin izandako batzar batean Arandia inguruan beste taberna bat zabaltzea erabaki zuen. Horretarako mila hirurehun eta berrogeita hamar erreal ordainduz, Domingo Ertzilurruti eta bere emazteari lur zati bat erosi zion. 1782an Juan de Jauregi harginaren gidapean eraiki zen «Tabernabarri» izenarekin ezagutu genuen etxea. Ardoa ezin ekarri... ba orduan zer egin? merke dagoen tokira norbera joan eta bertan edan. Norberaren zaragian ekartzea ez zen delitua. 1845. urtean Muruetan, Landakon, Iurretako lur sailetan, ardoa Durangon baino merkeago saltzen zuen taberna bat zabaldu zuten. Ondorioz, durangarrak bertara joaten ziren ardoa edatera, Durangoren kalterako. Uriko udalak elizateko udalari bere kexa adierazi zion. Iurretak gogoratu zion bera ere Montoiko zubi ondoan, Durango aldeko Errotazahar etxean, Mingolarraren etxean, zegoen tabernarekin kexu zegoela. Taberna horretan Iurretan baino merkeago zutela ardoa, eta iurretarrak zubia igaro eta hara joaten zirela. Ondorioz, hurbil zegoen Herriko Taberna kalteak jasotzen ari zela, eta Landa-kokoa horren ordain gisa jasotzeko. 1848an udala Oromiñoko tabernan ardoa merkeago saltzera egon zen behartua, oromiñotarrek Amorebieta eta Etxanoko tabernetan ardorik eros ez zezaten. Dirudienez, tabernarien arteko gerra hauek aspalditik datoz. 1794. urtean udalak Estradako tabernaren errentarekin 2480 erreal jasotzen zuen. Tabernabarritik 300 erreal. Bien artean 2780 erreal sortzen zuten udalarentzat. Garai hartako tabernak ez ziren izango gaur eguneko bezero askoren gustukoak. Bizkaiko Foruak, garai hartako legean, kartak izatea eta kartetara jokatzeko debekatzen zuen. Gaurko muslariek arazoak izango zituzten garai hartan. Kartaka egin ahal zen, gehienez erreal bi jokatzeko, baina tabernetatik kanpo. Legeak argi uzten zuen: alkohola egon ezker, kartarik ez.

Ezagutzen ez dudana data batean, XIX mendean seguruenik, Estrada etxeke «herriko taberna» zarratu zen. Baliteke Montoiko «herriko taberna» zabaltzerakoan izatea. Dokumentu askotan «Taberna zarra» izena erabiltzen da bera aipatzera-koan. 1782an Arandiako «Taberna barri» zabaltzerakoan jaso zuen «Taberna zahar» izena? 20ko hamarkadan, 1926an Iurretak udalerria izateari utzi zionean, hainbat taberna zeuden elizatean. Gehienak Montoi inguruan kokatzen ziren. «Jauregi etxea» edo «Zubiondo» izenarekin ezagutzen den etxean Francisco Paulo Alberdi «Patxiko Paulo»ren taberna zegoen. Gerraostean Julian Arana Retolazak eta Asuncion Alberdi Gerrikabeitiak, «Boldro»tarrek, erosi zuten etxea eta taberna. 1942an galeria bat atxiki zioten etxeari bertan jatetxearen jantokia prestatuz.

1948ko otsailean, taberna hau Ignacio Peñak eta Dominika Arrutik hartu zuten eta «Restaurante La Guipuzcoana» izenarekin zabaldu.

Udaletxeko beheko solairuan «Herriko Taberna» kokatzen zen. Noiztik? Data zehatza ez dugu ezagutzen. Badakigu XIX. mendeko 80ko hamarkadan hor zegoela, zeren 1886an, herriko eskola Montoitik Plazara eraman zutenean, aipatzen da taberna etxe horretan zegoela. Azken tabernaria Maria Lejarraga Sagasasoloa «Maria Errekalde» izan zan. Maria Garain jaioa zen 1895ean, eta ezizena bere gizonaren (Domingo Ercilla Echaburu) Errekalde baserritik zetorkion. Herriko Tabernaren ustiapena anexioaren urtean, 1926an, hartu zuen eta lan horretan jarraitu zuen 1973an Maspe kaleko egokitze lanak direla medio kale hartako ia etxe guztiak, euren artean udaletxe zaharra, bota zituzten arte. Mariak, lau seme-alaba izan zituen: Txomin [1923-1976], Jose «Txiron» [1925-], Pilar [1928-2003] eta Maritxu [(1936-2017)]. Montoian, udaletxearen ondoan, justu «kañupea»ren gainean «La Abaceria de Monton» izeneko denda-taberna zegoen. Etxe txiki hura Iurretako Udalarena zen, eta, 1926ko paperen arabera, Jose Zumarragak alokatuta zeukan. Anexioaren ondoren, 1933ko abuztuan, Durangoko Udalak etxe hura eta «Taberna zaharra» izenekoa enkantean salgai jarri zituen. Etxea Jose Zumarragak erosi zuen. «Taberna zaharra» saldu gabe gelditu zen enkantean. Garai hartan taberna erabilpena galdua zeukan, eta bertan Juan Mendibe Astorkia bizi zen. Jose Zumarragaren ondoren taberna hau, «Bar Fanfa» izenarekin, Jose Luis Alberdi «Fanfa»k, Zumarragaren suinak, esplotatu zuen. Fanfak lehenago Montosteko bere etxean izan zuen taberna, eta hura itxi ondoren bere aitaginarrebaren tabernaz arduratu zen.

Bidearen beste aldean, «Txaraka»ren estanko bezala ezagutu genuen saltokian, 1926an, Nicolas Ferreriaren «Tetuan» taberna zegoen. Urrun joan gabe, «Valerio»-rena zegoen. Valerioresa zer zen? Ostatu? Taberna? Jatetxea? Badirudi denetarik izan zela. 1869an Gregorio Madariagak, Valerio ostatu etxeko ugazabak, baime-na eskatzen du korta eta kotxeen gordeleku berri bat eraikitzeko. Datu honek adierazten du ostatu funtzioa gutxienez XIX. mendeko lehen erditik zetorrela. 1926an Sebastian Munitxa agertzen zaigu taberna eta jatetxearen arduradun. Fama haundiko sukaldariak izanik, ezkontza otordu askoren gune izan zan.

Bidegurutzea betidanik izan dira toki egokiak tabernak jartzeko. Arriaundiko bidegurutzean kokatzen ziren beste taberna bi. Candido Zelaietaren «Arriaundi taberna» gaur egun, jatetxe bezala irauten duena. Bestea, 1926an, Leon Telleriaren taberna zen. Taberna hau «Arriaundiko estankoa» izenarekin ere ezaguna zen. Leonen ondoren tabernarekin Sabino Gabikagoeaskoa, Teresa León Telleriaren gizona, arduratu zen. Garai hartan «Bar Gabica» bezala ezagutzen zen. Azken urteetan, 2014an zarratu arte, Teresa bera arduratu zen taberna eta estankoarekin.

Arriaundi inguruan, bidegurutzetik kanpo, bide nazionalaren aldamenean, Bilboranzko bidean, Antonia Barrutiaren taberna zegoen, eta Durangorantz, Arandiako Santuenean, Martin Ereñagarena eta Mallabienako Etxe Haundian, dirudienez, beste garai batzuetan posta-etxea, txakolindegia eta sagardotegia izandakoan, Gregorio Unamunzaga genuen tabernari. Toki horietatik aparte, nola ez aipatu Roman Amilburuk Iurretako plazako Agonizantearen etxean zeukan taberna, Saturnino Arancetak, Oromiñoko Ariedin, edo Ignacio Retesek Santa Apolonian, Kanterakue. Badut entzutea 20ko hamarkadan Juan Miguel Ibarrek beste taberna bat zeukala, baina ez dut lortu haren berri izatea. Eskertuko nuke, norbaitek zerbait baleki, esatea.

Urte askoan «Kiputxena», «Maria Errekalderena», «Fanfa»rena, eta zubiaren beste aldean kokatutako «Romaldo / Emaldi» eta «Albizuren» tabernak izan ziren Iurretako txikiteroen ibilbidea. Baina... 50eko hamarkadaren bukaeran eta 60ko hamarkadaren hasieran hainbat eta hainbat etxe berri egin ziren Iurretan, hirigune bat sortuz. Hazkunde horren ondorioz, Iurretan biztanle, denda eta tabernen kopuruak gora egin zuen. 1959an hartu zuen Gasolindegiko «Paco taberna» Francisco Manuel Lopez Valencianok. Ez zuen taberna berak zabaldu. Bere aurretik Fermin Vicandik eta «Josetatxu»k eduki zuten taberna. Gero etorriko ziren Fidel Rodriguezen «El Botero», Luis eta Amador Foncea anaien «La Bodegilla de Iurreta». Juan Bilbao eta Alejandra Berriozabalgoitiaren «Ibaiondo kafetegia», Fabian Rodriguezen «Kapri», Julian Berriozabalgoitiaren «Urien taberna», Enrique Saavedraren «Bar Saavedra»... eta beste hainbat eta hainbat.

EDORTA BARRUETABEÑA

Eguraldia beti da ona lagunekin jolastuz gero



EDORTA BARRUETABEÑA (1965-)

Edorta Barruetabeña Iturriaga 1965-05-26an jaio zen Elorrion, baina 3 urte zituela etorri zen familia Iurretara. Goiuria ikastolan hasi zen, Durangoko Kurutziaga ikastolan segitu, gero Institutuan eta azkenean Biologia ikasten Leioan, orduan euskaraz ikasteko aukera bakarra zelako (magisteritzaz aparte).

Biologia itxi eta Martuteneko Itzultzaile eskolara joan zen, film eta telesailetakiko dialogoak itzultzen hasteko. Karanbolaz, gidoiak idazten hasi zen, lehenengo ETBko umeendako programetan (Galakthika, Superbat, Betizu), eta gero marrazki bizidunetan. Esaterako: *Gartxot, konkista aitzineko konkista* (2011), *Yoko eta bere lagunak* (2015), *Pixi, Post eta opari emaileak* (2016)...

Txistu y Tamboliñ aldizkari literarioaren partaidea izan zen. Durango eta Iurretako gazte talde biren batuketak sortu zuen *Txistu y Tamboliñ* literatur aldizkaria, benetan aldika argitaratu zen 1984tik aurrera. Euskarazkoa, baina asmo probokatzailez egindako gaztelaniazko leloarekin. 1986ko azaroan, 4. zenbakikoa, esate baterako, hau zen: «*Y Euskadi el país menos movido: el que no está parado está detenido*».

Hona, *Yoko* haur seriearen pasarte bat dakargu. Gero eta zailagoa da hiriguneetan umeak aire librean jolastea, *Yoko* telesailak aske egote horri ematen dio garrantzia, umeek ingurune seguru eta askean harreman hobeak dituztelako. Pasarte honetan, hiriko parkean jolasten hasi dira Otto, Mai eta Vi. Euren jokoan gogotsu murgiltzen direlarik, *Yoko* izeneko jeinu bat agertzen zaie, umeen joko arruntak abentura liluragarri bihurtzen dituena. Nahikoa da enbor baten gainera piratetara jolastea, bat-batean magia horri esker, itsaso zabalean pirata ontzi batean sentituko dira...

2014-06-10eko data duen hau «tratamendua da», ez gidoi finala. Tratamendua ez da gero pantailan ikusiko dena zehazki, tratamenduaren ostean gutxienez lau berridazketa egiten dira-eta, baina, or dago istorioaren hasiera.

YOKO 1

EXT. PARKEA - EGUNA

Elur-ekaitza da parkean. Dena da zuria eta grisa.

INT. MIRENTXUREN ETXOLA – JARRAIPENA

Mirentxuren etxolan Mai eta Oto mahaian eserita daude gozogozo marrazkiak egiten. Ate ondoan, Mirentxu katiuskak janzten ari da. Norbaitek atea joko du, «tok, tok, tok!», eta Mirentxuk ireki egingo du. Vik da.

MIRENTXU: Zu ere bai?! Pozten naiz etorri zaretelako, baina nik pentsatzen nuen eguraldi honekin etxean geratuko zinetela!

Vikek berokia kenduko du erantzun bitartean:

VIK: Ez dago lagunekin jolastea bezalakorik, Mirentxu!

Vikek lagunak agurtuko ditu eta mahaian eseriko da. Otok Yokoren marrazkia egin du dagoeneko eta orain Mairena egiten hasi da. Mai, ostera, Vik eta Otores marrazki bat egiten ari da. Mirentxuk orri zuri bat emango dio Viki.

MIRENTXU (irrikaz): Zer marraztuko duzu zuk?

VIK: Nik? Zeu!

Mirentxuk ezezko keinu jostalari bat egingo du, lotsa plantak eginez.

MIRENTXU: O, ez da beharrezkoa!

Baina bistan dago baietz, nahi duela.

MIRENTXU: Bidea libratzera noa! Ez nazazu palarekin marraztu e!!

Esan eta kanpora joango da pala hartuta.

Vik Mirentxuren betaurrekoak marrazten hasiko da, baina gero lagunak marrazkiei begira geratuko da ameslari.

VIK (lagunei): Gogoratzen duzue elkar ezagutu genuen eguna?

MAI: Jakina. Parkearen inaugurazio eguna izan zen!

OTO: Parke berria ikusteko irrikaz nengoen...

FLASHBACK BATERA GOAZ

FLASHBACK. EXT. PARKEKO SARRERA - EGUNA

Urte bete lehenago. Egun eguzkitsua da eta parkeko sarreran, zintaren kanpoaldean, jendetza bildu da inauguraziorako. Mirentxu bakarrik dago zintaren barrualdean, parkezain uniformeak jantzita. Mirentxuk artaziak emango dizkio jendetzaren erdian dagoen gizonari, alkateari. Honek zinta moztu eta jendea

txaloka hasiko da. Jende heldua sarrera ondoan dagoen mahairantz abiatuko da, luntxa dago han eta; umeak zuzen sartuko dira parkerantz eta Mirentxu haiei begira geratuko da: aitzindaria Oto da, skate bat eskuetan; gero neskato bat, Mai, esku-gurditxoari tiraka; eta atzerago, lotsatuta bezala, bizikleta eskuetan hartuta, Vik. Hirurak dira urte bete gazteagoak eta janzkera ezberdina daramate.

Parkearen sarreran Yokoren harrizko estatua handi bat dago. Mai Yokoren estatuari begira sartuko da aho zabalik.

EXT. JOLASTOKIA. EGUNA – JARRAIPENA

Oto dagoeneko jolastokian dago, zurezko zaldiairen gainean, mugimendu basatiak eraginez. Vik tximeleta bitxi baten atzetik doa pozik. Tximeleta orain da beltza eta horia, eta orain zuria eta urdina. Bat-batean desagertu egingo da airean, plof, Vik noraezean utziz. Oharkabea, tximeletak jolastokiaren erdiraino eraman du Vik. Umeak dabilta txintxaunetan, txirristan, hareatzen...

Mirentxu iritsiko da esku-orga batean jostailu pila bat dakarrela.

MIRENTXU: Jostailuak nahi dituzuenean, eskatzea baino ez daukazue. Baina gogoratu, beti utzi behar duzue parkea aurkitu bezala!

Oto izango da jostailu bat hartuko duen lehena: eskabadora bat. Maik auke-ratzen duen bitartean, exigenteagoa baita, beste ume batzuek ere hartuko dituzte jostailuak. Maik auto more bat hartuko du. Besteek alde egin dutenean, Vik lotsatuta hurbilduko da eta trenbideak egiteko kit bat hartuko du. Ume bakoitza bere txokoan hasiko da jolasean, ez baitute elkar ezagutzen.

Une batez, Maik bazter batean utziko du autoa, hareatzen egiten ari den bidetik harriak kentzeko. Bat-batean autoak jauzi bat egingo du airean eta beste mutiko baten ondora joango da. Jon deituko diogu. Jonek haserre begiratuko dio autoari, eskuetan bi gladiatore borrokan darabiltzan bitartean.

Gero Mairi hitz egingo dio zakar:

JON: Ei, auto hau zurea da?

Mai irribarrez jaikiko da autoaren bila.

MAI: Bai, ez dakit nola joan den horra.

Jonek harrika botako du autoa Mairi oinetara, neskatoari begiratu ere egin gabe. Maik harrituta hartuko du autoa eta lehengo lekuan eseriko da.

MAI (autoari ahapeka): Txintxo ez bazabiltza, haserretu egingo zaigu mutila!

Autoa bazterrean utzi eta bidea egokitzeari ekingo dio. Berrito autoa hartzera doanean, bere muturren aurrean, autoa airean gora joango da, eta gero ezker-es-kuin, zerbaiten bila bezala. Oturen ondoraino egingo du jauzi.

Maik putz egingo du arduratuta eta jaiki egingo da Oteren ondora joateko.

MAI: Barkatu, autoak alde egiten dit.

Otok autoa hartuko du eskuetan eta Mairi begiratuko dio.

JON: Kaixo! Auto honekin ezingo zara basamortu honetan ibili!

Maik ez daki zer erantzun. Otok eskabadora erakutsiko dio.

OTO: Baina nahi baduzu, bide bat egingo dut zure autoarentzat! Komeni zaizu, zeren auto hauek ez dira errepidetik kanpo ibiltzeko gauza!

Maik baietz esango dio, pozik, eta belauniko jarriko da Oteren ondoan. Otok lanari utzi gabe hizketan jarraituko du.

OTO: Ni Oto naiz, baina lagunek Oto deitzen didate!

Maik harrituta begiratuko dio azalpenaren logika ulertu nahian.

MAI: Ni Mai naiz eta... ba, Mai.

Neskatoa bidearen ertzak marrazten hasiko da harri batzuek kokatuz. Lanean jarraituko dute tarte batez eta gero biek batera jasoko dute burua, elkarri irribarre egiteko.

Vikek trenbide borobil bat eraiki du lurrean eta, aldamenean, hareazko menditxo bat egiten hasiko da.

Zur eta lur ikusiko du bere trenbidea hegaz doala Oteren ondoraino. Vikek eskua jasoko du, estututa, hitz egiteko asmoarekin, baina ez da ausartuko. Mirentxu ondoko lorategia ureztatzen ari da, umeak zaindu bitartean, eta ohartuko da Viki zerbait gertatzen zaiola.

MIRENTXU: Ondo zaude, mutiko? Beste jostailuren bat nahi duzu?

Vik hitzik gabe geratuko da, berari begira. Bitartean, Oto trenbidea eskuetan hartuta hurbilduko da Mirentxurengana.

OTO: Parke honetan gauza arraroak gertatzen dira, andrea!

Maik baietz egingo du ondoan paratuta.

OTO: Norbaitek gauzak tokiz aldatzen ditu!

Mirentxuk barre egingo du.

MIRENTXU: Kar, kar, kar! Ikusi duzue parkeko sarreran jarri dugun estatua handia? Bada kondaira bat esaten duena inguru hau basoa zenean, natura zaintzen zuen espiritu bat bizi zela, Yoko izenekoa. Espirituaaaaaag!

Imintzioak egiten hasiko da ustezko espiritua imitatuz baina makila baten heldulekuak jaitsiko dio besoa. Amona bat da makila jaso duena, Margari. Ezustean agertu da bere ondoan eta Mirentxuri errieta egingo dio umeei txorakeriak

esateagatik. Amonak azalduko die toki hura basoan zenean beraiek Yokorekin jolasten zirela eta oraindik ere Yoko hantxe bizi dela.

Mirentxuk baietz erantzungo dio begirunez baina umeei ahapeka argituko die atso-zaharren kontuak direla. Margarik entzun egingo du eta joan aurretik botako du:

MARGARI: Baina jolasten diren umeei bakarrik agertzen zaie!

Mirentxuk kezkatuta begiratuko die umeei, amonak esandakoak umeak larritu izan balitu bezala.

MIRENTXU: Entzun umeak, parke honek segurtasun arau guztiak betetzen ditu eta hemen ez dago ez espiriturik ez mamurik!

OTO: Ze pena!

Viki begiratuko dio:

VIK: Nagusiak barregarriak dira horrelako gauzei buruz hitz egiten dutenean, ezta?!

Vikek baietz egingo du uruarekin. Maik irri egingo dio Viki.

(Jarraitzen du)



KEPA ARROITAJAUREGI

Pilotaren mundua



Pelotaria larri (Antonio de Gueza, 1928).

KEPA ARROITAJAUREGI (1971-2020)

Kepa Arroitajauregi Egaña Oromiñon jaio zen. Bere bizitza pilotari eta kazetaritzari lotuta egon zen, eta bi arlo horiek uztartzea lortu zuen *Marca* egunkariko kroniketan, *Anboto* astekariko zutabeetan zein Bizkaia Irratiko tertulietan.

Pilotan profesional mailan aritu eta gero, kirol horren sustapenean eta gazteen formakuntzan murgildu zen. Munduko Pilota Batzarreko idazkari tekniko eta ordezkari izan zen, baita Euskadiko Pilota Federazioko hautatzaile eta presidenteorde ere. Euskal selekzioa munduratzeko lan egin zuen, eta aitzindari izan zen emakumeen pilota aktibatzen. Bere aldarrikapenetako batzuk *Anbotoko* zutabeen idatzi zituen, hurrengo testuotan ageri den eran.

2020ko maiatzaren 21ean hil zen, gazterik, bihotzekoak jota. Geroztik, lurretako pilotalekuak Kepa Arroitajauregi izena dauka, berak eginiko lan guztia omentzeko asmoz.



NESKAK ERE PILOTARI¹

Badago oraindik, gehiengoa dela esango nuke, pilota gizona zkoentzat bakarrik dela esaten eta sinesten duenik.

Are gehiago, pilota jokoa (14 jokamolde batzen dituen gure kirol preziatua) ezker hormako esku pilotatzat soilik hartzen duenik ere. Ez dira hilabete asko Bizkaiko pilotaleku batean eta nesken pala partidu dotore baten ostean «barkatu baina hau ez da pilota» entzun behar izan nuenekoa. Trinketista, erreminta jokalaria,... eta nola ez, nesken pilota jokoa, pilotazalearen artean gutxietsi egiten da eskuzko pilotari izarrak bakarrik aintzakotzat hartuta. Denei errespetu bat zor zaielakoan nago.

Gero eta neska gehiago dira euskal lurralde guztian paletarekin ausartu direnak. Eta ez euskal lurretan bakarrik, baita nazioartean ere, lekuko pasa den astean Venezuelako hiriburuan (Caracas-eko euskal etxean) jokaturako lehiaketa. Bertan lau euskaldun eta zortzi atzerritar lehiatu dira; Argentina, Estatu Batuak, Australia eta Venezuela bertakoak gureekin nahasian. Egiari zor maila onena erakutsi dutenak 'geureak' izan dira baina oso maila interesgarria duten eta hobia izateko gogo eta aukera duten hainbat neska ezagutu ditugu; Irina Podversich eta Lis Garcia argentinarrak, Rosa Diaz eta Estibaliz Barreda Venezuelakoak... Azken horrek, gainera, txapela soineratu du Laura Saez gasteiztar bikain batekin, Leire Etxaniz, Itsaso Pradera eta Ane Isasmendirekin batera denak maila goreneko pilotariak.

Neskek pilota munduan, hemen zein atzerrian, toki bat merezi dute. Noski, ez esku pilota izarren adinakoa baina bai beraien tarte, merezi dutena. Eta guztia euren merituz lortzen ari dira, pilotarako konpromisoa erakutsita. Neskak ere pilotari!

1. *Anboto*, 2012-12-1.

PENA, BAINA...²

Urteak ziren Herriartekoaren harra barruan sentitzen ez nuena. Durangorekin hiruzpalau aldiz eta Iurretarekin geroago beste behin tokatu izan zait zuriz kan-txaratzea. Hareek garaiak! Txapela lortzeko borrokan sekula ez naiz ibili pilotari lez, baina aurtan 'plazer' hori tokatu zait, aholkulari gisa behinik behin, *Zornotza* taldeagaz.

Jada urtebete daroat 'abentura' polit batean murgilduta (*Lagun Onak* taldeko kirol arduradun) eta herriartekoan 'botilero' lanak ere egokitu zaizkit bertan. Herriartekoa aurkeztu zenetik bazegoen herrian oso gora, zergatik ez esan, finalera heltzeko aukera horren susmoa. Dena den, gauza bat susmoa da, beste bat nahia eta zailena, hori guztia egiaztatzea. Eta lortu dugu.

Finalerako bidean Galdakao, Usansolo eta Orozko gainditu ditugu. Partidurik gogorrenak lehen kanporaketako Galdakaoren kontrako nagusien bi lehiak eta finalurrekoetako Orozkoren aurkako kadeteen biak. Azken bi hauek poztasun berezia eman didate, inork ez baikintuen irabazteko gai ikusten. Aimar eta Lier, bikain.

Finala irabaztea, etxean gainera, zoragarria izango zen, baina Markina gehiago izan da eta merezita irabazi du 'bere' titulua. Zornotzarrek, nik uste, badute arro egoterik beren pilotariak egindako lanaz. Nahiz eta, nire ustez, finalean Txaber Zabala beteranoak bakarrik eman zuen bere benetako maila. Noski, horren erru-dun, hein handi batean, aurkariak ere badira. Baita finalek eragindako tentsio eta urduritasunak ere.

Zornotzako pilotariak zorionak merezi dituzte eginiko txapelketa oro har hartuta. Nola ez, berdin markinarrek txapelagatik eta zaleek finalean jarritako giro bikainagatik.

2. *Anboto*, 2018-07-01.

TXIKIA HANDI³

Bizitzako arlo guztietan gertatzen den moduan, gauza gutxi batzuek pizten dute interesa. Handitasunean murgilduta dauden kontuek. Horrek omen daukate garrantzia. Pilotan, munduan LEPMak antolatzen duen Lau eta Erdiko lehiaketa ari da bolo-bolo alde guztietan. Finalaurrekotan badu Bizkaiak ordezkari bat eta horri jarraipena egin beharra dago, noski, baina beste guztia gutxietsi barik, ezerezean utzi barik.

Adibidez, ez al da garrantzitsua ‘euskal selekzioa’? Pasa den aste guztian zehar hainbat pilotarik egin dute horren aldeko aldarrikapena nazioarteko lehiaketa batean. Artean, bizkaitarrak, Durangaldekoak asko. Lehiaketa txikia, xumea, baina, nire iritziz, garrantzitsua. Abadiñon, Lekeition eta Bilbon aritu dira Mikel Gonzalez, Asier Aspuru, Aitor Arabiourrutia eta Jon Arana, beste askoren artean, Mexiko, Bolivia, Peru, Venezuela, Uruguai, Kuba edo Txileko pilotari handi askorekin lehian.

Mexikarrak, esaterako, Nazioarteko federazioak Bartzelonan antolatutako mundialean azpitxapeldun geratu ostean etorri dira gurera. Espainia ‘jipoitu’ eta Frantziaren kontra galdu zuten finala. Hemen, benetan saiatu arren, ezin izan dute euskal selekzioarekin. Dena irabazi dute bertokoek. Ziarrusta-Ugarte bikoak Lekeition eta Abadiñon eta Mikel Gonzalezek eta Inhar Ugartek Bilbon. Benetako partidua ikusi dira, maila ikaragarria eta penaz, gutxi batzuentzat.

Kantxa guztietan izaniko giroa itzela izan da, nazioarteko pilotarien arteko elkartasuna eta bizikidetzaren bikaina, baina, tamalez, oihartzuna eskasa izan da. Garrantzirik ez omen...

3. *Anboto*, 2018-11-03.

ARRAIA PASA⁴

Umetatik pilota munduan murgilduta ibiliagatik beti dago zerikasia. Euskal pilotak bere jokamolde ezberdinetan esaera edo esamolde asko ditu non aspaldian geure egin ditugun, esaterako, «ñakua», «besagaiña», «gantxoa», «bolea», «txik-txak», «xula», «labur», «luze-pasa»...

Orain hiru urte nik neuk eta bizkaitar pilotari gazte talde batek «arraia pasa» esamoldea ezagutu genuen Zubietako pilota plazan. Euskal pilota jokorik antzinakoena ezagutuaz batera (entzuna bai, baina sekula ez ikusi ez jokatua), bertan erabiltzen diren esamoldeak barneratu genituen. Bote-luzea deitzen den pilota jokoaren abenturan sartu ginen.

Bizkaitar pilotari talde horrek ikusi, ikasi eta lehiatu egin du ordutik hona, eta emaitzak bikainak izan dira. Euskal Herriko txapelketan jokaturako bi urteetan txapela eskuratu dute Laudion eta Oiartzunen egindako finaletan. Horren aurretik, Itsasu, Donapaleu, Irurita edo Oiartzungo pilota plazatan beraien jokoa erakutsi dute.

Berrizko Berrizburu pilota plaza dute egoitza gure pilotariek. Aurtengo Euskal Herriko finala bertan jokatu da, eguraldiak errespetatuz gero, urriaren 19an, eta bertan izatea dute helburu taldean konprometituta dauden denek. Orain artekoa bikain doa, ligatxoko bi partiduak irabazi eta finalaurrekoen zain baitaude. Partidu hori ere Berrizko pilotaleku irekian jokatu da, irailaren 28an.

Talde jokoa da Bote luzea, plaza irekian jokatzen dena, eta frontoia joko eremu bakartzat ezagutzen dutenentzat, hala zen guretzat ere, ulergaitza hasieran. Berrizko Berrizburun entzun zenezake «arraia pasa». Hurreratu eta gozatu!

4. *Anboto*, 2019-09-20.

IZASKUN ELLAKURIAGA

Gure etxeetaraino heldu den ahotsa



IZASKUN ELLAKURIAGA (1972-)

Ibilbide luze eta oparoa du Izaskun Ellakuriaga Bustinzak kazetaritzan. Prentsa idatzian zein irratian lan egin du. Gerediaga Elkartearen eta Durangoko Azokaren komunikazio arduraduna da gaur egun. Zeregin hori Bizkaia Irratiko jardunarekin bateratzen du, herrialdeko makina bat etxetara ailegatzen da bere ahotsa egunero. Ekitaldiak aurkezten ere ibiltzen da: Iurretako sanmigelei hasiera emateko donien-hatxaren igoerari sarrera ematen dio adibidez. Aipagarria da, bestalde, bere ahotsa ipini ziola Joseba Sarrionandiaren *Kiromantzidxa* poemari Mikel Laboaren abestian.

Durangaldeko *Eraz* astekariaren zuzendaria izan zen 90eko hamarkadan. Bertsoarekin lotuta, *Bertsolari* aldizkarian hainbat erreportaje argitaratu ditu. Gaur egun, idatzizko lanari dagokionez, *Astola* urtekariko erredakzio taldean parte hartzen du.

Izaskunekin elkarriketa bat argitaratu zen 2014an *Mugalari* aldizkarian, Iban Gorritik egindakoa, aurkezpen honekin:

«Izpiritu askea izan du beti Izaskun Ellakuriagak, baita eskuartean beti izan dituen proiektuetan jardun izan denetan ere. Orain, orain direla urte batzuk atzera seguraski irudikatuko ez lukeen esperientzia bizitzen ari da. Orain dela urte eta erdi presak eta diruak agintzen zuen munduaren erritmoa gelditu nahi izan zuen. Ordutik, ingelesa jakin barik, gure diasporaren beste muturrera joan zen eta sekula ahaztuko ez duen bizi-abenturan murgilduta dabil. Elkarriketa hau ezinbestekoa da irakurtzea eta konturatzeko badaudela bizkaitar honen antzera, egunerokoari hordagoa bota eta argazkietan erakusten duen irri-barreagaz arriskatzea aukeratzen dutenak.

Ellakuriagak puenting egin du Aucklandeko zubitik, euskara irakasle ibili da, olerkiak argitaratu ditu ingelesez, tetraplejiko batekin belaontzian ere bidaiatu du... Orain Malaysian dago eta Helpx bidaiarien elkartruke sareko kide lez bidaian dabil. Esandakoa, txapela buruan eta irribarrearekin ibili munduan...».¹

1. *Mugalari*, 2014-02-23.

ABENTURA HASTE ERABAKI NUENEAN APURTU NUEN MUGARIK HANDIENA

Izaskun, zein egunetan txapela jantzi eta hasi zenuen zure bizitza berria munduan zehar?

2012ko apirilaren 24ean hartu nuen hegazkina Loiun eta apirilaren 26an Zeelanda Berriko Auckland aireportura heldu nintzen. Bizitza berria baino gehiago ‘abentura’ berria deituko nuke. Ze, berez, Bizkaia Irratian bi urteko lanuztea eskatuta eta Lekukom modura egiten nituen komunikazio lanak etenda hasi nuen abentura hau. 40 urterekin, lana edukita eta bizimodu ‘egonkor’ batekin batzuei zaila egin ahal zaie ulertzea nire erabakia. ‘Ausarta’ naizela ere askori entzun diet. Izan daiteke, bai, baina nik gehiago ulertzen dut barruak aspalditik eskatzen zidanaren bila joan naizela.

Durangotik Zeelanda Berrira; Garaiko kiwietatik ‘kiwi’ bizidunetara. Zer dela eta munduko beste puntara?

Hain zuzen ere horregatik; munduko beste puntan dagoelako. Arrazoiak bat baino gehiago izan ziren. Zeelanda Berria betidanik ezagutu nahi nuen. Argi neukan ingelesa hitz egiten duten herrialde batera joan nahi nuela, bide batez ingelesa ikasteko. Eta behin, munduko puntara etorrira, nire erabakian atzera egitea zailagoa izango zela ere kontuan hartu nuen. Bi urteko etena behin hartuta erabakiarekin bai ala bai aurrera egitea nahi nuen. Birritan pentsatu behar duzu Zeelanda Berritik bueltan joatea, denbora eta diru asko da.

Maleta oroitzapenez beteta eta burua ingelesez hutsik bidaiatu zenuen?

Bai eta ez. Ez naiz ni oroitzapenetan denbora galtzen duenetakoa. Ez nuen ezer berezirik maletan sartu. Eta ingelesa apur bat banekien, testu sinpleak ulertzeko haina. Gainontzean berba oso gutxi, indioen antzera, eta entzunezko ulermena eskas eskasa.

Aucklandera heldutakoan zer izan zan gauzarik positiboena?

Pentsatu baino lasaiago heldu nintzela. Non lo egingo nuen jakin barik eta ingeles gutxi berba eginda... harritu egin nintzen nire buruarekin, egoera kontrolpean izango banu bezala eman nituelako hasierako pausuak: mobilerako SIM erosi, informaziokoei laguntza eskatu, lo egiteko lekua aurkitu... egunerokoa izango balitz lez tenplegaz.

Zein momentutan bihotzak faltan botatzen ditu etxeokak eta lagunak?

Egia esan, ez dut herrimin krisirik izan eta horrek ere zelanbait harritu nau. Baina ia astero neukan Skype saioen bat etxekoekin eta ia hamabostero fami-

liakoei eta zenbait laguni nire gorabeherak kontatzen dizkiet. Hala ere, badira momentu batzuk lagunekin eta etxekeekin gogoratu izan naizena; batez ere, paisaia zoragarrietatik ibilteko aukera izan dudanean. «Hau edo bestea hemen egongo balitz...» pentsatzen nuen horrelakoetan.

Zure bidaian gauza asko egin dituzu, Aucklandeko zubitik puenting ere. Zelangoa izan zen esperientzia?

Urte eta bi hilabete bertan bizi eta azken egunean izan zen. Egunero etxetik ikusten nuen zubia eta horrelakoak beti gustatu izan zaizkit. Orain dela urte asko Euskal Herrian puenting egiteko aukera izan nuen orduko Durangoko abentura taldearekin (ez dut gogoratzen izena). Zeelanda Berria abentura kirol guztietarako herrialdea da. Eta, berez, Aucklandekoa ez da saltorik espektakularrena; Queens-town edota Taupo dira lekuak. Saltoa itzela. Gozada bat. Hori bai, bat, bi, hiru esandakoan gehiago pentsatu barik bota nuen nire burua zubitik, eta gero, txilio ozen luzea bota. Hortik aurrera lasaitasun totala eta aurpegiari irribarrea.

Bolondres zereginetan murgildu zinen: munduko triatloi txapelketak, Zeelanda Berriko Ukelele jaialdian, Art in the Dark proiektuan, Aucklandeko Arte eta kultura jaialdian, idazleen jaialdian... Zelan laburbilduko zenituzke?

Ingelesa praktikatzeko, jendea ezagutzeko eta lan esperientzia izateko aukerak aprobetxatzeko modu ezin hobea. Ausardia puntua behar da zeure burua horrelakoetara aurkezteko, baina lehen pausua ematea da zailena. Gero, gehienetan, jendeak eskuzabal hartzen zaitu.

Olerkien liburu bat ere idatzi duzu? Non irakurri genitza zure hiru olerkiak, euskarara ere itzulitakoak?

Bolondres lez lan egiteko aukerak aprobetxatzeaz aparte, doakoak ziren hitzaldi eta tailer askotan parte hartu dut... beti ere ingelesean sakondu eta jendea ezagutzeko. Holako tailerretako bat emakumezkoentzako idazkera tailerra izan zen. Animatu eta izena eman nuen. Tailerrean, besteak beste, olerkigintza, mikroipuinak nola idatzi landu genuen. Tailerraren amaiera gisa, Aucklandeko Udalak gure lanekin liburuxka bat argitaratu zuen. Nik aipatu nien, ingelesezko bertsioaren ondoan euskarazko itzulpena argitaratzea gustatuko litzaidakeela. Eta halan argitaratu dira nire hiru olerki labur. Oso simple eta basikoak dira. Balio literario eskasekoak. Baina nire 'abentura' honetako parte garrantzitsuak. Ez dut uste online irakurri daitezkeenik. Etxekoei bidali nizkien liburuen ale batzuk. Gainontzean, liburuen aurkezpenean irakurketa librea egin genuen eta olerkietako bat euskaraz eta ingelesez irakurri nuen eta hori bai, hori youtubera igo nuen (nahiz eta kalitatea ez den hoberena...).

Zeelandaberritar baten andereñoa ere izan zinen. Nolatan sortu zen esperientzia kuriosoa?

Zelanda Berriko informazioa eskuratzeko parte hartzen nuen foro baten euskaraz agurtzen nuela ikusi zuen eta bera jarri zen kontaktuan nirekin. Lau urte atzera euskal gramatika liburu bat erosi eta bere kabuz hasi zen euskara ikasten. Hizkuntza ezezik, euskal kultura, bizimodua, historia, egoera politikoa izan genituen berbagai gure saioetan. Nik ingelesa praktikatzen nuen.

Esperientzia berezienetako bat tetraplegiko baten laguntzaile modura lan eginda bizi izan duzu eta bere belaontzian bidaiatzeko aukera ere izan zenuen.

Ikaslea zarenean 20 ordu lan egiteko aukera daukazu. Nire ingeles maila kontuan hartuta, eta nahiz eta esperientziarik ez izan horrelako lan baten, animatu egin nintzan lan eskariari erantzuten. Ez naiz damutzen. Asko ikasi dut berari lagunduz. Lagun handia da orain. Eta bai, bere belaontzian oporretan joateko aukera izan nuen. Tetraplegikoa izan arren, eta bere mugekin, belaontzia zuzendu, bideoak egin eta editatu,... 'independente' izaten ahalegintzen da ahal duen neurrian. Meritu handia dauka. 'Errealitate' diferente bat ezagutu dut berari esker.

Hamalau hilabete eta gero Helpx sareko kide egin zinen, mundu osoko bidaiarien elkartruke sarea.

Hori ere esperientzia ezin aberatsagoa. Bidaiariak bere lana eskaintzen du eta etxekoek lo egiteko lekua eta jatekoa ematen dizkizute trukean. Horretarako, baina, webgune baten zure profila idatzi behar duzu, kide izatea ordaindu eta aurrera (www.helpx.net).

Era horretan Zeelanda Berrian eta Australian zehar bidaiatu duzu urte erdi. Australian Europa osoa sartzan da eta oraindik ere lur gehiago dago?

Mapa mundian begiratuta txikia ematen du, baina Australia oso handia da. Leku batetik bestera distantzia handia dago. Ni, batez ere, Tasmanian egon nintzen, eta gero Sidney eta Melbourne aldean hiru hilabete inguru.

Sukaldeak garbitu, ospitale zahar bat berreraikitzen lagundu, oheak egin, armosuak prestatu, umeak zaindu, txofer, lorategiak txukundu eta sukaldari... Kazetari lana izan ezik denetarik egin duzu?

Normalean kazetari lanik ez dute behar izaten horrelako leketan. Baina, leku batzuetan gizarte-sareetan daukadan esperientzia baliatzen nuen euren negozioak nola bermoldau edota nola hobeto 'saldu' laguntzeko. Gero, ia hamabostero Bizkaia Irratian nire esperientzien berri kontatzen nuen. Eta, Helpx esperientziaren berri blog batean ere kontatzen nabil. Hori bai, ingelesez, ze era horretara idatzizkoa

praktikatzeko balio dit eta etorkizunean joan nahiko nukeen lekuetakoek ere niri buruzko erreferentzia erreala aurkitu dezakete.

Danetariko jendea ezagutuko zenuen. Ona eta ez hain ona?

Jende ona eta txarra munduko bazter guztietan dago. Baina, normalean, zuk eskuzabal jokatzan duzunean, edota ezkutuko intentzio barik jendeak antzera jokatzan du zurekin. Zorte handia izan dut eta oso jende jatorra aurkitu dut. Hori bai, oso moldakorra izan behar duzu eta aurreiritziak albo batera utzi.

Eta Malaysiara heldu zinen. Asia beste mundu bat da?

Bai eta ez. Globalizazioaren eraginez, eta gizakiak garelako, beharrian antzekoak ditugu. Baina gero, lehentasunak ezberdinak dira. Asko harritu nau Malaysiak. Detaile tontoak dira, baina emakumezkoentzat supermerkatuetako aparkalekuan lekuak erreserbatuta dituzte. Edota haurdun dauden emakumeek lehentasuna dute ordaintzerakoan. Edota kotxea nun aparkatu duzun ahaztu bazaizu, doako zerbitzua eskaintzen dizute eta kotxea aurkitzen laguntzen lan egiten du tipo batek.

Eta hurrengo geltokia... Borneo.

Malaysiara Zeelanda Berrian nire lehen pisukidea izan zena bisitatzera etorri naiz eta gero Helpx esperientzian ezagutu nituen beste lagun batzuk ere bisitatu ditut. Malaysian beraiekin nabil aurrera eta atzera, eta leku turistikoak bai, baina euren egunerokoa bizi dut. Borneora ere eurek lagunduko noa, lagunetako bat Borneon jaiotakoa delako.

Hurrengoa gertuago izango da: Londres. Oxfordeko unibertsitatea ezagutuko duzu?

Hori ere nire bidaiari ezagutu nuen lagun bati esker. Master bat egiten dago orain Oxforden, eta bera bisitatzera noa; eta bide batez Britainia Handian ere zeozertxo bidaiatuko dut.

Euskal Herria utzi zenuenetik zentimetro batzuk hazi zarela igartzen duzu hazkunde pertsonalari dagokionean?

Zentimetroak gutxi dira, metroak irabazi ditut. Topikoa dirudi, baina gauzei aurre egiteko zu bakarrik zaudenean zertzuk egiteko gai zaren ikasteko balio du. Eta kontrolpean daukazun 'egunerokotasunetik' ateratzen zarenean, pentsatu baino gauza gehiago egin ditzakezula ikusten duzu. Asko harritu naiz nirekin, nire muga eta gaitasunekin.

Inoiz sentitu duzu Euskal Herrian bizi dugun zurrumbiloa arrotz?

Interneti esker izan dut Euskal Herrian gertatzen dena jarraitzeko aukera, baina egia da sarri urrun sentitzen dudala. Hala ere, Euskal Herria mapan kokatzen eten barik ibili naiz bi urteotan. «Bagara eta ez gara» zentzu baten. Jende askok ez daki Euskal Herriaren berri eta sarri azaldu behar izan dut nor garen, zerk ezberdintzen gaituen, zergatik gura dugun herri independentea izan, euskara eta euskal kulturaren aberastasuna... enbaxadore txiki bat lez sentitzen nintzen.

Zer erakutsi diozu zure buruari?

Mugak norberak jartzen dizkiola bere buruari eta horrela gauza asko 'galtzen' ditudala. Muga barik esperientziak aberasgarriago direla.

Bueltatuko al zara inoiz etxera burua aldatuta eta beste era batera estrukturatuta?

Dagoeneko asko aldatu naiz. Betiko Izaskun izaten jarraitzen dut, baina orain askoz hobe (ai ama!!... horrek esan egin behar dira gero norbere buruaz... kar, kar, kar!)

Benito Lertxundi entzutetik, Linkin' Park-en kontzertu bateko sarrerekin ikusi zaitugu. Zelan esperientzia?

Boluntario aurkeztu nuen neure burua kontzertuan laguntzeko. Azkenean jenderik ez zuten behar izan, baina kontzerturako sarrerak doan eman zizkiguten. Oso ondo pasatu genuen.

Euskal kazetaritza jarraitu duzu bidaian zabiltzala? Nola ikusi duzu?

Kezka handiarekin. Lanpostuak ia egunero galtzen dira, eta lagun kazetari asko langabeen geratu dira egun batetik bestera. Notizien jarraipenari dagokionez, sarri kontsultatzen ditut egunkari eta aldizkari nagusiak, eta horrek ere kezka eragiten dit; albiste onak eskuko hatzamarrekin kontatu izan ditut, eta horrek ere sobran.

Zure faltan ezagutzen zenituen pertsonak utzi gaituzte, esaterako, ERAZeko argazkilaria eta lankidea izan zenuen Segun Lazkano. Zelan hartu zenuen albiste tristea?

Bat baino gehiago izan dira. Segun bera, Bizkaia Irratiko Kepa Uriarte, lehen-gusina bat, lagunengertuko senitartekoak... Sentsazio arraroa da urrin zaudenean. Inpotentzia antzeko zeozer. Shock handia hasieran, eta gero egonezin antzekoa. Eta batzuetan, sufrimendu serenoa... sinisten ez duzun antzera, bueltan noanean berriro ikusiko ez ditudala konturatzen zaren arte.

Bueltatzen bazara eta egunen baten urrinago joan gurako bazenu, ilargira edota Martera joateko izena eman duzu ez itzultzeko?

Horrela galdetuta ematen du ihesi joan nintzela orain ia bi urte. Ez ditut nik milioiak ordainduko Ilargira edota Martera joateko. Noizbait itzuli itzuliko naiz eta alde egin ere akaso berriro. Abentura hasi dudanetik ate asko zabaldu ditut.

Bertoko zein jatekogatik ordainduko zenuke urrea?

Urrerik ez nuke ordainduko. Gurago dut diru hori abentura luzatzeko erabili. Baina, urdaiazpikoa da gehien faltan bota dudan jatekoa. Baserriko ogitartean, ummmm! Ahoa urtu egiten zait pentsatzeaz bakarrik.

Hain urrun bidaiatu izanak zeure buruari ipintzen zenizkion mugak apurtzeko balio izan du?

Abentura hastea erabaki nuenean apurtu nuen mugarik handiena. Eta gero, datorrenari aurre egiteko prest agertuta, gainontzeko guztiak.

Zer egingo duzu Iurretara bueltatzen zaren egunean?

Etxeakoak eta lagunak agurtu ostean, Ibaiondon kafe gozoa hartu.

ALAITZ AREITIO

Pipitaki papataki, Alaitzek erantzuna daki



ALAITZ AREITIO (1979-)

Alaitz Areitio Azpiri 1979an jaio zen Iurretan. Gaztetan bertsolaritzarako pausoa eman zuen herriko Urruxar bertso-eskolan, beste hainbat gazterekin batera. 90eko hamarkadan BBK Bertsolari Gazteen Txapelketako zenbait ediziotan parte hartu zuen, eta 1998an Araba eta Bizkaiko Txapelketan ere bai. Sasoi hartan antolatu izan zen Iurretako Bertsolari Txapelketako lehen edizioko garaile izan zen La Gipuzkoana jatetxean jokatu zen saioan.

Gerora, gatazka politikoaren eraginez ihesean ibili zen lehenik, eta ostean kartzelan egon zen hamahiru urtez. Hala ere, bertsoak eta bestelako lanak idazten jarraitu zuen. Esate baterako, Aldharrikatuz eta Zorroztarri izeneko erakusketa kolektiboetan parte hartu zuen, Zigor Merodioren eskulturei bertsoak jarrita. Presoarentzat, idaztea da kanpoko jendearekin harremana mantentzeko modu bakarrenetakoa, eta Alaitzek bertsoetan, ipuinetan eta asmakizunetan topatu zuen adierazteko bidea.

Bere semearekin, lobekin eta lagunen umeekin zeukan loturari eusteko ahalegin berezia egin zuen, haientzako narrazioak eta ariketak sortuz. Jarraian datozen testuak pipitaki-papataki estiloko asmakizunak dira; Aitziber Coello lagun eta preso ohiari, bidali zizkion lehenik, eta honek ariketen soluzioak marraztu zituen. Kartzelako iluntasunetik umeen etxeetara heldu zen euren sorkuntza, orain lehenengoz argitaratuko dena.

Alaitz Areitio 2020an atera zen espetxetik, eta gaur egun irakasle dabil. Bertsotan ere egiten du lantzean behin jendaurrean, Urruxar bertso-eskolan aspaldian kide izan zituenen ondoan.

PIPITAKI PAPATAKI ERANTZUNA NORK DAKI?

1.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Lau hankadun lainño pillue,
beeti alkarrekin pasiuen
beeroki zuri ederragaz
landan gora,
landa behera,
jan eta ibili,
jan eta egon,
beedarra janez,
danok batera pasiuen:

.....



2.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:


Mundueri aldrebes begittu ezkeru,
kobazuloan egin ezkeru lo,
egun argiz lo
eta gabien ibili,
gaztie ixen arren
..... naz ni.



3.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Lagun ona naiz
batuketak egiten laguntzeko,
balio dut ipuin politak kontatzeko,
burua galtzen dut
nekatzen naizenean,
kobazulora noa zuzenean...
Buelta bat, bi, hiru, eta lau,
lehen baino txikiago nau,
lehen baino zorrotzago,
berriro ere prest nago...
Jarriko naiz buruz behera
lan egiteko topera
eskuan eginez dantza
punta jarrita beherantza,
ezkerretik eskumarantza:
nire izena da



4.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:


Borobil bat saltoka,
batzutan eskuz jota,
bestetan hankarekin bota...
Frontoian eta zelaian
lagun ona dugu



5 .

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Batzuetan betea,
besteetan erdia,
lodia edo fin-fina,
izar guztien zaindaria.
Gaueko zero ilunean
ematen digu argia.
Eguzkiagaz maiteminduta
omen dago



6

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:


Goizetan dauka irria,
hori-horiak bere izpiak,
Iluntzerako nagia...
Alai badago
utz dezakegu etxean aterkia...
Distiratsu dator gaur ere
.....



7.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Gazi-gazia da
eta ez gozoa,
bertan bizi dira
sardina eta kaioa
pirata eta txalupa,
olagarroa eta marrazoa...
Olatudun pizina
erraldoia da



8.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Niri esker da alaia
mendiko zelai berdea,
nigatik da amamaren balkoia
hoin polit eta dotorea.
Izan naiteke gorri, urdin edo morea
naranja, zuria edo
nahi duzun kolorea.
Udaberrian jaiotzen naiz
usain gozodun



9.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:


Oiloaren senarra
buru gainean gangarra
iratzargailu naturala da
kukurrukuka



10.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Opila nintzen lehenengo
kroasan bat gero
poliki nintzen gastatu
eta berriro agertu
bestekaldera begira
egiten nuen dirdira
loditu eta loditu
berriz opil bilakatu
.....



11.

Pipitaki papataki nik badakit gauza bat:

Hartu bufanda eta txanoa
jolastera noa.
Negua da nire urtaroa
ez dut atsegin beroa.
Potoloa naiz, ez naiz fina
eskuekin egina.
Eguzkiak ematen dit mina.
Ni naiz:



MARKEL ONAINDIA

**Begien aurrean eduki arren, ez gara gure historiaren atal
esanguratsuak ezagutzeko kapaz**



Mikeldiko harrizko irudia.

MARKEL ONAINDIA (1983-)

Markel Onaindia Txabarri Iurretan jaio zen 1983an. Umetan bertsoak idazten zituen, eta laster konturatu zen hizkuntzarekin jolastea gustatzen zitzaiola. Horri tiraka, Kazetaritza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta, ostean, Anboto hedabidean hasi zen lanean; lehenik irratian, gero astekarian. Gaur egun ere bertan kolaboratzen jarraitzen du, astekariko zutabegile lez.

Gerediaga elkartearentzako ikerketak garatu ditu. Azken aldian, Goiuria ikastolaren historia jaso du liburu batean, eta Iurretako kofradien historia beste batean. Abadiñoako Mendiola auzoan egoniko eskolari buruzko dokumentala ere egin du, *Errekatxo baten onduen* izeneko.

Orriotara *Astola* aldizkarian argitaratutako erreportaje bat dakargu, Iurretako harginen bizipenak eta gorabeherak jasotzen dituen.

IURRETAKO HARGINAK

Gure ofizio baten azken aztarnen bila

Askotan, begien aurrean eduki arren, ez gara gure historiaren atal esanguratsuak ezagutzeko kapaz. Ez gara konturatzen munduaren joanaz, naturaren indarraz. Eskuekin arakatzen hasi, barrenera begiratu, eta gure txikitasunaz konturatzen gara. Lurrak gauza asko dauzka guri kontatzeko.

Harrizko herria da gurea. Harea, karea, mendeetan zehar pilotzen joandako bizia. Harriak eman digu babes, aterpea. Harriak eman digu lana, ofizioa. Harriak eman digu harremana, kultura. Iurretaren kasuan, bereziki nabarmena da hargintzan edukitako tradizioa, Santa Apolonia eta Gallanda inguruetakoa hareharriaren ustiapenean hain zuzen. Historian oso atzera eginez, horren adibide lez dauzkagu Mikeldiko idoloa (K.a. IV. eta II. mendeen artean, Gallandako harriz landua izan ahal dela uste da), eta Goiuria zein Amatzaz auzoetakoa leihotako mozarabiarrak (XI. mendea). Gerora, Erdi Aroan garapena gertatu zen hargintzaren arloan, baselizez eta dorretxez aparte baserriak ere harriz eraikitzen hasi zirelako. Iurreta eta Durangoko eraikuntzetako harria aipatutako harrobietatik atera zuten gehienbat.

XV. eta XIX. mendeen artean ofizioak hazkundera bizi izan zuen, eta horren erakusle da euskal harginak famatuak egin zirela atzerrian ere. *Bizkaitarrak* izenez ezagunak, hainbat lekutan ibili ziren lanean: Madrileko Gortetan zein Escorialeko eraikuntzetan, Granada, Sevilla eta Kordobako katedraletan, Perun, Mexikon, Filipinetan... Esanguratsua da Bragan (Portugal) kale bat badela euren izenean, baita palazio bat eta *Museu dos Biscainhos* ere. Atzerrian beharrez ibili ziren harginetako batzuk izan ziren Pedro Arandia eta Frai Juan Azkondo iurretarrak.

XIX. mendean, harlanduaren eskari handiaren eraginez, Iurretako familia asko sektorean hasi ziren beharrez. Batzuk harrobietan bertan, eta beste batzuk harrien garraioan. Sasoi horretakoak dira San Migel eliza, Bakixako Palazioa, Trazaolako baserri-jauregia, Santa Mañako Ertzila, Mallabienako arkua, eta Arriandiko uraska zein monolitoa, besteak beste. Hargin batzuek euren lana sinatzen zuten, eta horren adibide da Andra Mariko eskinarri batean dagoena, 'Omar' izenagaz.



Amatzazko ermitako leihoa.

Familia askoren ogibide

Pablo Garitaonandia eubarrak Iurretako hargintza ikertu eta txosten bat idatzi zuen 1993an, zeinari esker hainbat datu dakizkigun, baita sektorean lanean ibili ziren askoren izenak ere. Santa Apoloniako harrobi nagusian, *Etxan* errekatxoaren bailara amaieran, ehundik gora hargin ibili ziren XX. mende hasieran. Garamendi familiarena –*Vulkanotarrak* lez ere ezagunak– zen harrobi hori, eta handik atera ziren Bilbo-Zumarraga trenbiderako zubi, arku eta isurbide asko. Oizen magalean, Gallandako harrobietan ere jardun zen familia hori, baita *Mañariko Baltza* marmolezkoan ere.

Beste familia garrantzitsu bat Mendiolarrena izan zen, Santa Apolonia, Gallanda, Amatzorbe eta Oxinbaltzako harrobietan euren arrastoa utzitakoak. Simon Mendiola lehenik, eta Julian, Felipe eta Txomin semeak ostean. Simon hargin garrantzitsua izan zela gogoratzen du haren biloba Jose Julianek, eta bere aita Julian eta osabak ere urte askoan ibili zirela ofizioan. Esaterako, Mendizabalen fabrikako bulegoetarako landu zuten harria. Haren arabera, aitzak kontatzen zion hargintza beheraldian zihoala, hemengo harriak erremintak jaten zituelako, eta ondorioz ez zelako errentagarria. Julian Mendiola 1968 ingurura arte ibili zen lanean. Txominek etxeak hornitzeko lanetan jarraitu zuen urte batzuetan, eta Felipe silikosiaren eraginez hil zen.

Harginen familiekin segituz, Arriandiko paper fabrikaren parean harrobi bi kudeatu zituen Joxe Agirrezabalek. Santa Apolonian, saga luzeko sendi bat etxebarritarrena da, gutxienez harginen hiru belaunaldi zeharkatu dituen. Arriandiko bereziartuarrak, Larruzea zornotzarrak... Familiez gainera, Juan Zarandona, Tomas Iriondo, Maite Madariaga eta Fidel García Melchor aipatu daitezke esperientzia handiko harginen artean. Orgarien kasuan, Goiuriko Galarzatarrak nabarmendu daitezke, idien laguntzaz Gallandako harriak Bilboraino eramane zituztenak hain zuzen.

Izan ere, gaur egun pentsaezinak ziren lanak egiten zituzten orduko beharginek. Gauza harrigarriak, errealitatea eta magia lotzen dituzten nobeletan antzera. Hasieran, harriak leretan bajatzen zituzten, idien eta karreteroek indarra baliatuta. Horrela, mendietan behera berezko estartak sortzen zituzten garraiorako. Santa Apoloniako harlandua idi-burdietan bajatzen zuten Durangoko eta Arandiako zamaketa kaietara, han trenaren esku lagatzeko. XX. mende hasieran hain zen handia trafikoa, trenbidearen adar bat harrobiperaino ailegatu zela, gaur egun Azken erretegia deneraino, iraganean *Bar La Cantera* izenekoa. Gerora, teknologia aurreratu eta kamioiak erabiltzen hasi ziren. Kuriosoa da, hala ere, gerraostean Kastor Kabiroyak izan zuen ideia: gerrako tanke bat erosi zuen Mugarrekolanda

ondoko marmoleko harrobitik lerei tiratzeko. Antza denez, tankea harantz igotzen zebilela Orozketa parean hondatu egin zen, eta ezin izan zen inoiz erabili.

Antzinako ofizio hori gure kulturaren parte bihurtu zen, eta gure plazetan hain ezagunak diren harri-jasotzaileek eta idi-probek harginen lanean dute sorburua.

Non dago Iurretako harria?

Santa Apolonia eta Gallandako harria ospetsua izan da, kalitate onagatik. Kolore onekoa eta gogorra da. Gallandakoa horiagoa da, baita gogorragoa ere, eta horrek lana zailtzen du. Erremintak errazago urratzen dira, eta azkenerako karuagoa ateratzen da.

Harrobi horietako harria gure inguruetako eraikin askotan topatu daiteke. Esaterako, Gallandako harria dago Iurretako elizan, Durangoko Andra Marian eta Santa Anan, Kurutziagako hotelean, Begoñako basilikako eskaileretan eta Begoñako tuneletan, Bilboko Ibaigane palazioan eta Aldundiaren egoitza den eraikinean... Santa Apoloniako harria dago Iurretako udaletxean, Kurutziaga kaleko hainbat etxetan, Bilboko Zabalguneko eraikinetan, Gaztelugatxeko eskaileretan...

Antzinako ofizio baten azken lekukoak

Hargintzak beheraldi sakona eduki zuen joan zen mendearen erdialdean, makineria berriaren eta zementuaren agerpenaren eraginez. Hareharria eraikuntzarako gutxiago erabiltzen hasi zen, eta ondorioz sektorea ahuldu egin zen. Harrobietan lanean jarraitu zuten gehienek beste norabide bat hartu zuten, labegariaietarako produkzioari bidea zabalduz. Labeen hormak isolatzeko balio zuten adreiluak lantzen hasi ziren, eta orduz geroztik, nagusiki industria horri lotuta egon da hargintza. Eraikuntzari dagokionez, maila txikiagoan, baserriak konpontzen edo txaletak egiten ibili izan dira batzuk; beti ere etxeak kanpoaldetik janztzen, hormak manposteriaz kubritzen, arkuak, eskinarriak, harlauzak eta leihoak sortzen, eta barrualdean beheko suak prestatzen ere bai.

Gallanda inguruetako harrobiak 40ko hamarkadatik ia geldirik egon dira, ustiapen puntual batzuk kenduta. Santa Apoloniako batzuk, oster, duela gutxira arte egon dira aktibo. Gaur egun ez da bat ere zabalik geratzen. Manuel Mateo salamancarrak zeukan harrobia izan da azkenetakoa. Bere suhi Julian Perezek hartu zion erreleboa 2002an, eta 2020ko abendura arte egon da martxan. Perez duela 30 bat urte hasi zen hargintzan. Gogoratzen du orduan Santa Apolonia ingurua harrobi partzela txikiz josirik zegoela, eta eurenean 22 bat behargin zebiltzala lanean. Harria ateratzera eta eskarietarako prestatzera dedikatu izan da bera. Beso

indartsuak ditu, eta eskuetan lanaren aztarnak ageri zaizkio. Dioenez, ez zuen eskularrurik erabiltzen, eta azkenaldian sektorean makineria sartu bazen ere, eskulanean oinarritutako ofizioa izan da harginarena. Eskuak, harria eta erremintak. Mailua, matxeta, ziria, zizela, bufarda, puntero, palanka... izan dira ohiko erremintak. «Eskulana oso gogorra zen. Barrenatu, zatitu, lisatu, kantoiak eskuz landu... Eta hori beroarekin, euriarekin, hotzarekin... lan gogorra zen», esplikatzen du Perezek. Bere harrobiko eremu batzuk bistan daude oraindik, paisaia bukoliko horretan iragana bizirik balego bezala. Hara begira, harriari buruz berbetan hasi eta azaldu du *Durango hareharria* izenagaz erregistratu zuela, eta intereseko harriaren izendapena lortzeko saiakera ere egin zuela Jaurlaritzan eta udalean, emaitzarik lortu barik.

Julian Perezek jubilatzerakoan zarratu zuen harrobia, 2020an. 2008ko krisialdiaz geroztik bakarrik ibili zen lanean, baina horren aurretik bederatzi behargin edukitzera ere heldu zen. Bere sasoiaren zein bere aitaginarrebarenean hargin ugari pasa zen harrobi horretatik, eta horixe da Oskar Azpitarte durangarraren eta Antolin Conde aperribaitarraren (Galdakao) kasua, adibidez. 80ko hamarkadaren erdialdean Inazio Astigarragaren Durangoko marmolerian ikasi zuten biek lanbidea; marrazketa klaseak hartzen zituzten planoak lantzeko, moldurak egiteko... Urte batzuetako beharra eta gero Argiñeta izeneko enpresa sortu zuten Azpitartek eta Condek, euren kabuz zerbitzuak emateko. Esaterako, Nestor Basterretxearen Tabirako eskultura euren eskuekin landutakoa da. «Basterretxea lehen egunean etorri zen. Guri maketa bat eman zigun, eta 25 toneladako *katxarro* bat egin genuen», oroitu du Condek. Horixe izan zen euren lehen enkargua. Baserriak konpontzen eta bestelako zereginetan ibili eta gero, bakoitzak bere bidea hartu zuen, eta Manuel Mateoren harrobian ere ibili ziren denboraldi batez.

Prekarietatea eta silikosisa

Condek dio beti gustatu izan zaiola harria lantzea. «Baina oso neketsua da, zikina, pisuarekin eta hautsarekin beti... Polita da, baina ez eskertua.» Harrobian sorkuntza gutxi zegoen. «Hondeamakinarekin harria atera, rotaflexarekin pikatu... geratu barik harri metroak ateratzea zen lana», bere esanetan. Prekarietate handia zegoen sektorean, harrobi gehienetan kontratu barik lan egiten zutelako, orduka ordainduta. Eta ordu asko izaten ziren, gainera. Begira Zipri Mendiolagarai iurretarrak kontatutako aspaldiko pasadizoa, Pablo Garitaonandiak jasoa:

«Behin, harginak galdetu zion kapatazari:

—Bihar ez dugu etorri beharko, ala?

—Bai, zer ba?

—Joan egin beharko dugu, bihar etortzeko!».

Oskar Azpitartek ondo ezagutu zituen lan horren baldintzak. Baita eraginak ere. Hargin askok pairatutako gaixotasuna harrapatu zuen berak: silikosia. Mateoren harrobian amaitu eta gero enteratu zen horretaz, baserri batean lanean zebilela arnasa hartzeko arazoa sentitu zuenean. «Harrobi hartan hartu nuen hauts guztia, eta hori ezin da atera», esplikatu du. Medikuak silikosi puntu bat baieztatu zion, gaur egun apur bat okerrera joan dena. Ondo dago, hala ere. Bere aurreko hargin askok zorte txarragoa eduki zuten, hamarkadetan zehar ugari izan baitziren silikosiaren erruz hil zirenak.

Azpitartek gaur egun eskulturak eta taillak lantzen ditu bere tailertxoan, baina lanbidez okina da. «Orain okindegi batean nago lanean, baina beti esaten dut ni hargina naizela. Hori betirako da.»

Langintza baten transmisioa

Azpitarre erreferentzi bat izan zen Manuel Mateoren harrobiko langile gazteentzat. Horixe uste du Abadiñon bizi den Jon Martinez hargin arratiarrak. Martinezek delineazioa ikasi zuen, eta Artean lan batzuk egin eta gero etorri zen Mateoren harrobira. Han pare bat urtez ibili zen bakarrik. Gero bere kabuz hasi zen, eta gaur egun Ormabarrue izeneko zerbitzua eskaintzen du, baserriak konpontzeko, beheko suak eraikitzeko eta armariak egiteko. «Beheko suena izan da nire pasioa. Diseinatu, kurbak landu...», esan du harriaren artisauak.

Antolin Condek beste harrobi batzuetan ere egin zuen lan, Mateoren harrobiaz aparte; Bilbao familiarenean eta Joaquín Gerediagarenean, besteak beste. Hargin ugari ezagutu zituen, eta gogoratzen du Gerediagak oso ondo jakiten zuela harria nondik moztu behar zen. Marmolerian ezagututako Benito Lizaur arrianditarra ere hargin fina zela kontatu du.

Condek eurengandik ikasi zuen, baina gerora hargintza irakasle ere izan zen. Adibidez, 1995 inguruan, Orozketan eskainitako emakumeentzako ikastaro batean, Juan Inazio Belarregaz batera. Han sei hilez ikasten ibili ziren emakumeetako bik, Rosi Oleaga eta Ana Larrañagak, langabezian geratu eta hargintzan probatzea erabaki zuten. Anak gogoratzen du hainbat forma landu zituztela. «Ezkutu bat,



Goiuriko ermitako leihoa.

kapitela, leihoak, beheko su bat ere egin genuen denon artean.» Pena da gerora hain ogibide maskulinoan barneratu ez izana. «Hango emakumeetako inork ez zuen jarraitu ofizioan», azaldu du Oleagak.

Ikastaro horren aurretik, ordea, 90eko hamarkada hasieran, Inazio Astigarragak Santa Apolonian sustatu zuen ikastegian ibili zen irakasle Conde, kasu honetan Julian Barroetagaz batera. Hiru urtez martxan egon zen Santa Apoloniako ikastegi hartan formatutako 14 gazteetako bat Iñigo Etxebarria iurretarra da, Pantaleon Etxebarria hargin ezagunaren biloba. Aitite bezala, aita eta osaba ere izan ziren harginak, eta Iñigok penaz oroitzen du denak silikosiaren erruz hil izana. Iñigori 17 urterekin erakutsi zioten ofizioa, duela hogeit bat urte zarratutako etxeko harrobian. Axpeko eliza berriztu zuten euren harriarekin, eta Gaztelugatxerako eskailerak ere bai, esaterako. «Artisau lana da: mendira joan, harria hartu eta landu... hori baino oinarrizkoagorik!», azaldu du. Eskuz egiten zuen lana: harria trokatik atera, rotaflexarekin ebaki, ziria sartu eta kolpe mailuarekin. «Alde batetik ebaki egiten duzu, eta bestera desdoblatu. Enberrari lez, goitik behera ematen badiozu desdoblatu egiten da.» Izan ere, antzinatik metatzen joan diren harea geruzek osatzen dute harria. «Sekulako itsaso usaina etortzen zen harria txikitzen genuenean», esplikatu du hunkiturik, iraganera bidaiatuko balu lez. Milioika urte atzera, gure Durangalde hau itsaso izan zenaren arrasto magikoa.

Ofizio eta kultura indartsu baten aztarnak dira horiek denak, gure ahanzturan daudenak, ezkutuan. Arakatzen hasiz gero gure historiaz berba egiten digutenak, garena eta izan ginena erakusten digutenak.

NEREA ELORRIAGA

Hemen egongo naiz eserita, lagunei tea zerbitzatzen



Andrea katazuria besoetan (Leonardo da Vinci, 1490).

NEREA ELORRIAGA (1983-)

Nerea Elorriaga del Arco Iurretan jaio zen 1983an. Gasteizen egin zituen unibertsitate ikasketak; lehenengo, Ingeles Filologia; eta gero, Itzulpengintza eta Interpretazioa. Urtetan kanpoan ibili ondoren, gaur egun jaioterrian bizi da berriro amarekin eta umearekin.



Portrait of a Lady, T.S. Eliot (1888–1965) idazle amerikar-ingelesaren poema, 1915eko irailean argitaratu zen lehenengoz. Henry James-en izen bereko eleberriri zor dio titulua, eta Christopher Marloweri epigrafe deigarri hau:

«Zu ere erori zinen horretan...
fornikazioan:
baina beste lurralde batean izan zen
eta, gainera, neskatoa hilda dago».

Klase nagusiko jendearen hutsaltasuna azaltzen da adiskidetasun-, sexu-harremanetan. Lehen atalean, anderearen apartamentua bisitatzen du gizonak, biak Frédéric Chopinen kontzertu batetik bueltan, eta adiskidetasunari buruz hasten dira solasean...

ANDERE BATEN PORTRETA

*«Thou has committed –
Fornication: but that was in another country,
And, besides, the wench is dead.»*

THE JEW OF MALTA

I

Abenduko arratsalde baten ke eta behelainoaren artean
Agertokia berez atontzea lortu duzu –eta hala irudituko du–.
«Arratsaldea zuretzat gorde dut» batekin;
Eta lau argizari gela ilunduan,
Argizko lau eraztun sabaian,
Julietaren hilobiko giroa
Prest esan beharreko guztirako, edo esan behar ez denerako.
Egon gara, demagun, modako poloniarra entzuten
Preludioak ilearen eta hatz punten bidez transmititzen.
«Hain da intimoa, Chopin hau, ezen uste baitut bere arima
Lagunen artean soilik berpiztu beharko litzatekeela,
Bi edo hiru lagun, ez dutenak ukituko
Kontzertu-gelan igurtzi eta kuestionatutako lorea.»
Eta elkarrizketa horrela labaintzen da
Arinkeria hutsalez eta kontuz atzemandako damu artean
Biolinen moteldutako tonuetan zehar
Urrutiko kornetekin nahasturik
Eta horrela hasten da.

«Ez dakizue zein garrantzitsuak diren niretzat, nire lagunak,
Eta zein, zein ezohikoa eta bitxia den aurkitzea,
Hainbeste, hainbeste traste zaharrez betetako bizitza batean,
(Ezen, ez baitut atsegin... bazenekien? Ez zara itsua zu!
Azkarra zara, gero!)
Aurkitzea bertute horiek dituen lagun bat,
Eduki eta eman egiten dituen
adiskidetasuna elikatzen duten bertuteok.
Zein garrantzitsua den hau guztia zuri esatea–
Halako adiskidetasunik gabe– bizitza, a zer *cauchemarra!*»

Biolinen sigi-sagen eta
Eta korneta pitzatuen
Arietta artean
Nire burmuinean danbor-hots sor bat hasi da
Bere preludioa zentzurik gabe jotzen,
Monotonia apetatsua
Gutxienez ageriko «nota faltsu» bat dena.
—Goazen kanpora, tabakoaren trantzean,
Monumentuak miretsi,
Azken gertakariez hitz egin,
Gure erlojuak erloju publikoekin zuzentzera.
Gero ordu-erdi batez eseriko gara, garagardoa edatera.

II

Lilak loretan dauden honetan
Ontzi batean ditu jarrita bere gelan
Eta hatzen artean darabil bat hitz egiten duelarik.
«A, ene lagun, ez dakizu, ez dakizu
Zer den bizitza, eskuen artean duzun horrek»;
(Lilaren zurtoina emeki biratuz)
«Barrutik jaria dadin uzten duzu, jariatzen uzten diozu,
Eta gaztetasuna ankerra da, eta ez du damurik
eta ikus ezin ditzakeen egoerei irribarre egiten die».
Nik irribarre egin, noski,
Eta tea edaten jarraitzen dut.
«Hala ere, apirileko iluntze hauetan, zeinetan nolabait
Nire bizitza hilobiratua datorkidan gogora, eta Paris udaberrian,
Erabat bakean sentitzen naiz, eta iruditzen zait mundua
Zoragarria eta gaztea dela, azken batean.»

Ahotsa itzultzen da biolin hautsi baten
Soinu desafinatu tematsua abuztuko arratsalde batean bezala:
«Beti nago ziur nire sentimenduak
Ulertzen dituzula, ziur nago sentitzen duzula,
ziur amildegia gaitzitzen duela zure eskuak.

Ezin zaurituzkoa zara, ez duzu Akilesen orporik.
Aurrera egingo duzu, eta gailendu izan zarenean
Esan dezakezu: hemen batek baino gehiagok huts egin zuen.

Baina zer dut nik, zer dut nik, lagun,
Zuri emateko? Zer jaso dezakezu nigandik?
Bidaiaaren amaierara iristear dagoen emakume baten
Adiskidetasuna eta begikotasuna besterik ez.

Hemen egongo naiz eserita, lagunei tea zerbitzatzen...».

Kapela hartu dut: zer konponbide koldar eman diezaioket
Esan berri didanari?
Parkean ikusiko nauzue goizetan
Komikiak eta kirolen atala irakurtzen.
Ikusi dut, bereziki,
Kondesa ingeles bat hasi dela jendaurrera agertzen.
Greziar bat hil zutela dantza poloniar batean,
Beste berankor batek bere zorrak aitortu dituela.
Aurpegierari eutsi diot,
Lasai jarraitzen dut
Harik eta kaleko piano batek, mekanikoki eta nekatuta
Errepikatzen duen arte betiko abesti higatua
Lorategiaren bestaldeko hiazintoen lurrinaz
Inork desiratu dituen gauzak gogoraraziz.
Zuzen ala oker al nabil?

III

Urriko gaua abailtzen da; itzuli naiz aurrekoetan bezala
Salbu eta badirudi egonez txiki bat dudala
Igo ditut mailak eta biratu atearen kirtena
Eta sentsazioa dut eskailerak katamar igo ditudala.

«Atzerrira zoaz, hortaz; eta noiz zatoz bueltan?
Alferrik ari naiz galdezka, ordea.
Nekez jakiten da noiz itzuliko zaren,
Hainbeste ikasgai aurkituko dituzu han.»
Nire begirada astun erori da purtzileria artera.

«Agian idatz diezadakezu.»
Nire lasaitasuna inarrosi egin da une batez;
Hau da espero nuena.
«Azken aspaldian galdetu diot nire buruari

(Baina gure hastapenek ez dakite ezer gure amaieretz!)
Zergatik ez garen adiskide bilakatu.»

Irribarre egin eta, biratzean, ispilu batean
Norbere aurpegia ikusi duenaren gisan sentitzen naiz.
Nire lasaitasuna dardaratu da; guztiz ilunetan gaude.

«Izan ere, mundu guztiak esan zuen, lagun guztiek,
Ziur zeuden gure sentimenduak elkartuko zirela
estu-estu! Niri ere kostatzen zait ulertzea.

Orain patuaren esku utzi beharko.

Idatziko didazu, nolanahi ere.

Agian ez da beranduegi.

Hemen egongo naiz eserita, lagunei tea zerbitzatzen.»

Eta edozein forma aldakor hartu behar dut
Adierazpidea bilatzeko... dantzatu, dantzatu,
Hartz dantzaria bezala,
Egin negar loroak bezala, hitz egin tximu batek bezala.
Goazen kanpora, tabakoaren trantzean...
Hara! Eta zer, arratsalde batez hilko balitz,
Gris eta lainotsu arratsaldea, hori eta larrosa iluntzea;
Hilko balitz eta utziko banindu eserita bolaluma eskuan
Teilatuen gainetik kea jaisten dela;

Zalantzati, tarte batez

Zer sentitu jakin gabe edo ulertzen ote dudan

Edo jakintsua edo tentela naizen, beranduegi edo goizegi den...

Ez luke berak abantaila izanen, azken finean?

Musika honi ondo legokioke «emeki hiltzea»

Eta, heriotzaz ari garela...

Izango al nuke irribarre egiteko eskubidea?

EÑAUT AIARTZAGUENA

Mundua irribarrez marrazten



EÑAUT AIARTZAGUENA (1988-)

Eñaut Aiaztaguena Bravo 1988an jaio zen Iurretan. Erramun Basajaunak, Gabaik, Asterixek... eta halako abentura komikiek liluratu zuten umetan, eta, eskola sasoiari, arkatzak eta margoak hartuta, irakurtzetik marrazterako pausoa eman zuen gaztetatik.

2009an preso sartu zuten, Segi gazte erakundeko partaidea izateagatik, eta Navalcarnero eta beste kartzela espainol batzuetan egon zen luzaroan.

Literaturaren arloan, *Gogoeten kronika* liburua kaleratu zuen 2007an, eta hainbat literatur lehiaketa irabazi ditu. Komikigintzan, ilustrazioan zein diseinuan, *Naiz*, *Aizu*, *Hik Hasi*, Guraso.eus hedabideetan kolaboratu du, besteak beste. Unibertsitatean Arte Ederretako ikasketak egin zituen arren, hezkuntza ez formaleko hezitzaile gisa jardun du gehiago, sorkuntza irakaskuntzarekin tartekatuz...

Jon Irazabalekin batera, Iurretako umeentzako liburuxka ederrak idatzi ditu bertako geografiaz eta historiari. Nahi duenak Aritz eta Jone neba-arrebekin batera ezagutu dezake Iurreta aldea.

Marrazketaren munduan, Eñautek *Irribarrez* gaitzizena erabiltzen du. Komiki tirak argitaratu izan ditu, kritika eta umorea nahastuta, eta nabarmentzekoa da 2014-2015 ikasturtean egunero tira bat sortzeko erronka bete zuela. *Irribarrez*, *egunari umorez ekiteko* bilduman jaso zituen gero. Horien guztien arteko aukeraketa da orrialde hauetara ekarritakoa.

MUNDUA IRRIBARREZ

"Eskozia 2014/09/18"

@irribarrez




"Trailak 27... izarrak"

@irribarrez




"San Migeletako balantzea"

@irribarrez



"Urrijena 2014"

@irribarrez



"Espainiar justizia..."

@irribarrez



"Gorputz perfektua"

@irribarrez



"heldu dira elurrak"

@irribarrez



"Olentzeroren krisia"

@irribarrez



"San Blas biharamunean"

@irribarrez



"Euskararik ez balitz"

@irribarrez



"Eta ergatiboa!"

Aizu



"Erdaraz ere"

Aizu





MAIZTEGI ESKOLAKO IKASLEAK

Ahazten dena ez da akorduan geratzen



(Iraia Okina)

MAIZTEGI HERRI ESKOLA (1802-)

Maiztegi HE Iurretako Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola da, D eredukoa. Eta historia luzea du. 1794an, Juan Orobiogoitia Agirre iurretarrak 4.000 peso utzi zituen Ameriketara egin zuen testamentuan, bere jaioterrian lehen hezkuntzako eskola bat sortzeko. Iurretako Eskola plazan egon zen 1891tik 1968ra arte. Plazakoa itxi zenean, 1968an, *Colegio Público Arzobispo Maiztegui* eskola eraiki zen gaur egun Juan Orobiogotia institutua dagoen lekuan.

1968an Goiuria Ikastola sortu zen. Euskaraz irakastea debekatuta zegoen eta erdi klandestino zen hasieran. 1973tik 1981era arte normal funtzionatu zuen, baina 1981ean *Arzobispo Maiztegui* eskolarekin batu zen, D ereduko Maiztegi Herri Eskola sortzeko. 1996an, B ereduko *San Miguel eskola* gehitu zitzaion, eta, ordura arteko Maiztegiaren eraikina Juan Orobiogoitia institutuari utzita, San Migelena hartu zen Maiztegi HE izateko.

2021-2022 ikasturtean, Maiztegi Herri Eskolako 6. mailako ikasleok bisita berezia izan genuen. Joseba Sarrionandia idazlea, 41 urtez urrin ibili ondoren, Iurretara itzuli berri. Gonbidatu genuen, eta agertu zen.

Haren liburu batzuk irakurri genituen, bakoitzak nahi zuena, baina, irakurtzeaz gainera, idazketa ariketa bat egin genuen klasean. Josebaren liburu baten idazkera eredu hartu, *Akordatz*en liburukoa, eta antzera idatzi bakoitzak nahi zuena. . .

Josebak dio bere liburuan eredu hori hartu zuela Georges Perec-en *Je me souviens* liburitik, eta Perec-ek hartu zuela Joe Brainard-en *I remember* liburutik. Guk Josebarenetik.

Eta harritu egin zen gure idazlanak irakurri genizkionean. Josebak gure paperak eskuetan hartu eta esan zigun:

—Eskerrik asko. Konturatu naiz ja utzi dezakedala idazteko beharleku hori, ze zuek askoz hobeto egiten duzue.

AKORDATZEN NAIZ...

Akordatzen naiz nola txikitan beti nahi izaten nuen munduari buelta eman, eta azkenean egin nuen, etxean amarekin egindako munduko maketa batean.

Akordatzen naiz nola txikitan, liburu-lehiaketan, motxila eta botila gorriak ematen zizkiguten eta irabazleari dirua ematen zioten liburuak erosteko.

(AYA)

Ni akordatzen naiz haur-eskolara joan beharrean aitite eta amamak zaintzen nindutela.

Ni akordatzen naiz Txema pediatria jubilatuz zenean danok txaloka hasi ginela. Oso mediku ona zelako.

Rim eskolatik joan zenean merendola bat egin genuela akordatzen naiz.

(SUGAR)

Zumaiako lehengusuekin Agerreko belar bola gainean saltoka aritzen ginela akordatzen naiz.

Akordatzen naiz Lekeitioko hondartzan nire lehengusinarekin gimnasia erritmikoa egiten egoten ginela egun osoan.

Joseba Ijorretara heldu zanienez San Migeletan dantzan atera zutela akordatzen naiz.

Akordatzen naiz Mañarikuko aittitte eta amamagaz briskara jolasten nuela gauetan.

Akordatzen naiz, konfinamenduan amama Lutxi eta aittitte Pablok euren txikitako kontu barregarri batzuk kontatzen zizkidatela.

(LAIA)

Akordatzen naiz txikitan eskola bukatzerakoan etxera txokolatea jateko asmoz joaten nintzela.

Txikitan ileapaindegia niretzat leku aspergarriena izaten zela akordatzen naiz.

Gogoratzen dut txikia nintzenean gozoki dendara joan nintzela, baina dirurik ez nuen ez gozoki bat lapurtu nuela.

(ALAIN)

Akordatzen naiz haur eskolan gaixorik nengoen moduan egiten nuela etxera joateko, eta gero etxean aspertzen nintzenean damutu egiten nintzela.

Akordatzen naiz 4. mailan Baratzera joan ginenean zuzendariak deitu zuela eta esan zigula etxera joan behar ginela koronabirusagatik. Negarrez hasi nintzen pentsatzen nuelako hil egingo nintzela egun horretan.

Akordatzen naiz Txema pediatria joan zenean guztiok txaloka hasi ginela.

(NURIA)

Akordatzen naiz nire partiduetan nire ama beti oihuka zegoela.

Txikitan hondartzatik buelta bat ematera joan ginen eta uretara jausi nintzela akordatzen naiz.

Akordatzen naiz entrenamendu baten lagun batek eta nik istripu bat izan genuela buruarekin.

Nire lagun baten betaurrekoak apurtu nituela akordatzen naiz.

(AMADOU)

Akordatzen naiz txikitan egun guztia emoten genuela jolasten.

Akordatzen naiz kotxean gindoazenean gurasoei noiz helduko ginen galdetzen eta galdetzen aritzen nintzela.

(ALAIA)

Akordatzen naiz eskolatik irteten nintzenean nire aitite etortzen zela batzera eta Iurretako parkera joaten ginela.

Akordatzen naiz nire amamaren etxera joaten nintzenean piszinan bainatzeko.

Akordatzen naiz eskolara joaten nintzenean eskuak tenperetan sartzen nituela aldean neraman arropa margotzeko.

Akordatzen naiz txikia nintzenean nire gurasoak kolunpio bat erosi zidatela eta egun osoa kolunpioan egoten nintzela.

(LUCÍA)

Jantokian nire albokoari letxugan oruga berde bat agertu zitzaiola eta monitorak ez zuela ezer egin akordatzeko naiz.

Akordatzeko naiz Athletic-ekoek nire gurasoei deitu zietenean nik Athletic-ekin probak egiteko, eta covid-19-arengatik baja egun bat egin nuen, eta bi egun ziren.

Akordatzeko naiz nire futboleko lehen torneoan lehenak gelditu ginela eta niri torneoko jokalariei hoberenaren trofeoa eman zidatela.

Akordatzeko naiz Eibarrek nik beraiekin jolastea nahi zutela esan zidatenean.

(ASIER)

Akordatzeko naiz nik eta nire neba-arrebak koronabirusa hartu genuenean etxetik maskarillarekin genbiltzala gurasoak ez gaixotzeko.

Akordatzeko naiz txikitan gure urteak zirenean eskolan plastilinazko pastelari putz egiten geniola.

Akordatzeko naiz txikitan bero handia egiten zuenean errekan igelak hartzen aritzen ginela.

(MIREN)

Akordatzeko naiz nire anaia negarrez hasten zela Bilbora erosketak egitera ez joateko.

(UNAI)

Txikitan ez geundela denbora guztian mobilaren zain akordatzeko naiz, orduan, arazo gutxiago zeuden.

Txikitan eskola askoz dibertigarriagoa zela akordatzeko naiz.

Txikiak ginenean andereño bat sorginez moztaratu zela eta edari arraro bat egiten zuela akordatzeko naiz. Akelarrean egiten zuen.

(LEIRE)

Rim eskolatik joan zenean akordatzeko naiz.

Akordatzeko naiz Alainei atearan kontra jo zenean nik saltatu niolako.

(SARA)

Txikitan San Migeletan beti bazkaltzen joaten ginenean dantzan hasten ginela akordatzen naiz.

Txikiak ginenean lagunak eta ni dantzariak dantzan zeudenean gu ere izkina batean dantza egiten geundela akordatzen naiz.

Lagunaren etxera joaten nintzenean piratak ginela jolasten genuela akordatzen naiz.

Puzgarriak Idxorretara heltzen zirenean harrapaketan jolasten genuela akordatzen naiz.

Nire aita, aitona eta arrebari bezala deitzen zidatela akordatzen naiz, Esturo.

(ARANTZ)

Akordatzen naiz haur eskolan plastilinagaz jolasten nuela.

Akordatzen naiz txikitan eskolan ez genuela ezer egiten, eta orain lanak egin behar ditugu.

Akordatzen naiz txikitan ahizparekin logela konpartitzen nuela, eta izozkiak gustatzen zitzaizkidala.

(MAIDER)

Akordatzen naiz haur eskolara joan beharrean nire amamak zaintzen ninduela.

Akordatzen naiz eskolako tenpera margoen usainez.

Akordatzen naiz konfinamenduan nola jolasten ginen kale osoa bingoan eta 8retan denak txaloka hasten ginela medikuei gure esker ona adierazteko.

(NATALY)

Akordatzen naiz lehen nire amamaren etxean nengoenean korrika joaten nintzela plazako kulunkara, asko gustatzen zitzaidalako.

Akordatzen naiz positibo eman nuenean ez nuela ezer igerri eta nire etxeko piszina jolasten ibili nintzela.

Akordatzen naiz, nire amak pastela egiten zuenean eta labara sartzen zuenean, bolean geratzen zen masa jaten nuela. Oraindik ere egiten dut.

(MAREN)

Akordatzen naiz txikitan plazara joaten nintzela baloiarekin futboleant jolas-
teko.

Akordatzen naiz beti joaten nintzela nire aitarekin bizikletan herritik.

Akordatzen naiz beti joaten nintzela jaietan familiarekin barraketara.

(IKER)

Akordatzen naiz txikitan Clarens ikusten nuela.

Akordatzen naiz txikitan nire amamak bere etxean madalenak ematen zizki-
dala.

Akordatzen naiz txikitan ez nintzela beti haur eskolara joaten, otitisa nuelako,
eta nire amamaren etxean egoten nintzela.

(IRAIA)

Akordatzen naiz nola nire auzokoaren txakurrak txupetea jan zidala.

Akordatzen naiz txikiak ginenean andereño bat sorginez moztortuta etorri
zela.

Akordatzen naiz gure gelako neska bat joan zela.

Akordatzen naiz txikitan jolasten nuela.

Akordatzen naiz Mañarira heldu nintzenean ezagutu nuela nire oso lagun
ona.

Nire lagun baten kamiseta apurtu nuela akordatzen naiz.

(MIGUEL)

Akordatzen naiz nire amak eta nik aurkitu genuela txori txiki bat eta utzi
genuela zuhaitz baten.

Akordatzen naiz egun batean ia-ia mahaiarekin hatza okertu nuela eta nire
ezpainetan zulo bat egin.

Akordatzen naiz lehenengo aldiz ikusi nuela nire aitona ardi bat hiltzen, urte
horretan sei urte nituen eta gogoratzen dut ez nuela lo egin gau osoan.

(INAAN)

Akordatzen naiz txikitan ikusten nuela *Rick y Mort* telebistan.

Akordatzen naiz nire familiako kide batzuk zeudenean bizirik.

(AMETZ)

Akordatzen naiz kaktus bat jan nuela.

Akordatzen naiz nire txakurra sakrifikatu zutenean.

Akordatzen naiz Clarence seriea ikusten nuenean.

Akordatzen naiz lapurtu zidatenean nire spiderman jostailua.

(OIHAN)

Akordatzen naiz txikitan nire amamak ematen zidan txokolatearekin.

Akordatzen naiz nire aitonak egiten zituen tortillak oso gozoak zirela.

(AITOR)

Akordatzen naiz nire amamak barikuro merienda eskolara ekartzen zidala.

Akordatzen naiz txikitan joaten nintzela kanpinaz.

(LAIA)

Akordatzen naiz nire amamaren etxera joaten nintzela, eta lau txakur eukazala.

Bost txakur nituela akordatzen naiz.

(EZIZENA: PRISCILLA; IZENA: MIRARI)

Akordatzen naiz egun batean Lorenak ihes egin zuela, eta joan ginenean bilatzera Eroskin zegoen.

Akordatzen naiz neukala mobil aiaiai bat, Barbie, eta leku batetik jausi zela.

Akordatzen naiz bizikletan ibiltzen ikasi nuela, 4 urterekin.

Akordatzen naiz kaletik nindoala eta ia kotxe batek atropellatu ninduela.

(EZIZENA: MIRARI; IZENA: PRISCILLA)

Akordatzen naiz txikitan marrazki bizidunak ikusten nituenean.
 Akordatzen naiz herrian ezkutaketara jolasten nuela lagunekin.
 Akordatzen naiz herriko balkoian jolasten nuenean.
 Akordatzen naiz medikuagandik ihes egin nuenean.
 Akordatzen naiz nire amarekin plastilinazko perretxikoak egiten nituenean.
 Akordatzen naiz Jordaniara joan nintzenean.
 Nire aitarekin marrazki bizidunak ikusten nituenean akordatzen naiz.
 Nire aitona eta amonarekin baserrira igotzen nintzenean akordatzen naiz.

(NURA)

Akordatzen naiz nire eta nire etxe aurreko parkinean bizikletan ibiltzen ikasi nuela.

Akordatzen naiz nire aititte-amamek altzotan hartzen nindutela.

(ANER)

Akordatzen naiz nik txikitan Caillouren marrazki bizidunak ikusten nituela.

Akordatzen naiz ni nire etxe aurrean bizikletan ibiltzen nintzela.

(AIUR)

Akordatzen naiz egunero parkera joaten nintzela aititerek.

Akordatzen naiz besoa apurtu nuenean. Kubitoa.

Akordatzen naiz ez nuela inoiz txupeterik erabiltzen.

(ZURINE)

Akordatzen naiz nire amonak josten irakatsi zidanean.

Akordatzen naiz nire beste amonarekin kartetan jolasten genuenean.

Akordatzen naiz nire amonaren ahizpak lokartzen ninduela.

Akordatzen naiz nire aititeren etxean jolasten nuenean.

Akordatzen naiz nire beste aititek kantak kantatzen zizkidala.

(ARAIÁ)

Akordatzen naiz txikitan ikusten nituela marrazki bizidunak eta orain ahaztuta ditudala.

Akordatzen naiz nire amak txupetea ipintzen zidala eta nik botatzen nuela.

Akordatzen naiz ni txikitan oso trastoia nintzela.

(IKER)

Akordatzen naiz egun batean hautsi nuela besoa eta oso pozik egon nintzen igeltsua jarri zidatelako.

Akordatzen naiz gol bat sartu nuenean partidu batean.

(WILDEREX)

Akordatzen naiz txikitan nire lagun batek bere bizikleta utzi zidala, eta horrela ikasi nuen bizikletan ibiltzen.

Akordatzen naiz nire herrian txokolate bat zegoela, ez dut gogoratzen izena baina bai akordatzen naiz merkea eta oso goxua zela.

Akordatzen naiz nire herrian festa bat zegoela «tallaban» deitzen zena. Zure kontrako generoaz moxorrotu behar zinen eta joan behar zinen etxez etxe dantza egiten, eta dirua irabazten zenuen.

(FODE)

Akordatzen naiz jausi zitzaidanean nire amaren mobila balkoitik.

Akordatzen naiz Priscillarekin 80ko hamarkadako pertsonaiaz moxorrotu nintzenean.

Akordatzen naiz dantza egiten nuenean nire aitonarekin.

Akordatzen naiz ihes egin nuenean etxetik eta Priscillak, bere amak eta nire amak Eroskin topatu nindutela.

(LORENA)

CHARIF AOMAR OMAR

Sator hegalaria



CHARIF AOMAR OMAR (2007-)

Charif Aomar Omar, afrikar iparraldeko immigranteen semea, Iurretan jaio zen eta Iurretan ikasi zuen. Maiztegi Herri Eskolan LH2 egiten ari zela, 8 urterekin, 2015eko *Iurretako Literatur Lehiaketako* saria irabazi zuen ipuin honekin.

Urte berean, familiarekin hegaldatu zen Charif. Gaur egun Castelnau-d'Auzan (gaskoiz, *Castèthnau d'Eusan*) izeneko herri txikian bizi da, Frantzia hegoaldean. Batxilerreko azken urtean dago, zientzian, gero Medikuntza ikasteko asmoarekin.



SATOR HEGALARIA

Bazen behin sator bat hegan egin nahi zuena baina ez zuen lortzen eta bi hego egin zituen baina ez zekien maneatzen. Oihanera joan zen eta suge batekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Zuk ba al dakizu hegoak erabiltzen?

Baina sugeak ez zekien erabiltzen, eta itsasora joan zen eta bale batekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Zuk ba al dakizu hegoak erabiltzen?

Baina baleak ez zekien erabiltzen, eta mendira joan zen eta arrano batekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Zuk ba al dakizu hegoak erabiltzen?

Arranoak bai zekien erabiltzen eta hegoak erabiltzen irakatsi egin zion.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Iurretako plazan.



Sator hegalaria (Imanol Larrinaga, 2024).

AIPATUTAKO PERTSONA IZENEN BILABIDEA

- A.** D. : 142, 143.
 Abasolo, Adolfo: 293.
 Abasolo, Adolfo (barberoa): 367.
 Abasolo, Eider: 361.
 Abasolo, Eneko: 314.
 Abasolo, Jose Jabier (*Tiliño*): 197, 324, 331, 332, 361.
 Abasolo, Juan Inazio: 48, 254.
 Abasolo, Miren: 361.
 Abadia Urrustoi, Anton: 83-94.
 Aberri (Gotzon Osoro): 148.
 Abian, Enrique: 268.
 Aboitiz, Pedro: 267.
 Abrisketa, Serapi: 134.
 Agirre, Arantza: 253.
 Agirre, Joseba (*Iketza*): 360-361.
 Agirre, Jose Antonio: 118, 157, 159, 174.
 Agirre, Pedro: 142.
 Agirrezabal, Dunixi: 156.
 Agirrezabal, Pilar: 61, 62.
 Agirrezabal, Jose: 116, 404.
 Agirrezabal, Jose Domingo (*Mingo*): 181, 185, 191, 197, 309.
 Aizartaguena, Eñaut: 415-422.
 Aita *Donostia* (Jose Gonzalo Zulaika): 330.
 Aita *Madina* (Francisco Madina): 332.
 Aizpuru, Lontzi: 165-170, 240.
 Aizpuru, Maribel: 36, 238-244, 306.
 Ajuria, Irene: 253.
 Albéniz, Baltasar: 223.
 Alberdi, Agustin: 134, 309.
 Alberdi, Amaia: 302.
 Alberdi, Arrate: 293.
 Alberdi, Asier: 302.
 Alberdi, Asuncion: 370.
 Alberdi, Bartolomé: 17.
 Alberdi, Francisco: 17.
 Alberdi, Francisco Paulo (*Patxiko Paulo*): 370.
 Alberdi, Hilario: 328.
 Alberdi, Ignacio (*Fanfa*): 116.
 Aberdi, Jose (*Txo*): 199-211.
 Alberdi, Juan Antonio (*Pertxe*): 249.
 Alberdi, Juanita: 66, 68.
 Alberdi, Jule: 144.
 Alberdi, Justo (*Usagorri*): 181, 183-185, 187, 189, 192, 288, 301-312, 314, 324.
 Alberdi, Ramon (*Tranpa*): 116.
 Alberdi, Gilelme: 134.
 Alberdi, Simone: 153, 154.
 Aldekoa-Otalora, Antonio: 194, 196.
 Aldekoa-Otalora, Antton Mari: 22, 23, 74, 112, 181, 189, 260, 323-332, 360, 361.
 Aldekoa-Otalora, Demetrio (*Toledotxu*): 173, 174, 196.
 Aldekoa-Otalora, Estibaliz: 361.
 Aldekoa-Otalora, Jesus: 59, 60, 155.
 Aldekoa-Otalora, Leire: 361.
 Aldekoa-Otalora, Pedro Mari: 324.
 Aldekoa-Otalora, Pedro Martin: 161.
 Aldekoa-Otalora, Ziortza: 64, 361.
 Alegria, Oskar: 348.
 Alfonso XIII: 212, 307.
 Alper, Özcan: 348.
 Altuna, Asier: 348.
 Altuna, Patxi: 78.
 Altzibar, Koldobika: 135.
Altzeta (Carlos Linazasoro): 148.
 Álvarez Mendizabal, Juan: 267.
 Alzaga, Maria: 172.
 Alzola, Nikolas (*Bitaño*): 324.
 Amantegi, Juanan: 346.
 Ameztoui, Bixente: 57.
 Amezola, Jose: 78, 327, 328.
 Amezua, Francisco (*Patxiko*): 38.
 Amezua, Sebastian: 84.
 Amilburu, Demetrio: 260.
 Amilburu, Roman: 327, 372.
 Amorrortu, Francisco: 346.
 Ampuero, Jose Maria: 84, 96, 327.
 Amuriza, Xabier: 302, 314, 330.
 Andreu, Pedro Mari: 248.
 Andrinua, Martzel: 250, 261, 314.
 Añibarro, Pedro Antonio: 96, 100.
 Anitua, Maria Micaela: 112.
 Ansoleaga, Anton: 116.
 Anta: 311.
 Antonio *Beitiko* (Antonio Ibarra): 241.
 Antoniutti, Ildebrando: 118, 158.
 Aomar Omar, Charif: 433-435.
 Apoitia, Maria Zelestina: 49.
 Apraiz, Odon: 26.
 Apraiz, Sabin: 11.
 Arabiourrutia, Aitor: 383.
 Arana, Demetrio: 327.
 Arana, Jon: 383.
 Arana Martija, Jose Antonio: 40.

Arana, Jose Ignacio (*Aita Arana*): 78, 96, 327, 365.
 Arana, Julian: 78, 327, 370.
 Arana, Sabino: 87, 153, 326, 327, 365-366.
 Aranbarri, Martin: 47.
 Arandia, Pedro: 403.
 Arantzeta, Antoni: 314.
 Arantzeta, Florentina: 137.
 Arantzeta, Juanita: 255, 268.
 Arantzeta, Saturnino: 372.
 Arantzeta, Serafin: 314.
 Arconada, Luis Miguel: 223.
 Arealdegi, Domingo: 369.
 Areitio, Alaitz: 393-400.
 Areitio, Jon: 69, 71.
 Areitio, Juan Mari: 314.
 Areitio, Leire: 361.
 Areitio, Pablo: 308, 425.
 Arieta, Eneko: 218, 220.
 Arginzoniz, Antonio: 144, 363.
 Argiñano, Karlos: 309.
 Aroma, Amaia: 246.
 Aroma, Eskarne: 261.
 Aroma, Juan Antonio: 246, 251.
 Arregi, Manuel (*Tabirako Kurloia*): 7.
 Arregi, Pablo: 84.
 Arrese-Beitia, Felipe: 84, 87, 327.
 Arroitauregi, Jose Maria: 84.
 Arroitauregi, Kepa: 379-384.
 Arroitauregi, Maria Luisa: 53, 248.
 Arroitauregi, Miren: 361.
 Arroitauregi, Pedro: 53, 249.
 Arroiabe, Esteban: 367.
 Arroiabe, Mila: 300.
 Arroiabe, Vitoriano: 367.
 Arruabarrena, Imanol: 240, 244.
 Arruabarrena, Jon: 131.
 Arruabarrena, Josune: 240.
 Arruabarrena, Karmel: 240.
 Arruabarrena, Pilipa: 132.
 Arrue, Alberto: 165.
 Arrue, Gregorio: 237.
 Arrue, Jose: 110, 117.
 Arrupe, Pedro: 331.
 Arruti, Dominika: 371.
 Arteta, Aurelio: 170.
 Artetxe, Jose Luis: 218.
 Artetxe, Txomin: 247.
 Artiñano, Jose Antonio: 309.
 Artza, Rosa Mari: 271, 272, 277, 281-286.
 Artze, Joxean: 361.
 Arzoaga, Mercedes (*Eskarne*): 141.
 Aspuru, Asier: 383.
 Astarloa, Josefa: 35, 37, 51.
 Astarloa, Pablo Pedro: 327.
 Astarloa, Pedro: 96, 100.
 Astigarraga, Inazio: 406, 408.
 Ateka, Jose Luis: 274.
 Aurrekoetxea, Gotzon: 167.
 Axular (Pedro Agerre): 92, 335, 338.
 Azategi, Gergori: 134.
 Azkondo, Frai Juan: 403.
 Azkue, Resurrección María: 32, 35, 37, 38, 51, 52, 87, 119, 327, 330.
 Azpeitia, Julene: 253, 261.
 Azpillaga, Jon: 253.
 Azpitarte, Oskar: 406, 407.
 Azula, Bitor: 50.
 Azula, Kepa Miren: 135.
 Azurmendi, Maitane, 281.
Azurzuri: 152.
 Badiola, Maria Isabel: 252.
 Baertel, Daniel: 84, 85.
 Baertel, Samuel: 108.
 Bakijano, Juan Bautista: 362.
Bakixa: 130, 142.
 Balier, Joseba: 139.
 Balier, Mari Karmen: 251.
 Balmes, Jaime: 108.
 Barandiaran, Jose Migel: 330.
 Barandiaran, Julian: 283.
 Barquin, Fernando: 314.
 Barreda, Estibaliz: 381.
 Barroeta, Julian: 408.
 Barruetabeña, Edorta: 373-378.
 Barruetabeña, Karmelo: 324.
 Barrutia, Antonia: 372.
 Barrutia, Kosme: 181, 189.
 Basabe, Roman: 249.
 Basagoiti, Mari Tere: 251.
Basarri (Inazio Eizmendi): 200, 209, 253.
 Basterretxea, Markos: 16, 22, 27.
 Basterretxea, Nestor: 406.
 Baquijano y Carrillo, José Javier: 362.
 Beitia, Jesus: 312.
 Belakortu, Jesus: 116.
 Belar, Itziar: 361.
 Belar, Jose Agustin: 249.
 Belar, Juan Inazio: 407.
 Beloki, Lander: 152.
 Bengoa, Txomin: 285.

Bengoetxea, Belen: 13, 17, 24.
 Benito del Valle, Jose Maria: 272.
 Bergaretxe, Sinforino: 84.
 Bermudez, Juan Antonio: 294.
 Bernaola, Damaso: 84, 96, 327.
 Bernaola, Jose Maria: 96, 108.
 Berriozabalgoitia, Ana Mari: 288, 289.
 Berriozabalgoitia, Julian: 288, 289, 372.
 Besoita, Domingo: 84.
 Bidaurrezaga, Asensio: 210.
 Bikandi, Felix: 200, 203, 206, 207, 209.
 Bikandi, Fermin: 372.
 Bikandi, Juan (*Errotari*): 308, 331.
 Bikandi, Miren: 190, 191.
 Bilbao, Jeronimo: 260.
 Bilbao, Juan Bautista (*Batxi*): 132, 135.
 Bilbao, Erramone: 151.
 Bilbao, Genoveva: 172.
 Bilbao, Toma: 141.
Bilintx (Indalezio Bizkarrondo): 322.
 Biritxinaga, Doroteo: 308.
 Blasko, Lazaro: 346.
 Bonaparte, Louis-Lucien: 91, 93.
 Bourdon, Mathilde: 96.

Cánovas del Castillo, Antonio: 327.
 Carlos VII: 72.
 Caro Baroja, Julio: 330.
 Carrillo de Córdoba, María Ignacia: 362.
 Casillas, Iker: 223.
 Cedrun, Karmelo: 213-224, 264, 312.
 Chopin, Frédéric: 410, 411.
 Cirarda, Jose María: 280.
 Clemente, Javier: 220.
 Coello, Aitziber: 394-400.
 Coloma, Luis: 108.
 Conde, Antolin: 406-408.

Darrigol, Jean-Pierre: 93.
 Darwin, Charles: 7.
 Daucik, Ferdinand: 223.
 Davant, Jean-Louis: 272.
 Delmas, Juan: 96.
 Díaz, Rosa: 381.
 Di Estéfano, Alfredo: 214, 220, 221.
 Dodgson, Edward Spencer: 96, 97, 108.
 Dolara, José María: 108.
 Doliwa, Richard: 4.
Don Frantzisko (Francisco Ortuzar): 190, 256, 267.
Don Kanuto (Canuto Unamunzaga): 190.

Dorronsoro, Jose Mari: 278, 279.
 Dorronsoro, Lukas: 278.
 Duandikoetxea, Juan: 308.
 Duñabeitia, Pedro: 367.
 Duñabeitia, Rufiña: 26.
Durangoko Plateruak (Francisco & Juan Cruz de la Fuente): 113.
 Duvoisin, Jean: 84, 87.

Egaña, Andoni: 249.
 Egibar, Antonia: 259.
 Egibar, Joseba: 259.
 Egileor, Aniceto: 363.
 El Hazar, Andres: 295.
 Eliot, Thomas Stearns: 409-414.
 Elizanburu, Joan Batista: 236.
 Elordi, Joseba: 162.
 Elorriaga, Joseba: 246.
 Elorriaga, Nerea: 409-414.
 Elorza, Igor: 200, 253.
 Elosu, Florentino: 107-109.
 Ellakuriaga, Izaskun: 385-392.
 Enbeita, Balentin: 200, 209, 210, 253.
 Enbeita, Imanol: 130.
 Enbeita, Jon: 253, 285, 314.
 Enbeita, Kepa: 138, 145, 146, 149, 322.
Erbindura: 148.
 Erdoiza, Begoña: 181, 184, 186.
 Ereñaga, Martin: 372.
 Errazti, Alberto: 11-29, 172.
 Errementeria, Pantzeske: 152.
 Ertzillurruti, Domingo: 370.
 Ertzilla, Bartolome: 96.
 Ertzilla, Manu: 346.
 Ertzilla, Domingo: 371.
 Ertzilla, Jose (*Txiron*): 371.
 Ertzilla, Ibon: 208.
 Ertzilla, Maritxu: 371.
 Ertzilla, Pilar: 371.
 Ertzilla, Txomin: 371.
 Esparza, Iñaki: 167.
 Estankona, Igor: 168.
 Esturo, Pedro: 367.
 Esturo, Sabino: 17.
Ete (Elixabete Aginaga): 149.
 Etxaniz, Juanita: 33.
 Etxaniz, Leire: 381.
 Etxaniz, Mariano (*Maren*): 141.
 Etxaniz, Nemesio: 164.
 Etxeandia, Jose: 268.
 Etxebarria, Aitor: 226.

- Etxebarria, Dionisio (*Dunixi*): 156.
 Etxebarria, Igone: 226.
 Etxebarria, Iñigo: 408.
 Etxebarria, Mari Luz: 312.
 Etxebarria, Pantaleon: 408.
 Etxebarria, Toribio: 148.
 Etxeberria, Antoni: 145.
 Etxeberria, Mikel: 273.
 Etxebarrieta, Txabi: 330.
 Etxeita, Victoriano: 17.
 Etxenagusia, Karmelo: 54, 225-238, 258, 271, 329.
 Etxenagusia, Maria: 18.
 Etkezarraga, Luki: 151.
- F***ernán Caballero* (Cecilia Böhl de Faber): 96, 108.
 Fernandez, Illumine: 151.
 Fernandez, Lupe: 286.
 Fernandez de Arroiabe, Esteban: 368.
 Fernandez Setien, Jazinto: 271, 272.
 Fernando VII: 362.
 Ferreria, Antonio: 49.
 Ferreria, Benito: 49.
 Ferreria, Isidro: 116.
 Ferreria, Jeronimo: 49.
 Ferreria, Jose: 116.
 Ferreria, Kandida: 49.
 Ferreria, Nikolas: 49, 367, 371.
 Ferreria, Pedro Anastasio: 49.
 Frances, Luciano: 268.
 Franco, Francisco: 7, 19, 173, 177, 180, 216, 218, 255, 262, 263, 278, 279, 280, 299, 365.
- G**abika, Alberto: 274, 275, 330.
 Gabikagogeaskoa, Sabino: 371.
 Gabilondo, Mireia: 348.
 Gainza, Piru: 217, 218.
 Galarza, Pantxike: 69, 71.
 Gallastegi, Juan Bixente: 245-263, 314, 317, 321, 322, 328, 329.
 Gallastegi, Lander: 254, 328, 330.
 Gaminde, Jon: 360.
 Ganboa, Jagoba: 162.
 Gandarias, Rosa Mari: 252, 261.
 Gandiaga, Juanito: 331.
 Gandiaga, Santiago: 141.
 Garai, Jesus: 218, 219.
 Garate, Francisco: 220.
 García, Lis: 381.
 García Melchor, Fidel: 404.
- Garitaonandia, Balbino: 78, 95-105, 113, 327, 365.
 Garitaonandia, Pablo: 404, 406.
 Garmendia, Mari Karmen: 271.
 Garmendia, Txomin: 209.
 Garrastatzu, Domeka: 143, 144.
 Gartzia, Pruden: 331.
 Gastañatzatorre, Pilipa: 138.
 Gastañatzatorreko Irene: 45.
 Gastañazatorre, Pedro Martin: 96.
 Gento, Francisco: 220.
 Gerediaga, Alaitz: 361.
 Gerediaga, Jabier: 308.
 Gerediaga, Joaquin: 407.
 Gibbs, Lancelot: 110.
Gogorra (Gregorio Ruiz Ertzilla): 148.
 Goikoetxea, Iñaki: 261.
 Goiria, Nerea: 214.
 Gonzaga, Luis: 156.
 Gonzalez, Mikel: 383.
 Gorospe, Julian: 303.
 Gorostiaga, Eulogio: 144, 145.
 Gorostiaga, Juan Miguel: 291, 293, 294, 295.
 Gorostidi, Pedro: 255, 261.
 Gorostiza, Angel: 363.
 Gorriti, Iban: 386.
 Gorroño, Amaia: 252, 255.
 Gorroño, Gregorio: 308.
 Granada, Fray Luis de: 108.
 Green, Eugène: 348.
 Guezala, Antonio de: 379.
 Gurpide, Pablo: 276.
 Gurtubay, Carmen (Iurretako Markesa): 212.
 Gutenberg, Johannes: 7.
 Gutierrez, Ana Mari: 294.
 Gutierrez, Pepe: 162.
- H**araneder, Joanes: 92.
 Hermosilla, Julio: 116.
 Hormaetxea, Juan: 209, 210.
 Hormaetxebarrengo, Josefa Sebastiana: 74.
 Humboldt, Wilhem von: 327, 360.
- Ibarra, Edurne: 312.
 Ibarra, Juan Miguel: 372.
 Ibarra, Miren: 132.
 Ibarra, Patxi (*Presi*): 116.
 Ibarra, Paul: 132.
 Ibarra, Pulgentze: 132.
Imanol (Imanol Arruabarrena): 244.
 Inchauspe, Emmanuel: 91, 93.

Iparragirre, Jose Maria: 84, 330.
 Iraragorri, Jose: 218.
Inatzeder (Jean Marie Ihartza): 272.
 Irazabal, Iñaki: 18, 228, 245, 358.
 Irazabal, Jon: 15, 20, 84, 288, 289, 294, 357-372, 416.
 Iribar, Jose Anjel: 214, 220, 223.
 Irigarai, Eneko: 272.
 Irigoien, Alfonso: 12, 13, 15, 16, 17, 19, 21, 26, 210, 253.
 Irigoien, Iñaki: 360.
 Iriondo, Lourdes: 275, 329.
 Iriondo, Rafael: 217, 218, 295, 297-300.
 Iriondo, Tomas: 404.
 Isabel Gaztelakoa: 28.
 Isasi-Isasmendi, Manuel (*Uretabarren, I. I.*): 130, 145, 146, 147, 148, 149.
 Isasmendi, Ane: 381.
 Isasmendi, Irene: 151.
 Isasmendi, Jon Kurutz: 145.
Iturri (Pedro Ortuzar): 211.
 Iturriaga, Unai: 200, 253.
 Iturriza, Juan Ramón: 20.
 Iza, Pedro: 161, 194.
 Izagirre, Pedro: 84.
 Izarzugaza, Josepa: 181, 186, 192, 197.
 Izarzugazaga, Kepa: 145.
 Izurieta, Jose Antonio (*Txikuri*): 293.

Jainaga, Lorenzo: 164.
 Jaio, Agurtzane: 361.
 Jaio, Leandro: 181, 193.
 Jaio, Maribi: 288, 289.
 Jaio, Mari Jose: 291.
 Jaio, Rufino: 308.
 James, Henry: 410.
 Jauregi, Juan: 370.
Jayuri: 130, 150.
 Joan XXIII: 261, 280.
 Joanategi, Bazilio: 93.
Jose Mari (Jose Maria Izarzugaza): 242.
 Juaristi, Valentín: 346.

Kabiroaga, Kastor: 404.
 Kaltzada, Doroteo: 266.
 Kaltzada, Julen: 255, 265-280, 329, 330.
 Kanpion, Arturo: 84, 87.
 Kapanaga, Martin: 367.
 Kardaberaz, Agustin: 92.
 Kastrejana, Pedro: 210.
Kirikiño (Ebaristo Bustinza): 129-148, 172.

Kneipp, Sebastian: 108.
 Kopa, Raymond: 220.
 Kortabitarte, Patxi: 252.
 Kortazar, Jon: 226.
 Kubala, László: 214, 218, 224.

Labéguerie, Michel: 275, 276, 329.
 Laboa, Mikel: 386.
 Lafitte, Piarres: 272.
 Landaburu, Ander: 183.
 Landaburu, Felix: 159.
 Landaburu Azkue, Peli: 159.
 Landajuela, Andoni: 166.
 Landerretxe, Martin: 84, 90-94.
 Larragan, Domingo: 96, 327.
 Larramendi, Andoni: 152.
 Larramendi, Manuel: 97.
 Larrañaga, Ana: 407.
 Larrañaga, Toma: 142.
 Larre, Emile: 272.
 Larrea, Adur: 266.
 Larrea, Angel: 167.
 Larrinaga, Bernardo (*Arki*): 249.
 Larrinaga, Imanol: 436.
 Larrinaga, Jose Mari: 260.
 Larrinaga, Kepa: 156.
 Lartzabal, Piarres: 276.
 Lasarte, Manuel: 209.
Lauaxeta (Esteban Urkiaga): 130.
 Lauzirika, Milagros: 63, 181, 187.
 Lauzurica, Javier: 147, 149, 150, 158, 161-164, 183.
 Lauzurica, Pedro: 161.
 Lazkano, Segun: 391.
Lazkao Txiki (Joxe Migel Iztueta): 209.
 Lazpita, Juan: 78, 162.
 Leemans, Itziar: 348.
 Leizaola, Jesus Maria: 299.
 Lejardi, Rosa: 360.
 Lejarreta, Jose: 72.
 Lekuona, Michel: 272.
 Leon, Teresa: 371.
 Lertxundi, Benito: 275, 276, 326.
 Lete, Xabier: 329.
 Linaza, Maria: 65, 70.
 Lizarralde, Bittor: 155.
 Lizarralde, Jose Mari (*Txantxa*): 254.
 Lizaso, Joxe: 200.
 Lizaaur, Benito: 407.
 Lizundia, Jose Luis: 21, 26.
 Lopategi, Jon: 200, 253.

Lopez Alen, Francisco: 84.
 Lopez, Francisco Manuel (*Paco*): 372.
 Lopez, Enneco: 17.
 López Panizo, José Luis: 217, 218.

Madariaga, Gregorio: 367, 371.
 Madariaga, Maite: 404.
 Maeztu, Leonia: 299, 300.
 Magdalena, Peru: 181, 195, 348, 356.
 Maiztegi, Eugenia: 47.
 Maiztegi, Gotzone: 138.
 Maiztegi, Juan Jose: 146, 147.
 Mallona, Jose Antonio: 261.
 Manterola, Ander: 229-238, 268, 269, 271, 272, 275, 330.
 Manterola, Jose: 84, 87.
 Manzanas, Melitón: 330.
Maño (Mariano Urkidi): 190, 193, 194.
 Marconi, Guglielmo: 7.
 Mardaras, Kristina: 181, 184, 185, 188, 191, 193, 194, 198, 251, 253, 255, 261, 288, 294, 302, 312, 313-322.
 Mardaras, Sabin: 50, 312.
 Mardaras, Timoteo: 146.
 Mardaras, Zirilo (*Mauma*): 130-141, 314.
Maria Errekalde (Maria Lejarraga): 368, 371.
 Markaida, Felix: 218.
 Markiegi, Jose: 148.
 Marlowe, Christopher: 410.
 Martinez, Jon: 407.
 Martinez, Josu: 348.
 Martinez, Juan: 291.
 Mateo, Manuel: 405, 406, 407.
Matsorri: 130, 153.
 Meabe, Kepa: 152.
 Meabe, Frantzisko, 258.
 Mendibe, Juan: 371.
 Mendibil, Gontzal, 275.
 Mendiburu, Sebastian: 92.
 Mendigatxa, Mariano: 119.
 Mendiola, Felipe: 404.
 Mendiola, Julian: 404.
 Mendiola, Simon: 404.
 Mendiola, Txomin: 404.
 Mendiolagarai, Zipri: 181, 187, 191, 406.
 Menéndez Pelayo, Marcelino: 108.
 Mengs, Carlos: 365.
 Mentxaka, Joseba Mirena: 155.
 Merckx, Eddy: 303.
 Merodio, Zigor: 394.
 Merry del Val, Alfonso: 212.

Miangolarra, Jesus (*Mingolarra*): 112.
 Miangolarra, Jose Maria: 111, 112, 114.
 Miangolarra, Obdulia: 112.
 Miangolarra, Victoria: 112.
 Mingolarra, Lorenzo: 112.
 Mintegia, Maria Pilar: 289, 293.
Miren Trazolako (Maria Mardaras): 241.
 Mitxelena, Jose Joakin: 209.
 Mitxelena, Koldo: 18, 24, 26, 29.
 Mogel, Juan Antonio: 93, 96.
 Mogel, Juan Jose: 96.
 Mokoroa, Eduardo Justo: 252, 260, 321.
 Monzon, Telesforo: 272.
Moro: 311.
 Mugartegi, Juan: 200.
 Mugika, Jesus Mari: 279.
 Múgica, Mateo: 160, 163.
 Muguruza, Fermin: 348.
 Muniategi, Abel: 330.
 Munitxa, Jone: 152.
 Munitxa, Koldobika: 151.
 Munitxa, Sebastian: 151, 181, 186, 367, 371.
 Muñagorri, Jose Antonio: 326.
 Murgoitio, Kelmen: 155, 156.

Navarro Villoslada, Francisco: 96.
 Nikaxio (Zugatzagoitiko): 145.

Oceja, Isaac: 220.
 Okina, Iraia: 4, 225, 423.
 Okina, Santos: 4, 30.
 Olano, Gregorio: 169.
 Olazabalaga, Julian: 272, 273.
 Oleaga, Maider: 348.
 Oleaga, Rosi: 407, 408.
 Onaindia, Ander: 136.
 Onaindia, Domeka: 134.
 Onaindia, Markel: 288, 358, 401-408.
 Onaindia, Santi: 87.
 Ordorika, Ruper: 20.
Orixe (Nikolas Ormaetxea): 130.
 Orobiogoitia, Juan: 362.
 Orobio-Urrutia, Jose Angel: 108.
 Orue, Carlos: 96.
 Oteiza, Jorge: 330.
 Otxandategi, Joseba Mirena: 140.
 Otxandategi, Pirmin: 140.
 Otxandategi, Sotera: 192, 310-312, 315.
 Otxandategi, Tomasa: 38.

Parmentier, Antoine Augustin: 120, 121.
 Paternain, Manuela Jesus Pilar: 108.
Pelé (Edson Arantes do Nascimento): 342.
 Peña, Ignacio: 371.
 Peñagarikano, Anjel Mari: 249.
 Pereda, Jose María: 108.
 Pérez, Julián: 405, 406.
 Pérez, Lidia: 249.
 Pérez Lezama, Raimundo: 214, 218, 223.
 Pérez, Venancio: 217, 218.
 Perosi, Lorenzo: 153, 155.
 Pertika, Jon: 360, 361.
Peru: 130, 139, 140.
 Peskador, Juan: 270.
 Pinedo, Jose: 116.
 Podversich, Irina: 381.
 Pradera, Itsaso: 381.
 PrévotEAU, Georges: 110.
 Primo de Rivera, Miguel: 7, 130, 307, 327.
 Pujana, Basilio: 200, 253.
 Puskás, Ferenc: 220.

Quintela, Carlos: 348.

Ramona (Ramona Usabel, jostuna): 241.
 Reclus, Elisé: 7.
 Regoyos, Darío de: 106.
 Rementeria, Jose: 259, 267.
 Retes, Espe: 152.
 Retes, Ignacio: 372.
 Retolaza, Jose Antonio: 249, 254, 329.
 Rial, Héctor: 220.
 Ryan, Eduardo: 253, 263.
 Rian, Gillermo: 263.
 Ríos, Celestino de los: 307.
 Robles-Arangiz, Estitxu: 272.
 Rodríguez, Fabian (*Kapri*): 372.
 Rodríguez, Zacarías: 116.
 Romo, Maria Ana: 112.
 Ruiz, Uri: 291.
 Ruiz de Arbulo, Isidoro: 52, 96.

Saavedra, Enrique: 372.
 Saez, Laura: 381.
 Sagarmínaga, Fidel: 84.
 Salaberria, Gorka: 346.
 Salaberria, Pello: 348.
 Sánchez Azpuru, Pablo: 288-295.
 San Martín, Juan: 266, 271.
 Santa Teresa, Frai Bartolome de: 96.
 Santa Kruz, Imanol: 136, 172.

Santa Kruz, Javier: 172.
 Santa Kruz, Julian: 171, 172.
 Santa Kruz, Maria Luisa: 172.
 Santa Kruz, Sabin: 172.
 Santamaria, Frantzisko: 262.
 Saramago, Jose: 356.
 Sarasua, Maialen: 348.
 Sardui, Deunoro: 253.
 Sarriónandia, Irene: 251, 255.
 Sarriónandia, Joseba: 16, 17, 22, 197, 347-356, 386.
 Sarriónandia, Miguel: 348.
 Sarriugarte, Montse: 289, 291.
 Sedrun, Begoña: 312.
 Sedrun, Eugeni: 312.
 Sedrun, Milagros: 254, 312.
 Sedrun, Moises: 188, 310, 311, 312.
 Sedrun, Serafin: 312.
 Segura, Pedro: 160.
 Shakespeare, William: 251.
 Schmid, Christoph von: 96.
 Soloaga, Roberto: 108.
 Sopelana, Iñaki: 248, 249, 252, 309.
 Sopelana, Jabier: 246.
 Sopelana, Mikel: 74, 205, 249, 291, 293, 309, 324, 331, 332.
Sorkunde: 154.
 Stephens, Edward Bell: 360.

Tauer, Norbert: 252.
 Terreros, Prudentzia: 112.
 Tillac, Paul: 33.
 Trueba, Antonio: 96, 108.
Txindurri (Guillermo Bengoetxea): 145.
 Txintxurreta, Mari Carmen: 12.
Txirrita (Jose Manuel Lujanbio): 322.
 Txopitea, Maria Josefa: 367.
Txori-eder: 130, 135, 140, 141.

Ugarte, Inhar: 383.
 Ugarte, Koldobika: 164.
 Ugarte, Pedro Mari: 251.
 Unamuno, Miguel de: 7, 12.
 Unamunzaga, Domeka: 156.
 Unamunzaga, Gregorio: 372.
 Unamunzaga, Honorato: 116.
 Unamunzaga, Julian: 84, 86, 327, 363.
 Unzueta, Jose: 186.
 Unzueta, Miren: 134.
 Unzueta, Pedro: 116.
 Urberuaga, Anastase: 155.



Urcola, Fermin: 29.
 Uria, Begoña: 251.
 Uriarte, Estepan: 143.
 Uriarte, Kepa: 391.
 Uriarte, Pantzeska: 156.
 Uribarrena, Justo (*Lebron*): 140, 307, 363.
 Uribastera, Adolfo: 153.
 Uribe, Benito: 54, 116.
 Uribe, Ignacio: 218.
 Uribeganekoa, Domeka: 139.
 Uribelarrea, Anjel: 183.
 Uribelarrea, Jesus Mari: 324, 333.
 Uribelarrea, Natalia: 181, 183, 190, 195, 348.
 Uribesalgo, Isaak: 262.
 Urien, Jose Antonio: 324.
 Uriolabeitia, Miren Alazne: 151.
Urko (Joxean Larrañaga): 276.
Urni (Isaac Urnieta): 132.
Urondo: 130, 152, 154, 155.
 Urraca Pastor, María Rosa: 151.
 Urrutia, Jose Enrique (*Kapo*): 333-346.
 Urtiaga, Jose Luis: 324.
 Usabel, Gabino: 161.
 Usandizaga, Jose Maria: 321.
 Usaola, Angel: 314.
Uztapide (Manuel Olaizola): 200, 209.

Valdes, Julio: 328.
 Vinci, Leonardo da: 409.

Wright, Wilbur: 110.
 Wright, Orville: 110.

Xabier Lizardi (Jose Maria Agirre): 16.
 Xarriton, Piarres: 272, 274.
Xenpelar (Juan Frantzisko Petriarena): 322.

Zabala, Joseba: 314.
 Zabala, Kleto: 365.
 Zabala, Txaber: 382.
 Zabaleta, Jon: 305, 357.
 Zamakona, Maren: 156.
 Zamalloa, Edita: 45.
 Zamalloa, Felipa: 45.
 Zamalloa, Ilari: 161.
 Zamalloa, Iñaki: 150, 151, 162.
 Zamalloa, Irene: 45, 161.
 Zamalloa, Josebe: 151, 181, 196.
 Zamalloa, Jose Antonio: 164, 249, 252.
 Zamalloa, Jose Felix: 22.

Zamalloa, Juan: 28, 237, 309.
 Zamalloa, Kandi: 45, 190.
 Zamalloa, Markos: 150, 161, 193.
 Zamalloa, Miren: 161.
 Zamalloa, Serafin: 252.
 Zarandona, Juan: 404.
 Zarate, Domeka (*Bargundi*): 117-128, 132, 135, 151, 157-164, 193.
 Zarate, Julen: 133, 138.
 Zarate, Mikel: 226.
 Zarate, Ramona: 150, 161, 193.
 Zarate, Pilipa: 132, 151, 157-164, 328.
Zarra (Telmo Zarraonandia): 217-218.
 Zarrabeitia, Celestino (*Txaraka*): 367.
 Zarrabeitia, Jose Mari: 249, 250.
 Zarraga, Florentzio: 210.
 Zavala, Antonio: 51.
 Zelaieta, Candido: 371.
 Zelaieta, Carlos Antonio: 73-76, 327.
 Zelaieta, Juan Antonio: 74, 79, 327.
 Zelaieta, Leandro: 74, 77-82, 327.
 Zelaieta, Martin: 362.
 Zelaieta, Martin Antonio: 74.
Zeleta (Juan Garmendia): 148.
Zepai (Akilino Izagirre): 209.
 Zizili (Zugatzaigoitiko): 145.
 Zorraquin, Germán: 14, 121.
 Zuazo, Amagoia: 361.
 Zuazo, Emiliano: 72, 217, 264.
 Zuazo, Erroman: 156.
 Zuazo, Joseba: 144.
 Zuazo, Martzel: 312.
 Zuazo, Nikolas: 152, 232.
 Zuazo, Silberio: 161.
 Zubia, Nikolas: 40.
 Zubizarreta, Pedro: 363.
 Zubizarreta, Pedro Jose: 254.
 Zugaza, Leopoldo: 289.
 Zugaza-Artaza, Ezekiel: 256, 258.
 Zugaza-Artaza, Josefina: 253.
 Zugaza-Artaza, Mari Tere: 252, 255.
 Zugaza-Artaza, Silvestra: 136, 298, 363-364.
 Zuluaga, Domingo: 47-48.
 Zuluaga, Eusebio: 106.
 Zuluaga, Ignacio: 106.
 Zumarraga, Benito: 116, 152.
 Zumarraga, Frai Juan: 12.
 Zumarraga, Jose: 371.
 Zurituriza, Itziar: 261.

AURKIBIDEA

ATAURREA.....	7
BERBAK MAPAN: IHURRETAKO LEKU-IZENAK	
<i>Alberto Errazti</i>	11
ABESTIAK, KOPLAK ETA ERREZITATUAK	
<i>Mundu pasatuaren hondakin ederrak</i>	31
IPUIN ZAHARRAK	
<i>Bost atzamar markaute esku erre bategaz</i>	57
CARLOS ANTONIO ZELAIETA	
<i>Gura eta gura ez autortu biar dogu non surrexit</i>	73
LEANDRO ZELAIETA	
<i>Elexa onetan zagozenic gueijenoc badaquizube</i>	77
1891KO EUSKAL JAIK	
<i>Letra-guda, indar-neurtze eta azkartasunezko jokoak</i>	83
BALBINO GARITAONANDIA	
<i>Bartgo gaba, etxetik kanpora egon arren, ez dot alperrik galdu</i>	95
FLORENTINO ELOSU	
<i>Euskeria galduta foruekaz bizi</i>	107
JOSE MARIA MIANGOLARRA	
<i>Iurretako zubiaren haraindiko etxekoa</i>	111
DOMEKA ZARATE	
<i>Lugiña deitzen yako luña erabiñi ta landuaz bere ogibidia irabazten daunari</i>	117
<i>EUZKADI</i>	
<i>Iurretako kronikak</i>	129
PILIPA ZARATE	
<i>Garaitik Rondara Lovainatik pasatuta</i>	157
LONTZI AIZPURU	
<i>Lehenaldietako kili-kilia</i>	165
JULIAN SANTA KRUZ	
<i>Gerrako ibilerak</i>	171
JAZOERA-ESAERAK	
<i>Kristina Mardaras, Begoña Erdoiza, Justo Alberdi eta enparauak</i>	181
JOSE ALBERDI, TXO	
<i>Gure bertso giroa</i>	199
KARMELO CEDRUN	
<i>Porterue da lekurik txarrena</i>	213
KARMELO ETXENAGUSIA	
<i>Denda nagusien agindupean bizi gara</i>	225
MARIBEL AIZPURU	
<i>Belozipedotik jausita</i>	239

JUANITO GALLASTEGI	
Lambrettan	245
JULEN KALTZADA	
Etxe hau herriarena da.....	265
ROSA MARI ARTZA	
Gazteriaren herrigintza.....	281
IKASTOLAREN LEHENENGO PAUSOAK	
Inspektorea berriro noiz agertuko beldurrez	287
RAFA IRIONDO	
Azken eskola frankista.....	297
JUSTO ALBERDI	
Bertsoak egiteko gogoak hartu nau.....	301
KRISTINA MARDARAS	
Bazan behin sasoi bat gure etxaldeetan maitatzen giñena	313
ANTTON MARI ALDEKOA-OTALORA	
Iurreta, dabilen herri gara?	323
JOSE ENRIQUE URRUTIA, <i>KAPO</i>	
Ebrokoa.....	333
JOSEBA SARRIONANDIA	
Garaizarkoa.....	347
JON IRAZABAL	
Herri honen memoria	357
EDORTA BARRUETABEÑA	
Eguraldia beti da ona lagunekin jolastuz gero.....	373
KEPA ARROITAJAUREGI	
Pilotaren mundua	379
IZASKUN ELLAKURIAGA	
Gure etxeetaraino heldu den ahotsa.....	385
ALAITZ AREITIO	
Pipitaki papataki, Alaitzek erantzuna daki.....	393
MARKEL ONAINDIA	
Begien aurrean eduki arren, ez gara gure historiaren atal esanguratsuak ezagutzeko kapaz.....	401
NEREA ELORRIAGA	
Hemen egongo naiz eserita, lagunei tea zerbitzatzen	409
EÑAUT AIARTZAGUENA	
Mundua irribarrez marrazten	415
MAIZTEGI ESKOLAKO IKASLEAK	
Ahazten dena ez da akorduan geratzen	423
CHARIF AOMAR OMAR	
Sator hegalaria.....	433
AIPATUTAKO PERTSONA IZENEN BILABIDEA.....	437

Iurretako **berbeta eta **literatura**:**
sator **hegalariak**

liburuaren moldaketa 2024ko
azaroan burutu zen

(Domusantu Egunean amaituta, loreak gure aurrekoei)

Rodona Industria Gráfica moldiztegia,

fotokonposaketarako A Garamond,

Minion eta Lance condensed

hizki motak erabiliz.

Lehenbiziko edizio hau

mila alekoa

izan da.

